Etxeberri Bilduma (EHS)
ZUZENDARIA: Mikel Zalbide

1. *Euskararen Historia Soziala (EHS).*
Argibide bibliografikoak (Lehen emanaldia)
Joseba Intxausti. 2011

2. *Euskara eta hizkuntzak, gizartean (EHS).*
I. Aitorpenak. Ekinbideak.
Joseba Intxausti. 2014

3. *Euskara eta hizkuntzak, gizartean (EHS).*
II. Jarrerak. Politikak. Pedagogiak.
Joseba Intxausti. 2014

4. *Euskara eta hizkuntzak, gizartean (EHS).*
III. Erlijioak. Eliza kristauak.
Joseba Intxausti. 2014

5. *Sociedad y Lengua Vasca en los siglos XVII y XVIII.*
Juan Madariaga Orbea. 2014

6. *Euskararen historia soziala lantzeko eredu metodologikoa.*
Mikel Zalbide, Lionel Joly eta Nikolas Gardner. 2015

7. *La Vasconia peninsular en las fuentes árabes (años 711-929).*
Jesús Lorenzo Jiménez. 2018

8. *Towards a methodological model for a social history of languages: a Basque contribution.*
Mikel Zalbide eta Lionel Joly. 2022

9. *Donostia, euskara, eta Europako hizkuntzak perspektiba soziohistorikoan.*
Lionel Joly Charrasse, Mikel Zalbide Elustondo. 2023

www.euskaltzaindia.eus

Etxeberri Bilduma (EHS)

La colección *Etxeberri Bilduma (EHS)*
atiende a la historia sociolingüística del euskera,
publicando documentos históricos y trabajos de investigación,
tanto estudios actuales como escritos dispersos precedentes.
Tendrá en cuenta también investigaciones de otros países y lenguas.

La collection *Etxeberri Bilduma (EHS)*
traite de l'histoire sociolinguistique de la langue basque,
en publiant des documents historiques et des travaux de recherche,
aussi bien des études actuelles que des écrits dispersés déjà publiés.
Elle tiendra compte des recherches des autres pays et des autres langues.

Etxeberri Bilduma (EHS) collection presents
a sociolinguistic perspective on the history of the
Basque Language which is based on the review of varied and
widely sourced material encompassing historical documents and more
recent research papers and publications. It will also take note
of relevant research from other countries and languages.

9 788412 631326

9

Etxeberri Bilduma (EHS)

DONOSTIA, EUSKARA, ETA EUROPAKO HIZKUNTZAK PERSPEKTIBA SOZIOHISTORIKOAN

LIONEL JOLY CHARRASSE, MIKEL ZALBIDE ELUSTONDO

DONOSTIA, EUSKARA, ETA EUROPAKO HIZKUNTZAK PERSPEKTIBA SOZIOHISTORIKOAN

Argitarazleak:
Lionel Joly Charrasse, Mikel Zalbide Elustondo

Etxeberri Bilduma (EHS) euskararen historia
soziolinguistikoari eskainitako liburu-sorta da;
agiriak eta ikerlanak biltzen ditu,
idazlan berriak eta lehendik sakabanatuta daudenak.
Erbestetik edo beste hizkuntzetatik
argigarri izan daitezkeenak ere gogoan izango ditu.

Lionel Joly Charrasse (Avignon, Frantzia, 1976).

Soziolinguista da, eta 2004an Parisko Sorbonako Unibertsitatean doktoratua.

Geroztik, soziolinguistika ikasketak eta ikerketak egin ditu erakunde publiko zein pribatuetan (Soziolinguistika Klusterra, Euskal Herriko Unibertsitatea, Eusko Jaurlaritza, Euskaltzaindia, UEU, Euskararen Aholku Batzordea eta abar).

Euskaltzaindiak sustatutako Euskararen Historia Soziala egitasmoaren ikerketa-arduraduna da gaur egun.

45 artikulu baino gehiago idatzi ditu euskaraz, frantsesez eta ingelesez, eta 9 liburutan parte hartu du. Horrezaz gainera, soziolinguistikari buruzko hainbat ikastarotan koordinatzaile eta irakasle aritu da, Euskal Herrian eta atzerrian.

Mikel Zalbide Elustondo (Donostia, 1951).

Industria ingeniaria da, Nafarroako Unibertsitatean ikasketak egina. Hizkuntza eta gizarte zientzietako hainbat arlotan lan egin du, eta urte askoan lagundu du Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-eremu elebidunean, hizkuntzaren soziologiari, historia sozialari eta hizkuntza-plangintzako programei buruzko gure ezagutzak aurrera egin dezan.

Elhuyar Elkartearen sortzaileetako bat izan zen (1972) eta Euskal Herriko Unibertsitatea sortzeko Kontseiluaren eskubide osoko kidea ere izan zen (1978-1979).

1981etik hasi eta erretiroa hartu zuen arte, 2014an, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzuko buru izan zen.

Pedagogia, hezkuntza eta soziolinguistika arloetan proiektu askoren ezarpenean eta sorkuntzan parte hartu du. Liburu eta artikulu ugari idatzi ditu alor horiek jorratuz, eta Soziolinguistikari buruzko zenbait ikastarotako irakaslea izan da Euskal Herrian eta atzerrian.

Euskaltzaindiko kide izendatua izan zen 1983an, eta euskaltzain oso 2006an; bertako Euskararen Historia Soziala egitasmoaren zuzendaria da gaur egun.

EUSKALTZAINDIA
ROYAL ACADEMY OF THE BASQUE LANGUAGE
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

kutxa
FUNDAZIOA

Etxeberri Bilduma (EHS)

DONOSTIA, EUSKARA ETA EUROPAKO HIZKUNTZAK PERSPEKTIBA SOZIOHISTORIKOAN

Lionel Joly Charrasse
Mikel Zalbide Elustondo
(arg.)

DONOSTIA, EUSKARA ETA EUROPAKO HIZKUNTZAK PERSPEKTIBA SOZIOHISTORIKOAN

Argitarazleak:
Lionel Joly Charrasse, Mikel Zalbide Elustondo

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

BILBO
2023

ETXEBERRI BILDUMA
Director / Zuzendaria: Mikel Zalbide

Argitalpen honen fitxa katalografikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca: www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque: www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

Euskaraz idatzitako testuen hizkuntza-orrazketa:
Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia (HIZBEA)

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrightaren jabearen
aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

© Egile bakoitzak bere artikuluarena.
© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.
Diseinua: Ikeder, S.L.
Maketatzea: Leitzaran
Inprimatzea: Leitzaran Grafikak
ISBN: 978-84-126313-2-6
Lege-gordailua:
D-0457-2023

AURKIBIDEA

1. *Mikel Zalbide Elustondo*
Hitzaurrea 7

2. *Lionel Joly Charrasse*
Kultura, historia, hizkuntza: loturak eta azterketarako metodologiak 11

3. *Mikel Zalbide Elustondo*
Donostiako hizkuntzak, perspektiba soziohistorikoan 49

4. *Juan Madariaga Orbea*
Donostia y sus lenguas en el siglo XVIII 93

5. *Koldo Larrañaga Elorza*
Bascongada Errege Elkarteak burutu kultur ibilbidearen esparru erreferentziazkoa, eta haren (eta Bergarako Errege Mintegiaren) egitekoan euskarari egin izan zitzaion tokia 245

6. *Olatz Altuna Zumeta, Maialen Iñarra Arregi*
Donostiako egungo egoera soziolinguistikoaren azterketa XVIII. mendean hartzen zituen eremuetan 335

7. *Lionel Joly Charrasse, Mikel Zalbide Elustondo*
Donostiako bilakaera soziolinguistikoa azken 250 urtean: 1761-1766 eta 2011-2016 urte-tarteak, konparazio-lanaren ainguragune 407

1. HITZAURREA

Mikel Zalbide Elustondo
Euskararen Historia
Soziala egitasmoaren zuzendaria

Gure kultura-nortasunaren eta euskalgintzaren alorretan aparteko hiriburua dugu Donostia. Ez da beste hiriburuak baino gehiago, alde gehienetatik. Demografiaz badu bera baino zabalagorik, ekonomiaz osatuagorik, aginte-ahalmenez zahar-indartsuagorik, unibertsitatez lehenagotik janzten hasirik eta abar. Hori guztia hala izanik ere, badu Donostiak besteek zoritxarrez aski goiz galdu zuten ezaugarri berezia: bizirik iritsi da bertan euskarazko mintzajardun arrunta, aski neurri esanguratsuan, XIX. mende-amaiera arte, bere gerri-bueltako auzoek bizirik eutsi izan diote euskal jardunari XX. mendearen lehen erdian, eta, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko saioetan ere, euskalgintzaren branka, bidegile eta iturburu izanik da sarri azken mende-erdian. Ez da gutxi, bere ahuldade ezagun eta nabarmenak isilpean utzi gabe ere.

Ezaugarri horiek kontuan izanik, *Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburu* ospakizunerako berariazko ekarpen-proposamena egitea erabaki zuen Euskaltzaindiak. Akademiak lotura zuzena du gainera Donostiarekin eta donostiarrekin, hasieratik beretik: Bilborekin batera Donostiarekin lotuta dago bere sorrera eta 1970 ingurura arteko ibilbidea, beste inolakorekin baino areago: ikus, besteak beste, gerraondoko bilera gehienak hainbat urtez non egin ziren. Donostiar askotxo ditu gainera, egungo egunean ere, euskaltzain ohorezko, oso edo urgazle; berariazko egoitza du bertan, bere sorreratik Gipuzkoako hiriburuarekin lotura nabarmena du Euskaltzaindiak.

Donostiako Luis Villasante ikergunean kokaturik dagoen *Euskararen Historia Soziala* izeneko lan-proiektuaren eskutik ekimen berezia proposatu zuen euskararen Akademiak, udalaren *Donostia 2016* ospakizunetan parte hartzeko. Ospakizun horien xede-helburu nagusiarekin bat etorriz, ikerketa hori aniztasunaren, hizkuntza eta kultura ororekiko errespetuaren eta Europako elkar-giroaren aldeko saioan kokatu zen. Europako kultura-hiriburua aurkezteko banatu ziren triptikoen arabera, horrela, “europar kulturen aberastasun, aniztasun eta ezauga-

rri komunak balioan jartzeko eta Europar Batasuneko hiritarren arteko ezagutza hobetzeko" asmoa zuen *Donostia 2016* ekimenak. Helburu horrekin bat eginik, Donostiako aniztasun soziolinguistikoa perspektiba historikoan jartzeko asmoa zuen ekimena proposatu zuen Euskaltzaindiak: Donostiako hizkuntzen historia sozialari buruzko ikersaioa burutzea izan zen helburua, batez ere 1761 eta 2011 arteko bilakaera soziolinguistiko historikoa aztertuz.

Donostia 2016 ekimena behar eta merezi duen perspektiba historikoan jartzen lagundu nahi izan du Euskaltzaindiak, ikersaio honen bitartez. Donostiaren azken mendeotako mintzajarduna gizarte-perspektibatik aztertzeak eta ezagutarazteak gaur egungo egoera nondik datorren irudikatzeko balio dezakeelako, batetik. Beste alde batetik, aspalditxodanik bizi izan da Donostia iturri askotako kultura-giroan: Europako giro orokorrean kokatuta egon izan da maiz, aldez edo moldez. Gure azterketaren data-mugak ez dira zorizkoak: Donostia Europako giro kultural orokorrean kokatzen duten testigantza zuzenak ditugu XVIII. mendean bertan. 1761eko donostiarren hizkuntza-giroak aparteko analisia du ikersaio horretan, beraz.

Proiektu honetan bi ikuspuntu landu nahi izan ditugu: tokiko ikuspuntua, alde batetik, euskararen (eta tokiko kulturaren) garrantzia azpimarratuz historian zehar; bestetik, berriz, ikuspuntu globala eman nahi izan dugu, Donostiak Europarekin bere sorreratik bertatik izan duen lotura azpimarratuz.

2015ean Euskararen Historia Soziala proiektuak argitaratu zuen metodologia kontuan hartuz (Zalbide, Joly, Gardner 2015), Donostiari buruzko berariazko ikerlana eta proiektua antolatu zuen Euskaltzaindiak, eta eskueran duzun liburua lan egitasmo horren emaitza da. Donostiari buruz osatutako ekimenak lan handia eskatu du, ahalik eta daturik fidagarrienak eta osatuenak eskuratzeko eta datu horiek egoki analizatzeko. Gai honi buruzko jardunaldi bat antolatu zuen Euskaltzaindiak: "Donostia eta hizkuntzak perspektiba soziohistorikoan" izenburupean. Bertan aditu anitzek parte hartu zuen, eta lanean jarraitu dugu geroztik Donostiari buruzko perspektiba soziologiko-historiko-kulturala osatzeko asmoarekin.

Hizkuntzen historia soziala Europako gizartean eta nazioarteko mundu akademikoan eskuratzen ari den oihartzuna kontuan harturik, EHSren metodologia berritzaileak eta Donostian landu den haren aplikazioak interesa pizteko aukera eskain dezakete. Eskuartean duzun liburu honek helburu horiek bete nahi lituzke, aldez edo moldez.

Ikerketa honen oinarrian dagoen metodologiari dagokionez, zera esan behar da: apustu irmoa eginik du Euskaltzaindiak, oinarri sendoko egitasmoak bultzatzeko eta babesteko. Kasu honetan, Euskaltzaindiaren *Euskararen Historia Soziala* (*EHS*) izeneko proiektuak sortu duen oinarri metodologikoaz baliaturik egin

dugu lan. *Euskararen Historia Soziala* izeneko egitasmoaren oinarri eta eredu metodologikoa laburbiltzea lekuz kanpora legoke hemen, eta ez gara horretan murgilduko. Horren gogoa lukeenak badu nora joan, oro har: ikus gure *eredu metodologikoa*. Aurkezpena, gainera, berariaz eskaintzen da liburuaren hasiera aldean. Kontua labur-labur azaltzeko, esan dezagun eredu teorikoaren oinarri horiek Hizkuntzen Historia Sozialean eta hizkuntza-soziologian kokatuta daudela, eta nazioarteko oinarri teoriko-metodologiko sendoenak kontuan hartzen saiatu dela ahaleginean. Langintza horretan, esan beharrik ez dago, datu fidagarriak eta esanguratsuak eskuratu, sistematizatu eta prozesatzeak, eta berariazko analisia egiteak, eskatu du denbora gehiena eta lanik handiena.

Donostiako bilakaera soziolinguistiko-historikoa egiteko asmoarekin hainbat lan aurkezten da liburu honetan. Hasteko, Hizkuntzen Historia Soziala eta berezi-ki euskararen historia soziala lantzeko eredu metodologikoa aurkezten du Lionel Joly Charrassek, aurreneko atalburuan. Ondoren, Donostiako hizkuntza nagusiak historian zehar zeintzuk izan diren azpimarratzen saiatu gara, liburuaren bigarren atalburuan. Hirugarrenean, berriz, gaiari buruz berariaz egin zuen ikerketa sakonean oinarrituz, Donostiako XVIII. mendeko egoera deskribatzen du Juan Madariaga Orbeak. Koldo Larrañaga Elorzak, bere aldetik, ikerketa exhaustiboa egin ondoren, RSBAPeko kideek, Gipuzkoako eliteek, euskarari buruz izandako iritzia eta, batez ere, praxia aurkezten du. Ondoren, bosgarren atalburuan, XXI. mendearen hasierako egoerari buruzko txostena eskaintzen dute Olatz Altuna Zumetak eta Maialen Iñarra Arregik. Azken atalburuan, EHSk sortutako metodologia erabiliz, Donostiako bilakaera soziolinguistikoa azken 250 urtean lantzen dute Mikel Zalbide Elustondok eta Lionel Joly Charrassek. Lan horiek guztiek Donostiak izan duen bilakaera soziolinguistikoaren perspektiba orokorra ematen dute, bai perspektiba sinkronikotik zein diakronikotik.

Hori horrela izanik ere, ahalik eta ikuspuntu osatuena eman nahi izan dugun arren, bistan da lehen pauso-urratsa dela gaurkoa. Funtsezko gai honen inguruan egin beharko den argitze- eta osatze-lana handia da, zinez, bertako mintza- eta idatz-jardunaren ezaugarri demolinguistiko eta historikoei dagokienez nondik gatozen, bidean zer irabazi den eta zer galdu argi eta zehatz jakitera iritsiko bagara bihar edo etzi. Eskuak bete lan dugu guztiok, Donostiari eta euskarari buruzko historia soziala era sakonean egin nahi bada. Badirudi, zorionez, gizarte-alor jakinetan gai horren inguruko interes bizia dagoela, eta ikertzaileen munduan ere halaxe izatea nahi genuke. Eskueran duzun liburua, esan bezala, hasiera bat baino ez da. Geroak esan beharko du, honetan ere, saio hau zertan izan den on eta zertan den hobekizun.

Eskerrak ematea dagokit azkenik, zinez eta benaz, sarrera llabur honi bukaerako hitzak itsasteko: egileei bihoazkie eskerrak[1], lehenik eta behin, Akademiari eta Donostiako Udalari gero eta, nola ez, saio honetan bidelagun izan ditugun gainerako aditu eta euskaltzale guztiei. Atseginez jasoko ditugu, esan beharrik ez badago ere, liburu honetako ekarpenei buruzko iritzi kritikoak, balioespenak eta hobekuntza-proposamenak. Ibiliaz egiten baita bidea, goazen guztiok saio horretan barrena.

[1] Argitalpenaren ikuspuntu-aniztasuna eta sakontasuna bermatze aldera, hainbat ikerketa-eremutako autoreak (soziologoak, historialariak, soziolinguistak…) bildu dira lan honetan; horrexegatik, eta alor bakoitzaren tradizio epistemologikoa errespetatzearren, aldeak daude lanen egiturari eta bibliografiak biltzeko moduari dagokienez.

2. KULTURA, HISTORIA, HIZKUNTZA: LOTURAK ETA AZTERKETARAKO METODOLOGIAK

Lionel Joly Charrasse
Euskaltzaindia, Euskararen Historia Soziala egitasmoaren ikerketa-arduraduna

2.1. SARRERA

Aurreneko atalburu honetan, Donostiari buruz egindako ikerketa egiteko zein metodologia eta zein oinarri teoriko erabili diren aurkeztuko da. Hurrengo ataletan, ordea, Donostiako bilakaera soziolinguistikoari buruzko hainbat datu eskainiko dira: Europako hizkuntzen presentzia Donostiako historian aztertuko du Mikel Zalbidek, Juan Madariagak XVIII. mendeko egoera soziolinguistikoa deskribatuko du, Koldo Larrañagak Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País / Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak sorreran euskarari dagokionez zuen postura aztertuko du, azken-aurreko artikuluan Donostiako gaur egungo egoera soziolinguistikoa deskribatuko dute Olatz Altunak eta Maialen Iñarrak, eta, bukatzeko, liburu honen azken artikuluan, Donostiako azken 250 urteetako bilakaera soziolinguistikoari buruzko irakurketa egingo da. Artikulu honetan, ordea, ez da Donostiari buruzko datu soziolinguistiko handirik aurkeztuko, maila epistemologikoan murgilduko gara. Ikerketa egiteko zer oinarri teoriko-zientifiko erabili dugun azalduko da, eta hurrengo liburu-atalak hobeto ulertzeko gakoak emango dira.

Hasteko, Donostia 2016an Europako kultura-hiriburua izan zenez, eta liburu honen jatorria testuinguru horretan kokatzen denez, kulturaren eta hizkuntzaren artean dagoen lotura azpimarratzeak garrantzitsua dirudi. Hizkuntzen didaktikan, esate baterako, puntu zentrala da hori: hizkuntza irakastean zenbateraino erakatsi behar den hizkuntza horri lotutako kultura, eta alderantziz, kultura bati buruzko informazioa ematean, zenbateraino erakatsi behar den (diren) kultura horren hizkuntza(k) (Hainbat, 2001). Izan ere, zenbait kasutan hizkuntzaren analisiaren bitartez beste edozein modutan baino hobeto ulertzen da kultura bat.

Mundu ikuskerari eta kulturari dagokionez, zenbait kasutan, hizkuntza aztertuz kontura gaitezke zer-nolako diferentzia handiak egon daitezkeen kultura batetik bestera. Boroditsky-ren lanetan, esate baterako, ikusiko dugu nola kultura gehienetan norberak eta norberaren gorputzak zentraltasuna duen denbora eta espazioa irudikatzeko. Kultura gutxi batzuetan, ordea, lurrak eta ekosistema osoak bereganatzen dute zentraltasun hori (Boroditsky 2010). Hortaz, kultura batean norberak, ego-ak zentraltasuna nola duen eta bestean ekosistemak, hizkuntzaren azterketaren bitartez ondorioztatuko dugu. Kasu honen adibidean ikusten denez, mundu ikuskera diferenteak hizkuntzaren bitartez adierazten eta barneratzen dira, eta, alderantziz, mundu ikuskera diferente horren isla aurkitzen da hizkuntzan. Elkarreragina bi norabideetakoa izanik, hizkuntzaren eta kulturaren/mundu ikuskeraren artean dagoen lotura errekurtsiboa da (Morin 2005).

Hizkuntza eta kultura lotuz, hor dugu ere, noski, Sapir-en eta Whorf-en hipotesia[1]. Hipotesi honen arabera gizakiak munduaz duen pertzepzioa diferentea da hizkuntzaren arabera, bereziki kategorizazioen alorrean, eta hortaz, hizkuntza bakoitzari mundu ikuskera jakin bat dagokio, kultura bat. Neurri handi batean zalantzan jarri bada ere hipotesi hori, bere muturreneko formulazioan behintzat, azken urteetan probatuta ageri da hizkuntzaren eragina hainbat pertzepziori buruz[2].

Hizkuntzaren eta kulturaren arteko loturak argia dirudi, hortaz. Euskararen kasuan are argiagoa da lotura hori. Euskaltzaindia lantzen ari den Euskararen Historia Soziala egitasmoaren barnean, Abbadiari buruz egindako ikerketa bati lotuta, euskalgintzaren eta kulturgintzaren arteko harreman historikoa aztertu zen (Joly argitaratu gabe). Ikerketa horretan, euskaldunen kosmobisioan hizkuntzaren eta kulturaren arteko lotura nabarmen ageri zen. Euskara da euskal kulturaren zutabe garrantzitsuena, orain dela gutxi arte behintzat, eta orain ere, euskaraz egiten dutenentzat behintzat, euskararen erabilera edo ezagutza da euskaldun egiten duena: euskaldunak euskaraz egiten du, perspektiba soziohistorikoan behintzat.

Hizkuntzaren eta kulturaren arteko lotura ez da bakarrik Euskal Herrian egiten, Euskal Herritik kanpo ere gizataldeen osaeran, eta barne-definiziorako, taldearen hizkuntza oinarrizko elementua izaten da, historikoki maiz jaso izan dena. Burkeren ondoko baieztapena gogoan har daiteke horren lekuko: "The fear of what we now call 'language death' was expressed on a number of occasions in the Middle Ages. In 1295, Edward I of England claimed that the King of France planned to invade England and 'wipe out the English language'. At the end of the fourteenth century, according to the chronicler Adam of Usk, the King of England

---

[1] Ikus, orobat: Sapir 1958, Whorf 1940, Kay & Kempton 1984, Lucy & Shweder 1979.

[2] Ikus, esate baterako, Majid et al. 2004, edota L. Boroditsky-ren lanak: 2002, 2003, 2010, 2011.

considered ‘a decree for the destruction of the Welsh language’(*decretum destructionis lingue wallicae*). In similar fashion, a Polish chronicler recorded the story that the knights of the Teutonic Order intended ‘to exterminate the Polish language’. Again, speeches in the English parliament in the fourteenth century –ironically enough, delivered or at least recorded in French– claimed that the French wanted ‘to annihilate the whole nation and the English language’(*aneantir tote la nation et la langue Engleys*)” (Burke 2004: 16). Burkek jasotako aipamen horietan hizkuntzaren eta kultura/nazioa/identitatearen arteko lotura historikoa argia da. Hizkuntza desagertzen bada, norberaren identitate soziala desagertzen da.

Kulturaren eta hizkuntzaren arteko loturaren gaian ez da gehiago sakonduko atalburu honetan, eta alor teoriko-metodologikoari helduko zaio: Donostia bezalako hiriburu baten bilakaera soziolinguistikoaren azterketa historikoa nola burutu daitekeen deskribatuko dugu hurrengo lerrootan.

Euskararen Historia Soziala (EHS) egitasmoak 2015ean aurkeztu zuen hizkuntzen historia soziala lantzeko prestatutako eredu metodologiko exhaustiboa (Zalbide, Joly, Gardner 2015). Eredu teoriko-metodologiko hura iruditu zaigu metodorik egokiena Donostiako analisi soziolinguistiko historikoa egiteko.

Lerro gutxitan metodologia horren oinarriak laburtuko ditugu, ondorengo artikuluak hobeto ulertzeko eta proposamen teoriko-metodologiko horrek errealitate soziolinguistikoa, bai diakronikoa eta bai sinkronikoa, hobeto antzemateko duen indarra erakusteko. Euskaltzaindiak Euskararen Historia Soziala egitasmoaren bitartez prestatutako eredu-metodologikoak 750 bat orrialde izanik, ezinezkoa izango da bere aurkezpen osoa egitea hemen. Artikulu honetan, hasteko, EHSk sortutako eredu hori, maila teoriko-metodologikoan, nondik datorren eta soziolinguistika historikoari zer-nolako ekarpena egiten dion azalduko dugu. Ondoren, haren funtzionamendua ikusiko dugu. Horretarako, oinarrian erabiltzen diren sei azterbide eta bost dimentsio zer diren azalduko da, alde batetik; bestetik, eredu honetan sortutako taxonomia soziolinguistikoaren funtzionamendua aurkeztuko da, eta adibide batzuk emango dira. Bukatzeko, tresna teoriko-metodologiko horretan txertaturik dagoen nagusitasun bilakaerazko taula baten aurkezpena egingo da, taula horiek egoera soziolinguistikoen bilakaeren deskribapena egiteko lagungarriak direlako, eta, hortaz, Donostiako bilakaera soziolinguistikoa aurkezteko tresna ezin egokiagoak direlako.

2.2. EHS-REN EREDU METODOLOGIKOAREN JATORRIA

EHSren eredu-metodologikoa osatzeko, gai horri lotutako nazioarte-mailako testuinguru epistemologikoa zer-nolakoa zen zehaztu behar izan zen, hasteko. Argi zegoen, hasieratik, ereduak hizkuntza-soziologian izango zituela oinarriak, iker-eremu hori baita Hizkuntzen Historia Soziala osatzeko egokiena, hots, ikeralor hura baita erabiliena hizkuntzen kontaktua maila makroan deskribatzeko. Modu horretan, beraz, hizkuntza-soziologian erabiltzen diren tresna metodologikoak errepasatu behar izan ziren, hainbat autorek sortutako eta erabilitako kontzeptu nagusiak ere aztertu ziren, eredurako eraginkorrak izango ziren modeloak eta kontzeptuak hautatu ahal izateko. Hala eta guztiz ere, eredua ez zen mugatu teoria mota edo ikertzeko konstruktu bakar batera. Hizkuntzen Historia Sozialarekin lotura duten eta konexoak diren iker-paradigma guztiak hartu ziren kontuan. Iker-alorraren *status-questionis* osatzea eskatu zuen horrek:

1. Hizkuntzen Historia Sozialaren iker-alorrarekin zerikusia duten ikerketa esparruak zeintzuk diren zehaztu zen.

2. Iker-alor horiei lotutako nazioarteko bibliografia aztertu zen.

3. Eskuratutako eta aztertutako material zabal horretan zein metodologia edo zein modelo teoriko erabiltzen den aztertu zen.

4. Teoria, modelo, metodologia edo kontzeptu soil horiek EHSk sortutako eredu-metodologikoarekin bateragarriak ote ziren, edota, beharrezkoa izanez gero, eredu horretan txertatzeko modukoak ziren ala ez aztertu zen, behin betiko eredura iritsi arte.

Lan honi ekin genionean, berehala konturatu ginen ezaugarri jakinak zituela Hizkuntzen Historia Sozialaren iker-eremuak:

1. Oso ikerketa-eremu heterogeneoa da.

2. Metodologiarik edo modelo orokor onarturik ez dago.

3. Bizi-bizia den iker-eremua da, nazioarte-mailan abiadura handiz zabaltzen ari dena.

Agian mereziko du hiru ezaugarri horiek pixka bat gehiago azaltzea hemen.

1. Hizkuntzen Historia Sozialarena oso iker-eremu heterogeneoa da.

Aipatu dugun moduan, oso iker-eremu heterogeneoa da Hizkuntzen Historia Sozialari (HHS) lotuta dagoena. Diziplina askotatik gerturatu izan zaio ikerketa-eremu honi: soziolinguistikatik, hizkuntzalaritzatik, historia sozialetik,

historia kulturaletik, soziologiatik, pragmatikatik, geografiatik, arkeologiatik... Diziplina horiek guztiak Hizkuntzen Historia Soziala egiteari ekin diote, modu batean edo bestean, sakontasun batekin edo bestearekin. Egoera honen aurrean, iker-alorraren mapeo bat egin behar izan zen diziplina horiek guztiak kontuan hartuz. Diziplina bakoitza zein emankorra izan den HHSren alorrean, EHSren liburu metodologikoaren bigarren kapituluan aurkitzen da azalduta (Zalbide, Joly, Gardner 2015: 41-143). Eskola bakoitzaren jatorria eta historia, definizioa eta helburuak, eredu eta muga metodologikoak, oinarrizko bibliografia eta abar daude jasota bertan.

2. Metodologiarik edo modelo orokor onarturik ez dago.

Nazioarteko bibliografia aztertzean, HHS egiteko modelo edo eredu-metodologiko orokorrik ez dagoela konturatu ginen. Are gehiago, zera azpimarratu behar da: ez dago modelo deskribatzaile orokorrik egoera soziolinguistiko makroa aztertzeko, ez sinkroniarako ez eta diakroniarako ere. Ikuspuntu makro horrek hizkuntza-soziologiaren alorrera lotzen gaitu, eta soziolinguistika bariazionista baino askoz gutxiago landu da akademikoki, are gutxiago hizkuntza-soziologia historikoa. Modelo partzialik badago, adibidez, Fishmanen *Reversing Language Shift* (1991, 2001), Haarmannen modeloa (1986) edo, gugandik gertuago, Sánchez-Carriónen modeloa (1987). Adituek hainbat kontzeptu garatu dute, hainbat gai eta aldagai aztertu dute (gizarte-sareak, generoa, etab.) baina ez dago kontzeptu guztiak (edo gehienak) batzen dituen eredu orokorrik. Azken 50 urteetan, hainbat aurkikuntza egin da maila teoriko-metodologikoan, aurkikuntza horien oinarria eta egiazkotasuna onartzen du komunitate zientifikoak, baina ez dago aurkikuntza horiek batu eta elkar harturik kontuan hartzen dituen modelorik. Gure eredua, alde honetatik, hutsune hori betetzeko saiakera da. Maila historikoko ikerketen kasurako egokitu dugu gure metodologia proposamena, baina, dena den, edozein garaiko egoera maila sinkronikoan aztertzeko ere baliagarria da. Historia bere sinkronian eta bere diakronian aztertzeko garatu da EHSren eredua, beraz, sinkronia aztertzeko egokia da, alegia, gaur egungo errealitate soziolinguistikoa aztertzeko, ulertzeko eta eragiteko ere balio du.

3. Hizkuntzen Historia Soziala iker-eremua biziki indartzen ari da azken urteetan.

Azken urteetan biziki zabaltzen ari den iker-eremua da HHS-rena eta soziolinguistika historikoarena. Bizitasun honen adierazle diren hiru adibide emango ditugu: a) gaiari buruzko bibliografia asko zabaltzen ari da, azken urteetan liburu andana argitaratu da HHSri buruz edo soziolinguistika historikoaz (ikus, esate baterako, EHSren eredu metodologikoan ageri den bibliografia: Zalbide, Joly, Gardner 2015: 631-675 eta 681-697). Argitalpen bakar bat aipatzearren, esate baterako, Wiley-Blackwell argitaletxeak soziolinguistika historikoari buruzko

eskuliburua argitaratu zuen ingelesez: *The Handbook of Historical Sociolinguistics* (2012). b) Argitaletxeek soziolinguistika historikoari buruzko liburu-bilduma argitaratzen hasiak dira. Modu horretan[3], 2013an soziolinguistika historikoari buruzko liburu-bilduma argitaratzen hasi zen John Benjamins argitaletxea (*Advances in Historical Sociolinguistics*, T. Nevalainen eta M. van der Wal dira bilduma horren zuzendariak) eta Peter Lang argitaletxeak ere bere bilduma sortu zuen 2014an (*Historical Sociolinguistics. Studies on Language and Society in the Past*: N. Langer, S. Elspaß, J. Salmons eta W. Vandenbussche dira beste bilduma horren zuzendariak)[4]. c) Soziolinguistika diakronikoari buruzko aldizkari bat argitaratzen du 2015etik De Gruyter argitaletxe famatuak: *Journal of Historical Sociolinguistics*. Gaiak instituzioen artean eta gizartean ere berebiziko interesa pizten du (Zalbide, Joly, Gardner 2015: 144-145.). Bizitasun eta interes hori azpimarragarriak dira; HHS eta soziolinguistika historikoari buruzko interesa bai unibertsitatean, bai maila instituzionalean eta bai gizarte mailan handia da eta zabaltzen ari da.

Aurkezpen labur honetan ikusten ari garenez, iker-alorraren *status-questionis* osatzea ezinbestekoa izan zen eredu-metodologikoaren funts teorikoak behar bezain sakonak izateko, alde batetik, eta eredua nazioarte mailako testuinguru epistemologikoan egoki txertatzeko, bestetik. Nazioarteko bibliografiaren azterketa oso emankorra izan zen: lan honi esker nazioarteko bibliografian agertzen den hainbat kontzeptu, ideia eta teoria txertatu ahal izan dugu EHSren eredu-metodologikoan. Horrezaz gainera, dagoeneko aipatu dugunez, hizkuntza-soziologiak eta soziolinguistikak azken 50 urteetan egin dituen aurkikuntzak kontuan harturik osatutako modelo teoriko-metodologikorik ez dagoela ikusi ahal izan genuen. Errealitate soziolinguistikoa edota soziolinguistiko-historikoa bere konplexutasunean (hau da, faktore multikausalak, errekurtsibitateak, etab.) aztertzeko eta ulertzeko EHSren ereduak ematen duen aukera azpimarratzekoa da. Modu horretan, EHSren eredu metodologikoa kontzeptualizazio mailan eta egoerak ulertzeko eta azaltzeko mailan aitzindaria dela esan daiteke. Hori bai, HHSren alorrean orain arte egindakoa kontuan hartzen du modelo horrek, izan ere kontzeptu soziolinguistiko diferenteak, modu soltean garatu direnak eta partzialak diren ereduak ere txertatu dira EHSren ereduan, eta bateragarriak dira Euskararen Historia Soziala egitasmoak sortutako modeloarekin.

---

[3] Bi adibide horiezaz gain, gure ikergaiarekin lotura zuzena duten beste liburu-bilduma batzuk ere argitaratzen hasiak dira, esate baterako, Amsterdam University Press-en *Language and Culture in History* deitutako bilduma (2016).

[4] Liburu-bildumen gaiari dagokionez, aipa dezagun Euskaltzaindia aitzindari izan dela: EHSri eskainitako bilduma 2011n sortu zuen Akademiak, Joseba Intxaustiren *Euskararen Historia Soziala. Argibide bibliografikoak* argitaratu zelarik bildumaren aurreneko liburu gisa.

2.3. HIZKUNTZEN HISTORIA SOZIALA EGITEKO TAXONOMIA

Has gaitezen eredu metodologiko horren oinarriak aurkezten. Ereduaren zer-nolakoa finkatzerakoan, gurpila berriz asmatzen ez zen saiatu, alderantziz baizik: azterketa soziolinguistikoak egitean kontuan hartu behar diren ohiko parametroak EHSren taxonomiaren bizkarrezurra osa zezaten erabaki zen. Egoera soziolinguistikoak sailkatzeko edota hizkuntza gertaerak soziolinguistikaren ikuspuntutik sailkatzeko balio du taxonomia horrek. Mundu mailako ikerketetan egoera soziolinguistikoak deskribatzean esanguratsuak izan diren eta eraginkorrak suertatu diren ezaugarriak eta aldagaiak batera biltzen ditu EHSren taxonomiak, eta hurrenkera logiko eta arrazional jakin baten arabera egituratzen ditu. Orain arte inoiz osatu gabeko taxonomia bateratua dela esan daiteke.

Aldagai soziolinguistiko guztiak hierarkia baten arabera sailkatu dira taxonomia bat osatuz. Zertarako balio du horrek? Beste zientzietan taxonomiak erabili ohi diren moduan erabiltzeko: 1) Errealitateari ahalik eta modu zientifikoenean, objektiboenean eta arrazionalenean hurbiltzeko. Deskribapen egokia eginez aurreneko orrazi metodologikoa pasatzen da, ikerketa lana erraztuz eta hobetuz. Nazioarteko bibliografian hainbat kasutan eskatzen den eta faltan botatzen den *grille de lecture* osatzen du, hortaz, EHSren egitasmoan sortutako taxonomiak (ikus adibidez Kremnitz 2004). 2) Hizkuntza gertaerak sailkatzeko marko bat eskaintzen du, egoera soziolinguistikoak ulertzeko eta egoki sailkatzeko balioko duena. 3) Azterketa soziolinguistikoak egitean eraginkorrak diren aldagai ia guztiak (orain arte bibliografia zientifikoan agertzen diren aldagai gehienak behintzat) batera biltzen ditu, egituratzen ditu eta hurrenkera logiko baten arabera sailkatzen ditu. Hizkuntza-soziologiaren ikerlariak bere ikerketa-esparruan identifikatu diren parametro eraginkorrenak batera bilduta izango ditu taxonomian, hortaz. Horrela, hizkuntza-plangintza egiteko garaian ere ezinbesteko informazio guztia jaso daiteke eredu honi jarraituz, eta lehentasunak modu egokian, hau da, zientzia legez eta modu arrazionalean ezarri ahal dira.

2.4. TAXONOMIAREN EGITURA NAGUSIA

Ikus dezagun, labur bada ere, taxonomia horren egitura nagusia.

Lan-dimentsioak

Bost lan-dimentsiok eta sei azterbidek osatzen dute EHSren eredu metodologikoaren egitura nagusia. Hasteko lan-dimentsioak aurkeztuko ditugu. Soziolinguistikak eta bereziki hizkuntza-soziologiak aztertu ohi dituzten gaiak biltzen dituzte EHSren bost dimentsioek. Atik Era kodetu dira, eta honako hauek dira:

- *hizkuntza-erabilera* (= A dimentsioa);
- *hizkuntza-gaitasuna* (dimentsio honetan sartzen dira bai hizkuntzen ezagutza eta bai hiztunen gaitasun-maila) (= B dimentsioa);
- *hizkuntz(ar)en barne-osaera* (hitz-altxorrez, morfosintaxiaz, hots-moldaeraz eta, inoiz, osaera semantikoz bildurik dagoen –edota berariaz lor litekeen– informazio linguistikoa eta osaera horrek –edo bere bilakaerak– eskaintzen dituen datu soziolinguistikoak) (= C dimentsioa);
- *gizarte-giroa* (hizkuntza ez den baina horrekin zerikusirik izan dezakeen beste edozein gizarte-ezaugarri. Gizartearen sostengu eta berrikuntza-iturri diren prozedura demografikoak, ekonoteknikoak, politiko-operatiboak, psikosozialak eta soziokulturalak bereziki) (= D dimentsioa);
- jendeak hizkuntzez, hiztunez eta hizkuntza bat edo beste erabiltzeaz dituen *iritzi-jarrera-jokabideak* (= E dimentsioa).

Ikusten denez, D dimentsioa kenduta (gizarte-giroarena), beste lan-dimentsio horiek nazioarteko ikerketa soziolinguistikoetan agertzen diren ohiko interesguneak edo interesgaiak dira. Ikus ditzagun banan-banan.

A dimentsioa: hizkuntza-erabilera

A dimentsioaren helburua hizkuntzaren erabilera ahalik eta era sistematikoenean aztertzea da[5]. Hots, leku eta une jakinean hiztunen jarduna nolakoa (izan) den deskribatzea. Fishmanek 1965eko artikulu famatuan aipatzen zuen azter-lerroa, geroztik hizkuntza-soziologian klasiko bihurtu dena, da EHSren aztergai nagusi. Han bezain zentrala da hemen ere "who speaks what language to whom and when?" (Fishman 1965). Dimentsio guztiek azpiatal batzuk dituzte, aurrerago ikusiko ditugu dimentsio honen azpiatalak, gelaxka baten adibide xehea aurkeztean[6].

[5] Hizkuntza-soziologiaren parametroetatik ulertu behar da "erabilera": A edo B hizkuntza (edo aldaera) erabiltzen den aztertzea. Ez soziolinguistikaren parametroen ikuspuntutik: corpus-aldaketaren ikuspuntutik. Azken ikuspuntu hori C dimentsioari lotuta dago EHSren eskeman.

[6] EHSren taxonomia soziolinguistikoa bere osotasunean aurkeztea ezinezkoa da liburuaren atal honen mugetan. Taxonomiaren funtzionamendua azaltzeko gelaxka baten adibidea eskainiko dugu hemen, besterik gabe. 1A gelaxkari dagokion garapena aurkeztuko dugu, hain zuzen ere. Taxonomia osoari buruzko informazioa izateko, ikus Zalbide, Joly, Gardner 2015.

B dimentsioa: hizkuntza-gaitasuna

Bigarren dimentsioak (B dimentsioak) hiztunen hizkuntza-gaitasuna aztertzen du. Nork zein hizkuntza dakien edo ez dakien eta, baiezkotan, bildutako edo inferitutako datuen arabera, noraino dakien egiten hizkuntza horretan (hitzez edo idatziz) zehazten saiatzen gara dimentsio honetan.

Une jakinean jendeak zer hizkuntza-gaitasun duen jakitea EHSren interesen zati bat baino ez da: hori bezain garrantzitsua da, sarritan, gaitasun hori bizitzan zehar nola aldatuz doan aztertzea, hizkuntza berri bat eskuratu ahala eta, horren parez pare, aurretik zekiena galdu ahala. Bestela esanik, hiru azpiatal edo parametro bereizi behar dira hemen: batetik, hiztunek *hizkuntza-gaitasuna* ***izatea***, aurreko pasartean aipatua duguna; bestetik, hiztunek *hizkuntza-gaitasuna* ***eskuratzea*** (L1ean edo L2n); azkenik, hiztunek *hizkuntza-gaitasuna* ***galtzea*** (euskaldun zaharren kasuan, oro har L1ean). Ikasteko edo galtzeko bidea bereiztea ere interesgarria da: eguneroko jardueraz ala ikasketa formalaz eskuratu (edo galdu) du jendeak kasuan kasuko hizkuntza? Euskararen kasuan, sarritan, eskolako irakasbidearekin lotu nahi izan dira bere bizi-iraupena eta gainbehera. Lotura hori baloratu ahal izateko ezinbestekoa da, beraz, hizkuntza eskuratzeko moduak bereiztea.

C dimentsioa: hizkuntz(ar)en barne-osaera

Hirugarren dimentsioak hizkuntzarekin berarekin zerikusi zuzena du, testigantza intralinguistikoek ematen diguten informazioari lotuta dago. Hori da soziolinguistika historiko bariazionistarekin zerikusi zuzenena duen dimentsioa gure ereduan. Linguistikaren edozein alor da, teorian, jakin-iturri emankor. Iturri horiek kontuan hartu behar dira oraingo egoera soziohistorikoa argitzeko eta oso kontuan hartu behar dira, batez ere, lehenaldiko (batez ere lehenaldi urruneko) egoeraz dugun ezagutza aberastu eta zehaztu ahal izateko.

Hasiera batean, hizkuntzaren edo hizkuntzen barne-osaeraren aldetik, hiru arlo ezin utzizkoak gertatzen zirelakoan geunden: onomastika, dialektologia eta kontaktu-linguistika. Jasotako adibide konkretuak sailkatzen ahalegindu ahala, formulazio zabalago batera jo behar izan dugu, hizkuntzalaritzaren ohiko kontzeptualizazioetatik gutxi-asko urrunduz zenbaitetan. Urruntze hori dela-eta, kontuan izan behar da *EHS*ren helburua ez dela hizkuntzalarien ekarpenak aztertzea. Hizkuntzalarien ikuspuntutik (eta haien tresnak erabiliz) azterketan jardutea ere ez, oro har. Hizkuntzalaritzaren deskribapenak eta azterketak erabiltzea da *EHS*ren helburua, ekarpen horiek euskararen historia soziala argitzeko informaziorik ematen duten heinean. Hona hemen, bada, gaur egun bereizten ditugun bost arloak: hizkuntzalaritza sinkronikoaren eta diakronikoaren alorreko deskribapen globalak eta ekarpen bereziak, hizkuntza-ukipenaren emaitza, hizkuntzaren

barne-lotura edo zatikatzea (euskalkiak...), botere- eta solidaritate-harremanak eta, azkenik, bestelako iturri esanguratsuak.

D dimentsioa: gizarte-giroa

Laugarren dimentsioa *gizarte-giroa*[7] izendatzen da. Beste dimentsioekin alderatuta berezia da: dimentsio honek ez du hizkuntza-dimentsio zuzenik[8]. Laugarren dimentsio hau oinarri-oinarrizkoa da, ordea, hizkuntza-soziologiarako eta EHS egitasmorako: mintzajardunaren giza arteko moldaerak (*the social organization of language behavior and language use*) beste zenbait prozesu soziokulturalekin izan ohi duen harreman-bideak ezinbestekoa egiten du gertaera bien

[7] Soziolinguistika bariazionistaren alorrean hizkuntza-aldaketaren aldagaiak aztertzerakoan lau gertaera bereizten ditu Labovek: hizkuntzaren barneko arrazoiak (Labov 1994), arrazoi sozialak (Labov 2001) eta arrazoi kognitiboak eta kulturalak (Labov 2010). EHSn arrazoi sozialak eta kulturalak hartzen ditugu kontuan, bereziki, EHSren helburua bariazionista baino gehiago historia soziala delako. Labovek honela bereizten ditu aldagai soziala eta kulturala: "*Social factors* will designate the effects of linguistic interaction among members of specific social groups, including the recognition of these effects by members and nonmembers. *Cultural factors* will designate the association of linguistic change with broader social patterns that are partly, if not entirely, independant of face-to-face interaction" (Labov 2010: 4). Martineauk argiro azpimarratzen duen moduan, barneko aldagaien azterketari eman zaio lehentasuna soziolinguistika historikoan. EHSk alde soziologikoari, "kanpo" faktoreari soziolinguistikan eta bereziki hizkuntza-soziologian eman ohi zaion garrantzia eman nahi izan dio, D dimentsioa txertatuz bere ereduan. Honela laburbiltzen du Martineauk soziolinguistika historikoaren 2012ko egoera (pasarte luzea da, baina zehatza; argitasun handia ematen du soziolinguistika historikoaren egoerari buruz): "Une approche interdisciplinaire est indispensable pour tenir compte de la complexité des usages linguistiques. La sociolinguistique semble bien placée pour développer une telle approche, à la limite de la sociologie et de la linguistique. La relation entre facteurs internes/externes est toutefois souvent posée de façon hiérarchique en sociolinguistique variationniste: pour une communauté donnée, les facteurs sociaux sont généralement privilégiés sur les facteurs de nature plus interne au système linguistique. Au contraire, la sociolinguistique historique, qui réunit en sa définition trois disciplines, tend à privilégier les facteurs internes, qui s'imposent à travers les textes et peuvent être reconstruits sur une longue durée, alors que les facteurs externes exigent une patiente reconstitution des réseaux communautaires. Un meilleur arrimage méthodologique de l'analyse des facteurs internes/externes est à souhaiter, d'autant qu'il reste à documenter l'impact des changements sociaux sur des structures qui forment le noyau dur d'une langue. De plus, l'apport d'autres disciplines permettrait de mieux saisir des mouvements qui doivent moins à des principes structurants comme les catégorisations sociales ou linguistiques, mais qui relèvent également de l'étude de l'individu comme être social et cognitif." (Martineau 2012: 131).

[8] Eman dezagun adibide xinple bat: (hain aspaldikoa ez den) garai batean Donostiako Bretxako azokan nagusiki euskaraz egiten zela jaso badugu, A dimentsiora joko dugu, erabilera baita kontua; azoka horretan berrikuntza edo arau-aldaketa gertatu bada, ordea, D-n jaso liteke, betiere pertinentea bada, hots, euskararen historia sozialerako informaziorik ematen badu edo eman badezake. Adibide honen kasuan, arau-aldaketaren ondorioz kanpotar (edo bertako erdaldun) gehiago Bretxara etorri izana esanguratsua izan liteke, esate baterako.

elkar-eragina edo, gutxienez, kobariazioa berariaz aztertzea[9]. Hizkuntzen egoera sozialarekin lotzen diren prozesu horiek islatu ahal izateko finkatu dugu laugarren dimentsio hau. Fishmanek (1982: 177) berak, zorrotz azpimarratzen du lotura hori: bere ustez, oso kontuan hartu behar ditugu "[los] procesos psicológicos, sociales y culturales que están asociados con cambios comprobados en el uso lingüístico habitual".

Bestela esanik, hizkuntza eta gizartea ez dira elkarrengandik erabat bereizitako gauzak, gizarte-giro batean mugitzen baita pertsona eta gizatalde bakoitza: giro horren arabera egokitzen eta garatzen ditu gizakiak eta hiztun-taldeak bere hizkuntza-erabilerak, gaitasunak, ohiturak eta iritziak [10]. Beraz, gizarte-giroa gutxi-asko aldatzen denean, neurri bateko edo besteko aldaketa suerta liteke mintzajardunaren giza arteko moldaeran, hiztunen hizkuntza-gaitasunean, hizkuntzaren barne-osaeran eta hizkuntza-hiztunei buruzko iritzietan ere. Alderantziz ere bai[11].

Zabala da izatez gizarte-giro hori, hizkuntzaren esparrua baino askoz zabalagoa: sartzen hasita, historia osoa sar liteke hor. Hortaz, mugak jarri behar dira, ezinbestean. Azpimarra dezagun, beraz, azter-eremu arras zabal horretatik batez ere zer interesatzen zaigun: ez edozein gizarte-gertaera, eta ez gizarte-moldaeraren edozein transformazio, gertaera soziolinguistikoekin nolabaiteko harremana (kausa, efektua edo kobariazioa) izan dezaketen gizarte-giroaren alorreko elementuak baizik. Lehendik egindako hurbilpen batzuen argitan, bost atal atxiki

---

[9] Gizarte-giroaren garrantziaz ohartzeko aipa dezagun, beste iker-alor batean, denbora sozialak eta espazio sozialak aldaketa sakonak jasan izan dituztela gizarte-giroaren bilakaeraren arabera, bereziki bilakaera teknologikoaren arabera: "temporal-spatial phenomena are diversely apprehended and structured in human society at differing stages of sociocultural development" (Zentner 1966: 76). Are handiagoa da, bistan denez, hizkuntzaren historia sozialean gizarte-giroak duen eragina. Gizarte-giroaren hainbat aldaketa aztertzea soziolinguistika historikorako zein interesgarri izan litekeen aipatzen du Auerrek ondoko lerrootan: "historical sociolinguistics is also concerned with the roles that the architecture of modern society and the institutional modern (nation) state have played in the historical development of languages and varieties. Especially the linguistic consequences of urbanization, industrialization and the verticalization of society have been of particular interest, as they help us to understand the development of the varietal spectrum of modern speech communities (e.g. Salmons 2005a, Salmons 2005b)." (Auer et al 2015: 8).

[10] Mitxelenak, adibidez, nabarmenki lotu izan du gizarte-giroaren aldaketa (kasu honetan gizarte-giro tradizionalaren gainbehera) euskararen gainbeherarekin. Ikus, adibidez, ondoko pasartea: "El afán de renovación, el impulso que sin exagerar se podría llamar revolucionario, queda explicado por la ruptura de las bases tradicionales de la vida de la comunidad vascófona, y hasta de buena parte de la comunidad vasca sin acepción de idioma. Digamos por simplificar que el caserío y el campo en general entraron en una crisis que, por lo que acierta a entrever, parece irreversible. Al desaparecer, pues, los refugios de la lengua, ésta, si había de vivir, tenía que buscarlos en otra parte" (Mitxelena 1982: 72-73).

[11] Gizarte-giroaren eta hizkuntzen gainbeheraren azterketari buruz ikus, adibidez, Dorianek zuzendutako liburuan Kuterren "Breton vs French: Language and the opposition of political, economic, social, and cultural values" eta Woolarden "Language convergences and language death as social processes" (Dorian 1989).

zaizkio gizarte-giroaren esparruari[12]: demografikoa, ekonoteknikoa, politiko-operatiboa, psikosoziala eta soziokulturala[13].

E dimentsioa: iritziak, jarrerak eta jokabideak

Bosgarren dimentsioa soziolinguistikaren ikerketetan ohikoa den iritzi, jarrera eta jokabideen azterketari lotuta dago. Jendeak bere iritziak, jarrerak eta jokaerak izaten ditu gorago aipatutako dimentsio guztiez (erabileraz, hizkuntza-gaitasunaz, etab.). Besteren iritzi-jarrera-jokaerei buruzko iritziak ere izan ditzake. Lasagabasterrek argiro azpimarratzen duenez, jarrerak zientzia-alor askotan aztertzen dira, gizakiaren portaerak ulertzeko funtsezkoak baitira (Lasagabaster 2006: 1). Agheyisik eta Fishmanek, bide batez, gai honek soziolinguistikarako duen garrantzia berariaz azpimarratu izan dute: "Though attitude studies have not yet attained such prominence in the relatively young field of sociolinguistics, the relevance of attitude studies to such sociolinguistic topics as language choice in multilingual societies, differential allocation of codes, dialect differences and mutual intelligibility – to name a few – is obvious" (Agheyisi eta Fishman 1970: 137). Jarreren gaiari berebiziko garrantzia eman izan dio beti Fishmanek (Ofelia Garcia et al. 2006: 29-37). Soziolinguistika historikoan ere ezinbesteko ikergaia dela azpimarratu izan du Auerrek: "any language history remains incomplete unless we take into account not only the social variation of language but also the (conscious or unconscious) ascription of values to linguistic forms and registers by society or parts of it" (Auer et al 2015: 8). Jarrerei eta irudikapenei buruzko dimentsioa ez da gutxietsi behar, eguneroko errealitate soziolinguistikoan eragin handia izaten baitu. Hunt-ek gaiaren sakontasun epistemologikoa aztertu zuen artikulu interesgarri batean (Hunt 1989). Bertan, irudikapenen garrantzia azpimarratzeko, Chartierren hitzak gogorarazten zituen Huntek (1989: 7): "The representations of the social world themselves are the constituents of social reality." (Chartier 1982: 30).

Hizkuntzaren historia soziala egiterakoan ondoko bost puntuok izaten dira, iritzi kontuan, bereziki interesgarri. Berehala ohartuko da irakurlea, puntuok *EHS*ren bost dimentsioekin duten loturaz. 1. Hizkuntza-erabilerari buruzko iritziak; 2. Hiztunei edo hiztunen gaitasunari buruzko iritziak; 3. Hizkuntzei buruzko iritziak; 4. Etnizitateari buruzko iritziak; 5. Hizkuntza-jarrerei buruzko iritziak.

---

[12] Mackeyk, adibidez, ondoko aldagaiok zehazten ditu elebitasunaren deskribapena egiteko: aldagai ekonomikoa, administratiboa, kulturala, politikoa, militarra, historikoa, erlijiosoa eta demografikoa (Mackey 1968: 563-565).

[13] Ikus, orobat, Fishman 1972a; Mackey 1973, Mackey 1976, Mackey 1979 eta Cooper 1989.

Dimentsioen laburpena

EHSren ereduak, hortaz, ondoko laukian ageri diren bost dimentsioak lantzen ditu. Donostiako azken 250 urteetako historia soziolinguistikoa aztertzean ere, horiek izan dira aztertu diren dimentsioak:

1. taula: **Dimentsioak**

Kodea	Izena	Edukia
A	Hizkuntza-erabilera	Hizkuntzaren (hala dagokionean, hizkuntzen) giza arteko erabilera, aldiune eta leku jakinetan.
B	Hizkuntza-gaitasuna	Hiztunen hizkuntza-gaitasuna (euskaraz eta, hala dagokionean, erdaraz), aldiune eta leku jakinetan.
C	Hizkuntz(ar)en barne-osaera	Hizkuntzak berak bere barne-osaeratik eskaintzen digun testigantza.
D	Gizarte-giroa	Gizarte-giroaren ezaugarriak edota, bestela esanik, zuzeneko hizkuntza-edukirik gabeko gizarte-ezaugarriak.
E	Iritziak-jarrerak-jokabideak	Euskara-erdarei buruzko iritziak, jarrerak eta jokabideak, aldiune eta leku jakinetan. Edozein dimentsiotako datuak izan daitezke xede.

Iturria: Zalbide, Joly 2022.

EHSren azterbideak

EHSk zehaztutako dimentsio bakoitza soziolinguistikaren ohiko azterbideen bidez azter liteke. Sei azterbide jaso dira EHSren ereduan. ***Azterbide deskriptiboa, zinetikoa, dinamikoa, prospektiboa, kontrastiboa*** eta ***preskriptiboa*** ditugu sei azterbideok[14]. Ikus ditzagun banan-banan, gaingiroki bederen.

Azterbide deskriptiboa (lehenengo azterbidea)

Gauzak nola dauden analizatzen du, batez ere, azterbide deskriptiboak. Hots, aldiune eta leku jakin batean, eta hizkuntza kontuan, gauzak nola dauden: hizkuntzen erabileraren aldetik, hizkuntza-gaitasunaren aldetik, etab. Azterketa sinkroniko-historikoa jasotzen da azterbide deskriptiboan: historiaren garai jakin bateko egoera soziolinguistikoa deskribatzea. Azterketa diakroniko-historikoa (ezaugarri baten bilakaera historikoa aztertzea) bigarren azterbidean sartzen da. Fishmanek bere *The Sociology of Language* famatuan, hizkuntzaren soziologia bi zati nagusitan banatzen du, eta zati horietako bat atal deskriptiboa da. Bere helburua honela laburbiltzen du Fishmanek: "*descriptive sociology of languages* seeks to answer the question 'who speaks (or writes) what language (or what

[14] Azterbideei emandako izenaren zergatiari buruz ikus Zalbide, Joly, Gardner 2015: 243-244.

language variety) to whom and when and to what end'. *Descriptive sociology of language* tries to disclose the norms of language usage –that is to say, the generally accepted social patterns of language usage and of behavior and attitude toward language– for particular social networks and communities, both large and small." (Fishman 1972b: 3).

Liburu honetan, esate baterako, Juan Madariagak eta Koldo Larrañagak egiten dituzten azterketak sinkroniko-historikoak dira: Donostiako eta Gipuzkoako instantzia garrantzitsu baten egoera eta haren postura soziolinguistikoa orain dela 250 bat urte zein izan zen aztertzen dute. Azterbide deskriptiboan murgiltzen dira nagusiki Olatz Altuna eta Maialen Iñarra ere, Donostiako gaur egungo egoera soziolinguistikoaren azterketa modu sinkronikoan eginez. Azken artikuluan, ordea, Donostiako egoera soziolinguistikoaren bilakaera aztertzen da, ikerketa diakronikoan murgiltzen gara, hortaz, azken artikulu horretan. Hori da, hain zuzen ere, EHSren ereduan ageri den bigarren azterbidea: azterbide zinetikoa izendatu dena.

Azterbide zinetikoa (bigarren azterbidea)

Gauzak nola aldatzen ari diren analizatzen du, bereziki, azterbide zinetikoak[15]. Hizkuntza kontuak aldatzen ari diren ala ez zehazteko eta, sarri gertatu ohi denez, aldatzen ari badira, aldaketa hori zer-nolakoa eta zenbatekoa den jakiteko balio du azterbide zinetikoak. Azterketa diakroniko historikoa jasotzen da azterbide zinetikoan: ezaugarri edo egoera baten bilakaera historikoa aztertzea. Donostiako 1761eko egoera soziolinguistikoa 2016. urtean dagoen egoerarekin alderatzen denean, azterbide zinetikoa lantzen ari gara.

Aldaketa, oro har, gertaera normala da gizartean, irekiak baitira gizartea eta bere egiturak. Azken finean, gizarte-egiturak iraun ahal izateko eta ingurumen-baldintza berrietara egokitzeko modu bat izan ohi da aldaketa. Ibañezi jarraituz, honela laburbiltzen du Malainak aldaketaren normaltasun hori: "Ibañez définit, à son tour, la société en tant que système ouvert, «ouvert au changement», qui «se reproduit en changeant»" (Malaina 2008: 15). Bide beretik, zera adierazten du Malainak: "Le système anthropo-social est un système dynamique, qui

[15] "Soziologia zinetikoa" aski termino zaharra da: soziologiaren sortze garaian erabiltzen hasia, fisikarekiko imitazioz-edo. Gero ere, XX. mendean, horrela erabili izan da aldian behin: ikus, adibidez, Leclercq (1955: 92; 105). Bidezkoa da, beraz, hizkuntza-soziologiaren esparruan ere bere lekua eman diezaiogun, izen berriak asmatzen hasi ordez. Kontuan izan behar da, halere, Leclercqen sailkapena eta beste zenbait egilerena zertxobait diferente direla. Leclercqentzat bitan banatzen da soziologia (estatikoa eta zinetikoa), eta bigarrenari (zinetikoari) 'soziologia dinamikoa' esaten omen zitzaion hasiera batean (Leclercq 1955: 105). Bistan da, ordea, gauza bat dela bilakaeraren berri ematea, eta bestea bilakaeraren zergatiez jardutea. Azken horri esaten dio bereziki hainbat adituk (Fishman tarteko delarik) hizkuntza-soziologia dinamikoa, eta bide horretatik jo da EHSren sailkapenean ere.

évolue et se complexifie avec le temps." (Malaina 2008: 20), eta aurrerago: "Morin a également construit le couple genos/phenonu; l'auto-organisation sociale serait une auto-(geno-pheno)-éco-re-organisation: elle implique un code, mais aussi une actualisation de ce code dans un environnement, au moyen d'un être et d'une existence individuels. Morin et Ibáñez conçoivent le système anthropo-social comme un système dynamique non linéaire et imprévisible. Il a une histoire (ce qui implique que ce n'est pas seulement l'environnement du système qui change, mais le système lui-même, ce qui exige une démarche systémique non classique capable d'étudier à la fois les perturbations externes – outputs– et les fluctuations internes – changements d'état, code ou structure internes) (...)" (Malaina 2008: 20).

Aldaketaren ubikazioak, bere kokapenak, aparteko garrantzia du azterbide zinetikoan. Non ari da aldaketa gertatzen espazio fisiko-geografikoan? Non espazio funtzionalean? Eta non espazio sozialean? Zein gizataldek, zein elitek edo zer-nolako gizajende xehek ekin dio jokabide-aldaketa horri?

Azterbide dinamikoa (hirugarren azterbidea)

Gauzak zergatik aldatu izan diren edota zergatik aldatzen (ari) diren analizatzen du, nagusiki, azterbide dinamikoak. Azterbide dinamikoa edo kausala ere esan dakioke, horrexegatik, hirugarren honi. Hizkuntza baten erabilera ez da kasualitatez indartzen, ez eta ahultzen. Zerbaitegatik gertatzen da hori. Beste horrenbeste gertatzen zaio norbanakoari: zerbaitegatik galtzen du hiztun batek bere ama-hizkuntza, eta beste bat ikasten; zerbaitegatik bihurtzen dira elebakar batzuk elebidun, eta elebidun batzuk elebakar. Soziolinguistika historikoak aztertzen dituen dimentsio guztiei aplika dakieke azterbide dinamiko hori. Azterbide hau da, seguruenik, hizkuntza-plangintzarekin batera, soziolinguistikan gehien landu dena. Azterbide dinamikoa da, Fishmanentzat, hizkuntza-soziologiaren bigarren atal nagusia. *The Sociology of Language* famatuan, hizkuntzaren soziologia bi zati nagusitan banatzen du berak: dagoeneko aipatu dugun *descriptive sociology of languages* dago alde batean, eta *dynamic sociology of language* bestean. Honela laburbiltzen du Fishmanek azterbide dinamikoaren helburua: "-*dynamic sociology of language*- seeks to answer the question 'what accounts for different rates of change in the social organization of language use and behavior toward language?' *Dynamic sociology of language* tries to explain why and how the social organization of language use and behavior toward language can be selectively different in the *same* social networks or communities on two different occasions. Dynamic sociology of language also seeks to explain why and how once similar social networks or communities can arrive at quite different social organizations of language use and behavior toward language." (Fishman 1972b: 3).

Liburu honetan, Donostiako bilakaera aurkeztu ez ezik, zenbait kasutan, bilakaeraren zergatia ere azaltzen da. Azalpen horiek azterbide dinamikoaren alorrekoak dira. Askotan laugarren dimentsioari lotutako faktore sozialek eragiten dituzte aldaketa eta bilakaera horiek (kanpoko faktoreak), baina hizkuntzaren parametroari lotutako aldaketak ere izaten dira (barneko faktoreak). Aurreko aipuetan Malainak deskribatutako binomioa topatzen dugu, hortaz, bilakaeren zergatia azaltzeko garaian.

Azterbide prospektiboa (laugarren azterbidea)

Azterbide prospektiboak etorkizuneko aurreikuspena egiten du. Ondoko galdera honi erantzuten dio: Goazen bidetik goazela, non bukatu behar dugu? Azterbide honek, euskarari dagokionez, aparteko atentzioa eskuratu izan du XVII. mendetik hona[16]. Hemendik epe batera (adibidez, hurrengo belaunaldian, hemendik berrogeita hamar urtera...) hizkuntzaren erabilerak aurrera (*language spread*) edo atzera (*language decline, shift, loss, death*[17]) egitea espero izatekoa den, zein lekutan, zer funtziotan eta zer neurritan: hori da hizkuntza-soziologia prospektiboaren aztergai nagusia erabilerari dagokionez. Hizkuntza-gaitasunaren, hizkuntzaren beraren eta jarreren azterketa ere ikuspuntu prospektibo hori kontuan hartuz egin daiteke.

XVIII. mendean azterbide prospektiboari lotutako hainbat deskribapen jaso badaiteke ere, liburu honetan gutxi aztertuko den azterbidea da, liburu honen helburua ez baita Donostiako bilakaera eta bilakaeraren arrazoiak aztertuz etorkizuna aurreikustea. Mota honetako lan prospektiborik egitea oso interesgarria izan daiteke, adibidez, datozen 10, 20, 30 urteetan gauzak nola izango diren aurreikustea. Atal oso bat eskaini beharko litzaioke gaiari, eta beste azterketa mota bat eskatuko luke, soziologia prospektiboari lotutakoa, lan hori guztia liburuki honen mugetatik at aurkitzen da, ordea.

Azterbide kontrastiboa (bosgarren azterbidea)

Hiztun batzuek edo besteek hizkuntzen ***egungo egoera*** (edota aurrera begirako proiekzioa) ***gustukoa duten ala ez*** analizatu ohi du azterbide kontrastiboak. Bi elementu konparatu edo kontrastatu ohi ditu bosgarren azterbide honek. Batetik, hiztun(-talde) bati interesatzen zai(zki)on hizkuntz(ar)en errealitatea (edota errealitate horren aurrera begirako proiekzioa); bestetik, hiztun batek edo batzuek

[16] Kontuan izatekoak dira, esate baterako, Fermin Ulzurrunen 1662ko dokumentua (Irigaray 1960: 336-337), Wilhelm von Humboldten estimazio xumea (Humboldt 1821) eta Reclusen prognosia (Reclus 1867). Geroztik, jakina denez, urritu ordez ugaritu egin da azterbide hori.

[17] Azterketa horietan aitzindari izan da Nancy Dorian (1981 eta 1989). Ikus, gainera, Stephen Wurmen formulazioa (Wurm 1951).

hizkuntza eta hizkuntza-talde jakinak orain edo gero hala izatea nahi luke(t)en egoera. Bestela esanik, honako galdera hauei erantzuten die bosgarren azterbide honek: Nora goaz eta nora joan behar genuke? Non egon beharko genuke, eta non gaude? Azterbide honetan beti daude, beraz, bi elementu jokoan: batetik, egungo errealitateari edo aurrez ikusitakoari dagokiona eta, bestetik, desiozkoa edo afektiboa. Bi elementuen arteko kohesio-faltarik topatuz gero 5. azterbidean, 6. azterbiderako zubi edo tranpolin bihurtzen da hori, kohesio-faltak sortzen digun "arazoa" konpontzeko motibazio-iturri izanik.

Azterbide preskriptiboa (seigarren azterbidea)

Azterbide preskriptiboa plangintzarekin lotuta dago, ***hizkuntzaren kudeaketarekin lotuta dagoen plangintza***rekin hain zuzen ere, bere gizartearen mailari dagokionez. Hizkuntza-soziologia aplikatua esan izan zaio seigarren azterbide honi[18]. Heinz Klossen behinolako zatibiketa famatuari (Kloss 1969), hizkuntzen *estatus*- eta *corpus*-plangintzaren artekoari, alegia, oinordeko berriak erantsi zaizkio harrezkero. Robert L. Cooperren 1989ko eskuratze-plangintza (*acquisition planning*) dugu, planteamendu berrion artean, erabiliena. Konturatzen bagara eta ez bagara, goian aipatutako hiru dimentsio haien araberakoak dira hiru plangintza-moldeok: gizarte-planoari erantzuten dio estatus-plangintzak, norbanako hiztunaren gaitasun-planoari *acquisition* edo eskuratze-plangintzak, eta hizkuntzaren beraren barne-egiturari (lexikoari, bereziki) gehi grafia kontuei hirugarrenak, *corpus*-plangintzak. Gizarte-giroa planifikatzen den neurrian, ia edozein plangintza-mota jaso liteke laugarren dimentsioan: familia-plangintza, industria-plangintza, osasun-plangintza... Guztiak ez dira, ordea, EHSrako interesmaila berekoak: interes berezikoa da, gure jakintza-alorrerako, nortasun-plangintza. Plangintza molde soziokultural eta politiko-operatibo horrek lotura estua izan ohi du hizkuntza-kontuekin. Bosgarren dimentsioari dagokionez, azkenik, bereziki interesgarriak dira iritzietan, jarreretan eta jokabideetan eragiteko ahaleginak. Hizkuntza-soziologian *prestige planning* alorrari lotuta izaten da iritzien eta jarreren plangintza. Neurri handi batean zeharkakoa den esparrua da *prestige planning* hori (Haarmann 1986: 86, Haarmann 1990: 104-105, Ager 2005, Ammon 2012, Kaplan & Baldauf 1997: 50).

[18] Ikus, adibidez, Fishman (1991).

Azterbideen laburpena

2. taula: **Azterbideak**

Kodea	Izena	Edukia
1	Deskriptiboa	Gauzak nola dauden
2	Zinetikoa	Gauzak nola aldatzen ari diren
3	Dinamikoa	Gauzak zergatik aldatzen ari diren
4	Prospektiboa	Goazen bidetik goazela non bukatu behar dugun
5	Kontrastiboa	Gauden egoerarekin, edota ustez etorri datorren etorkizunarekin, gustura gauden edo ez
6	Preskriptiboa	Egungo egoera hobetzeko eta geure gogozko helburura ongien hurbiltzeko zer egin litekeen, noiz-nola eta zer bitartekorekin

Iturria: Zalbide, Joly 2022.

EHSren matrizea edo azalpen-taula

EHSk zehaztu dituen bost dimentsioak sei azterbide diferentetatik azter litezke. Guztira, beraz, 30 gelaxkako matrizea sortu da hizkuntza-soziologiari lotutako eredu honetan. Ondoko tauletan jasotzen da, laburbilduz eta era grafikoan, hogeita hamar gelaxkako matrize, konbinazio-taula edo lan-marko hori. Lehenengo taulak dimentsioen, azterbideen eta gelaxken izen estandarizatuak jasotzen ditu. Bigarrenean gelaxka bakoitzak zein galderari erantzun nahi dion azaltzen da. Galdera horiei erantzuten saiatu gara Donostiako azken 250 urteetako bilakaera soziolinguistikoa aztertzean.

3. taula: **Dimentsioen, azterbideen eta gelaxken izenak eta kodeak**

			DIMENTSIOA				
			A. Hizkuntza-erabilera	**B: Hizkuntza-gaitasuna**	**C: Hizkuntz(ar)en barne-osaera**	**D: Gizarte-giroa**	**E: Iritzi-jarrera-jokaerak**
AZTERBIDEA	**1**	**Deskriptiboa**	1A - Erabilera azaltzea	1B - Gaitasuna azaltzea	1C - Hizkuntza azaltzea	1D - Gizarte-giroa azaltzea	1E - Jarrera-azaltzea
	2	**Zinetikoa**	2A - Erabilera-aldaketa	2B - Gaitasun-aldaketa	2C - Hizkuntza-osaera aldatzea	2D - Gizarte-giroaren aldaketa	2E - Jarrera-aldaketa
	3	**Dinamikoa**	3A - Erabilera-aldaketen dinamika	3B - Gaitasun-aldaketen dinamika	3C - Hizkuntza-aldaketen dinamika	3D - Gizarte-giroaren aldaketen dinamika	3E - Jarrera-aldaketen dinamika
	4	**Prospektiboa**	4A - Espero den erabilera	4B - Espero den gaitasuna	4C - Espero den hizkuntza	4D - Espero den gizarte-giroa	4E - Espero den jarrera
	5	**Kontrastiboa**	5A - Idealarekin kontrastatutako erabilera	5B - Idealarekin kontrastatutako gaitasuna	5C - Idealarekin kontrastatutako hizkuntza	5D - Idealarekin kontrastatutako gizarte-giroa	5E - Idealarekin kontrastatutako jarrera
	6	**Preskriptiboa**	6A - Hizkuntzaren estatus-plangintza	6B - Hizkuntzaren eskuratze-plangintza	6C - Hizkuntzaren corpus-plangintza	6D - Gizarte-giroaren plangintza	6E - Hizkuntza-jarreren plangintza

Iturria: Zalbide, Joly 2022.

4. taula: **Azterbideek eta gelaxkek erantzuten dituzten oinarrizko galderak**

			DIMENTSIOA				
			A. Hizkuntza-erabilera	**B: Hizkuntza-gaitasuna**	**C: Hizkuntz(ar-)en barne-osaera**	**D: Gizarte-giroa**	**E: Iritzi-jarrera-jokaerak**
AZTERBIDEA	**1**	Gauzak nola daude, leku eta une jakinean?	Hizkuntz(ar)-en erabilerari dagokionez	Hizkuntza-gaitasunari dagokionez	Hizkuntz(ar)en barne-osaerari dagokionez	Gizartearen osaerari dagokionez	Hizkuntzaren iritzi - jarrera - jokaerei dagokienez
	2	Gauzen bilakaera nola joan da?	Hizkuntz(ar)-en erabilerari dagokionez	Hizkuntza-gaitasunari dagokionez	Hizkuntz(ar)en barne-osaerari dagokionez	Gizartearen osaerari dagokionez	Hizkuntzaren iritzi-jarrera-jokaerei dagokienez
	3	Kausa: Zergatik gertatu (-tzen ari) da gertatu (-tzen ari) dena? Efektua: Zer ondorio du 2. azterbideko bilakaera bakoitzak beste lau dimentsioetan? Kobariazioa: Zer gertatu (-tzen ari) da aldi berean edo bertsuan?	Hizkuntz(ar)-en erabileraren bilakaerari dagokionez	Hizkuntza-gaitasunaren bilakaerari dagokionez	Hizkuntz(ar)en barne-osaeraren bilakaerari dagokionez	Gizartearen osaeraren bilakaerari dagokionez	Hizkuntzaren iritzi-jarrera-jokaeren bilakaerari dagokionez
	4	Nolako geroa espero dugu?	Hizkuntz(ar)-en erabilerari dagokionez	Hizkuntza-gaitasunari dagokionez	Hizkuntz(ar)en barne-osaerari dagokionez	Gizartearen osaerari dagokionez	Hizkuntzaren iritzi-jarrera-jokaerei dagokienez
	5	Nora goaz eta nora joan nahi genuke? (Non gaude eta non egon nahi genuke?): *bien arteko (des)-adostasuna*	Hizkuntz(ar)-en erabilerari dagokionez	Hizkuntza-gaitasunari dagokionez	Hizkuntz(ar)en barne-osaerari dagokionez	Gizartearen osaerari dagokionez	Hizkuntzaren iritzi-jarrera-jokaerei dagokienez
	6	Zer egin behar da zuzen dagoenari eusteko eta oker doana zuzentzeko?	Hizkuntz(ar)-en erabilerari dagokionez	Hizkuntza-gaitasunari dagokionez	Hizkuntz(ar)en barne-osaerari dagokionez	Gizartearen osaerari dagokionez	Hizkuntzaren iritzi-jarrera-jokaerei dagokienez

Iturria: Zalbide, Joly 2022.

Kokapen soziohistorikoari lotutako aldagaiak

EHSren taxonomia soziolinguistikoaren bizkarrezurra osatzen duen matrizea ikusi dugu orain arte, matrizearen gelaxka bakoitzean (1A, 1B, 1C, 1D, 1E, 2A...) hainbat azpiatal jasotzen da. Soziolinguistikaren nazioarteko ikerketetan eraginkor eta esanguratsu gisa identifikatu diren aldagaiak eta ezaugarriak hurrenkera jakinaren arabera antolatuta daude gelaxka horietan guztietan. Taxonomia-zerrenda soziolinguistikoa bere osotasunean aurkeztea ezinezkoa da hemen, bere funtzionamendua baino ez dugu ikusiko[19]. Hasteko, aipa dezagun termino batzuk komunak direla hainbat gelaxkatan; generoaren aldagaia edota adinarena, esate baterako, esanguratsuak izaten dira hizkuntzaren momentu bateko erabilerak aztertzean, gaitasun diferenteak deskribatzean edota iritzien bilakaera zergatik gertatu den ulertzeko garaian. Taxonomian errepikapenak saihesteko gelaxketatik atera ditugu eta hasieran jarri ditugu termino horiek. Gelaxketatik ateratako termino-zerrenda horrek, azterketa soziolinguistikoa egitean eskuratzen den informazioaren kokapen soziohistorikoari lotutako aldagaiak biltzen du, hein handi batean. Ondoko taulan ageri diren terminoak osatzen dute kokapen soziohistorikoari lotutako zerrenda hori. Liburuaren aurreneko kapitulu honetan ez ditugu zerrendaren terminoak azalduko[20]. Hizkuntza-soziologian eta soziolinguistikan ohikoak diren aldagaiak erraz identifikatuko ditu, zerrenda honetan, soziolinguistikan aditua den pertsonak. Termino gutxi batzuk, ordea, EHSri lotutako terminoak dira, hein handi batean.

[19] Taxonomia bere osotasunean ikusteko ikus Zalbide, Joly, Gardner 2015.

[20] Azalpen gehiagorako ikus Zalbide, Joly, Gardner 2015: 181-223.

5. taula: **Kokapen soziohistorikoari lotutako aldagaiak**

Kokagunea	Noizko garaiaz	Noizko garaiaz: noiztik	Balioa
		Noizko garaiaz: noiz arte	Balioa
	Nolako-zenbat	Nolakoa	Adina
			Generoa
			Estratifikazio soziala
			Besterik
		Zenbat: kopurua-proportzioa	Kopuru absolutua
			Euskaldun-erdaldun proportzioa
			Euskaldunen kontzentrazioa
			Besterik
	Non geografikoa	Non geolinguistikoa	Euskal mintza-esparrua
			Erdal mintza-esparrua
			Besterik
		Non administratiboa	Non zibila
			Non erlijiosoa
			Besterik
	Non ekologikoa	Egoneko bizimodua	
		Joan-etorriko bizimodua	Trashumantzia - transtermitantzia
			Urrutiko merkataritza
			Itsas eta lehorreko garraioa
			Goi-ikasketa gunea
			Aldi bateko langintza
			Besterik
		Diaspora	
		Kale-baserri	Kale
			Baserri
		Ager-saltus	Ager
			Saltus
		Besterik	
	Non sozio-funtzionala	Zertan: jardungune	Agintaritza eta administrazioa
			Aisia eta kirola
			Eliza
			Etxea eta familia
			Gertuko jendea eta ohiko lagunartea
			Informazio-hedapena eta -kontsumoa
			Hezkuntza
			Lana
			Sal-erosketa
			Besterik
		Nor-norekin: rol-harremana	
		Estatusa: H/L	

Iturria: Zalbide, Joly 2022.

Dimentsioei eta azterbideei lotutako aztergaiak, gelaxka baten adibidea: 1A Erabilera azaltzea

Taxonomiaren funtzionamendua ikusteko adibide bat emango dugu: 1A gelaxkaren osaera aurkeztuko dugu. Aipa dezagun gelaxka bat zer den: gelaxka bat dimentsio jakin baten azterketa da azterbide jakin baten arabera. Gorago, 3. eta 4. tauletan, gelaxka guztiak ageri dira. Modu horretan, 1A gelaxka, hizkuntza erabilera (A dimentsioa) maila deskriptiboan (1 azterbidea) aztertzea da, adibidez.

1A gelaxka azaltzen hasteko aipa dezagun *1A Erabilera azaltzea* gelaxka garrantzitsuenetarikoa dela ikerketa soziolinguistikoetan. Gelaxka honek hizkuntzaren erabilerari dagokionez momentu jakinean gauzak nola dauden azaltzen du. Bistan denez, kokapen soziohistorikoari lotuta dauden azpiatalak funtsezkoak dira gelaxka honetan, eta horregatik, aurreko paragrafoan aipatu dugun moduan, 1A gelaxka honi lotuta dauden parametro gehienak aterata daude gelaxkatik eta komunak diren terminoen atalean bilduta daude, taxonomiaren hasieran[21].

Dimentsio honetan, besteetan baino funtsezkoago dira jarduerari buruzko datuak. Zehatzago esanik, unealdi eta leku jakinean mintzajardunari dagokionez zer gertatu den/zen zehazten ari garenean, honako parametro hauek bereizi nahi izaten ditugu, besteak beste: adierazpidea (*media*[22]), zabaleroa edo agerbidea (*overtness*[23]), estiloa (*style*[24]), hizkuntza nagusia (*dominant language*[25]) eta hizkuntza-aldaera (*language variety*[26]). Termino horiek ere gelaxka batean baino gehiagotan aurkitu beharko liratekeenez, atera egin ditugu 1A gelaxkatik eta komuna den beste multzo bat osatzen dute, jarduerari lotuta dagoena hain zuzen ere.

---

[21] Ikus 5. taula.

[22] Ikus, adibidez, Fishman 1965: 78; 1971: 304 eta 1991: 43-44.

[23] Ikus, adibidez, Fishman 1971: 304 eta 1991: 44.

[24] Ikus, Fishman 1965: 70-71; beste lan batean, agian apur bat zabalagoa den *situation* erabiltzen du: ikus Fishman 1966: 427.

[25] Ikus, adibidez, Fishman 1966: 434-438.

[26] Ikus, adibidez, Fishman 1971: 226-228.

6. taula: **Jardueraren oinarrizko antolamendua**

Etiketa-maila	Parametroaren izena	Esanahia
1	Jarduera	Hizkuntza-gertaeren adierazpidea, zabaleroa, estiloa, hizkuntza nagusia eta hizkuntza-aldaera jasotzen dituen termino-multzoa.
2	Adierazpidea	Hiztuna nola ari da: ahoz, idatziz edo irakurriz?
3	Zabaleroa	Norentzat da komunikazioa: norbere buruarentzat, ezagun batentzat, ezezagun multzo batentzat?
4	Estiloa	Zein da komunikazioaren estiloa? Azalpenaren giza hurbil-urruntasunaren arabera, intimotik formalerako *continuum* horretan non kokatzen da estilo hori?
5	Hizkuntza nagusia	Zein da komunikazioaren hizkuntza nagusia aztergai dugun espazio fisiko eta soziofuntzionalean? Zein hizkuntza erabiltzen da gehien, objektiboki?
6	Hizkuntza-aldaera	Markatzen ari garen komunikazio konkretuan zer hizkuntza edo zer dialekto erabili da? Hizkuntza-aldaera horrek ez du zergatik bat etorri komunikazio horren batez besteko hizkuntza(-aldaera) nagusiarekin.

Iturria: Zalbide, Joly 2022.

1A gelaxkaren deskribapen xeheak azalpen luzea eskatzen du, interesa duenak jo beza 2015ean argitaratu genituen azalpenetara (Zalbide, Joly, Gardner 2015: 273-306) eta 2022an argitaratu den bertsio eguneratura (Zalbide, Joly 2022). Hemen, taxonomiaren funtzionamendua ulertarazteko 1A gelaxkaren barruan egin den sailkapena (bigarren eta hirugarren mailako etiketak) labur aurkeztera mugatuko gara. Komunak diren terminoak kontuan hartu gabe, zazpi azpiatal ditu 1A gelaxkak. Beste gelaxkekin konparatuta kopuru hori nahiko txikia da; horren arrazoia aipatua daukagu: 1Ari dagozkion hainbat azpiatal, komunak direnez, atera egin dira 1A gelaxkatik eta hasieran jarri dira. Komunak diren azpiatal horiek beste gelaxketan baino garrantzi handiagoa dute A dimentsioan (hizkuntza-erabilera) eta bereziki 1An, ikus, esate baterako, 5. taularen “non soziofuntzionala” eta “nolako-zenbat”, bereziki.

7. taula: **1A gelaxkaren egitura**

Lehen mailako etiketa	Bigarren mailako etiketa	Hirugarren mailako etiketa
1A – Erabilera azaltzea	Oro har, zehaztu gabe	
	Diglosia: bai/ez	Ageri da
		Ez da ageri
	Hizkuntza-gatazka: bai/ez	Ageri da
		Ez da ageri
	Diglosia hitza aipatua	
	Nagusitasun-moldaerazko taula	
	Zergatik 1A	
	Inferentzia	

Iturria: Zalbide, Joly 2022.

Oro har, zehaztu gabe

Oro har, zehaztu gabe terminoa oinarrizkoa da gelaxka honetan: erabilerari buruzko informazio orokorra markatzeko balio du etiketa honek. Gainerako kasu guztietan bezala, *Oro har, zehaztu gabe* izeneko termino hau markatuz gero, *non soziofuntzionala* eta *jarduera* ere zehaztu behar dira, erabilera-gertaera horren koordenatu sozialak ere eskura izan ditzagun, aurreko paragrafoan dagoeneko aipatu dugun moduan. Ondoko hiru aipuok, adibidez, gelaxka honetan sartzekoak dira[27]:

> El idioma vulgar en San Sebastián es el vascuence, el cual se habla con tanta facilidad y gallardía, que hasta el mismo Larramendi, voto superior en este asunto, llegó a confesar no se podía negar a sus naturales los primores de la elocuencia vascongada (…) se habla en aquella ciudad con grandísimo aire y distinción y una expresiva que les es particular". (Camino 1963 [1780]: 247)

> (...) somos informados, que en la tierra Vazcongada, y especial en los lugares, que la mayor parte de ellos habla Vazquence, los Predicadores por autoridad, predican en Romance, y no en Vazquence (...) (Lepe 1700: 126-127)

> Dixo en bascuence al dicho Micheto Usabarrena, semejantes palabras: *Micheto veguirayçu cer ariçaren sorguina* çarela *esaten bedeçu errecoçaytue*. Tanto como decir: Mirad lo que hazeis, que si dezis que sois brujo, os quemaran. [Inza, Errazkin 1610-1611]. (Sarasola 1983: 108-109)

[27] Beste gelaxka batzuetan ere sartzekoak dira. Caminoren aipua, adibidez, 1Cn ere kokatu beharko litzateke.

Diglosia: bai/ez

Hizkuntza-soziologiaren kontzeptu nagusietariko bat da "diglosia". Hizkuntza bi edo gehiago gizarte edo hiztun-elkarte berean presente daudenean, hizkuntza bakoitzak bere jardungune propioa(k) d(it)uenean hiztun-elkarte horretan eta hizkuntza biko edo gehiagoko moldaera horrek belaunez belaun (hiru belaunaldiz, gutxienez) bere horretan irauten duenean, hiztun-elkarte horrek diglosia duela esaten da. Fishman-en hitzetan esanik, "widespread and stable within-group bilingualism, such that the languages utilized are, on the one hand, consensually functionally differentiated and, on the other hand, consensually accepted as culturally legitimate". (Fishman, 1987: 252). Ez dugu azalpen luzeagorik eskainiko diglosiaren eredu klasikoaz, gaia xehekiro azalduta dago nazioarteko bibliografian eta EHSren eredu metodologikoan[28].

Fishmanek emandako definizioaren arabera (Fishman *et al.* 1971: 286-288; Fishman 1972a: 91-106), aldiune eta ingurumen jakinean, euskara-erdarei dagokienez, diglosiarik dagoen ala ez dagoen zehaztu ohi dugu EHSn, *diglosia: bai/ez* markaren bidez. Aldian aldiko aipuak gai horri buruzko erantzunik ematen badigu, badugu erantzun hori seinalatzeko modua: diglosia hori *ageri da* edo *ez da ageri*. Euskal Herriaren Erdi Arorako adibide garbia ematen zuen Lacarrak 1957an hizkuntzen arteko banaketa funtzionala aipatuz: "Pero al estudiar la Edad Media he tenido que manejar constantemente documentos de los siglos X al XIII que están llenos de vasquismos, que en ocasiones están redactados por gentes que hablan vascuence, que piensan en vascuence, aunque escriban en otra lengua. Al historiar la Edad Media del País Vasco nos asalta constantemente la preocupación de estar reconstruyendo el pasado de un pueblo que se expresa por escrito en un idioma que no es el que habla, y que el suyo se le escapa a través de los documentos" (Lacarra 1957: 9).

Diglosia hitza aipatua

Diglosia markatzeko garaian arazo berezia sortu ohi da sarri. Hainbat autorek, katalanaren eskolakoak, okzitanierarenak eta Euskal Herrikoak bereziki, sinonimotzat jotzen dituzte hizkuntza-gatazka eta diglosia. EHSk diglosiaren eredu akademikoa jasotzea aukeratu du, taxonomia argiagoa eta egokiagoa erabiltzeko asmoz. Aipua markatzeko garaian arazo bat sortzen du horrek: autore batek "diglosia" gatazkaren ereduaren arabera aipatzen duenean, aipu hori non kokatu erabaki behar dugu. Printzipioz "hizkuntza-gatazka" atalean jaso behar da; baina hainbat kasutan ez dugu informazio nahikorik izaten, autore horrek "diglosia"

[28] Gaiari buruzko status-quaestionis bat irakurtzeko ikus, esate baterako, *BAT* aldizkariaren 79-80 zenbakia (2011).

zein ereduren arabera aipatzen duen jakiteko. Arazo honi aurre egiteko, "diglosia hitza aipatua" dioen etiketa sortu da.

Hizkuntza-gatazka: bai/ez

Leku berean hizkuntza bat baino gehiago presente dagoenean, hizkuntza horien arteko harremanak *diglosia* terminoetan ikusi beharrean posible da gatazka gisa ikustea. Hizkuntza-gatazkaren edo hizkuntza-borrokaren terminologia hau ezaguna da euskal munduan azken berrogei urtean, Kataluniako soziolinguistikari esker. Gatozen gure alorrera: hizkuntza-borrokaren perspektibatik aztertzen al du aipuak aurrez aurreko hizkuntza bien erabilera-egoera? Gatazka edo tentsio bat azalarazten al du aipuan aipatzen denak? Aurreko kasuan bezala, aipatzeaz gain, agian egoera zehatz deskribatzen du oraingoan ere: gatazka hori *ageri da* edo *ez da ageri,* aipuan bertan.

Nagusitasun-moldaerazko taula

1A gelaxkaren hurrengo terminoa *Nagusitasun-moldaerazko taula* da. Liburu honen ondoko artikuluetan, Donostiari buruz egingo den azterketa soziohistoriko linguistikoa egiteko, berebiziko interesa du nagusitasun-moldaerazko taulen atalak.

Hizkuntza baten erabilera-adibide solteek espazio fisiko eta soziofuntzional jakinean, are bertako jardungune eta harreman-sare konkretuetan, hizkuntza nagusia zein den argitzen lagundu dezakete. Adierazpidez, zabaleroz, estiloz, jardungunez edota rol-harremanez bereizten diren banakako hizkuntza-gertaera asko elkarrekin kodetzen direnean, nagusitasun-moldaerazko taula sor daiteke: banakakoen hizkuntza-erabileren ordez, leku eta une jakineko taldeen hizkuntza-erabilera zehaztera irits gaitezke horrela, zenbait kasutan behintzat. Taula horiek dira, hain zuzen, marka honek adierazten dituenak.

Taula horien iturria Fishmanen hizkuntza-soziologian aurki dezakegu. Liburu honen azken partean, Donostiako bilakaera soziolinguistikoa aurkezterakoan, mota honetako taulak baliatuko ditugunez, nagusitasun-moldaerazko taula horiei buruzko informazio gehiago ematea komeni da.

Nagusitasun-moldaerazko taula asko sortu izan ditu Fishmanek. Kasu nabarmen batzuk baino ez ditugu ikusiko hemen. Hasteko, ikus dezagun Estatu Batuetan bertako yiddish hiztun-elkarteari buruz sortu zuena: "Intra-group Yiddish-English maintenance and shift in the United States: 1940-1970 summary comparisons for immigrant generation "secularists" arriving prior to World War I".

8. taula: **Fishman-en nagusitasun-moldaerazko oinarrizko taula**

Media	**Overtness**	**Family role-rels. 1 2 3**	**Neighb. role-rels. 1 2**	**Work role-rels. 1 2 3**	**Jew Rel. / Cultrole-rels. 1 2**
Speaking	Production Comprehension Inner				
Reading	Production Comprehension				
Writing	Production Comprehension				

Iturria: Fishman 1972a: 92.

Jarraitzeko, aipa dezagun Fishmanen 1965eko artikuluan kategorizazio zehatzagoa egin zela. Ikusten denez, taula horiek ez dira modu bakar batean sortzen, aukera diferenteak daude, horregatik generikoa den *Nagusitasun moldaerazko-taula* sortu dugu gure taxonomian.

9. taula: **Fishman-en nagusitasun-moldaerazko taula garatua**

Sources of variance			**Domains of language behavior**					
Media	**Role**[29]	**Situational**	**Family**	**Friends**	**Acquaintances**	**Mass media**	**Jewish organisations**	**Occupations**
Speaking	Inner[30]	Formal Informal Intimate	X Y, E Y, E	X Y, E Y, E	X Y, E Y, E	X E, E E, E	X Y, E Y, E	X E, E E, E
	Comp.	Formal Informal Intimate	X E, E Y, E	X E, E Y, E	E, E E, E X	E, E E, E X	Y, E Y, E X	E, E E, E X
	Prod.	Formal Informal Intimate	X E, E Y, E	X E, E Y, E	E, E E, E E, E	X X X	Y, E Y, E X	E, E E, E X
Reading	Comp.	Formal Informal Intimate	Y, E Y, E E, E	X X X	X X X	X X X	Y, E Y, E X	X X X
	Prod.[422]	Formal Informal Intimate	Y, E Y, E E, E	X X X	X X X	Y, E Y, E E, E	Y, E Y, E X	X X X
Writing	Prod.	Formal Informal Intimate	X E, E E, E	X E, E E, E	X X X	X X X	Y, E Y, E X	X X X

Iturria: Fishman 1965: 81.

Hizkuntza baten belaunez belauneko iraupena edota mintzaldaketa (*maintenance and shift*) deskribatzeko, berriz, ondoko taula moldatu zuen Fishmanek. Mota honetako taulak, *Nagusitasun-bilakaerazko taula* deitu ditugunak, 2A gelaxkan sartzekoak dira, bertan bilakaera bat ageri delako. Kontura gaitezen ondoko taulan *Adierazpide* (*media*) baten azalpen xehea ere egiten dela:

---

[29] 1965eko artikuluan atal honi *role* deitzen badio ere Fishmanek, hurrengo artikuluetan *overtness* deitzen dio (Fishman (ed.) 1971: 308; Fishman 1972a: 92; Fishman 1966: 437; Fishman 1972b: 144-145).

[30] "For "speaking-inner" combinations the domains imply topics as well as contexts. In all other instances they imply contexts alone".

10. taula: **Fishmanen taula, iraupena eta aldaketa deskribatzeko**

Media	Overtness	Domains	Role-relations	Summary Ratings	
				1940	1970
Speaking	Production	Family	Husband-wife	Y	Y
			Parent-child	Y	E
			Grandparent-grandchild	–	E
			Other: same generation	Y	Y
			Other: younger generation	E	E
		Neighborhood	Friends	Y	E
			Acquaintances	Y	E
		Work	Employer- employer	E	E
			Employer- employee	E	E
			Employee-employee	E	E
		Jewish Rel. / Cult.	Supporter-writer, teacher, etc.	Y	Y
			Supporter-supporter	Y	Y

Iturria: Fishman 1972a: 92.

Honelako taulak aparte markatu beharrik ez badago ere gure metodologia-ereduan, hartarako aukera zabalik utzi da. Aukera hori erantsi izanak malgutasun handia ekartzen dio sistemari: halako taula bat finkatzen duenak ez dio ezinbestean hemen deskribatutako eskemari jarraitu behar: balio ez dion parametroa isilpean utz dezake. Aldiz beste parametroren bat, rol-harremanei dagokiena adibidez, zehatzago landu dezake. Hirugarren batek, azkenik, beste eskala edo termino-zerrenda bat sor dezake. Izan ere, berriki aurkeztu ditugun Fishmanen tauletan argi ikusten den moduan, nagusitasun-moldaerazko taula horiek ez dute zertan guztiek berdin-berdinak izan. Jardungune eta rol-harreman desberdinak azter ditzakete eta abar. Beste adibide bat izatearren, ondoko taulan EHSk sortutako nagusitasun bilakaerazko taula bat ikus daiteke. Liburu honen bukaeran ere, Donostiako bilakaera soziolinguistikoaren deskribapena egiterakoan, beste adibide batzuk aurkituko dira.

11. taula: **Nagusitasun-bilakaerazko taula**

Nagusitasun - bilakaerazko taula			*Jardungunea (Domains Of Language Behavior)*																					
			Familia		**Auzoa eta herria**				**Eskola**		**Lanbidea**		**Administrazioa**		**Komunikabideak**			**Eliza**						
					Lagunak		**Ezezagunak**																	
Adierazpidea -- (Media)	Zabaleroa (Overtness)	Estiloa (Style)	1820	1860	1820	1860	1820	1860	1820	1860	1820	1860	1820	1860	1820	1860		1820	1860					
Hitz egitea	Barne - hizkera	Formala																						
		Informala																						
		Intimoa																						
	Jasotzea (Entzundakoa ulertzea)	Formala																						
		Informala																						
		Intimoa																						
	Egitea (Produkzioa)	Formala																						
		Informala																						
		Intimoa																						
Irakurtzea	Jasotzea (Isilik irakurri eta ulertzea)	Formala																						
		Informala																						
		Intimoa																						
	Egitea (Boz gora irakurtzea)	Formala																						
		Informala																						
		Intimoa																						
Idaztea	Egitea (Idaztea)	Formala																						
		Informala																						
		Intimoa																						

Iturria: Fishman 1972a: 92.

Zergatik 1A

Batzuetan, erabilera-gertaera azaltzeaz gain edota hura azaldu ordez, hura hala izateko motiboa (benetakoa edo ustezkoa) zein den (edo zein izan litekeen) azaltzen digu informazio-iturri batek. Arrazoi horren presentzia seinalatzen du, beraz, azpiatal honek. Alegia, hizkuntza jakin bat zergatik erabiltzen den adierazten denean jaso behar da. Erabileraren bilakaerari buruzko zergatiak jasotzeko, aldiz, 3A gelaxka erabiltzen da. Gauza bat da hizkuntza bat edo bestea zergatik erabiltzen den momentu jakin batean azaltzea, demagun Donostian 1750ean zergatik erabiltzen zen euskara edo erdara une edo egoera jakin batzuetan, elizkizunetan edo administrazioan, adibidez. Beste gauza bat da, aski diferentea, hizkuntza-harreman horien bilakaera eta bilakaeraren zergatia aztertzea.

Ondoko aipua, adibidez, azpigelaxka honetan sartu beharko litzateke, momentu zehatz batean hizkuntza jakin bat zergatik hautatu den adierazten delako aipu honetan:

"Jauna ceren çuc ezpaituçu fraincez lengoageric endelgatzen, eta nic ezpaitaquit escribatzen espagnolez, haren causaz heuscaraz escribaturen dut guthun haur, Esperançaz plazer harturen duçula goure lengoage naturalaz (...)". [1616-1617, Zuberoa – Erronkarri] (Trebiño 2001: 20)

Azken hitzak

Liburu honen aurreneko atalean, Donostiari buruz egindako ikerketa hau osatzeko zer oinarri teoriko-metodologiko erabiltzen saiatu garen aurkeztu nahi izan da. Metodologia honen bizkarrezurra EHS egitasmoak sortu duen taxonomia soziolinguistikoa izan da. Taxonomia bere osotasunean aurkeztea ezinezkoa izan da hemen, eta interesa duenak jo beza Zalbidek, Jolyk eta Gardnerrek 2015ean argitaratu zuten *Euskararen Historia Soziala lantzeko eredu metodologikoa* liburura edota haren bertsio eguneratura (Zalbide, Joly 2022).

Donostiako bilakaera soziolinguistikoari eskainitako liburu honen aurreneko atalean metodologia hori nondik datorren aurkeztu dugu, ikerketa soziolinguistikoetarako duen interesa azpimarratu dugu, eta baita ikerketa historikoetarako eta gaur egungo egoeren azterketa sinkronikoa egiteko ere. Hizkuntzen historia sozialaren alorra azken urteotan ezagutzen ari den zabalpen indartsua ere azpimarratu dugu. Ondoren EHSren taxonomia soziolinguistikoaren bizkarrezurra aurkeztu dugu: lan-dimentsioak, alde batetik, eta azterbideak, bestetik. Bukatzeko, taxonomiaren konplexutasuna azalarazteko eta funtzionamendua ulertarazteko adibide bat eman da, taxonomiaren aurreneko gelaxkaren (1A) aurkezpenarekin. Atal honen bukaeran *nagusitasun-moldaerazko taulak* zer diren eta nola funtzionatzen duten azaldu dugu, taula horiek erabiliko ditugulako Donostiako bilakaera soziolinguistikoaren aurkezpena egiteko, liburu honen azken atalean.

BIBLIOGRAFIA

Ager, D., 2005, "Image and prestige planning" in *Current issues in language planning*, 6-1, 1-43.

Agheyisi, R., Fishman, J. A., 1970, "Language Attitude Studies: A Brief Survey of Methodological Approaches" in *Anthropological Linguistics*, 12-5, 137-157.

Ammon, U., 2012, "Prestige planning" in *The Encyclopedia of Applied Linguistics*. Blackwell publishing.

Auer et al., 2015, "Historical sociolinguistics: the field and its future" in *Journal of Historical Sociolinguistics*, 1-1, 1-12.

Bat Soziolinguistika aldizkaria, 2011, "Diglosiaren inguruan", 79-80 (2-3).

Boroditsky, L., 2003, "Linguistic Relativity" in Nadel, L. (ed.), *Encyclopedia of Cognitive Science*. London: MacMillan Press, 917-921.

Boroditsky, L., 2011, "How language shapes thought" in *Scientific American*, otsaila, 63-65.

Boroditsky, L., Ramscar, M., 2002, "The Roles of Body and Mind in Abstract Thought" in *Psychological Science*,13 (2), 185-188.

Boroditsky, L., Gaby, A., 2010, "Remembrances of Times East: Absolute Spatial Representations of Time in an Australian Aboriginal Community" in *Psychological Science*, 21-11, 1635-1639.

Burke, P., 2004, *Languages and communities in Early Modern Europe.* Cambridge: CUP.

Camino, J. A., 1963 [1780], *Historia civil-diplomático-eclesiástica, anciana y moderna de San Sebastián*. Donostia: Donostiako udaletxea.

Cooper, R. L., 1989, *Language Planning and Social Change.* Cambridge: Cambridge University Press.

Dorian, N., 1981, *Language death. The life cycle of a Scottish Gaelic Dialect.* Philadelphia: University of Pennsylvania Press.

Dorian, N., 1989, *Investigating obsolescence. Studies in Language Contraction and Death.* Cambridge: Cambridge University Press.

Fishman, J., 1965, *"Who Speaks What Language to Whom and When?"* in *La linguistique*, 1-2, 67-88.

Fishman, J., 1966, *Language Loyalty in the United States.* The Hague: Mouton Publishers.

Fishman, J., 1971, *"The Sociology of Language: An Interdisciplinary Social Science Approach to Language in Society"* in Fishman (ed.)., *Advances in the Sociology of Language, Volume I: Basic Concepts, Theories and Problems: Alternative Approaches.* The Hague, Paris: Mouton, 217-404.

Fishman, J., 1972a, *Language in Sociocultural Change. Essays by Joshua A. Fishman.* Stanford: Stanford University Press.

Fishman, J., 1972b, *The Sociology of Language: An interdisciplinary social science approach to language in society*. Rowley: Newbury House publishers.

Fishman, J., 1982, *Sociología del lenguaje*. Madrid: Cátedra.

Fishman, J., 1987, *Ideology, Society and Language. The Odyssey of Nathan Birnbaum.* Ann Arbor: Karoma Publishers.

Fishman, J., 1991, *Reversing Language Shift.* Clevedon: Multilingual Matters.

Fishman, J., 2001, *Can threatened language be saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective.* Clevedon: Multilingual Matters.

Fishman, J., (ed.), 1968, *Readings in the Sociology of Language.* The Hague: Mouton Publishers.

García, O.; Peltz, R., Schiffman, H. (ed.), 2006*, Language Loyalty, Continuity and Change: Joshua A. Fishman's Contribution to International Sociolinguistics*. Clevedon: Multilingual Matters.

Haarmann, H., 1986, *Language in Ethnicity. A view of Basic Ecological Relations.* Berlin: Mouton de Gruyter.

Haarmann, H., 1990, *"Language planning in the light of a general theory of language: a methodological framework"* in *IJSL*, 86, 103-126.

Hainbat, 2001, "Langue et culture" in *Didactique des langues romanes, le développement de compétences chez l'apprenant*, De Boeck Supérieur.

Hernández-Campoy, J.M, Conde-Silvestre, J.C., 2012, *The handbook of historical sociolinguistics.* Chichester: Wiley-Blackwell.

Humboldt, W. von, 1821, *Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Hispa-niens vermittelst der Vaskischen Sprache.* Berlin: Ferdinand Dümmler.

Hunt, L., 1989, "Introduction: History, Culture, and Text" in Hunt, L. (ed.), *The New Cultural History: Essays.* Berkeley: University of California Press.

Intxausti, J., 2011, *Euskararen Historia Soziala (EHS). Argibide Bibliografikoak.* Bilbo: Euskaltzaindia.

Irigaray, A., 1960, "Nuevos testimonios de la lengua vascónica en Navarra" in *Príncipe de Viana*, 80-81, 335-338.

Joly, L., argitaratu gabe, "Euskalgintza: argitza-saioa" in Zalbide, M., Joly, L. (eds.), argitaratu gabe, *Abadiaren sariak, afixen argitan. Berariazko euskalgintzaren argitze-saioa.*

Kaplan, R. B., Baldauf, R. B., 1997, *Language planning from practice to theory.* Bristol: Multilingual matters.

Kay, P., Kempton, W., 1984. 'What is the Sapir-Whorf Hypothesis?', American Anthropologist, 86:1.

Kloss, H., 1969, *Research Possibilities on Group Bilingualism: A Report.* Quebec: CIRB/ICRB.

Kremnitz, G., 2004, *"Histoire sociale des langues de France" proiektuari buruz bildutako informazioa (mintegien aktagaiak etab.).* Sarean: http://www.langues-de-france.org.

Kremnitz, G., 2013, *Histoire sociale des langues de France.* Rennes: Presses Universitaires de Rennes.

Labov, W., 1994, *Principles of Linguistic Change. Volume 1: Internal Factors.* Cambridge: Blackwell.

Labov, W., 2001, *Principles of Linguistic Change. Volume 2: Social Factors.* Cambridge: Blackwell.

Labov, W., 2010, *Principles of Linguistic Change. Volume 3: Cognitive and Cultural Factors.* Cambridge: Blackwell.

Lacarra, J. M., 1957, *Vasconia Medieval: Historia y Filología.* Donostia: Publicaciones del Seminario José María de Urquijo.

Lasagabaster, D., 2006, "Les attitudes linguistiques: un état des lieux" in *Études de Linguistique Appliquée,* 14, 393-406. Sarean: https://www.cairn.info/revue-ela-2006-4-page-393.htm

Leclercq, J., 1948, *Introduction à la sociologie.* Louvain: IRES. Erabilitako itzulpena: 1955eko *Introducción a la sociología,* Barcelona: Instituto Católico de Estudios Sociales.

Lepe, P., 1700, *Constituciones Synodales antiguas y modernas del Obispado de Calahorra y La Calzada reconocidas, reformadas y aumentadas novissimamente, por el Ilmo. Sr. Don Pedro de Lepe, Obispo de este Obispado del Consejo de su Magestad, en el Synodo diocesano que se celebro en la ciudad de Logroño en el año de 1698.* Madrid, 1700, Lib. I, Tit. I, Const. XII, 126-128, 1600. Bizkaiko Elizaren Histori Artxibo digitalean eskuragarri: http://www.aheb-beha.org/uploads/media/sinodales_1700-pags126-127.pdf

Lucy, J., Shweder, R., 1979. "Whorf and his critics: Linguistic and nonlinguistic influences on color memory", *American Anthropologist*, 81:581-615.

Mackey, W. F., 1968, "The description of bilingualism" in Fishman, J., (ed.), 554-584.

Mackey, W. F., 1973, *Three concepts for geolinguistics.* Québec: Centre international de recherches sur le bilinguisme.

Mackey, W. F., 1976, *Bilinguisme et contact des langues.* Paris: Klincksieck.

Mackey, W. F., 1979, "Toward an Ecology of Language Contact" in Mackey, W. F., Ornstein, J. (ed.) *Sociolinguistic studies in language contact: methods and cases.* The Hague: Mouton.

Majid, A., Bowerman, M., Kita, S. et al., 2004, "Can language restructure cognition? The case for space" in *Trends in Cognitive Sciences*, 8-3, 108-114.

Malaina, A., 2008, "Edgar Morin et Jesus Ibañez: La sociologie et les théories de la complexité". [Sarean: http://archive.mcxapc.org/docs/apc/0710alvaro.pdf]

Martineau, F., 2012, "Les voix silencieuses de la sociolinguistique historique" in *Cahiers de linguistique,* 38-1, 111-135.

Mitxelena, K., 1982, "Normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco" in *Revista de Occidente*, 10-11, 55-75.

Morin, E., 2005, *Introduction à la pensée complexe*. Paris: Points Seuil.

Reclus, E., 1867, "Les Basques, un peuple qui s'en va" in *Revue des Deux Mondes*, LXVIII, 313-340.

Sánchez Carrión, J.-M., 1987, *Un futuro para nuestro pasado: claves para la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas.* Donostia.

Sarasola, I., 1983, "Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos" in *ASJU*, 69-212.

Sapir, E., 1958, *Culture, Language and Personality.* Berkeley: University of California Press.

Trebiño, I., (ed.), 2001, *Administrazio zibileko testu historikoak*. Oñati: IVAP-HAEE.

Whorf, B. L., 1940, "Science and Linguistics" in *Technology Review*, 35: 229-31, 247-8.

Wurm, S., 1991, "Language Death and Disappearance: Causes and Circumstances" in *Diogenes*, 39, 1-18.

Zalbide, M., Joly, L., Gardner, N., 2015, *Euskararen historia soziala lantzeko eredu metodologikoa.* Bilbo: Euskaltzaindia.

Zalbide, M., Joly, L., 2022, *Towards a Methodological model for a Social History of Languages: a Basque proposal.* Bilbo: Euskaltzaindia.

Zentner, H., 1966, "The Social Time-Space relationship: A Theoretical Formulation" in *Sociological Inquiry*, 36-1, 61-79.

3. DONOSTIAKO HIZKUNTZAK, PERSPEKTIBA SOZIOHISTORIKOAN

Mikel Zalbide Elustondo
Euskaltzaina
Euskararen Historia Soziala
egitasmoaren zuzendaria

Bada gure aurretik, ongi ezaguna denez, partez edo osoz gai honi heldu nahi izan dionik. Ez gatoz, beraz, inork inoiz landu gabeko larrera. Aitzitik: artikulu eta lan monografiko jakingarriak eskaini izan zaizkio kontu honi azken (ia) 150 urtean. Egia da gutxitan heldu izan zaiola gaiari perspektiba soziolinguistiko esplizitu eta egituratutik. Eskaini diguten datu-oinarria eskertzekoa da ordea, zinez, eta atera izan duten ondorio bat baino gehiago oso kontuan izatekoak dira orain ere. Hasierakoak ezertan gutxietsi gabe, egia da, dena den, geroagoko ekarpenek, azken hogei bat urtekoek bereziki, gorabide bizian jarri dutela Donostian behinola erabilitako hizkuntzen (edo hizkuntza-aldaeren) ikerketa-eremua. Bereziki estimatzekoak dira, alde horretatik, bertako historialari profesionalen azken hamarkada hauetako datu kontrastatuenak, ebidentzia-oinarri dokumentatuz hornituak eta, alde askotatik, zurkaiztu nahi genukeen perspektiba soziolinguistikoaren ernagarri bizienak. Azkenaldiko aurrerabide-iturri horietan zilegi bekigu, inori itzala egiteko asmorik meharrena gabe, Iago Irixoa berariaz aipatu eta goraipatzea. Honetan edo hartan (esterlin/hansatarrenean bereziki) bide berezitik bagabiltza ere Iago eta biok, egia da aparteko ekarpena dela berea. Aparteko ekarpena eta, aurrerago egiaztatu ahal izango denez, maiz baliatu eta zabal ustiatu ohi duguna. Asko zor dio bere ekarpenari Donostiako eta Pasaiako mintzajardunaren giza arteko moldaeraz (batez ere Erdi Aroan eta geroxeago izandako bilakaeraz) orain dakigunak. Irixoa ez da gainera, zorionez, bakarra: biziki poztekoa da adin-buelta bertsuko jende gaztea (David Zapirain, besteak beste) indartsu datorrela ikustea. Hori guztia horrela izanik ere, eskola zaharrekoek badugu, apika, indar betean datorren perspektiba soziohistoriko horri hizkuntza-soziologiaren ohiko tresneria

oinarrizkoaz ezer eskaintzekorik. Hartarako aurrelana izan nahi luke, urrunagoko pretentsiorik gabe, honako saio labur honek. Batzuen eta besteen uztardurak mesede baizik ezin egin dezake, gure ustez, eta uztartze-lan horien lagungarri izan nahi luke gaurko honek. Horren aldeko gara beraz, eta horren lekukotza eskaini nahi genuke gaurkoan.

Gatozen, beraz, harira. Zer argitu nahi genuke saio labur honetan? a) Zer hizkuntzatan egin da Donostian, mendeen joanean? Zehazkiago esanik, euskaraz ala erdaraz egin izan da Donostian, joan den mende horietan? b) erdaraz egin denean, zer erdaraz egin da: latinez, gaskoiz, gaztelaniaz, frantsesez, besterik?; euskaraz egin denean, berriz, zer-nolako euskal aldaeraz? c) noiz (noiztik noiz arte) egin izan da euskaraz, eta noiz (noiztik noiz arte) erdara horietan? d) hitzez ala idatziz egin izan da Donostian, euskaraz eta erdaraz? e) zer lekutan, eta zer gairi buruz, egin izan da hizkuntza batean edo bestean? f) nork norekin egin izan du horrela?, eta, jakina, g) zertan oinarritzen gara esaten duguna esateko edota, maizago, iradokitzen duguna iradokitzeko? Galdera askotxo dira zazpi horiek, kolpean argitu nahi izateko. Eskain ditzakegun erantzunak, gainera, aski nola-halakoak dira sarri: froga-indarrez ahul eta ondorio-hedaduraz murritz, lekuz zein denboraz. Duda-mudazkoak hainbat, horregatik, hainbat kasutan. Lehen zirriborro-saioa baizik ez da, laburbilduz, oraingoz aurkezten duguna. Galdetu ere egingo du norbaitek: hain material ahul-xumea izanik esku artean duguna, merezi al du argitara ematea? Baietz uste dugu. Saiatuz egiten da aurrera, oro har; honetan ere bai. Goiko zazpi galdera horiei erantzuten saiatu nahi dugu, hortaz, hurrengo orrialdeotan. Askotan ez dugu zazpi erantzun izango, bizpahiru edo lauzpabost baizik: egunen batean nora iritsi behar genukeen argi izateko on da, halere, zazpiak kontuan hartzea.

Zer hizkuntzatan egin da Donostian, mendeen joanean?

Inportantea da galdera honi emango zaion erantzuna argi ulertzea, gero ustekabe larririk ez jasotzeko. Badakigu ia edozein hiztun mota ia edozein lekutan agertu izan dela inoiz edo behin, munduko hainbat bazterretan. Oso probablea ez bada ere litekeena da, horrela, japoniarren bat edo beste Donostiara etorri izana (demagun, XVI. mendearen amaieran-edo), eta Kongo aldeko gazteren bat edo beste Hondarribian suertatu izana XVII. mendearen lehen laurdenean. Demagun halaxe gertatu zela zinez, kasu batean zein bestean; demagun, are, egunen batean gertaera pare hori ziurtatzeko berme-agiria eskainiko digutela aztertzaile batzuek. Deskubrimendu horiek garrantzitsuak (are funtsezkoak) izango dira ezagutza historikoaren alde batetik edo bestetik. Ez, ordea, seguruena, guri bereziki interesatzen zaigun aldetik. Banakako gertakari bitxi, isolatu eta jarraipen-loturarik gabeek ez dute, izan ere, besterik eransten ez zaien artean, Donostiako edo Hondarribiko hizkuntzen perspektiba soziohistorikoa argitzeko aparteko baliorik.

Behinola *x* edo *y* hizkuntzako hiztunen bat edo beste hemendik (Donostiatik edo Hondarribitik) pasa izana (are: bizpahiru urte hemen bizi izana) kontuan hartzeko zertzelada izan liteke, eta are fenomeno zabalagoen iragarle xume, gure historiaren perspektiba globaletik. Bere soilean eta hutsean ez da, ordea, hizkuntza-soziologia historikoaren jakintza-xederako berariaz garrantzitsu. Bistan da zergatik: horrelako kasu bakan-isolatu-errepikagabeak aski eragin mugatukoak (luzarora, sarriena, eragin-ondorio ohargarririk gabeak) izaten dira. Bertako hiztun-elkartearen mintzajardun edo idazjardun nagusiaren hedaduraz eta iraupenaz argitzeko ez dute behar adinako pisurik. Ez demolinguistika aldetik, eta ez hizkuntzaren belaunez belauneko transmisio-bideari dagokionez, dute gertakari isolatu horiek behinolako edo egungo mintzajardunaren giza arteko moldaeran eragiteko ahalmen ohargarririk. Detaile deigarriez harantzagoko "beste zerbait" behar dugu hizkuntzen historia sozialaren aztertzaileok, urliaren edo sandiaren datu bitxia kontuan hartzeko: nolabaiteko gizarte-dimentsioa behar du datu horrek bere baitan, izatez edo inplikazioz; mintzajardunaren giza arteko moldaeran nolabaiteko eragina (positiboa edo negatiboa, baina nabarmena) izan behar du hizkuntza horren erabilerak, eta ahal dela, belaunez belauneko transmisio-katean ondorioren bat (oro har aldakuntzaren bat) ekarri behar du. Halako ezer gertatzen ez den artean, gertakari hutsal batez mintzo gaitezke hiztun-elkartearen edo bertako hiztun-talde nagusiaren jarduera soziohistorikoari dagokionez. Ez dakigu XVI. mende-amaieran japoniarrik Donostian izan zen, edota handik hogeita bost bat urtera kongoarrik Hondarribian; baina, ditugun argitasun-printzen arabera, urrutiko erdaldun haiek une batez hemendik pasa izanak ez zuen arrasto argirik utzi donostiarron eta hondarribiarren mintzajardun eta idazjardunetan, eta, atzerritar bakan haiek une batez hemen, gure artean, izan zirela berretsiko balitz ere, bitxitasun isolatu horiek ez genituzke berariaz kontuan hartuko, hemengo hizkuntzen perspektiba soziohistorikoa lantzerakoan.

Gertakari horiek alde batera uzten baditugu, badirudi bospasei[1] hizkuntzak beren arrastoa utzi dutela (aldi batez edo luzaroan: are egungo egunera arte) Donostiako perspektiba soziohistorikoan. Esan dezagun, laburbilduz, latinak, gaskoi-erdarak, euskarak, gaztelaniak, frantsesak eta (agian) esterlin edo hansatarren mintzoak (*Niederdeutsch*-en hurbileko behe-alemanak edo dena delako albo-mintzaeraren batek) berariazko leku(txo)a (izanik) dutela alor horretan. Leku zabal, iraunkor eta ondorio sakonekoa izan dute batzuek, eta aski axaleko eta iraupen ez hain luzekoa besteek. Horra, beraz, hizkuntza bakoitzari (eta, horrenbestez, hizkuntza horietaz baliatu izan diren hiztun-idazleei) buruzko zenbait azalpen xume.

[1] Sei baino areago zazpi genituzke aztergai, Juan Madariagak liburu honetan aipatzen duen ijitoen "jerigonza"/erromintxela kontuan hartuko bagenu. Badirudi, dena den, Donostiari buruzkoetan testigantza urria dugula erromintxelaz.

3.1. LATINA

Mendebaldeko Europako leku gehienetan bezala, "bere lekua" izan du latinak, hainbat mendez, Donostian. H aldaera gisa, diglosiazko banaketa ohikoan oro har, erabili izan da latina, Erdi Aroan eta gero, gure artean ere. Erdi Arotik hona aginte-, jabetza-aitormen eta administrazio-esparruari loturiko eginkizunetan erabili izan da latina, bereziki, mende horietan: idatzizko jardunean, batez ere. Gauza segurua da hori, 1180tik hona. Latinez idatzia dago, urrunago gabe, hiribilduaren urte hartako forua.

Lehenago zer? Hitzez ez ote zen, *lingua franca* moduan bederen, inoiz gure artean latinez egin? Eta hala egin bazen, noiztik? Zuzeneko dokumentu-oinarriek horren berri ziurrik ematen ez duten arren, azken urteotako aurkikuntzen argitan oso litekeena da Donostia (eta Pasaia) babes-portu eta merkataritza-gune izana erromatarren garaian, kostaz kostako itsasgintza komertzialean. Oso litekeena da merkataritza-gune honetan ere latinez (aldian aldiko latin-aldaeraren batez edo bestez) baliatu izana, bertako mintzoaz gainera. Erromatarren arrastoak ugarituz doaz Donostian eta Gipuzkoako kostan, ezker-eskuineko kokagune erromatar ezagun nagusien ondoan: Lapurdum-Baiona eta (Bidaso ibaia itsasoratu aurreko) Oiarson batetik, Bizkaiko Forua bestetik. Ezin da baztertu, bertakoak eta bertara (itsasoz edo lehorrez) biltzen zirenak tratu-hizkuntza arrunt zen latin hartaz (idatziz bezainbat, seguruenik gehiago hitzez) baliatu izana mintzajardunaren zenbait esparru soziofuntzionaletan eta harreman-saretan. Ez hizkuntza bakar gisa, bai ordea urrundik urruneko eta hurbilxeagoko merkataritza-harremanak bideratu ahal izateko tresna nagusi moduan. Gorago esan dugunez, babes-portu eta merkataritza-guneetako hizkuntza baino gehiago ere izanik dugu latina, agian, erromatar garaian: bertan kokaturiko gizatalde (seguruenik elebidunen) mintzabide arrunt. Arrunt, baina ez bakar, eta, luzarora begira, mintzajardunaren aldakortasun-taula osoari begira nekez garaile. Litekeena da hori guztia: Europako joera nagusiaren ildotik zebilkeen Donostia ere, alde horretatik. Litekeena izanik ere gaurkoz ez da, ordea, gauza frogatua: erromatarren aztarnak (monetak eta ontzi-kontua, Lapurdiko eta Gipuzkoako *getaria*-eraikuntzak eta abar) ugaritzen ari direlarik Euskal Herriko kosta-herri askotan, oso litekeena da latinak bere presentzia izana gure artean erromatar agintaldian. Hortik ezin ondorioztatu dezakegu, ordea, erromatarren garaiko "Donostia-aurre" hartan latina bertako bizilagun gehienen eguneroko hizkera arrunt zenik. Ez mintzabide zabal, are gutxiago nagusi eta ez, bereziki, mintzabide bakar. Horrelakorik nekez baiezta liteke egungo ezagumenduen mailan.

Besterik dira kontuak, hitzezko jardunetik idatzizkora hegaldatzen garenean. Euskara-erdaren idatzizko erabilera dudarik gabe argitzen duen dokumentazioa, gorago esan denez, ez da erromatar garaikoa, geroztikakoa baizik. Testigantza

zaharrenei dagokienez, ikus alde batetik Donostia edota bere ingurua, bertako lur- edo etxe-sailak edo eliza-ondare jakinak eta era bateko edo besteko lurralde-eskumenak aipatzen dituzten Erdi Aroko diplomak[2]. Ikus bestetik, oso bereziki, Antso Jakitunak 1180 inguruan Donostiako hiribilduan[3] bizi (eta aurrerantzean biziko) zirenei emandako bizimodu-, eskubide- eta eginbehar-ezaugarrien foru-agiria[4]. Handik aurrera gero eta lehiakide gogorragoak izan baditu ere bertako edo inguruko erromantze-hizkuntzak[5], XIII. mendera arte jaun eta jabe ibilia da gure artean latina, dokumentazio ofizial-kutsuko jardun idatzian. Gero ere aski gailen agertu izan da esparru sakroklasikoan, Mendebaldeko Europa gehienean bezala: ezin baztertuzko hizkuntza izan da latina[6], ondotxoz beranduago arte, jakintza- eta eliza-agirien esparru horietan. Ez dago hor ezer berezirik: latinaren presentzia eklesiastiko-erlijiosoa eta akademiko-unibertsitarioa arras nabarmen izan dira hainbat mendez Mendebaldeko Europan. Bere lekua izan du latinak, luzaro, eliza-esparruan eta, era berean, ikasgai- eta ikasbide-hizkuntza izan da han-hemengo ikasgune eta, bereziki, unibertsitateetan. Aitzinamendu zientifikoaren eta gizarte-pentsamenduaren alorreko hainbat obra gailen latinez idatzita daude Kontinentean, hori dela medio, aski berandura arte[7].

Kultura-gai horietan aski albo-herri izan bagara ere Koldo Mitxelenak behinola zehaztu zuenez, latinak Europa osoan izandako posizio gailen horrek oihartzun argia izan du euskaldunon artean. Hemen ere (kanpoan ikasiz) apaiz-,

---

[2] Demagun adibide bat: Baionaren (edota Baiona ingurua buru zukeen aginte-guneren baten) mende egon izan al da inoiz Donostia? Noiz-nolatan? Zer balio dute horren alde mintzo diren (edo mintzo direla susma litekeen) dokumentuek?

[3] Hiribildua eta, horrekin batera, bere aginte-orbitako *Hinterland* zabala hartzen ditu foru-agiri hark kontuan: Kostaldean Hondarribitik Oriora, lehorrean Errenagatik Aranora doan Beterriko esparru zabala. Foru-agiriaren beraren hitzetan "Dono ad populatores de Sancto Sebastiano, de Undarabia usque ad Oriam, et de Arrenga usque ad Sanctum Martinum d'Aran totum saltum quod ego habeo intra terminum ilium, et totum quod ibi est sit de realengo" (Eusko Ikaskuntza 1982, Lacarra & Martín Duque 1969, Martín Duque 2002).

[4] Hona foru-agiri haren hasiera: "In Dei nomine, amen. Hec est carta autoritatis et confirmacionis quam ego Sancius, Dei gratia rex Nauarre, filius regis Garsie, facio omnibus hominibus tam maioribus quam minoribus, presentibus et futuris, qui populati sunt et in antea populabuntur in Sancto Sebastiano. Placet michi libenti animo et spontanea voluntate, quod dono et concedo vobis et succesoribus vestris bonos foros et bonas costumas" (Eusko Ikaskuntza 1982, Lacarra & Martín Duque 1969, Martín Duque 2002).

[5] Hor sartzen dira gaskoia eta, gero eta gailenago, gaztelania. Baita, beranduago eta beste maila batean, ordea, frantsesa.

[6] Elizkizunetan eta eliza-hierarkiarekiko harremanetan batetik, erdi- eta goi-mailako ikasketa klasikoen alorrean bestetik, beharrezko hizkuntza zen latina. Unibertsitate-esparruari dagokionez hala zen ikasgela barruan eta hala, inoiz, gelatik kanpora ere: gogoratu Salamancako estudiante (tunante) zirelakoen "*Victor Vizcaya!"* deiadar larria (Huarte 1920, Rodriguez - San Pedro Bezares 2002).

[7] XVI. mendean eta are lehenago bilakaera horren aurrekaririk falta ez den arren, latinetik estatu (kizun)-hizkuntzetarako jauzi akademikoa XVII. eta XVIII. mendeetan burutu zen nagusiki Mendebaldeko Europan.

legelari- edo mediku-ikasketak egiten zituztenen artean presente zegoen latina, aldez edo moldez. Gure arteko jakintsuentzat gauza ezaguna zen, beraz, hizkuntza hori: ezaguna zuten, eta, zenbaitetan, hartaz baliatzen ziren. Ikus, adibidez, Arnaut Oihenarten 1638ko *Notitia utriusque Vasconiæ, tum ibericæ, tum aquitanicæ*[8] eta ikus, bereziki, zazpi hizkuntzatan[9] egiten omen zekien Andres Poza lizentziatua (ggb. 1530 – 1595), Donostiako nautika-eskolan kosmografia-irakasle izandakoa[10]: 1585eko bere *Hydrografia* gaztelaniaz argitaratu zuen, baina latinak[11] (eta, zeharka, euskarak) leku seinalea izan zu(t)en bere produkzioan[12]. Hots: idatzizko jardunari dagokionez, aparteko balioa gorde izan du luzaro, Euskal Herrian eta are Donostian, latinak. Era esklusiboan edota, gero eta sarriago, erromantze-hizkuntzaren batekin (oso bakan euskararekin) uztarturik agertu izan da latina hemengo dokumentazio historikoan.

Ez da uste izan behar, azkenik, jende ikasiaren luma-lanetan bakarrik azaleratu izan denik latina azken mendeetan. Hitzezko jardunean ere bazuen bere tokia, toki mehar baina alboraezina, zenbait adituren eta are herri xehearen artean. Nabarmena da hori erlijio kontuetan: latinezko hainbat errezu[13] eta eliza-kantu buruz zekiten aitona-amonek, orain gutxira arte, eta hala egiten ere zuten leku-ordu jakinetan. Etxean ere latinez egiten zuten partez, euskarazko otoitzekin batean[14]: gogoratu "Sancta Maria / ora pro nobis" eta bere jarraipenekoak. Buruz esaten zuten hori, aski era arautu-mimetikoan, baina "latinez egiten" zuten nolabait.

Laburbilduz: latinaren erabilera (idatzizkoa) XIII. mendetik aurrera eta oro har Berpizkunde garaitik hona nabarmen apalduz joan den arren, bizirik izan dugu Donostian, Mendebaldeko Europako leku gehienetan bezala. Argia da bere

---

[8] Latinista handia izateaz gainera, olerkilari, legegizon, paremiologo, historialari eta politikari izan dugu Arnaut Oihenart (Maule 1592, Donapaleu 1667).
Euskaraz, frantsesez eta latinez idatzi zuen Arnautek, eta gaskoi-hizkuntza (bearnesa) ere lanbidezko agerbide zukeen. Frantsesezko idazlanei dagokienez ikus *Déclaration historique de l´injuste usurpation et rétention de la Navarre par les Espagnols* (1625, 1755-62) eta *L'art poétique* (1665). Frantses-euskarazko paremiologia-lanetan ikus *Atsotizac edo refrauac, Prouerbes, ou Adages Basques. Recueillis par le Sieur d'Oihenart* (París 1657) edota *Atsotizen Vrhenqvina. Supplément des proverbes basques* (Pau, 1665).

[9] Holandera-flandeseraz, behe-alemanez (bere hitzetan *osterlin*eraz, seguruenik), ingelesez, frantsesez, espainolez, latinez eta euskaraz.

[10] Hala ageri da, adituen esanean, 1563an. Antzera jardunik da gero Bilbon, eta, 1590etik aurrera, 1595ean hil arte, Madrilen.

[11] Demagun, batetik, *De prisca hispano lingua in gratia ni eo turnquinesciunt Hispanice Paradoxon* eta, bestetik, *Ad Pragmaticas de Toro et Tordesillas, sive de nobilitate et propietate* (1589).

[12] Familiako edo (liskar-garai bortitzeko) isil-idazkietan holandar-flandrierak ere bere lekua zukeen, seguruenik, Andres Pozaren baitan: ikus Carlos González Echegaray, 1988.

[13] Ikus *Letania*, *Salve Regina mater misericordiae* eta beste zenbait.

[14] Demagun, Letaniaren "Mater Christi, Mater purissima, Mater castissima, Mater intemerata, Mater amabilis» eta gainerakoak, «ora pro nobis» ezagunaz osatzen zirenak.

arrastoa, garai bateko testigantzari dagokionez, idatzizko jardunean; hitzez ere bai, hein batean, erlijio-esparruko errezu-kantuetan bederen.

3.2. GASKOI-ERDARA

Baionarekiko harremanak[15] oso gogoan ditu Donostiako hiribilduaren 1180ko foru-agiriak, bertako biztanleen jardunbideak, eginbeharrak eta eskubideak zehazterakoan. Aparteko lekua okupatzen dute bertan, motibo ezagunengatik "franko" esaten bazaie ere agiri hartan, Baiona aldetik etorri izanik dagoeneko bertan bizi diren gaskoiek[16]. Aparteko lekua dute etorkin horiek hiribilduaren harresi barruan, baina ez hor bakarrik: Pasaian eta Hondarribian ere aspaldidanik dira ezagun. Ez ziren nolanahiko etorkinak, gainera, hiri barruan eta inguruan: aski goi-mailan zeuden gaskoi horiek, oro har, bertako piramide sozialean. Donostiako gaskoiek lortu zuten posizio sozial gailen horrek bazuen antzik okzitaniar hizkuntzako "frankoek" 1085etik aurrera Nafarroako hainbat hiribildutan eskuratu zutenarekin. Azken hauei buruz ari zelarik honela zioen Koldo Mitxelenak: "se trata de una lengua importada por grupos densos de población que viven agrupados en núcleos claramente diferenciados hasta en su estatuto legal. Es una población económicamente poderosa, esencialmente urbana y burguesa. Se trataba de una lengua importada, no autóctona, románica, que desapareció una vez que fueron cayendo una tras otra las barreras legales y sociales que protegían a la población franca y a su lengua" (iturria Orella Unzue 2010: 181).

Horko "barreras legales y sociales que protegían a la población franca" direlakoak, Donostiari dagokionez, foru-agirian bertan azalduak daude aldez edo moldez. Ikus, adibidez, pasarteok: "ut clericus nec nauarrus sit populator in populacione nisi voluntate regis et consilio omnium vicinorum"; "non faciant bellum nec duelum cum hominibus de foris per nullo plaito, sed donet testes, unum nauarrum et unum francum"; "nullus homo possit esse ingenuus contra francos de Sancto Sebastiano de aliquo debito". Posizio gailen horren oihartzun dugu Do-

[15] Hots, Baionatik edo urrunagotik letozkeen merkatariekiko edo populatzaileekiko harremanak. "Urrunagotik" diogunean, jatorria Oloroeko eta Paueko uhaitz-ibarretan zuketen bearnes-gaskoiak ditugu gogoan. Serapio Muxikaren arabera "se dice que los gasconnes procedían de Bayona pero que eran familias originarias del Bearne entre Le Gave de Pau y la Gave d'Oloron" (iturria Orella Unzue, 2010). Foru-agiriak oso gogoan ditu, bestalde, "populatores de Sancto Sebastiano qui per mare ad Sanctum Sebastianum arribauerint uel per terram, et ad predictam villam cum sua mercatoria venerint". Jatorrizko populatzaileon artean zeudekeen, agian, merkantzia erostera Baionara joan eta han-hemen tratuan aritzen zirenak ere: "si aliquis de populatoribus ad Bayonam trossellos uel aliquam mercatoriam comparauerint, et per Sanctum Sebastianum transierint". Hipotesiak alde batera utzita, diogun oso esaera ezaguna izan dela aspaldidanik, ipar eta hego, "tratuan aritzea". OEHk, lehenik eta behin, adiera hau ematen dio *tratu* hitzari: "negocio, trato; comercio. "Trafic" SP.". Donostiako Foru-agiriari buruz ikus Duque 2002; Lacarra & Duque 1969).

[16] Dokumentu hartan, Lizarrako foru-agiriaren kopia delako seguruenik, *franko* esaten zaie *gaskoi* horiei.

nostiako udal-agintaritza zaharra[17], 1200etik 1500 ingurura arte hein ohargarriz gaskoi-deiturako biztanleen esku ageri dena[18].

Nafarroan baino luzaroago iraun zuen gaskoi-erdarak Donostian, Hondarribian eta, bereziki, Pasaian. Esplikazio argienetako bat González Ollék (1970) emandakoa izan liteke, Nafarroako okzitanieraz ari zelarik: "El occitano se mantenía por su enquistamiento en un medio lingüístico irreductible, el vascuence. En cuanto entró en contacto con otro romance que gozaba de mayor relieve social,

---

[17] Aginte-piramideari dagokionez ikus, bereziki, batez ere gaskoi-jendea gogoan duen foru-agiriko esaldi hau: "ego dono per fuero populatoribus Sancti Sebastiani ut in unoquoque anno, ad capud anni, mutent prepositum et alcaldum."

[18] Kontua oso bestelakoa da, Muxikaren esanean, XVI. mendearen bigarren erditik aurrera. 1566ko erroldan oinarritzen da Muxika, orduko donostiar gehienen deiturak euskaldunak direla adieraziz.
Honela dio Orella Unzué-k (2010: 184): "En un segundo artículo del año 1920 el mismo Lacombe aludía a un tratado de paz de 1328 concluido entre los marinos de Bayona y Biarritz con los de San Sebastián. Los representantes donostiarras tenían nombre gascón ya que se denominaban Johan de Beurepaire y Johan de Faget y escribieron todo el tratado en gascón. (…) Y el mismo autor [Separio Muxikaz ari da Orella] cita alguna de las familias gasconas que aparecen en la documentación: 'Gonzalo de la Parada, franco de San Sebastián', aparece en 1261. Y continúa: 'En la carta-partida del Obispo Legaría, del año 1302, figuran en primer término el teniente de Preboste Pero Carniel y vienen luego Don Pero Arnalt de Huhua y Don Lorenzo de Surubiz, Alcaldes, y Don Pérez de Nordincho, Don Johan Gallart, Don Johan de Mea, Nicolau Caldelez, Don Johan de Arreizti, Don Semeno de Zarauz, Martín de Segura, Jurados. En el tratado de paz, firmado en 1328 por los marinos de Bayona y Biarritz con los de San Sebastián, figuran como representantes de la actual capital de Guipúzcoa Johan de Buerepaire y Johan de Paeget, y el documento en que el Preboste y Consejeros de San Sebastián otorgan el poder, está escrito en gascón. En un documento de la primera mitad del siglo XIV, hemos visto que eran alcaldes de San Sebastián Ordincho de Surubis y Nicolao de la Mayson. En otro del año 1352 aparecen constituyendo Ayuntamiento don Johan Garses et Johan Gomis, alcaldes, et Johan de la Perada, Martín Guillem de Pasquier, Pere Andres Dalzaga. (..) Mas tarde se refiere Múgica a otros apellidos gascones como los Engomez que pertenecían a una de las familias más distinguidas de la región y decía: 'Don Pelegrín de Engomez era Oficial foráneo o Juez eclesiástico en lo civil y criminal en 1379, de la villa de San Sebastián y del arciprestazgo de Guipúzcoa, y en 1450 lo era Don Sancho de Engomez, Presbíteros ambos y Beneficiados de una de las iglesias de San Sebastián.'. (..) 'El Rey Don Enrique IV, hizo merced del importante cargo de Preboste a Don Miguel Martínez de Engomez, que figura como tal en la escritura de unión entre la Provincia y San Sebastián en 1459'. Y concluye 'Ya se ve por los apellidos de las personas que figuran ocupando los primeros puestos en San Sebastián, que la población estaba en manos de gascones.'"
XIII. mendetik XV. mendera probestutzaren kargua eskuratu zuen Mans-Engómez gaskoi sendia, bereziki, adierazgarria da gaskoien gizarte-maila jasoaz ohartzeko. Tena-Garcíak argi dioenez, "[los Mans-Engómez] detentaron el poder político de la villa: sus miembros reiteraron su presencia en los oficios concejiles anuales y disfrutaron de la vinculación permanente del cargo de preboste al linaje. Controlaron el cabildo parroquial y las organizaciones corporativas de la villa. Hegemonizaron las actividades económicas de ésta y su término, así como el comercio marítimo" (Tena García 1993: 987). Irixoak ere zera dio: "XIII. mende erdialdean, 1248an hain zuzen ere, Ordincho Mansekoa izeneko baiondar-donostiarrari Alfonso X. Gaztelako erregeak Donostiako probestutza eman zion" (Irixoa 2016: 624). Hamarkada luzez Mans-ekoek Baionako aristokrazian izandako goi-maila berariaz azpimarratu izan du Irixoak, zuzen gure ustez, eta gaskoia etxeko hizkuntza zutela pentsarazten digu horrek (Irixoa 2016: 627). Ez gara, gainera, hitzezko jardunaz bakarrik ari. Idatzizko testigantza ere kontuan hartzekoa da oso. Familia horren 1362ko testamentua gaskoiz dago (Irixoa 2016: 628). Testamentua gaskoiz idatzi izana hainbat arrazoik eragina izan zitekeen: 1) familiaren barne-bizitzako hizkuntza horixe zelako, 2) Donostiako (gizatalde jakinaren) hizkuntza-ohituragatik: hots, etxetik kanpora (kale-bizitza zabal-bihurriaren hainbat jardungunetan) ere, beraien artean bederen gaskoiz egiten zutelako Donostian, edota 3) eskribauen tradizioa hori zelako garai aldi hartan. Tradizio horretaz, eta horren eraginaz, ikus Irixoa 2019.

estaba abocado a difuminarse en él, como efectivamente sucedió". Donostian nabarmenki beranduago gertatu zelarik gaztela-erromantzearekiko kontaktu masiboa, L mailakoa bereziki, mende gehiagoz iraun zuen gaskoi-erdarak hainbat donostiarren ezpainetan (eta zenbait jauntxoren edo hiritar ikasiren lumetan). Ez da hori, dena dela, esplikazio-aukera bakarra. Beste hiru faktore ere erants daitezke gure ustez, aurrekoa gutxietsi gabe, iraupen-indar hori esplikatzen laguntzeko. Horrela,

- Gero ere (Nafarroan ez bezala) gaskoi-erromantzezko etorkin-talde (txo)ak hurbildu ziren gure artera. Pasaian bereziki, bai 1450 inguruan[19] eta bai beranduago, XVII. mendearen bigarren erdian[20].

- Donostiarren eta gainerako gipuzkoarren arteko konpartimentazio juridiko-territorialak[21] sendo iraun zuen XV. mendearen bigarren erdira arte: hein batean "bi mundu" ziren bata eta bestea, eginbehar-eskubide jakinei zegokienez. Gaskoi-erdarak errazago iraun zezakeen bizirik, "mundu" bi haien arteko harreman-lotura hain ahula izanik: "Ciñéndonos a San Sebastián, podemos hacernos eco como reflejo de la influencia gascona su relativa independencia de la Guipúzcoa euskelduna, de una serie de hechos que muestran la disconformidad y la poca conexión que hubo entre ésta y Donostia, que no se unió a la Provincia hasta el año 1459" (Muxika 1923).

- Donostia-Hondarribietako "kaskoiek" eta giputz-gipuzkoarrek 1459an lege-arauz bat egin ondoan ere, gaskoi-jendeak[22] nork bere jaioterrira bidaltzen zituen bere semeak (eta alabak?), arbaso zaharren kulturaz, hizkuntzaz eta herri-nortasunaz jabetzera edo etxetik zekartena indartzera. Muxikaren hitzetan, "en esta Ordenanza acordada el año 1695 (..)

---

[19] J. B. Daranatz-ek dioenez, Pasaiara etorri ziren gaskoi-familia batzuk 1451n, ordura arte bezala Ingalaterrarekin tratuan jarraitu ahal izateko. Damurik, ez zaigu esaten zenbat familia Pasaiaratu ziren. Nekez ondoriozta liteke hortik, dena den, etorkin-uholde masibo baten aurrean gaudenik. Probablea da, hori bai, etorkin horiek Pasaian aski bizirik zegoen L-gaskoia hein batean indarberritu izana. Konturatu, ordea, L aldaera zatekeela gaskoia orduko Pasaian (H aldaerez sarrien balia zitezkeen jauntxoak Donostian bizi ziren itxura osoz) eta H aldaerazko moldaerak nekez zukeela bertako L aldaeraren erabilera indarberritzeko ahalmen handirik.

[20] J. B. Daranatz-en esanean "la población de Biarritz había disminuido en la segunda mitad del siglo XVII por la escasez de la pesca de la ballena cuya última presa se realizó el 3 de marzo de 1686. En estas circunstancias muchos pescadores emigraron hacia Pasajes de San Juan donde fundaron una colonia que hablaba gascón". (Daranatz, 1939). 1451ko gaskoi-etorkinez esandakoak bere balioa izan dezake hemen ere, hein batean: are indartsuago izan litezke 1451ko arrazoiak XVII. mendearen bigarren erdian.

[21] Gogoratu, lekuz eta optikaz aldaturik, Nafarroako frankoei buruz esandakoa: "barreras legales y sociales que protegían a la población franca".

[22] Baita, agian, esterlinek, ingeles-irlandarrek eta bertan kokaturiko beste zenbait atzerritar-multzok.

> se dice entre otras cosas: 'se dió suma providencia para total exclusión de franceses y de otros extranjeros (..) sino también a sus descendientes en los actos y oficios honoríficos de esta República (…) por la experiencia que hasta entonces se tuvo como al presente se tiene de que regularmente los extrangeros envían a sus hijos, siendo de tierna edad a los paises de donde tienen su origen y descendencia para que no la olviden y sus parientes los conozcan, aprendan la lengua paterna y costumbres el pais y se introduzcan en las comisiones de sus negocios y comercios, y los tales Hijos de extrangeros vuelven a esta ciudad y otras partes de estos reinos y llevados de su natural inclinación son en todo extrangeros como sus padres, sin embargo de haber nacido en estos reinos" (Muxika 1923). Gamón-en esanean (XIX. mende-hasieran hortaz) "los de Rentería llaman a los habitantes de San Sebastián landerrak eta kaskoyak, "extranjeros y gascones" (Muxika 1923).

Harira itzuliz, diogun 1200 ingurutik honako ibilera luzean faseak eta faseak antzeman litezkeela Donostian eta Pasaia-Hondarribietan, gaskoi-hizkuntzaren giza arteko moldaeran. Lehen hurbilketa-saio baten arabera, eta batez ere Donostia izanik aztergai, demolinguistikazko faktoreak eta espazio soziofuntzionaleko banaketa-espektroa aztertuz, fasealdi hauek bereiz litezke:

1. Eguneroko jardunean gaskoi-erdaraz hitz egin izan da Donostian, neurri batean edo bestean, zenbait mendez: euskaldunez inguraturiko "Sprachinsel" edo "enclave lingüístico" modukoa izan da hiria 1200etik aurrera. Hots, A hizkuntzaz (euskaraz) inguraturiko esparru bat, non bertako biztanleak (biztanle gehienak, biztanle-parte ohargarria, hiztun-talde murritza: hori ez dago hain argi) B hizkuntzaz mintzo diren. Euskal mintza-esparru zabal-trinkoaz inguraturiko erdal mintzagune izan da Donostia, hein batean edo bestean, laurehun edo bostehun bat urtez. Bertako hainbat bizilagunen eguneroko hizkera xehe, arrunta gaskoi-erdara izan da. Baita aginte-esparru hurbileko hizkuntza ere, zehar-datuek aditzera ematen dutenez: 1309an ardo eta sagardo kontuez aditzera emandako aginduak nekez zukeen zentzu handirik orduko donostiarrak (donostiar guztiak edo gehien-gehienak) euskaraz (edo beste erromantze batez) mintzo izan balira; zuzen-zuzenean erregeren aginte-esparruko gaztelaniaz idatziko ziren, hartaraz gero, gaskoi-erdaraz izkribatu ordez.

2. Bertako biztanle-zati ohargarri baten[23] eguneroko aho-hizkuntza arrunta izateaz gainera, dokumentazio ofizialeko hizkuntza idatzia ere izan da gaskoi-erdara Donostian, XIII. eta XIV. mendeetan bereziki, latinarekiko (gero gaztelaniarekiko) lehian[24]. Hala iraun zuen XV. mende erdira arte-edo, une batetik aurrera gaztelania gailentzen hasi zitzaiolarik idatzizko jardunaren aplikazio-esparru gehienetan[25]. Donostiako artxibo ofiziala erabat erre bazen ere 1813an[26] dokumentu askotxo dago gaskoi-erdarazko dokumentu ofizialen alde mintzo denik. Ikus, esate baterako, aipamen hauek: "En [gascón] está firmado el poder que en 1328 otorgaba el preboste de San Sebastián a sus representantes para firmar un tratado de paz con Bayona. Igualmente en esta lengua están escritas las sentencias de concordia entre Hendaya y Fuenterrabia de 1498 y 1518"; "Es de interés el estudio del gascón escrito empleado por ejemplo en la redacción del Fuero de Bayona del siglo XIII, en "Los Fors et Costumas deu Royaume de Navarre Deca-Port" (Pau, 1681) y en los manuscritos conservados en los archivos principalmente de Fuenterrabia"; "El doctor Camino en su Historia de San Sebastián testimonia la existencia de manuscritos en gascón en el archivo municipal de San Sebastián, al igual que en el Libro Becerro de San Sebastián en el que se incluye una ordenanza sobre vinos y sidras redactada en gascón en 1309 en tiempo de Fernando IV. El mismo autor alude a una sentencia arbitral pronunciada en gascón por jueces nombrados por San Sebastián, Fuenterrabia, Renteria y Bayona" (Orella Unzué 2010: 183).

---

[23] Agian donostiar gehienen aho-hizkera. Hori ez dago ordea argi. Badira, gainera, albo-elementuak, euskara hasieratik harresi barruan aski presente egongo zela uste izateko. Ilun dago ordea, Donostiako XIV. eta XV. mendeei dagokienez, gaskoi-euskaren giza arteko moldaeraren zer-nolakoa.

[24] Egoera horrek badu lotura zuzenik, gure ustez, Iparraldeko eta Nafarroako zenbait moldaera soziolinguistikorekin: "En gascón se escribe durante la Edad Media en Lapurdi (residualmente en francés antiguo), en Baja Navarra (gascón en variante navarra), y en Zuberoa (hasta bien entrado el siglo XVII). El gascón será utilizado en parte de Bayona, en los centros comerciales y artesanales de Saint Palais y de Saint Jean Pied de Port, lo mismo que en los centros del Camino de Santiago. En esta zona geográfica, el gascón ha sido durante toda la edad media la lengua del poder comercial, artesanal y condal."; "el gascón como variante del occitano se localiza en documentos del NO y N del reino de Navarra y es idéntico al lenguaje gascón de Guipúzcoa y de Ultrapuertos. Igualmente se extiende a los territorios de Lapurdi, Baja Navarra y Zuberoa, con una variante landesa para Lapurdi y parte occidental de Baja Navarra y una variante bearnesa para la zona oriental de Baja Navarra y toda Zuberoa" (Orella Unzué 2010, ikus ere Cierbide & Santano 1990-1995).

[25] Gaskoiari erreferentzia eginez honela dio Irixoak: "XIII eta XIV. mendeek hizkuntza horrek Gipuzkoan erabilera dokumentalik handiena ezagutu zuen garaia osatu zuten, erran nahi baita propio bertan eta bertarako sortu ziren hainbat persona eta erakundeetan. Baditugu XV. gizaldiko adibideak, baina Baionako eta ekialdeko hiribildu gipuzkoarren arteko itunekin zerikusia dute, edota bi aldeetako merkataritza-harremanekin; ez daude, beraz, herri horien barne dinamikari lotuak" (Irixoa 2019: 24).

[26] Lehendik erre gabekoaz ari gara hemen: hainbat sute izandako hiriak lehendik ere galdua zukeen hainbat dokumentu ofizial.

3. H esparrua gaztelania bereganatuz zihoalarik urratsez urrats, L esparruko herri-hizkera arrunt, egunerokoaren alorrera mugatu zen gaskoiaren presentzia[27], gero eta nabarmenago, Donostian[28]. Alor horretan ere ez zen, gainera, jaun eta jabe gelditu. Gero eta lehiakide indartsuagoa agertu zitzaion[29], batez ere hizkera-molde arrunt, informal-intimoaz diharduten harreman-sare, jardungune eta rol-harremanetan: euskara. Eskueran ditugun datu mugatuen argitan badirudi euskararekin partekatu behar izan zuela gaskoi-erdarak bere L-izaera hori, oraindik argi zehazturik ez dugun moduan, XVI. mendean. Ikuspegi horren alde datoz Juan Arzadun-en azalpenak (RIEV 1909). Hiru eleko hiria zatekeen Donostia, bere esanean, XVI. mendearen amaiera aldean: batetik euskara eta gaskoi-erdara genituen bertan, eguneroko aho-hizkuntza arrunt eta zabal gisa[30]; bestetik gaztelania[31], batez ere idatz-hizkuntza ofizial eta kultura alorreko ikas- zein harreman-bide gisa.

4. Euskara-erdaren giza arteko moldaera horrek bizirik zirauen XVII. mendearen lehen laurdenean. Oraingoan badugu aurrekoan baino helduleku sendoxeagorik, kontuak horrela zirela uste izateko. Hona, (H/L1+L2) diglosiazko ikuspegi horren alde, erakusgarri xume bi: batetik Hondarribian 1611n egindako sorgin-epaiketa; bestetik hiru lekuko ezagunen[32] 1624ko testigantza. Sorgin-epaiketari dagokionez "en un expediente instruido el año de 1611 en Fuenterrabía a unas brujas que embrujaban criaturas y se reunían en aquelarre en el monte Jaizkibel bajo la dirección del demonio", argibide zehatz hau ageri da: "Este extraño presidente entre las satánicas ceremonias a que se entregaba con su grey en los aquelarres de la montaña, tenía la costumbre de dirigir la palabra a los allí congregados, y según declaración de una de las testigos presenciales, el diablo en gascón llamaba venid acá a los de San Sebastián y a los del Pasaje, y luego en vascuence a los de Irún, los de Henda-

---

27 Serapio Muxikaren esanean (1923) "el gascón se habló corrientemente durante siglos".

28 Gero eta nabarmenago bai, baina ez erabat: zezakeen jendeak (haietariko hainbatek, behintzat) osagarrizko hizkuntza preziatu gisa eusten zion gaskoiari Donostian.

29 Gero eta lehiakide indartsuagoa agertu zitzaion orduan, lehendik ere kontuak horrela ez baziren partez edo osoz. Hori ere ez dago nahi bezain argi.

30 Nola ordea? Eguneroko jardunean aski bereiz (mintzabidezko harreman zabalik gabe) bizi ziren euskal eta erdal hiztun-talde auzo baina arrotz gisa? Bada hori edo horren antzekorik dioenik, eta ez da berez inon ikusi gabekoa. Ele anitzeko moldaera hori inon ikusi gabea ez izateak ez du esan nahi, ordea, hemengo moldaera konkretua justu horrelakoa izana denik. Ilun dago kontu hori.

31 Gero eta murritzago erabili ohi zen latinarekin batean, noski. Ikus gorago esandakoa.

32 M. Ciriquiain-Gaiztarrok esanik dakizkigu beren izen-deiturak: "Pedro de Lizarraga, marinero de 36 años vecino de Pasajes de San Sebastián, Ioanes de Illumbe, marinero de 42 años y Hernando de Zaualaga, marinero de 47 años."

ya y les habló algunas palabras (..)"[33]. Hiru lekukoen 1624ko testigantzak, berriz, honela dio: la lengua gascona "dura y se habla al presente vulgarmente en la villa"[34]. Horko "vulgarmente" hori ez da gutxiesteko datua: donostiarrek (guztiek, gehienek, askotxok) eguneroko jardun arruntean gaskoi-erdaraz egiten zutela uler liteke hor, beste ezer baino errazago. Hiru lekukoen aitormenean ez da inola ere esaten Donostiako (are Donostiako harresi barruko) L-hizkera bakarra gaskoi-hizkuntza zenik 1624an; bai, ordea, bertako bi L-hizkuntzetako bat gaskoi-erdara zela gutxienez. 1611ko sorgin-epaian esandakoa ez dator ikuspegi horren kontra, alde baizik: Donostiako eta Pasaiako neska-mutilei gaskoiz egitea arrazoizko (agian arrazoizkoen) iruditzen zitzaion Jaizkibelgo demonio-etsaiari. Hots, bertako eta inguruko bizilagun arrunten eguneroko esperientzia kolektiboaren argitan onargarri (agian onargarrien) zen neska-mutil haiek gaskoi-erdaraz egitea. Litekeena da, dena den, gaskoi-erdararen erabilera Donostiako bitxitasun linguistikoa enfatizatzeko agertu izana, batez ere: asko da, hor ere, ikaskizun duguna.

5. Muga sendoa ezarri behar zaio orain arte esandakoari: Hiru hizkuntzen moldaera konpartimentatu hori harresi barrukoa izan da, nolanahi ere: hirigune urbanizatutik kanpora, udalerri zabalaren auzo eta baserri ugarietan, eskueran ditugun datuen argitan euskara izan da menderik mende eta oso berriki arte, jaun eta jabe. Argibide ezagunen argitan, hitzezko moldaera nagusia (sarri bakarra) euskarazkoa zen, aurrerago ikusiko dugunez, "Donostiako kale"tik kanpora bizi ziren baserritarren (hots, donostiar guztien % 50 ingururen) artean.

6. Harresi barruan ere, "Donostiako kalean" alegia, 1650etik aurrera ez da hiru eleko konpartimentazio arrastorik ikusten. Ikus, adibidez, 1663an Santa Teresako lekaimetxea sortu eta gizajende egokiz hornitzeko garaian, agertu ziren buruhausteak (Murugarren 1963: 47-48). Hartarako begiz jotako mojen artean euskaldunik ez izatea gertatu zen arazo bakarra, ez gaskoi-erromantzez zekikeenen bat falta izatea. Euskara zen Donostiako (are harresi barruko) jende arruntarekiko tratu-harremanetarako beharrezko, ez gaskoia, 1663an. Hala izaten jarraitu zuen handik aurrera, XIX. mendean gaztelania indartuz eta zabalduz joan arte. Beste hitzetan esanik, euskarak irabazia zuen tarte horretan, "Donostiako

[33] Serapio Muxikak maiz gogorarazi izan du "el uso del citado idioma gascón en estos pueblos".

[34] Datu horren jatorria Gamon-en aipamenean badago ere, Muxika 1923 da gure iturria. Geroztik askotan aipatu izan da hori: ikus, adibidez, Orella Unzué 2010.

kalean", gaskoiarekiko L-nagusitasunaren auzia: irabazia zuen dagoeneko, erabat, edota irabazten ari zen nabarmen.

7. Noiz galdu zen gaskoia erabat, Donostiako hiribilduan, L-hizkera moduan? Gai hori landu dutenak ez datoz bat. Gamon-en ustean XVIII. mendearen hasieran galdu zen gaskoia, L-hizkera moduan, Donostiako harresi barruan. Beste zenbaiten iritziz, aldiz, XVIII. mendearen amaieran-edo burutu zen galera hori. Gauza bat dago argi: XIX. mendean ez da inon esaten, donostiarrak (donostiar-talde bat bederen) gaskoi-erdaraz mintzo d(ir)enik harresi barruan.

8. Pasaian, aldiz, beranduago arte iraun zuen gaskoiak bizirik. Doctor Caminok dioenaren argitan[35] bizirik zirauen gaskoi-erdarak Pasai Donibanen, XVIII. mende-amaieran[36]. XIX. mendean ere bizirik iraun zuen, gainbeherako joera argiz halere[37]. Autore batek dioenez, "consta del uso del gascón en Pasajes entre 1802 y 1870" (Orella Unzué 2010). Soraluzeren 1870eko baieztapen argiaren arabera[38], Muxikaren hitzetan "a la vuelta de la conquista del Bearne en 1205, vinieron con Don Alonso VIII de Castilla muchas familias que se establecieron en las inmediaciones de Pasajes, origen del gascon, todavia conservado en este pueblo" (Pasai Donibanez ari da hor Muxika, Soraluzeren 1870eko *Historia general de Guipúzcoa* aipatuz).

---

[35] Ikus *Diccionario geográfico de la Academia* (Muxika 1923).

[36] Doctor Caminoren hitzetan, «En esta unión de la Gascuña con Castilla debe ponerse al parecer la época y origen de haberse introducido en San Sebastián y pueblos alrededor la lengua gascona, que fué muy corriente y aún se usó en públicos instrumentos: bien que hoy día solo se habla en Pasajes».

[37] Euskarak eta gaztelaniak, ez dakigu bietako bakoitzak zein neurritan eta zer moldez, irabazi zioten gaskoiari L-hizkera arruntaren alorreko nagusitasun-lehia. Han-hemen jasotakoaren argitan, tartean Victor Hugoren azalpenetan oinarritu behar bagenu, L-alorreko hizkera nagusi izateko lehiaren irabazle nagusia euskara izan zela esan beharko genuke. Horren alde ageri da, hasteko, H. Gavel: «á Pasajes le triomphe du basque a été complet et ceci nous montre que si en quelques endroits de son domaine le basque a malheureusement perdu du terrain au cours des derniers siécles, il lui est arrivé aussi de faire des conquétes». Nahi bezain argi ez badago ere kontua, erdibideko zerbait uler liteke G. Lacomberen pasarte honetan: "Le coté Banda de Francia est revenu peu à peu à la langue Basque et à l'Espagnol, avec cette différence qu'on y parle plus l'Espagnol que le Basque, les descendants des Gascons s'arrangeant beaucoup mieux des analogies offertes par la langue Espagnole que des contrastes et des difficultés de la langue Basque" (Lacombe 1919 : 51). Horiek baino datu argiagoak bildu, kontrastatu eta sintetizatzea falta da gure ustez, baieztapen argia egiteko.

[38] Ikus bere *Historia de Guipúzcoa*, II. liburukia, 94 or.

9. Gaskoiaren gure arteko galera ez da, beraz, hain aspaldikoa. Noiz utzi zitzaion Pasaian gaskoi-erdaraz egiteari? XX. mendearen lehen laurdenean. Ez dira oraindik ehun urte Pasaiako azken gaskoi-hiztun ezagunak hil zirela. Serapio Muxikaren (1923) esanean, "hacía pocos años existía en la ciudad [Pasaiaz ari da Serapio, zehar-datuen argitan[39]] una tertulia de ancianos gascones que a pesar de conocer bien el vascuence, gustaban de hablar en gascón cuando se reunían. Entre estos se hallaba la serora de la parroquia, de apellido Illarramendi[40], el alguacil de la villa y su hermana, y algunos allegados suyos. Poco a poco han ido desapareciendo estos postreros restos gascones, y de los últimos en morir han sido Eduvigis Trecett, hermana del alguacil, que falleció octogenaria en 1918 y el alguacil Luis Trecett, que falleció en Septiembre de 1919".

Zergatik etorri ziren gaskoiak hona, eta noiz? Erantzun bat baino gehiago eman izan zaie bi galdera horiei. Has gaitezen atzekoz aurrera: noiz etorri ziren gaskoiak Donostiara? Gaia aztertu duen hainbat autorek dioenez, 1150 inguruan, 1200 aldean edota bien bitartean (demagun, 1180an) finkatu ziren gaskoiak Donostian. Gaskoi-jendearen gure arteko presentzia hori ondotxoz lehenagokoa izan litekeela dioenik ere bada tartean, dena den. Gaurkoz ez dugu uste gauza segururik esan litekeenik data kontu horretaz. Bihar edo etzi Atlantiko aldeko itsasgintza zaharraz, Erromatar Inperioaren ondokoaz eta Goi Erdi Arokoaz gehiago dakigunean eman ahal izango zaio apika galdera horri erantzun beteagoa.

Zergatik etorri ziren hona? Aurreko galderarekin hertsiki loturik dago bigarren hau, eta aurrekoak bezala ugariagoak ditugu horri buruzko lan-hipotesiak

[39] Pasaian ezkondu zen Eduvigis Trecet hori (1854-01-23an) eta bertan izan zituen lehenengo hiru haurrak (1854an, 1856an eta 1863an). Egia da, halere, Bilbon izan zuela laugarrena. Pasaian bakarrik ageri da, bestalde, bere anaia Luis Trecet. Pasaian ageri da, azkenik, bien anaia Rafael.

[40] Ez dugu lokalizatu. Bere ahaide hurbilena (ahizpa?, lehengusua?) 1888an Pasaian hildako Maria Josefa Nicolasa Yllarramendi Macazaga izango da agian.

ongi kontrastaturiko ondorio-emaitzak baino[41]. Segurua, nolanahi ere, hau da: Gaztelaren edo Akitaniaren ezkon-loturazko eragin-esparruaren zabalkundeagatik, Europako itsas merkataritzaren estrategia berriengatik, Aturri itsasoratzen den bokalean hondar-barra sortu izanagatik edo dena delakoagatik, momentu batetik aurrera (beranduenik 1200etik hona, agian ondotxoz lehenagotik) aski beregain bizi izan ziren gaskoiak Donostian (eta hala jarraitu zuten luzaro, belaunez belaun). Hasieran biztanle bakar, nagusi edo (gure ustez, errazago) Beterriko *Sprachinsel* moduan biziko ziren bertan, gero hiribilduko biztanle-atal gailen eta esanguratsu, azkenik donostiar berezi gisa.

Diogun, gaskoien atal honekin amaitzeko, gaskoi-hizkuntzako hainbat ponte- eta deitura-izen, orobat kale- eta leku-izen askotxo, indar betean gelditu dela

---

[41] Demagun horietariko zenbait:
Baionako barraren hipotesia: Izagirre medikuak eta beste hainbatek emandako azalpena da. Barra bat, hondar-hondo bat, sortuko zen Baionan une batez (gogoratu kanta ezaguna: itsasoa lano dago, Baionako barraraino), eta merkatarien itsasontziak (batez ere urruneko merkataritzan erabili ohi zirenak) barra hori ezin pasaz edo arriskupean pasa beharrean geldituko ziren. Hots, bertako eta kanpoko (tartean, agian, ordura arte Baionan maiz porturatutako Hansa-esterlin) merkatariek Baionako portu zaharra ezin erabili izango zuten handik aurrera, ez lehengo erraztasunez behintzat. Antzekorik irakur liteke Lacombe-gan: "el gascón se hablaba entre algunas familias vascas (..) residuales de una colonia franca, proveniente del otro lado de los Pirineos (..). Se trataba de marinos bearneses, de Cap Breton, de San Juan de Luz y de Hendaya que frustrados por el tapón de la barra del Adour se establecieron en Pasajes, que como puerto les ofrecía bosques y hierro para sus barcos para la pesca de la ballena" (ikus Georges Lacombe 1919).
Gogora dezagun, berriz ere, Aturri ibaia gorabehera handiak izandako ibaia dela. XIV. mendean (1310 edo 1330ean) Baionatik iparraldera mugitu zen ibaiaren ahoa, Vieux-Boucau-raino. 1578an lan handiak egin ondoren eta eurite baten laguntzaz, Baionara itzularazi zuten ibaiaren ahoa. Geroztik arazo handiak ematen ditu Baionako ahoak, bertan hondarra pilatzen delako eta pilatutakoa maiz garbitu behar delako. Portu seguruagoak ziren eta dira Cap Breton-ekoa eta, seguruenik, Pasaiakoa (ikus Eau et Industrie 1979, Mes Landes 2010, Clouet 2020, Landes en vrac 2020). Ibaiak tokian tokiko ekonomian zuen garrantzia kontuan hartzen badugu, baliteke biztanleriaren behinolako etorrerak ibai-aho edo bokalearen egoerarekin nolabaiteko lotura izana.
1150 inguruko hipotesia: "Algunos autores sostienen que los gascones vinieron a San Sebastián cuando Alienor se casó (1152an) con Enrique II Platagenêt porque no querían pasar a ser súbditos ingleses" (ikus Serapio Muxika 1923);
1180 inguruko hipotesia: "la nueva población de San Sebastián al pie del monte Urgull se formó en tiempos de Sancho VI el Sabio con gascones procedentes de Francia" (Jose Muxika 1967). Hipotesi horren aldaera landuagoa ageri du Orella Unzuék. Honela dio autore honek (2013), beste hainbaten moduan: "En 1180 se fundó San Sebastián para los extranjeros gascones emigrados de la Gascuña. (..) San Sebastián fue fundada en 1180 para dar carta de naturaleza burguesa a esos gascones que ya habían ocupado el pie del monte Urgull".
1200 inguruko hipotesia. Hau ere gertakari dinastiko batean oinarritzen da: "En esta unión de la Gascuña con Castilla (1204) debe ponerse al parecer la época y origen de haberse introducido en San Sebastián y pueblos alrededor la lengua gascona" (Doctor Camino 1801);
d) Frantsesen gurutzada- eta kolonizazio-joera zabalaren aplikazio konkretuaren hipotesia. Honela zioen Karmelo Etxegaraik 1923an, Serapio Muxikari eginiko gutun batean: "sin necesidad de sublevaciones y de guerras, se explica la presencia de gascones en Guipúzcoa, por la poderosa corriente de emigración francesa que hubo en aquellos siglos y de que hay tan claros ejemplos en toda la península española no sometida a la dominación de los mahometanos. En la conquista de Tudela por Alfonso el Batallador, intervino un buen núcleo de cruzados franceses, como antes en las batallas de Barbastro y de Huesca y después en la toma de Zaragoza. La misma peregrinación a Santiago de Compostela fue estimulada y favorecida por los franceses, principalmente" (Orella Unzué 2010).

Donostian. Ikus, adibidez, *Aiete, Añorga, Arzac/Arzaq, Beloca, Calonge, Enbeltran, Engomez*[42]*, Estor, Jaumar, Martut*ene*, Miramón, Mont-pas, Narrika*[43]*, Pollon/Polloe. Morlans, Mirail(l) /Miralles, Molinao*[44]*, Pontica, Pumeraque, Pui/Puy , Puyo , Puyuelo, Pasaje* (hortik euskal Pasaia), *Sansut*. Beste hauek ere aipatu izan dira, posibleen artean: *Barbasoill*, *Merquelin, Primaot, San Melet*.

Maiz aipatu dugunez, gaskoi-jendearen eta, batez ere, beraien mintzairaren (zehazkiago, gaskoi-jendearen mintzaira desberdinen aldaera-sortaren) alorrean segurtasun-maila mugatuko edo eskaseko hipotesiak dira gehienak. Sarriago ditugu halakoak esku artean, egia (egiaren norabide-enbor nagusia) bermatuko luketen testigantza kontrastagarriak baino. Ezinbesteko egoera izan da muga-eskasia, egungo egunera arte. Adituen ondorio-aniztasuna ekarri izan du horrek, gutxi edo asko, behin baino gehiagotan. Dauden datu urrietatik inferitu behar izan da informazioa, eta, datu horiek modu batean baino gehiagotan uler zitezkeenez, inferentzia horiek ondorio diferenteak, inoiz kontrajarriak, iradoki izan dituzte. Hortik abiatu gara gu ere: gaskoiek Donostian luzaro izandako presentzia azpimarratzen duen tradizio historiografikoaren ikuspuntua bere horretan onartu eta berretsi izan dugu oro har. Azken urteotan, halere (eta zorionez), orain arteko ondorio ustezkoen berrazterketa egiteko baliagarri berriak agertzen hasi dira, batez ere historialari gazteen eskutik. Aparteko lekua zor zaio, berritze-lan horretan, Iago Irixoari: bibliografiaren irakurketa exhaustiboa egin, jatorrizko dokumentuak sakon aztertu eta irakurketa historiko eta historiografiko zorrotza burutu ondoren sustrai sendoko hainbat hipotesi osagarri plazaratu ditu Iagok: partez edo osoz, aurreko paradigmaren berritzaile dira ekarpenok. Bere irakurketaren arabera, esate baterako, Donostiako (eta inguruko, tartean Oiartzualdeko) hainbat hiztunen eguneroko jarduera arruntean gaskoi-erdarak benetan zuen indar-zabalera baliteke dokumentu idatzietatik orain arte inferitu izan dena baino murritzagoa izatea. Bere azalpen-bidearen arabera, gaskoiak leku jakin batzuetan (Donostian eta Pasaian) presentzia ukaezina izan zuen bertako biztanleen eguneroko jardueran, baina Gipuzkoako beste eremu batzuetan gaskoiz idatzita topatzen den dokumentazioak ez gaitu hori eta horrenbestez ondorio berera eraman behar: dokumentazio idatzi horrek ez du ezinbestean adierazten bertoko biztanleria gaskoiz mintzo zenik: ez erabat, ez nagusiki eta ez, agian, inola. Bi dokumentu mota nagusi topatzen dira gaskoiz, kasu horietan, Irixoaren iritziz: merkataritzari lotutako dokumentuak edo Frantziako eta Espainiako agintarintzen arteko informazio trukea.

---

[42] Muxika, 1923: “Em, en, significa don, señor en la lengua de Oc, y Engomez suena a Don Gomez o Señor Gomez.”

[43] Hots, “Doña Rica”.

[44] Hots, “errota berri”.

Donostian eta Pasaian gaskoiak izan zuen presentziari dagokionez, Irixoaren iritziz XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran gaskoiari lotutako testingantzek ez dute adierazten hizkuntza horren jarraipena toki horretan XII. mendetik. Gaskoi hiztunez osaturiko zenbait populatze-olatu egongo ziren hainbat unetan, eta olatu horiek azaltzen dituzte une historiko bakoitzean jaso diren testigantzak[45]. Honela dio Irixoak: "Pasaian XX. mende hasieran azken hatsa eman izanak ez du esan nahi, nahita nahi ez, XII. gizalditik datorren eta etenik izan ez duen prozesu bat izan zenik. Egia da XV. mendean Pasaialdean ikusten ditugun abizenen artean Iparraldeko jendea dagoela, baina beraien indarra ez zen orain arte uste izan dena bezain handia izan. Alde horretatik, susmoa dugu hizkuntzaren iraupenak harreman estuagoa izan zuela XVII. mende amaieratik aurrera gertatutako mugimendu desberdinekin, Erdi Aroan errotuta dauden prozesuekin baino." (Irixoa 2019: 107).

Autore honen aburuz, gaskoiaren presentzia Donostian adierazgarria izango bazen ere[46], Pasaiako kasuan baliteke historiografiak[47] azpimarratu ohi duena baino presentzia apalagoa eduki izana gaskoiak biztanleen eguneroko jardueran[48]. Honela dio Irixoak: "Oiartzunen hizkuntza arrotz batean egiten zuen komunitate sendo bat bertan finkatu izanaren ideiak erakargarritasuna duela aitortu behar dugu, bereziki adituek esandakoak aintzat hartzen baditugu. Honekin batera,

---

[45] Autoreak dioenez "Ildo horretatik, XVII. mendearen lehenengo hamarkadetan, bereziki 1611 eta 1627ko dokumentazioak aditzera emandakoak gogora ekar daitezke. Alta, garai horietan gaskoiak nolabaiteko indarra bazuen ere, horrek ez du esan nahi bertan gertatutakoa XII. mendean hasi eta zazpiehun urtetan zehar inolako aldaketarik jazo gabeko prozesua izan zenik (…)" (Irixoa 2019: 70).

[46] Honela dio Irixoak: "gure ustean Pasaiak eta Oarsoaldeak ezagututako gaskoien etorrera ez zen Donostia bezalako hiribilduetan eman zen garaian jazo, hau da, XII. mendearen hasiera aldera. Hainbat mende beranduago gertatutako prozesua delakoan gaude." (Irixoa 2019: 107). Beste artikulu batean honela dio: "Jakina da Donostia eta Hondarribiko hiribilduak kokatu ziren lekuetan gaskoiek berebiziko eragina izan zutela populazio gune horiek hiribildu maila eskuratu zezaten. Prozesu honek izan zuen eragina ikertzea historiografiaren gai kuttunetako bat izan da, bereziki gaur egun oraindik mantentzen diren toponimo ugariak direla eta. Horrez gain, azkeneko ikerkuntzek gaskoiek Altzaren eraketan izan zuten pisua ere azpimarratu dute. Ildo honetatik jarraituz, Donostiak garai honetan bere gain hartzen zuen lurraldeaz gain, Pasaiako badia ere gaskoien edo behintzat, gaskoi jatorriko familien jo puntu bezala jarri da, bereziki Pasai Donibane. Gamonek oso datu interesgarria aipatzen du gaskoien etorrera honetan. Bere ustetan, gaskoiak San Pedrora XIV. mendean joan ziren bizitzera. Prozesu hau, ordea, ez zuten zuzenean Baiona edo Iparraldetik egin, Donostiatik baizik. Eta lekualdatze honen protagonistak hainbat arrantzale izan zirela zioen, pixkanaka etxolak eginaz eta eliza eraikiz." (Irixoa 2012a: 36).

[47] "Gure aburuz, historiografikoki gaskoiei Oarsoaldean eman zaien garrantzia uste baino askoz apalagoa izan zen eta izatekotan, beranduago gertatutakoa. Altza dugu adibide bat, bertako komunitatearen antolakuntzan gaskoi kutsu nabarmeneko abizenek protagonismo adierazgarria izan baitzuten, 1390ean eliza eraikitzeko asmoek ondo adierazi bezala." (Irixoa 2019: 69).

[48] Hainbat datu ematen ditu Irixoak bere 2012ko artikuluan, tartean populazioaren abizenen azterketa egiten du. Ondoko ondorioetara iristen da: "Donibane eta Lezoko egoera hau gaskoiek edo gaskoierak bertan izan duen (edo ikertzaile ezberdinek eman dioten) indarrarekin kontrajarria dago, onomastika aldetik, behintzat. Orain aurkeztu ditugun datu eskasen arabera, gaskoi kutsua duten abizenak urriagoak dira euskal jatorrikoak baino." (Irixoa 2012a: 63).

Done Jakue bidearen eraginaz hitz egin daiteke. Beste hainbat lekutan, baita Nafarroa, Gaztela zein Leongo erresumetan sortu eta garatutako hiribildu eta hirietan ere, komunikabide horri jarraituz, "frankoen" eragina nabarmena izan zen XIII. mende hasiera arte. Ideia hori, ordea, sakonki berraztertu beharrean gaude. Pasaiako (eta Oarsoaldeko) kasurako eman diren baieztapenak ahulak direla uste dugu, eta Pasai Donibanen XX. mende hasieran oraindik ere gaskoi-erdaraz hitz egin izanaren arrazoia berraztertu egin beharko litzateke. Beste era batera esanda, horren hedatua dagoen eta Pasaian, XII. mendean zehar Baionatik etorritako gaskoien finkatze sakon bat defendatzen duen hipotesia alboratu beharko genuke" (Irixoa 2019: 67-68).

Autore honen iritziz, gorde diren toponimo gaskoiak hainbait arrazoi izan ditzakete: "Pasaian gaskoiaren agerpena eta finkatzea, beraz, beste dinamika batzuekin lotu beharko genukeelakoan gaude; besteak beste, XVII. mendearen bigarren erdialdean bale-ehizaren gainbeherak Iparraldean sortutako krisiarekin. Horren lekuko, toponimia bera dugu. Alde batetik, leku-izen gaskoi bat egoteak ez du zertan XI-XIII. mendeen artean sorrera izan behar, Molinao kasu. Bestetik, leku batean toponimia gaskoia izateak ez du esan nahi izena ustez bertan bizi ziren gaskoiek emandakoa denik; gerta zitekeen handik hurbil zeuden komunitate batzuen ekimena izatea. Horiek lirateke, hain zuzen ere, Kodemasti ("*cod de mastel*") toponimoaren edo "Pasaje" hitzaren beraren kasuak, azken hori gaskoitzat hartzekotan, Howeden-ek hartzen duen "Huarz" aldaera ahaztu gabe" (Irixoa 2019: 71).

Are gehiago, Irixoak dioenez, "Honekin guztiarekin zera esan nahi dugu: kutsu gaskoieko Pontika leku-izena ez dugula XII. edo XIII. mende hasieran ustez finkatutako gaskoi komunitate batekin lotu behar. Hori baino, Altzan eta Pasaialdean 1350 ingurutik aurrera eman ziren pausoen ildotik sortutako ondorio berantiarra litzateke" (Irixoa 2019: 92), eta aurrerago dioenez, "Badirudi hainbat leku-izen gaskoik sorrera berantiarra izan zutela, baina Altza-Molinao-Malvernet-Alaberga-Pontika inguruaren okupazio donostiar-altzatarraren baitan ulertu behar ditugula" (Irixoa 2019: 94).

Laburbilduz, eta Iago Irixoak azaldutakoak gaizki ulertu ez baditugu:

1. Gipuzkoan gaskoiz idatzirik jaso diren dokumentuek ez dute beti-beti adierazten dokumentu hori idatzi zen tokian jendea eguneroko jardunean (etxean eta kalean, lanean eta tabernan, are udalean) gaskoiz mintzo zenik ezinbestean. Gauza bera pasatzen da gaztelaniarekin gero, diglosiaren adibide prototipikoa izanik agergai. Hori bai, Donostiari dagokionez gaskoien presentzia ukaezina argi azpimarratzen du Irixoak.

2. Donostiaren gerri-bueltako zenbait herritan topatzen diren gaskoizko leku-izenak, Baiona inguruko populazio baten testigantza baino areago, Donostiatik lehorrera beranduago zabaldutako mugimendu jakinen errainu huts izan litezke. Horrela, Donostiak Pasaia aldean bere mende zituen auzoetan gaskoi-hizkuntzak ageri duen presentzia baliteke berantiarragoa izana[49]. Are gehiago: jaso diren testigantzak populatze-olatu bakoitzaren ondorio izan litezke. Laburbilduz, testigantza onomastiko horiek ez leudeke, beti eta nonahi, gaskoi-mintzairaren belaunez belauneko transmisio- eta iraupen-molde prototipikoarekin loturik.

Mende joanen ulermen zabal, sakon eta doiagoa lortzeko ate-leiho berriak zabaltzen dizkigu, bistan da, Iago Irixoaren ekarpen aberatsak. Eskaintzen duen paradigma berri(tu) horren argitan asko gelditzen da oraindik, jakina, gaskoi-hizkuntzak gure artean demolinguistika alorrean eta, batez ere, euskara-erdaren nagusitasun-moldaeraren aldetik zuen konfigurazioa zehaztu eta argitzeko. Aukera ederra eskaintzen du, nolanahi ere, gai horretan oraindainokoan baino baliabide seguruagoez jokatzeko eta etorkizunean agertuko diren testigantza berriak teoriazko oinarri aberats-finduagoez lantzeko. Jauzi baten aurrean gaude.

3.3. EUSKARA

Has gaitezen errazenetik: Donostian (eta bere inguru hurbilean) zer presentzia, zer hedadura eta zer indar izan du euskarak irakur-idatzizko jardunean, menderik mendeko ibilbidean? Zer leku okupatu du gure mintzairak bertako harreman-sare (batez ere formal)etan, idazki-mota batzuetan eta besteetan, aldian aldiko dokumentazio ezagunaren argitan? Erantzuna argia eta zorrotza da ezinbestean: Euskal Herriko leku eta aldi gehienetan bezala, Erdi Arotik hona leku meharra izan du euskarak Donostian eta Beterrin, idatzizko jardunean: meharra eta, are, oso meharra. Erdarak (latina lehenik, batez ere latin ondoko gaskoi- eta gaztela-erdarak gero) izan ditugu idatzizko jardunean jaun eta jabe: hala izan da kontua administrazio-, aginte- eta merkataritza-alorreko dokumentu idatzietan, hala ikasketa-maila batetik gorakoetan eta hala, are, eliza-esparruko dokumentu gehienetan: baita jaiotza- eta heriotza-agirietan ere[50]. Dotrina elebidunen (gero, inoiz, euskara hutsezkoen) presentziak ez du, jakina denez, joera nagusi hori

[49] Honela dio Irixoak: "XIV. mende amaieran abiatutako ekimenak gune horretan eman zen lehenengo eraldaketa sakona ekarri zuen. Izan ere, Donostiak bultzatutako plana dugu, gune hori propio populatzeko asmoz; ez zuen, beraz, aurreko hamarkadetan pixkanaka kokatu ziren gaskoi kutsuko familiekin lotura zuzenik. Finkapen hau bultzatzeko, 1397-1400 urte inguruan, Urumeako hiribilduak badiako zonalde horretan ezarri nahi zen edonori etxea eraikitzeko orubea eta baratzerako lursail zati bat doan ematen zizkion, inolako errentarik ordaindu gabe" (Irixoa 2012b: 146).

[50] Euskaldunon izen-deituren (batez ere deituren) erdalduntze fonografiko ohargarria eragin izan du horrek, maiz. *Buenechea* baten oinarrian *goenetxea* dagoenik ez da lehen begi-kolpean asmatzen erraza.

errotik aldarazten. Are gutxiago XIX. mendetik honako eskola-liburu gehienen izaera eta erabilera: *transitional bilingualism* paradigmaren ildokoak dira gehienak, eta berandu arte (azken berrehun urteok arte, nekez antzematen da ondorio praktiko handirik bertako biztanleen euskarazko irakurmen-idazmenetan. Ahula eta murritza izanik ere euskararen idatzizko presentzia hori, ez da Euskal Herriko beste hainbat lekutan bezain meharra izan, une batetik (demagun, XVIII. mendetik) aurrera: Lapurdin XVII. mendean izandako euskalgintza idatziaren loraldia alde batera uzten badugu, konparatiboki indartsu agertu izan da euskararen idatzizko jarduna, azken ia hirurehun urtean, Beterrin oro har eta Donostian bereziki. Duen hedadura eta sortu duen ondorio-katea ez da gutxiestekoa. Hurrengo batean helduko zaio kontu horri, era monografikoan (hemen ezin da, leku eta denbora faltaz). Gatozen hortaz, besterik gabe, hitzezko adierazpidera.

Eguneroko hizkera arrunta, bertako biztanle gehienen hizkera espontaneo eta informala, izan da euskara, luzaro, Donostiako kalean eta, are nabarmenago (ia erabateko nagusitasunez), hiriaren harresietatik kanpora baserriz osaturiko udalerri gehienean. Eskueran ditugun datu mugatu baina esanguratsuen argitan hala izan dira kontuak, bereziki, berrehun bat urtez: demagun, XVII. mendearen erdi-aldetik XIX. mendearen erdi-ingurura arte. Noiztik dator euskararen L-esparruko gailentasun-kontu hori? Noiz arte iraun zuen nagusitasunezko moldaera horrek? Noiztik da euskara, hasteko, Donostiako hizkuntza arrunt? Erantzun zaila du horrek, ez baitugu horren testigantza idatzirik. Euskaraz egiten ote zen hemen, orain dela 2000 urte? Ez dakigu seguru. Litekeena da erromatarren garaian aitzineuskara eta latina izatea nagusi orduko[51] Izurun herrixkan edo zena zelakoan. Urgull mendiaren kontra hondakin zaharrak agertu dira, hain aspaldi ez dela. Espezialistek esan dutenez, hondakin horietariko batzuk Erromatar Inperioaren garaikoak ditugu. Urgullen magalean latinez ere egingo zela uste izatekoa da, beraz. Latinez bakarrik nekez, ordea, gorago aipatu diren lehorreko Hinterland euskaldunarekiko tratu-harremanak zirela medio, besteak beste. Bietara egiten zela ontzat emanik ere, urrun gaude erantzun argi-zehatzetik: batez ere latinez ala latinez eta euskaraz? Ez daukagu erantzunik. Eta gero, Inperioa erori ondoan, zer bilakaera izan zuen Gipuzkoako kostaldeko hiztun-elkarteak? Elebidun iraun al zuen, hein batean edo bestean? Hala izatekotan, zer elebitasun molde nagusitu zen bertan?

Gatozen lehengora: Gipuzkoako kostaldeko beste zenbait herritan (Irunen, Zarautzen, Getarian) agertzen ari diren testigantza arkeologikoen argitan, aspaldiko bizigune (babes-portu, tratugune) izan dira Bizkaiko Golko honetako hainbat leku. Erromatarrak etorri aurrekoak dira horietako zenbait: haien aurrekoak, baina haiek populatuak. Gero ere, VIII. mendetik aurrera-edo, kokagune-eske-

[51] *Orduko* edo, zuzenago agian, *geroxeagoko*.

ma jarraikia ageri da bertako hainbat kasutan. Litekeena da Donostiaren aurreko Izurun[52] ere sail horretan sartzekoa izatea. Populazioaren eta bere eraikuntza-lanen menderik mendeko jarraipenak baluke, bila gabiltzan erantzunei begira, bere garrantzia.

Hori baino inportanteagoa dugu oraingoz, halere, beste datu hau: Lapurdiko zein Gipuzkoako *Getaria* toponimoa, latin-mailegu izanik jatorriz, euskal (ez erdal) hots-aldaketa arauz moldatu da egungo formara iristeko[53]. Hots, euskaraz mintzo zen jendearen ahotan moldaturiko sorkari da *Getaria* hitza. Erromatar Inperio ondoko mintzajarduna kostalde-inguru horretan nagusiki euskarazkoa izana dela pentsatzera darama hipotesi horrek, kontrako argudio-oinarri hoberik azaltzen ez den artean. Oso kontuan hartzekoa dela uste dugu hori, eta Donostiako kasuan ere balio-indar argikoa gerta litekeela. *Dut*-esparruko *Doneztebe*, *Donibane, Donapaleu, Donamaria* eta beste hainbaten moduan moldatua dateke euskaraz, kristau-latinezko izendapen molde ezagunetik abiaturik, *Donostia* toponimoa.

Kontuak ez du, ezinbestean, horrela gertatua izan beharrik. Litekeena da, berez, euskararekin batera (are euskararik gabe) erromantze propio bat bertan sortu izana eta, harrezkero, erromantze horrek (bere bilakaerak) etenik gabeko presentzia izatea gure artean: bai Donostian eta bai, oro har, ur-isuria Kantauri aldera zuen euskal mintza-esparru zabalagoan. Zenbaitek, tartean Maite Etxenikek, zera esana du aspaldixko: azken mendeotan gure artean dabilen Gaztelako erromantzea, agian (edo seguruenik), hemengoa (Bizkai-Gipuzkoetakoa) dela sortzez, ez gero inportatua. Erromania zaharreko (batez ere Galiako eta Hispaniako) beste zenbait lekutan latin arruntetik erromantzera pasa ziren hiztunak, Goi Erdi Aroan-edo, jakinaren gaineko eten zakarrik gabe: Iberiar Penintsulari eta ingurumari hurbilari dagokionez, hortik sortu ziren katalana, okzitaniera, Aragoiko erromantzea eta Nafarroakoa, gaztelania, galego-portugesak eta abarrekoak. Beraz, zergatik ez hemen ere halakorik izan? Hipotesia hor dago. Ezinezkoa ez da. Horren aldeko testigantza-datu sendorik ez dago, ordea, eskueran. Hipotesi-giro hutsean gabiltzalarik, baliteke halako zerbait gertatu izana, baina hipotesi horrek helduleku ahulak ditu oso: Erromaniako beste kasuetan sekuentzia historiko zabala daukagu halakorik baieztatzeko; hemen ez. Erdi Arotik datozen iturrie-

---

[52] Hala ageri da Goi Erdi Aroko dokumentu batean ("donación de Sancho el Mayor del año 1014 al monasterio de Leire del monasterio de San Sebastián con su parroquia y aquella villa que los antiguos llamaban Izurun con sus iglesias de Santa María y de San Vicente", Auñamendi entziklopedia, Izurun), orduko *Donostia* lehen *Izurun* izandako lekuan zegoela adieraziz. Ez da testigantza handia. Are gutxiago nahi bezain sendoa. Badu halere, flakezia guztien artean, bere aldeko heldulekurik: euskal toponimia zaharraren baitan aski egoki txertatzen da, hasteko, hitz barneko erabidez. Badu, horrezaz gainera, izen bereko beste kiderik: Zumaiako *Izurun*.

[53] Ikus Gorrotxategi 2009: 551 eta Gorrotxategi 2000.

tan ageri diren testigantza esplizitu apurrek zera diote, hasteko: Nafarroan (eta Iparraldean) euskaraz egiten zela; agintearen bilgune edo merkataritzaren harreman-plaza ziren leku jakin-jakinetatik kanpora, erabat edo nagusiki. Gipuzkoaz eta Donostiaz ez dago horien pareko aipamen zehatzik, baina nekez izango zen Gipuzkoako hizkuntza-egoera Nafarroakoa baino nabarmen erdaldunagoa. Bietara (euskaraz eta erromantze batez edo gehiagoz) egin al zitekeen hemen, demagun orain dela mila urte? Bai, egin zitekeen. Ele biko formulazio posibleen artean diglosiazko moldaera genuke, jakina, aukera teoriko nagusia. Luze-zabal hedaturiko edo soziofuntzionalki konpartimentaturiko elebitasun iraunkor baten arrasto zabalik ez dugu, ordea, eskueran. Altzo Beheko Olazabalgo 1025eko dohaintza-idazkia, demagun, ezin esan liteke hemen idatzi zenik eta hemengo irakurle multzo zabalentzat prestatu zenik. Gorde ere, hemendik aparte gorde izan da mende luzez. Berdin gertatzen da Donostia edo bere ingurua aipatzen duten aginte-esparru erlijioso edo zibileko dokumentu zahar haiekin. Hemendik kanpora prestatuak oro har, eta hemendik kanpoko irakurleentzat atonduak nagusiki. Horietatik ezin erator liteke, ez gutxi eta ez asko, Donostian Goi Erdi Aroan erromantze propio batez hitz egiten zeneko hipotesiaren aldeko froga sendorik. Orduko biztanleek luze-zabal (H funtzio formaletan, L esparru zabalean edo bietara) gaskoi-erdaraz egiten zutela uste izateko daturik ere ez dago, argi, 1150. urte-inguruaren aurretik.

Hortik abiatu beharra daukagu, beraz, kontuak ateratzen. 1150-1200 inguruan gaskoi-jendea kokaturik dago, edo orduan kokatzen ari da, Urgull mendiaren magalean. Baionatik edo urrunxeagoko Gaskoiniatik ekarri duten erromantze-erdara zabal dabil beraien artean, hitzez hasieran eta hitzez zein idatziz gero: ikusia dugu hori aurreko atalean. Horrek ez du esan nahi, harresiz inguraturiko Donostiako kalean euskaraz egiten ez zenik. Donostia ez da, gainera, hiribildua bakarrik. Hondarribitik Oriora eta Errengatik Aranora doan lur-eremu zabala ere Donostiaren esparru da 1180ko foruz, eta hor (hiribildutik zein Pasaia-Hondarribietatik kanpora) bizi diren jendakiak euskaraz mintzo dira, lehen aipamenak ditugunez geroztik. Ez dakigu hiribilduan noiztik egin den euskaraz, baina hortik kanpora badakigu euskaraz egin dela nagusiki. Are gehiago: elebakar izan dira bertako hainbat biztanle. Donostiako euskararen indargune historiko seguruena harresietatik kanpora egon izan da mende luzez. Ikusteko dago 1180ko foru-agiritik honanzko hasiera hartan euskara-erdarek harresi barruan zer banaketa-eskema zuten. Hori ez dago argi eta, ezinbestean, nork geure proposamena (ustez seguruena) eskaini beharrean izan gara garai hartako hizkuntza-egoeraz jarduterakoan. Hona, gure iritziz, egiantz handieneko azalpena: euskal mintzaira-itsaso trinkoaz inguraturiko erdal hiztun-uhartea, "Sprachinsel" edo "enclave lingüístico" modukoa, izan da Donostia, itxuraz, orain dela 800 urte inguru. Hala zen orduan, eta halatsu iraun zuen, antza, zenbait mendez: demagun, XV. mendearen

amaiera arte-edo. Donostiak bere "Sprachinsel"-[54] edo "enclave"-izaera zahar hura pausoz pauso nola galdu zuen azaltzen saiatu gara gorago, gaskoi-erdaraz jarduterakoan. L-esparruan, une batetik aurrera, erdara bien gainetik nagusitu zela euskara esanik dugu orobat. 1650etik 1850era antzematen da euskararen L-esparruko gailentasun hori argien, gure ustez. Gogoratu 1663ko pasadizoa, Santa Teresa komenturako itzultzailearen beharra izan zutenekoa: "será de mucha utilidad tener dentro del convento religiosa que sepa la lengua bascongada y sirva de intérprete a las demás"(Rodríguez-San Pedro Bezares 1982: 80; Murugarren 1968: 47-48) Donostian bizi nahi zuen moja-talde erdaldunak euskal itzultzailea behar zuen, are klausuran bizi izanik, donostiarrekin interaktuatzeko. Euskarak Donostian zuen bizi-indarraren seinale nabarmena da hori.

Besterik ere esan liteke. Antolamenduzko, lanbidezko eta moldaera soziokulturalezko bi atal izan ditu luzaro Donostiak: batetik hiribildua, harresi barrukoa; bestetik baserri-aldea, harresitik kanpora bizi zen jende-multzo zabalaz osatua. Hasierako Donostia Bidasotik Oriora zabaltzen zela hartzen bada kontuan, uste izatekoa da lur-eremu zabal horretako jende gehiena harresi kanpoan biziko zela. Gero ere, Donostiako udalerria nabarmen murriztu zelarik lur-hedaduraz, badakigu biztanle guztien proportzio zabala bizi zela harresitik kanpora. XVIII. mendeko datuak badira, horren berri ematen dutenak. Guztiak ez datoz bat, baina lehen informazio moduan zera esan liteke: donostiarren erdia inguru (edo erdia pasatxo) harresi barruan bizi zela eta beste erdia-edo kanpoan. Hiribildutik kanpora bizi zirenak % 50 inguru genituen, beraz, une batean, demagun, 1750 aldera.

Harresitik kanpora bizi ziren donostiarrek zer hizkuntzatan egiten zuten? XVIII. mendeko eta XIX. mende hasierako dokumentu ezagunek zera diote: egin, euskaraz egiten zutela donostiar horiek, bai baserri-giroan eta bai "kalera jaisten" zirenean. Hots, "Donostiako kalean" ere euskaraz egiten zutela. Ez dago argi, bestalde, Donostiako baserritar haiek erdaraz zenbateraino zekiten. Ez dakigu, alegia, euskal elebakar ziren edo elebidun. Bigarrena errazago zenbait kasutan, entzumen-gaitasunari zegokionez bereziki; ez ordea beti. Elebidun izatekotan, bestalde, euskal elebidun izango zirela pentsatzeko motibo sendorik ez da falta. Ezin erdal elebidun izan, euskara hutsean baziharduten beraien artean eta kalean ere euskaraz egiten bazuten. Probableena zera da: donostiar horiek euskal elebakar izatea batzuek (seguruenik gehienak, tartean emakumezkoak eta txiki-jendea), eta euskal elebidun besteak. Bada dokumenturik honako hau dioenik: Donostiako eta, oro har, Gipuzkoako herriburuetako kaletarrek euskara hutsean egiten zutela baserritarrekin. Donostiako harresi barrukoek ere bazekiten,

[54] Mattheier-ek dioenez (1996: 812), "The term 'Sprachinsel' (language island) was used for the first time in 1847 to designate a Slavonic community surrounded by a German-speaking population close to Konigsberg".

beraz, euskaraz, eta, gaskoi-erdararen azalpena ematerakoan aurreratu dugunez, egin ere euskaraz egiten zen bertan, maiz. Harresi barruan denetik egongo zen, hori bai: erdal elebidunak batetik, elebidun orekatuak hurrena, euskal elebidunak bestetik. Baita, zehazten zaila den heinean, euskal eta erdal elebakarrak ere: batetik euskaraz baizik ez zekitenak, bestetik gaztelaniaz edo frantsesez bakarrik zekitenak.

Bakezkoa eta harmonia onekoa al zen, mende haietako donostiarren artean, euskara-erdaren arteko konpartimentazio soziofuntzionala eta eguneroko jarduna? Euskara-erdaren arteko harreman-bideak liskartsu zirenik ezin esan liteke: ez dugu hori esateko daturik[55]. Kontrakoa gogor baieztatzekorik ere ez. XVIII. eta XIX. mendeetako zenbait dokumentu aztertzen bada, Donostiako toponimo batzuetan euskarazko forma gailendu zaio erdal baliokideari ikusten da: *Ategorrieta* (inoiz *Puertas Coloradas*), *Ondarreta* (ez han-hemengo *el Arenal*)... Jendeak, leku horiek seinalatzerakoan, nagusiki euskaraz esaten zituen seinale iruditzen zaigu hori: ahozko izendapen arrunta, informal eta espontaneoa, idatzizko ofizialari (edo ofizial-gogokoari: hori ez dago garbi) zeharo gailendu zitzaion seinale da hori, gure ustez. Hor daude tartean, ordea, esplikazio argi baten esperoan ditugun *La Concha* eta *Miracruz, Miraconcha* edo *Miramar* gisakoak[56]. Eta hor dago, azkenik, XIX. mendearen bigarren erdian istilu-giroa inon baino agiriago leukakeen *Errege-soro* / *Alderdi Eder* / *Campo de maniobras*.

Harresitik kanpora (Aieten, Añorgan, Altzan, Zubietan, Igeldon...) aski berandu arte (demagun, 1960ra arte) nagusi izan da euskarazko mintzajarduna etxean eta auzoan, familiartean eta lagunartean; bai eta, hainbatetan, baserriko edo tailerreko lanean ere. Euskarazko mintzajardunaren katea ez da ordura arte, oro har, erabat eten: bertan bizi izan den populazio horren baitan indar biziz transmititu izan da euskara, belaunez belaun, bertako familia gehienetan. Bertako hizkuntza arrunt, normal, ohikoa izan da euskara, ordura arte. Donostiako landaguneko auzo-baserrietan hizkerabide informal-espontaneo nagusi izan da euskara orain dela hirurogei bat urtera arte. Erdalduntze-fenomenoa ez zen, jakina, bat-batean 1960 inguruan gertatu. Gauzak nabarmen hasiak ziren aldatzen harresiz kanpoko baserri-giro tradizional izanikako landagune horretan ere, XX. mendean zehar:

---

[55] Ikus liburu honetan J. Madariagaren artikulua, bereziki 3. atala: "Sobre la consideración y represión de la lengua".

[56] Orain arte analizatutakoaren argitan, ez dugu uste Hector Iglesias (2000) ikertzaileak XVIII. mendeko Lapurdin aurkitu duen "débasquisation toponymique et patronymique" haren parekorik dagoenik hemen. *Loretopeko (aitza)* > *Pico de Loro* moduko gaitz-itzulpenak ere besterik direla uste dugu. Ikerkizun dago hori guztia, dena den.

mende-hasieratik nabarmen ageri da joera hori, eta 1960 ingurutik aurrera[57] aparteko indarra erakutsi izan du. Aiete batean nekez esan liteke euskara nagusi denik L esparru soziofuntzionalean, hizkuntzen belaunez belauneko transmisio espontaneoa bizikien eragiten eta zurkaizten duenean. Egia da sarbide berriak eskaini zaizkiola euskarari nonahi (eskolan nabarmen eta, mugatuago, komunikabide batzuetan, literatura munduan, administrazioan eta abar), baina L-esparruaren gainbehera geldiarazteko indarrik ez du buru-jasotze horrek oraingoz erakutsi. Arras fisionomia soziolinguistiko berria (euskararen atzerabidezkoa, oro har, bere gotorleku tradizionalean; gorabide ausarta erdal agintepean egoniko H-esparru sail batzuetan) eman dio horrek guztiak Donostiako landagune izandako horri.

Noiz arte egin da euskaraz, aldiz, "Donostiako kalean"? Erantzuna aski erraza da, hala nahi bada: egungo egunera arte euskaraz egiten dugu donostiar kalekume euskaldunok ere. Erantzun ahula da hori, ordea: noiz arte izan da euskara donostiar kaletarron eguneroko harreman-hizkera arrunt, L-esparruko zereginetarako aparteko markarik gabea, lagunartean erdararen aurretik ezpainetaratu izan dena eta donostiar gehienok belaunez belaun, ia galerarik gabe, transmititzen jarraitu izan duguna? Galdera zehatzago horri erantzun beharrak ematen ditu lanak. Erantzun bila hasita, hoberik ezean Indalezio Bizkarrondo "Bilintx" dugu erreferente egokia[58]. Antzoki Zaharreko langile izan zen Indalezio, hil arte. Ederki egiten zuen euskaraz, bere kantu-lanei erreparatzen bazaie. Ondo egiten zuen gaztelaniaz ere, itxuraz: erdara garbian idazten zuen, antza, Madrilgo aldizkari batean. Kantatu behar zuenean, esan bezala, euskaraz egiten zuen. Zergatik? Besterik frogatzen ez den artean, aski motibo naturalagatik: inguruko lagunen, ezagunen eta entzuleen hizkuntza arruntena, hizkera molde informal intimoa, guztiek ulertzen eta guztiek dastatzen zuten Donostialdeko mintzamolde espontaneoa euskara zelako bere garaiko eta bere harreman-sareko Donostia hartan. Bere garaiko donostiar horien ohiko hizkuntza-hautu "normala" egiten zuen berak ere. Harresiak 1863an eraitsi aurreko edo eraitsi berritako garai hartan, donostiar askok (agian gehienek: hori ez dago, ordea, behar bezain argi) euskaraz egiten zuen lagunartean bederen: euskarak aparteko presentzia soziala zuen "Donostiako kale" hartan.

Katea ez zegoen artean etenda. H-esparrua zeharo beretzat gordetzeaz gainera, L-esparruko zatiak edo xatiak bereganatzen ari zen gaztelania, baina euskal

---

[57] Aldakuntza nabarmen horrek faktore bat baino gehiago du, itxura osoz, galtzarbean: a) kaletar erdaldun (edo erdal elebidun) askotxok 1900 ingurutik hona bere bizigune-egoitza bertan kokatu izana, nork bere (sarri euskal izenezko) txalet-landetxea eraikiz; b) enpresa- eta tailer-mundua ere bertara hedatu izana; c) 1960 ingurutik aurrera saihesbide-sare zabalak eratu izana Donostiaren gerri-bueltan, eta d) faktore horiekin guztiekin batera, Penintsulako erdal mintza-esparruetatik biztanle-multzo zabalak samaldan etorri izana Donostiaren gerri-buelta horretara.

[58] Bigarren Karlistaldia bukatu eta handik egun gutxira hil zen, karlistek Arratzaindik botatako azken kanoikadek larri zauriturik.

jarduera ez zen erabat indargabetzen ari. 1813ko triskantzaren ondotik hiria 1820 ingurura arte berregiten saiatu eta, azkenik, ohiko edo berariazko ospakizun-kantuei heldu zitzaienean berriz, euskara hutsezko kantak edo euskara-erdarak nahasizkoak agertu ziren plazan. Udaleko langile Jose Bizente Etxagaraik, adibidez, bertso asko idatzi zituen garai hartan: nagusiki euskarazkoak dira haiek[59], edota euskara-erdarak nahasizkoak. Gero eta pisu handiagoa hartu zuten nahas-forma horiek: demagun, batetik, "Biotzeko asto gaxua, malkos tiraba cuando murió" modukoak; ikus bestetik, Auspoa bilduman, Afrikako Gerraren kontura idatzitako bertsoak. Mende luzez euskal esparru gotor izaniko alorrean bere lekua galtzen ari zen bertako hizkuntza, eta gorabidean ari zen gaztelania. Ez ordea, oraindik, euskara baztertzeko moduan. Bilintxen jarduna ez zen aparteko salbuespen 1850etik 1875era arteko Donostian.

Esan bezala 1876an, Bigarren Karlistaldia amaitzearekin batera hil zen Indalezio. Bera bizi zelarik hasiak ziren gertatzen hirian, dagoeneko, eragin sakoneko transformazioak. Donostiako harresiak 1863an eraitsi ziren, esan bezala, eta hurrengo urtean trena iritsi zen Norteko estaziora: Madril eta Paris lotu zituen trenbideak. Donostiarrok hiriburu batera zein bestera joateko (berdin hangoak gure artera etortzeko) lehen ez bezalako aukerak sortu zituen berrikuntza horrek. Baita penintsulatik gugana (lanera, tratura, bizi izatera) etortzeko aukerak ere. Horrekin batean, harresiak bota eta handik gutxira, etxegintza eta hirigintza berria etorri zen aski kolpean[60]. Etxe-multzo zabalak, auzoak eta are hiri berria egiten hasi ziren donostiarrak: Ensantxea. Harresiak bota eta berrogei bat urtean plan jakinaren arabera egin zen gaurko Donostia "berri" hori, tartean Artzai Onaren eliza zuela.

Harresiak bota eta Donostia zabaltzen hastean antzeman zen, zeharbidez bada ere, etxean oraindik askok euskaraz egin arren, kalean, bizitza hiritar modernoan, gaztelania ageri zela nagusi. Kale-izenak euskaraz (ere) jartzea erabaki zenean, Parte Zaharrean bakarrik egin zen errotulazio-lana: bestean (berrian) ez zen, antza, beharrezko ikusten, edota ez zen goi-esparrutik halakorik onartzen[61]. Horrek ez du esan nahi aurretik halako kale giro-galtzerik gertatzen ari ez zenik. Bai, aldiz, translinguifikazio ahuleko bilakaera zaharra bizkortu egin zela nabarmen XIX. mende-amaieran eta "Belle Epoque" osoan[62].

---

[59] Euskara zen nagusi, garbi, inauteriko moldaera berrietan: zerabiltzan formak ere euskaldunak ziren erabat, bertako fonetismo itxia gorabehera: *astelen-ihaute* da, esaterako, bere *asteleniote* hura.

[60] Tartean Salamanca enpresa-gizon ausartarena. Berak etxeztatu zuen, antza denez, Urumea ertzeko Salamanca pasealekua.

[61] Azterkizun dago hori ere, aski era zabalean.

[62] Bilakaera hura perspektiba zabalagoan hartzen bada, 60-70 bat urtean adibidez, Santesteban familiaren hizkuntza-eboluzioan argi ikusten da hiriko translinguifikazioaren ardatza nondik nora zihoan.

Aldaketa bizkor hartaz oharturik, antza, beste leku gutxitan bezala, aurrez aurreko eztabaida egin zen hiriko (proto)elite jakinen artean. Eztabaidaren ardatza honela agertu zen, oker ez bagaude: "merezi al du modernizazioa eta euskal bizimodua uztartzea, edota zentzuzkoago da bigarrenak lehenengoari amore ematea? Jakin badakigu, gutxi-asko dokumentaturik baitago, galdera horri erantzuteko orduan iritzi-multzo kontrajarri bi agertu zirela Donostian. Izen-deitura konkretuei dagokienez, bereziki, punta banatan suertatu ziren Jamar eta Mokoroa. Aurrenengoak ez bezala, euskara kale-inguru modernizatuan bizirik eta indarberriturik, (literaturan bederen) idatzizko esparrura zabaldu eta (espazio soziofuntzionalen espektro zabalari dagokionez) H mailako hainbat esparrutara sarbide eman nahi zien Mokoroak (eta bere jarraitzaileek: ikus *Euskal Erria* aldizkariaren hainbat iniziatiba *intertranslatability* alorrean). Esanak esan, behar bezala aztertu gabe daukagu hizkuntza- eta nortasun-plangintza kolektiboaren alorreko gertakari garrantzitsu hura. Ordutik honakoa, ondotxoz ezagunago delarik, beste baterako utziko dugu azalpen-saio labur honetan.

3.4. GAZTELANIA

Behe Erdi Arotik hona gaztelaniaren presentzia argi dokumentatua dago Donostian, Hego Euskal Herri osoan bezala[63], idatzizko jardunean[64]. Argi ageri da idatziz, dokumentu administratiboak latinetik gaztelaniara pasa zirenetik. Tartean, hori bai, gaskoizko testuak izan zituen lehiakide edo bidelagun, hainbat kasutan: batez ere XIV. eta XV. mendeetan agertu zen konkurrentzia hori. Donostiako salbuespena zera zen, plano idatziari dagokionez: dokumentu batzuk gaztelaniaz idatzirik zetozela eta beste batzuk gaskoi-erdaraz. Denborarekin, 1450 ingurutik aurrera, gero eta gehiago irakurri-idatzi zen gaztelaniaz, eta gero eta gutxiago gaskoi-erdaraz.

Hain argi ez dakiguna, eta garrantzi handiko auzia dena, beste hau da: donostiarren ahozko jardun arruntean, eguneroko eta solaskide ezagun-hurbilen arteko mintzabide informal-espontaneoan, zer pisu zukeen gaztelaniak Donostiako kalean, 1200etik 1500era bitartean? Noiz hasi zen gaztelania L-aldaera gisa

---

[63] Ez gara hemen, ez baita hartarako lekua, nafar-erromantzearen sorreraz eta ibilbideaz hizketan hasiko.

[64] Arlo administratiboan, bereziki gaztelaniaren ezagutza ezinbestekoa zen aspalditik eta indartzen eta finkatzen joan zen urteen poderioz. Honela deskribatzen du fenomenoa Soria Sese-k: "(…) La alfabetización no surge ni se regula al tiempo de concretarse el régimen gubernativo articulado en torno al cabildo, sino más tardíamente, ya en la tercera década del siglo XVI. Con anterioridad, la exigencia cultural se difuminaba bajo los vagos términos de sapiencia e idoneidad en el sentido de experiencia de la cosa pública (…). Concretamente **la exigencia de leer y escribir**, unida a una serie de condiciones como la suficiente riqueza, la mayoría de edad, la buena fama, la experiencia y el **conocimiento de la lengua castellana**, aparece por primera vez como circunstancia que debe acompañar a los procuradores en Juntas, según las ordenanzas de 1529 enviadas a la Provincia por el rey." (Soria Sese 1992: 66)

sartzen edo zabaltzen, zergatik eta nola? Zeinen kontura irabazi zuen gaztelaniak L-esparruaren zati hori: euskararen ala gaskoi-erdararen bizkar? Oso ilun daude kontu horiek oraingoz. Zeharbidezko dedukzio-bidetik ekingo dugu hortaz, ustez bateragarriena den moldaera zehazten saiatuz. Hona gure zenbait dedukzio:

1. Ahozko jardunari dagokionez, nekez izango zuen gaztelaniak Donostiako kalean erabilera zabalik, gaskoi-aldaera hain bertan eta hain etxeko izanik, 1200etik 1500era bitartean. Hala izan balira kontuak (gogoratu González Ollék Nafarroako hiribilduetako okzitaniera-erdaraz esandakoa), aspaldi egingo zen gaskoitik gaztelaniarako mintzo aldaketa. Halakorik ez zen, ordea, orain arte jasotako datuak arras baliogabeak ez badira edota oker interpretatu ez baditugu[65], gertatu. 1500ean (eta are handik ehun urtera) bizirik zebilen gaskoia Donostiako kaletarren artean.

2. Aski probable da, aitzitik, konpartimentazio sozial berezia izatea Donostiako kaletar multzo hauta batzuek eta, horren ondorioz, aski harreman-sare itxiak izatea hirian. Sare-itxitasun horrek aukera emango ziokeen zenbait donostiar-multzori, gaztelaniazko jarduna bideratzeko hein batez. Litekeena da halako hiztunek gaztelaniaz, euskaraz edota gaskoiz egitea aski testuinguru jakin berezituetan.

3. Badakigu azkenik, hainbat azalpenen argitan, erdaraz ere ederki egiten zuela donostiar askok. Zezakeen jendeak, oro har, ongi zekien erdaraz Donostiako kalean. Batez ere erdi- edo goi-mailako ikasketak Penintsulan egindakoek, baina ez haiek bakarrik, azenturik gabe hitz egiten zekiten, antza: itsasoko edo lehorreko urrun-garraioa, merkataritza, monarkiaren orbitako enplegu-lana eta, gero eta argiago, Hego eta Erdialdeko Amerikako joan-etorriak, bertako kokatze urteetakoak eta abar, erdalduntze-iturri sendo ziratekeen oro har. *Additional language* zen gaztelania, gutxienez, une batetik aurrera donostiar (eta, oro har, kostaldeko edo hiribilduetako) euskaldun askotxorentzat (orain ingelesa bezala, urruneko adibidea haizu balitz).

4. Donostiako eta, oro har, Beterriko baserri-giroan, aitzitik, oso presentzia mugatua, askotan hutsaren hurrengoa, zukeen gaztelaniazko mintzajardunak Erdi Aro hartan.

Ez dakigu argi, bestalde, gaskoiak 1550 ingurutik aurrera L-esparruan indarra galdu ahala bere esparru demolinguistiko eta soziofuntzional hori euskarak irabazi zuen, gaztelaniak ala biek (bakoitzak bere zati berezia, seguruenik). Hor ere

[65] Interpretazio gehienetan bat gatoz gure aurrekoekin, nolanahi ere.

hipotesi hau iruditzen zaigu bateragarriena: segun 1550 inguruan gaskoi-erdara zer espazio soziofuntzionaletan indartsuen ageri zen, horren arabera egingo zen euskararako edo gaztelaniarako mintzo aldaketa. Termino estatistikoetan bada motiborik uste izateko Donostiako kaletar gehienek zekitela euskaraz, hainbatek bazekiela (ulermenez, bederen, eta hein batez mintzaeraz) gaztelaniaz, eta, hierarkia-piramidearen goi-mailetan ugariago egiten zela gaztelaniaz. Oso urrun ez balebilke ere, hori ez da ezinbestean, ez behintzat justu-justu, euskararen- eta gaztelaniaren arteko diglosia eredu tradizionala. Litekeena da ordurako gesaltzen hasia izatea prototipozko eredu ezagun zaharra.

Noiz nagusitu zen/da erabat gaztelania Donostian? Noiz (lehenik) kalean (batez ere formazioz, lanbidez edo estatus sozioekonomikoz erdal erresumarekiko lotura sendoagoa zuten kaletar jantzi-jauntxoen artean) eta noiz hiriburuaren gerri-bueltako auzo eta baserrietan, euskaldun xeheen artean? Gorago, gaskoi-erdararen eta euskararen atala lantzerakoan, argi azaldu da Donostiako kanpoaldean (Altza, Aiete, Igeldo, Añorga, Martutene) eta baserrietan azken ordukoa dela euskaratik gaztelaniarako mintzo-aldatze zabala: azken uhin bortitzari dagokionez, 1960tik honakoa, oro har. Testigantza ugari dago horretaz, oraindik bizirik baitira mintzo-aldatze horren eragile, pairatzaile edo ikusle izan diren 65 urtetik gorako donostiar gehienak.

Erantzuten zailena, hemen ere, azken galdera hau da: noiz nagusitu zen edo noiz nagusitu da erabat gaztelania Donostiako kalean? Pausoka joatea komeniko da, oraingoan ere, galdera bihurri horri ganoraz erantzuten saiatzeko. a) XVIII. mendean eta XIX.aren lehen laurdenean gaztelaniaren hedapena (ez luze-zabaleko mintzo-aldaketa) gertatu zen, eskola bidezko ikasketa formalaz gainera, kale-giro horretan; b) 1825 ingurutik 1875 ingurura arte aurreko konpartimentazio soziofuntzionala kraskatuz joan zen, eta c) 1875etik honakoa da, nagusiki, Donostiako kalean euskaratik gaztelaniara jasandako mintzo-aldaketa zabala.

Oso apunte eskematikoa da hau guztia. Datu-biltze, kontzeptu-lantze eta kontrastatze sendoen beharrean dago nolanahi ere. Besterik da hori, ordea, ez gaurkoa bezalako azalpen xume baten egitekoa.

Amaitzeko hitz bi, euskararen eta gaztelaniaren arteko kontaktu horren ondorio linguistikoaz. Euskararekiko kontaktuak eragindako hainbat interferentzia eta hainbat mailegu ageri du Donostiako (eta inguruko) gaztelaniak: “le ha entrado el limaco”, “bertan chulo”, “que ambiente más goxo”, “pedimos txangurro o kokotxas?” eta horrelako asko. [66]

[66] Gema Torres-ek badu lan interesgarririk gai horretaz. Ez da ordea hemengo eta gaurko gaia, eta bere horretan gera bedi oraingoz.

3.5. FRANTSESA

Europako hainbat lekutan bezala (are, beste leku askotan baino nabarmenago) presentzia inportantea izan zuen frantses-hizkuntzak Donostian. Seguru asko XVII. mende-bukaeran hasiko zen joera hori nabarmentzen, baina bereziki XVIII. mendean eta XIX.aren hasieran (batez ere 1813ra arte) iritsi zen goren gradura. Aldi Modernoak aurrera egin ahala, eta Frantziako aginte-egiturak esparru ekonomiko, militar, kultural eta zientifikoan indartzearekin batean, oraingoz XVII. mende-bukaeran koka dezakegun une batetik aurrera frantsesak aparteko pisua ageri zuen Donostian: kolonia frantses ugaria zegoen bertan, batetik[67]. Gutxiengoa ziren kopuruz, baina hierarkia sozialean ez zeuden behean... Frantsesak izan ez baina frantsesez egin behar zuten merkatariak ere baziren horien ondoan. Eta, ororen gain, bertako goi-mailako jende formatuak, jende landuak, frantsesez zekien hainbatean, eta hala egiten zuen ez gutxitan. Frantses-kolonia trinko-distiratsu baten berezko hizkuntza izateaz gainera *additional language* edo osagarrizko hizkuntza ere bazen frantsesa, donostiar askotxorentzat. Modaren lilura ere berekin zekarren maiz. Hots, gaur ingelesak dituen atributu gehienez jantzirik ageri zen frantsesa Donostian, XVIII. mendearen bigarren erdian.

Europako hizkuntza ilustratuaren prestigiozko gorentasun hura galdu egin zuen frantsesak, partez, 1813ko gertakarien ondorioz. Ez erabat, ordea: XIX. mendean eta XX.enean (gutxi gorabehera 1950 arte) bere prestigioari (eta *additional language* izateak dituen balio-erantsiei) bizkor eutsi zien. 1960tik aurrera, ezaguna denez, batez ere ingelesak jan dio lekua frantsesari, Donostian eta mundu zabalean.

Euskararen eta frantsesaren arteko ukipen-kontaktu horrek bere ondorio-seinaleak utzi ditu euskararen hitz-altxorrean. Marka-seinale horiek oso txikiak dira, normala denez, Lapurdin (Donibane Lohizunen konkretuki) aspaldixko antzeman zirenen ondoan. Donibane Lohizuneko interferentzia berriez eta lehentxeagoko frantses-maileguez badira Julio Urkixok bildutako bertso batzuk, zer ari den gertatzen esaten eta gaitzesten dutenak, gero eta frantsestuago dagoela hango hizkera (Urkixo 1923).

Iparraldean *promenatu* bezala, eta Alemaniako *Spazieren* delakoaren pare, Donostiara ere ailegatzen ziren frantses-hizkuntzaren interferentziazko eraginak. Nabarmen bakanago ordea, eta oro har axalagotik[68]: "bai *galanki*!, hi haiz hi *ma-*

---

[67] Merkatari frantsesak zeuden tartean: frantsesak edota abizen frantsesekoak. Etxeko zerbitzari frantsesik ere ez zen falta han-hemen, Ordoñez-i kasu egin behar bazaio. Bere esanean gero eta multzo zabalagoa osatzen zuten frantsesek 1761ean, bere lana idatzi zuenean.

[68] Frantsesezko (leku-garai eta kontaktu-molde horretako) aditz-mailegurik ez dugu ezagutzen Donostialdeko euskaran. Ikus *Orotariko Euskal Hiztegia*.

muxala[69]*, hi*!"). Halaz guztiz ere Donostian presenteago zeuden frantses hitzak, inguruko herri gehienetan baino.

3.6. ESTERLIN-HANSATARREN HIZKUNTZA(K)

Atal honetan esaten dena oso da, ezinbestean, lehen hurbilketazko azalpen-saio ahul eta xume. Inoiz egin beharko den ganorazko azterketarako akuilu izan nahi du, hala ere, bere exkaxean.

Itsas zabaleko garraioan jardunak gara euskaldunok luzaro. Merkataritzan ere bai, une batetik aurrera: ikus Kantauri-alde honetako *Hermandad de las Marismas*, XV. mendean Brujasen eraturiko *Kontsulatua*[70] edota 1728an fundaturiko *Real Compañía Guipuzcoana de Caracas*. Gu bestetara joaten (eta, Brujasen edo Venezuelan bezala, kokatzen) ginen moduan, bestetakoak ere gugana etortzen ziren. Etorri eta, zenbaitetan, kokatu. Kokatze horren ondorio da, zenbaiten esanean, Donostiako Esterlines kalea[71]. Ramón Seoanek dioenez "es indudable que el Hansa tuvo desde su creación, si no una factoría en San Sebastián, al menos una colonia de agentes, como lo prueba el existir documentos de comienzos del siglo XIV, en que se consigna la venida de los Esterlines, nombre que se daba á los agentes del Hansa, y asimismo el conservarse aún en dicha ciudad una calle en la que indudablemente se hallaron establecidos los mencionados negociantes." (Seoane y Ferrer 1903). Antzerako zerbait jaso dugu beste iturri batean: "Don Pablo de Alzola con referencia a la calle de los Esterlines de San Sebastián, dice que los vascongados tenían en los siglos XIV y XV factorías en Flandes, Inglaterra, Escocia, Alemania y Francia, manteniendo muy activas relaciones mercantiles con los Anseáticos o Esterlines, que monopolizaban entonces el tráfico de los países del Norte, y como San Sebastián era por su mayor antigüedad, respecto de Bilbao, el centro de contratación más importante de la costa cantábrica y la plaza más frecuentada por los teutónicos, tendrían éstos a su vez alguna lonja y hospederías en la 'calle de Esterlines' de la vieja Donostía, derivándose su nombre de esta circunstancia." (Muxika 1923).

Ur-isuria Ipar Itsasora eta Baltikora duten herrialde aleman-germanikoetan loraldi nabarmena izan zuen, 1300 ingurutik XVI. mendera arte bereziki,

---

69 Ikus fr. *mademoiselle*.

70 Zehazkiago, "Casa de Contratación o Consulado de Vizcaya".

71 Esterlines kale zaharra, zehazkiago. Donostia berreraikitzerakoan mugitu egin zen kalearen trazatua zertxobait, antza.

Hanse edo *Hansa* delakoak[72]. Bertako hiri nagusiak, gurekiko harreman-lotura posibleei dagokienez, Kolonia[73], Lübeck, Danzig, Hanburgo eta Bremen genituzkeen. Merkatari hansatar haien hizkuntza-moldeak, era mugatu-isolatuan bada ere, bere lekua izan zuen apika Donostian. Leku meharra, euskararekin eta bertako bi erdarekin konparaturik, baina kolonia barruko bizimodu arruntean, agian kokagune-paperetan eta Ipar Itsasotik edo Baltikotik zetorkeen hainbat marinelekiko kontaktu-zubi gisa baliagarria. Hansako merkatari eta garraiolariei *oosterling* esaten zitzaien Flandrian eta Holandan, eta ea*sterling* Londresen[74]. Ez da harritzekoa Poza lizentziatuak, XVI. mendean Flandrian jaioa eta zenbait urtez (isiltari-lanean besteak beste) han ibilia izanik, behe-alemanari *osterlin* deitzea. Ez dago dudarik, gure ustez, Flandria-Holandetako *osterlin* eta Londres aldeko *easterling* hitz-formak gure *esterlin*-kalearekin loturik daudela etimologiaz. Litekeena da, beraz, XIV. mendetik aurrera Donostian bere kalea omen zuten hansatar/esterlinen kolonian behe-alemanez (edo holandera-flandesera-frisieraz) egin izana beren artean[75]. Hansatarren behe-alemanezko lurralde-esparru zabalak (gaur dialekto hutsa bihurturik den *Niederdeutsch* edo *Plattdeutsch*-ekin hertsiki lotuak), eta, agian, flandestar-holandar-frisiarrenak[76], *continuum* modukoa eratzen zuen Erdi Aroan, eta litekeena da behe-alemanez mintzo zirenez gain donostiarrok flandestar-holandar-frisiarrak ere *esterlin* deiturapean sartu izana Donostian. Litekeena da hori, baina probableago da behe-alemanez mintzo zirenak izatea, soil-soilik edo nagusiki, Donostian *esterlin*.

Esterlines kalean (kale osoan edo, zehazkiago, kale horretan kokaturik zegoen kolonia(txoa)n) ez zen behe-alemanez hitz egin bakarrik egingo: idatzi ere bai, seguruenik. 1350 ingurutik hona hansatarren idatz-hizkuntza bihurtu zen behe-alemana[77]. Urrutiko merkataritzak garrantzi handia aitortu zion leku ba-

---

[72] Baltikoan sortu zen Hansako Liga, Lübeck-en preseski. Europara (batez ere Atlantiko-Baltikoetara, baina baita Alemania barrura ere) hedatu zen laster, zabal eta sendo. 1300etik 1550 arte bere goren graduan izan zen. Kokagune asko zituen portuetan: Baltikoekialdean, Danimarkan, Norvegian… *kontor* edo *faktoria* esaten zieten hansatarren kokagune horiei. Bazen Londresen ere halakorik. Gaurko Herbehereetan zein Flandrian ere baziren halakoak. Demagun, Brujasko *Oosterlinger hus* ezaguna.

[73] XII. mendean 30.000 bizilagun zituen jadanik Koloniak. Ikus König, 1978: 85 or.

[74] Hortik agian, baina ez erabat seguru, Ingalaterrako *pound sterling*, "the coin of the Easterlings". Ikuspegi alternatibo baten arabera litekeena da "pound sterling" hori Norvegiako zilar-txanpon batetik etortzea, eta ez ezinbestean hansatar edo *easterling* direlakoetatik.

Otazu, Alfonso de (1982). *La burguesía revolucionaria vasca a fines del siglo XVIII.* Donostia-San Sebastián: Txertoa.

Pérez Picón, Conrado (1964). «El Padre Isla vascófilo. Un epistolario inédito», *Miscelánea Comillas: Revista de Ciencias Humanas y Sociales,* volumen XLII, n.º 42: 342-505.

Prada Santamaría, Antonio (2013). «Las últimas fases del plan beneficial de San Sebastián», *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián* (BEHSS), n.º 46: 177-312.

Rilova Jericó, Carlos (2006). «Las palabras olvidadas. Una aproximación a nuevas fuentes para el estudio del euskera. Los archivos criminales del País Vasco (siglos XVI-XIX)», *Oihenart: cuadernos de lengua y literatura,* n.º 21: 409-423.

— (2011). «San Sebastián en el mapa de la historia marítima de Europa. Tres episodios del siglo XVIII», *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián* (BEHSS), n.º 44: 467-491.

Roquero Ussía, María Rosario (1997). *La vida cotidiana en Altza en los siglos XVII y XVIII.* Artiga Bilduma, n.º 2. Altza: Altzako Historia Mintegia, Donostia Kultura.

— (2001). La Primera Guerra Carlista a través de sus protagonistas. La línea de San Sebastián, *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián* (BEHSS), n.º 35: 153-253.

— (2012). «La inmunidad eclesiástica en San Sebastián conflictos que suscitó en la vida de la ciudad (siglo XVIII)», *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián* (BEHSS), n.º 45: 553-584.

Sánchez, María Elena (1977). *Los gitanos españoles.* Madrid: Castellote.

Sarasola, Ibon (1983). «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos», *Anuario del Seminario Julio de Urquijo* (ASJU), n.º 17: 69-212.

Satrustegi, Jose Maria (1983). «Epistolario vasco del siglo XVIII», *Anuario del Seminario Julio de Urquijo* (ASJU), n.º 17: 5-24.

— (1987). *Euskal testu zaharrak*. Iruñea: Euskaltzaindia, 1987.

— (1995). «Texto bilingüe de una canción amorosa guipuzcoana del siglo XVIII», *Fontes Linguae Vasconum* (FLV), n.º 68: 37-49.

Soubeyroux, Jacques (1985). «Niveles de alfabetización en la España del siglo XVIII. Primeros resultados de una encuesta en curso», *Revista de Historia Moderna,* n.º 5: 159-172.

Telletxea Idigoras, Jose Ignacio (1967a). «Miguel de Oquendo caballero de Santiago (1584). Un episodio social en la vida donostiarra», *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián* (BEHSS), n.º 1: 33-77.

— (1967b). «Efemérides donostiarras de los siglos XVIII y XIX», *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián* (BEHSS), n.º 1: 139-167.

— (1971). «Navarra y el Hospital Real y General de Nuestra Señora de Gracia, de Zaragoza», *Príncipe de Viana*, año n.º 32, n.º 124-125: 215-243.

— (1972a). *La reforma tridentina en San Sebastián. El libro de «Mandatos de Visita de la Parroquia de San Vicente (1540-1670)*». Donostia: Instituto Doctor Camino.

— (1972b). «El jesuita donostiarra Domingo Patricio Meagher. Segundo centenario de su muerte», *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián* (BEHSS), n.º 6: 227-238.

— (1997). *Una historia turbulenta. La fundación de la Compañía de Jesús en San Sebastián (1619-1627).* Donostia: Instituto Doctor Camino.

Torrealdai, Joan Mari (1998). *El libro negro del euskera.* Donostia-San Sebastián: Ttarttalo.

Ugaldebere, Tomas & Madina, Mikel (2000). *Donostiarrak eta euskara XVI-XVIII. mendeak.* Donostia-San Sebastián: Donostiako Udala / Ayuntamiento de San Sebastián. [https://www.donostiaeuskaraz.eus/adjuntos_archivo/20144299403Donostiarrak_eta_euskara,_XVI-XVIII_mendeak.pdf.].

Urkizu, Patri (1981). «Eguerritaco cantac 1789. Urtean ezan ziranac donostiyaco erriyan», *Oh! Euzkadi*, n.º 13 (abendua).

Villasante, Luis (1960). «Una lista de pueblos vascongados de Vizcaya, Guipuzcoa y Navarra de principios del siglo XIX», *Geografía histórica de la lengua vasca (siglos XVI-XIX),* Colección Auñamendi, n.º 13. Zarautz: Icharopena: 44-60.

— (1979). *Historia de la literatura vasca.* Burgos: Aránzazu.

Viñao Frago, Antonio (1988). «Alfabetización e Ilustración: difusión y usos de la cultura escrita», *Revista de Educación*, Número Extraordinario *(La Educación en la Ilustración Española)*. Madrid: Ministerio de Educación y Ciencia: 275-302.

Zaldua, Luis Mari (2012). *Urumeako zilegimendietako toponimia.* Donostia-San Sebastián: Grupo Delta Ediciones Digitales. [Edición digital, 2011: https://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Luis_Mari_Zaldua_TESIA.pdf].

Zapirain Karrika, David & Mora Afán, Juan Carlos (2001). «Gipuzkoako espetxeak XVIII. eta XIX. mendeetan», *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián* (BEHSS), n.º 35: 351-363.

Zavala, Antonio (1964). *Bosquejo de historia del bertsolarismo.* Donostia-San Sebastián: Auñamendi.

5. BASCONGADA ERREGE ELKARTEAK BURUTU KULTUR IBILBIDEAREN ESPARRU ERREFERENTZIAZKOA, ETA HAREN (ETA BERGARAKO ERREGE MINTEGIAREN) EGITEKOAN EUSKARARI EGIN IZAN ZITZAION TOKIA

KOLDO LARRAÑAGA ELORZA
Historialaria

Bascongada *Errege* Elkartearen[*1] (eta, noski, Bergarako *Errege* Mintegiaren) sorrera eta jardunbidea egoki ulertze aldera, lagungarri gerta dakiguke sasoian bertako handikiek eta ez hain maila jasoko leinuek euren boterea eta ospea bermatzeko eta, ahal izaki, sendotzeko garatu ohi zituzten estrategiez kontu egitea[2]; horrela jokatuz, behinik behin, ulergarriago gertatzen da, gure iduriko, euskarari, fundatzaileen lehen orduko asmo onenak gorabehera[3], Elkartearen jardunbidean eta beronek sustaturiko ekimenetan —*Errege* Mintegian, batik bat— eskaini izan zitzaion arreta zikoitz samarra[4].

5.1. EUSKAL ILUSTRAZIOAREN GIZARTE-ERAGILEAK ETA HAUEN EGUNEROKOAN HIZKUNTZ AFERAK IZAN OHI ZUEN GARRANTZIA[5]

Funtsezko bi taldetan bereiz ditzakegu, gizarte mailari dagokionez, Elkartearen (eta beronek abian jarri zuen Errege Mintegiaren) jardunean eragile gisa parte hartu zutenak: *handiki* edo *jauntxo*ena bata, maiztertzan utzi baserri, errota, burdinola, lursail eta abarren etekin gutxi-asko oparoak, gehi balizko patronatu-eskubideek bideratu irabaziak (*hamarrenak...*) lehen baliabide gisa probestuz[6], Aro Modernoan barrena zibilizazio atlantikoaren sortze eta garapenaren karietara gauzatzen diren ekonomia eta politikazko baldintza berrietan (kontuan izan, lehenik eta behin, itsas nabigazioaren garapenari hertsiki lotutako nazioarteko tratu harremanen hazkunde izugarria eta, horri uztarturik, Estatuaren aparatuaren pisu gero eta erabakigarriagoa gizarte eraldaketen eragile edota aitzinamendu sozialeko aukeren iturburu bezala), bere eragin eta protagonismoa are beste ekonomia eta botere-guneetara hedatuz joango zena[7]. Bestea, bigarren taldea, hiri edo hiribilduetako testuinguru sozioekonomikora jo ohi zuen *merkatari, lanbide liberal* eta *klase ertainetako populazioarena* zen, berau ere Aro Modernoko egoera ekonomiko eta politiko berriei erantzunez (oroi, kolonietan batik bat lursail eder

[*] *Oharrak artikuluaren bukaeran aurkitzen dira, 268. orrialdetik aurrera.*

zabalak gelditzen zirela oraindik metropoliaren [zehazki, Estatuaren eta Elizaren] botere egituretan txertatu zain, besteak beste), eta, adierazitako abiapuntuko balizko ezberdintasun estamental zein klasekoak gorabehera, gero eta eragile konpetitiboagoa bihurtzen ari zena, aurrerabide soziala bermatze aldera[8].

Baina familia ondarearen balizko iturburuak argitze aldera lagungarri diratekeen ezberdintze prozesu horiek ez bide lukete halako interesik, *Ilustrazio* aldia eta beroni lotu ohi zaion burgeste prozesua hain aurreratuak agertzen diren XVIII. mendearen 2. aldi honetan. Sasoi hartan, ospe handiko eta bestela ere sozialki nolabait nabarmendutako bertako leinuek —jatorriz lursail gutxi-asko zabalen eta, orobat, jauregi, errota eta burdinolen jabe izan ala ez— Estatuek (edota Elizak berak) foru lurraldeetan abian jarritako tokian tokiko kargu eta botere-egituren kudeaketan, edota, foru lurraldeetaz haratago, Eliza- eta Estatu-egituren[9] zerbitzuan (armadan[10], batik bat, eta administrazio zibileko zeregin ezberdinetan: tokian tokiko hauek izan, edo errege botereari zuzenki lotuak gortean bertan[11], Europan barrena —hiriburu edo beste hiribildu garrantzitsuetako ordezkaritza diplomatikoetan, esaterako— edo mundu zabalean barreiatutako kolonietan)[12] bilatzen zuten senideen (eta batik bat oinordekoen) lanbidea eta etorkizuna, eta, xede hori bermatze aldera, saiatzen ziren halako karguetarako orduan eskatu ohi zen prestakuntza akademiko eta profesionala haiei ematen —bertan, edota Euskal Herriaz haratago, eskura zituzten ikastetxeetara haiek bidaliz, hain justu, familiaren (edota beronek baliatzerik izaten zituen bezeria sareen)[13] ahalen arabera betiere—. Eta, jakina, gauzak puntu horretara iritsirik, ez da inondik ere harritzekoa, halako familietako ondokoen hezkuntza-ibilbidean euskarari ia tokirik egin ez izana[14]. Leinuaren armarria dotoretu, arbasoen historia apaindu edota familiaren ospea eta izen ona iraunarazteko agian balio bazuen ere (eta aitortu behar da erruz eman zela sasoian halako maniek kutsatutako handiki edo zaldunik[15]), euskarak ezer gutxi lagun zezakeen, Frantzia edo Espainiako erreinuen baitan, nolabaiteko ospe soziala edo diru iturri oparo bat bermatzen zuten lanbide eta eginkizunak eskuratzeko. Diruaren eta gizarte arrakastaren bideek, oro har, gaztelaniaz edo frantsesez hitz egiten zuten, sasoian, gure artean; eta, gauzak horrela baldintzaturik, euskal gizaseme gutxi-asko prestu eta landuen portaeran euskararako gorde ohi zen agerpen-esparru urria etxe barruko edo lagun eta auzokoen arteko eguneroko *ahozko* jardunera mugatzen zen, asko jota[16] —edo, idatzizko gutun-trukean, erabat gailenduriko hitz jario erdalduna[17] noizbehinka zipriztintzen zuten euskarazko hitz bakanetara[18]; edota, begiluze eta mihiluze-engandik babestu beharreko afera politiko sentiberez aritu beharrean, gutunaren amaieran, hizkuntza *kriptikoan* eta ahapeka bezala, eransten ziren ohartxo laburretara[19]—.

Eta, antzeko arrazoiengatik, gutxi gorabehera, jokabide berdina edo berdin antzekoa izaten zuten hiribilduetako kaleetan biltzen ziren *burges* gehienek (mer-

katari eta lanbide liberaletako jendeek: mediku, legelari, eskribau, maisu…)[20]. Zeinahi izanik ere euren egungo maila sozialera iristea ahalbidetu izan zien familia ondarearen jatorria, dudagabekoa zen hizkera *ofiziala* behar bezala ezagutu eta hitzez eta idatziz eroso erabiltzen jakiteak euren jardunbidean zuen erabateko garrantzia, bai exijitu titulu akademikoa lortze aldera, bai egunen harian euren eginkizun profesionala gauzatu ahal izateko ere. Eta, gauzak horrela, zalantza izpirik ere ez, euren oinordekoen geroa bermatu beharrean, kontuan izango zituzten irizpideei dagokienez, ikastetxe eta gainerako baliabide akademikoak hautatzeko orduan.

Baina bada, hemen, oso kontuan izan beharreko beste xehetasunen bat: gaztelera zela, hain zuzen, orduan, edo frantsesa, gortearen eta botere gorenaren mintzaira —eta, ondorioz, horien agindupeko eremuetan hizkuntza *ofizial* bakarra bilakatzera deitua, nolabait esatearren, nahiz eta aipaturiko lurraldeetan gehienak beste hizkera batzuetakoak izan, agian (hemen bezala, izan ere, gehienak euskal *elebakarrak* bide ziren, bai Iparraldeko herrialdeetan, bai Gipuzkoan eta Bizkaian eta Arabako eta Nafarroako zenbait bailaratan ere[21]). Gorabehera horren karietara, euskarak edo, zehazkiago hitz eginez, beronen kidekotzat jotako euskalki eta tokian tokiko hizkera anitzek diglosia egoerei egin beharko diete aurre Aro Modernoan barrena. Egoerok, ordea, are eta zurrunago bihurtuko dira, jakina denez, XVIII. mendearen bigarren erdian, Espainiako borboien gobernuek, Paris aldean hizkuntz politikan ematen ari ziren aire berriei men eginez, indarrean jarri zituzten dekretu edo legeen kariaz (irakaskuntzan[22] eta berebiziko garrantzia zuen gizarteko beste hainbat esparrutan[23] ezinbestez erabili beharreko hizkuntzari dagokionean, hain zuzen ere). Gaztelaniaren —eta frantsesaren— aldeko euforia eta handieste giroa nagusitu zen sasoian borboien monarkietan barrena, eta ezinbestekotzat ikusi hizkuntza *arrunt bakar* baten aldeko aldarria ohiko bihurtu —bereziki talde ilustratuen artean—, hura begiesten baitzuten Inperioak —eta Inperioari lotu negoziobideek, orobat—, onik ateratzeko, ezinbestez behar zuten batasun eta aurrerabideko ikur eta trepeta gisa[24].

Horrekin guztiarekin, ordea, hauspotu egin zen euskararen bazterketa eta estigmatizazio sozialeko prozesua, herri *barbaro eta zarpail* baten hizkera balitz bezala (J. Marianaren hitz mingarriak[25] gogora ekarriz), eta, ondorioz, eurrez eman ziren, hemen eta hemendik kanpo, hezkuntza jasoko jendeen artean, batik bat, euskara literaturarako edo bizitza intelektualeko jardun jasoetarako ezgaitzat jotzen zutenak[26] eta, horren aitzakiaz, haurtzaroko hizkera lantzeaz eta jorratzeaz batere arduratzen ez zirenak, horretan emandako lanak antzu eta zentzugabekotzat gutxietsiz.

Pausoa ematen lehenak, nola ez, erabakigune eta boteregune politiko eta ekonomikoen hurbilean jarduten zuten jauntxo eta handikien leinuak izan ziren, ohituak aspalditik errege- edo eliza-administraritzak, han-hemenka, sortzen zituen maila desberdinetako karguez lehiatzera. Hezkuntza jasoko jendea behar

izaten zen halako karguetarako, latinez edo/eta erromantzez bakarrik ematen zen hezkuntzakoa, alegia; eta halako baldintzetan —eta kontuan izanik, halaber, aipatu errege- edo eliza-administraritzaren agindupeko eremua lurbira zabalera hedatzen zela—, ez da batere harritzeko eremu ekumeniko horretan lanpostuez lehiatzea erabakitzen zuen jendeak sorterriko hizkera ahaztea edo bigarren maila batean uztea.

Baina hezibide jasoko jende boteretsuen aldetik, hemen eta hemendik at, euskarak jasan izandako bazterketa eta estigmatizazio sozialeko prozesu hori are eta mingarriago (eta agian eragin suntsikorragoko ere) gertatu zen apaiz edo eliz zerbitzarien sektore batzuk, antzeko arrazoiak[27] argudiatuz edo justifikazio gaitzeko utzikeriari[28] men eginez, besterik gabe, *euskal* eliztar elebakarrekiko euren betebeharrak ohiko legez betetzeari uko egin ziotenean, erromantzeari gero eta toki gehiago eginez bai *kristau dotrina* euskal neska-mutikoei azaltzerakoan, baita, orokorrean, euskal eliztar helduei gainerako prediku eta elizkizunetan zuzentzen zitzaizkienean ere. Abade edo eliz zerbitzarien jokaera hori babesturik edo aitzakiaturik suertatu zen nolabait, borboien erregetzaren politikarekin bat eginez, talde ilustratuek, Frantzian nahiz Espainian, hizkuntza nazional bakar baten alde —eta fanatismoarekin, edo ezjakite traketsenarekin, lotu ohi zituzten *patois* eta tokian tokiko hizkeren kontra…— hauspotu zituzten kanpainekin. Gauzak paroxismora iritsiko dira Iparraldean Iraultzaren garaian, izan ere, Estatuaren funtzionario bihurturik, erretore eta bikarioek Parisetik markaturiko agindutara egon beharko baitute euren berriki "escaldun frances" deitu eliztarrekin (*citoyens*, esan nahi baita) izan beharreko tratuari dagokionez.

Euskararen zokoratze eta estigmatizazio sozialeko bilakabide horretan, beste urrats bat egin zen, guztiz esanguratsua berau ere, herri xumea ohartu zenean, gizartean nolabaiteko ospeaz gozatzen ziren lanbide liberaletako gero eta profesional gehiago —hiri edo hiribildutan elkartzen ziren mediku[29], albaitari, zirujau, botikari, abokatu, notario…— eta are euren irabazpidetan arrakasta izandako bertako negoziolari asko —handikako tratulariak[30], oro har— erromantzeaz baliatzen zirela gehienbat, era esklusiboan ez bazen ere, euren eguneroko jardunbidean.

Beraz, eta laburbilduz, esan dezakegu, Aro Modernoan barrena, *erromantzez garatu alfabetatzea* ezinbesteko giltzarri eta tresna suertatzen zela, hemen, gizarte arrakasta lortu eta botere-, ordezkatze- eta erabakiguneetara iristeko, eta, gorabehera horren karietara, aterabide arrunt samarra izaten zela bertako familietan mutikotxo eta gazteak erdara hutsean moldatzen ziren eskola edo ikastetxetara bidaltzea. Eta hori gertatzen zen, bai handikien familiek semeen (batik bat, ondokoen) etorkizuna bermatze aldera garatzen zuten estrategian —hauek, hain zuzen, erdal ikastetxetara bidaliz, presta zitezen, esan bezala, Estatuaren zerbitzuak armadan eta administrazio zibileko esparrutan (tokian tokikoak hauek

izan edo botere zentralari zuzenki lotuak gortean bertan, penintsulan, kolonietan barna…)[31] eskaintzen zituen lanpostuez lehiatzeko…—, baita ekonomia-tratuari batik bat loturiko hiri-burgesiaren estrategian ere; izan ere, esparru atlantikoko eta gaztelar goi-lautadako ekonomien arteko bitartekaritza lana, legezko denez, burutu ahal izateko, hiri-burgesia horrek ezinbesteko baitzuen kontabilitatearen eta erregistro idatziaren ezkutukoetan behar legez trebatua egotea, eta hori guztia, garai hartan, erdara hutsez moldatzen ziren ikastetxeetan bakarrik eskura zitekeen. Erromantzez garatu alfabetatzea gizarte arrakastarako giltzarri bihurturik, ordea, hainbat eta hainbat familia behartsuetako kideei ia ezinezko suertatzen zitzaien eskola bitartez lortzen zen alfabetatze maila horretara —eta gazteleraz ongi moldatzera— iristea, izan ere, sasoian ez baitzitzaien ikasleei eskola dohain ateratzen; aitzitik, irakasle eta maisuen soldata ordaintzerakoan, fundazio-funtsen kargura udal edo kontzejuek aurreratutako kopuru finkoaz haratago, ikasleek ordaindu behar izaten zuten beste zati bat *espezietan* (hainbat, buru bakoitzeko). Eta, noski, eurrez ematen zen orduan, maizterren eta jornalarien artean batik bat, zati hori ordaintzeko arazoak izan eta semeak eskolara bidaltzeari uko egiten zionik. Ondorioz, familia hauetako kideek ez zuten handi-mandi eta dirudunen hizkuntza ikasteko betarik izaten. Eta, alde horretatik (zilegi bekit ironia pitin batez baliatzea…), bermatua zatekeen euskararen biziraupena! Izan ere, boteretsuen eta handi-mandien askaziak iraun eta betikotu behar baldin bazuen, iraun eta betikotu beharko zukeen, halaber, mendetan zehar haren botere eta ongizatearen zimentarri izandako euskal maizter eta jornalari elebakarren haziak (eta, noski, hori ahaleko egin zuen hizkuntzaren iraupenak); baina, nolerebait esateko, berau, *ghetto* batera beharturik, gizartearen bazterretan isolatua bizi izandako talde analfabeto eta ezjakin baten hizkuntza balitz bezala. Eta, euskararen apologistek beronen jatorri jainkotiar ezin distiratsuagoaren harira amestu eta idatzitakoak gorabehera, estigma lazgarri horrek luze jarraituko du gero ere gure artean euskararen bidaide izaten. J. Juriok adierazi legez, "anartean ez bazuen inork gutxietsiaren konplexurik pairatu behar izan Nafarren eta erresumako berezko hizkuntza baliatzeagatik, gerora analfabeto eta ezjakinei —sozialki zokoratu jendeei, alegia— egokituko zitzaien bazterketaren ikur edo zeinu bihurturiko" euskaraz baliatzea[32].

Egoera horren karietara, ordea, ahoz eta idatziz erromantzez moldatzeko gai izatea *diskriminazio mekanismo* suertatu zen hemen —bertako *elite* elebidun edo gaztelau elebakarrari tokian tokiko botereguneen kontrol oligarkikoa errazten zion diskriminazio tresna, hain zuzen ere—, euskal elebakarrak, aldiz, gaztelaniaz behar bezala moldatu ezinik, boteregune horietarik at gelditzen ziren bitartean. Eta egiaztapen horrek geure buruari zenbait galdera egitera bultzatzen gaitu, bertako *jauntxoen* eta *burgesen* euskararekiko jarrera funtsean baldintzatzen zuten arrazoi eta sentipenei dagokienean, alegia. Baina berdin antzeko galderak egin beharko lirateke, helburu amankomun batzuk erdiesteko asmoz, *elite* horiek batzeaz arduratu zen Bascongada Elkarteak eta beronekin uztartu erakundeek —

Bergarako Errege Mintegiak, bereziki— euskararekiko garatu zuten jokabideaz; betiere kontuan izanik, urteen harian Elkarteak ezagutu hedatze prozesuak berak, alde batetik, eta bizitzea egokitu zitzaizkion koiuntura soziopolitikoek, bestetik, baldintzaturik, jokabide hori aldakorra eta, hein batez, kontraesanez markatua suertatu zela, alegia, egitasmo horretan parte hartu zuten eragileen jatorri eta interes —erabat edo neurriz— ezberdinen kariaz, noski.

5.2. BASCONGADAK ETA BERGARAKO ERREGE MINTEGIAK EUSKARAREKIKO IZAN PORTAERA

Hemen, adierazi ildoari jarraiki, bertako *handiki* eta *burgesek,* oro har, eta bereziki Bascongada Elkarteak eta beroni lotutako erakundeek —Bergarako Errege Mintegiak, batez ere— euskararekiko erakutsi zuten jarrera izango da hizpide, argitze lan horretan aipatuek garatutako hizkuntz politika eta politika horretan euskarari egiten zitzaion tokia izango direlarik funtsean aztergai.

5.2.1. Euskara-zaletasun murritzeko jendeak

Handiki eta burgesen artean, bazen ziurrenik inoiz Elkarteko kide izandako Valentin Forondaren[33] urratsei gutxi-asko jarraiki, euskararen zoriaz edo geroaz askorik kezkatzen ez zenik, ele zaharraren gainbehera (are suntsiketa ere) trauma handirik gabe begiztatuz; eta hori, euskal jatorriei buruzko ohiko kontakizunaren zenbait dogma —tubalismoarena, adibidez, edota euskokantabrismoa—, leinu-historia edertu eta apika taldearen interes klasista edo estamentalen mantenua arrazoibidezko ager zedin, akritikoki, interesgarritzat onartu arren[34].

Aipa daitezke hemen, hizkuntz politikaz (eta euskaraz) Forondaren ikuspuntu *oikumeniko* horiek gutxi-asko bereak egin zituztenen artean, F.M. de Samaniego[35], J. A. Ibáñez de la Rentería[36], M. de Aguirre y Landázuri[37], Villafuertes kondea[38] eta Pedro Jacinto de Alava[39] elkartekideak, besteak beste[40]. Egia esatera, ez dira hain *esplizituak* edo *unibokoak,* euskararen aferaz (eta hizkuntz politikaz, oro har) aipatuek izan zitzaketen aieru eta iritziak argitze aldera, gaurdaino aurkeztu izan diren aztarren edo argudioak (gaia sentibera zelakoaren seinale, gure iduriko). Baina, adierazpen unibokorik edo esplizituagorik ezean, interesgarri gerta dakiguke betiere, argitze lan horretan, sendiek oinordekoen geroa bermatu nahiz garatu ohi zituzten estrategien berri, hein batez bederen, izatea; izan ere, horrela hel gaitezke usnatzera, zeharka bada ere, zein zen familia edo gizarte talde batek, bere eguneroko jarduera ekonomikoan edo harreman sarean[41], berekotzat jotzen zuen erreferentziazko helmuga, eta, hori argitu ondoren, ziur aski, errazago suertatuko zaigu bereiztea familia eta leinu horien jardunbidean kontraesanekotzat jo zitekeen

zenbait portaera. Izan ere, propiotzat agian barneratu etnia edo kultur talde bateko helburu amankomun lauso eta urrunen aurrez aurre (iraganeko bilakabide amankomun bateko osagaiak —hizkuntzak, tradizioak, ohiturak…— lehengo hartan mantentzera bultzatzen zuten *herri interesen* aurrez aurre, esan nahi baita), norberaren sendi edo leinuarenak —*klasista* edo *estamentalak,* gero arrunt bihurturiko kontzeptu-kategorien arabera, baina askoz hurbilagoak, edonola ere— altxatzen ziren ohiz, senitartekoen geroa bermatzeko estrategiak garatu behar izaten zirenean eta, erabakiak hartu orduan, hauek —alegia, *egunerokoaren gordina*, P. Salaberrik beste testuinguru baterako agian asmatu[42] esamoldea baliatzearren— izan ohi ziren nagusitzen zirenak, besteak —herri hizkera propioarena, besteren artean— bigarren maila lausotsu (eta sinboliko) batera zokoratzen zirelarik.

Honaino, *Errege* Elkartearen karietara gauzaturiko giroan, Hegoaldeak bizi izan zituen kasuak izan ditugu aipagai. Iparraldeak ere, zalantza izpirik ez, bizi izan zituen bere erara antzeko prozesuak lehendik ere[43]; baina kontua da, Iparraldekoek apenas izan zutela harremanik, guk dakigunez, Bascongadarekin —edo, harremanak eman baldin baziren, ez dutela ia aztarrenik utzi egun eskura dugun dokumentazioan...—, harik eta, 1789ko iraultzaren lehertzearekin bat, bertan ere gauzak nahasten —eta nola, gainera!— hasi ziren arte. Nahiko arrazoi, nolanahi ere, hango kontuen aipurik hemen ez aurkitzeko. Gero, bai, hasten dira kasu ezagunak ematen; baina, oro har —XVIII. mendeko Ilustrazio giroan umotuak izanik ere, ziurrenik, gehienak—, Iraultza prozesuei loturik. Dena den, hor, P. Ithurbide[44], euskaraz, agidanez, aise moldaturik[45], Iraultzaren harira sortutako zenbait agiri euskaratzeaz eta inprimatzeaz arduratuko zena [46], baina, edozein modutan, ideologia liberalaren exijentziei men eginez, *Errepublikako hizkuntza bakarraren* onerako euskara suntsitzearekin bat zetorkeena[47]; hor, J.-M. Monduteguy, Uztaritzeko tratularia, bertako zinegotzi izanik, probintziaren ordezkari gisa Parisen —haren ohiko *estatus* berezia bermatze aldera, noski— D.-J. Garat hautatu zuena[48], eta, herrialdearekiko betiere zinez leial agertu izanagatik[49], gauza izan zena gerora, Izualdian, ideia berriekiko bere debozio itsuan, *Convention* izenez ezagutu Biltzar Konstituziogileko ordezkari Pinetek agindu ankerkeria gogorrenetan parte izateko[50]; hor, J. Marithurry, Uztaritzeko arotz eta etxegile ahaltsua, Dominique Garat hautagaiaren kontrako zerrendakoa, 1789ko *États généraux* sonatuetarako diputatuak esleitu behar izan zirenean[51], eta, herriko auzapez bilakaturik Izualdian, herriaren ohiko izena aldatzeaz gain (Marat-en omenez *Marat-sur-Nive* deitu beharko zen gerora…), politika jakobinoaren errepresio neurri lazgarrienak (herritarren erbesteratzeak[52], ondasun pribatuen konfiskazioak[53], klausurako mojen atxiloletak[54], eliz ondarearen nazionalizazioa[55]) zorrotz betearazi zituena[56]; hor, M. Daguerressar[57], eskribaua Mugerren, Uztaritzeko barrutiko zuzendaritzakide 1790ean eta barrutiko prokuradore-sindikoa 1792an, gerora, Pinetek eta enparauek abian jarri zituzten ekimen *iraultzaileak*

bultzatu zituena[58]. Eta horiekin bat, susma daitekeenez, *heren-estatuco escaldun frances* asko eta asko[59] —berriki *citoyens* gisa zehaztutako klase apal eta ertaineko jendea, hain zuzen—, Iraultzaldian hainbat herritako taberna eta txokoen itzalpean ugaldu *glub*[60] edo *elkarte iraultzaileetan*[61] biltzera ohitua, eta haietan, noski, ama Frantziaren *haur maiteac, eguiazco Citoyenac* zirenei egokitu dotrina eta printzipio berriez gain[62], *hizkuntza nazional bakarra*ren alde eta *fanatismo* eta beste zenbait zorigaitzen gordeleku bilakatutako *patois* eta euskararen aurka B. Barrère[63] eta enparauek[64] egindako aldarriak makina bider entzunak zituztenak, ziurrenik[65]. Horren adibide dateke, Uztaritzen 1793ko Konstituzio berria bozkatzeko deitu erreferendumaren harira gertatutakoa; hain zuzen ere, Martin Dihabe prokuradoreak —D. Garat *zaharrak* oniritzirik, antza[66]— kontsultari muzin egitea proposatu baizuen, deialdi ofiziala *euskarara itzultzen* eta inprimatzen ez zen bitartean, eta, horren karietara, *sans-culotte* uztariztarrek eta barrutiko agintariek, amorruz jota, prokuradorea eta Martin Duhalde, bertako auzapeza, kargutik bota eta atxilotu baitzituzten, J. Marithurryren bedeinkazio osoz, itxuraz[67]. Horren adibide dateke, halaber, 1796ko martxoan Uztaritzen gertatu zena; izan ere, eskola berriro abian jartze aldera, maisu bat esleitu beharrez, udal kontseiluak hura ondo aztertu behar zela erabaki baitzuen, eta azterketarako galdera sorta bat proposatu, *frantsesa* eta euskara ongi jakin beharraren garrantzia, bidenabar, azpimarratzen zelarik[68].

5.2.2. Euskararen eta, oro har, Euskal Herriaren maitaleak

Baina handiki eta burgesen artean —eta, nola ez, Bascongadako kideen artean ere, berau sortu berritan batik bat— ematen zen orobat ele zaharraz gehiago kezkatzen zenik. Horren islatzat jo daitezke, Elkarteak eskaini ageriko ekitaldi akademikoetan, euskaraz buruturiko ariketek izan zuten presentzia sotila[69], edo, Elkartearen sortze agirietan, beronen xede eta arduren artean, euskararen lantzeak eta ikerketak izan beharko zuketen tokiaz ziharduten asmo-adierazpen zehatz askoak. 1766. urtean, ustez, argitara emandako *Estatutos de la Sociedad Bascongada* idazpuruko agirian, hau esaten zen, zehatz-mehatz, Elkarteko Adiskideen eginkizunei zegokienez:

> El nombre que han de llebar los de ésta Sociedad es el de los Amigos del País, y es preciso que todos se empeñen en parecerlo tales, empleandose à competencia en llenar el objeto de la Sociedad. Unos se dedicarán à las Mathematicas, otros à la Phisica experimental, otros à la Historia Sagrada, y profana, otros à la Elocuencia, otros à la Poesía Castellana en general, yá sea componiendo sobre asuntos determinados, ya haciendo alguna versión de algun celebre Poema escrito en otro Idioma, ó ya reproduciendo las obras de algun famoso Poeta Español, que sean poco conocidas, *otros se aplicarán a pulir, y cultibar la lengua Bascongada, o recopilar*

lo más raro y escogido que haya escrito en ella, así en prosa, como en berso, y a perfeccionar la Poesía Bascongada; otros a adelantar la Agricultura [etab.] [70].

Eta urte berean datatu ohi den Elkarteko ikasleentzat eratu araudiak, zera zioen, hizkuntzen ikasketa hizpide, bere 9. artikuluan:

> [...] el estudio de las lenguas [...] deberán empezar por el de las Nacionales, como son el Bascuence, y el Castellano, luego se seguirán el latín [...], el francés, el inglés y el italiano[71].

Azkenik, 1774. urtean, errege onespena lortu berritan kaleratutako *Estatutos aprobados por S. M. para gobierno de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País* direlakoek 1766ko haietan mintzagai izandako agindu edo gomendio berberak jorratzen dituzte 6. izenburupeko 4-5 atalburuetan:

> Art. 4: A más de lo prevenido en los artículos precedentes, la Comisión de Historia, Política y Buenas Letras ha de dedicarse a la Historia y Geografía Nacional, y a la lengua y poesía Bascongada, haciendo exquisitas averiguaciones para juntar documentos y modelos escogidos, y reconociendo antigüedades y autoridades auténticas, con el fin de formar las colecciones más completas que pueda de estos diversos asuntos, procediendo con la crítica e imparcialidad que requiere la materia.
> Art. 5: Así, de las colecciones de Leyes y Ordenanzas de cada Provincia, y usos y costumbres Municipales, como del tratado de Arismética política, y de las colecciones de Historia, Geografía y Literatura Bascongada que formase, sacará esta Comisión extractos y compendios proporcionados para la educación de los Alumnos, y a este mismo fin (a que deben atender las quatro Comisiones) ha de juntar los mejores métodos y elementos para el estudio de las lenguas, la historia y demás ramos de instrucción que dependen de la buena literatura en general[72].

Egia esan, harrigarri xamarra gertatzen da 1774ko urte horretan —Elkarteak *errege* titulua lortu berritan!— euskararen aldeko halako aldarriak haren ahotan entzutea, batik bat, ikusirik, hurrengo urteko *Extractos*etan eman zela argitara *Proyecto de una escuela patriótica* izenburuko agiria[73], non, besteak beste, hau esaten baitzen, egitasmoak —espainiar monarkiari lotu izanagatik agidanez?— lorturiko hedadura *ekumenikoaz*:

> No bien la Sociedad Bascongada publicó la *Idea general* de sus estatutos, quando empezó á experimentar los mas favorables efectos del zelo y amor a la patria. En medio de la novedad de un establecimiento costosísimo, que debía sostenerse en hombros de la beneficencia nacional, corrieron muchos á participar de esta gloria. Los progresos fueron como tal vez no se esperaban; pues comunicado el calor patriótico de provincia en provincia, y llegado á Cadiz, sin que sirviese de obstáculo a su actividad el inmenso Occeano, cundió en breve tiempo los vastos continentes de ambas Américas[74].

Gauzak honaino iritsirik, zein zen —dabilkigu, temati, galdera balantzaka buruan— mundu *ekumeniko* horretarako asmatu *Eskola patriotiko* batean euskarak bete beharko zuen egitekoa? Zeren eta, harrigarri xamarra dirudien arren, euskararen aldeko jarrerak, kontraesanak kontraesan eta zailtasunak zailtasun, ematen jarraitu zuen oraindik hurrengo urteetan, aldarri ofizialen eduki eta tonua nabarmen doitzen edo malgutzen joango bada ere, denborak aurrera egin ahala, eskola berriak kontuan izan beharko dituen eszenatoki edota gorabehera politikoen arabera.

Nolanahi ere, aitortu behar da urte horietan euskararen alde ematen diren literatur adierazpideen artean, askoz gehiago direla gure elearen jatorri, ustez, biblikoak argitan jartzeaz eta aldarrikatzeaz arduratzen diren *gazteleraz* (edo *frantsesez*) idatzitako *apologiak*, gure hizkeraren balizko hizkuntz abilezia eta dotoreziak baliaturik, berau gizarte komunikazio tresna eraginkor —esan nahi baita, herri edo komunitate baten bizitza esparru guztietan erabilgarri eta, noski, bizitza maila guztietan eraginkor...— bihurtu nahi, eta horretan saiatzen direnak baino.

Gauzak horrela, bi zati nagusitan banatuko dugu hemen esateko duguna: lehendabizikoan, euskararen apologistez hitz egingo dugu; bigarrenean, apologista izateari utzi gabe ere oso sarri, hizkuntza lantzeaz eta trebatzeaz arduratu zirenez. Eta, beti, noski, Errege Elkartean eta beronen testuinguru hurbilean gertatu zena erreferentzia gisa edukiz.

5.2.2.1. Euskararen apologien moda

Garai hartan ez ziren gutxi izan, XVI. mendeaz gero indartuz joan zen *erdara hutsez* idatzi *apologien* joerari jarraiki, euskararen jatorri ustez biblikoak (eta hauei ustez zegozkien hizkuntz dotorezia paregabeak…) aldarrikatu eta goresteaz arduratu ziren idazleak[75].

Joera horren islatzat jo daiteke, ziur aski, 1760. urtean, antza, bi edizio berri merezi izana J. Perotxegiren lanak[76], 1731n lehenengoz eta ondorengo urteetan —zertxobait aldatu eta aberasturik— beste pare bat aldiz jada argitaratua izan zenak. Gure ustez, berrargitalpenok, hemen mintzagai izango diren Joseph-Hipolito de Ozaeta Gallaiztegui, J.-Ph. de Bela, Sanadon eta abarren obren argitalpenak bezala, orduko zenbait jenderen herri-kontzientziaren egituraketan euskarak betetzen zuen egiteko ordezkaezina jartzen dute agerian; izan ere, euskal autokontzientziaren (eta orobat autoestimuaren) ezinbesteko osagaia suertatzen baitzen sasoian euskara, baita, beronen ustezko iturburuen harira garaturiko *imajinario* edo iruditeriarekin bat —tubalismoaren, euskoiberismoaren eta euskokantabrismoaren teoriekin bat, esan nahi baita—, euskal jatorrizko erkidegoek, euren usa-

dio eta gobernatze bereziak atzerritar erasoengandik babeste aldera, eskumenean zuten bermerik eraginkorrenetakoa ere.

a) Sasoi hartan argitara emandako apologia kutsuko obrak

XVIII. mendearen bigarren erdia nahiko aurreraturik, Joseph-Hipolito de Ozaeta Gallaiztegui bergararra eta Zuberoako Jean-Philippe de Bela suertatzen zaizkigu hemen bereziki hizpide. Bascongadako hainbat lagunekin harremanak izandako J.-H. Ozaetak[77] espainiar akademikoen artean hautsak latz harrotuko zituen liburu bat argitaratu zuen 1779an, bertan, euskararen jatorri tubaliarrei dagokienez, hainbat Adiskidek[78] ziurrenik bere egiten zituen tesi edo aieruekin bat zetorrelarik[79]. Jean-Philippe de Bela, militar zuberotarra (1709-1796), bere aldetik, euskal herrialde *guztien* bilakabide historikoa kontakizun *amankomun* batean harilkatu beharko zukeen "errelato" bat ontzen aritu zen luzaz (hots, *Histoire des Basques depuis leurs origines jusqu'à 1748*), eta, berau ezin izan bazuen ere argitaraturik ikusi, material asko bildu zuen, geroago Dom B.-J.-B. Sanadon benediktarrak Pauen inprimatu zen saiakera batean baliatzerik izan zuena[80]. Saiakerok, ordea, garbi aski adierazten dute, lehen esanik dugunez, nola ulertzen zuen orduko *inteligentsia* edo *elite* zuzentzaileak —Esteban de Garibay, Baltasar de Etxabe, Manuel de Larramendi eta abarren urratsei jarraiki, noski— euskararen jatorrien harira garaturiko *imajinario* edo iruditeriak (*tubalismo*, *euskoiberismo*, *euskokantabrismo*... deitu teorienak, alegia) bete zezakeen egiteko ordezkaezina, euskal jatorrizko herrialdeetako gobernatze bereziek Estatu absolutisten aldetik orduan jasaten zituzten eraso gupidagabeak indargabetu eta, bidenabar, arbasoengandik ustez zetozen bizi-ereduak babeste aldera. Sanadon-en hitzak honoko hauek: "Le moyen plus sûr qu'aient les Peuples pour connaître et justifier leur descendance est de considérer la langue, les moeurs et les coutumes de leurs ancêtres et d'en faire ensuite la comparaison avec celles des nations voisines et avec les propres, pour juger de la ressemblance ou de la différence"[81].

Apologista hauen euskararekiko jarreran, ordea, J. Claveria apaizak, aspaldi, E. de Garibay eta B. de Etxabe-renean salatzen zuen jokaera berbera sumatzen dugu: «Burlatzen naiz Garibaiez [zioen hark], / bai halaber Etchabez, / zenak mintzatu baitire / erdaraz Eskaldunez. / Ezen zirenaz geroztik / eskaldunak hek biak, / Eskaraz behar zituzten / egin bere historiak»[82] adierazi nahiz bezala, dotore mintzo ohi zirela euskarari buruz edota euskaldunen jatorri bibliko ezin nobleagoez, baina ezer gutxi egin zutela dotorezia horien guztien sintesia bide zen hizkuntza miragarri hori trebatu eta euskarazko literatura jaso bat garatze aldera.

Guztiarekin, halere, *apologien modak* bizi-bizi jarraituko du XVIII. mendearen amaieran eta XIX.aren hasieran: batetik, erromantizismoaren eraginez gora egingo duelako nabarmenki Europako nazioarte kultuan euskara eta euskal herritarrekiko enpatia giroak (hor, besteak beste, W. Bowles, J. D. Herder, W.

von Humboldt, J.-F. Bourgoing, J. F. de Masdeu, L. Hervás y Panduro, J. Ch. Adelung…)[83]; eta, bestetik, areagotu eta zorroztu egiten direlako euskal gobernu-molde bereziek Estatu absolutisten aldetik jasan beharko dituzten erasoak, eta ugaldu aldi berean, gobernu-moldeok babeste aldera, bertako foru herrialdeetan abian jarriko diren ekimenak.

Bat edo beste aipatu beharrean, Luis Carlos y Zúñiga (1749-1814) apaiza datorkigu hemen gogora, orduko bilgune akademikoetan bere burua *Cura de Escalonilla* bezala ezagutzera ematen duen nafarra, hain zuzen: Elkarteko kide (beroni eskainiko dio bere idatzietako bat[84]), harremanak izango ditu, besteak beste, J. M. de Murgarekin eta J. A. Mogelekin, eta artikulu ugari emango ditu argitara Madrileko agerkarietan[85], non euskoiberismoan funtsaturiko bere uste edo aieruek hautsak harrotu baitzituzten behin baino gehiagotan orduko aditu espainiarren[86], are, atzerritarren (Humboldt[87] kasu) artean ere.

Mogel[88] eta Astarloaz[89] gain, Zuñigak Th. de Sorregieta eta Juan Bautista de Erro y Aspiroz izan zituen neurri batez lekuko eta adinkide euskal jatorriak goreste aldeko bere ekimenean. Th. de Sorregieta[90] apaiz tolosarrak *Semana Hispano-bascongada eman zuen argitara* 1804an[91], eta liburuak espainiarren —are euskal adituen— artean hautsak latz harrotu zituenez[92], *lan berri batez egin behar izan zien aurre* kritikei[93], bere lehengo irizpideei bertan *irmoki eusten zielarik.* Juan Bautista de Erro eta Aspiroz andoaindarrak (1773-1854)[94], bere aldetik, hainbat hizka-mizkari bide emango zion *Alfabeto de la lengua primitiva en España* saiakera eman zuen argitara Madrilen 1806. urtean[95], non, euskoiberismoaren oinarrian ezagunak diren aieruekin bat eginik, euskara, Espainiako jatorrizko eta lehendabiziko hizkuntza ez ezik, Adanen eta bere oinordekoen elea ere izan zela Babeleko nahasmendua suertatu arte aldarrikatzen baitu; eta, urte horretan bertan, *cura de Montuenga* ezizenez ezagutu J. A. C[onde]k izenpeturiko *Censura* batean Erroren ditxosozko *Alfabeto*a —Zuñigaren eta Astarloaren beste zenbait *Apología* bezala eta, azken finean, euskara bera ere— gupidagabe gutxietsia eta kritikatua suertatzen denean ("ridícula corneja del vascuence" —honi opa dion *lausengu* bat [eta darrai]—: *guirigay, lengua bárbara*, *ruda, mezquina y pobre como capa de astroso, incapaz de elegancia*, etab.)[96], bizkor aterako da berriro prentsara andoaindarra *Observaciones filosóficas* izeneko obra batekin[97].

b) Eskuizkribaturik iritsi diren elkartekideen apologia *eiteko lanak*

Aipatu idazkiak, ordea, ez ziren bakarrak izan, euskaldunak, sasoian, euskararen aferari dagokionean, bizi izandako kezka eta ardurak agerian jartze aldera. Kezka eta ardurok sarri xamar eta era askotara eman izan ziren aditzera, horien emaitzak oso gutxitan iritsi arren inprimatuak izatera, eta, askorik jota, artxibotan gordetako eskuizkribuetan gugana heldu. Adierazi behar dut, bestalde, *apologien* eitekotzat jo direla agiri edo idazkiok, zeren, sasoiko euskal gizatal-

deen baldintzapen ideologiko berberei erantzunez, berebiziko interesa eta ardura agertzen badute ere, alde batetik, euskararen biziraupenari dagokionean, ez baitaude, bestetik, euskaraz idatziak, gazteleraz baino, eta, ikuspegi horretatik, ezer gutxi laguntzen baitute gure hizkuntzaren ahalak garatzen eta agerian jartzen eta, horrenbestez, berorren egoera diglosikoari aurre egiten[98].

Hemen Bascongada Errege Elkarteko bazkideen edo Elkartearekin nolerebait harremana izandako autoreen *apologia* joerako zenbait lanen oroigarriak jasotzen ahaleginduko gara, lanon idazpuruak eta, halakorik emanez gero, interesgarri diratekeen beraiei buruzko beste zenbait zertzelada laburki bilduz.

1) Prestamero Artxiboan gorderik dauden testuen artean, bada Loiolako Kolegioko liburutegian gordetako eskuizkribu batetik aldatu *Noticias de la Lengua Bascongada* tituluko eskuizkribua, eta horren 5. atalburuak hau bide zuen idazpuru gisa: *De el Lenguaje primitivo natural de Guipúzcoa que es el Cántabro o vulgarmente vizcaíno o Bascongado*[99]. 1773. urteko *Extracto*etan jaso zen apologia joerako saiakera horren berri, eta bertan eskaini, halaber, beronen laburbildu bat[100].

2) Prestamero Artxiboan, halaber, gordetzen da, Andoaingo erretore izandako Joseph de Apeztegiak idatzitako *El Agur del bascuence vindicado contra el Adiós del Romance. Segunda parte* idazpurutzat duen eskuizkribua[101].

3) Beste eskuizkribu bat —Prestamero Artxiboan gordea, berau ere, eta *apologien* joerakoa, orobat— *Etimologia genuina de los días de la Semana en la Lengua Bascongada* izenekoa da, eta beronen autoretzat Echeberria delako bat iradokitzen zaigu[102]. 1772ko *Extracto*etan ematen da agiriaren berri, eta zera eransten, testuaren ulermen edo interpretaziorako aurkitzen zituen alde ilunak argitu nahirik, alegia, Elkarteko *curioso* batek Martin de Sarmiento monje beneditarrarengana jo zuela eta honek emandako azalpenek ez ziotela askorik lagundu aipatu ulermen arazoak saiheste aldera[103].

4) Urteak aurrera, Hondarribiko Francisco J. Yrigoienek *Apellidos bascongados traducidos en castellano*[104] izenburuko lan bat igortzen dio 1792an Elkarteari, berau gehiegi luzatu gabe argitaratua izango zelakoaren itxaropenez. Liburuak hamabi urte argia ikusi gabe pasatu ostean, 1804ko apirilaren 14an egileak gutun bat zuzendu zion Pedro Antonio de Zuloaga Torre-Altako konde elkartekideari, jendearen interesekin bat etorriz, bere idazkia inprimatua izan zedin eskatuz[105], alegia, eta horrela iritsi zen argia ikustera, baina Mexikon eta 1809. urtean[106], gure hondarribiarraren saiakera.

5) Baina, inprimatu gabe iritsi diren apologien sail honetan, interes gehien duena, gure iritziz, hemen behin edo berriz hizpide izandako Juan de Egino[107]

elkartekideak utzi ziguna da[108]: alde batetik, munduan barrena merkatari gisa ibilitako pertsonaia honek Bascongada Errege Elkartearen garaiko jardun eta garabidean izan zuen garrantziagatik[109], eta, bestetik, bere idazkiak Elkartearen *Extractos*etan lortu zuen oihartzun nabaria dela-eta. Hemen jasotako laburpenean adierazten denez, Eginok, Mohedano anaiek beren *Historia literaria de España*ko lehen alean *bascuence*aren aurka idatzitakoei aurre egitea izan bide zuen helburu, eginkizun horretan apologista zaharren ildoari jarraitu ziolarik. Bertan irakurtzen ditugu hitzok, euskara hizpide:

> El bascuence se mantiene en las arideces de unas montañas donde sus naturales, por más afectos que le tengan, sólo le han conservado como alhaja escasa, arrinconado sin más afeytes que los de su natural aseo acometido por todas partes a su total exterminación; pues como para el trato común con los demás españoles es necesario saber castellano y éste interesa más por todos títulos de combeniencia que el Bascuence, todo el conato se pone en aprehender aquél desde la infancia; y assí en las escuelas de primeras letras se enseña a leer y escribir en castellano y aún se prohíve a los niños hablar en Bascuence porque no les embaraze al otro idioma. En todos los pueblos grandes especialmente, es corriente y aun dominante el castellano, con particularidad entre eclesiásticos, cavalleros y quantas personas se tienen por de alguna distinción. Se predica en castellano: Las escripturas, tratos y contratos Públicos se hacen en castellano en las Audiencias de las Provincias, y Consejo Real de Navarra: todo se actua, y despacha en Castellano: los Capitanes Generales, los Yntendentes, Correjidores y otros Ministros del Rey hablan, goviernan, y dan sus ordenes en Castellano: aun los Fueros, y las Ordenanzas particulares de los pueblos están en castellano: con que lejos de pulir, hermosear, y cuidar el Bascuence, todo conspira a su decadencia ha muchos siglos[110].

Ez zen, ordea, horretara mugatu Cádizen merkatari gisa aritu Eginoren saiakeraren xedea. Lan horren 2. atalean, Gramatikaz edo euskararen *Arteaz* ere aritu zen Egino, euskarak beste hizkuntzak zertan gainditzen zituen azalduz eta Larramendi maisuaren obran osatu beharrekotzat iruditzen zitzaizkion puntuak seinalatuz[111].

Baina Sorregieta, Erro, eta, oro har, beste *apologisten* euskararen aldeko aldarriak eta *egitasmo* onenak gorabehera, aitortu behar da, atal honi amaiera emate aldera, euskararen dotorezia paregabeen tronpetari edo *apologista* hauek gehiago arduratzen zirela —*gazteleraz* edo *frantsesez*, noski, idatzitako euren testuetan— interes *estamental* edo *klasistez* (gero orokor bihurtuko den kontzeptu-tresneriaz baliatze aldera...)*, herri* hizkera baten garapen eta prestigiatze beharraz baino: horren susmo bizia dugu guk, behintzat, eta uste dugu neurri batean susmo hori justifikaturik legokeela.

d) Zer, ordea, apologiez haratago?

Lehen ere esana dagoenez, hemen, Euskal Herrian, aitoren seme bat (edo —berdin dio— hiri edo herrixketako bizilagun xume bat) bere eta bere familiakoen geroa bermatzeaz arduratu behar izaten zenean, bi irtenbideren aurrean aurkitzen zen, betiere sendiaren ahalak (edo maila sozialak) zorrotz baldintzatzen zituelarik bata eta bestea: bat, sendiaren ondarea funts edo ahal handiko izan ohi zenean, berau profitatu —esan nahi baita, berau abiapuntutzat hartu—, aukerako etorkizun bat bermatzeko bidean egokiak ziratekeen negoziotan sartu eta zuhurki jokatzeko; eta bi, abiapuntu hori hain irmo eta sendoa ez zenean, sendi edo familiartekoen bezeria-sareak baliatu, Euskal Herrian edo hemendik at, euskaraz ez, erdaraz baino, moldatzen zen eskola edo ikastetxe batean hezkuntza- eta kultura-maila txukun eta egoki bat eskuratu ahal izateko, eta, behin hori lorturik, hemen bertan edo monarkia baitako eremu zabaletan —armadan, administraritzan, eliz benefizioetan eta abarretan— eskaintzen zitzaizkien lanpostu aukerak baliatu, gizarte egituran egokitzeko edota aurrera egin ahal izateko.

Gauzak honela (eta, euskaldunen noblezia unibertsaleko teoria bitarteko, nork bere familiaren jatorri noblea bermatua ikusten zuelarik oro har), ez da harritzekoa pertsona bakoitzaren bizitzan euskararen balioa gutxietsia suertatzen bazen, batik bat, euskara bera bihurtzen zenean gizarte diskriminaziorako tresnarik erabakigarrienetakoa —euskal *elebakarren* kasuan, hain justu—, zeren hizkuntza zaharraren aldebakarreko presentzia horretan mamitzen baitzen kultura jasoko gizarte talde *edukatuen* eta *alfabetatugabeko* herrikide xumeen arteko desberdintasun nabarienetako bat, erraztu egiten zitzaielarik haiei, ondorioz, administraritza- edo botere-hizkuntzaren erabateko erabilpen hori bitarteko, herritargo xumearen gaineko nagusigo eta kontrola.

5.2.2.2. Bascongada Elkartearen eta bertako kideen euskarekiko jarrera

Elkartekide askok eta Elkarteak, oro har, euskararekiko erakutsi zuen jarrera epel edo zurrunaz, agidanez, hemen esan direnak esan eta gero, gizalegezkoa da gai honi dagokionez egin ziren urrats positiboak ere aipatzea, egiteko horretan zerbait interes berezikorik egin izanagatik nabaritu zirenak gutxienik nabarmenduz. Bada, hauen artean, lehenik aipatu beharrekoa X. Munibekoa bera da, eta, horrekin batera, Bascongada Elkartean bildurik, euskara onbidean ezartzeko ahalegindu zen bere hurbileneko hainbat lagun.

Ez da, ez, ahaztekoa X. Munibek sail honetan[112] egindako ekarpena, kontu eginez, lehenik, noizkoa den ekarpen hori, eta, kontu eginez, gero, leporatu ahal zaizkion akats edo muga estilistiko, klasista edo belaunaldien artekoak gorabehera[113], zerbait ezohiko edo berria suposatu zuela orduko euskal literatur ekoizpe-

naren sailean —esaterako, ikusmolde klasikotan funtsatu *El Borracho Burlado* opera komikoa idatzi zuenean, edota, euskal poesiaz ziharduen hitzaldi baten ondoan, euskaraz idatzi *egloga* bat Adiskideei irakurri zienean—.

a) Irakaskuntza sisteman euskararen presentzia arautua lortze aldera egin ziren urratsak eta ahalegin horretan jasotako porrota.

Baina ez zen hor bukatu, X. Munibek (eta, honekin bat, Elkartean bildutako zenbait kidek) euskara landu eta kultu baten alde burutu zuten ekarpena. Eta, hau esanez, haiek ditut bereziki kontuan, Mintegi *Patriotiko*aren lehen fase batean ikasle gazte askoak euskaraz, hitz lauz nahiz neurtitzez[114], idatzi *poemak* eta *arengak* ageriko jardunaldietan —noiz edo noiz pertsona garrantzizkoen aitzinean ere[115]— deklamatzera bultzatzen zituzten irakasleak: haiek, alegia, Xabier Munibe bera bezala[116], Erretorikak hizkuntza baten garapenean zuen garrantziaz jabeturik (eta aspaldiko *Eskuara, jalgi adi plazara* hura, agian, gogoraraziz), gure ele zaharra ere bide horietatik barrena eraman nahi izan zutenak[117], haren jatorrizko goxotasun eta dotoreziaz apologistek aldarrikatzen zutena euren arenga eta poemetan islatzen saiatuz[118]. Edonola ere, ez da hemen garrantzizkoena euskaraz idatziriko poema edo arenga batzuk prototipo klasikoen eredura ekoitzi izana, baizik eta kultura klasikoarekiko hurbiltze hori ikasketa sistemaren berregokitze-egitasmo zabal baten barruan saiatu zela, hain justu, non, instantzia ofizialetan (edo aginte esparruei uztartu ekimenetan) euskararekin gauzatu ohi zen bazterketa edo estigmatizazio politika saihestuz, euskara bera suertatzen baitzen aztergai eta ikaskizun, beste zenbait arlo edo hizkuntza legez. Honen harira erants daiteke hemen, adibidez, 1766ko apirilean Elkarteak onartutako Estatutoetan*, euskara lantzea eta edertzea* aipatzen zela, zehazki Adiskideei zegozkien betekizunen artean[119]; edota, urte bereko *Reglamento para los Alumnos de la Bascongada*ko 9. atalburuak, hizkuntzen irakaskuntza mintzagai, berau *nazionaletatik —euskaratik eta gaztelera*tik, hain zuzen— hasi beharra ezartzen zuela[120].

Kontua da, *Estatutos*etan eta *Ikasleentzako araudian*, printzipio-mailan, aldarrikatu ziren baieztapen borobil horiek ez zutela ondoren, egunerokoan, gauzatze parekorik izan; zeren eta, Elkartearen eta Mintegi *Patriotiko*aren egitasmook, euskal gizartean eta, are, borboien monarkian hasieratik izandako ospe eta arrakasta berak beharturik, instantzia ofizialen aurrean aurkeztu behar izan zirenean, egokitu egin behar izan ziren ezinbestez beren helburu eta araudiei zegokienez, monarkiaren baitako errealitate soziopolitiko berezien kontu eginik[121]. Honela, 1775eko irailaren 17an Batzar Orokorretan aurkeztu zen *Proyecto de una Escuela Patriótica* delakoan, gaztelera, latina, frantsesa, italiera, ingelesa eta alemanaren irakaskuntza suertatzen dira hizpide; hitzik ere ez, ordea, euskarari dagokionean[122]. Ez dugu, ezta ere, euskararen aipurik 1776ko azaroaren amaiera aldera datatu ohi den *Noticia del Real Seminario Patriotico Bascongado* izeneko

agirian[123]; ezta lehentxeagokoa den *Noticia de la Escuela Provisional* delakoan ere[124]. Are gutxiago, 1772. urteaz gero argitaratutako *Extractos*etan hainbat aldiz datozen irakaskuntza egitarauetan ere[125].

Nolanahi ere, euskarak Errege Elkarteko irakaskuntza egitarauan "presentzia arautua" lortze aldera aurkitu oztopoek *el amigo Alabés* ezizenez ezagutu zen anonimoak 1772. urtean harrotu hizka-mizkan izan zuten euren islarik entzutetsuena[126]. Elkarteak 1771. urtean aldarrikatu zuen *Escuelas de Primeras Letras* izenekoetan gazteleraren gramatika ezartzeko asmoarekin[127] bat etorri ez, eta *arabar lagunak* gutun bat[128] bidali zien bertako batzordeei, non hauek azaldu ideiaren aurka agertzen baitzen sutsuki. *Irrigarri* zerion —are, ospe handiko adituek (Mayans, Rolando Marsio, Lamy, Fleury, Lancelot...) erakutsitakoaren aurkako— "Gaztelerazko Gramatikaren sarrera euskal eskoletan proposatzen zuen asmoari"; zeren eta —argudiatzen zuen—, hainbat adituk erakusten zuenaren kontrakoa ez ezik, "Grezian eta Erroman egin ohi zenaren" *erabat aurkakoa* baitzen ekimen hori, argi baino argiago zegoelarik, "haurrei eman beharreko lehen gramatikak norbere jatorrizko edo ama-hizkuntzakoa behar zuela", batetik, eta jakina izanik, bestalde, jatorrizkotasun hori, hemen Euskal Herrian, ez gaztelerari, euskarari baizik, zegokiola[129]. Uler daitekeenez, *el amigo Alabés*en kritika anonimoak bazkideen erantzun ezin zorrotzagoari egin behar izan zion aurre. Onartzen zuten hauek, noski, "txit kritikagarri zitekeela Elkartea, hezkuntzako hain alde garrantzizkoan, maisu ospetsuek markatu bidetik aterako balitz"; ez da, ordea —jarraitzen du Elkartearen erantzunak—, horrelakorik gertatzen *Arabar Adiskideak* aipaturiko puntuetan, ezta hurrik eman ere. Gaztelera eskoletan ezartzeari zehazki zegokionean, Elkarteak uste zuen, praktika hori, autore ospetsuen irakatsien aurka baino, bat zetorrela, bete-betean, beroiek aholkatzen zutenarekin, batik bat "Pedro Simón de Abril, espainiar ospetsuak" baiesten zuenarekin, "beronen iritziak", bestalde, "Nazioan lege izan beharko zukeelarik", Elkartearen ustez, "atzerrian" bestelako iritzien "eskean ibili gabe". Eta portaera hori ez zen adituen esanen aurkakoa, ondorioztatzen da, 1) "zeren eta, herrialdeko hizkuntza berezia Euskara izanik ere, Naziokoa, Gaztelera baita, eta, beraz, Espainiar guztien jatorrizkoa [*nativa*]; 2) zeren eta, Gobernuaren erabakia bitarteko, ezin baitaiteke herrialdeko eskoletan Gaztelera baino baliatu; eta, hori horrela izaki, mutikoei ematen zaizkien kartila, liburu, eskuizkribu eta material guztiak gaztelerazkoak izan ohi dira, aldi berean euskararen aurka hain gogor ekiten delarik, non eraztunaren usadioa baitago ezarria —gai honetan herrenka egiten dutenen eskuz esku pasatzen joaten den ezaugarriarena, alegia—, halako moldez non, astea amaitzean, eraztuna bere esku duena zigortua izaten baita ezinbestez; 3) zeren eta, Gazteleraren ulermena, honela, euskal eskoletan arrunt bihurturik (eta eztabaidatu doktrinaren funtsa alor honetan hau izaki, Gramatika, ezaguna den hizkuntza batean ematea, alegia), xede hori bete-betean lortzen baita Elkarteak proposatu bitartekoarekin"[130].

Denak ez ziren gustura gelditu, jakina, Elkarteko batzordeek *Arabar Lagunari* emandako erantzunarekin —euskararen auziari dagokionean ere, ikuspuntu eta sentiberatasun ezberdinak ematen zirela seinale—. Baina, egiaztatzerik ahal izan diren desadostasun kasu horien artean —izan ere, Elkarteak aferaren dimentsio eta oihartzuna ahal heinean murriztera edo ezabatzera jo baitzuen—, Bergarako Santa Marina parrokiako apaiz On Rafael de Garitano y Aldaetak protagonizatua suertatzen da interes aparteko[131]. Elkarteak hauspotu aurrerapen eta berrikuntza ekimenetan bestela ere inplikatua[132] ageri den On Rafael honek eskutitz luze bat igorri zion X. Muniberi, Bergaran 1775eko otsailaren 18an datatua, non, begirune osoz baina zorrotz, gaitzesten baitzuen Elkarteak *Arabar Adiskidea*ri eskolen auziari buruz emandako erantzuna. Bere iritziaren oinarri gisa bertako eta atzerriko hainbat autore argudiatuz, gogor arbuiatzen zuen eskoletan ohikoa bihurtu zen *eraztunaren* usadioa —zeharo arrazoiaren kontrakoa zeritzona—, eta zoritxarrekotzat jotzen zuen Euskal Herriko eskoletan gaztelera sartzeko Elkarteak bultzatu zuen egitasmoa[133]. On Rafaelen ustez, nekez gorets zitekeen "día glorioso del vascuence" gisa —*Ensayo*ko aitzineko *Discurso*an Munibek aldarrikatu bezala— halako egitasmoen gauzatzeari ateak ireki zizkioneko hura; aitzitik, "época de su infelicidad" gisa deitoratu beharko zatekeen; izan ere, Santa Marinako abadeari irizten zitzaionez, euskara "mantendu izan baita herri hauetan, ez marmor eta brontzetan xixelaturik, ezta ere inprentak hilezkor bihurtu idazkietan, baizik eta bertakoen maitasunean"... Eta jarraitzen zuen, *Gavon sariac* idatzi zuenaren zuntz sentibera ukitu nahiz edo: "muchos lo han abandonado, y V. S. va a introducir un medio de que todos lo abandonen, introduciendo en las escuelas de primeras letras los extractos de una lengua extraña, que cada día va ganándole terreno"[134].

On Rafaelen euskararen aldeko esku-sartze hau ez zen Elkarteko zuzendarien batere gustuko gertatu, eta, abadearen harridurarako, erantzunik gabe gelditu zen, honek zenbait bazkideengana jo bazuen ere, iskintxo egite horren arrazoiak argitu nahian. Azkenik, gerora ezagutu ahal izan dugun Peñaflorida kondearen gutun-trukeak eman dizkigu aferaren argibideak. Pedro Jacinto de Alavari idatzitako gutun batean hark kontatzen duenez, Narros markesa eta F. Samaniego ilobarekin bide zegoen etxeko sutondoan apaizaren gutuna eskutara iritsi zitzaionean eta pare bat orrialde aipatuen aurrean irakurri ostean, bertan behera utzi bide zuten irakurketa, "interes gutxiko" iruditu zitzaielako. Gero, gauean —isolaturik, jadanik, Munibe bere lantokian—, berriro ekin bide zion irakurketari, eta —jarraitzen du— "nere zakarrontzian abandonatu nuen agiria, izan ere, ezegokia iruditu baizitzaidan bere hizkuntza eliz gizon baten ahoan". Gertatu zen, ordea, On Rafaelek, esan bezala, bere gutunarekin Elkarteak egindakoaren berri jakin nahi izan zuela egun batzuk geroxeago eta, "alde guztietatik izandako etsipenak eraginik, [bere idazkiaren] kopiak zabaltzeari" ekin ziola herrian eta herritik

kanpo. Gauzak horretaraturik, X. Munibek zera erabaki bide zuen, alegia, "[que] la mejor satisfacción que podía tomar la Sociedad contra este insulto era el desprenderse del original mismo dando a entender en esto que sólo se había reservado hasta entonces por honor del Cura". Eta horixe egin bide zuen, jatorrizko agiria, interesaturik egonda ere, artean kopia bat eskuratzerik izan ez zuen bati luzatuz. Dakigunez, ez zuen segidarik izan auzi "mespretxagarri" honek, eman bazen ere Garitanoren idatziari erantzuna emateaz arduratu zen bat —*sinesgarritasun osoko* [*convincente*] erantzuna, gainera, Munibek dioenez, beronek hura ezagutzerik izan zuen neurrian—[135]. Tamalgarriena, halere, afera honetan guztian (eta ezin ukatu, Munibek eta Elkarteak izan zutela horretan zerikusirik), zera dateke, alegia, Sta. Marinako apaizaren gutuna oraindik agertu ez izana; zeren eta, bestela, ziurrenik, testu horri esker, zerbait gehiago jakin ahal izango genuke On Rafaelen hizkuntza autoktonoarekiko kezkaren muinean eragiten zuten ageriko eta ezkutuko arrazoiez, eta zerbait gehiago, halaber, Errege Elkarteak hartu zuen erabakia hartzera bultzatu zuten arrazoi ageriko eta ez hain agerikoez. Hori da, behinik behin, gure irudimena, eta ez dugu uste zeharo erraturik gabiltzanik.

Edonola ere, Euskal Herriko Lehen Letretako eskoletan gaztelera sartu nahi izanaren karietara piztu zen tirabiren historia honi bukaera emateko, esan dezakegu, laburbilduz (eta hemen hizpide izandako gaiaren harira B. Oyharçabalen hitzak erabiliz), "Gipuzkoan eta Bizkaian, 18. mendean, euskal hizkuntzari estatutu berri bat bermatu aldera sortutako ekimena ez zela benetan gai izan lehengo egoerari buelta egiteko, Bidasoaz harandiko euskalkiei ahaleko egin izan bazien ere nolabaiteko tradizio bat garatzea, lapurtera eta zubererarekin gertatu zenaren ildoari jarraituz". Eta, porrot horren zergatiak argitu nahian edo, zera dio ikerlariak: "La naissance et le développement d'un mouvement de rénovation intellectuelle telle que celui représenté par la RSBAP aurait pu offrir une occasion de sortir la langue du carcan dans lequel les rapports diglossiques la tenaient enfermée depuis plusieurs siècles. Mais si la question put se poser, la réponse fut à nouveau négative. S'il est probable que l'attitude agressive en matière linguistique de la part du pouvoir royal dans le dernier tiers du siècle ne favorisa pas un tel changement, il semble également que l'élan social qui eût été nécessaire pour entraîner une telle modification des rapports diglossiques ne fut jamais suffisamment vigoureux"[136].

b) Euskararekiko atxikimendua agerian jartze aldera

Baina, gure ele zaharraren garapen eta biziraupenerako hain garrantzizko zatekeen euskararen *presentzia arautu* hori oraingoz[137] ezinezko suertatu arren Mintegi Abertzaleko irakaskuntza programan, horrek ez du esan nahi gure ele zaharrarekiko atxikimendua hor agortzen zenik, besterik gabe. Atxikimendu hori modu askotara ematen zen oraindik aditzera arlo pribatuan, orduko gutun-trukeak garbi

frogatzen duenez. Baina ez bakarrik arlo pribatuan, baita agerikoan ere, noiz edo noiz, gutxienik. Hor dugu Aizpitarteren izenez ezagutzen den euskal hiztegiaren ekimena, haren hastapenetan, W. von Humboldten testigantzari bagagozkio[138], izan bide zuelarik X. Munibek berak zerikusirik. Gerora, ordea, ekimen horrek, jakina denez, bazkide askoren lankidetza eskatuko zuen, urteak joan ahala mamituz joango zen lankidetza, alegia, bai *Mecenas* edo *ongile* gisa egindako diru ekarpenetan, bai pertsonalki burutu materialen biltze edo ikertze lanetan ere[139].

Eta, Muniberen izena atera denez, esan dezagun beronek euskararen alde *lan asko* egin izanaren famaz gozatu zuela Adiskideen artean. Funtsatua izan hala ez, fama horren oihartzunik jaso ahal izan zuen W. von Humboldtek, urte batzuk geroxeago, Euskal Herrian barna bisitari ibili zenean. Besteren artean, "hiztegi berri baten egitasmoa" abian jartzean azkoitiarrak izandako protagonismoa nabarmendu zuen bidaiari prusiarrak[140], eta, halaber —azpimarratua izatea merezi duen xehetasuna, berau—, arbasoengandik ustez zetorren euskal kulturarekiko gure zaldunak erakutsi zuen jarrera biziki onbera[141] (erromantizismoaurreari zor bide zaion *herria* eta *herritarra* ikusi eta sentitzeko modu berria nolabait iradokitzen zuena....?). Eta, honaino iritsi garenez, aukera baliatuko dugu Humboldtek esandakoa urte batzuk geroago Bixenta Mogelek idatzitakoarekin erkatzeko; izan ere, beste hainbeste esaten baitu honek, X. Munibe berak eta Markinako munibetarren jauregian bizi izandako bere zenbait senitartekok —Antonio M. semeak[142] edo Victor bilobak esaterako— inguruko *euskal baserritar elebakarrekiko* agertu bide zuten portaera gizalegezkoaz[143] (berauen autokontzientzia edo autoestimua hauspotu nahian edo, *Peru Abarca* urruti ez zebilelaren seinale?]). Eta, azkenik, ezin izango dugu hemen ahaztu, beste testuingurutan jada mintzagai izan bada ere[144], Munibek euskal literaturaren alorrean burututakoa: dena ere, nahiko pisuzko, azkoitiarraren euskarazale fama funtsatzeko. Neurri batez, bederen. Zeren eta, egia izan arren, urteak aurrera, Muniberen fama horrek tinko jarraitzen duela gure artean ematen[145], onartu behar da, halaber, azken aldian ez dela falta izan hainbat galdera egin beharrean sentitu denik[146], handiki *ilustratuen* saloietako giroa oso gertutik ezagutu ahal izan zuen azkoitiarraren *euskarafilia* hori norainokoa izan zen erabaki edo zehaztu aurretik.

Muniberenaz at, aipatzea merezi dute, baita ere, beste zenbaitek —*el amigo Alabés* izengoitiz ezagun denak[147], Rafael Garitano y Aldaeta bergarar apaizak[148], edo Juan de Eginok[149], besteren artean— egindako ekimen ezberdinak —esate baterako, konpromiso serioagoak exijituz erakunde eta bazkideen aldetik euskararen erabilera eta bergizarteratzea indartze aldera—; nahiz eta, bestalde (dena esan behar baita), ez den zoritxarrez berauek euskaraz idatzitako liburu edo bestelako agiririk ezagutzen, nazio hizkuntza jorratu eta dotoretzeko euren grina sutsu horren adierazgarri gisa. Aipatzea merezi du, beste sail batean, Campomanesen eta Aizpitar-

teren hiztegi proiektua gauzatze aldera, zenbait Elkartekidek emandako laguntza estimagarria[150]. Edota, bazkide[151] —eta apologista[152]— izaniko J. A. Mogelek, herrikideen aipatu autoestimua edo autokontzientzia ahuldua hauspotze aldera ez ezik, euskara hizkuntza jaso eta kultua bihurtzeko egin zuen lan eskerga[153]. Edota, euskarari buruzko ikerlanek, XVIII. mendea amaitzear eta XIX.a hasi berritan izaniko goraldian, W. von Humboldt[154] edo Lorenzo Hervás y Panduro[155] gisako jakintsuei, hemen, bideak errazten ahalegindu zirenak — Dominique-Joseph Garat (1749-1833)[156], Pierre d'Ithurbide[157], Gratien Jean-Baptiste Ducos (1743-1828)[158], Ortuño M. de Aguirre Zuazo y Corral, Montehermosoko markesa (1767-1811)[159], José M. de Murga de la Barrera (1770-1834)[160], Lope García de Mazarredo (1769-1820)[161], prusiar bidaiariari dagokio nean; Juan de Leiza[162], José Antonio de Campos[163], Manuel M. Gaitán de Ayala[164], J. de Iturriaga[165], edo Antonio M. de Letona[166], besteak beste, jesuita gaztelarrari dagokionez: denak, bitartekari afera horretan (are, zenbait, Ducos[167] eta J. B. de Erro y Aspiroz[168] kasu, izaera jasoagoko bestelako ekimenetan ere) aritu izanagatik, hala moduzko euskarazale bezala ikusi ahal direnak—. Azkenik, azpimarratzekoa da, euskara txukunago baten ardura jadanik hasia zela ematen, J. A. Mogelek esandakoari bagagozkio, zenbait abade gipuzkoarren (ez hainbeste, bizkaitarren) artean, eta ez gutxik lerdentasunez ("con gallardía"…) egin ohi zuela euskaraz[169].

Iparraldeari bereziki dagokionez, Frantziako Iraultzaren bezperetako Zuberoan gutxi gorabehera[170] (baina, nolerebait, XVIII. mendean euskaldungo jantziaren autokontzientzian gauzatzen ari zen eraldaketa prozesuaren adierazgarri edo sintoma bezala[171]), azpimarratzekoa da Juseph Eguiateguy[172] *erregent* edo maisua; izan ere, Philippe de Belak (1709-1796)[173] edota B.-J.-B. Sanadon-ek (1729-1796)[174] *euskal herrien* jatorri biblikoen harira egin aldarri topikoez harago, zuberotarrak "dierriaren amorioa" eta "mintzo haren ohoriaren gatik"[175], testu interesgarriak[176] utzi baitzizkigun, "poesia dotoreenaz gauza"[177] irizten zion euskaran idatziak, hain zuzen ere. Ezin dira, gero, hemen ahaztu Lapurdiko Garat anaiak —Dominique *Zaharra* (*l'ainé*, 1735-1798)[178], eta Dominique-Joseph (*Gaztea*, 1749-1833)[179]—, kultura jasoko gizaseme *ilustratu* biak ala biak, Frantziako gune akademiko eta kultuetan nolabaiteko famaz gozatzera iritsi zirenak, baina, halere —eta Iraultzaldiko eraldatze egitasmoekin neurri handi batez akort egon izanagatik—, euskaldunen administraritza-identitatearen alde[180] eta, halaber, euskararen iraupenaz[181] kezkaturik agertuko zirenak.

Azkenean, euskararen alde gutxi-asko saiatu *gizonezkoen* zerrenda honen osagarri ustekabeko bezain pozgarri, *emakume* baten izena, Bixenta Mogelena, alegia, aipatu behar da hemen[182]: osagarri pozgarria, egiatan, baina ez, sinpleki, emakume bat agertzen delako lehendabizikoz egile gisa euskal litera-

turaren historian —Bascongada Elkartearen orbitan, nolanahi ere, eta *bazkide* ospetsuez inguraturik, halaber[183]—, baizik eta, *Ipui onak*en kasuan[184], sasoiko Europako literatur sisteman ohiko diren eredu eta jokaerak —didaktismo neoklasikoari[185], oro har, eta, neurri batean, Juan Antonio osabarengan apika ernamuinetan sumatu ahal izan duen erromantizismoaurre bati egotzi beharrekoak…[186]— bereganatzen saiatzen delako obraren egile gaztea.

Hori guztia kontuan izanda ere, ordea, ezin da ahaztu, bestalde, errazago suertatzen dela Eguiateguyk hizpide zuen *dierriaren amorioa*ren ukitua edo *mintzoaren ohoria*ren kezka[187] antzematea Bascongadak, sortu berritan, euskara lantze eta dotoretze aldera egindako lehen orduko proposamen goiztiarren muinean[188] (edo, lehen urte horietako ekitaldi akademikoen kariaz, zenbait kidek eta ikaslek bertsoz edo prosaz eskainitako euskarazko lantxo xumeetan[189]), urte gutxi batzuk geroago baino (hots, Madrileko gobernuak Aizpitarteren proiektua bere ardurapean hartu ondoan baino); izan ere, egitasmo horri ukatzen ez zaion izari edo dimentsio zientifikoa[190] gorabehera, eta hemen aztergai diren dokumentuetan *patriota, celo patrió-dierriaren amorioa* edota *mintzoaren ohoria*[191], baizik eta, xede ez hain onberek —aitzitik, bete-betean klasista [192] edota politikoek[193]— agindurik, beste hizkuntza eta aberrien kezka[194].

Beraz, hori guztia esanda, gaineratu behar da handiki eta *heren estatuko* burgesek —Bascongada Elkartea eta bertako kideak barne, noski— ez zutela askorik egin, oro har, euskara literatur molde jasoetarako trebatu eta irakaskuntza- eta administrazio-egitekoetarako egokitzeko[195], eta jokamolde hori suertatzen zela, garaian, gure hizkuntza zahar *baserritarrak* azken mendeetan pairatu izandako menpekotasun eta diglosia egoera betikoratzeko biderik aproposena. Bada afera honetan ezkuta ezineko datu bat, behin baino gehiagotan hemen errepikatu dena, eta da, bai Elkarteak, bai beronek abian jarri zuen Bergarako Mintegiak borboien monarkiaren babesa bilatu zutela ia hasieratik[196], hain zuzen, eta gorabehera horrek bere seinalea utzi zuela bata eta bestearen orduko eta geroagoko eginbidean —*errealismo posibilista*ren irakasbideei atxikirik, eliteek hautatu jokabidean, alegia[197]—. Ondo zekien hori, adibidez, 1801. urte inguruan, F. M. Samaniegoren hileta-oharra Espainiako Historiako Errege Akademiarako prestatu zuen bazkide anonimoak —gure ustez, On Lorenzo Prestamero apaizak, hainbat urtez Bascongadako idazkariorde izan ondoren, Errege Akademiako kide izatera ere iritsi zen berak...—; izan ere, eta zehazten zuenez, Bascongada Elkarteak Bergaran abian jarri zuen Mintegia *Errege zerbitzari* eta *ohorezko kargudun anitzen* hazitegia omen zen[198]. Aipatu *errealismo posibilistaren* baldintzapenei men eginez ager-tzen zaigu, halaber, *Fenizia Berria*ren kontzeptu-tresna asmatzen duen D.-J. Garat[199]; izan ere, euskararekin harremandu Iparraldeko eta Hegoaldeko bazter guztiak elkartu eta euskararen geroa bermatu beharko zukeen administraritza-egitura bezala begiesten bazuen ere uztariztarrak ametsetako *Fenizia*

Berri hori[200], Napoleonen itzalpean eta napoleondar inperioaren egitekoetara makurtua ikusten baitzuen gauzatuz bera, erromantizismoaren ukituz antzaldatzen hasia zen neoforalismoaren ildoetatik apenas ezertan aldendu gabe, noski.

Beraz, eta amaitzeko, gure handiki eta burgesen euskararekiko jokabidea —are X. M. Munibe, Garat anaiak, G.-J.-B. Ducos edota J. B. de Erro bezala, ele zaharraren geroaz kezkatuen ageri direnena ere (eta, noski, kontuan hartu gabe V. Forondak bezala, euskara erabat suntsiturik nahiko luketenak: *patois* ilun bat balitz bezala, edota orban lotsagarri bat estatu zibilizatu batean)— funtsezko kontraesanaz kutsatua edo ahuldua agertzen da. Prest leudeke, ziurrenik, J. Eguiateguyren antzera, "dierriaren amorioa" eta "mintzoaren ohoriaren gatik"[201] hainbat eginkizunetan parte hartzeko; baina, norberaren *dierri* edota *mintzo* horren aurrez aurre beste dierri eta mintzoak altxatzen direnean eta hauekin lehian hasten, orduan arrazoizkotzat jotzen da egunerokoaz —familiaren ospeaz, semeen etorkizunaz eta abarraz— arduratu beharrak agindurik edo interes estamentalak bitarteko, ama-hizkuntza pixka bat alboan utzi, eta botere eta gizarte-arrakastarekin lotuta ikusten den beste hori lehenesteko. Ez du horrek esan nahi, ordea, ama hizkera gutxiesten dutenik, ezta hurrik eman ere; aitzitik, harro daude, gure Eguiateguy bezala, euskaldun izateaz, eta harrotasunez gogorarazten dituzte M. Larramendik eta enparauek euskararen eta euskal herrien jatorriaz aldarrikatu zituztenak. Kontua da, gauzak zeuden gisan egonik (esan nahi baita, diruaren eta gizarte-arrakastaren bideek, oro har, gazteleraz edo frantsesez mintzo ohi zirenean…), oso zaila egiten zela errealismo posibilistak markatu eskakizunei muzin egitea. *Dierri* eta *mintzo*en afera hori tentuz kudeatu beharrekoa zen, nolanahi ere, eta gure handi-mandi eta zaldunetako askok tentuz kudeatzen zuen berau, konturaturik, apika, maizter/*errentariz* eta gainerako talde herritarrez osatu gehiengo euskaldun elebakar eta analfabeto baten iraupena are onuragarri izan zitzaiekeela estamentu edo klase-interesen ikuspegitik; hain zuzen ere, aipaturiko gehiengo euskaldun elebakar eta analfabeto horren eta atzerritik inposatu administrazio-egitura erdaldunen artean bitartekari-egitekoa betetzen zuten neurrian, bertako tokian tokiko botere-aparatuen kontrol oligarkikoa bermatzen baitzuten nolerebait euren familientzat. Eta hau izango da, gerora ere, XIX. mendean barrena, jauntxoek eta, neurriz, heren Estatuko talde batzuek ustiatuko duten beta, neoforalismoak markatu ildo ideologikoari eutsiz. Euskara? Bai, nola ez. Baita, ohiko araubidean funtsaturiko euskal baserri eta herrixken mundua ere —errentari leial eta langile zintzoz populatu mundua, alegia—, baldin eta horrek guztiak ez baditu arriskuan jartzen agindu behar duten jendeen interesak[202]. Hortik aurrera?

Oharrak

1 Elkartea izendatzeko, "Bascongada Elkartea" deitura erabili izan da. Elkartearen jatorrizko izen osoa gaztelaniaz ondokoa da: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País (RSBAP), eta euskaraz Euskalerriaren Adiskideen Elkartea (EAE).

2 Gaiari heltzerakoan, kontuan izatekoa da duela gutxi kaleratutako A. Chaparro-ren tesi lana: *La formación de las élites ilustradas vascas: El Real Seminario de Vergara (1776-1804)* (J. M. Imízcoz-ek zuzenduriko doktorego tesia), Baracaldo 2009 (http://es.scribd.com/doc/73194645/CHAPARRO-SAINZ). Ikus, halaber, A. Chaparro; J. M. Imízcoz: *Los orígenes sociales de los ilustrados vascos*, in J. Astigarraga, M. V. López-Cordón, J. M. Urkia (ed.): "Ilustración, Ilustraciones" izeneko Batzarrean (Azkoitia, 2007), Sociedad Estatal de Conmemoraciones Culturales, RSBAP, 2. libk., 2009, 993-1028 or.; J. M. Imízcoz : *Las élites vasco-navarras y la monarquía hispánica: construcciones sociales, políticas y culturales en la edad moderna*, in "Cuadernos de Historia Moderna" 33, 2008, 89-119 or.; G. Franco Rubio: *Formas de sociabilidad y estrategias de poder en la España del s.* XVIII, in E. Martínez (kord.): *Poder y mentalidad en España e Iberoamérica*, Madrid 2000, 389-416 or.; Id.: *Espacios de sociabilidad, espacios de poder. Algunas reflexiones sobre la articulación de redes sociales en la España del s.* XVIII, in E. Martínez Ruiz (koord.): *Vínculos y sociabilidades en España e Iberoamérica, ss.* XVI-XX (= III Seminario Hispano-Venezolano), Ciudad Real, 2005, 59-110 or., etab. Edonola ere, ezin da hemen ahaztu gauzak horrela ikusteko moduari gure artean bideak ireki zizkion lehenetarikoa J. Caro Baroja izan zela bere *La hora navarra del* XVIII*: personas, familias, negocios e ideas* (Dip. Foral de Pamplona, 1969) lan berritzailearekin.

3 Ikus, beherago, 9-12 oharretan jasotzen diren erreferentziak.

4 Gai honi buruz ikus, besteak beste, A. Sagarna: *Euskara* XVIII. *mendean,* in "Cuadernos de Sección. Hizkuntza eta Literatura" 3, 1984,17-114, zeh. 56 or.; K. Larrañaga: *Las manifestaciones del hecho ilustrado en Bergara*, Bilbo, Bergarako Udala, 1991, 91-94 or. (testu bera funtsean, baina euskaraturik, in Id.: *Euskal egitate bereizgarriaren ardura eta euskararena bereziki Bergarako Erret Mintegi Abertzalearen hezkuntz egitarauan,* in "Tantak" 6, 1991, 65-85, zeh. 76-81 or.); A. Lakarra: *Gogoetak* XVIII. *mendeko euskalaritzaren inguruan,* in "Anuario del Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo'" 23/2, 1989, 447-461.

5 Behin betiko ohartarazi nahi dugu, hemen eta antzeko beste zenbait testuingurutan "euskal" hitza erabiltzen dugunean, lurraldeari edo jatorriari egiten diogula erreferentzia, ez hizkuntzari.

6 "El perfil socioeconómico de los fundadores y socios de número de la Basongada —diote A. Chaparro eta J. M. Imízcozek (*Los orígenes sociales...*, 994 or.)— corresponde [...] a familias hacendadas de las provincias. Además de algún señor territorial, como el vizconde de Ambite o el marqués de Montehermoso, la mayor parte de ellos eran mayorazgos y diezmeros, como el conde de Peñaflorida, poseedor de cuatro patronatos y quince mayorazgos, el marqués de Narros, propietario de tres mayorazgos, Félix María de Samaniego, señor territorial del valle alavés de Arraya y dueño de tres mayorazgos en Guipúzcoa, Carlos Antonio de Otazu, patrono de Otazu y con siete mayorazgos, Juan Rafael de Mazarredo, con siete patronatos y siete mayorazgos, Miguel José de Olasso, con tres mayorazgos, etc.". Ikus, halaber, A. Sagarna: *Euskara* XVIII. *mendean...,* 27-29 or.

7 A. Chaparrok eta J. M. Imízcozek diotenez, "euskal" ilustratuek XVIII. mendean monarkia espainiarraren aginduetara aritzen ziren goi-goi mailako agindu postuak lortu zituzten administrazio, armada eta ogasun barrutietan, eta goi mailako postuak, halaber, Estatuaren eta inperio kolonialaren inguruko ekonomia pribilegiatuan. Haien arduren artean ziren, besteak beste, gorteko errege jauregi eta etxe aristokratikoen hornidura, Madrileko Bost Gremio Handienen zuzendaritza, artilea kanporatzea eta Ipar Europako industria ekoizpenen inportazioa, Indietako merkataritza, burdinaren esportazioa eta produktu kolonialen etxeratzea, armada merkatu eta industria produktuez hornitzea, edo familia hauetako zenbait kidek XVIII. mendean zehar eraikitako tratu-konpainia pribilegiatuen kudeaketa... ("[...] grupos de las élites vascas que en el s. XVIII participaron más activamente en las carreras administrativas, militares y financieras de la Monarquía hispánica, así como en la economía privilegiada en torno al Estado y al imperio colonial [...]. [...] los ilustrados vascos corresponnden a familias que participaron de un modo especialmente intenso en este proceso". *Los orígenes sociales...*, 996 or.).

8 Gai honi buruz, ikus J. M. Imízcoz: *Comunidad, red social y élites. Un análisis de la vertebración social en el Antiguo Régimen*, in Imízcoz, J. M. (ed.): Élites, poder y red social. Las élites del País Vasco y Na*varra en la Edad Moderna,* Universidad del País Vasco, Bilbao, 1996; A. Chaparro; J. M. Imízcoz: *Los orígenes sociales...*; J. M. Imízcoz: *Las élites vascas y la Monarquía hispánica...* etab.

9 J.-Ph. Luisek gogoratazten digunez, garaian "el servicio al Estado […] se presenta como el motor más seguro de ascensión social" (*El proyecto social de los epígonos de la Ilustración en España*, in J. L. Castellano, J. P., Dedieu, M. V. López-Cordón Cortezo: *La pluma, la mitra y la espada. Estudios de Historia Institucional en la Edad Moderna*, Univ. de Burdeos, Marcial Pons, Madrid-Barcelona, 2000, 319-337, 325 or.). Eta J. M. Imízcoz eta A. Chaparro datozkigu, gero, eta zera baiesten dute: "Una de las cosas que más sorprenden, al observar las familias de los dirigentes y socios de la Bascongada desde una perspectiva abierta, de red social, es que no se trata de familias enclavadas en un marco regional, sino que, al contrario, su geografía específica es la de la Monarquía hispánica, en claro contraste con la mayoría de unas poblaciones que viven en los horizontes de sus comunidades locales tradicionales" (*Los orígenes sociales...*, zeh. 997 or.).

10 Egun harritu egiten gara ikustean zenbat familia on eta are nobleetako mutikok hautatzen zuen orduan armadan zerbitzatzea ("guardia marina" gisa, adib.: ik. I. Núñez: *El teniente general de la Real Armada Don José de Mazarredo Salazar y Gortazar, de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, Bilbao 1945, eta bertan [109-113 or.] erantsi "Relación de Guardias Marinas vascongados en la época de Mazarredo"). Nobleak edo jatorri burgesekoak izan, bertako leinu eta sendien ibilbide historikoan ugari dira, aitoren semeen artean, batik bat, euren karreraren abiapuntutzat lurreko edo itsas armadako zerbitzua hautatzen dutenak. Eta horrela, gutxi-asko, Aro Modernoan zehar. Elementu militarrak Bascongada Elkartean zehazki izandako presentziaz, ikus M. Gil Muñoz*: Cultura europea y milicia: los oficiales de la ilustración en la RSBAP*, in M. Gárate; G. Rubio de Urquía (koord.): *Actas [del] V Seminario de Historia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País: "La Bascongada y Europa",* S. Sebastián, 24-27 octubre 1996, Madrid 1999, 263-308 or.; Ead.: *Marinos ilustrados en la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País,* in "Revista de historia naval" 15, n. 57, 1997, 7-24 or.; Ead.: *Presencia militar en la Sociedad Bascongada de Amigos del País,* in BAP 51/1, 1995, 123-154 or.

11 Ik. J. M. Imízcoz; R. Guerrero: *A escala de Imperio: familias, carreras y empresas de las elites vascas y navarras en la Monarquía borbónica*, in J. M. Imízcoz (koord.): *Redes familiares y patronazgo: aproximación al entramado social del País Vasco y Navarra en el Antiguo Régimen (ss.* XV-XIX*)*, Bilbao: UPV, 2001, 175-202 or.; J. M. Imízcoz: Élites administrativas, redes cortesanas y captac*ión de recursos en la construcción social del Estado moderno*, in "Trocadero. Revista de Historia moderna, contemporánea, de América y del Arte", Univers. de Cádiz, 19, 2007, 11-30; Id.: *Las elites vascas y la Monarquía hispánica...* Imízcozek Baztango (batik bat) zenbait sendiren gorabeherak adibidetzat hartuz teoria bat eraiki du, bertako familiei borboien gobernuko elite burokratikoaren parte izatera ahalbidetuko lieketen urrats eta baliabideak argitze aldera. Egile berak beste lan batean nabarmen aditzera eman duenez, "Estatu burokratikoaren eraikuntzan bete-betean nahastu élite talde baten agerkuntzaren aurrean" aurkituko ginateke (sic in *Actores, redes, procesos: reflexiones para una historia más global*, in "Revista da Facultade de Letras, Historia", Universidade do Porto, III Série, v. 5 [Porto, 2004], 115-140, zeh. 124 or.).

12 Hori agerian utzi aldera, nahikoa da ikuskatzea herrialde ezberdinetako *hiztegi biografikoek* eskaintzen dituzten obrak (F. Arocenarena, adib., Gipuzkoari dagokionez: *Diccionario biográfico vasco. Vol. I, Guipúzcoa,* Edit. Auñamendi 1963). Ikus, halaber (baina Euskal Herri penintsularrari dagokionez, oraingoan), J. Garmendia: *Diccionario biográfico vasco: méritos, servicios y bienes de* los *vascos en el Archivo General de Indias*, in "Cuadernos de sección. Historia-geografía" 12, 1989, 9-332 or.; Id.: *Cádiz, los vascos y la carrera de Indias*, in "Cuadernos de sección. Historia-geografía" 13, 1990, 231 or.; Id.: *Dueños de navíos y pilotos vascos en la Carrera de Indias (1730-1776)*, in BAP 43, 1987, 313-344; Id.: *Documentos de la Congregación de los Vizcaínos en Sevilla (1781-1811)*, in BAP 38, 1/4, 1982, 157-204. Euskaldunek bizi izandako *hedapen kolonial* hori (eta, horri loturik, Bascongada Elkarteak gerora Amerikan bizi izango duen hedatze ustez *miresgarria...*) hobeto ulertzen da —era askoz errealistagoan, esan nahi baita, gai honetan sarri ohiko izan diren *topiko* eta iruditeria gutxi-asko *idealizatuei* iskin eginez, alegia— gertatutakoa orduko parametrotan eta orduko testuinguruan kokatzen bada (ik. J. Astigarraga: *La expansión de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País por América*, in *La Bascongada y América,* RSBAP, 1992, 91-104).

Miresgarririk, ezer gutxi! —esaten du B. de Aginagaldek—; eta, topikoen harira etorriz, halakotzat jotzen du Elkarteak milaka bazkide Amerika osoan barrena lortu izana "regeneración continental" bat eman izan balitz bezala interpretatzea; izan ere, ustezko lorpen *miresgarri* horren protagonistek —"adalides de una regeneración continental" direlako horiek, alegia— oso gutxi ekarri bide zioten Elkarteari, ez bada bazkide gisa onartuak izatearen truke ordaindu behar izaten zuten kuota; eta, ospetsu bihurtu *Errege* Elkartean, kolonietan aberastu leinu nobleko hainbat seme bazkidetu izanaren arrazoia argitze aldera, hauxe dio autoreak: "Haciendo socios beneméritos o supernumerarios a Virreyes, miembros de los Consejos y las Secretarías de Estado y del Despacho en los diferentes ramos de la administración, incorporando a poderosos e influyentes nobles a la categoría de miembros honorarios,y, *en el caso de las Colonias, a mecenas ávidos de 'figurar' en este tipo de organismos societarios,* la Sociedad crea redes de influencia que defenderán sus intereses. Y satisface, a un tiempo, una especie de 'snobismo' que le caracterizó siempre, a saber, el de incorporar a sus filas a la flor y nata de 'la sociedad' —en el sentido afrancesado del término— que cuenta en el momento. Una de las constantes del discurso que se expresa desde y sobre la propia Sociedad, en este sentido, es la de subrayar la importancia y relevancia política y social de una parte importante de sus socios [...]" (¿Por qué los archivos de la Bas*congada son complicados? Notas archivísticas a un Coloquio sobre la Amistad,* 2. 6 or. [*kurts. ner.]*), in http://www.academia.edu/11337110/_PORQU%C3%89_LOS_ARCHIVOS_DE_LA_BASCONGADA_SON_COMPLICADOS_Notas_archivisticas_a_un_Coloquio_sobre_la_Amistad. Nolanahi ere, kolonietako *finantza* gizonak erakarri ahal izateko, berauk "bazkide benemerito" izendatzeaz gain, eliteko jendeen ondokoentzat berariaz eratu hezkuntza eredu bat eskaintzen zien beraiei, trukean, Elkarteak Errege Mintegian ("un tipo de educación elitista para sus hijos en un establecimiento adecuado fundado al efecto [Real Seminario])" (*Ibid.,* 4 or.).

[13] Honen guztiaren harira, ikus J. M. Imízcoz; R. Guerrero: *Familias en la Monarquía. La política familiar de las élites vasco-navarras en el Imperio de los Borbones*, in J. M. Imízcoz (dir.): *Casa, familia y sociedad. País Vasco, España y América, siglos* XV-XIX*,* Bilbo: UPV, 2004, 177-238; J. M. Imízcoz: *Las redes sociales de las élites. Conceptos, fuentes y aplicaciones*, in E. Soria; J. J. Bravo; J. M. Delgado (ed.): *Las élites en la época moderna. La monarquía española. Nuevas perspectivas*, Serv. de publicaciones: Univ. de Córdoba, t. I, 2009, 77111; J. M. Imízcoz; A. Chaparro: *Los orígenes sociales...*; B. de Aginagalde: *o. c.*

[14] Zergatik ote da A. Chaparro Sainzen tesi lanean (*La formación de las élites ilustradas vascas: El Real Seminario de Vergara...*) ez dela, ezta behin bakarrik ere, *bascuence, euskara* eta hauen baliokidetzat jo daitekeen hitzik aurkitzen, nahiz eta Errege Mintegian 12/11/1767 eta 22/06/1776 bitartean aztertuak izan ziren seminaristen ikasgaien zerrenda jasotzen den bertan (ik. *Listado de los primeros alumnos de la Sociedad Bascongada y sus convocatorias a examen ordenadas por orden cronológico*, *o. c.,* 603-607 or.)? Eta hori, nahiz eta ikasle horien artean baden (Antonio M. de Munibe, Xabier M. de Eguia, Felix María de Munibe, Trino Antonio de Porcel Agirre bezala), Batzarren aitzineko euren ekimen akademikoetan euskara behin edo berriz erabili izanagatik —are, euskararen alderdi gramatikalak azterketa-gai izanagatik...— ezagun direnak (oroit, batik bat, Xabier Egia-koa, hamaika urterekin, 1771ko iraileko Batzarrean, Gasteizen, "los principios gramaticales y anatomía de las lenguas Castellana, Latina, Francesa, Inglesa y Bascongada" azterketa-gai horiek izan zituena, eta 1772ko iraileko Batzarrean, Bilbon, "la Gramática Latina y su conformidad y diferencias con la de las lenguas Bascongada, Francesa e Inglesa"; ikus beste xehetasun batzuk: X. Altzibar: *Euskara adiskideen batzarrean*, in *Symbolae Ludovico Michelena septuagenario oblatae, quas edidit José L. Melena*, Vitoria 1985, t. 2, 1119-1135, zeh. 1121 or., 45 oh.).

[15] Ikus aurrerago "Euskararen apologien moda" izenburuko atala (2.2.1).

[16] Are jauntxo eta handi-mandien artean, ba omen oraindik, XVIII. mendean barrena, eguneroko euskara ulertzeaz gain menpekoekin eta maizterrekin euskaraz hitz egiteko gauza zenik. Iparraldeari dagokionez, J.-B. Orpustanek Urtubie, Etchauz, Belzunce eta Luxe-ko jaunak aipatzen ditu —"pour ne citer que les plus notoires des trois provinces"— (*Sur la littérature…,* 231 or.). J. M. Agirre Montehermosoko markesak, aldiz, erdizka bide zekien euskaraz, eta Pedro Jacinto de Alavak *ulertzen* bide zuen —bata zein bestea, arabarrak eta Errege Elkartean oso goi mailako karguak izatera iritsi zirenak (ik. X. Altzibar: *Euskara adiskideen*..., zeh. 1121 or.). J. A. Mogelek Errege Elkarteaz L. Hervás-i idatziz (1799/08/25), zera diosku, besteak beste: "No habrá [en ella] dos miembros bien instruidos en su idioma. Se contentan con hablarle como han oído a sus padres […]" (in L. Hervás, *Cartas*, BNM, ms. 22996, 391. orria [A. Astorganok jasoa in *L. Hervás y Panduro*: *División primitiva del tiempo entre los bascongados usada aún por ellos. Transcripción, introducción y notas por – –. Apéndice II: Cartas de amigos vascos a Hervás, extraídas de la BNM, ms. 22996*] = aip. in A. Astorgano: *Hervás, apologista,* 74 oharrari dagokien testua).

17 Jarraian erantsitako pasartean, E. Múgica Enecotegui ari da, euskararen presentzia Elkartearen bizitzan hizpide; eta, X. Munibez mintzo, "no han aparecido cartas suyas en idioma vernáculo, incluido el epistolario con Isla" baietsi ostean, honela darrai: "Tampoco existen cartas en euskera entre las 1.083 del conde de Peñaflorida a P. J. de Álava que editó J. I. Tellechea Idígoras[a], ni las hay entre las 1.300 del Fondo Prestamero catalogado por M. C. Urdiain[b], con 123 contestaciones de P. J. Álava a X. M. de Munibe, 10 misivas de éste y 275 recibidas de otros 64 remitentes. P. J. Álava, gran colaborador del conde como explicó A. Risco en su lección de ingreso en la Bascongada[d], ocasionalmente le llama *nere Jauna* (señor mío), pese a que criticó su actitud dictatorial[e], y X. M. de Munibe le dice encontrarse ocupado con sus *cereguiñes* (ocupaciones). No aparece la lengua vasca en las 210 cartas del fondo de la Bascongada correspondiente al territorio de Älava[f], de las que 36 son del conde Peñaflorida y 18 remitidas a él personalmente, aparte otras dirigidas al Director de la Sociedad. Con el mismo resultado en el archivo de los condes de Peñaflorida, que investigaron F. B. Aguinagalde y G. Vives[g] y agrupa en 3.731 números 24 diferentes, separados en series como las correspondencias personales y las relacionadas con actividades públicas. O entre los 1.500 documentos que conponen el epistolario de M. J. Olaso[h], primer Secretario Perpetuo de la Bascongada" (*Desde las cartas de Peñaflorida a las escritas en vasco por un checo*, in J. M. URKIA ETXABE; A. RISCO [edit.]: *La carta como fuente y como texto: las correspondencias societarias en el siglo* XVIII*: la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País* (= *II Seminario Peñaflorida* [14-15 nov. de 2003, Toulouse]), RSBAP, 2005, 337-361, zeh. 346 or.). Pasarte horretan a), b), d) etab. hizkiez adierazitako oharrak honako autore eta agiri hauei dagozkie:

a) J. I. Tellechea Idígoras (ed.), La Ilustración vasca. Cartas de Xavier María de Munibe, conde de Peñaflorida, a Pedro Jacinto de Alava. Edición, introducción, notas e índices de ——, Vitoria 1987.
b) M. C. Urdiain, Epistolario del Fondo Prestamero, San Sebastián 1996.
d) A. Risco, Pedro Jacinto de Álava en Madrid (1774), Museo Zuloaga, Zumaia, 28 agosto 2003.
e) R. M. Agudo, "Cartas de Pedro Jacinto de Alava al conde de Peñaflorida. 1765-1784", in I Seminario de Historia de la RSBAP, San Sebastián 1985.
f) M. C. Urdiain, Catálogo del Fondo de la RSBAP. Archivo del Territorio Histórico de Álava, San Sebastián 1997.
g) F. B. Aguinagalde, G. Vives, El Archivo de los Condes de Peñaflorida, San Sebastián [1987].
h) G. Vives, "La Correspondencia de Miguel José de Olaso Zumalabe (1718-1773), primer secretario perpetuo de la Real Sociedad de los Amigos del País", in II Seminario de Historia de la RSBAP, San Sebastián, 1988.

18 X. M. Munibekoari Cádizetik idatziz (31/12/1771), "Ceurea secula vetico" amaitzen du gutuna Juan de Egino elkartekideak, zergalariorde (*vicerrecaudador*) gisa Bascongadaren aferez andaluziar hirian arduratzen zenak (ik. A. Sagarna: *Euskara* XVIII *mendean…,* 44 or., non Eginoren *gaztelerazko* eskutitz trukean aurkitzen diren euskarazko agurrak —"Verorrena Gustia", "Zure Adiskide aundiena", "Veti vezela zurea", "Nere Viotzetic Zure Adisquide Aundiena", "Veti vezela", "Guztia Verorrena veti vezela", "Secula vetico viotzetiz adisquidea", "Nere Viotzetic Zure Adisquide Aundiena", "Zeurea secula vetiko hilan"...— gertatzen baitira hizpide; Egino honetaz ikus, aurrerago, 108-112 oh. dagokien testua). —X. M. Munibek berak, bestalde, P. J. de Alava-ri idatziz (1779/07/12), Cádizetik iritsi zaion gutun bat du hizpide, eta bertan "Ichassoaren Jave dana, gauza gucien Jave dá" esapidea aurkitu izana aitortzen dio (ik. J. I. Tellechea [ed.]: *La Ilustración vasca…*, 496 or.). —D. Francisco Antonio de Oquendok bere iloba Joaquín Agirre de Oquendorekin izan zuen gutun-truke zabalean ere goiburuak eta diosalak euskarazkoak izaten ziren: "Nere Joachin", "Agur, zure zurea veti, Oquendo", nahiz eta testu osoa erdaraz egon (ik. F. Arocena: *La industria del hierro en Guipúzcoa a mediados del s.* XVIII*,* in *"*Yakintza" 18, 1935, 430 or. [aip. in A. Sagarna: *o. c.,* 45 or.]). —Azkenik, Santanderren tratulari gisa ari zen Azcarate lagunari idatziz (c. 1782-1783), Antonio de Tastet Donostian bizi zen baionarrak "Agur amigo" batez ematen zion amaiera gainerakoan erdaraz idatzitako gutun bati (f. 925) (bestelako argibide batzuk: A. de Tastet honen tratu ekimenez eta euskal munduarekiko ustez zituen harremanez, 30 ohar.). Edozein modutan, X. Altzibar-ek iradokitzen duenez, "gutunetan euskarazko hasiera edo bukaera-agurrek eta barneko paragrafo nahiz esaldi osoek etxeko hizkuntza konfidantzazko lokarri dela" adieraziko lukete, "eta agian, hizkuntza batetik bestera iragoteko ohitura"; bestalde, "ikurhitzak edo lemak ere euskaraz jartzeko" ohitura "gure hizkuntzarekiko onespen" baten seinale lirateke (sic, in *Euskara adiskideen...,* 1121 or.).

19 Adibide polita, Juan Lorenzo Benitua Yriarte abadeak utzi ziguna. *Maestro de Humanidades* behin-behineko Bergarako eskolan, hau 1776. urtean eratua izan zenean (ik. *Noticia de la Escuela Provinsional que la Real Sociedad Bascongada ha determinado establecer por acuerdo de su Junta general del día 20 de Setiembre de 1776,* 12 or.), eta gerora, 1781. urte arte, Bergarako Errege Seminarioan egiteko horretan aritua, euskarara jotzen zuen beranduago, Madrilen biziz eta Muniberekin gutun-trukean, gai *sentiberak* tratatu behar izaten zituenean —*provincias exentas* deitutakoen zerga-sistema berezia, adib., Madrileko saloietan, 1782. urte inguruan pil-pilean zebilena— ("[...] gure favorecoa degula —abisatzen dio halako batean Peñafloridari— gauza onetan Erregueren itza eramaten dabena"). Ikus [K.] Larrañaga [Elorza]: *Actitud del clero vasco frente a los empeños renovadores de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País,* in *La Real Sociedad Bascongada y la Ilustración* [= BRSVAP 25, 1969], 89-117, zehazki 103 or., eta bertan zehazten diren iturri-aipuetan. Beste hainbat adibide badira, eta hona, esaterako, A. Sagarnak eskaintzen duena: Don Ignacio de Agirrek, Cádizen bizi eta "Real Compañía Guipuzcoana de Caracas" enpresako liburuak Espainiatik Ameriketara bidaltzeaz arduratzen zenak, Peñaflorida kondeari idatziz eta aipatu Konpainiako zuzendaritzaren harira, sasoian ematen ari ziren ika-mikak hizpide, euskarara jotzen du pasarterik irristakorrenetan, indiskrezio edo ukalondo sartzerik eman ez zedin (*Euskara* XVIII *mendean…,* 44. or. [gutunaren testua, datarik eta bestelako zehastasunik gabe, 83 or.]). Beste adibide adierazgarria, Joseph Ignacio de Santo Domingo y Echeverría fraide dominikanoak eskaintzen digu: Valladolidetik 1783ko uztailaren 11n, X. Munibekoari idatziz, gaztelera eta euskara baliatzen ditu —hau, gai sentiberak ukitzen direnean—, eta, hori dela-eta, barkamena eskatzen, honako honetan hori justifikaturik balego bezala ["Señor, no lleve V. S. a mal mi disolución pues se que hablo Eusqueraz Euskaldunic aundienarequin"] (ik. [J. de Urquijo]: *Carta bilingüe al Conde de Peñaflorida*, in "RIEV" XVI, 1925, 4, 551 or.; A. Sagarna: *o. c.,* 45 eta 85 or.). Sagarnak dioenez (45 or.), adibideok arras garbi uzten dute kultura jasoko jendeak ez zuela egokitzat jotzen, euskaldun izanagatik, euskara gutunetan baliatzea, eta kasu berezietan soilik baliatzen zutela ama hizkuntza.

20 Ikus, hauei dagokienean ere, goraxeago aipatu ditugun F. Arocenaren eta J. Garmendia Arruebarrenaren lanak, eta hauen antzeko beste zenbait.

21 Ikus, besteak beste, A. Sagarna: *Euskara* XVIII. *mendean…,* 30-38 or., eta bertan ikusgai diren mapak eta erreferentziak. Arabari buruz, bereziki, J. M. Barandiaran Ayerbe: *El euskera en Alava a fines del siglo* XVIII*,* in RIEV 17, 1926, 464-467. Nafarroari buruz, A. Apat-Echebarne (= A. Irigaray): *Mapa diacrónico del euskera en Navarra*, Pamplona 1974, 47-75 or.; J. M. Jimeno Jurío: *Navarra. Historia del euskera,* Tafalla 1997, 160-78 or.; Id.: *Navarra, Gipuzkoa y el Euskera. Siglo* XVIII, Pamplona: Pamiela, 1999, 78-106 or. (Nafarroaren kasua), eta 114-138 or. (Gipuzkoarena).

22 Aipatzekoa, bereziki, 1768ko ekainaren 23an Karlos 3.ak izenpeturiko Errege Agiria, gaztelera Lehen Letretako eta Latinitate eta Erretorikako eskoletan erabili beharreko ele bakartzat aitortzen zuena (ik. *Colección de pragmáticas, cedulas, provisiones, autos acordados y otras providencias generales expedidas por el Consejo Real en el reynado del Señor D. Carlos III: cuya observancia corresponde a los tribunales y jueces ordinarios del reyno, y a todos los vasallos en general*. Por D. Santos Sánchez, Oficial de la Escribanía de Cámara y Gobierno del mismo Consejo, 3. ed., Madril 1803, 112-4 or.); ikus, halaber, 1780/1781 urteetako Nafarroako Gorteek hartutako erabakia, derrigorrezkoa eginez 5-12 urte bitarteko neska eta mutikoentzat gazteleraz jaso beharreko Lehen Letretako hezkuntza (*Quaderno de las leyes y agravios reparados a suplicación de los tres estados de el Reyno de Navarra, en sus Cortes Generales celebradas en la ciudad de Pamplona los años 1780 y 81, por la Magestad del Señor Rey D. Carlos VI de Navarra y III de Castilla..., de orden de la Ilustrísima Diputación del Reyno de Navarra*, Pamplona: Miguel de Cosculluela, 1798 (jasoa in *Cuadernos de las Leyes y Agravios reparados por los Tres Estados del Reino de Navarra*, vol. I, Pamplona: Aranzadi, 1964 [hemen transkribatu zatiak, 625-627 or.]). Dekretu horien harira-edo, ugaldu egiten dira sasoian gazteleraz —euskara, noski, zeharo baztertuz…— eman beharreko lehen hezkuntza hizpide duten udal agiriak (ikus zenbait adibide in J. I. Lasa et alii: *Sobre la enseñanza primaria en el país Vasco*, Auñamendi, San Sebastián, 1968).

[23] Ikus, adibidez, gaztelaniaz beste hizkuntzetan liburuak argitara ematea debekatzen zuen Nafarroako Errege Kontseiluaren agindua —Aranda kondeak oniritzirik, noski—, "[por] el reparo político de no convenir hacer impresiones en otra lengua que la castellana, inteligible a toda la Nación", hain justu (*Auto acordado del Consejo para su cumplimiento y notificaciones a los Impresores*: AGN: Archivo Secreto del Real Consejo, Libro V, t. 24, F. I); edo 1768ko ekainaren 23an Karlos 3.ak izenpetutako Errege Agiria, gaztelera erreinuko Entzutegi eta Auzitegi zibiletan erabili beharreko hizkera bakartzat aitortzen zuena, elizbarrutietako auzitegietarako ere antzeko neurri baten komenentzia bide batez begietsiz… (*Colección de pragmáticas, cedulas, provisiones, autos acordados, y otras providencias generales expedidas por el Consejo Real en el reynado del Señor D. Carlos III: cuya observancia corresponde a los tribunales y jueces ordinarios del reyno, y a todos los vasallos en general*. Por Don Santos Sánchez, Oficial de la Escribanía de Cámara y Gobierno del mismo Consejo, 3. ed., Madril 1803, 112-114 or.); edota kontabilitate liburuak gaztelera eraman beharraz ziharduen 1772ko abenduaren 24ko dekretua (*Los códigos españoles concordados y anotados. Tomo* IX. *Novísima recopilación de las leyes de España. Tomo III, que contiene los libros octavo, noveno, décimo y undécimo*, Madrid 1850, 189 or.).

[24] Garbi ikusi zuen hori J. Ch. Adelungek, 1806an hiltzear, *Mithridates* tituluko bere obraren 2. liburukirako prestatua utzi zuen euskarari buruzko atalburuan, hau idatzita utzi zuenean: "Indessen wird sie [euskara, alegia] überall nur noch auf dem Lande und in den niedern Klassen gesprochen, denn in den obern Klassen und in den Städten herrscht entweder Spanisch oder Französisch" (*Mithridates oder allgemeine Sprachenkunde mit dem* Vater Unser *als Sprachprobe in bey nahe fünfhundert Sprachen und Mundarten,* Erster Theil, Berlin 1806, 11-12 or.).

[25] "[…] Solos los vizcaínos conservan hasta hoy su lenguaje grosero y bárbaro, y que no recibe elegancia, y es muy diferente de los demás y el más antiguo de España […]" (*Historia general de España,* L. I, Cap. 5 [in BAE: *Obras del Padre Juan de Mariana. Colección dispuesta y revisada, con un discurso preliminar, por D. F. P. y M.,* t. I, Madrid: M. Rivadeneyra, 1864, 6 or.]). Estereotipoak tinko jarraituko du ematen hurrengo mendetan: ikus zer zioen, adibidez, XIX. mendea hasi berritan, *Cura de Montuenga* ezizena baliatzen zuen J. A. Condek Erroren liburu baten harira eginiko kritika ezin zorrotzagoan, euskara —"la ridícula corneja del vascuence", ipuin zaharreko irudiaz baliatzearren— kultura gabeko herri basati baten eletzat gutxietsiz —*guirigay, lengua bárbara*, *ruda, mezquina y pobre como capa de astroso, incapaz de elegancia* izango dira, besteak beste, luzatuko dizkion losintxak— (*Censura crítica del alfabeto primitivo de España y pretendidos monumentos literarios del vascuence. Por D. J. A. C., cura de Montuenga*, Madrid: Imprenta Real, 1806, 70 or., zeh. 25 eta 45 or.).

[26] Gaztelako goi-mailako hainbat idazlek esandakoak argudiatuz (euskara, alegia, "Algarabia, Gregueria, Guirigai, edo naspilla madaricatua" zela...), beren egitekoa betetzeari uko egiten zioten apaizak salatzen ditu A. Kardaberazek (*Ondo iltcen icasteco eta ondo iltcen laguntceco egercicioac: ondo ill nai dutenai, eta ondo iltcen lagundu nai duten Jaincoaren ministroai, Jesusen Compañiaco aita Agustin Cardaberaz-ec esquentcen dieztenac*, 2. ediz., Iruñean: Libruguille [sic] Antonio Castilla-ren Echean, 1765, 110 or., zehazki, orrialdeketarik gabeko "Sarrera"n).

[27] Edonon bezala, euskal jarduneko herritan, auzitegien lana errazte aldera, gazteleraz *receptores* (argibide- edo txosten-hartzaileak) deituriko ofizialak ibli ohi ziren auzoz auzo eta herriz herri lekukoen adierazpenak eta bestelako argibideak jasoz. Ofizialok izan zitezkeen *eliz ofizialak* —eliz auzitegietarako lan egiten zutenean, alegia—, edo *zibilak* —auzitegi publikoetarako egiteko berean ziharduten—. Kontua da ika-mika sutsuak harrotu zirela Iruñeko elizbarrutian, XVIII. mendearen 2. erdiaren abian, *receptores* hauei exijitu beharreko hizkuntz trebakuntza zela-eta (ikus J. M. Jimeno: *Navarra, Gipuzkoa y el Euskera. Siglo* XVIII, Pamplona 1999, bereziki, 63-147 or.). Liskar horien kariaz azaleratutako ikuspegien artean, bazen auzia sasoiko ilustratuen ikuspegitik begiztatzen zuenik, borboien ikuspuntu politikoetatik hurbil, nolanahi ere (ik., adib., Fermin de Villava idazkariaren 1769ko txostena, Etxauriko eliz benefizio bat argibide-hartzaile *romanzado* baten esku uztea hobesten zuena, zera argudiatuz, beste arrazoi batzuen artean, Errege Agindu batek euskarazko inprimakiak argitaratzea debekatzen zuela, hain zuzen [ADP, Caja 337, n. 3, 19v-20r-v ff.; J. M. Jimeno: *Navarra,* Gipuzkoa…, 196 or.]). Ulergaitzago gerta daiteke, edonola ere, apaizak euren ama-hizkuntza, euskara, gorrotatzera iristea, halakorik ere ematen baitzen, J. A. Mogelek aitortzen duenez: "Arren sekula iaio ezpalitz euskerea: urrinduta balego lurraren azken, inor elduten eztaneraiño: plageak

baleroa onelango berbeeta ikasten gatxa", halakoak esaka aurkezten zaigu apaiz bat *Peru Abarca*ri *Autua* goiburuarekin ezarri azken eranskinean (*Peru Abarka.* Edición bilingüe realizada por R. M.ª de Azkue, 2. ediz., Bilbo: Edit. La Gran Enciclopedia Vasca, 1970 ["Autua. Frai Pedro de Urlia ta Don Juan de Sandia elizgizon adiskide biren artean", 139-157 or., zeh. 157 or.]). Eta, Mogelen ustez, "nagitasun, alpereria ta ardurarik eza" baino ez zen "Bizkaiko jaun, abade ta nik legezko soiñokoa darabillen" asko era horretan jokatzera bultzatzen zuena; izan ere, "bazterrik bazter, erririk erri, Bizkaiko uri ta elizaterik geienak irago" ostean eta abade ugari ezagutu, berak aitor dezake "gitxi gitxi batzuk baino" ez direla bertan *euskera-zale* gisa jo daitezkeenak (*Ibid*.).

[28] Bertako abade askoren gaztelaniarako joera argitze aldera, kontuan izan behar da euretako askok eta askok, euskal elebakarrak ziurrenik jatorriz, euren txikitako euskara lardaskaturik eta ia galdua ikusi ohi zutela sarri, hamar bat urteko ume gordinak artean, euren jaioterritik erauziak eta, eliz ikasketak burutu bitartean, luzaroan kanpoko apaizgaitegi edo fraide-ikastetxetan bizi behar izaten zutenean. Izan ere, ez da ahaztu behar euren maisu eta ikaskideekiko eguneroko tratuan erromantzez aritu behar izaten zutela artean, eta latinitate-ikasketak, noski, erromantzez eta latinez burutu behar izaten zituztela, eta Filosofia eta Teologiakoak latinez. Gauzak horrela, neketsu eta zaila egiten zitzaien, ikasketak amaitu ostean, euren jaioterrian edo beronen hurbilean *bikario, erretore* edo antzeko beste eliz *benefizio* bat lortzen zutenei behinolako euskara mailari eustea, eta are eta zailago eta neketsuago inoiz landugabeko (baina eliz liturgiaren duintasunak, eta pulpitutik edo aldaretik gauzatu hitzaren ministeritzarekiko begiruneak ezinbestez eskatzen zien…) balizko euskal *erretorika* baten eiteak bereganatzea, xede hori lortze aldera eskura zituzten baliabideak —euskalkien zatiketak izugarri zailtzen zuenean ongi errotu tradizio baten eraketa…— hain urriak izaki. Ikus honi guztiari buruz J. M. Jimeno: *Navarra. Historia del euskera…*, 189-192 or.; Id.: *Navarra, Gipuzkoa…*, 155-158 or.

[29] Osasun alorreko jendeei dagokienean, ikus J. M. Jimeno: *Navarra. Historia del euskera…*, 192 or.; Id.: *Navarra, Gipuzkoa…*, 158 or. (bertan, eta besteren artean, Don Ramón Muzquiz abartzuzarraren kasua da mintzagai, euskaraz egoki moldatzeko gauza ez izanda ere, Ollaran, Goñibar eta Deierrin, hurrenez hurren, hainbat urtez mediku gisa aritu izana XVIII. mendearen azken laurdenean [AGN: Protocolos Asiáin, Cart. 163]).

[30] Tratulariei dagokienez, Antonio de Tastet, Donostiako tratuan errotu baionarra, datorkigu burura kasu prototipiko bezala. Cádiz, Bartzelona, Málaga, Genoa, Filadelfia, Dublin edota Marsellarekin, besteren artean, zituen harremanak Antonio honek, eta, S. Telmo Museoan gordetzen den sasoiko bere *Copiador de oficios* batean ikus daitekeenez, gazteleraz, frantsesez eta, noizbehinka, ingelesez ere idazten zituen bere tratu gutunak; euskarazkorik, ordea, ez da bat bera ere aurkitzen han bildutako milatik gorako kopietan (Tastet-en tratu ekimenez, ik. M. Gárate: *Tabaco: la libertad comercial de las Provincias exentas frente al monopolio de la Renta. Dos sistemas fiscales complementarios en el s.* XVIII, UPV/EHU [provis.] [=http://www.usc.es/estaticos/congresos/histec05/b2_garate_ojanguren.pdf], zeh. 21 eta 23 or.; item, M. Gárate eta A. Aragónek emandako hitzaldi bati dagokionean [=*Comercio y relaciones comerciales de San Sebastián en el siglo* XVIII], duela gutxi, hedabideetan eskaini izan diren laburbilduak [http://irutxulo.hitza.info/2012/11/19/san-telmo-museoa-antonio-tastet-merkatari-baionarrarenarrasto aren-atzetik/.]). Nolanahi ere, Tastet-ek euskalduna behar zuen, Aragón irakasleak susmatzen duenez; areago, euskaraz baliatzen bide zen, *abantaila* edo laguntza gisa, bere tratu-sarea finkatze aldera, munduko hainbat portutan euskal kolonia txikiak ekinean ikusten ziren sasoi hartan, hain zuzen. Eta susmo horiek mamitze aldera, gaztelerazko gutun batean galdurik agertzen den "Agur amigo" batez harago (honela, Santander-en tratulari gisa ziharduen Th. de Azcarate *lagunari* idatziriko agiri batean [f. 925]), esan dezakegu D. Antonio hau bi aldiz agertzen dela gutxienez orduko bertso paperetan (bata, *Don Antonioc bidaldu galaia* goiburukoan, eta, bestea, *Aldean degu eguna* hasten denean; ikus Baionako Euskal Museoa [Musée Basque de Bayonne], MS. 97, 4e cahier *[Quelques vers anciens et nouveaux]*, fol. 22-24v = P. Urkizu: *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma [1798]*, Durango 1987, 163-67), eta xehetasun honek egiantz handiagoa ematen diola Aragón irakasleak iradokitako susmoari. Baina 1796. urte aldera datatutako bertso sorta hauetan sumatzen da besterik ere: bere tratu-agiriak, sistematikoki, *erdaraz* idaztarazten dituen D. Antonio euskaldun ustezko hori itzal edo ospe handiko gizaseme gisa ageri da ingurunean *euskaraz* mintzatzen den jendearen aurrean, lehendabizi; eta, bi, bertso sorta horietan islatu euskal gizartea, eguneroko bizitzak beharturik, inguruko hizkera nagusien eragina gogor pairatzen ari den gizatalde batena dateke —ez mailegaturiko hitzen alorrean soilik (*primoroso, declaratu,*

cuidado, encomendatu, cariño, llegada, tonel, pañuelo…); baita, noiz edo noiz, umore ukituz agian, ezartzen diren esapideetan ere ("Quez eso, mi querida muchacha…", "No importa, tio ondrado…", "Adios, Pepe, mi amigo / anciano y nuevo, / como pasa uste mi querido / siempre largo y gordito…", etab.).

31 Ikus lehen oharrean jasota dagoen bibliografia.

32 J. M. Jimeno: *Navarra. Historia del euskera,* 188 or.

33 Agian, ez ziren hainbeste izan gasteiztarraren mutur-muturreko jarrerei men egin zietenak. Ez ahaztu, Forondak arazoak izan zituela Elkartearekin (ik. Koldo Larrañaga Elorza: s. v. *Foronda y González de Echavarri, Valentín de*, in *Auñamendi Entzikopedia* [t. XIII, 1982, 584-588 or.] = bertsio digitalizatua in http://www.euskomedia.org/aunamendi/65977/37823), eta, Bergaran biziz eta zenbait elkartekiderekin harreman estu samarrak izaten jarraitu arren, utzi egin ziola 1784. urtean bazkide izateari (uste denez, Vicente Maria Santibañez kidearen presioei men eginez, Elkarteak atzera egin zuelako, Forondak paratu "Compendio Histórico Cronológico de Historia Moderna" testua argitara emateko behinola agertu asmoan (ik. M. del Carmen Sánchez García: *Valentín de Foronda y el pensamiennto francés: su traducción de la "Lógica" de Condillac*, in M. M. Gárate Ojanguren; G. Rubio de Urquía [coord.]: *Actas [del] V Seminario de Historia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País: "La Bascongada y Europa"*, Donostia-San Sebastián, 24-27 octubre 1996, Madrid 1999, 169-194, zehazkiago, 173-176 or.]). Baina begira zein *ekumeniko* eta *liberal* agertzen zen gure ilustratu gasteiztarra 1789. urtean izenpetutako idazki batean:
"En quanto á la uniformidad de idiomas no aconsejaré á Vmd. que mande no se hable sino uno; pero lo conseguirá, aunque con alguna lentitud, providenciando que se extiendan en la lengua de la Corte todas las escrituras públicas; que no permitan los maestros de escuela á los muchachos que hablen otra, y encargando á las Sociedades económicas que procuren difundirla. / Los fanáticos de la antigüedad […] calificarán mi proposicion de blasfema: así será; pero cada uno ve con sus ojos. Yo estimo las cosas en razon de su utilidad,y no descubro ninguna importante para la felicidad del género humano en la variedad de lenguas; antes bien, sin tener que recurrir á los libros sagrados para probar, que lejos de ser esta diversidad un regalo del cielo, fue un castigo, me parece que resultan muchísimos perjuicios de la multiplicacion de idiomas; pues siendo su objeto comunicar nuestros pensamientos á los demas hombres, quantas mas sean las lenguas, tanto mas se multiplicarán las dificultades de entendernos. ¡De quántas luces, de quántos conocimientos no nos privamos por falta de entender los libros griegos, latinos, ingleses y franceses! ¡Qué obstáculos no encuentran los comerciantes para sus giros! ¡Qué molesto no es para los viajantes el no poderse dar á entender!....Ya veo que son inevitables en la actualidad todas estas penalidades, y que aspirar á que se adopte en toda la Europa una sola lengua seria una pretension tan quimérica, como la paz perpetua del humano entusiasta el Abate de San Pedro […]; pero no militando las mismas dificultades, en lo que concierne á los diferentes idiomas que se usan dentro de un mismo Reyno, y siendo tan ventajoso á las Provincias limítrofes explicarse con una misma lengua para facilitar entre sí la comunicacion, y vigorizar el comercio y la industria, será muy conveniente que ponga Vmd. todos los medios que pueden favorecer su verificacion. / Este es mi parecer: quizas me equivocaré, pues en los problemas que no se pueden ensayar en la piedra de toque compuesta de la propiedad, libertad y seguridad; esto es, en aquellas tres basas sagradas, sobre las que descansa mi edificio político, no me atrevo á decidir rotundamente por el temor de abrazar un fantasma en lugar de una realidad" (V. de Foronda: *Cartas sobre los asuntos más exquisitos de la Economía política y sobre las leyes criminales,* II, 2. ediz., Madrid 1794, 15-8 or.). Ziur ez zuela zentzu gehiegirik Foronda *ilustratu*arentzat euskararen geroaz arduratzeak; hain zuzen ere, "esta dulce y enérgica lengua —diosku— carece de quasi todos los términos de las Ciencias y de las Artes; prueba segura de que la Filosofía jamás ha habitado en estas Montañas, y de que el espíritu humano se ha mantenido en todos los siglos anteriores en la inercia, e ignorancia más grosera" (Id.: *Cartas escritas por Mr. de Fer,* Bordele, 1783, 58 h or.). Eta, geroago, Nafarroako mendialdea eta bertan bizi zirenen bizimodu eta hizkera hizpide zituela: "El vestido aseado, el alimento frugal, el idioma un bascuence adulterado, el corazón noble, las costumbres sencillas, los modales ásperos, las ideas tan limitadas como su orizonte; es lo que se observa entre los Montañeses" (*Ibid.,* 81. or.).

34 Lehenik ere hizpide izan dugu inoiz afera hau (ik. K. Larrañaga: *Las manifestaciones del hecho...*, 88-90. or.; Id.: *Euskal egitate...*, 69-72. or.), eta aipaturiko lanetan aurkitu ahal izango da horri buruzko zenbait erreferentzia funtsezko. Jakina denez, Elkartea sortu berritan eman zen aditzera Adiskideen artean *Historia nazionala* deituriko proiektua onik ateratzeko gogoa, eta ugari samarrak dira *Historia* horren harira jaso izan diren testigantzak (orduko gutun-trukean edota Elkartearen *Extractos* sortako tomoetan sakabanaturiko aipu solteez gain, Arabako Artxibategi Probintzialeko [AAP] *Fondo Prestamero* [FP] delakoan bereziki gorde izan den proiektuarekin lotutako zenbait agiri, zeinetarik hiru hauek batik bat: *Idea general de la Nación Bascongada y señaladamente de la Provincia de Guipúzcoa para la primera instrucción de los Jóvenes Alumnos de la Sociedad Vascongada de los Amigos del País*; *Historia general del País Bascongado comprehendido en sus tres Provincias, el Señorío de Bizcaia, Guipuzcoa y Alaba* [lau tomotan eratua behar zuena…]; eta *Plan del Discurso previo a la Historia Nacional de las tres Provincias Bascongadas dividido en tres partes, y un Apéndice o Suplemento,* etab.). Esan behar da, edonola ere, aipatu proiektu historiografikoei buruzko berriak Elkartearen lehen urteetara biltzen direla batez ere, edota Mintegiaren egitasmoa umotu zeneko urteen ingurura; gerora nabarmenki urritzen dira —elkartekideek, agian, beste aferez ere arduratu behar izan zutelako, edota, egiantz handiagoko dirudiena, egitasmo historiografikoa bera nahikoa zaila suertatzen zelako; izan ere, honek zera suposatzen baitzuen, azken batean, herrialde historiko bakoitzaren iraganaldi bakarti eta berekoian ibilbide eta destino amankomun baten frogak aurkitzea, alegia, edo-eta mende luzeetako *alienazio probintzianoak* modu nahiko ezberdinean ikusarazten zituen ekintza berberak, *nazio* ikuspuntu beretik irakurtzeko gauza izatea—. Eta bada beste arrazoi bat, I. Olabarri Gortazarek (ik. *Proyectos historiográficos de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, in *I Seminario de historia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País: ponencias y comunicaciones: días 7, 8 y 9 de octubre de 1985*, S. Sebastián: RSBAP, 1986, 459-470, zeh. 466-469 or.) aditzera eman izan duena, hots: kritika historikoaren arazoekiko egunez egun sentiberago azaltzen ziren talde *ilustratuen* artean, Bascongadarenak bezalako proiektu historiografiko batek aurki zitzakeen eragozpen gero eta handiagoak, alegia, kontuan izaki egitasmo hori bat zetorrela funtsean Barroko aldian euskal foru berezitasunen aldarria funtsatu zeneko iruditeria mitiko-legendarioaren munduarekin (Tubalen dogma, hasierako monoteismoa, kantabrismoa…), baina gero eta irensgaitzago gertatzen zitzaiola *Aufklärung* edo Ilustrazioaren ikusmoldeetara ohitu jende ikasiari. Ezin da, azkenik, ahaztu, *Errege* Mintegiak Monarkiako probintzia eta kolonia guztietatik etorritako ikasleei ateak pare-parean ireki zizkienetik, ezegoki eta are zentzugabea gertatzen zela erabat bertako irakas-egitarauan "Historia Nacional Bascongada" goiburuko ikasgai bat ezartzea.

35 Bada Guardiakoaren euskara-zaletasuna dudatan jartzeko susmorik, eta horietako batzuk jaso izan dira jada gure bilduman. 1786. urtean, adib., bere lagun Benito María de Ansotegiri, Bilbotik idatziz, txantxak egiten ditu sasoiko Markinaren edo Mogel eta Astarloa gisako gizasemeei makurtu mundu baserritarraren kontura: "¿No teme usted que si algún día vengo a caer de ese cascarón de nuez, que llaman Marquina, cuyos habitantes, *paucis exceptis*, creen que no hay más mundo que el exiguo terreno que rodean sus montañas, mundo dirigido por Astarloas y Mogueles, me tengan, al saber que soy poeta, por algún nigromante caído de la región de las brujas, y los chicos me reciban a pedradas y los curas con el hisopo? […] Al bendito don Pablo Pedro [Astarloa] dígale usted que para una obra que pienso escribir de antigüedades antediluvianas, me diga, puesto que él debe saberlo, cómo se llamaban en el Paraíso terrenal los escribanos, sastres y zapateros […]" (Legardako markesaren Artxibategia [Errioxako Ávalos], E. Fernández de Navarretek argitaratua: *Obras inéditas ó poco conocidas del insigne fabulista Don Félix Maria de Samaniego, precedidas de una biografia del autor,* Vitoria 1866, 297-299 or.). Badu, agian, interesik, F. Samaniegok Markinari buruz esandakoek, V. Forondak euskal beste zenbait aran lanbrotsu eta zeruertz laburretakoez idatzitakoekin duten antza azpimarratzeak. Baina esan behar da, bestalde, ez zirela motz geratzen, Guardiakoa mintzagai, Markina aldetik hitz egiten zutenak —Bixenta Mogel, adibidez—. Begira zer zioen "Adigarria" izeneko eranskin batean, *Ipui onak* bere liburua argitaratu zuenean (Bilbo, 1804): "[…] Gure Euskara ez dala egiña lauki, edo zortziko batzuetarako bazik, esango dute ez gutxik. Jasoko dituzte Erdarak zeruraño, azpiratzeko Itzkera etxekoa. Samaniego, ta Renteria Jaunak ots egiten dute, ipuiak berso, edo itz neurtuetan, ta Gaztelarren itzkuntzan argira emanaz. Nork, diote gero, euskarara ezarri, ta anbeste berso gisatan, ipuiak? Aitu diot zerbait dakianari, Samaniego ta Renteria[k] jakin izan balute Erdera bezein ondo gure Euskera, gatz oraindikan obea idukiko zutela beren ipui-bersodunak. […] Ez da gaitza igartea, zertan dagoan gure Poesia, edo bersogintzen laburtasuna. Dago bada bururik nekatu ez dalako; oitu ez diralako Euskaldunak zortziko, ta laukoetara baizik. Ai baleude aitatu ditudan bezelako jakitunak, Samaniego ta Renteria Euskaldun euskarara eman batzuek! Beste egunik ekusiko luke gure Poesiak, edo bersogintzak". Deigarria egiten da, azkenik, Sa-

maniegoren gutun-truke argitaratuan euskararen inolako zantzurik (ezta "agur" bat bera ere…) ez aurkitzea, ezta senide euskaldunekin (X. M. Muniberekin, adib.) aritzen denean ere. Eta hori deigarriagoa egiten da, jakinik, poetak egonaldi luzeak egiten zituela Guardian eta Bilbon ez ezik, euskaraz baino egiten ez zuten Markina, Azkoitia, Bergara edo Tolosa bezalako hiribilduetan, non ezinbestean izan beharko zukeen tratua euskaraz baino ez zekitenekin. Baina, adierazi bezala, euskararen usaia darion munduarekiko erakusten duen *asepsia* hori erabatekoa da, noizbehinka ageri diren *Fraiscachu*, *Antoncho* edo *Martincho* gisako diminutiboak alde batera utziz. Eta, halere, gure Félix Tolosako alkate izan zen 1775. urtean! (ik. J. Garmendia Larrañaga: *Samaniego, alcalde de Tolosa*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2007, 1-35, zeh. 9-35 or.). Guztiarekin ere, ordea, gure Guardiakoa, 'bizcaino' kutsua, ustez, zerielako barregarritzat jotako herrikideen alde atera zen behin edo berriz espainiar prentsan, hala nola, Tomas de Iriarterekin izandako ika-miketan (gai honetaz, ik. E. Palacios Fernández: *Cartas en el proceso inquisitorial por el folleto «Carta Apologética al Sr. Masson»* [A. H. N. Inquisición, leg. 4464, nº. 4.], in Id.: *Vida y obra de Samaniego,* Vitoria 1975 = Alicante: Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes, 2003 [eskur. in http://www.cervantesvirtual.com/obra-visor/vida-y-obra-de-samaniego-0/html/ffc48bc2-82b1-11df-acc7-002185ce6064_55.html]). Ika-miken harira idatzitakio bertsoen artean, honakoak zetozen: "[…] Parece que has intentado / persuadir que no se meta / a ensayarse de poeta / en su idioma un vascongado: / ¡oh, lenguaje desdichado!, / que ha perdido tal padrino, / ya será gran desatino / presumir que para ser / buen poeta es menester / dejar de hablar vizcaíno […]".

36 "Batzar Orokorren bitartez, Bizkaia gobernatu zuen handiki-joerako zaldun edo maiorazkoen taldekoa" zen, J. Agirreazkuenagaren hitzetan (ik. *Contribucion al pensamiento político de José Agustín Ibáñez de la Rentería [1751-1826]*, in RIEV 42, XXXIX/2, 1994, 405-431, 410 or.), Bilbon jaio, baina haurra zela, Lekeitiora bizitzera joandako J. A. Ibáñez de la Rentería hau (bere jatorriaren eta bizitzaren gorabeherez, ik. C. Ribechini: *La ilustración en Vizcaya. 'El Lequeitiano' Ibáñez de la Renteria,* Donostia, 1993). Bascongada Elkarteak ospaturiko batzarren kariaz aurkeztu zituen hitzaldietan (*Discursos que Don Joseph Agustin Ibañez de la Rentería presentó á la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País en sus Juntas generales de los años de 1780, 81 y 83,* Madrid, 1790), garbi gelditzen da ezagun zituela hainbat gaitan V. de Foronda liberalaren antzera pentsatzera eraman zuten Ilustrazioko autore handiak —Montesquieu eta Rousseau, adib.—, baina, betiere, nolabaiteko *tentua* mantentzera jotzen zuela, ohiko gizarte- eta gobernu-egiturak aldatzeaz hitz egiten zen bakoitzean. Jose Agustinen hitzak pixka bat berantak badira ere (1820. urtea hasi berritakoak): "No le disputaré si es útil que todas las provincias de un Imperio sean (*iguales* ? [irakurtezina]) de legislación asi como en *el régimen, lenguaje, pesos, medidas, moneda, y lo que en ello podría ganar la facilidad de administración*, y la unión de ellas unas con otras; pero ¿qué ley, qué estatuto político ni disposición del derecho público hay que la mande, que la haga necesaria y obligatoria, y que disponga que las que han recaído por sucesión en la persona de un Príncipe que posee otros dominios se sujeten precisamente sin su consentimiento a las Leyes y régimen de ellos? […]" (*Observaciones sobre el informe dado al Rey por la Junta de reforma de abusos de Real hacienda de las Provincias Bascongadas que de orden de la Diputación de este Muy Noble y Muy Leal Señorío de Vizcaya me remitió al efecto hacerlas su Secretario perpetuo de gobierno a 22 de Enero de este presente año*, in Archivo de la Casa de Juntas de Gernika. Archivo bajo, Contrabando. Reg. 2, leg. 2 = J. Agirreazkuenaga: *o. c.,* 422 or. [*kurtsibak,* neuk jarritakoak]). Ikastetxe eta eskoletan erabili beharreko hizkuntzari dagokionez, J. A. Ibañezek ez du duda izpirik: latina baztertu eta ele *nazionala* baliatu behar da: "[…] paso á lastimarme —idazten du, bere 2. hitzaldian— del errado método de explicar los rudimentos del lenguaje, necesarios para saber el propio con la perfeccion que se requiere, y hacer una conveniente aplicación de estas reglas generales á los idiómas extraños, antiguos ó modernos que nos convengan. Es doloroso que estos rudimentos se aprendan en otra lengua que la nacional, la mas clara para nosotros". (*Sobre la educación de la juventud en punto a estudios,* in *Discursos que Don Joseph Agustin Ibáñez…,*55 or.). Ez pentsa, ordea, bizkaitarrarentzat hizkuntza *nazional* hori bere haurtzaroko Lekeition hitz egiten zen (eta berak ere, bertako alkate izan zenez gero, gutxi-asko inoiz erabiliko zukeen…) euskara zenik. 1790. urtean argitara emandako *Discursos*en eskaintza egiterakoan, gure *ilustratua* oso goiz alargundu zen bere amaz oroitzen da, eta honek bera eta bere beste bi anaiak ahalik eta hoberen hezteko egin zuen ahalegin handiaz, harik eta hirurak profesionalki ongi bideratuak ikusi zituen arte. Baina oso garbi ikusten da, anaiek, aita zenari jarraiki, hautaturiko lanbideetan, zein zen euren erreferentziazko helmuga hizkuntza hautuari dagokionez: *Capitan de Fragata* eta *Oficial de la Secretaría de Estado y del Despacho Universal de Marina*, bata; Oñatiko eta Valladolideko unibertsitateetan ikasi, eta Osma eta Santo Domingo de la Calzadako kabildoetarako oposizioak egin ostean, bere aberriko kabildokide suertatua, bestea ("se halla incorporado en el Cabildo de su Patria"…): biak ala biak borboien monarkiaren gerizpean burutu ibilbide arrakastatsuen isla (*Discursos que Don Joseph Agustin…,* eskaintza [zenbakitu gabeko 4 or.]:

"A la Señora doña María Josepha de Ordeñana, Patrona de las Ante-Iglesias de Galdacano, y Mallavia"). Erantsi behar da hemen, bestalde, Félix Samaniegoren (ik. E. Palacios Fernández: *Vida y obra de Samaniego,* Vitoria 1975 [eskuragarri in http://www.cervantesvirtual.com/obra-visor/vida-y-obra-de-samaniego-0/html/ffc48bc2-82b1-11df-acc7-002185ce6064_55.html]) lagun min izandako alegialari *bizkaitarraren* idazkietan, ez dudala euskararen ez aipurik, ezta inolako zantzurik ere aurkitu. Zer ematen du aditzera *asepsia* horrek? Zenbait talde ilustratuen artean, bazterreko hizkuntza basatien harira, zabaltzen hasiak ziren esamesei men egiten ziela gure Joxe Agustinek? Azalpena mereziko lukeen beste gorabeheratxo bat: V. Forondaren antzera, oso goiz, 1784. urtean, hain justu, utzi egin zion Ibañezek Bascongada Elkarteko kide izateari. Zer dela-eta? Esan behar, azkenik, ez duela ematen oso begiko zutenik alegialari bilbotarra —euskararekiko erakutsi zuen portaera epelagatik, itxuraz— Markinan bizi ziren pare bat idazle euskaldunek, J. A. Mogelek eta bere iloba Bixentak, alegia (ik. aurreko oharrean "Adigarria" izeneko atalburutik kopiatu dugun pasartea). Ikus Ibañezi buruz C. Ribechini: *La ilustración en Vizcaya. 'El Lequeitiano' Ibáñez de la Renteria,* San Sebastián, 1993; J. Fernández Sebastián: *La Ilustración política: las "Reflexiones sobre las formas de gobierno" de Ibáñez de la Rentería y otros discursos conexos,* Bilbao: UPV-EHU, 1994; Id.: *El pensamiento político del bilbaíno Ibáñez de la Rentería* (s. XVIII)**:** *perspectiva actual de un ilustrado*, Bilbao: RSBAP, 1996; J. J. Granja Pascual: *Las Ideas educativas de un vizcaíno ilustrado, José Agustín Ibáñez de la Rentería,* in *Nuevas formulaciones culturales, Euskal Herria y Europa = Kultur antolabide berriak, Euskal Herria eta Europa /* XI *Congreso de Estudios Vascos* (1991, Donostia-San Sebastián), Donostia: Eusko Ikaskuntza, D. L. 1992, 453-56 or., etab.

37 Foruen aldeko (aurre)liberalismo baten adierazle gisa ikusia izan den Agirre hau (1748-1800) Mungian jaio zen —ez, preseski, familia *noble* batean—, eta gazterik karrera militarrari ekin zion, baina ikasketak bazter utzi gabe. Hezkuntza militarraz artatzen zen bitartean (J. I. Martínez Aparicio: *La Real Escuela militar de Ávila de los Caballeros, ¿una experiencia imposible?*, in J. Busquets, F. Alvira Martín, etab. (kord.): *La Enseñanza militar en España: un análisis sociológico*, Madrid 1986, 51-63, bereziki 59 or.), abagunea izan zuen orduko punta-puntako kultur bizitzan murgiltzeko (ik. G. A. Franco Rubio: *Militares ilustrados y prácticas de sociabilidad,* in *Ejércitos en la Edad Moderna* [= "Revista de Historia Moderna. Anales de la Universidad de Alicante" n. 22], 2004, zeh. 22-25 or.), eta, horren karietara, hainbat kultur elkartetako bazkide izendatua izan zen (artean, Bascongada eta Matritensekoa eta baita Historiako Errege Akademiakoa ere), orduko prentsa eta hedabidetan ("Correo de los ciegos de Madrid" izenekoan, batik bat) sarritan argitara emandako artikulutan orduko ilustratuek (Rousseau-k, Locke-k, Condillac-ek…) jorratu gai bertsuez kezkaturik agertzen delarik. Ikus, besteak beste, M. de Aguirre: *Cartas y discursos del Militar Ingenuo al Correo de los Ciegos de Madrid (precedido del Sistema de Sociedades Patrióticas y de Seminarios o casas de educación).* Edición y estudio preliminar de A. Elorza, San Sebastián, 1973. Esana bedi, edonola ere, ez dudala ezer aurkitu, gure mungiarrak euskararen auziaz, zehazki, edo, orokorrago, estatu modernoei bete-betean eragiten zien hizkuntz problematikaz izan zitzakeen iritzi edo pentsabideei dagokienez. Egia osoa esateko, ez dakit, ezta ere, ea euskaraz moldatzeko gai zenentz, hain gazte atzerriratu eta hainbeste urte kanpoan ibili ondoren. Baina, bere lagunen eta ohiko zitzaizkion zirkuluen joerak ikusirik (ez ahaztu Espainiako Historiako Errege Akademiako bazkide zela), ez du ematen J. A. Mogel, P. P. Astarloa eta antzekoen kezka eta lanekiko enpatia handiegirik izango zuenik.

38 *Villafuertes kondea* bezala ezagutu zen Manuel Francisco Ceballos y Guerra (1750-1806) hau Kantabriako S. Felices de Buelnan jaio zen, eta konde titulua ez zegokion berari pertsonalki, M. Rosario de Aranburu bere emazteari baizik. Halere, *Villafuertes kondea* deituraz agertzen da, esan bezala, behin baino gehiagotan dokumentazioan, hala nola hemen edota X. M. Munibek Pedro Jacinto Alavarekin izandako gutun-trukean (ik. J. I. Tellechea, ed.: *La Ilustración vasca…*, 205 eta 420 or.). Militarra zen (*capitán del Regimiento de Milicias* gisa aurkezten du bere burua 1772. urtean, Elkarteko kide numerario bihurtu nahian, Muniberi idazten dionean), eta mundu militarrari loturik ageri da, halaber, bere harremanetan (1777an, Varela izeneko Errege Itsas Armadako kapitain bat aurkeztu zion X. M. Muniberi, Merituzko Elkartekide izendatua izan zedin [ziurrenik gerora Marinako ministro izandako Pedro Varela y Ulloa, zinez Elkarteko kide izan zena]). Horrez gain, Tolosan auzotua agertzen da, bertan baitzuen bere emazte Maria Rosariok —legez, Villafuertesko 2. kondeak— gurasoengandik jaso hainbat jauregi eta ondare. Gauzak horrela, ez zitzaion gure militarrari aukerarik faltako Tolosan Felix M. de Samaniego eta beronen familia eta lagun *ilustratuekin* harremanak estutzeko. Gauzak horrela, zer bitxia, gure hizkuntzarekiko zaletasun apartekorik agertzen ez bazuen?

[39] Hurrengo oharrean mintzagai den Ignacio Jose Olaso bergararraren gutuneko pasarte kriptikoan, lehen tokia dagokio Pedro Jacinto de Álava honi (1738-1798), luzaz Bascongadako kide eraginkor izandakoari. Gazterik karrera militarrari ekin zion arabar honen familia estrategiaz, hitz argigarriak oso, A. Chaparro Sáinzek harira idatziak: "En el seno de la familia Álava destacaron capitanes generales, gobernadores, tenientes generales, administradores reales y, lo que es más importante, una lógica social de actuación familiar que explica la ostentación de todos esos cargos. Las posiciones que, generación tras generación, fueron ocupando los miembros de esta familia no se debieron a un resultado del destino o del azar. La realidad social que nos muestra la parentela de los Álava responde únicamente a una estrategia familiar pensada y ejecutada" (*La génesis social de una familia ilustrada vasca en el siglo* XVIII*,* in "Cuadernos de Historia Moderna", 2012, 37, 177-198, zeh. 179 or.). Eta, egileak dioenez, familia horren jokabidea adibide bat baino ez zen —erreferentziazkoa, nahi bada—, sasoian euskal gizartean ikus zitekeenarena.
Burutazio orokor hauetatik haratago, ez dut ezer aparteko esatekorik, Pedro Jacintok euskararen aferaz, edo, oro har, Elkarteak hizkuntz politikan izan beharko zukeen jarreraz pentsatzen zuenari dagokionez. X. M. Muniberekin izan zuen gutun-trukean (ik. J. I. Tellechea, ed.: *La Ilustración vasca*...) noiz edo noiz "nere Jauna" esapidea erabiltzen bide zuen, eta hark honi idatziz, "ceregines" direlakoak bide zituen tarteka aipagai (ik. E. Múgica Enecotegui: *Desde las cartas de Peñaflorida*..., zeh. 347 or.).

[40] Euren euskararekiko zaletasun ustez epelagatik-edo, aipatu ditugun elkartekideak susmopean ezartzeko iradoki izan diren arrazoi edo zantzuez, ikus K. Larrañaga: *Las manifestaciones..., 88-94.* Batik bat, Ign. Jose Olaso bergararrak, Ocañatik Xabier M. Muniberi idatziz (1782/10/13), erantsitako pasarte enigmatiko bat aipatu izan da horren harira, non horietako batzuk euskararen zorionerako litzatekeen egitasmo batekin akort ez baletoz bezala azaltzen baitiren (?): "He visto por casualidad los *Extractos* del año pasado, y me ha dado mucho golpe la inserción del Plan del Diccionario Bascongado. ¡Lo que puede la escasez de materiales! Y cuándo se satisfará a los amantes del Bascuence, en quienes este torillo ha despierto la idea y las esperanzas fundadas de ver realizado un proyecto que les es tan lisonjero? Ahí están Alava, el Conde de Villafuertes, Samaniego y otros semejantes que lo concluirán admirablemente en un quítameallá esas pajas. Fuera de toda chanza se ha vuelto a hablar con calor de este proyecto tan arduo? Yo creo que sólo se ha puesto el Plan por llenar los *Extractos*; pero tal disposición halla el Diablo en sus cabezas de Vms, que está a pique que les haya tentado a tocar otra vez esta tecla. Todo cabe. Es prueba de riqueza el tener muchos recursos: y un solo Azpitarte (sic) es capaz en ocasiones de sacar al estado de ahogos" (*Fondo Urquijo*, *Biblioteca Provincial de Guipúzcoa,* n.º 12.250 [galdu edota nahaspilaturiko sistemazio batean agian?]).

[J.] M. Agirre, Montehermosoko Markesaren eskutitz trukean, orobat, zertzelada batzuk aurkitzen ditugu, susmo txarrei bide ematera tentatzen dutenak: honela, Madriletik idatziz (1771/01/25), Mendoza izeneko bat du hizpide, Madril, itxuraz, asko maite duena, "lo que para mí es malísima señal" —seinalatzen du gure markesak—; Orihuelatik idatziz (1772/07/14), Fernan Nuñez —"muy amigo mío y excelente mozo", aurkezten digu—, baina, bere irudiko, "mui distante en el espiritu de nro Cuerpo, en que el no tiene ningun interes por que ni es bascongado, ni entregado a este modo de obrar" (ik. X. Altzibar: *Euskara Adiskideen...,* 1121 or. [erreferentzien oinarritzat F. Alava aipatzen da]).

[41] Adierazgarria suertatzen da oso, arabarrek XVIII. mendean bizi izandako goraldi soziala argitze aldera, egungo historialari batek Sevillako armada-unitate baten garrantzia azpimarratu izana. Honatx, idazlaneko 4. atalaren goiburua: "El regimiento de infantería de Sevilla, la clave" (A. Chaparro RUIZ: *La génesis social de una familia ilustrada vasca en el siglo* XVIII*,* in "Cuadernos de Historia Moderna", 2012, 37, 177-198, 195 or.). Eta, hurrengoetan hizpide, "la función del regimiento de infantería de Sevilla como centro socializador de las familias ilustradas vascas y como puente de cara a la promoción y al ascenso social […]" (195-198 or., komatxoen artekoak, zehazki 197an).

[42] *Euskal noblezia eta euskara (Eskortzoa* El Borracho Burlado*ren ikusmugatik)*, in *Egan* 2015/2, 147-182, 148 or.

[43] Ikuspegi orokor eguneratu bat nahi izanez gero, ikus J. Goyhenetche: *Histoire générale du Pays Basque: La Révolution de 1789,* Elkar 2002.

[44] P. Ithurbide, saratar abokatua, Dominique Garat-en ordezkoa izan zen Uztaritzeko Auzitegian, eta, S. Monho-k aitortzen duenez, bere hautagaietako bat (D.-J. Garat-ekin batera), 1789ko maiatzean Parisen ospatu beharreko États généraux edo Batzar Orokorretarako heren Estatuko ordezkari lapurtarrak esleitu behar izan zirenean (ik. *Garat Gaztenaren eta Ithurbidentzat* lerroburuko poema, in Id.: *Poèmes basques*, Klasikoen gordailua, 34 or.). Finean, postua, Bordeletik etorriz, 'lengoaia berri bat' *irakatsi* zuen Garat "l'aîné"-rentzat izan bazen ere (ik. *Ihardestea* goiburuko S. Monho beraren poema, in *a. o.*, 36 or.; poemon iruzkinak, in J.-B. Orpustan: *Un poète basque au temps de la Révolution: Salvat Monho [1749-1821]*, in J.-B. Orpustan [koord.]: *1789 et les Basques. Actes du Colloque International de Bayonne 1989,* Bordele, Pres. Univ. de Bordeaux, 1991, 239-255, zeh. 241-244 or.), eta gure Ithurbide nahikoa mindurik atera atakatik (ik. M. Duhart: *Ustaritz au temps de la Révolution,* Bayonne: Musée Basque 1989, 12 or.; Id.: *Dominique-Joseph Garat [1749-1823]*, Bayonne: Musée Basque 1993), ez zen, hargatik, itzali herriaren alde lan egiteko saratarrraren grina, eta gerora ere gutxi-asko nahasturik ibiliko da urte zail haietako hainbat aferatan.

[45] Euskaraz moldatzen zela jakina da: adibidez, euskaraz egin zuen bere hitzaldia, 1789ko États généraux famatuak prestatze aldera, Lapurdiko Biltzarra elkartu zenean (ik. J. Vinson: *Pièces historiques de la période révolutionnaire,* Baiona: B. Jerôme, 1887, 17 or.), eta euskaraz eman zizkien azalpenak udal eredu berriaz Uztaritzeko hautesleei, 1790eko martxoan udal batzorde berria hautatu behar izan zenean (ik. M. Duhart: *Ustaritz au temps…*, 15 or.).

[46] Grégoire (*l'abbé Grégoire*) famatuari 1794ko ekainean idatzitako gutunean Ithurbide berak dioskunez, hau izan zen Iraultzari zor zitzaion zenbait testu euskaratzeaz eta kaleratzeaz arduratu zen lehena; gehiago oraindik, aspaldi bide zuen esku artean Iraultzari buruzko *katixima* modukoren bat euskaraz ontzea ("[…] le projet de composer en basque un cathéchisme élémentaire de la Révolution, dans lequel, développant successivement et dans une méthode facile ses causes et ses progrès, je la leur aurais comme inoculée"). Zerbait lehenago, Iraultzaren kariaz sorturiko agiriak euskaratzea proposatu zion bere herrikide Dominique-Joseph Garat ministroari —"printzipio berriak ezagutuak izan zitezen", noski (*pour la propagation des nouveaux principes*)—, *Amis de la Constitution* izeneko talde baionarrak apez bat proposatu zuelarik euskaratze egiteko hori burutze aldera (ik. M. Rica Esnaola: *Traduction en basque de termes politiques sous la revolution*, in ASJU 9/1, 1975, 30 or., iturritzat A. nat. AA 32 seinalatuz).

[47] 1794ko ekainean, *Izualdiak* Lectouren atxiloturik zuela, Grégoire abadeari idatzi zion, euskaldunen kasuan —*devenus français par goût et par choix*— komeniko litzatekeen hizkuntz politika hizpide: gutunean, euskara baliatzearen aldeko ageri da Iraultzaren helburu eta abantailak herritar xumeei ezagutarazi artean; eskolaren egitekoa dateke, ordea, gerora begira, belaunaldi berriak Errepublikaren hizkuntza bakarra baino ez baliatzera prestatzea ("[…] la voie des traductions est la seule qui puisse mettre les lois à la portée des habitants de ces pays, et leur faire comprendre leurs droits et devoirs, tandis que l'institution des écoles préparera la génération future à ne parler que la langue de la République" (ik. B. Oyharçabal: *Les documents recueillis lors des enquêtes linguistiques en Pays Basque durant la période révolutionnaire et le Premier Empire*, in J. B. Orpustan [édit.]: *La révolution française dans l'histoire et la littérature basques du* XIX*ème siècle. Actes du colloque organisé par l'URA 1055 [CNRS] à Bayonne les 28 et 29 juin 1993*, éd. Izpegi, Baigorri, 1994, 62-119, batik bat 64-71 or. + Annexe 1 [108-110 .]).

[48] Ikus M. Duhart: *Ustaritz au temps…*, 7 or.

[49] Distrituko Auzitegiaren egoitza Uztaritzetik Baionara aldatzea erabaki zenean, Monduteguy, beste asko bezala, gogor agertu zen aldaketa horren aurka, eta, 1790eko irailaren 11n herriko biltzarkideei zuzendu hitzaldian, honelakoak esan zizkien, besteak beste, euskara hizpide harturik:
" […] La plupart des Basques ne parlent ni n'entendent le français et la plupart des Bayonnais est aussi peu versée dans la langue des Basques. Si malgré l'identité d'un idiome commun à tous ceux qui doivent entendre et être entendus, il a paru possible que le défaut de l'intelligence ou d'expression des uns ou des autres, l'inattention ou la passion compromettent la fortune, l'honneur ou la vie des citoyens, de combien d'innombrables manières ces dangers si justement alarmants ne se reproduisent-ils pas à Bayonne pour les Basques. Qu'un accusé n'entende pas bien la question qui lui est faite, soit que le juge y ait mêlé des expressions qui la rendent équivoque ou qu'un interprète mercenaire n'ait pas su bien la saisir, que deviendront les citoyens accusés ? La langue basque est celle qui a les tournures et les expressions les plus propres, les moins imitées, les moins

ressemblantes à celle d'une autre. Les habitants du même pays parlent différemment la langue, on y trouve quatre ou cinq élocutions différentes, ou expressions en noms appellatifs, en tournure grammaticale. Si la fidélité des traductions est une tâche reconnue si difficile, comment peut-on sans frémir livrer la fortune, l'honneur et la vie des habitants de toute une contrée, on ne dit pas au degré de probité, mais même à celui d'intelligence d'un interprète à gage ?
Comment donc les habitants de cette contrée abandonneraient-ils des lois qui leur donnent le droit de parler eux-mêmes, d'être entendus eux-mêmes, ces lois faites pour eux, si différemment nécessaires pour eux, sans sacrifier leurs intérêts ? Ils les réclament ces lois, elles sont à eux puisque faites pour eux par les législateurs du Royaume, elles leur ont été données pour eux. Ils ont juré de maintenir la Constitution, ils doivent donc réclamer ces lois, ces lois constitutionnelles si précieuses pour eux".
Ik. M. Duhart: *Ustaritz au temps…*, 24-26 or. (testua, zeh., 25 or.). Kontua da, zertxobait beranduxeago (1791ko otsailean), iritziz aldatu eta men egin ziola Distrituko Batzorde Zuzentzaileak Baionaren alde hartu zuen erabakiari (*Ibid.,* 31 eta 35 or.).

[50] Ik. M. Duhart: *Ustaritz au temps…*, 16, 27-29, 31, 34 or. (apezeriaren konstituzio zibila eztabaidagai), 52, 67, 75 or. Monduteguy, 1794ko martxoaren 3ko dekretuz, P. Pinetek osatu Batzorde Bereziko buru izendatua izan zen, dekretu horretan, ezaguna denez, Sara, Itxasu eta Azkaineko bizilagunak *infâmes* edo ospegabekotzat jotzen zirelarik eta erbestera behartzen, susmagarritzat jotako Ezpelete, Ainhoa eta Zuraideko auzoak bezalaxe. Erbesteratze operazio hori antolatzeaz eta gauzatzeaz arduratu zen batzordeko kidea izanik, bere burua aberastu izanaz salatua izan zen gerora, baita, *Konbentzio* gerraren kariaz, Donostian eta, oro har, gudaloste frantsesak konkistatu zonaldetan, Pinetek burutu lapurreta eta bestelako biolentzia ekintzetan parte hartu izanaz. Ikus baita ere P. Haristoy: *Martyre d'un peuple*…, 9 eta 11 or. (1 oharra).

[51] P. Lafitte: *Poèmes basques de Salvat Monho (1749-1821), présentés, transcrits, traduits et annotés par – – de l'Académie Basque*, Editions Ikas, Musée Basque, Bayonne, 1972, 56-60 or.

[52] Ikus P. Haristoy: *Martyre d'un peuple*…, 9. or.

[53] Ikus P. Haristoy: *Martyre d'un peuple…,* 7 or.

[54] Haien artean Garat anaien arreba bat suertatu zen, Marie-Théodose, Garat gazteak oso-oso begiko zuena; eta, bere ahizpa batek Distrituko Zuzendaritzari mojaren aldeko eskaria aurkeztu zionean, han zegoen gure Marithurry, moja libre uztearen kontrako iritzia emateko (ik. M. Duhart: *Ustaritz au temps…*, 54 or.).

[55] Ikus M. Duhart: *Ustaritz au temps…*, 50, 53-64. or.

[56] *Thermidorreko Konbentzioa* izenez deitu aldian, Pinet, Cavaignac eta enparauek Euskal Herritik alde egin izanaren kariaz, nolabaiteko liberalizazio giroa sumatzen hasi zenean ere, Marithurry honek tinko jarraitu bide zion, bere aldetik, Izualdiko grina iraultzaileari, eta ez zien bake errazik eman erbestetik etxeratzen hasiak ziren apez eta maila jasoko jendeei (ik. M. Duhart: *Ustaritz au temps…*, 57-64. or.)

[57] Ez dugu berri askorik lortu Daguerressar (1751-1823) honi buruz.

[58] Ikus P. Haristoy: *Martyre d'un peuple ou Internement des basques sous la terreur: suivi de chants antirévolutionnaires,* Pau 1894, 5-9, 18. or. "Revue d'histoire de Bayonne, du pays basque et du Bas-Adour", Numéro 146, 1990.

[59] Bada zantzurik uste izateko ez zirela hain eskasak izan *dotrina* berriei —are *girondins* deituen adiera gordinenetan— amor egin zieten herritarrak. Adibidez, 1794. urte aldera, *Artzain ardi-jalea dantzari* goiburuko bertso sorta ondu zigun poeta ezezagunak, *talde* bat deskribatzen du, Iharasarri apez *juratu*aren konpainian dantzan, Ezpeleta bezalako herri koskor batean: han agertzen dira, saltari, Ezponda, Amigot, Domingo 'bizkar konkor makurra', Betiri Gorringo eta, andrazkoen artean, Okerra, Katalin, Pertolin… eta hauen alabak (ik. A. Zavala: *Frantzia'ko Iraultza eta Konbentzioko Gerra bertsotan***,** Donostia 1989, 85

128 "Berariaz aldrebestu letraz" idatzi gutuna bide zen, eta "benetako kritika baino gehiago satira" baten itxura bide zuen, idazkeraz, ekarpenak (ik. *Extractos* 1772, 99 or.). Elkarteko zuzendariengandiko *hurbilekoren* batek idatzia?, galdetzen diogu geure buruari.

129 Ikus *Extractos* 1772, 97-99 or.

130 Hona, gaztelerazko bertsioa: "1.º Porque aunque la lengua peculiar del País es la Bascongada la de la Nación es la Castellana, y consiguientemente la nativa de todos los españoles. 2.º Porque por disposiciones del Gobierno no puede en las Escuelas del País usarse de otra lengua que de la Castellana; por lo qual todas las cartillas, libros, manuscritos y materias que se dan à los muchachos son en Castellano, prohiviendose al mismo tiempo el Bascuence en tanto grado, que hay establecido un anillo, que pasa de mano en mano entre los que se descuidan en este punto: de modo, que aquel en cuyo poder se encuentra al fin de la semana, tiene su castigo determinado. 3.º Porque haciendose por estos medios familiar la inteligencia de la lengua Castellana en las Escuelas Bascongadas, y reduciéndose el fin de la doctrina, de aquí se trata, à enseñar la Gramática en lengua que se sabe de ante mano, se logra perfectamente èsto con el medio dispuesto por la Sociedad..." (*Extractos* 1772, 99 or. [euskaratzerakoan, puntuazioa zertxobait aldatua suertatu da).

131 Gipuzkoako Aldundiko Liburutegian, J. de Urquijok Bascongada Elkarteari buruz bildu zituen agirien artean, bazen bat, hark bere eskuz idatzia, non laburbiltzen baitzen Bergarako Sta. Marinako abade honek Elkartearekin izan zuen tirabira. Haren izena, On Rafael de Garitano y Aldaeta, Oxirondoko Sta. Marinako erretore, esan bezala. Urquijok jasotzen duenez, "1775.go otsailaren 18an" Bergaran datatua zen gutun luze bat helarazi zuen X. M. de Muniberen eskuetara. Idazkiaren titulua: *Reflexiones que ofrece a la Real Sociedad Bascongada el cura de Santa Marina de Oxirondo de la Villa de Bergara sobre el medio de fomentar las escuelas* (sic). Ikus Garitano honi buruz, K. Larrañaga: *Las manifestaciones...*, 91-94 or. (adierazi orrialdeetako testu bera funtsean, baina euskaraz, in Id.: *Euskal egitate...*, zeh. 76-81 or.); B. Oyharçabal: *Statut...,* 112 or.

132 *Extractos* 1777, 10-12 or.; *Extractos* 1779, 11 or.; *Extractos* 1780, 12-14 or.; *Extractos* 1781, 32 or. (betiere, gizateriaren geroari begira biziki interesgarritzat jotako *patata*-ren hazkuntzan gure abadeak egindako saioak mintzagai).

133 Herritar elebakarrak —euskaldun nahiz erdaldunak: kultura gabeko jendea, azken batez— alfabetatze edo eskolatzearen aurkako aurreritzi edo prebentzioek urrutiago jo zezaketen oraindik, behin edo berriz hizpide izan diren interes klasista edo estamentalek bultzaturik, eta, *Don Patricio de Castilla* izengoitiaz baliatzen zen elkartekidearen kasuan bezala, eskolak ugaltzearen egitasmoa sinpleki arbuiatzera iritsi; izan ere —ohartarazten zuen "fede oneko eta benetan saiatua" bide zen bazkide honek ("lleno de buena fe y verdadero celo", jakinarazten da)—, eskolen biderkapenak "eskolatu eta lumagizonen" ugaltzea ekar baitzezakeen, "laborantza eta *arte* mekanikoen kaltetan", eta, horrela, kalte gehiago ekarri herriari onura baino, zeren eta —argudiatzen zen— "la preferencia que naturalmente se da a la ligereza de la pluma, y la comodidad de la vida sedentaria sobre el peso de la esteva, el martillo, etc. y los trabajos de la vida mecánica atrae demasiadas gentes sin necesidad de nuevo estímulo" (*Extractos* 1772, 94 or.). Erantsi baino ez, halako ideiak erruz ematen zirela orduan autore merkantilisten artean, biziki kezkatuak, ez ote zituen herriaren edukazioak arriskuan jarriko beharrezkotzat jotako eskulanaren erreserbak (ik., adib., H. Denis: *Histoire*

de la pensée économique, Paris 1966, 96 or.). Esana bedi, hemen dioguna, ikus dadin noraino irits zitekeen aipatu interes klasista edo estamentalekiko morrontza edo menpekotasuna, auzitan jartzen zena, ez, preseski, herriaren eskolatze edo alfabetatze bera —zeinahi hizkuntzan berau ematen zelarik—, baizik eta alfabetatze horren hizkuntza suertatzen zenean, Euskal Herriaren kasuan bezala.

134 Honen guztiaren berri Gipuzkoako Aldundiaren Liburutegian aurkitzen zen eskuizkribu bati esker jakin ahal izan dugu, J. de Urquijok *Bascongada*ri buruz bildu zituen paperen arteko batean, alegia. Eskuizkribuak —orritxo bat, finean— Julioren eskuz eta letraz idatzia zirudien. Ez dakigu zer gertatu den gerora hizpide dugun Garitanoren idazkiarekin.

135 Ikus Munibek Pedro Jacinto de Alavari 1775eko maiatzaren 19an idatzi zion eskutitza (J. I. Tellechea Idígoras: *La Ilustración vasca*..., 343 or.). Beste zenbait pasadizo zaporetsu, Errege Elkarteko zenbait kidek, Garitanoren gutunak Bergaran eta inguruan eragindako lurrikaratxoaren oihartzuna ahal neurrian itzali edo arintze aldera, emandako urratsei buruz (gutunaren kopien atzetik ere ibili bide ziren, zoritxarreko gertaeraren arrasto guztiak desagerrarazteko edo…), ikus K. Larrañaga: *Las manifestaciones...*, 132 or.

136 Ikus B. Oyharçabal: *Statut...*, 118.

137 Oraingoz, soilik? Begira nola ikusten zuen, 1785/1789 urte aldera, norentzat eta zertarako zen Bergarako *Seminario Patriótico* delakoa, *Bascongada* Elkarteak berak Espainian egin zuen autopublizitatearen isla gisa estima daitekeen *ilustratu* batek. "Los nobles españoles, que antes solían enviar a sus hijos a varios Colegios y Casas de pensión de Francia, con mucho dispendio, y con el riesgo irremediable de que se imbuyeran de *máximas no españolas, y de que se debilitaría en ellos el patriotismo*, que es la pasión que más debe fomentarse en todo noble; los envían al Seminario de Vergara, a donde la educación es excelente, y ciertamente más propia para infundir en los ánimos de los jóvenes españoles la piedad, la instrucción de que más necesitan, la modestia, la frugalidad; y finalmente el amor a su País" (honela, J. Sempere y Guarinosek in *Ensayo de una biblioteca de los mejores escritores del reinado de Carlos III*, Madrid, Imprenta Real, 1785-1789, 5. lib., 176 or. [letra etzanak, nireak]).

138 Ikus 140. oharra.

139 Ikus 150. oharra.

140 "Su activo celo [Muniberena, alegia] se extendió también a su lengua patria. La protegió de todas las maneras, trazó el proyecto de un nuevo diccionario, y él mismo hizo versos en ella. Así compuso p. ej. a propósito de aquella solemnidad una ópera vasca y tradujo del francés el *Maréchal ferrant* […]" (*Los Vascos o Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en la primavera del año 1801,* in RIEV xv, 1924, 262 or.]).

141 1801. urtean prusiarrak bazter hauetara egin zuen bidaiaren *Tagebuch* edo egunerokoan, Muniberen herriarekiko atxikimendua gertatzen da zehazki hizpide: "[…] begüngstigte und hielt alle vaterländische Sitten so gut er konnte" ["arbasoen ohituren aldeko, bere esku zegoena egin zuen, hauk manten zitezen"] [*Tagebuch der baskischen Reise [1801],* in B. Hurch [Herausg.]: *Wilhelm von Humboldt. Schriften zur Anthropologia der Basken. Mit einer Einleitung und Kommentar harausgegeben von B. H. unter editorischer Mitarbeit von Dina El Zarka,* 2010: F. Schöning, 267-351, zeh. 289 or.]).

142 Ramon Maria anaia bezala, Europan barrena ibilia zen, Xabier Maria Egiarekin, ikasketak (Kimika eta Natur-Historiakoak) egiteko asmoz. 1772ko *Extractos*etan (66 or.), "Cadete de Reales Guardias Españolas de Infanteria" bezala ageri da. Bada beste berririk berari buruz 1775/1782 urte bitarteko *Extractos*-etan (ik. X. Altzibar: *Euskara adiskideen...,* 1127 or.). Bere balizko parte hartzea euskaraz eman ekimenetan, in X. Altzibar: *Ibid.,* 1127 or., orrialdepeko 40. ohar.; item, 1128 or. Bada, bestalde, Prestamero Artxiboan, *Arengas en diferentes idiomas para el alumno Munibe* idazpuruko paper bat eta bertan bertso safiko eta adonikoetan idatzi poema bat ageri da, ez dagoena, ordea, erabakia nork idatzi zuen berau (X. M. Egiak, apika?), eta zein Muniberi eskaini zitzaion (ik. X. Altzibar: *Ibid.,* 1128 or.).

143 Bixentaren hitzak: "[...] Berriz zure Aita jaun, ta nere ongille D. Antonio Maria Munibekoak bularretik bezela dakar nekazarien maitetasuna. Zein sarri enzun oi dan Markinan, ta bere inguruetan, Konde Peñafloridakoak baserritarrai egiten dioen, agur ederra! Bestetik? ez da bizi bere borondatez, ta aukera osoz baserritar eginda bezela? Bai: Erri andietako ospe, iskanbilla, ta kateatasunak baño naiago du Munibeko Jauregi baserrituan lauki egunak igarotzea, andi-usaiak alde batera largarik, o nere zalduntxoa! jostatzen da zurekin, ta zure arreba, ta bere alaba biekin; jolasez bezela, agiraka, mukertasun, ta zigor gabe erakasten dizutela irakurten, ta izkribitzen. Zein ikusteko ederra azitegi, ta ikasleku eginda Munibeko Etxea, ta zure arrebatxo Maria Pilar, ta Maria Karmengo Amandrearen aldamenean berai ditzaizken esku-bearretan. Berriz, nolakoa zure poza ekustean txaltxoak jostatzen zelaian, izutu ta gogaitik egin gabe entzuten dituzunean idi, ta beien orroak? Bildotsak dabiltzanean parlanzuan, nolako farra gozoak? Zoazenean gaztañadietara, ta arkitzean perretxikuak, nolako pozarekin ez zoaz Aita jaunari esatera, topatu ditut *urdin* eder bat, ta *urritx* bi bareak jan gabeak? Au bai dala bizitza kategabe, ta erri andietako lotutasun, edo labañkeriarik ez duena! […]. Berriz euskera egiten dezu, dala Giputzen, dala Bizkaitarren gisan. Guzira zaude egiña. Beraz alde guzietatik zor nizun zuri liburu onen eskintza, edo presente labur au" (*Ipui onak,* Bilbao 1804, "Don Viktor Munibe ta Arangurengori" [eskaintza] (1992ko M. Iribarrenen ed., Euskal Edit. Elkartea, in http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MogelBIpuionak054.htm). Edonola ere, argitzeko dago nola ulertu behar diren hitzok —alegia, zer islatzen zuen munibetarrek euskal baserritar munduarekiko erakutsi jarrera *onbera* horrek—: jauntxoen irudiarekin ondo konpontzen zen jarrera *paternalista* klasikoa, ala konpromiso serioagoren bat mundu *euskaldun*arekiko ["Berriz euskera egiten dezu, dala Giputzen, dala Bizkaitarren gisan. Guzira zaude egiña"]? Testuan aipaturiko euskal baserritar elebakarrekiko jokaera gizabidezko horrek, ba ote zer ikusirik, erromantizismoaurreak eraginda, sasoian kultura jasoak ukitu gabeko nekazari *basokoa* ikusteko moduan ematen den aldaketarekin? Esan nahi baita, Mogel, bere eleberriko pertsonaia nagusia den *Peru Abarca,* euskal *baserritar elebakar* bezala ("Catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte"), baina, halere, naturatik datorkion jakituria oparoz jantzita aurkeztera eramango duen aldaketarekin, alegia...? (ik. P. Bidart: *L'Aufklärung et la basquité*, in *Lapurdum* 2, 1997, 303-338, zeh. 304-311 or, non, besteak beste, Herder-ek, bere 1772ko *Abhandlung über den Ursprung der Sprache* obran, adierazi binakako kontrajartzeek —naturako gizaki basatia *versus* saloietako filosofo jantzia, bizipena-sentipena *versus* adimena-arrazoiketa, naturala *versus* artifiziala, etb.— Mogelen *Peru Abarca*n ageri dituzten bikoizketa edo *erreplikak* seinalatzen baitiren, horretan, itxura guztien arabera, Herder-en jarraitzaile W. von Humboldt-ek Markinako apaizarekin izan harremanek zerikusia zuketelarik [*Ibid.,* 309]).

144 Ikus 114-121 oharrei dagokien testua eta haietan jaso erreferentzia bibliografikoak.

145 Ikus X. Altzibar: *Euskara adiskideen…,* 1131-1133 or.

146 Honatx, kritiko hauen arabera, afera erabakitzat eman aurretik, argitu beharreko zenbait puntutxo. a) Nola ulertu behar da, 1771-1773 urteen bitartean, ikasteko asmoz Europan barna bidaiari zebilenean, Ramón M. semeak aitarekin edo Errege Elkartearekin izandako gutun-trukean, ia euskarazko hitz bakar bat ere tartekatu ez izana? (ik. *Cartas de don Ramón María de Munibe a su padre don Xavier y la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, in F. A [rocena] ed.: *Colección de documentos inéditos para la Historia de Guipúzcoa,* 6, S.Sebastián 1965, 39-77 or.). Gutunok, bidaian ikusi eta ikasitakoen berri emateko idazten dizkio Munibe gazteak, batzuk aitari (edo amari) (44 or.), beste batzuk Errege Elkarteari, genionez; baina ez hauetan, ezta besteetan ere, ez da euskarazko hitzik —ezta *agur* soil bat ere— agertzen, ez bada, behin, *Gabon* hitza, Parisen entzundako "Misa del Gallo" bat hizpide (39 or.). Eta antzeko portaera ulergarri egiten bada Elkartekideei zuzenduriko txosten nolerebait ofizialetan, ulergaitzago suertatzen da Munibe gaztea "mi amado padre" eta "mi amada madre" esaka noiznahi entzutea... Nolanahi ere, esan behar da gure Ramonek erabili zuela noiz edo noiz euskara aitari zuzendu zizkion gutunetan (balizko gai sentiberak ukitu behar izan zirenean, apika), eta gorabehera horrek poz handia eman ziola honi. Hala ematen zaigu aditzera kondeak berak 1771ko otsailaren 9an idatzitako gutun batean: "[…] Tu retazo bascongado nos ha dado mucho gusto, no solo por las noticias particulares que encierra, sino por la prueba que das del afecto que conserbas á tu Lengua natiba" (pasarte hau jasoa zuen jada J. Urquikok: *Un juicio sujeto a revisión: Menéndez Pelayo y los caballeritos de Azcoitia*, San Sebastián 1925, 76 or., testua aurkitzen zen agiriaren gainerako zehaztapenik ematen ez bazuen ere).

b) Zein zen, gero, Muniberen iritzia, senide Samaniegok edo Forondak bezala, euskararekiko jarrera *onbera* ez, erdeinuzkoa baino, agertzen zuten bazkideekiko?
d) Nola ulertu behar da, bestalde, Muniberen jokabidea, gazteleraren inposaketa euskal eskoletan ontzat eman ez, eta euren iritzi hori, *el amigo Alabés* izengoitiz ezagutu elkartekidea edo Rafael Garitano bezala, agerian jartzera ausartu zirenekiko? Deigarria gertatzen da, batik bat, Elkartearen eta zehazki Xabier Muniberen portaera Bergarako Sta Marinako apaizarekiko, izan ere, "buen hombre" gisa ezaugarritzen den honi bere iritziak herritarren aurrean azaldu eta defendatu ahal izateko bideak itxi egin baitzizkion nolerebait Elkarteak: honela, *el amigo Alabés*en jarrera defendatzeko asmoz, Garitanok Elkartera zuzendu zuen agiria ez zen kontuan hartua izan ("[...] arrinconé el Papel en mi Papelera por haberme parecido indecoroso su lenguaje para un eclesiástico") (ikus 1775eko maiatzaren19an, Bergaratik Pedro Jacinto de Alavari Munibek idatzi gutuna, in J. I. Tellechea: *La Ilustración vasca…*, 343-345, zeh. 344 or.).
e) Eta nola ulertu behar dira, bestalde, dirudienez Muniberenak bide diren *Quintillas disparatadas* hauek, non, beste aldrebeskeria zaporetsuen artean (eta gure zorioneko euskara aipagai), euskal apologisten ameskeriez trufatzen dela baidirudien?:
"[...] Armóse una sarracina
Cuando Séneca citó
Los anales de la China
Probando que en Jericó
Se habló lengua vizcaína [...]"
(cfr. L. M. Areta*: Obra literaria de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País,* 66-70 bb. [in http://www.cervantesvirtual.com/servlet/SirveObras/08142730990847395209079/not0065.htm#N_640]).
f) Esan, bukatzeko, badela egun, Munibek, *El borracho burlado* operan, Txanton Garrote protagonista, mozkor, arlote eta ezdeus baten itxuran antzeztu izanean, interes ez hain altruistak —aitzitik, klasistak edo estamentalak: gizarte talde hegemoniko bati dagozkionak, hain zuzen— antzematen dituenik (Ur Apalategi: *Heziketa literarioaren kezka, Peñafloridatik Mogelera*, in "Lapurdum" 9, 2004, 40-44 or.; I. Aranbarri: *Txanton Garrote agertokitik jaitsi zen eguna,* Arre: Pamiela 2016, zeh. 69-84 or.; P. Salaberri: *Euskal nobleziа eta euskara [Eskortzoa* El Borracho Burlado*ren ikusmugatik]*, in "Egan" 2015/2, 147-182, zeh. 153 or.); eta, baita, X. Munibekoak, zatiketa dialektala aitzaki, komedia osoa euskara gutxi-asko landu eta jasoan emateari iskintxo egin izanean, gure handiki eta jauntxo jantzien euskararekiko konpromiso epela usnatu duenik ere (ik. B. Oyharçabal: *Statut et évolution...*, 49 oh.). Puntuok argitze aldera, erants daiteke, lehenik eta behin, gauza bat dela Xabier Muniberen *El borracho burlado* komedian Txanton Garrote protagonistak eskeintzen duen irudia (euskal *elebakar arlote* eta *analfabeto* batena, hain justu, jauretxeetako saloi dotoreetan elkartzen diren handi-mandi ilustratuek begiko ez, eta destainaz tratatzen dutena…), eta arras bestelakoa, urte gutxi batzuk geroago, J. A. Mogelek asmatutako *Peru Abarca*ko protagonistak eskeintzen duena —W. von Humboldti esker hein batez jasotako Herder, Rousseau, eta enparauen erromantizismoaurreko teoriek eraginik, markinar abadeak asmatzen duena, alegia: euskal elebakar baten modura, baserritar giroan bizi den *Peru*rena, hain zuzen: ez *edukatua*, Bilboko maisu Juan bizargile ikasiaren antzera, baina, halere, naturarengandik, euskara bitarteko, datorkion jakituria herritarraz oparo jantzia… (ik. Ur Apalategi: *o. c.*, 39-47 or.)—. Edonola ere, Peru hau ez bide da, U. Apalategiren iduriko, "garai hartako benetako baserritar baten moduan ari, baizik eta baserritargoaz noblezia ilustratuak daukan irudi idealizatu batek egingo lukeen modura"; hain zuzen ere —darrai—, "Peru laborariaren mozorropetik hitz egiten duen Mogel […] jauntxoen klasekoa" baita, eta "Herriaren Adiskideetarik bat" (*Ibid*., 46 or.). Antzeko ikusmolde klasista-estamentalek baldintzaturik, eta parametro estetiko berdin antzekoei men eginez, ikusi ahal da, halaber, 1772ko gabonetan, Azkoitiko Altzibar jauregian —munibetarren *Intxausti* jauregitik oso gertu— antzestu zen *Grand Tourra* izenburuko obra, non, Joakin de Altzibar-Jauregi y Atxaran (1746-1810) autoreak, Bixente anaiarekin batera Europan zehar burututako *tour* handiaren gorabeherak argudiotzat hartuz, handikien ondopasa bilatzen baitzuen, maila apaleko jende ezikasien bizkar burlak eginez (ik. F. B. Aguinagalde: *Joaquín de Alcibar-Jauregui eta Acharan (1746-1810)*: *eta "Grand tourra" (1772),* in *Egan* 2007, 1-2, 35-67 or.; item, I. Aranbarri: *Txanton Garrote…,* zeh. 85-92 or.). Duda izpirik ez, handikien taldekoa zela Altzibar hau, Errege Elkartekoa ez bazen ere (B. de Aguinagalde: *o. c.,* 48 or.), eta bere komediarekin bilatzen zuen guztia, Gabonen kariaz jauregian bildutako senide eta adiskideen ondopasa zen —hori, bai: esanda dagoenez, errentari eta herritar xume eta analfabetoen bizkar burla errazak eginez—. Finean, Muniberen nahiz Altzibarren komediek garbi ematen dute aditzera antzeko literatur trepetek klase hegemonikoaren eskutan betetzen zuten egitekoa. Eta berdin dio, protagonista Txanton Garrote deitzen bada, edo Iñazi Oleaga, biak ala biak *Larraskandaz* haratago ezer gutxi dakiten azkoitiar xumeak baino ez baitira, euren asmatzaileek gogoraraziko digutenez. Eta honaino iritsita, P. Bidartek bide eman izan dion hainbat susmo eta galderari

erantzun beharko litzaioke azkenik, Munibek (eta Errege Elkarteak) euskararen alorrean zuten jarrera argitze aldera. "[…] stratégie d'inscription de la langue basque dans le sillage historique de la Nation espagnole" laburbiltzen du auzia baigorriarrak, nahiz eta, bere iduriz, estrategia horrek ez bide dion Elkarteari eragozten, euskarari buruzko problematika *era interesgarri eta baketsuan* kudeatzea ("[…] n'empêche pas la Société d'aborder les questions relatives au basque avec, semble-t-il, intérêt et de façon paisible"). Eta, ikuspuntu honetatik begiratuz, *El borracho burlado* zera zatekeen, P. Bidarten ustez: "manifeste pour une compatibilité possible entre la proclamation du destin national du castillan et le maintien de la langue basque"; eta, nolabait, "indice de la tendance libérale de la 'Ilustración' en Pays Basque" (*«Ilustración»...*, zehazki 334 or.). Eta kezkak, dirau: euskararen afera, menderatze-tresna bat baino ez, *elite* hegemonikoaren eskutan? Gauzak horrela, ez da harritzekoa, egun, zenbait ikertzaile, behinolako Muniberen *euskarafilia* fama ustez ezin preziatuagoa zertxobait doitzen hasi bada: "[…] afekzio hutsen esparruko keinuren bat edo beste kenduta, ez dirudi eguneroko bizimoduan urrunegi joan zirenik kondearen ardurak eta kezkak euskararekiko", idazten du, adibidez, P. Salaberrik (*Euskal noblezia…*, 13 or.). Eta ez da interpretazio bide honi heltzen dion bakarra, orrialdepeko ohar honek berak erakusten duenez.

147 Jakina denez, Munibe eta bere Adiskideak "Lehen Letretako" eskolak herritan zabaltzearen aldeko agertu ziren hasieratik, hori zela iritziz bertako populazio soberakinari irtenbide bat aurkitzeko modu erosoenetako bat (*Extractos* 1772, 96 or.; *Extractos* 1775, 122 or.). Egitasmo horrek, ordea, zera eskatzen zuen, eskoletan irakaskuntzak *Inperioko hizkuntzan* behar zuela, hain justu (ik. *Extractos* 1771, 47 or.), azken batez, inperio horrek itxuratu lan merkatu erraldoierako haurrak prestatzeko eratu nahi baitziren eskolok. Eta, puntu horretara iritsirik, Adiskideen egitasmo *filantropiko* horrek zenbait talde *sentikorren* aurka egiten zuen talka, eztabaida eta tirabirak sortuz Elkartearen baitan. Horrela, 1772ko *Extracto*setan (97-99 or.) adierazten zaigunez, aurreko urtean jakinarazi 4. batzordearen proiektuak erantzun eta kritika gogorra jaso bide zuen *el amigo Alabés* bezala bere burua aurkezten zuen bazkide baten aldetik. *El amigo Alab*ésen aferaz, ikus 127-130 oharrei dagokien testua. Lehen Letretako eskolen gaiaz, oro har, ikus J. de Benito Pascual: *La Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País y las Escuelas de Primeras Letras (1771-1793),* in *Las ideas pedagógicas de los Ilustrados vascos*. "Estudios y Documentos" 5, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 1990, 101-186 or.; L. M. Areta: *Las ideas pedagógicas en el País Vasco bajo el reinado ilustrado de Carlos III,* in *Las ideas pedagógicas…,* 11-100 or.; R. López Atxurra: *Historia de las instituciones educativas en Euskal Herria. La ense*ñan*za primaria en el Antiguo Régimen. Pautas para la investigación*, in R. Mieza; J. Gracia (ed.): *Haciendo Historia. Homenaje a Mª Angeles Larrea*, EHU-UPV, Bilbao, 2000, 419-445 or. lparraldeari dagokionez, E. Furet; J. Ozouf: *Lire et écrire*, Paris: Minuit, 1977; (frantsesaren inposaketaz), M. Certau; D. Julia; J. Revel: *Une politique de la langue...*

148 Ikus On Rafael de Garitano y Aldaeta honi buruz, 133-136 oharrei dagokien testua.

149 Lehen ere hizpide izandako Juan de Egino bazkideaz —Cádizen, lehenik, zergalariorde (*vicerrecaudador*) gisa, eta gero, Liman, Elkartearen kontuez arduratzen zenaz—, ikus 74, 107-111 eta 192 oharrei dagokien testua. Kontua da, Inperio kolonialeko negoziotan murgildurik hain urruti bizi izanagatik, arduratzen zela, halaber, Egino sorterriari zegozkion aferez eta, batik bat, euskararekin zerikusia zutenez. Egino honi buruz, ik. A. Sagarna: *Euskara* XVIII*…,* 44 or., non bere eta beste zenbaiten kasuak suertatzen baitira hizpide; Eginoz, halaber, X. Altzibar: *Euskara Adiskideen…,* 1120 or.; Id.: *Euskaldunen…*, 17-45, zeh. 29 or. (52 oh.); J. Cebrián: *Nicolás Antonio y la ilustración española,* K. & R. Reichenberger, Kassel, 1997 (zeh., c. III: *Una apología del vascuence en frente,* 51-68 or.).

150 Ikus *Extractos* 1773, 106-8 or.; *Extractos* 1774, 82 or.; *Extractos* 1781, 89-105 or.; *Extractos* 1785, 8 or.; *Extractos* 1786, 8 or. Hiztegi ekimenaren kariaz hizpide suertatzen diren elkartekideen artean, Valentin Berástegui gasteiztarra, Juan Antonio de Campos eta Arrasateko Juan de Leiza kontatzen dira, besteak beste. Humboldtek, bestalde, ikusterik izan bide zuen "Catalogo de voces Bascongadas" izenburuko agiria —Aizpitarteren lana argitaratzekotan zebiltzanean, alegia, Muniberi lagin bezala aurkeztu zitzaiona ["Catalogo de voces Bascongadas con las correspondencias Castellanas, dispuesto por D. T. M. de Aizpitarte, por encargo del S. Conde de Penaflorida, Director de la R[eal] S[ociedad] B[ascongada]" (W. von Humboldt: *Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweyten Bandes des Mithridates über die Cantabrische oder Baskische Sprache*, in J. C. Adelung; J. S. Vater: *Mithridates oder allgemeine Sprachenkunde mit dem Vater Unser als Sprachprobe in bey nahe fünfhundert Sprachen und Mundarten*, t. IV, Berlin 1817,

275-360, zeh. 339 or.)—. Aizpitarteren hiztegiari buruz, oro har, ik. L. Mitxelena: *Colección de documentos inéditos para la Historia de Guipúzcoa,* 6 [*Fascículo especial dedicado a las conmemoraciones centenarias de la fundación de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*], Donostia 1965, 99-114 or.; M. T. Echenique: *Un manuscrito de Campomanes en relación con el proyecto de un Gran Diccionario Vasco*, in *Symbolae Ludovico Michelena …*, Vitoria 1985, I, 357-368; Id.: *Campomanes y el proyecto de un gran diccionario vasco, Ibid*., II, 1089-1095 or.; E. Knörr: *Some new documents concerning Aizpitarte's dictionary*, in *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak,* Bilbo 1981, 83-127 or. Elkarteak bultzaturiko zenbait ekimen onik ateratze aldera, Campomanesek, Gorteko botereguneetan eta erabakiguneetan izandako parte hartzeari buruz, ik. A. Risco: *La Vascongada y la industria popular: un testimonio inédito sobre Campomanes,* in J. M. Urquia Echave eta A. Risco (koord.): *La carta como fuente y como texto: las correspondencias societarias en el siglo* XVIII*: la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País,* RSBAP, 2005, 255-300.

151 Ikus X. Altzibar: *Euskaldunen nazio...*, zeh. 29 or. (52 ohar.). Edonola ere, oso da deigarria hainbat elkartekiderekin aspalditik harremanetan izandako —are, bere iloba Bixentak deskribatu Markinako munibetarren giroa hain gertutik ezagutzerik izan zuen— kultura jasoko Mogel apaiza hain berandu Elkartean izendatu izana. Afera argitze aldera lagungarri izan daitekeelakoan, L. F. [Koldo] Larrañaga: *El Clero Vasco frente a los empeños renovadores de la R. S. B. A. P.*, in "B. R. S. B. A. P." 25, 1969, 89-117.

152 Ikus hurrengo oharra.

153 Oharretan behin edo berriz mintzagai den *Peru Abarcaz* gain, gure Mogelek beste hainbat lan idatzi zuen edota euskara goreste aldera, edota euskaraz. *Apologien* artean, ikus, adibidez, *La Historia y geografía de España ilustradas por el idioma vascuence,* c. 1800 (J. Garatek argitaratua [Bermeo: Gaubeka, 1936-1937]); item, *Apología de la lengua bascongada contra las erradas ideas, y congeturas de Don Joaquín Traggia,* [1803], argitaratua in "Euskal-Erria" 25 [2o sem. 1891], 39-42, 69-73…, etab. Euskara goreste aldera, halaber, baina euskaraz, *Versiones bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos ó Demonstración práctica de la pureza, fecundidad y eloqüencias del idioma bascuence contra las preocupaciones de varios escritores extraños, y contra algunos Bascongados, que solo tienen una noticia superficial del idioma patrio,* Tolosa: F. de La Lama, 1802, 24 or. (lana idazteko arrrazoia: Humboldt bezalako adituen aurrean agerian uztea, euskara "eloqüente, puro y fecundo" zela, alegia, eta, grekoak edo latinak bezala, bazekiela Erretorikaren alorretan moldatzen [*sic* in "Prólogo", 4 or.]). Ez da, gero, ahaztu behar, Mogelek, "zuhurtzia, jakintza eta euskalduntasun jatorraren esentzia" zatekeen *Peru Abarca* baserritara asmatuz, "XIX. mende osoa besarkatuko duen iraultza erromantiko-filologikoari nahiz Chahorekin loratzen joango den pentsamendu nazionalistari ateak zabaltzen" dizkiela (ik. Ur Apalategi: *Heziketa literarioaren…,* 46 or. *Peru Abarca* gertuagotik ezagutu nahi izanez gero, ikus, besteak beste, M. Díez Ezkerra: *Peru Abarca como acto comunicativo*, in "Euskera" 27 [2. aldia], 1982, 13-57 or.). Esan, bestalde, *Peru Abarcaz* gain, Mogelek euskaraz idatziriko ekoizpen oparoa utzi zigula, eliz egitekoetara funtsean zuzendua (dotrina-liburuak, sermoiak), baina, ez, haatik, Erretorika klasikoaren irakatsiei muzin egiten ziena: adibidez, *Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac,* Iruñea: Ezquerro, 1801; *Confesino ona edo ceimbat gauzac lagundu biar deutseen Confesinuari ondo eguiña izateco*, Vitoria: F. Larumbe, 1803. Argitaratzeko prest utzi zuen *El Categuista Bascongado-Cristau Eracasle Euscalduna,* baina lan horren *III. zati edo partea (Jangoicoaren Legue, ta Eleizaco Mandamentuen gañean)* baino ez da argitaratzerik izan (Labayru Ikastegia-BBK, Bilbao 1993) etab. Azkenik, euskaraz baina betiere literatur ereduak oro har jomugan ("gauzak apaintasunez eta dotoreziaz adierazten" saiatzen baitzen Markinako abadea), beste zenbait lan utzi zigun Mogelek: adib., Pascal-en pentsamenduen zati bat itzuli zuen (*Pascal-en Gogamenak* izenburupean, Azkuek, 1899an argitaratuko zuena, "Euskalzale" III); erlijio gaiei buruzko *bertsozko kantak* prestatu zituen; alegi edo ipuinak idatzi (hein batez Bixenta ilobak baliatuko zituenak); aipatu *Versiones Bascongadas* idazlanean Zizero, Tazito, Salustio eta beste zenbait autore klasikoren testuak euskaratu… (honetaz guztiaz, X. Altzibar: *Euskaldunen nazio…,* 29-33 or.; Id.: *Dotrina, erretorika eta erudizioa Mogelen erlijio liburuetan*, in "Lapurdum" 9, 2004, 23-38 or.).

154 Humboldtek, bere paperen artean, Euskal Herrian barrena bidaiari ibili zenean hiri edo hiribildu bakoitzean bitartekari edo berriemaile gisa lagundu ziotenen zerrenda utzi zigun ("Liste von Kontaktpersonen im Baskenland", eranskin bezala ["Beilage 2: Personenliste"] jasoa in B. Hurch [ed.]: *Wilhelm von Humboldt...*, 364-67 or.). Agiri horretaz, ik. B. Hurch: *Ibid.,* 363 or. *Euskal bidaian* ("basquische Reise") lagundu

zioten bitartekari edo berriemaileez, ik. B. Hurch: *Ibid.,* 10-12 or. Item, A. Farinelli: *Une lettre inédite de Guillaume de Humboldt concernant son second voyage en Espagne*, in "Revue Hispanique" VI, 1889, 58-61 or.; Id.: *Guillaume de Humboldt et l'Espagne*, in "Revue hispanique. Recueil consacré à l'étude des langues, des littératures et de l'histoire des pays castillans, catalans et portugais" V, nn. 13, 1898, 1-218; J. Gárate: *El viaje español de Guillermo de Humboldt 1799-1800*, Buenos Aires: Patronato Hispano Argentino de Cultura, 1946. Ik., baita, X. Altzibar: *Euskaldunen nazio...,* 23-29 or.; Id.: *Humboldt, Astarloa eta Mogel*, in J. Agirreazkuenaga (koord.): *Wilhelm von Humbolt: un puente entre dos pueblos. Hezkuntza, hizkuntza, Euskal Herria* ("RIEV" 41, 2, 1996), 587-96 or., non, euskara eta Euskal Herria ezagutze aldera, Humboldt-en zorra Astarloa eta Mogelekiko —eta hauena, halaber, prusiarrarekiko— suertatzen baita aztergai eta hizpide; J. Agirreazkuenaga: *El descubrimiento de la nación política vasca por W. von Humboldt en 1801,* in J. Agirreazkuenaga (koord.): *Wilhelm von Humbolt...,* 465-476 or.; J. Intxausti: *W. von Humboldt: Haren eta harekiko "gure" argitalpenak*, in J. Agirreazkuenaga (koord.): *Wilhelm von Humbolt...,* 623-642 or.; R. Gómez; B. Hurch; M. J. Kerejeta: *Materiales vascos del legado de Wilhelm von Humboldt: la relevancia de Astarloa y el* Plan de lenguas, in "Anuario del Seminario Julio de Urquijo" XLI-1, 2007, 1-28 or., etab.

155 Cfr. *L. Hervás y Panduro: División primitiva del tiempo entre los bascongados usada aún por ellos. Transcripción, introducción y notas por A. Astorgano Abajo (bertsio digitalizatua, in "Cervantes Virtual"* http://www.cervantesvirtual.com/servlet/SirveObras/12479513211225064643679/index.htm). Horren barnean ikus *"Apéndice II: Cartas de amigos vascos a Hervás, extraídas de la Biblioteca Nacional de Madrid, ms. 22996",* non jasotzen baita jesuita gaztelarraren eta bere euskal lagunen artean izandako gutun-trukea [http://www.cervantesvirtual.com/servlet/SirveObras/12479513211225064643679/p0000005.htm#I_47]. Hervásekin euskaldunek izan zuten harremanei dagokienez, ik., goian aipatu Astorganoren *sarrera* luze eta landuaz gain, Id.: *Hervás, la Bascongada y los lingüistas defensores del vascoiberismo, en el marco del fuerismo. Periodo 1783-1802*, in *Astarloa en el II centenario de la "Apología de la lengua bascongada" (1803-2003)*, Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, San Sebastián, 2003, 11-140 or.; Id.: *Hervás, apologista del eusquera como lengua primitiva de España en sus contextos fuerista y vascoiberista*, in *Archivo de Filología Aragonesa (=* R. M. Castañer; J. M. Enguita [ed.]: *In memoriam Manuel Alvar [1923-2001])*, 59-60, 2002-2004, 1 lib., Zaragoza 2005, 169-195 or. Oharraren buruan aipaturiko *División primitiva del tiempo...* agiria, eskuizkribaturik utzi zuen Hervásek, eta 1808. urtean datatzen da, Erroman, hain zuzen.

156 Itxura guztien arabera, Humboldtek Parisen ezagutu zuen D.-J. Garat, Frantziako hiriburura 1789an egin zuen bere lehen bidaian (B. Hurch: *El programa de recopilación vascológica de Wilhelm von Humboldt*, in RIEV 48/1, 2003, 73-90, zeh. 85 or.; Id.: *Das Baskische — Die baskische Abteilung*, in Id. [edit.]: *Wilhelm von Humboldt...*, 1-37, zeh. 10 or.; S. Leoné Puncel: *Euskal Herria* XIX. *Mendeko bidaia-liburuetan,* Alberdania-Irun 2008*,* 35 or.). Badirudi orduan hasi zela prusiar aristokrata euskara ikasten, izan ere, hamaika urte beranduago Parisera itzuli zenean, *lagatako ikasketei berriro* heldu behar izan ziela aitortzen baitu geroagoko agiri batean ("[...] nahm ich mein unterbrochenes Studium des Vaskischen wieder vor"). Garat eta Humboldtek Parisen izandako tratu goiztiar horien beste aztarren bat dateke Ch. A. Fischer-ek bere *Reise von Amsterdam über Madrid* obraren frantsesezko itzulpenean —euskarari buruzko prusiarraren laburbildua 1801eko Pariseko bertsio horretan erantsi izanaren harira, hain zuzen— eransten duena; izan ere, espresuki esaten baita bertan, euskarari buruzko bere lanak aitzinatze aldera, prusiarrak alde bateko zein besteko adituek eskaini argibideak baliatu izan zituela ("Ayant compulsé tout ce qui a été écrit concernant la langue basque, et profitant des lumières qui lui sont offertes sur cette matière, par *les savans tant Français qu'Espagnols de cette contrée...*" [*Voyage en Espagne, aux années 1797 et 1798,* 1. t., Paris: Duchesne et Leriche Libr., 1801, 140 or. <etzana nirea>]). Kontua da Humboldtek jende euskaldunarekin izandako lehen harreman goiztiar horien emaitza datekeela haren paperen artean aurkitu izan zen Garat-en artikuluaren alemanezko itzulpen bat, prusiarrak berak burutua noski (ik. K. Müller-Vollmer: *Die Vaskische Haupt- und Muttersprache. Zwei unveröffentliche Stücke aus Humboldts baskischen Arbeitsbüchern 1800-1801*, in P. Schmitter (ed.): *Multum - non multa? Studien zur "Einheit der Reflexion" im Werk Wilhelm von Humboldts. Mit der Edition zweier bisher unveröffentlichter Texte aus Humboldts Arbeitsbüchern*, Münster: Nodos Publikationen, 1991, 111-130, zeh. 116-121 or.). Dena den, ezin da baztertu Humboldtek lehenagotik ere ezagutu izana lapurtarraren izena eta beronen zenbait idazki; izan ere, Bordeleko gune akademikoetan nolabaiteko ospeaz gozatzera iritsi zen jada 1778. urteaz gero legelari lapurtarra, orduan hasi baitzen Frantziako hiriburuko tertulia eta agerkarietako bizitzan parte hartzen ("Mercure de France"n, 1778az geroztik zehazki; eta uste izatekoa da orduan suertatuko zela jada Panckouckek —hots, "Mercure" aldizkariaren ugazabak—

bere *Encyclopédie Méthodique* sonatua onik ateratzeko osatu zuen lantaldeko kide ere, artikulu idazle, alegia). Nolanahi ere, aditu baten esanetara, euskararekin zerikusia duena (*Baskologisches*) ez bide da hizpide Humboldt-ek Garat-ekin izan adiskide tratuaz eman azalpenetan ("[…] Baskologisches wird nicht zum Inhalt der Humboldtschen Aufzeichnungen über den freundschaftlichen Umgang der beiden") (sic, B. Hurch: *Das Baskische…*, 10 or.). Bestelako xehetasunak, I. Zabaleta-Gorrotxategi: *Wilhelm von Humboldts Forschungen über die Baskische Nation und Sprache und ihre Bedeutung für seine Anthropologie,* EHU-UPV: Argit. Zerb. [2007], 231 or.

157 Hainbat aldiz suertatzen da hizpide Ithurbide edo *d'Iturbide* hau, Humboldtek Euskal Herrian barrena egin ibilaldien harira (ik., adib., bere *Tagebuch der baskischen Reise* [1801], non, Baionaz mintzo dela, Iturbide *legelaria* izan zuela bertan lagun edo anfitrioi aitortzen baitu prusiarrak, D.-J. Garatek, Parisen, hala gomendaturik [in B. Hurch [edit.]: *Wilhelm von Humboldt…*, 267-351, zeh. 274 or.); ikus, halaber, bere "Liste von Kontaktpersonen im Baskenland", in B. Hurch [ed.]: *l. a.*, 366 or.; halaber, J. de Riezu: *Material Folklórico de la Collectánea Linguística de Humboldt. Canción del vino*, in "Boletín Sancho el Sabio", 1971, 91-115, eta bertan Humboldtek Ithurbideri esker Baionan jasotako kantuen zerrenda [*Durch Ithurbide in Bayonne erhaltene Gedichte*]). Ithurbide hau Dominique Garaten ordezkoa izan zen Uztaritzeko Auzitegian eta, Salvat Monhori sinestekotan, bere hautagaietako bat (D.-J. Garatekin bat), Parisen 1789ko maiatzean, ospatu beharreko États généraux edo Batzar Orokorretarako 3. estatuko ordezkari lapurtarrak aukeratu behar izan zirenean. Finean postua Garat 'zaharra'rentzat izan bazen ere (ik. *Garat Gaztenaren eta Ithurbidentzat* lerroburuko poema, in S. Monho: *Poèmes basques*, Klasikoen gordailua, 34 or.), ez zen, hargatik, itzali herriaren alde lan egiteko Ithurbideren grina, eta gerora ere gutxi-asko nahasturik ibiliko da urte zail haietako hainbat aferatan. Euskaraz moldatzen zela ere badakigu: euskaraz egin zuen bere hitzaldia, États généraux aipatuak prestatzeko asmoz, Lapurdiko Biltzarra elkartu zenean (ik. [J. Vinson]: *Pièces historiques de la période révolutionnaire,* Baiona: Jerôme, 1887, 17 or.); eta, Grégoire famatuari 1794ko ekainean idatzitako gutunean dioskunez, bera izan zen, Iraultzari zor zitzaion zenbait agiri euskaratu eta kaleratzeaz arduratu zen lehena; areago oraindik, aspalditik bide zuen esku artean Iraultzari buruzko katixima modukoren bat euskaraz prestatzea ("[…] le projet de composer en basque un cathéchisme élémentaire de la Révolution, dans lequel, développant successivement et dans une méthode facile ses causes et ses progrès, je la leur aurais comme inoculée". Zerbait lehenago, Iraultzaren harira sortutako agiriak euskaratzea proposatu zion bere herrikide Dominique-Joseph Garat ministroari —"printzipio berriak ezagutuak izan zitezen", noski (*pour la propagation des nouveaux principes*)—, *Amis de la Constitution* izeneko talde baionar batek apez bat proposatu zuelarik itzulpen lan hori burutze aldera (ik. M. Rica Esnaola: *Traduction en basque de termes politiques sous la revolution*, in ASJU 9/1, 1975, 30 or., iturritzat A. nat. AA 32 seinalatuz). 1794ko ekainean, *Izualdiak* Lectouren atxilotua zuela, Grégoire abade famatuari idatzi zion, euskaldunen kasuan —"devenus français par goût et par choix"— komeniko litzatekeen hizkuntz politika mintzagai: gutunean, euskara baliatzearen aldeko ageri da Iraultzaren helburu eta abantailak herri xumeari ezagutarazi artean; eskolaren egitekoa dateke, ordea, gerora begira, belaunaldi berriak Errepublikaren hizkuntza bakarra baino ez baliatzera prestatzea ("[…] la voie des traductions est la seule qui puisse mettre les lois à la portée des habitants de ces pays, et leur faire comprendre leurs droits et devoirs, tandis que l'institution des écoles préparera la génération future à ne parler que la langue de la République" (Ik. B. Oyharçabal: *Les documents recueillis lors des enquêtes linguistiques en Pays Basque durant la période révolutionnaire et le Premier Empire*, in J.B. Orpustan (édit.): *La révolution française dans l'histoire et la littérature basques du* XIX*ème siècle. Actes du colloque organisé par l'URA 1055 (CNRS) à Bayonne les 28 et 29 juin 1993*, Izpegi, Baigorri, 1994, 62-119, batik bat 64-71 or. + Annexe 1 (108-110 or.).

158 Humboldtekin izandako tratua, lehenik, zuzenekoa izan zen, honek 1801. urtean Donibane Lohizunen egindako egonaldian (ik. W. von Humboldt: *Tagebuch der baskischen Reise…., 277-279* eta 366 or.), eta gutun bidezkoa, gero (ik. A. Farinelli: *a. l.*; J. de Urquijo: *Les études basques: leur passé, leur état présent et leur avenir*, in RIEV 5/3, 1911, 563 or.). Kontu egin, hala ere, Aranzadik argitara emandako Humboldten aipatu obraren itzulpenean (RIEV 13, 1922, 614-58; 14, 1923, 205-250), *Ducos* idatzi ordez, *Dacos* idazten duela behin eta berriz, horrela agertzen baitzen, halaber, itzulpenerako Aranzadik hautatu Leitzmann-en edizio famatuan (ik. W. von Humboldt: *Gesammelte Schriften*. Ausgabe der Preußischen Akademie der Wissenschaften, hrsg. von A. Leitzmann, Berlin 1903–1936, XV t. [*Wilhelm von Humboldts Tagebücher*, Zweiter Band, 1799-1835], 1918, 356-450, zeh. 361-363 or.). Errepublikazale fina, Ducos hau, eta Donibane Lohizuneko auzapez 1790-1791. urteetan, baita Errepublika aldiko 5. urtean ere (P. Haristoy: *Saint-Jean-de-Luz et*

Ciboure..., 29-37 or., non jasotzen baiten Ducosen agintaldiari buruzko zenbait berri, haren *errepublikazaletasuna* eta Argien aldeko jarrera agerian uzte aldera). Espainiar Inkisizioaren artxiboetan aurkitutako paperen arabera, izan bide zuen zerikusirik Frantziako Iraultzari buruzko paperak Bergarako Errege Mintegira eta Samaniego eta Landetxo bilbotarraren eskuetara helarazteaz arduratzen zen sare batekin (ik. A. Paz y Melia: *Catálogo abreviado de Papeles de Inquisición*, in "Revista de Archivos, Bibliotecas y Museos" [Madrid] IX, Mayo-Junio 1915, n. 509; halaber, J. Gárate: *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel*, Bilbo, 1936, 19 or., non behar adina egiaztatu gabeko albiste batez hitz egiten baita). Izualdian, moderatuegi agertu izanagatik, susmagarri suertatu zitzaien muturreko *iraultzaileei* (1794ko otsailaren 12ko *Projet de taxe révolutionnaire sur les aristocrates et les égoistes* lerroburuko zerrenda batean agertu zen bere izena, hain zuzen [ik. P. Haristoy: *l. a.,* 54 or.]), eta herritik landa bizi behar izan zuen aldi batez, harik eta, egoera hoberuntz etorriz, udaletxera itzultzea izan zuen arte 1798an. Bertsoak ontzen ere bazekien Ducosek, eta bertso bidez erantzun nahi izan zien, antza, bere ibilbide politikoa, orduko legez, ahoz aho zebiltzan bertsotan kritikatu zutenei. Donibandarrak izan zuen traturik J.-D. Garat uztariztarrarekin (ik. W. von Humboldt: *Tagebuch der baskischen Reise [1801]*, in B. Hurch [ed.]: *Wilhelm von Humboldt*..., 267-351, zeh. 279 or.; A. Farinelli: *Une lettre inédite de Guillaume de Humboldt concernant son second voyage en Espagne*, in *Revue Hispanique* VI, 1889, 58-61 or.);

159 Ikus W. von Humboldt: *Die Vasken*, in B. Hurch (edit.): *Wilhelm von Humboldt*..., 103-264, zeh. 202 or.; Id.: *Tagebuch der baskischen Reise [1801]*, in B. Hurch [ed.]: *l. a*., 267-351, zeh., 307-309 or.; ik., halaber, "Liste von Kontaktpersonen im Baskenland", jasoa, eranskin bezala ["Beilage 2: Personenliste"], in B. Hurch [ed.]: *l. a.*, 364-67, zeh. 365 or. Ondo jabeturik ageri da prusiarra markesaren distira sozialaz eta Errege Elkartearen ibilbidean bete zuen egiteko garrantzizkoaz ("[…] eines der kenntnissvollsten und patriotisch gesinntesten Männer, die ich unter den Grossen in Spanien antraf", idatzi zuen Humboldtek *Die Vasken* obran [*a. e*., 202 or.]), eta miresmen puntu bat nabari zaio, bestalde, haren Gasteizko jauregian ikusterik izan zituen artelanei buruz mintzo denean.

160 Hainbat aldiz agertzen da *Murga* izena —Miguel Antonio Murga Andonaegi (1737-1820) aita mintzagai dela ("[…] aufgeklärte und edel Mann", semeei, pertsonalki, heziera bikain askoa bermatu ziena, W. von Humboldten esanetara [*Die Vasken*, in B. Hurch [ed.]: *Wilhelm von Humboldt*..., 174 or.]), edo, sarriago, hemen hizpide dugun berorren seme Jose Maria— prusiarrak Euskal Herrian barrena egin bidaiez utzi zizkigun agirietan; eta erantsi behar da prusiarrak sasoiko —bereziki Markina inguruko— euskarazale eta euskarologoekin harremanetan jartzeko baliatu izan zuen bitartekari garrantzizkoenetariko bat izan zela. Heziera landuko eta, bidaiei esker, ikusmira zabaleko gizaseme, Humboldten ustez, sozialki eta politikoki oso ondo kokatua, eta, horretaz gain, Elkarteko kide. Prusiarrarekin hemen izandako harremanei gutun bidez eman zien segida, hark Euskal Herria utzi eta gero (harira, J. Gárate: *Cinco cartas inéditas de Guillermo de Humboldt*, in RIEV XXV, 1934, 430-444, 622-639 or.). Haatik (eta kontuan izanik ere Murga honek, bidaiari prusiarra Mogel eta Astarloa bezalako euskaltzaleekin harremanetan jartze aldera egindakoa), ez dirudi euskara edo beronen etorkizuna zenik Markinatik bizitzera Bilbora aldatutako politiko honen kezka edo ardura nagusienetakoa. Bere herriko euskara "ilustratu" baten moduan ezagutu eta aztertzeko gai izan arren ("[…] un connaisseur éclairé et non pas un partisan aveugle de Votre dialecte", Humboldtek berak, Parisetik idatzi gutun batean, adierazten duenez [ik. J. Gárate: *Cinco cartas*..., 439 or.]), ez zen, honen iritziz, hizkera nazionalaz behar adina arduratzen —eginkizun garrantzizkoagorik zuelako agian, jarraian onartzen duenez ("Vous occupez trop peu de Votre langue nationale à ce qu'il m'a paru", izan ere, "Vous avez certainement des occupations plus importantes á suivre" [*Ibid.,* 440 or.])—; baina, kontua da letra klasikoetan hain jantzia zirudien markinarra ez zela Astarloa, Mogel, Humboldt eta enparauei hain gogoko zitzaizkien hizkuntza afera horietaz askorik arduratzen, 1801eko irailaren 24an, Bilbotik prusiarrari idatziriko gutunean, aditzera ematen duenez (bertan —ironia puntu batez, gure iduriko—, "cotejos de lenguas que son tan sabrosos a los Doctores de la Literatura Bascongada" ditu hizpide [*Ibid.,* 625 or.]). Azkenik, ez da hemen ahanztekoa Mogelek Murgarekin, zantzu guztien arabera, izan zuen tirabira, honen enkarguz, Humboldtek aukeratu autore klasikoen pasarteak abadeak euskaratu, eta Murgak itzulpenen tenorea kritikatu zuenean (ik. J. Gárate: *Cinco cartas*..., 622-624 or.]; izan ere, ez baita falta izan, *Peru Abarka*ko zenbait pasarte —hura, bereziki, non Mogelek, *Autua* titulupean liburuari erantsi zatian, disimulurik gabe salatzen baitu zenbait abade, fraide eta ugazaben euskararekiko ardura eza— ika-mika horien harira argitzen saiatu denik (F. Verástegui: *La RSBAP, W. von Humboldt y José María Murga. Una aproximación de la psicología a la historiografía política*, in RIEV 41, 2, 1996, 511-528, zeh. 516 or.). Hona, Murga *ilustratuak* Humboldti idatzi zion eskutitzeko zati

bat, Peru Abarkak irudikatzen zuen euskal unibertsoarekiko igorleak zuen enpatia eskasa nolabait agerian jartzen duena (J. Gárate: *Cinco cartas…*, 623 or.):
"Crea Vm. amigo mío que solo el aprecio que hago de su persona y de su amor a las Buenas letras, de que yo también siento de tarde en tarde alguna débil chispa, pudo haberme sujetado a tan desabrida tarea; pero al cabo molestado del temor de que mis notas fuesen ininteligibles, aburrido de conciliar Lenguas de índole tan opuesta como la Francesa y la Bascongada, horrorizado enfin si es permitido decirlo así de estropear con barbarie Vandalica el estilo de Ciceron y el idioma de Fenelon ni he tenido valor de concluir mi trabajo, ni aun de poner en limpio lo que ya tenía hecho, y así se lo envío a Vm. con borrones, con enmiendas, apenas legible, para que se asegure de que no me faltó deseo sino capacidad de servirle completamente."

161 Goi mailako bizkaitar aristokraziatik zetorren Elkartekide bilbotar hau Mazarredo almirante famatuaren iloba zen, eta kultura landukoa, itxura denez (hasiberritako txertu praktikarekin zerikusia zuen idatzi bat itzuli bide zuen frantsesetik, Humboldtek dioskunez). Horrez gain, honi lagungarri suertatu zitzaion Bilbon eta Bizkaian zehar ibili behar izan zuenean (ik. W. von Humboldt: *Die Vasken*, in B. Hurch (ed.): *Wilhelm von Humboldt…*, 174 or.; ik., orobat, "Liste von Kontaktpersonen im Baskenland", jasoa, eranskin bezala ["Beilage 2: Personenliste"], in B. Hurch [ed.]: *l. a*., 366 or.).

162 Arrasateko Juan de Leiza —euskaldun peto-petoa, antza ("el Bascongado" edo "vascongadísimo" gisa lagunen arteko gutun-trukean karakterizatua)— laguntza handikoa suertatu zitzaion L. Hervás-i, honek euskararen alorrean lanean ari ziren adituekin (Astarloa eta Mogelekin, adibidez) eta Bascongada Elkartean bildu zenbait handikirekin harremanetan jarri nahi izan zuenean; hainbesteraino, non, esker oneko izaki, izen eta guzti aipatzen baitzuen bere lan famatu baten atarikoan erantsi zuen euskal diputazioei zuzendu eskeintza testuan ("Dedicatoria a las tres nobilísimas provincias de vascongados españoles", in *Catálogo de las lenguas de las naciones conocidas y numeración, división y clases de éstas, según la diversidad de sus idiomas y dialectos*, *Vol. IV. Tratado III. Lenguas y naciones europeas. Parte II. Naciones europeas primitivas: sus lenguas matrices y dialectos de éstas.* Madrid 1804, zenbakitu gabeko orrialdea). Zernahi izanik ere gai honetaz esatekoa, egungo aditu batek garrantzizkotzat jotzen du Arrasatekoak euskararen unibertsoan ziharduten adituak (Hervás, Mogel, Astarloa…) elkarrekiko harremanetan jartze aldera bete zuen egitekoa ("gran muñidor del grupo de lingüistas implicados en la apologética de la lengua vasca" —A. M. Astorganok dioenez [*Hervás, la Bascongada…,* 33 or.]—).

163 Abadinora ezkondutako Campos hau (José Antonio de Campos y Vela, deitura osoz) gaztelarra zen jatorriz, Arabako Eltziego hiriarekin loturarik bazuen ere eta jaiotzez donostiarra izan (berak, nolanahi ere, *bascongado*tzat du bere burua, eta bere betekizuntzat ikusten "consagrar nuestro reconocimiento natural al obsequio de nuestra amorosa lengua bascongada […]" (honela, 1799ko maiatzaren 5ean izenpeturiko gutun batean (L. Hervás, *Cartas*, Biblioteca Nacional de Madrid, ms. 22996, 238-238v. ff.). Ezkontza bidez Muntxaraztarrekin ahaideturik, María Celia de Mendilibar eta Fanorekin ezkondu zen, eta Abadiñora etorri bizitzera, Traina-Matiena auzoan jauregi bat eraiki zuelarik. Diruduna behar zuen izan, eta lur sail zabalen jabe Abadiñon bertan XIX. mendea hastear. Lehen Karlistadan nahasturik apika, beste aldera jo eta debekatu egin omen zitzaion Espainiara itzultzea (J. de Ybarra y Bergé: *Escudos de Vizcaya. El Duranguesado*, San Sebastián, 1967, 81-83 or.). Zernahi delarik ere azken kontu honetaz, kultura jasoko pertsona gisa agertzen zaigu eta euskararen alorreko ikerketak aurrera eramaten laguntzeko prest zegoena, bera izanik, berezi-ki, Hervásen eta gure euskarologoen arteko harremanak bideratzeaz arduratzen zena. Eginkizun horretan, harreman hestuak izan zituen, besteak beste, Antonio Maria de Letona durangarrarekin.

164 Arrasaten jaiotako (1744) Manuel María Gaitán de Ayala y Andoin hainbat noblezia tituluren jabe izan zen bere bizitzan zehar (Sacro Romano Imperioko 9. *kondea, Villafranca* de *Gaytáneko* 8.*a, etab.*); eta, Bascongada Elkarteko bazkide izaki, halaber, hainbat egitekoren ardura egokitu zitzaion beronen baitan (Gipuzkoako *begirale* eta *konseilari,* adib. [ik. *Extractos*..., 1785, 9 or.; *Extractos*..., 1788, 10 or.; *Extractos*..., 1792, 18 or.]; edota 1787an, Elkarteak Bilbon ospaturiko Biltzar Orokorretan, buru gisa aritu behar izan zuen hainbat egunez, zuzendariak agertzerik izan ez zuelako). Bergaran bizi zela, Jovellanos bidaiariarekin luzaz hitz egiteko parada izan zuen 1797ko irailean, eta *ilustratu* asturiarrari esker dakigu oso interesaturik zegoela aspalditxo gainbeheran —eta Konbentzio gerra geroztik abandonaturik— aurkitzen zen Bergarako Mintegia lehengo egoerara edo mailara itzularazteko.

165 Jose de Iturriaga apaiza Bergarako ikastetxeko zuzendaria izan zen 1792-1799 urteen bitartean gutxienik, eta, A. M. de Letonak, 1799ko uztailaren 22an, Hervás-i idatzitako gutun batean aditzera ematen denez, euskarazko poemagintzan aritua bide zen (Hervás, *Cartas*, BNM, ms. 22996, 356-356v f. [aip. A. Astorgano: *Hervás, la Bascongada…,* 46. or.]). Ez dakigu gauza askorik, bestalde, abade azpeitiarraren lehenagoko bizi-gorabeherez (ik., halere, J. Gárate: *Guillermo de Humboldt. Diario del viaje a España. Octubre de 1799 a Abril de 1800. Parte vasca, traducida directamente por –– del t.* XV *de 'Gesammelte Schriften' [1918],* in RIEV 23, 1932, 46-66 or., zeh. 59), ezta, Konbentzio gerraz geroztiko Seminarioaren egoera tamalgarriari irtenbide eroso bat aurkitzeko asmoz, bere zuzendaritzaldian abian jarri edo bultzatu zituen balizko ekimen zehatzez; baina, nolanahikoak izan zirelarik ere aipatu ekimenok, eta frogatutzat emanik halaber, bestalde, azpeitiarraren prestutasuna bere zuzendari karguari zegozkion eskakizunei aurre egiteko, ez dirudi Bergarako Mintegian gauzak gehiegi aldatu zirenik: begira, honen harira, 1799ko udazkenean Bergara bisitatu zuen Humboldtengan Seminarioaren egoera ez oso distiratsuak sorrarazi zuen inpresio ilun edo gazi-geza (ik. J. Gárate: *Guillermo de Humboldt…,* 57-60 or.). Horrela hitz eginez, ez da, edonola ere, inondikan iradoki nahi azpeitiarrak bere egitekoa bete ez zuenik Bascongada Elkartearen eta Hervás-en arteko harremanak bideratze aldera; badakigu, jakin, gutxienik, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko beste zenbait goi-karguren antzera, Iturriagak biziki miresten zuela, nazioartean euskara ezagutarazteko, jesuita gaztelarrak egindako lana ("acreedor al eterno reconocimiento de todo buen bascongado" [ik. Hervás, Cartas, BNM, ms. 22996, 487-487v ff.]), eta uste izatekoa da euren arteko harreman-sarea ehuntze lan horretan ere berea emango zuela, susmatzen duenik baden arren Bascongada Elkartean bildutako zenbait handikik sasoian euskararekiko agertzen zuen atxikimendu hori euskara beraren mesedetan bainoago, ez ote zen euskara tresna politiko gisa baliatzera jotzen zuen Elkarte baitako talde foruzale eta integristeenaren mesedetan suertatzen (honela, lehen aipatu A. Astorgano: *Hervás, la Bascongada…,* 46 or.; Id.: *Hervás y los apologistas…,* 360-369 or.). Kontua da, lehenik ere gainbeheran amildu eta Konbentzio gerraz geroztik erabat itxitako Bergarako Seminarioan, zalantza eta tirabira askoren ondoren —izan ere, Arabako zenbait bazkidek abagunea baliatu nahi izango baitzuen Seminarioa Gasteizera eramateko…—, 1798ko urtarrilean berriz ateak ireki eta ikastaroak abian jartzea lortu zenean, Iturriagaren zuzendaritzaldiak (1798-1801) ez zuela aparteko aldaketarik ekarri ahal izan euskarari eman tratuari zegokionean. Pentsamolde liberalen eraginez, batik bat, periferiako foru berezitasunen kontra Madrilen nagusitzen ari zen giro politikoak, bederen, ez zuen horretan asko laguntzen; eta, aieruak aieru, eskura ditugun agiriek zera esaten digute garbi aski, Bergaran berriro abian jarritako ikastaroen kurrikulumetan, hain justu, ez zela euskara ezertarako aipatzen (ik. "Estado del Real Seminario Patriótico Bascongado instituido por los Amigos del País quanto al número de seminaristas, maestros, y clases de enseñanza en 1º de octubre de 1803, y sexto año de su segunda abertura", in J. I. Tellechea Idígoras: *El Real Seminario de Vergara y su director Lardizábal (1801-1804)*, in *Los antiguos centros docentes españoles. Comunicaciones presentadas en el pleno de la Asamblea celebrado en San Sebastián, los días 9 al 11 de diciembre de 1971*, S. Sebastián 1975, 43-88 or. [82-83 orrialdeen artean tolesturik erantsitako orri handi batean).

166 Durangoko Letona hau, aspalditik Bascongadako bazkide izandako Antonio Leonardo aitaren urratsei jarraiki (ik. J. I. Tellechea Idígoras: *La Ilustración vasca…*, 499 or.), Elkarteko kide izan zen, halaber, eta are Bergarako Seminarioko ikasle txikitatik (ik. A. Astorgano: *Hervás, la Bascongada…,* 75-78 oharrei dagokien testua). XIX. mendea hasi berritan, azkenik, Elkartearen nahiz Bergarako ikastetxearen geroaz arduraturik agertzen da behin edo berriz (ik. J. I. Tellechea: *El Real Seminario…,* 84-88 or. ["Proyecto de D. Antonio María de Letona. Objetos en que la Sociedad Bascongada puede ocuparse en las circunstancias presentes de sus escasos fondos"]). Durangoko letonatar hauek sasoiko oligarka peto-petoak bide ziren, batik bat Antonio Leonardo aita, beronen ibilbide biografikoa —eszenatoki politikoan gauzatu aldaketak nolanahikoak izanik ere, beti olatuaren erpinean eta aginpidean mantentzea asmatzen dutenen horietakoa— prototipikotzat jotzen delarik: honela, XIX. mendearen lehen laurdeneko espainiar historia tirabiratsuan, aginte karguak izan zituen batzuekin eta besteekin —Napoleonen, edota Fernando VII.aren zerbitzuan; Cádizeko Konstituzioaren aldekoekin, edota beronen kontrako agertu zirenekin—; baina, kontraesaneko badirudi ere, bere aukera foruzaleei ez zien inoiz uko egin (J. Fernández Sebastián: *La génesis del fuerismo. Prensa e ideas políticas en la crisis del Antiguo Régimen (País Vasco, 1750-1840)*, Madrid 1991, 171 or.). Beren portaeran, letonatarrok —Antonio Maria semea, bederen— *euskarazale* gisa agertzen dira; eta *euskarazaletasun* horren araberako ekimenak Bascongada Elkartearen baitan bultzatuz ageri da, hain justu, Antonio María XVIII. mendea amaitzear, partaide izatea lortzen duenean. Azterkizun da nola ulertu behar den *euskarazaletasun* hori une konkretu hartan (foru sistemaren aurkako eraso eta ekinaldiak puri-purian daudenean, hain zuzen,

Madrileko zirkulu politiko eta akademikoetan…), batik bat, euskararen aldeko ekimen horien bultzatzaileak gure letonatarren gisakoak direnean... Izan ere, ez baita arrazoirik falta susmatzeko euskaltzaletasun hori ez ote den hauentzat euskal *partikularismoari* (hots, euren gizarte egoera pribilegiozkoaren oinarri den euskal foru sistemari) eutsi beharretik sortzen den kezka edo ardura soila, jakitun direnez euskara dela, beronen apologistek jada aspaldi erdikusi zutenez eta Larramendi berak oraindik orain aldarrikatu, euskal partikularismoen edo independentzia ametsen azken funtsa eta bermea. Kontua da, XVIII. mendea amaitzear eta XIX. aren lehen urteak aurreruntz doazela, euskararen auzia eta berorri loturiko unibertsoa gero eta identifikatuagoak agertuko direla baserri munduan eta hiribildu txikietan jarrera atzerakoi eta integristak mantenduko dituzten elite taldeekin, Karlistaden garaian gertatuko dena aldez aurretik nolabait irudikatuz. Aipatu identifikazio prozesu horrek, ordea —ez dago esan beharrik—, biziki hipotekatuko ditu etorkizuneko euskararen garapen eta zoria, berau antigoaleko gauzatzat eta baserritarren eta ezjakinen hizkuntzatzat estigmatizatuz.

167 Ikus goraxeago Gratien J.-B. Ducos honi eskaini oharra.

168 Juan Bautista de Erro hau (1773-1854) Bergarako Seminarioko irakasle izandako Martin de Erroren semea zen, eta bertan ikasle gisa aldi batez egona (1791ko martxoaren 9an Bergaran izenpeturiko pare bat ziurtagiriz frogatua dago, edonola ere, bertan matematika eta marrazki ikasketak eginak zituela: ik. J. A. Casquero; M. A. Jaramillo: *Nuevas aportaciones documentales para la biografía de Juan Bautista Erro. El archivo del marquesado de Grox,* in *Sancho el Sabio*, 5, 1995, 339-358, zeh. 341 eta 344 or.). Ia ez dakigu ezer, ordea, Erro honek gerora Bascongadarekin izaniko harremanez (harremanik izan bazuen, Konbentzio gerraz geroztiko urte katramilatsu haietan). Kontua da, ikusirik nola pentsatzen zuen Errok, are zeintzuk izan ziren XIX. mendean zehar bere ibilbide politikoak (ik. J. A. García Noblejas: *Don Juan Bautista de Erro y Azpiroz, erudito, político y presidente de la Junta de Gobierno de la Mancha durante la Guerra de la Independencia*, in *Cuadernos De Estudios Manchegos***, Ciudad Real, 1982,** 57-68 or.), ez litzaigukeela batere arraro gertatuko Juan de Leiza, Jose Antonio de Campos, Manuel Maria Gaitán de Ayala edo Antonio Maria de Letona gisako mende bukaerako elkartekideekin bat eginik ikustea gure Juan Bautista —XVIII. mendea amaitzear edo XIX.a hasi berritan, Hervásen euskararen alorreko ikerlanekin interesaturik agertzen ziren haiekin, alegia—. Edo, J. A. Mogel bezala, tartea markatzen zekiten horietakoa ote, ikusirik gure elite taldearen konpromiso epela euskarari dagokionez? Nolanahi ere, ezin izango dugu hemen aipatu gabe utzi hainbat eztabaidari bide emango zion liburu bat idatzi zuela gure Errok (*Alfabeto de la lengua primitiva en España, y explicación de sus más antiguos monumentos de inscripciones y medallas,* Madrid: Impr. de Repullés 1806, 8-304) —non, euskoiberismoaren tesiei jarraiki, euskara, penintsulako jatorrizko eta lehendabiziko hizkuntza bezala ez ezik, Adanen eta bere oinordekoen eletzat ere aitortzen baitzuen, Babeleko nahasmendua gertatu arte—; eta urte horretan bertan J. A. Condek idatzitako *Censura crítica*-ri erantzun ziola (*Observaciones filosóficas en favor del alfabeto primitivo o respuesta apologética a la Censura crítica del Cura de Montuenga,* Pamplona, 1807), bertakoak direlarik euskaraz idatzitako honoko lerrook: *"Euscaldúnei osasuna eta zoriona.* Nere Erritar maiteac: Anciñatic onera guc eta gure asabac icusi badegu ere gure Euscara jaquintsua, eta esan alguztien gañean guretzat beti gozoa, aitz artetan bazterturic loac artua bezala, aurqui irazarriric eta mendi zuloac utziric mundu osoaren aurrean aguertucoda. Ez oraindaño bere caltean sinistatudan bezala, beste sortaldeco izquera uts aldiz betetacoen soñecoequiñ arrotuba, ezpada ere gure Eguille andiac guizonaren izatearequin batean emancizcan janci aberatsequiñ apainduba" (horrela, idazkiaren buruan, zenbakitu gabeko bi orrialdetan datorren euskarazko hitzaurre modukoan). Gauzak horrela, ez gaitu harritzen, 1823. urtean, *Hirurteko Liberala* igaro ostean…, Ordizian elkartu Gipuzkoako Foru Biltzarrek "Benemérito de la Patria" gure Juan Bautista izendatu izana, euskararen alde egindako lanarengatik.

169 *Peru Abarka,* "Prólogo al lector vizcaíno", 43 § (A. Arejitak paratu 1990eko edizioa, 48 or.): "[…] desde la época en que trabajaron y publicaron algunas obras los diestros bascongados Mendiburu, Cardaveraz y Larramendi, se nota más cultura en los sermones, y hay en guipuzcoano no pocos eclesiásticos, que han hecho un estudio serio del bascuence y que le hablan con gallardía. Pero en Vizcaya nada se ha cultivado y son rarísimos los que se han dedicado a estudiarlo en los libros vivos, que son las bocas de los rústicos".

170 Zenbait aieruzko zehaztapen kronologiaren aldetik, *Filosofo huskaldunaren ekheia* liburuaren 1983ko ediziorako Txomin Peillenek prestatu *Berrehun urtez ixilik* lerroburuko hitzaurrean (ik. J. Eguiateguy: *Lehen liburia edo Filosofo huskaldunaren ekheia*, Bilbo: Euskaltzaindia, 1983, 7-22, zeh. 17 or.).

171 "Hüskaldün ezpaninz, izan nahi nintzate; dakidalakoz dierri leiñarginagorik mündian eztela eziez enia" zioen, Larramendiren hizkuntz teorien jarraitzaile honek (sic, in *Filosofo huskaldunaren ekheia,* Berezita I Berthüdiaz, Peillenen edizioa, 1983) (harira, P. Urkizu: XVIII. *mendean Larramendiren* Hiztegi Hirukoitz*-ak iparraldeko zenbait idazlerengan duen eraginaz*, in J. A. Lakarra [ed.]: *Manuel Larramendi. Hirugarren mendeurrena, 1690-1990,* Andoain 1992, 313-324, zeh. 319-323 or.).

172 Ezer gutxi dakigu ziurrik Eguiateguyren bizitzari buruz, eguneroko ogia maisu edo *erregent* gisa —*collège* batean, agidanez— irabazten zuela salbu (zenbait aieruzko datu, in P. Urkizu: XVIII. *mendean…*, 320 or.). Baina, eskuizkribatua iritsi zaigun zuberotarraren euskarazko ekoizpenak jakin-min handiz jotako gizaseme ireki gisa salatzen du bera: Argien Mendeko filosofia eta izpiritua, hein batez bederen, bere egiten zuena, alde batetik, eta herri jakituriaren adierazpideak bildu eta artertzeaz arduratzen zena, bestetik. Baina, halaber, XVIII. mendean (eta Larramendiri esker, hein batean) euskaldunak bere autokontzientzian bizitzen ari ziren sendotze prozesuaren sintoma argia ere suertatzen da J. Eguiateguy Zuberoako bazter horietan, euskararen lehenaz eta geroaz arduraturik, eta filosofo eta humanisten artean ohiko eta arrunt ziren kezka eta gaiei bere jaioterriko hizkera goxoan bide emanez (ik. goian aipatu Txomin Peillen: *Berrehun urtez…*; Id.: *L'oeuvre du P. Larramendi S. J., cristallisation de mythes historiques et culturels basques,* in «Bulletin du Musée Basque» no 118, 1987, 151-166 or.; J. Goyhenetche: *Les basques et leur histoire. Mythes et réalités,* Donostia-Bayona 1993, berez. 139 or.).

173 Zaldun zuberotarraren bizitzaz zenbait datu in J. de Jaurgain: *Mémoires militaires du Chevalier de Béla, précédés d'une biographie par* ——, Bayonne: Lamaignère, 1896, 216 or.; ik., baita, J. Bilbao: *Eusko Bibliographia*, s. v. *Bela, Jean-Philippe*, 1. b., S. Sebastián 1970, 537 or.; Id.: *Ibid.,* 9. b. [*Supplementum 1961-1975*], s. v. *Bela, Jean-Philippe,* S. Sebastián 1980, 1 or., non ematen den beste zenbait berri bibliografiko gure zaldunari buruz. Orobat, P. Urkizu: XVIII. *mendean…*, 321-323 or. (Larramendiren *Hiztegi Hirukoitz*ak bereziki, Bélaren obran izan eragina aztergai). Baina, nire ustez, J. Goyhenetcheri zor diogu, Belaren *euskal nobleziari buruzko saiakera* orduko koordenatu ideologikoen karietara ulertu eta interpretatzeko saiorik argienetakoa (*Les basques et leur histoire…,* 96-106 or). Goyhenetcheren esanera, egia izanik ere gure zuberotarra dela *euskal herria* gai nagusitzat duen historia bat ontzen saiatzen den lehena —zazpi probintzia edo herrialdetan zatiturik ikusi izanagatik, antropologiak eta etnologiak lagundurik, *nazio bakar* bezala begietsi herri baten historia ontzeaz arduratzen den lehena, alegia—, ez da, haatik, ahaztu behar Belaren obran ageri den *nation* eta *patrie* hitzen erabilera usua ez dela inondikan ere euskal subirotasun baten aldeko aldarri edo errebindikazio gisa ulertu behar, baizik eta nobleziak (ez, *3. herenak…*) historikoki ordezkatu eta gidaturik mamituz ikusi nahi den euskal gizataldearen aldarrikapen gisa. Goyhenetcheren iritziz, "son écriture historiographique [Belarenak, alegia], avant d'être axée sur la définition d'une identité collective des Basques, a pour objet une redéfinition de l'identité sociale et historique de l'ordre nobiliaire auquel il appartient. En fait, dans la trame du récit de l'*Histoire des Basques* sont projetées les ambitions du groupe social de la noblesse" (*o. c.,* 101 or.); beraz, *neoforalismoak* berekotzat dituen xedeei erantzuten die Belak usu egin ohi duen euskal *herri* edo *nazioaren* aldarrikapenak, eta, hori egiterakoan, XVIII. mendeko filosofoek ohiko dituzten kontzeptu tresna berberez ("pluralité des voix", "démocratie", "les lumières de la raison"…) baliatzen da, garaiko beste autore batzuk (Boulainvilliers kondeak, adibidez), testuinguru desberdinak mintzagai dituztela, ziur aski, baliatzen diren bezala (Belak Sanadonen obran izan eraginaz, ik. hurrengo oharra).

174 B.-J.-B. Sanadon beneditarrak, ezaguna denez, euskaldunen nobleziari buruzko saiakera bat idatzi zuen, J.-Ph. de Bela zuberotarrak utzitako eskuizkribuez baliaturik (*Essai sur la noblesse des basques, pour servir d'introduction à l'histoire générale de ces peuples. Rédigé sur les mémoires d'un Militaire Basque par un ami de la nation*, Pau: J. P. Vignancour, 1785). Saiakeran garbi ematen da aditzera nola ulertzen zuen orduko *inteligentsia* edo *elite* zuzendariak, Larramendik eta iraganeko beste zenbait autorek egin urratsei jarraiki, euskarari loturik garatu ideologiak edo irudimen munduak —tubalismoarenak, euskoiberismoarenak, euskokantabrismoarenak...— bete zezakeen egiteko ordezkaezina euskal jatorriko herrialdeetan ohiko ziren gobernatze bereziek Estatu absolutisten aldetik jasaten ari ziren eraso gupidagabeak indargabetu eta, aldi berean, arbasoengandik ustez zetozen bizi ereduak bermatze aldera. Bibliografia ugari dago, eta aspalditik, honetaz guztiaz. Ikus, besteak beste, A. E. Mañaricua: *Historiografía de Vizcaya (desde Lope García de Salazar a Labayru)*, Bilbao 1971, berez. 143-165 or.; J. Caro Baroja: *Los vascos y la historia a través de Garibay (Ensayo de biografía antropológica)*, San Sebastián 1972; A. Otazu: *El "igualitarismo" vasco: mito y realidad,* S. Sebastián 1973; J. Juaristi: *Euskararen ideologiak (I),* S. Sebastián 1976; Id.: *La*

gnosis renacentista del euskera, in J. A. Lakarra; I. Ruiz Arzalluz (ed.): *Memoriae L. Mitxelena Magistri sacrum. Pars Prior,* Donostia 1991, 117-160 or.; Id.: *Vestigios de Babel. Para una arqueología de los nacionalismos españoles,* Madrid 1992; J. Aranzadi: *Milenarismo vasco. Edad de oro, etnia y nativismo,* Madrid 1981; X. Altzibar: *Euskaldunen nazio…,* 21-23 or.; J. Goyhenetche: *Les basques et leur histoire...*; K. Larrañaga: *El historiador A. d'Oihenart (1592-1667) y su tratamiento del tema de los orígenes vascos*, in *Vasconia* 24, 1996, 115-143; Id.: *Cantabrismo en Navarra,* in *Príncipe de Viana* 59, 1998, 447-479. Etab. Sanadonen bizitza gorabeherei zehazki dagokienez, ik. s. v. *Sanadon* in *Enciclopedia Auñamendi*, vol. XLIII, 1996 [= http://www.euskomedia.org/aunamendi/114191]. Sanadonen euskal historia lantzeko eraz (eta bertan, neoforalismoaren xedeak bermatze aldera, nabari diren ideologia eta kultura mailako morrontza edo baldintzapenez), J. Goyhenetche: *a. l.,* 106-119 or.

175 Eguiateguy beraren aitorpena, *Filosofo huskaldunaren ekheia* liburuari erantsi "Hitzauria"n: "Ehünetan entzünik gaude, hüskaratik lankhei honik sorth'eztaitekiala; badaite othoitze libürü txar zonbaitek diela sinheste hori sorthü ta gogortü, bena izanik ere botxia beno gogorrago, mardotüko dügüla, düt sinhestia: hartakoz mintzo haren ohoriaren gatik, lümari niz heben lothü; ez gorrer entzüneraziz nahian, ez etare ütsüer ikhüseraziz egarrian senthagailla hek eztaoteke niri; bena bai egiari zor düdan eginbidiaz düt lan hau besarkatü, fidantzan düdala ager jarriren, hüskara zertan nahi hitz arrotzetzaz paira dateikiala. Gauza berrietan ere, berze mintzoek bezala, beraren izairiatik hüskaldün ükhüdian izenak arozta litiriola. […]" (ed. Peillen, 1983).

176 Aipatzen dira: 1) *Filosofo huskaldunaren ekheia*; 2) *Mundiren Berritzias Mosdé Etcheberriren Gogomenac* (BNP, Fonds Celts et Basques, MS nº 154); eta 3) *Oharkerak*, *esangiak eta bibetak Jussef Eguiateguic Suberoan errejent zenak bildu dutianac* (BNP, Fonds Celts et Basques, MS nº 154ª). Honela zioen, bere osoan, lehenaren goiburuak: *Lehen liburia edo filosofo huskaldunaren ekheia, Juseff Eguiatéguy Suberoan Erregent denaren obra,* eta ez zen, guk dakigunez, sasoi hartan argitaratua izan, Omont katalogoko hitz batzuek ("Copié sur l' éd. Francfort 1785 XIXe siècle" [sic]) zenbait aditu bestela pentsatzera bultzatu badute ere (A. Arcocha-Scarcia: *Eguiatéguy, lecteur de Ioannes Etcheberri de Ciboure*, in *Lapurdum* IX, 2004, 49-66*,* 8-9 oharren arteko testua). Euskararekiko Eguiateguyk erakutsi atxikimendu bereziaz, ikus Junes Casenave-Harigile: *Jusef Eguiategui,* in *Euskera* 26/2, 1981, 699-706.

177 Eguiateguy berak erantsi oharra, baliatzerik izan zuen Oihenarteren zenbait obraren harira: "Il [Oihenartek] avait laissé quantité de manuscrits […]. Il subsiste encore de lui un petit Livre imprimé en partie a Paris, et l'autre a Pau, qui traite des proverbes que nous venons de rapporter, on y trouve aussi deux chapitres; dans le premier il parle de sa jeunesse, et dans le second de sa vieillesse. Ouvrage dont le but a été demontré que le genie de la Langue basque sous une plume telle que la sienne, est capable de la Poésie la plus élégante" [azpimarra, gurea] (A. Arcocha-Scarciak dioenez [ik. *Eguiatéguy, lecteur de Ioannes Etcheberri de Ciboure*, in *Lapurdum* IX, 2004, 49-66, zeh. 5. oh.], testua aurkitzen da in BNF, FCB [= Fonds Celtique et Basque] nº 154: *Adiérazoa-Avertissement*, 23-25, zeh. 24 fol.). Eta bere ama-hizkuntzaren edertasun ahal hori nabari argitan jartze aldera, *Filosofo huskaldunaren ekheia* obraren atarian *Hamalaurduna Irakurtzaleri* izeneko *soneto* bat eransten du. Ikus baita, honen harira, Tx. Peillen: *Jüsef Egiategiren tropoak*, in *Jean Haritschelhar-i omenaldia*, Bilbo: Euskaltzaindia 2008 (IKER 21), 523-545 or.

178 Dominique anaia zaharrenak ez zuen Dominique-Joseph anaia gaztearen famaz gozatu Iraultza egunetako Parisen, baina, edonola ere, ibilbide akademiko distiratsuko eta kultura jaso eta zabaleko gizaseme agertzen zaigu *Argien* Frantzian. Eta, Lapurdiko hautetsi bezala, Parisen egon zen, noski, anaia gaztearekin batera, lehenengoz, ospetsu bihurtuko zen Versailles-ko *Jeu de Paume* edo pilotalekuan, zorioneko *zina* ematen; eta, geroago, *Konstituzio* iraultzaile berria abian jarri zuen Batzarraren eztabaida tirabiratsuetan, hura onartua izan zen arte. Honetaz guztiaz, ik. J. Goyhenetche: *Dominique Garat: un représentant de l'esprit des Lumières en Labourd au* XVIIIe *siècle*", in J.-B. Orpustan [koord.]: *1789 et les Basques...*, 53-61 [= *Dominique Garat: Modelo de Ilustracion en Laburdi en el siglo* XVIII, in X. Palacios (ed.): *Ilustración y Revolución Francesa en el País Vasco*, Vitoria-Gasteiz: Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua, 1991, 31-40]; Id.: *Des frères Garat à Dominique Garat: Lengoia berri bat,* in "Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía" 19, 1992, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 97-161 or.; Id.: *Les basques et leur histoire...*, berez 142; 230-232 or. (hainbatetan nahasi egiten dela ematen du, anaia bien ekarpenak hizpide dituela).

179 Gorabehera askoko bizialdia izan zuen Garat honek (ik. M. Duhart: *Dominique-Joseph Garat [1749-1823]*, Bayonne: Musée Basque 1993 [="Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayon–ne", 148, 1992/1993, 89-306 or.]; Idem: *Moi, Dominique-Joseph Garat: homme des lumières et patriote basque*, Biarritz: Atlantica 1998). Euskal herriaz eta euskaraz zuen ikuspegiez, ikus J. Goyhenetche: *Les Basques et leur histoire...,* 142-147 or.; J. Casenave: *D. J. Garat-en Lettre sur Bayonne et sur les Basques 'Mercure de France' aldizkarian (1783-02-08)*, in *Lapurdum* 9, 2004, 97-116 or. (Casenaveren ustez [*l. a.,* «Bururapena» izeneko amaiera atalean], Garat honek "mitologizatze […] une berri batean sar arazten" du *euskal auzia* —"Argien garaiko antropologia eta filosofiaren ildotik abiatuz", noski—, eta berak abian jarritako eredu berriak izango bide du jarraipen eta ondoriorik XIX. mendean, Xahoren izena datorkiolarik zehazki burura). Ikus 63. oharrean zenbait zehaztapen Garat honek Humboldtekin izandako harremanaz; bertan, halaber, datu batzuk "Mercure de France"n eta Panckoucke-n *Encyclopédie Méthodique* entzutetsuan artikulugile gisa uztariztarrak izandako parte-hartzeaz. Salvat Mohnoren poemagintzan utzi zuen hark zantzurik: ikus *Garat Gaztenaren eta Ithurbidentzat* (hots, Frantziako Luis XVI.ak Versailles-erako deitu Biltzar edo Estatu Orokorretarako ordezkariak esleitze aldera, Lapurdin hautagai desberdinen aldeko kanpainak antolatu, eta S. Mohnok Ithurbide eta Garat gaztearen alde egin zuenekoa [jas. in A. Zavala: *Frantzia'ko Iraultza eta Konbentzioko Gerra bertsotan***,** Donostia 1989, 33 or.]); eta *Garatek erregeri hiltzeko arrasta irakurtu ondoan* (hots, Dantonen ostean Justizia ministro bilakatu Garatek Luis *Kapeto*ren kontra Konbentzioak hartu heriotz ebazpenaren berri errege ohiari jakinarazi zionekoa [jas. in A. Zavala: *l. a*., 105 or.).

180 "Le Moniteur universel" egunkariak edo Buchez-en liburuak (B. J. M. Buchez; P. C. Roux: *Histoire parlementaire de la Révolution française, ou journal des Assemblées nationales depuis 1789 jusqu'en 1815,* Paris, 1834-1838, 2. t.) jasotako *Assemblée* Nazionaleko bileretako *compte rendu* edo txostenetan aurki daitezke Garat anaien parte-hartzeei buruzko erreferentzia eta testuak. Erantsi behar da *compte-rendu* horiek sarritan ekitaldi ofizialetako *procès-verbaux* direlakoen itxura guztia dutela, batik bat "Le Moniteur"-en kasuan. Esan, azkenik, testuok aurki ditzakegula in J. Goyhenetche: *Des frères Garat...*, 97-161, zeh. 136-161 or.

181 Aurreko oharrean aipatu bibliografian aurki daitezke bi anaiak, *departamentu banaketa* eztabaidagai, *Assemblée* Nazionaleko biltzarretan *euskarari* buruz egindako aipuak. D.-J. gaztea, bestalde, behin baino gehiagotan arduratu zen euskal nazioaz eta euskaraz sasoi hartako prentsan: honela, "Mercure de France" famatuan, euskara eta euskaldunen pentsamolde eta sentipenen mundua estuki elkarrekin lotzen zitueneko saiakera bat eman zuen prentsara 1783ko otsailaren 8ko alean, "Lettre sur Bayonne et sur les Basques" idazpurutzat zuen testua, alegia, W. von Humboldten arreta erakarri eta beronen alemanezko itzulpena ere merezi izan zuena (jasoa in J. Casenave: *D. J. Garat-en* Lettre..., zeh. 112-114 or.). Urteak aurrera, behin baino gehiagotan utzi zuen agerian —gutxi-asko hausnartu eta landu ostean, argitaratu gabe utzitako euskal historiari buruzko idazkietan— euskararekiko zuen ardura eta kezka. Horien artean, aipa dezakegu hemen, 1808an, Napoleonen begiko Savary jeneralari aurkeztu txostena (*Exposé succinct d'un projet de réunion de quelques cantons de l'Espagne et de la France dans la vue de rendre plus facile la soumission de l'Espagne et la création d'une marine puissante*), non, jarraian hizpide dugun 1811ko testuan garatu arrazoi eta ideia berberak argudiatuz, euskal herriak bizpahiru barrutitan biltzeko proposamena egiten baitzuen, nazio honi aitortzen zaizkion ahal guztiak —itsas arloan, bereziki— hobeto gara ditzan. Baina agiri guztien artean, 1811n Napoleon I.ari zuzendu txostenak erakarri du gehien adituen ardura (jasoa in J. Casenave: *Dominique-Joseph Garat: Recherches sur le peuple primitif de l'Espagne; sur les révolutions de cette péninsule; sur les Basques espagnols et français. Rapport établi en 1811 pour Napoléon Ier*, in "Lapurdum» XI, 2006, 69-135 [http://lapurdum.revues.org/309#bodyftn134]). Bertan, korsikarraren gerra-ekintzen poderioz harrigarri handitutako *inperio* frantziarra modu eraginkorragoan berrantolatu beharraz Hexagonoan haizatu iritzien eta esamesen kariaz, arestian berak amestu *Fenizia Berria* Napoleonen itzalean eta inperio frantziarraren zerbitzuan gauzatzea proposatzen zuen, Pirinio mendien alde batean zein bestean euskarari lotu herrialdeak administrazio egitura berean bilduz, alegia. Begira, ordea, nola ikusten zuen uztariztarrak, euskal jatorriei buruzko ohiko kontakizuna Court de Gébélin eta beste primitibisten ukituarekin apainduz, euskararen egitekoa *Fenizia* berri horren bizitzan:

"Jusqu'à nos jours ils ne l'ont pas conservée [euskara, alegia] qu'en la parlant; il faut qu'ils la conservent en la parlant, en l'écrivant, en l'étudiant, en l'enrichissant d'expressions et d'idées nées dans son propre sein. Elle mérite tous les soins: si dans son état actuel elle est peu propre aux Sciences modernes, elle est extrêmement propre au bon sens qui a ses progrès comme les sciences; genre de progrès bien plus nécessaire à la stabilité des Empires et au bonheur des hommes. […] La langue d'un peuple Simple qui ne s'est mêlé à aucun autre

peuple, qui n'a connu ni la grandeur ni la décadence, ni la délicatesse recherchée ni la corruption du gout et des arts, même après un long cours de siécles, est comme une langue naissante. — Si elle est née heureusement, quoique restée très pauvre, elle pourra connoitre la beauté et la grâce de l'expression; elle pourra avoir des constructions élégantes et hardies, de la précision et du nombre. La nature a pu la douer, sans effort, de quelques uns de ces heureux attributs qu'une longue succession de Poëtes, orateurs et de philosophes donne ailleurs, mais rarement, aux Patois devenus langues savantes. — Avant le seizième et le dixseptième siécles on ne parloit en Europe que des Patois: la langue des Basques a toujours été, non pas une langue naissante, mais une langue réstée comme elle est née, une langue de la Nature […]. — Il seroit difficile de dénombrer tous les avantages qu'on sera sur de recueillir en faisant d'une telle langue le principal enseignement de toutes les écoles primaires et de tous les Lycées des Départemens formés par la réunion de tous les cantons basques de la France et de l'Espagne. — D'abord ainsi que je l'ai déjà dit, si le caractère de ces peuples a si fidellement gardé le dépot de leur langue, leur langue à son tour conservera leur caractère, ce caractère sur le quel on fonde plus d'une espérance. — L'Enseignement des langues anciennes nécessaires au Sacerdoce et à d'autres états y auroit des Succès bien plus prompts et plus universels si, au lieu de mettre dans les mains des enfans basques des Rudimens et des dictionnaires latins-françois, on y mettoit des dictionnaires et des Rudimens basques-latins; si on les faisoit aller non pas de l'inconnu à l'inconnu, mais de ce qu'ils connoitroient très bien à ce qui auroit avec ce connu plus de rapports et de ressemblances. Or il est certain que le basque et le Latin, langues à inversions hardies toutes les deux, se ressemblent beaucoup plus que le basque, qui a tant d'inversions, et le françois, qui en a si peu. Quand le françois est la langue qu'un basque veut apprendre, il semble que pour lui, le plus court est d'aller du basque au françois, et que s'il passe par le Latin il allonge le chemin ; il l'allonge, en effet, mais il le rend plus beau et bien plus facile et même, je le crois, plus court pour le temps. Placé entre le basque et le françois le latin est à la fois comme un dictionnaire et une grammaire très propre à expliquer le françois au basque et le basque au françois" (*l. a.,* zeh. "Troisieme partie: De la réunion des Basques espagnols et françois en deux ou trois départements de l'empire: de leur destination exclusive au service de la mer. De l'enseignement de leur langue dans leurs écoles et dans leurs lycées" idazpuruko atalean). Dominique "Zaharra" ere, bere aldetik, euskararen alde agertzen da behin edo berriz, Paris utzi ondoan, Uztaritzeko udal administraritzan ari dela: honela, 1796ko martxoan, eskola berriro abian jarri behar zela eta maisu bat hautatu beharrez, udal kontseiluak, Garatekin bat eginez, hautagaia ongi aztertu behar zela ebatzi zuen, eta, azterketarako, galdera sorta bat proposatu, artean bat, euskara eta *frantsesa* ongi jakin beharraren garrantzia azpimarratzen zuena (ik. M. Duhart: *Ustaritz au temps...,* 75-78 or.); halaber, 1796ko uztailaren 18an Iraultza ospatzeko asmoz antolatu zen festan, Garat izan zen hitzaldi luze bat euskaraz eman zuena, laborantzaren onurak eta armada iraultzailearen garaipenak goretsiz (*l. a.,* 79-81 or.). Edonola ere, ezin da hemen isildu B. Oyharçabal bezalako aditu batek Garat anaiek eta enparauek bultzatu ekimen euskarazaleak izan zuen emaitza eskasaz idatzitakoa: "Le mouvement intellectuel bascophile et favorable aux idées nouvelles que purent représenter par exemple les frères Garat ne déboucha sur rien, et l'idée de bilinguisme, parfois évoquée à propos de la réalisation de traductions des textes révolutionnaires, outre qu'elle fut conçue chez certains de ses promoteurs comme un instrument à fonctionnalité double d'acculturation et de déculturation linguistique, resta lettre morte en Pays Basque" (*Statut et évolution*..., 118).

[182] Bixenta Mogelen ibilbide biografiko berezia (Azkoitia, 1782 – Abanto, 1854) garaiko testuinguru historiko eta literarioan kokatu, eta, aldi berean, euskara literatur egitekoetarako trebatzeko asmoz —hots, euskarazko literatura kultu bat abian jartzeko edo garatzeko asmoz— Bixentak eginiko ekarpena baloratze aldera, ikus, besteak beste, X. Altzibar: *Bizenta Antonia Mogelen biziaz eta lanaz zenbait argibide*, in "Euskera" 17, 1982, 457-496 or.; M. J. Olaziregi: *Bizenta Moguel [1782-1854], edo euskal tradizio literario androzentrikoa pitzatu zenekoa*, in *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak* XXI. *mendearen atarian [2001, Bilbo, Baiona]*, Bilbao: Euskaltzaindia, Iker 14, 2003, 203-221 or. Bi hauetan aurkituko da aipaturik beste zenbait ikerlan.

[183] Azkoitian lehenik eta gero Markinan osagile izandako Bixentaren aita Juan Ignaciok eta Juan Antonio osabak harreman zuzena izan zuten, ez munibetarrekin soilik, baita Bascongada Errege Elkartearekin ere (lehengoari buruz, ik. *Extractos* 1773, 77 or.; item *Estatutos aprobados por S. M. para gobierno de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País,* Vitoria, <s. d. [1774]> 160 or., non Juan Ignacio aita agertzen baita jada bazkide gisa 1773. urteaz gero; ikus aurreko oharrean aipatu dugun X. Altzibaren lana ere, 457 or.). Zehaztu beharko litzateke, nolanahi ere, zenbaterainokoa den Bixenta berarena (eta ez, Markinan maisu eta babesle gisa hark hainbat urtez aldemenean izandako osaba Juan Antoniorena), iloba gazteari egotzi izan zaion literatur ekoizpena (ikus, besteak beste, X. Altzibar: *a. l.,* batik bat 461-467 or.).

184 *Ipui onac: ceintzuetan arquituco dituzten euscaldun necazari, ta gazte guciac eracaste ederrac beren vicitza zucentzeco. Ematen ditu euscaráz arguitará ume eta necazarientzat Vicenta Antonia Moguel eta Elguezabalec,* Donostia: 1804 (Antonio Undiano), 114 or.

185 "Ipuiac itz neurtu, edo verso euskarazcoan" goiburutzat duen atalean, Bixentak *Adigarria* lerroburuko ohartxo bat eransten du, eta bertan, euskararen alde egin beharreko lanaz ari dela, F. M. de Samaniego eta Ibáñez de la Renteria elkartekide ipuingileak ditu hizpide, eta nabarmen aditzera ematen du euskarazko literatur ekoizpena ez baldin bada beste zenbait hizkuntzen maila edo dotoreziakoa, hori ez dela euskara beraren errua; bertakoak izan arren, euskara, aipatuek bezala, erabiltzen ez dutenena baino: "Gure Euskara ez dala egiña lauki, edo zortziko batzuetarako bazik, esango dute ez gutxik. Jasoko dituzte Erdarak zeruraño, azpiratzeko Itzkera etxekoa. Samaniego, ta Renteria Jaunak ots egiten dute, ipuiak berso, edo itz neurtuetan, ta Gaztelarren itzkuntzan argira emanaz. Nork, diote gero, euskarara ezarri, ta anbeste berso gisatan, ipuiak? Aitu diot zerbait dakianari, Samaniego ta Renteriak jakin izan balute Erdera bezein ondo gure Euskera, gatz oraindikan obea idukiko zutela beren ipui-bersodunak. Gauza oetan itzak ugariagoak dituela gure itzkerak gaztelarrenak baño. Bestetik, gure itzak badituzte otsidakoak (*consonantes*) ta abere kontuak ondo ezagunak dira gure Baserri, ta mendietan. Ez da gaitza igartea, zertan dagoan gure Poesia, edo bersogintzen laburtasuna. Dago bada bururik nekatu ez dalako; oitu ez diralako Euskaldunak zortziko, ta laukoetara baizik. Ai baleude aitatu ditudan bezelako jakitunak, Samaniego ta Renteria Euskaldun euskarara eman batzuek! Beste egunik ekusiko luke gure Poesiak, edo bersogintzak […]". Baina, hori guztia aintzat hartuta ere, autoreek ez dute zalantzarik XIX. mendea hasi ondoan argitaratutako Bixentaren lana *neoklasizismo berankor baten azken emaitza* bezala sailkatzerakoan (ik. Ur Apalategi: *Heziketa literarioaren…*, zeh. 44 or.; item M. J. Olaziregi: *Bizenta Moguel …,* 217-19 or.). Hain garbi ikusten ez duguna zera da, zenbateraino suertatzen diren aplikagarri *Ipui onac*en kasuan, didaktismo neoklasikoari, oro har, egozten zaizkion paradigma eta jokaerak: elite *ilustratuaren* jarrera *paternalista,* adibidez, suertatzen da bertan hizpide, berau, Bixentaren kasuan, *paternalismo inkon[s]ziente* bat baino ez balitzateke ere, diotenez; halaber, *kutsu didaktiko eta moralizatzailea* sumatzen da *Ipui onac*en kasuan, XIX. mendea hasi berritan espero behar zena, nolanahi ere; (Apalategi: *Ib.*). Bixentarengandik neronek nekez esperoko nuena, zera zatekeen: haurtzaroan guraso eta herritarrengandik jasotako *ipuin arinak,* geroxeago hark "oker eta zatar", "farragarri eta sustrai gabeak" bezala gutxietsi izana —kultura gabeko herri analfabeto baten produktua bailiren, azken finean—, Apalategik iradokitzen duenez. Baina, nolanahi ere, Bixentarenak dira honoko hitzok: "Aitu diot ondo dakian bati, Ipui oek izango dirala guziz onak aztuerazotzeko Nekazarien etxeetatik Ipui oker, ta zatarrak, nola sagar ederrak, ta diru berdiñean saltzen daudenean, baztertu ta saldu ezinda gelditzen diran sagar miñ ta motelak. Nork txori gerezi txatarrai begiratzen dioe dauzkanean eskubatera gerezi anpollak?" (*Ipui onac*, "Iracurle euscaldunari").

186 Ikusten da baserri mundua begiko zuela Bixentak, baina ez berau eta *primitibotasun* edo antzinatasunean funtsatu beroni asimilatu balio sistema berreskuratu beharreko helburutzat zituelako, benetako erromantikoen antzera. "[…] Bizenta Mogelek ez du logika erromantikoaurrea bururaino eramaten eta nekazariari txera berezia erakusten badio jarraitzen du hezkuntza morala goitik beherako prozesu sozial gisa ikusten" (ik. Ur Apalategi: *Ibid.*). Hots, edukazioaren xede eta nondik norakoak markatzea eliteko klaseei zegokien, inondik ere ez *salbai* primitibo edo kultura gabeko *baserrikoei*, zenbait erromantikok besterik esango badu ere.

187 Ikus J. Eguiateguy: *Lehen liburia…*, 21 eta 26 or.

188 Ikus, adibidez, *Estatutos de la Sociedad Bascongada de los Amigos del país, según el Acuerdo de sus Juntas de Vitoria, por Abril de 1765*, S. Sebastián, [s. d. >1766], 8 or.).

189 Ikus X. Altzibar: *Euskara adiskideen…*, 1127-1131 or.; K. Larrañaga: *Las manifestaciones…*, 91-94 or. (testu bera, funtsean, baina euskaraz, in Id.: *Euskal egitate…*, zeh. 76-81 or.).

190 Ezin izango diegu *motibazio zientifiko* hori ukatu Elkartean, Aizpitarterekin bat, Campomanes baten esanera hiztegiaren ekimen hori aurrera eramaten saiatu zirenei. Hori frogatzeko, ikusi besterik ez dago 1781eko *Extractos*etan (89-105 or.) argitara emandako *Ynstrucción para la formación de un Diccionario de la lengua bascongada* (= K. Mitxelena: *El diccionario vasco proyectado por la Real Sociedad*

Bascongada de Amigos del País y la obra de José Maria de Aizpitarte, in *Colección de documentos inéditos para la historia de Guipúzcoa,* 6. zenb., San Sebastian 1966, 99-114), eta hemen aipatu dugun Mitxelenaren lanean biltzen den beste zenbait agiri (bereziki, *Plan que se propone Aizpitarte adoptar en la execucion del Diccionario Bascongado* [117 or.]*,* eta *Memorial de Aizpitarte a la Sociedad* [119-121 or.], biak ere, hark Peñaflorida kondeari zuzendutako pare bat eskutitz bezala [*o. c.,* 115 eta 123 or.], 1782-1784 urteen bitartean datatzen direnak). Ikus, bestalde, gai honen harira 64. oharrean aipagai diren M. T. Echenique Elizondoren eta E. Knörren lanak.

191 Apologietako aldarri sutsuenak gorabehera, zerbait agertzen da oso argi testuetan, Bascongada Errege Elkarteak euskarari ematen zion tratuari dagokionean: berau bigarren mailakotzat edo tresnatzat hartzen zuela, hain zuzen —ez, eliteko edo gizarte-talde ospetsuetako hizkuntza gisa—. Hona, nola laburbiltzen duen afera B. Oyharçabalek (*Statut…*, 108 par.): «[…] lorsque l'on examine de plus près comment cet attachement [Elkartearena] à la langue se concrétise dans des projets relatifs au développement de l'éducation, on constate qu'il n'est suivi d'aucun effet, et qu'*aucune remise en cause réelle du statut social de la langue n'est à l'ordre du jour* [letra etzanaren erabilera nirea da] Compte tenu des idées des membres de la société concernant l'importance de l'instruction et l'enseignement des langues, on aurait attendu que la bascophilie des membres de la RSBAP transparût dans les programmes de la société dans le domaine de l'éducation; or ce ne fut pas le cas". Eta aurrerago (113 par.): "[…] le renouvellement et la modernisation apportés en matière d'enseignement par la RSBAP ne profitèrent en rien à la langue basque, qui demeura pour la société un objet d'étude (voire, durant les premières années, d'exercice littéraire), mais qui ne put franchir les portes de l'école,où elle continua d'être interdite et objet de pratiques vexatoires comme celle du signal. Il est symptomatique qu'en 1775, lorsque fut présenté le projet d'une école patriotique de niveau secondaire tout à fait novatrice car orientée vers le *bien social* et non plus vers le seul enseignement général comme dans les collèges et les séminaires, il était prévu outre l'enseignement de l'orthographe et de la grammaire espagnoles et du déchiffrage des lettres anciennes, l'apprentissage des langues suivantes: latin, français, italien, anglais, allemand. Aucune place par conséquent n'était faite au basque pour cette école qui devait être créée au cœur du Pays Basque occidental, à Vergara". Eta idazlanaren amaieran (118 par.): «[…] La naissance et le développement d'un mouvement de rénovation intellectuelle telle que celui représenté par la RSBAP aurait pu offrir une occasion de sortir la langue du carcan dans lequel les rapports diglossiques la tenaient enfermée depuis plusieurs siècles. Mais si la question put se poser, la réponse fut à nouveau négative. S'il est probable que l'attitude agressive en matière linguistique de la part du pouvoir royal dans le dernier tiers du siècle ne favorisa pas un tel changement, il semble également que l'élan social qui eût été nécessaire pour entraîner une telle modification des rapports diglossiques ne fut jamais suffisamment vigoureux. L'analyse lucide d'Eguino concernant la situation sociale de la langue basque n'eut guère d'échos, sinon négatifs comme nous l'avons vu, parmi ses collègues de la société, et lui-même se contenta par la suite de promouvoir des thèses historiques de Larramendi. En fait, ce qui se jouait alors dans les provinces ibériques ne faisait que préfigurer ce qui advint deux décennies plus tard dans les provinces aquitaines lors de la Révolution" (testuan aipatutako Eginoren afera argitze aldera, ik. X. Altzibar: *Euskara…,* 1120 or.). P. Bidartek, berdintsu, hizkuntzen afera bi ideia nagusien harira mamituz ikusten du Elkartearen ibilbidean —"l'affirmation du destin national du castillan, d'une part, l'affirmation du caractère régional du basque, d'autre part" (*«Ilustración»…*, 325-343, 329 or.)—; ondorioz (eta horretan Campomanesek *euskal hiztegiaren* harira hartu ekimenak zerikusia izango zukeelarik), euskara "*objet inerte d'une 'curiosité préservatrice'*» bilakatzen da, M. de Certeau, D. Julia eta J. Revelek (*Une politique de la langue...*, 15 or.) baliaturiko hitzak erabiltzearren. Hortik, P. Bidarten iduriko, bi joera sortzen dira, bidelagun eta kontrako norabidekoak ("deux mouvements concomitants et de sens contraire") bide batez: batetik, agerian jartzen da euskararen berezitasuna; bestetik, berezitasun hori indargabeturik suertatuko da, eragozpen (are, mehatxu) bat den heinean hizkuntz esparru nazional homogeneo bat finkatze aldera ("[…] la mise en évidence de sa spécificité, d'une part, la neutralisation de cette même spécificité dans la mesure où elle constitue un obstacle [ou une menace] à l'édification d'un espace national linguistiquement homogène" [P. Bidart: *Ib.,* 334 or.]). Ikuspegi horretatik, *El Borracho Burlado* gisako *opera* elebidun bat zera zatekeen, gehienik jota, aipatu ikerlariarentzat: "[un] manifeste pour une compatibilité possible entre la proclamation du destin national du castillan et le maintien de la langue basque, peut-être"; eta, noski, "[un] indice de la tendance libérale de la 'Ilustración' en Pays Basque" [*Ibid.,* 335 or.]. Esan dezagun, halere, afera ixte aldera, eman izan dela, euskararen egoera pattala gainditzeko, Elkarteak egin ekarpena modu ez hain ezkorrean begiratzen duenik: ikus, adibidez, I. M. Barriola: *Los Amigos del País y el euskera*, in BRSBAP 47, 1-2, 1991, 181-197 or.; E. Múgica Enecotegui: *Desde las cartas…*, zeh. 341-352 or.; Id.: *La Real Sociedad Bascongada y el euskara,* in http://www.bascongada.eus/es/la-sociedad/historia/165-la-real-sociedad-bascongada-y-el-euskara.

192 Bertako historiografiak Errege Elkarteaz eskaini ohi izan duen irudi *idealizatu* samarra doitze aldera, zenbait autorek arreta gehiago jarri izan du azkenaldian gure Elkarte —agidanez, "herri-maitale" edo *patriotiko*— horren jardunean nabari den osagai *klasista* eta *estamentala* agerian jartzeko. Hainbat aldiz aritu izan gara lehendik ere gai honi buruz, eta han-hemenka esandakoak osatzera (edota errepikatzera?) dator hemengo eta hurrengo oharretan dioguna.

Larrañaga, K.: *Cantabrismo en Navarra,* in "Príncipe de Viana" 59, 1998, 447-479 or.

Larrañaga, K.: *Vascocantabrismo y Arqueología,* in "Memorias de Historia Antigua" XIX-XX, 1998-1999, 111-198 or.

Larrañaga, R.: *La manufactura de armas de fuego en el País Vasco*, in *III Coloquio de Historia de la Educación,* Vitoria-Gasteiz: Sancho el Sabio, 1980.

Larrañaga, R.: *Sintesis histórica de la Armería Vasca*. Donostia, 1981.

Lasa, J. I. et alii: *Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco*, Donostia: Auñamendi, 1968.

Leoné Puncel, S.: *Euskal Herria XIX. Mendeko bidaia-liburuetan,* Irun: Alberdania, 2008.

López Atxurra, R.: *Historia de las instituciones educativas en Euskal Herria. La enseñanza primaria en el Antiguo Régimen. Pautas para la investigación*, in R. Mieza; J. Gracia (ed.): *Haciendo Historia. Homenaje a M[a] Angeles Larrea*, Bilbo: EHU-UPV, 2000, 419-445 or.

Los códigos españoles concordados y anotados. Tomo IX. Novísima recopilación de las leyes de España. Tomo III, que contiene los libros octavo, noveno, décimo y undécimo, Madril, 1850.

Luis, J.-Ph.: *El proyecto social de los epígonos de la Ilustración en España*, in J. L. Castellano, J. P., Dedieu, M. V. López-Cordón Cortezo: *La pluma, la mitra y la espada. Estudios de Historia Institucional en la Edad Moderna*, Univ. de Burdeos, Marcial Pons, Madril-Bartzelona, 2000, 319-337 or.

Mañaricua, A. E.: *Historiografía de Vizcaya (desde Lope García de Salazar a Labayru)*, Bilbo, 1971.

Martin Escudero, F.; Cepas, A.; Canto García, A.: *Archivo del Gabinete Numario: catálogo e índices*, Madril, 2004.

Martínez Aparicio, J. I.: *La Real Escuela militar de Ávila de los Caballeros, ¿una experiencia imposible?*, in J. Busquets, F. Alvira Martín, etab. (kord.): *La Enseñanza militar en España: un análisis sociológico*, Madril, 1986, 51-63 or.

Martínez Ruiz, J.: *Las Ciencias Naturales y la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País en el s. XVIII*, in *Las Reales Sociedades Económicas de Amigos del País y su obra. Comunicaciones presentadas en el Pleno de la Asamblea celebrado en San Sebastián, los días 9 al 11 de diciembre de 1971*, Donostia, 1972, 83-154 or.

Mitxelena, K.: *Colección de documentos inéditos para la Historia de Guipúzcoa,* 6 [*Fascículo especial dedicado a las conmemoraciones centenarias de la fundación de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*], Donostia, 1965, 99-114 or.

Mitxelena, K.: *El diccionario vasco proyectado por la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País y la obra de José Maria de Aizpitarte,* in *Colección de documentos inéditos para la historia de Guipúzcoa,* 6. zbk., Donostia, 1966.

Mogel, B. A.: *Ipui onac: ceintzuetan arquituco dituzten euscaldun necazari, ta gazte guciac eracaste ederrac beren vicitza zucentzeco. Ematen ditu euscaráz arguitará ume eta necazarientzat Vicenta Antonia Moguel eta Elguezabalec,* Donostia, 1804.

Mogel, J. A.: *Doctor Peru Abarca, catedrático de la Lengua Bascongada en la Universidad de Basarte o Diálogos entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan*, Imp. de Julián de Elizalde, Durango, 1881.

Mogel, J. A.: *Peru Abarka.* Edición bilingüe realizada por R. M.ª de Azkue, 2. ediz., Bilbo: Edit. La Gran Enciclopedia Vasca, 1970.

Mogel, J. A.: *La Historia y geografía de España ilustradas por el idioma vascuence,* c. 1800 (J. Garatek argitaratua [Bermeo: Gaubeka, 1936-1937].

Mogel, J. A.: *Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac,* Iruñea: Ezquerro, 1801.

Mogel, J. A.: *Versiones bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos ó Demonstración práctica de la pureza, fecundidad y eloqüencias del idioma bascuence contra las preocupaciones de varios escritores extraños, y contra algunos Bascongados, que solo tienen una noticia superficial del idioma patrio,* Tolosa: F. de La Lama, 1802.

Mogel, J. A.: *Apología de la lengua bascongada contra las erradas ideas, y congeturas de Don Joaquín Traggia,* [1803], argitaratua in "Euskal-Erria" 25 [2o sem. 1891]

Mogel, J. A.: *Confesino ona edo ceimbat gauzac lagundu biar deutseen Confesinuari ondo eguiña izateco*, Vitoria-Gasteiz: F. Larumbe, 1803.

Monreal Zia, G.: *Los Fueros Vascos en la Junta de Bayona de 1808,* in RIEV 4, 2009, 255-276 or.

Monreal Zia, G.: *Los fueros vascos en la Constitución de Bayona. Antedecedentes políticos e ideológicos. Resultados*, in "Iura vasconiae: revista de derecho histórico y autonómico de Vasconia" 8, 2011, 169-204 or.

Müller-Vollmer, K.: *Die Vaskische Haupt- und Muttersprache. Zwei unveröffentliche Stücke aus Humboldts baskischen Arbeitsbüchern 1800-1801*, in P. Schmitter (ed.): *Multum - non multa? Studien zur "Einheit der Reflexion" im Werk Wilhelm von Humboldts. Mit der Edition zweier bisher unveröffentlichter Texte aus Humboldts Arbeitsbüchern*, Münster: Nodos Publikationen, 1991, 111-130 or.

Munibe, X. M. de: *El Borracho Burlado* (X. Altzibar-ek prestatu ed. kritikoa), Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1991.

Núñez, I.: *El teniente general de la Real Armada Don José de Mazarredo Salazar y Gortazar, de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, Bilbo: S. Agirre, 1945.

Olabarri, I.: *Proyectos historiográficos de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, in *I Seminario de historia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País: ponencias y comunicaciones: días 7, 8 y 9 de octubre de 1985*, Donostia: RSBAP, 1986.

Olaziregi, M. J.: *Bizenta Moguel [1782-1854], edo euskal tradizio literario androzentrikoa pitzatu zenekoa*, in *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian [2001, Bilbo, Baiona]*, Bilbo: Euskaltzaindia, Iker 14, 2003, 203-221 or.

Orpustan, J.-B.: *Un poète basque au temps de la Révolution: Salvat Monho [1749-1821]*, in J.-B. Orpustan [koord.]: *1789 et les Basques. Actes du Colloque International de Bayonne 1989,* Bordele : Pres. Univ. de Bordeaux, 1991, 239-255 or.

Otazu, A.: *El "igualitarismo" vasco: mito y realidad,* Donostia, 1973.

Oyharçabal, B.: *Les documents recueillis lors des enquêtes linguistiques en Pays Basque durant la période révolutionnaire et le Premier Empire*, in J. B. Orpustan [édit.]: *La révolution française dans l'histoire et la littérature basques du XIXème siècle. Actes du colloque organisé par l'URA 1055 [CNRS] à Bayonne les 28 et 29 juin 1993*, Baigorri : éd. Izpegi, 1994, 62-119 or.

Oyharçabal, B.: *Statut et évolution des lettres basques durant les XVIIème et XVIIIème siècles*, in "Lapurdum" 6, 2001, 219-287 or.

Ozaeta, J.-H.: *La Cantabria vindicada y demostrada segun la extension que tuvo en diferentes tiempos: la variedad del govierno de los Romanos en España, y quales se llamaron Regiones. Historia de la Geografia, desde su principio. Guerras de los invencibles Cántabros, y valerosisimos Asturianos, segun los autores Romanos solos. Hazañas porteriores de los Cántabros por mar. Respuesta apologetica a todos los puntos, en que se ha desdorado el ilustre nombre de las Vizcayas, desde Don Geronimo de Zurita, Analista del Reyno de Aragon, hasta el Reverendisimo Padre Maestro Fray Ennrique Florez, Ex-Asistente General del Orden de San Agustin,* por Don ——, Madril, 1779.

Palacios Fernández, E.: *Vida y obra de Samaniego,* Vitoria-Gasteiz, 1975.

Palacios Fernández, E.: *Cartas en el proceso inquisitorial por el folleto «Carta Apologética al Sr. Masson»* [A. H. N. Inquisición, leg. 4464, nº. 4.], in Id.: *Vida y obra de Samaniego,* Vitoria-Gasteiz, 1975.

Paz y Melia, A.: *Catálogo abreviado de Papeles de Inquisición*, in "Revista de Archivos, Bibliotecas y Museos" [Madril] IX, Mayo-Junio 1915.

Peillen, T.: *L'oeuvre du P. Larramendi S. J., cristallisation de mythes historiques et culturels basques,* in «Bulletin du Musée Basque» no 118, 1987, 151-166 or.

Pellón, I.; Román, R.: *La Bascongada y el Ministerio de Marina*. *Espionaje*, *Ciencia y Tecnología en Bergara* [*1777-1783*], RSBAP, Comisión de Bizkaia, 1999.

Perotxegi, J.: *Origen de la nacion Bascongada y de su lengua: de que han dimanado las Monarquias Española, y Francesa, y la Republica de Venecia, que existen al presente. Compuesto por el coronel don – –, Teniente Provincial de Artillería, y Comandante de la de este Reyno de Navarra,* Iruña, 1760.

Prada, A.; Sales, J. L.; Garro, J. A.: *Libro del Obispado de Pamplona. Real patronato 1753*. http://mendezmende.org/documentos/divulgacion_trabajos/LIBRODELOBISPADODEPAMPLONA.pdf

Proyecto de una escuela patriótica presentada á la Junta General de la Sociedad Bascongada de los Amigos del País por su Junta de Ynstitución á 17. de Setiembre de 1775, Vitoria-Gasteiz: T. de Robles y Navarro, 1776.

Quaderno de las leyes y agravios reparados a suplicación de los tres estados de el Reyno de Navarra, en sus Cortes Generales celebradas en la ciudad de Pamplona los años 1780 y 81, por la Magestad del Señor Rey D. Carlos VI de Navarra y III de Castilla..., de orden de la Ilustrísima Diputación del Reyno de Navarra, Pamplona: Miguel de Cosculluela, 1798 (jasoa in *Cuadernos de las Leyes y Agravios reparados por los Tres Estados del Reino de Navarra*, vol. I, Iruña: Aranzadi, 1964.

Reglamento para los alumnos de la Sociedad Bascongada de los Amigos del País, Donostia [s. d. > 1766].

Ribechini, C.: *La ilustración en Vizcaya. 'El Lequeitiano' Ibáñez de la Renteria,* Donostia, 1993.

Rica Esnaola, M.: *Traduction en basque de termes politiques sous la revolution*, in ASJU 9/1, 1975.

Riezu, J. de: *Material Folklórico de la Collectánea Linguística de Humboldt. Canción del vino*, in "Boletín Sancho el Sabio", 1971, 91-115 or.

Risco, A.: *Pedro Jacinto de Álava en Madrid (1774),* Museo Zuloaga, Zumaia, 28 agosto 2003.

Risco, A.: *La Vascongada y la industria popular: un testimonio inédito sobre Campomanes,* in J. M. Urquia Echave eta A. Risco (koord.): *La carta como fuente y como texto: las correspondencias societarias en el siglo XVIII: la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País,* RSBAP, 2005, 255-300 or.

Risco, A. [edit.]: *La carta como fuente y como texto: las correspondencias societarias en el siglo XVIII: la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País* (= *II Seminario Peñaflorida* [14-15 nov. de 2003, Toulouse]), RSBAP, 2005, 337-361 or.

Rodriguez, F.: *Faustoren Itzala,* Donostia: *Utriusque Vasconiæ*, 2004.

Rodriguez, F.: *Elhuyar anaiak, wolframioaren isolamendua eta espaniar koroarekin zituzten harreman sekretuak,* in "Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria" 51, 2004, 11-22 or.

Sagarna, A.: *Euskara XVIII. mendean,* in "Cuadernos de Sección. Hizkuntza eta Literatura" 3, 1984, 17-114 or.

Salaberri, P.: *Euskal noblezia eta euskara (Eskortzoa* El Borracho Burlador*en ikusmugatik)*, in "Egan" 2015/2, 147-182 or.

Sanadon, B.-J.-B.: *Essai sur la noblesse des basques pour servir d'introduction à l'histoire générale de ces peuples. Rédigé sur les mémoires d'un Militaire Basque par un ami de la nation*, Pau, 1785.

Sánchez García, M. C.: *Valentín de Foronda y el pensamiennto francés: su traducción de la "Lógica" de Condillac*, in M. M. Gárate Ojanguren; G. Rubio de Urquía [coord.]: *Actas [del] V Seminario de Historia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País: "La Bascongada y Europa"*, Donostia-San Sebastián, 24-27 octubre 1996, Madril, 1999, 169-194 or.

Sempere y Guarinos, J.: *Ensayo de una biblioteca de los mejores escritores del reinado de Carlos III*, Madril: Imprenta Real, 1785-1789, 5. lib.

Sorregieta, Th. de: *Semana Hispano-bascongada, la única de la Europa y la más antigua del orbe. Con dos suplementos de otros ciclos y etimologías bascongadas. 1ª parte, dedicada a la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa*, Iruña, 1804.

Sorregieta, Th. de: *Triunfo de la Semana Hispano-Bascongada y del bascuence, contra varios censores filosóficos enmascarados. En tres cartas dirigidas a los literatos españoles*, Madril, 1805.

Tellechea Idígoras, J. I.: *El Real Seminario de Vergara y su director Lardizábal (1801-1804)*, in *Los antiguos centros docentes españoles. Comunicaciones presentadas en el pleno de la Asamblea celebrado en San Sebastián, los días 9 al 11 de diciembre de 1971*, Donostia, 1975, 43-88 or.

Tellechea Idígoras, J. I. (ed.), *La Ilustración vasca. Cartas de Xavier María de Munibe, conde de Peñaflorida, a Pedro Jacinto de Alava. Edición, introducción, notas e índices de* ——, Vitoria-Gasteiz, 1987.

Tovar, A.: *Mitología e ideología sobre la lengua vasca. Historia de los estudios sobre ella,* Madril, 1980.

Urdiain, M. C.: *Epistolario del Fondo Prestamero,* Donostia, 1996.

Urdiain, M. C.: *Catálogo del Fondo de la RSBAP. Archivo del Territorio Histórico de Álava,* Donostia, 1997.

Urkizu, P.: *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma [1798]*, Durango, 1987.

Urkizu, P.: *XVIII. mendean Larramendiren* Hiztegi Hirukoitz-*ak iparraldeko zenbait idazlerengan duen eraginaz*, in J. A. Lakarra [ed.]: *Manuel Larramendi. Hirugarren mendeurrena, 1690-1990,* Andoain, 1992, 313-324 or.

Urquijo, J. de: *Les études basques: leur passé, leur état présent et leur avenir*, in RIEV 5/3, 1911.

Urquijo, J. de: *Carta bilingüe al Conde de Peñaflorida*, in "RIEV" XVI, 1925, 4.

Urquijo, J. de: *Un juicio sujeto a revisión: Menéndez Pelayo y los caballeritos de Azcoitia*, Donostia, 1925.

Urquijo, J. de: *Vascófilos ingleses. A propósito de "Un Libro de los Vascos" de Rodney Gallop [Continuación],* in RIEV 26, 1935, 377-382 eta 729-732 or.

Verástegui, F.: *La RSBAP, W. von Humboldt y José María Murga. Una aproximación de la psicología a la historiografía política*, in "RIEV" 41, 2, 1996, 511-528 or.

Viala, A.: *Naissance de l'écrivain: sociologie de la littérature à l'âge classique*, Paris: Edit. de Minuit, 1985.

Vinson, J.: *Pièces historiques de la Période Révolutionnaire en Français et en Basque, en regard, II fasc.: Chansons, Proclamations*, Baiona: Cazals, 1875.

Vinson, J.: *Pièces historiques de la période révolutionnaire,* Baiona: B. Jerôme, 1887.

Vinson, J.: *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque,* Paris, 1891.

Vives, G.: "La Correspondencia de Miguel José de Olaso Zumalabe (1718-1773), primer secretario perpetuo de la Real Sociedad de los Amigos del País"*,* in *II Seminario de Historia de la RSBAP,* Donostia, 1988.

Ybarra y Bergé, J. de: *Escudos de Vizcaya. El Duranguesado*, Donostia, 1967.

Zabaleta-Gorrotxategi, I.: *Wilhelm von Humboldts Forschungen über die Baskische Nation und Sprache und ihre Bedeutung für seine Anthropologie,* EHU-UPV: Argit. Zerb. [2007].

Zavala, A.: *Frantzia'ko Iraultza eta Konbentzioko Gerra bertsotan***,** Donostia, 1989.

Zúñiga, L. C. de: *Muestra del modo como se puede leer e interpretar la inscripcion de Torrellas en Aragon,* in "Continuación del Memorial literario, instructivo y curioso de la Corte de Madrid", v. 15, Marzo 1797, P. 2ª, 386-410 or.

Zúñiga, L. C. de: *Carta de un amigo a otro sobre la leccion de cinco monedas celtibéricas,* in "Continuación del Memorial literario, instructivo y curioso de la Corte de Madrid", v. 15, Marzo 1797, P. 2ª*,* 410-414 or.

Zúñiga, L. C. de: *Carta segunda de un amigo a otro sobre la leccion y explicacion de unas monedas celtibéricas*, in "Continuación del Memorial literario, instructivo y curioso de la Corte de Madrid", v. 15, Marzo 1797, P. 2ª, 414-422 or.

6. DONOSTIAKO EGUNGO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOAREN AZTERKETA XVIII. MENDEAN HARTZEN ZITUEN EREMUETAN

Maialen Iñarra Arregi
eta Olatz Altuna Zumeta
Soziolinguistika
Klusterraren teknikariak

6.1. SARRERA

Euskaltzaindiak Donostiako aniztasun soziolinguistikoa perspektiba historikoan jartzeko ekimena jarri du abian. Euskararen Historia Sozialaren metodologia berritzailea Donostian aplikatu nahian, "Donostiako lehengo (1761eko) eta oraingo hizkuntza-egoeraren azterketa" izeneko ikerketa-lerroa ireki du, eta ikerketa-lerro horretan kokatu behar dugu esku artean dugun txosten hau ere.

Soziolinguistika Klusterrari Donostiako XXI. mendearen hasierako egoera soziolinguistikoa aztertzeko zeregina eskaini zion Euskaltzaindiak, eta txosten honetan biltzen dira azterketa horren emaitza nagusiak. Azterketa honen asmoa, beraz, Donostiako egungo egoera soziolinguistikoa deskribatzea da, egungo egoeraren argazki bat eskaintzea, alegia.

Hala eta guztiz ere, azken helburua XVIII. mendeko Donostiaren eta egungo Donostiaren egoera soziolinguistikoen alderaketa egitea denez gero, azterketa hau burutzeko erabili den lurralde eremua Donostiak, Astigarragak eta Pasai San Pedrok osatzen dute (XVIII. mendeko Donostiak barnebiltzen zituen eremuek, alegia). Era berean, Euskararen Historia Sozialaren metodologiak adierazten dituen jarraibideak errespetatuz, azterketa bost dimentsio eta bederatzi jardungune jarraituz egin da. Hala, egungo egoera soziolinguistikoa azaltzen duten hainbat iturri estatistikok helarazitako datuekin osatu dira adierazleak.

Iturri estatistikoek eskaintzen dituzten datuen mugak tarteko, kasu batzuetan lurralde eremua bete ezin izan bada ere eta dimentsio guztietan jardungune guztientzako adierazleak aurkitu ez badira ere, XVIII. mendean Donostiak barnean

hartzen zituen eremuetan gaur egun den egoera soziolinguistikoaren deskribapen osatua aurki daiteke txosten honetan.

6.2. AZTERKETAREN PLANTEAMENDUA

Azterketa honetan Euskaltzaindiaren Euskararen Historia Soziala (EHS) izeneko proiektuak sortu duen oinarri metodologikoarekin egin dugu lan, eta txosten hau ere oinarri horren antolaketa jarraituz aurkeztuko dugu. Hala, nagusitasun-moldaerazko taula[1] jakin batean oinarrituz, eta azterbideen eta dimentsioen azalpen-taula[2] jarraituz, egungo egoera soziolinguistikoa azaltzen duten datuak landuko ditugu segidan.

Azterbide deskriptiboa

Gure lanak azterbide deskriptiboa jarraitzen du. Izan ere, hizkuntzaren egoera leku eta une jakinean nola dagoen aztertu dugu. Horretarako kontuan izan ditugun bost dimentsioak hizkuntzaren erabilera, hizkuntza-gaitasuna, hizkuntzaren barne-osaera, gizartearen osaera eta hizkuntzaren iritzi, jarrera eta jokaerak izan dira. Era berean, bederatzi jardungune nahi izan dira kontuan hartu errealitate soziolinguistikoaren argazki osatu bat erakutsi nahian: "Agintaritza eta Administrazioa", "Aisia eta kirola", "Eliza", "Etxea eta familia", "Gertuko jendea eta ohiko lagunartea", "Informazio-hedapena eta kontsumoa", "Hezkuntza", "Lana" eta "Salerosketa".

Hala, dimentsio eta jardungune horietan oinarrituz, hainbait iturri estatistikorekin jarri gara harremanetan beraiek jasotzen dituzten datuak eta informazioa biltzeko asmoz; beraz, ez da berariazko datu bilketarik egin. Nolabait esatearren, datu kuantitatiboen biltegi bat aurkezten da txosten honetan.

Datu kuantitatiboen biltegi honek datu orokorrak biltzen dituela aipatu behar dugu. Izan ere, erabilitako iturri estatistiko batzuetatik zuku gehiago ateratzerik egon badago ere, oinarrizko informazioa bildu nahi izan dugu hemen. Dena den, ahal izan den neurrian, adin-talde, genero eta auzokako datuak lortu ditugu, eta beraz, hiru aldagai hauen araberako gurutzaketa batzuk ere jasotzen dira txostenean.

---

[1] Zalbide, M., Joly, L., Gardner, N. (2015): *Euskararen historia soziala lantzeko eredu metodologikoa*. Etxeberri bilduma (EHS). Bilbo: Euskaltzaindia. 705. or.

[2] Ibid. 715. or.

6.2.1. Iturri estatistikoak

Esan bezala, hainbat iturri estatistikorekin jarri gara harremanetan txosten honek biltzen dituen datuak eskuratzeko. Erabili ditugun iturri estatistikoen zerrenda osatu dugu atal honetan iturri bakoitzetik jaso ditugun datuak aurkeztu nahian:

- *Inkesta Soziolinguistikoa* (ISL): Txosten honetan jaso ditugun datuak Donostiako hiztunei dagozkie soilik, ez dira Astigarragako eta Pasai San Pedroko datuak eskuratu. Iturri honek dimentsio eta jardungune ezberdinetarako datuak eskaini dizkigu, baina EUSTATen zentsuetako datuak lehenetsi ditugu bi iturriek aldagai bera aztertzen zutenean. Ahal izan den neurrian, eta batez ere dimentsioen datu orokorrak emateRakoan, adin-taldekako eta sexuaren araberako datuak ere jaso ditugu.

- *ARRUE Ikasleak hiztun*: ISEI-IVEIk eskainiak dira txosten honetan erabilitako datuak: ikasleen eskolako erabilera (2015), egoera informaletako erabilera (2013) eta eskolaz kanpoko jardueretako erabilera (2015) jaso dira. ISEI-IVEIk eta Hezkuntza Sailak Arrueko datuak zabaltzeko finkatzen eta Soziolinguistika Klusterrak aplikatzen duen irizpidea da ikastetxeen anonimotasuna erabat bermatzea. Donostiako kasuan, ikastetxe ugari izanik, jarraian eskaintzen diren datu horiek erabat betetzen dute aipatu irizpidea.

- *Biztanleriaren eta etxebizitzen zentsuak eta erroldak* (BZI): Donostiari buruzko datuak jaso ditugu txostenean. Eskainitako datu gehienek badute adin-talde eta sexuaren araberako bereizketa. Halere, hizkuntza-gaitasunari dagokionez, Donostiako datuez gain, Astigarragako eta Pasai San Pedroko datuak ere eskuratu dira. Horretarako, bi ediziotako emaitzak jaso dira: 2006koak (auzokako datuak eskaintzen dituztelako) eta 2011koak (esku artean izan dugun azken edizioko datuak direlako).

- *Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketak* (HKN): Donostiako 2011ko, Astigarragako 2011ko eta Pasaiako 2015eko datuak erabili dira nagusiki datu hau ematerakoan. Dena den, emaitza orokorrak Pasai San Pedrori buruzkoak eman ahal izatea lortu da, akats tartearen egokitasuna kontuan hartuta.

- *CIES*: Audientzia datu hauetatik, euskal prentsari eta irrati-telebistei dagozkien Gipuzkoako 2013ko kontsumo datuak lortu ahal izan dira.

- *Informazio Gizarteari buruzko Inkesta*: EUSTATek egiten duen inkesta honetatik 2014ko Gipuzkoako datuak bildu dira herritarrek darabilten nabigazio-hizkuntzaren inguruan.

- *Eskola Jardueraren Estatistika* (EJE): Irakaskuntza estatistika hauetatik Donostiako ikasleen 2011ko matrikulazio datuak jaso ditugu.

- *Unibertsitatea Zenbakitan* (EHU): Txosten honetatik Donostiako Campusean matrikulatzen diren hizkuntzaren araberako ikasleen kopurua jaso da.

- *Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea*: Unibertsitate hauetatik ere Donostiako Campusean matrikulatzen diren hizkuntzaren araberako ikasleen kopurua jaso ahal izan dugu.

- *Hizkuntza komunikazioaren inguruko azterketa Donostiako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetan* (Siadeco): 2012an Siadecok eginiko ikerketa honek Donostiako erdialdeko 8 kaleetako establezimenduko langile eta arduradunei eginiko inkestako emaitzak eskaintzen ditu.

- *Donostiako kaleetako hizkuntza paisaiaren azterketa* (DREAM): 2007, 2008, 2009 eta 2010 urteetan Donostiako auzo desberdinetako kale batzuetako establezimenduen hizkuntza-paisaia aztertu zuen DREAM Taldeak. Bertan, hizkuntza-paisaian erabiltzen den hizkuntzak zein diren jasotzen ditugu.

- *Euskararen erabilera neurtzeko behaketak* (BAGERA Behaketak): 2015eko Donostiako Aste Nagusian, Giza Eskubideen XIII. Zinemaldian, dFERIA XXI Arte Eszenikoen jaialdian, 2014ko 49. Heineken Jazzaldian eta 2008ko Beldurrezko eta Fantasiazko Zinemaren XIX. Astean euskarak izan zuen presentziari buruzko datuak aurkeztu ditugu.

- *Xenpelar Dokumentazio Zentroa*: Donostian, Astigarragan eta Pasai San Pedron 2015ean antolatutako bertso saio kopurua jaso dugu.

- *Zinema aretoei buruzko inkesta*: 2010ean egindako inkesta honetatik Gipuzkoan eskaini ziren euskarazko filmen kopurua jaso da txostenean.

- *Arte eta Kultura Industrien Estatistikak* (AKI): Estatistika hauetatik Donostia, Astigarraga eta Pasai San Pedro eremuetako datuak lortu dira; baina informazio hori hiru eremuak bat eginda eskaintzen da, arte eta kultura eragileen anonimotasuna bermatu nahian.

Iturri hauetatik[3] guztietatik harturiko informazioa iturri bakoitzak eskuragarri zuen azken edizioko datuei dagokie. Hala, eskainitako informazioa landu ostean, oraindik ere eremu batzuetan zer bildua edota zer aztertua badagoela ikusi dugu egoera soziolinguistikoa deskribatzerakoan, dimentsio eta jardungune batzuk besteak baino osatuagoak ageri zaizkigulako.

Adibidez, dimentsioei erreparatuz, egungo hizkuntzaren barne osaeraren arloan ez dugu informazio askorik topatzerik izan. Interesgarria litzateke ikerketaren batek egun zer hizkuntza erabiltzen dugun aztertu dezan, baina oraingoz behintzat, ez dugu halako daturik[4]. Bestalde, jardunguneei dagokienez, Elizaren eremuan daukagu hutsunea, ezin izan baita hizkuntzari dagokion zuzeneko daturik lortu[5].

Azkenik, aipagarria litzateke egungo egoera soziolinguistikoa deskribatzen duten beste datu interesgarri batzuk ere egon badaudela eta lortzeko aukerarik egon daitekeela eskaera zehatzagoak eginez gero. Adibidez, udal liburutegietako maileguei buruzko datuak edota kultur etxeetan eskaintzen diren emanaldiei buruzko datuak ere eskuragarri[6] egon litezke.

Adierazleak

Egindako azterketaren nondik norakoak ulertzeko azken atal gisa, dimentsio eta jardunguneetan adierazleei eman diegun kokapena aurkeztu nahi dugu. Horretarako, hurrengo orrialdeetako taulan, azterketarako erabili ditugun adierazleak jardungune eta dimentsioen arabera kokatuta[7] ikus daitezke. Taula hauxe da txostenaren hurrengo puntuetan landuko duguna, hain zuzen ere.

---

[3] Diagnostiko honetarako HABEk eskaintzen dituen euskaltegietako matrikulazio datuak eta ARRUEko ikasleen eskolako hizkuntza-erabilerari buruzko datuak eskuratzeko ahalegina egin badugu ere, azkenean ez dugu datuak lortzerik izan.

[4] Hurrengo atalean azalduko dugun bezala, azterketa honetan hizkuntzaren barne osaera dimentsioaren baitan kokatu ditugu hizkuntza paisaian zuzentasunari buruz lortu dugun informazioa eta baita «Gu gazteok» ikerketa parte-hartzailetik ateratako emaitza orokorrak ere. Aurrera begira, «Hitanoaren presentziaren Kale Neurketek» informazio interesgarria eskaini lezakete dimentsio hau osatu asmoz; baina oraingoz neurketa hauen proba pilotuak egiten dabil Soziolinguistika Klusterra.

[5] Elizaren esparruan, eskaintzen diren elizkizun kopurua hizkuntzaren arabera jakitea interesgarria bada ere, ez dakigu halako daturik jasotzen den.

[6] Azterketa honetarako Pasai San Pedroko liburutegiko datuak soilik eskuratu ahal izan ditugu. Txostenean islatu ez baditugu ere, eskuragarri daude.

[7] Adierazle batzuen kokapena nahasgarria egin zaigu. Adibidez, matrikulazio datuak (ikasleak ikastetxeetako zein eredu linguistikotan matrikulatzen diren eta unibertsitatean zer hizkuntzatan matrikulatzen diren) hizkuntza-erabileran kokatu baditugu ere, ez da oso argigarri gelditzen. Bestalde, kultur adierazleak aisialdi gisa eta gizarte-giro gisa kokatu ditugu.

1. taula **Donostiak XVIII. mendean barne hartzen zituen eremuetako egungo egoera soziolinguistikoa azaltzen duten adierazleen kokapena dimentsio eta jardunguneetan.**

Azterbidea: Deskriptiboa (1)		Dimentsioak				
		A. Hizkuntza-erabilera *(erabilera azaltzea)*	**B. Hizkuntza-gaitasuna** *(gaitasuna azaltzea)*	**C. Hizkuntz(ar)en barne-osaera** *(hizkuntza azaltzea)*	**D. Gizarte-giroa** *(gizarte-giroa azaltzea)*	**E. Iritzi-jarrera-jokaerak** *(jarrera azaltzea)*
OROKORRAK		Erabileraren tipologia (ISL)	* Euskara-gaitasuna (BZI) * Hizkuntza-erraztasuna (ISL) * Hizkuntza-bilakaeraren tipologia (ISL)	-	-	Jarreren araberako tipologia (ISL)
Jardunguneak	**1. Agintaritza eta administrazioa**	Herritarrek Administrazioarekin erabilitako hizkuntza (ISL)	-	-	-	Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa litzateke (ISL)
	2. Aisia eta kirola	Haur eta nerabeen hizkuntza-erabilera eskolaz kanpoko ekintzetan (ARRUE)	-	-	* dFeria, Giza eskubideen Zinemaldia, Jazzaldia, Aste Nagusia eta Beldurrezko eta Fantasiazko Zinema Astean zenbatean erabiltzen den euskara (BAGERA) * Donostiako, Astigarragako eta Pasai San Pedroko bertso saio kopurua (XENPELAR) * Gipuzkoako zinema aretoetan euskarazko filmen eskaintza (ZINEMA ARETOEN INKESTA) * Kultura adierazleak (AKI)	-
	3. Eliza	-	-	-	-	-
	4. Etxea eta familia	Etxeko erabilera (BZI)	Lehen hizkuntza (BZI)	-	-	Euskara bakarrik etxekoekin eta lagunekin erabiltzeko da (ISL)

Jardunguneak							
		* Ohiko lagunekin erabilera (ISL)	-	"Gu gaztеok" ikerketa parte-hartzailea	-		* Euskara beharrezkoa da jendearekin komunikatzeko (ISL)
	5. Gertuko jendea eta ohiko lagunartea	* Donostiako (2011), Astigarragako (2011) eta Pasaiako (2015) Hizkuntzen Kale Erabileraren datuak (HKN)					* Bi hizkuntza izateak arazoak sortzen ditu gizartean (ISL)
		* Haur eta nerabeen lagunarteko hizkuntza egoera informaletan (ARRUE)					
	6. Informazio-hedapena eta kontsumoa	* Audientzia datuak (CIES)	-	-	-		Irrati/telebistek programa gehiago behar lukete euskaraz (ISL)
		* Nabigazio hizkuntza (Informazio Gizarteari buruzko Inkesta)					
	7. Hezkuntza	* Ikasleen eskolako hizkuntza-erabilera (ARRUE)	-	-	-		* Hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino (ISL)
		* Eredu linguistikoak (EJE)					* Ezinbestekoa da haur guztiek euskara ikastea (ISL)
		* Donostiako Campusean euskaraz ikasten duten unibertsitate ikasleak (EHU + Deustu)					* Zein hizkuntzatan nahi dute ikas dezaten seme-alabek (ISL)
							* Umeak murgiltze programetan sartzea ez da ona (ISL)
	8. Lana	Lankideekin erabilera (ISL)	-	-	-		-
	9. Saleroskеta	Hizkuntza komunikazioaren inguruko azterketa Donostiako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetan (Siadeco)	Hizkuntza komunikazioaren inguruko azterketa Donostiako merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzu establezimenduetan (Siadeco)	Hizkuntza-paisaian erabiltzen diren hizkuntzen zuzentasuna (DREAM)	* Zenbat hizkuntza erabiltzen diren hizkuntza-paisaian eta zeintzuk diren (DREAM)		* Hizkuntza komunikazioaren inguruko azterketa Donostiako merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzu establezimenduetan (Siadeco)

Iturria: egileek moldatua

6.3. HIZKUNTZA-ERABILERA

Hizkuntza-erabilerari dagokionez, lehenik eta behin, datu orokor moduan, Inkesta Soziolinguistikoak eskaintzen duen erabileraren tipologia[8] aurkeztu dugu. Ondorengo grafikoan ikus daitezkeenez, Donostiako hiztun gehienek (% 63,6) etxean, lagunartean eta eremu formalean beti erdara erabiltzen dute[9]. Euskaraz erdaraz baino gehiago egiten dutenen kopurua, berriz, % 7,6koa da.

1. grafikoa: **Etxea-laguna-formala eremuen tipologia. Donostia, 2011 (%)**



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

6.3.1. Agintaritza eta Administrazioa

Bigarren grafikoan ikus daitekeenez, Donostiako herritarrek Administrazioarekin erabili ohi duten hizkuntza erdara da. Izan ere, udal zerbitzuetako langileekin % 68,2k, osasun zerbitzuetakoekin % 72,8k eta Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundikoekin % 69,3k erabiltzen dute beti erdara.

---

8 Euskarak gizartean duen erabileraz jabetzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak indize bat eratu zuen 2001ean. Indize horri euskararen erabileraren tipologia deitzen zaio, eta honako erabilera-eremu hauek hartzen dira kontuan: etxea, lagunartea, eremu formala (dendak, bankuak, osasun-zerbitzuak eta udal zerbitzuak).

9 Jatorrizko datuak ehunekotan ditugunez, ez dugu taularik osatu.

Era berean, Administrazioarekin beti euskaraz egiten duten herritarrak aztertzen baditugu, Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko langileekin erabiltzen da gehien euskara (% 13,1ek beti euskaraz egiten die langile hauei). Beti euskaraz egiten duten herritarrek, ordea, osasun zerbitzuetako langileekin erabiltzen dute euskara gutxien (% 8,5ek egiten du beti euskaraz langile hauekin).

2. grafikoa: **Herritarrek administrazioetako langileekin erabilitako hizkuntza. Donostia, 2011(%)**



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Administrazioarekin donostiarrek erabiltzen duten hizkuntzari dagokionez, beraz, grafikoan ikus daitekeenez[10], erdara nagusitzen da; batez ere, osasun zerbitzuetako langileekiko harremanetan. Euskara gehien, ordea, Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko langileekin erabiltzen da.

10 Jatorrizko datuak ehunekotan ditugunez, ez dugu taularik osatu.

Aisia eta kirola

Jardungune honen baitan *ARRUE Ikasleak hiztun* ikerketak eskaintzen dizkigun eskolaz kanpoko ekintzetan haur eta nerabeen hizkuntza-erabilera datuak[11] kokatu ditugu. Hala, Donostiako LMH4 eta DBH2ko ikasleek eskolaz kanpoko jardueretan nagusiki gaztelania darabilte. Izan ere, beti gaztelania erabiltzen dutenak % 32,3 eta % 46,2 dira LMH4n eta DBH2n hurrenez hurren, eta gaztelaniaz euskaraz baino gehiago aritzen direnak % 14,9 eta % 17,0 dira LMH4n eta DBH2n, hurrenez hurren. Ondorioz, beti gaztelania erabiltzen dutenak eta gaztelania euskara baino gehiago erabiltzen dutenak batuta, DBH2ko ikasleek erraz gainditzen dute % 50a, eta LMH4ko ikasleen kasuan hiru puntu gelditzen zaizkie % 50era iristeko.

3. grafikoa: **LMH4 eta DBH2ko ikasleek eskolaz kanpoko jardueretan erabiltzen duten hizkuntza. Donostia, 2015 (%)**



Iturria: ISEI-IVEI, ARRUE proiektua.

[11] Atal honetan, Donostiako datuak landu dira soilik (hala eskuratu ahal izan baitira ARRUE ikerketatik); baina Pasaiari dagozkion datu xeheagoak aurki daitezke Pasaiako Udalaren eskariz 2016. urtean Soziolinguistika Klusterrak burutu duen Pasaiako eskolaz kanpoko kirol jardueretan hizkuntza-erabileraren neurketari buruzko txostenean. Ikerketa horretan, Pasaiako eskolaz kanpoko kirol jardueretako euskarazko erabilera orokorrak % 57ko emaitza izan zuen. Era berean, ikasleen % 56,6k eta entrenatzaileen % 67,8k erabiltzen dute euskara.

Bestalde, garrantzitsua da azpimarratzea bi ikasmailak konparatzerakoan, ikasle gazteenek erabiltzen dutela euskara gehiago, nabarmen, eskolaz kanpoko jardueretan. Beti euskaraz eta euskaraz gaztelaniaz baino gehiago aritzen direnen kopuruak batuz, LMH4n % 30,6 osatzen dute eta DBH2n, berriz, % 16,5.

Azkenik, bi ikasmailen konparazioarekin jarraituz, interesgarria da kontuan izatea beste hizkuntzen erabilera ere zertxobait handiagoa dela ikasle gazteenen artean. Bi puntuko aldea dago eskolaz kanpoko jardueretan DBH2ko ikasleen % 9,7k beste hizkuntzaren bat erabiltzen duenez gero LMH4ko ikasleen kasuan % 11,6 direlarik ikasle hauek.

2. taula: **LMH4 eta DBH2ko ikasleek eskolaz kanpoko jardueretan erabiltzen duten hizkuntza. Donostia, 2015**

	LMH4		DBH2	
	Kop.	**%**	**Kop.**	**%**
Beti euskaraz	288	18,8	117	7,4
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	181	11,8	144	9,1
Bietan berdin	163	10,7	168	10,6
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	228	14,9	269	17,0
Beti gaztelaniaz	494	32,3	731	46,2
Beste hizkuntza batean	177	11,6	154	9,7
GUZTIRA	1.531	100,0	1.583	100,0

Iturria: ISEI-IVEI, ARRUE proiektua.

6.3.2. Etxea eta familia

Atal honetan landu ditugun datuak EUSTATek etxeko hizkuntzari buruz eskaintzen dituenak dira. Donostiarren gehiengoak nabarmenki dio gaztelania dela bere etxeko hizkuntza (% 76,2k egiten du hala). Euskararen kasuan, etxeko hizkuntzatzat dutenak % 12 dira. % 9,7k, berriz, euskara eta gaztelania dituzte etxeko hizkuntza gisa eta azkenik, etxeko hizkuntza beste hizkuntza bat dela diotenak % 2,1 dira.

4. grafikoa: **Donostiako hiztunen etxeko hizkuntza. Donostia, 2011 (%)**



Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak, 2011.

3. taula: **Donostiako hiztunen etxeko hizkuntza. Donostia, 2011**

	Kop.	**%**
Euskara	21.343	12,0
Gaztelania	135.299	76,2
Biak	17.176	9,7
Beste bat	3.747	2,1
Hiztunak	177.565	100,0

Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak, 2011.

Etxeko hizkuntzari dagozkion datu hauek adin taldearen araberako eta sexuaren araberako gurutzaketak eginda ere eskuratu ditugu. Gurutzaketa hauen datuak ageri dira ondorengo grafiko eta tauletan.

Adin taldearen araberako banaketari begiratuz, guztietan etxeko hizkuntza moduan gaztelania nagusitzen bada ere, etxeko hizkuntza euskara dela aitortzen dutenen eta bi hizkuntzak direla aitortzen dutenen artean aldeak badirela nabari da.

Donostiarren artean adinean behera joan ahala, hazi egiten da etxeko hizkuntza euskara dela aitortzen dutenen kopurua (adinekoen % 10ek aitortzetik haurren % 18,1ek aitortzera) edota etxeko hizkuntzak euskara zein gaztelania direla aitortzen dutenen kopurua (adinekoen % 7,1ek aitortzetik haurren % 14,2k aitortzera). Hala, donostiar gazteenen artean euskarak etxean presentzia handiagoa duela esan daiteke.

5. grafikoa: **Donostiako hiztunen etxeko hizkuntza, adin taldeka. Donostia, 2011 (%)**



Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak, 2011.

4. taula: **Donostiako hiztunen etxeko hizkuntza, adin taldeka. Donostia, 2011**

	Haurrak (2-14 urte)		Gazteak (15-34 urte)		Helduak (35-64 urte)		Adinekoak (>= 65 urtekoak)	
	Kop.	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**
Euskara	3.667	18,1	5.372	13,6	8.608	10,7	3.696	10,0
Gaztelania	13.485	66,6	28.424	71,7	63.200	78,2	30.190	81,8
Biak	2.868	14,2	4.370	11,0	7.303	9,0	2.635	7,1
Beste bat	237	1,2	1.455	3,7	1.664	2,1	391	1,1
Hiztunak	20.257	100,0	39.621	100,0	80.775	100,0	36.912	100,0

Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak, 2011.

Sexuaren araberako banaketari erreparatuz, ez dago aparteko desberdintasunik donostiarren artean etxeko hizkuntza definitzerako garaian. Izan ere, bi kategorietan nabarmena da gehienek aitortzen dutela gaztelania etxeko hizkuntza gisa.

Dena den, datuetan ageri den alde txiki bat deskribatu nahian, donostiar emakume gehixeagok aitortzen dute euskara bere etxeko hizkuntza bakartzat, donostiar gizonezkoen % 11,7ren aldean emakumezkoen % 12,3 baitira hala adierazten dutenak.

6. grafikoa: **Donostiako hiztunen etxeko hizkuntza, sexuaren arabera. Donostia, 2011 (%)**



Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak, 2011.

5. taula: **Donostiako hiztunen etxeko hizkuntza, sexuaren arabera. Donostia, 2011**

	Emakumezkoak		Gizonezkoak	
	Kop.	**%**	**Kop.**	**%**
Euskara	11.627	12,3	9.716	11,7
Gaztelania	71.731	75,8	63.568	76,7
Biak	9.291	9,8	7.885	9,5
Beste bat	1.986	2,1	1.761	2,1
Hiztunak	94.635	100,0	82.930	100,0

Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak, 2011.

6.3.3. Gertuko jendea eta ohiko lagunartea

Dimentsio honi dagokion informazioa lortzeko, hainbat iturritara jo dugu. Lehenik eta behin, ohiko lagunekin darabilten hizkuntzaz Inkesta Soziolinguistikoak egiten duen galderari donostiarrek emandako erantzunak bildu ditugu. Bestalde, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketetatik lortzen ditugun datuak ere aztertu ditugu, erabilera orokorraz gain adinaren eta sexuaren araberako datuak txertatu direlarik. Gainera, kasu honetan, Donostiako, Astigarragako eta Pasai San Pedroko datuak ditugu esku artean. Azkenik, ARRUE ikerketatik jaso dugu haur eta nerabeek lagunekin kalean darabilten hizkuntzaren datua ere.

Zazpigarren grafikoari begira[12], donostiarrek ohiko lagunekin erabiltzen duten hizkuntza nagusia erdara da. Hain zuzen ere, % 69,1ek dio beti erdaraz egiten duela ohiko lagunekin; eta beti euskaraz egiten dutenek, ordea, % 6,1eko multzoa osatzen dute.

[12] Jatorrizko datuak ehunekotan ditugunez, ez dugu taularik osatu.

7. grafikoa: **Ohiko lagunekin erabilera. Donostia, 2011 (%)**



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketen datuak adierazten digutenez, hiru lurralde eremuetan kalean nabarmen gehien entzuten den hizkuntza gaztelania da. Pasai San Pedron % 85,4koa, Donostian % 81,7koa eta Astigarragan % 69,2koa da gaztelaniaren erabilera.

8. grafikoa: **Hizkuntzen kale erabilera. Donostia (2011), Astigarraga (2011), Pasai San Pedro (2015). (%)**



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2011ko Donostiako eta Astigarragako Hizkuntzen Kale Erabileraren Neurketa eta 2015eko Pasaiako Hizkuntzen Kale Erabileraren Neurketa.

Dena den, hiru eremuetatik kalean euskara gehien entzuten dena Astigarraga da (% 30,4koa da euskararen erabilera Astigarragan), eta euskara gutxien entzuten dena, berriz, Pasai San Pedro (euskararen erabilera % 13,7koa da). Azkenik, beste hizkuntzei dagokionez, hiru eremu horietatik Donostian erabiltzen dira gehien (% 3,2ko erabilera dute beste hizkuntzek).

6. taula: **Hizkuntzen kale erabilera. Donostia (2011), Astigarraga (2011), Pasai San Pedro (2015)**

	Donostia (2011)		Astigarraga (2011)		Pasai San Pedro (2015)	
	Kop.	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**
Euskaraz	3.190	15,2	969	30,4	553	13,7
Gaztelaniaz	17.200	81,7	2.210	69,2	3.438	85,4
Beste hizkuntzetan	664	3,2	13	0,4	37	0,9
GUZTIRA	21.054	100,0	3.192	100,0	4.028	100,0

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2011ko Donostiako eta Astigarragako Hizkuntzen Kale Erabileraren Neurketa eta 2015eko Pasaiako Hizkuntzen Kale Erabileraren Neurketa.

Adin tarteen araberako banaketari dagokionez, bederatzigarren grafikoan ikus daitekeen moduan, lau adin tarteetako erabilerak tasa altuenetik baxuenerako hurrenkeran antolatzen baditugu, eremu bakoitzean tipologia ezberdin bat ageri zaigu. Donostiaren kasuan, *Haur-Gazte-Heldu-Adineko* tipologia ageri da; Astigarragaren kasuan, *Gazte-Haur-Heldu-Adineko*; eta azkenik, Pasaian[13], *Haur-Heldu-Gazte-Adineko* tipologia eratzen da.

[13] Erabilera orokorra kalkulatzeko oztoporik jarri ez badigu ere, datu xeheagoak ematerako garaian Pasai San Pedroko datuek errore handiagoa ematen dute, eta, beraz, ez dira datu adierazgarriak. Ondorioz, ondorengo grafiko eta tauletan Pasaia osoko datuak aurkeztuko dira datuen gurutzaketak azaldu nahian.

9. grafikoa: **Euskararen kale erabilera, adin taldearen arabera. Donostia (2011), Astigarraga (2011), Pasaia (2015). (Euskaraz, %)**



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2011ko Donostiako eta Astigarragako Hizkuntzen Kale Erabileraren Neurketa eta 2015eko Pasaiako Hizkuntzen Kale Erabileraren Neurketa.

Hala eta guztiz ere, badugu esaterik hiru eremuetan euskara gehien belaunaldi gazteek erabiltzen dutela. Pasaiako helduen salbuespenarekin (gazteengandik alde handirik ez dagoela kontuan hartu), hiru eremuetan haur eta gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak.

7. taula: **Hizkuntzen kale erabilera, adin taldeen arabera. Donostia (2011), Astigarraga (2011), Pasaia (2015)**

	DONOSTIA (2011)							
	Haurrak		**Gazteak**		**Helduak**		**Adinekoak**	
	Kop.	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**
Euskaraz	1.048	27,2	328	14,6	1.581	14,0	233	6,3
Gaztelaniaz	2.730	70,9	1.819	81,2	9.232	82	3.419	92,4
Beste hizkuntzetan	75	1,9	93	4,2	449	4,0	47	1,3
GUZTIRA	3.853	100,0	2.240	100,0	11.262	100,0	3.699	100,0
	ASTIGARRAGA (2011)							
	Haurrak		**Gazteak**		**Helduak**		**Adinekoak**	
	Kop.	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**
Euskaraz	422	45,1	111	46,8	357	22,5	79	18,2
Gaztelaniaz	513	54,9	126	53,2	1.215	76,7	356	81,8
Beste hizkuntzetan	0	0,0	0	0,0	13	0,8	0	0,0
GUZTIRA	935	100,0	237	100,0	1.585	100,0	435	100,0
	PASAIA (2015)							
	Haurrak		**Gazteak**		**Helduak**		**Adinekoak**	
	Kop.	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**
Euskaraz	802	39,4	114	17,6	1.047	18,8	225	8,7
Gaztelaniaz	1.221	60,0	530	81,7	4.441	79,5	2.320	90,0
Beste hizkuntzetan	11	0,5	5	0,8	96	1,7	34	1,3
GUZTIRA	2.034	100,0	649	100,0	5.584	100,0	2.579	100,0

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2011ko Donostiako eta Astigarragako Hizkuntzen Kale Erabileraren Neurketa eta 2015eko Pasaiako Hizkuntzen Kale Erabileraren Neurketa.

Belaunaldi gazteek hitz egiten dute euskaraz gehien kalean; haur eta nerabeek kalean erabiltzen duten hizkuntzaren inguruko erantzunak ematean, ordea, bestelako emaitza batzuk lortzen ditugu. Hamargarren grafikoan eta zortzigarren taulan adierazten da, ARRUE ikerketak eskainitako datuen arabera, LMH4ko eta DBH2ko ikasle donostiarrek kalean lagunekin zein hizkuntza darabilten.

10. grafikoa: **LMH4 eta DBH2ko ikasleen erabilera lagunekin kalean. Donostia, 2013 (%)**



Iturria: ISEI-IVEI, ARRUE proiektua.

Datuei begira, LMH4ko zein DBH2ko ikasle donostiar gehienek lagunekin kalean beti gaztelaniaz hitz egiten dutela diote. LMH4ko ikasleen kasuan % 50,3k osatzen du lagunekin kalean beti gaztelaniaz aritzen direla diotenen multzoa; eta DBH2koen kasuan, berriz, multzo hori % 60,7k osatzen du. Gaztetxoagoek, beraz, euskara gehiago darabilte lagunekin kalean.

8. taula: **LMH4 eta DBH2ko ikasleen erabilera lagunekin kalean. Donostia, 2013**

	LMH4		DBH2	
	Kop.	**%**	**Kop.**	**%**
Beti euskaraz	166	9,3	91	5,07
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	183	10,3	145	8,08
Bietan berdin	186	10,5	140	7,8
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	316	17,8	308	17,17
Beti gaztelaniaz	895	50,3	1.088	60,65
Beste hizkuntza batean	32	1,8	22	1,23
GUZTIRA	1.778	100	1.794	100

Iturria: ISEI-IVEI, ARRUE proiektua.

Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketen emaitzetara itzuliz, sexu aldagaiaren inguruko azterketa aurkeztu nahi genuke ondorengo lerroetan. Sexuari erreparatuz gero, ez da aparteko alderik hiru eremuetan erabilerari dagokionez. Izan ere, neurketa bakoitzaren akats tartearen inguruan dabiltza emakumezkoen zein gizonezkoen erabileren arteko aldeak. Beraz, ez dira alde adierazgarriak.

11. grafikoa: **Euskararen kale erabilera, sexuaren arabera. Donostia (2011), Astigarraga (2011), Pasaia (2015). (Euskaraz, %)**



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2011ko Donostiako eta Astigarragako Hizkuntzen Kale Erabileraren Neurketa eta 2015eko Pasaiako Hizkuntzen Kale Erabileraren Neurketa.

9. taula: **Hizkuntzen kale erabilera, sexuaren arabera, XVIII. mendeko Donostiak barne hartzen zituen eremuetan. Donostia (2011), Astigarraga (2011), Pasaia(2015)**

	DONOSTIA (2011)		ASTIGARRAGA (2011)		PASAIA (2015)	
Kop.	**Emakumezkoak**	**Gizonezkoak**	**Emakumezkoak**	**Gizonezkoak**	**Emakumezkoak**	**Gizonezkoak**
Euskaraz	1.800	1.390	459	510	1.214	974
Gaztelaniaz	9.820	7.380	1.107	1.103	4.346	4.166
Beste hizkuntzetan	323	341	9	4	71	75
GUZTIRA	11.943	9.111	1.575	1.617	5.631	5.215
	DONOSTIA (2011)		**ASTIGARRAGA (2011)**		**PASAIA (2015)**	
%	**Emakumezkoak**	**Gizonezkoak**	**Emakumezkoak**	**Gizonezkoak**	**Emakumezkoak**	**Gizonezkoak**
Euskaraz	15,1	15,3	29,1	31,5	21,6	18,7
Gaztelaniaz	82,2	81,0	70,3	68,2	77,2	79,9
Beste hizkuntzetan	2,7	3,7	0,6	0,3	1,3	1,4
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2011ko Donostiako eta Astigarragako Hizkuntzen Kale Erabileraren Neurketa eta 2015eko Pasaiako Hizkuntzen Kale Erabileraren Neurketa.

Azkenik, Kale Neurketek eskaintzen diguten informazioarekin amaitzeko, Donostiako auzo batzuetako erabilera-datuak[14] jaso ditugu hurrengo grafiko eta taulan. Dena den, kontuan hartu behar da ondorengo datu hauek gutxi gorabeherakoak direla, izan ere, auzo batzuetako datuek akats tarte handia dute. Horregatik, erreferentziazko datu bezala ulertu behar dira.

[14] Auzoetako datuak ateratzeko, 2011ko Donostiako Hizkuntzen Kale Erabileraren Neurketa egiteko erabili ziren ibilbide batzuk batu egin dira. Aurkeztu dugun "Erdialdea" auzoa 2011ko Parte Zaharrak, Amara Zaharrak, Boulevard eta San Martin ibilbideek osatzen dute; "Amara Berri" auzoan, 2011ko Amara Berri 1, Amara Berri 2 eta Loiolako Erriberak ibilbideak sartu ditugu; eta azkenik, "Gros" auzoan ere 2011ko bi ibilbide sartu dira: Gros 1 eta Gros 2, hain zuzen ere.

12. grafikoa: **Euskararen kale erabilera, Donostiako auzo batzuetan. Donostia, 2011. (Euskaraz, %)**



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2011ko Donostiako Hizkuntzen Kale Erabileraren Neurketa.

Euskararen kaleko erabilera altuena adierazten duen auzoa Antigua da (% 32,7koa hain zuzen ere), eta erabilera baxuena duena, berriz, Mirakruz-Bidebieta (% 5,6koa duelarik).

10. taula: **Hizkuntzen kale erabilera, Donostiako auzo batzuetan. Donostia, 2011**

	Aiete		Erdialdea		Altza		Amara Berri	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskaraz	243	26,8	1.154	15,0	47	6,2	336	12,7
Gaztelaniaz	638	70,3	6.103	79,2	706	93,1	2.275	86,1
Beste hizkuntzetan	26	2,9	452	5,9	5	0,7	31	1,2
GUZTIRA	907	100,0	7.709	100,0	758	100,0	2.642	100,0

	Antigua		Mirakruz-Bidebieta		Egia		Gros	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskaraz	570	32,7	50	5,6	174	15,0	255	11,0
Gaztelaniaz	1.168	67,0	822	91,5	958	82,4	2.000	86,0
Beste hizkuntzetan	6	0,3	26	2,9	31	2,7	71	3,0
GUZTIRA	1.744	100,0	898	100,0	1.163	100,0	2.326	100,0

	Intxaurrondo		Loiola		Martutene		Ategorrieta-Ulia	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskaraz	95	9,5	87	12,5	58	14,3	121	15,0
Gaztelaniaz	897	89,7	607	87,5	345	84,8	681	84,5
Beste hizkuntzetan	8	0,8	0	0,0	4	1,0	4	0,5
GUZTIRA	1.000	100,0	694	100,0	407	100,0	806	100,0

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2011ko Donostiako Hizkuntzen Kale Erabileraren Neurketa.

6.3.4. Informazio-hedapena eta kontsumoa

Jardungune honetan, bi komunikabide multzo osatu ditugu: batetik, euskal egunkari eta aldizkariei buruz bildu dugun informazioa; eta bestetik, irrati, telebista eta Internet diren hedabide modernoagoei dagozkien datuak. Hau da, euskarazko prentsari eta euskarazko irrati eta telebistari dagozkien gipuzkoar kontsumitzaileen datuak jasotzen dira datozen taula eta grafikoetan.

13. grafikoa: **Euskal prentsaren (egunkariak eta aldizkariak) irakurleak. Gipuzkoa, 2013 (%)**



Iturria: CIES.

Hamahirugarren grafikoan ikus daitekeen moduan, paperezko euskal prentsaren irakurle diren 14 urtetik gorako gipuzkoarretatik % 16,6k kontsumitzen du *Hitza*; *Berria* kontsumitzen dutenak % 8,9 dira eta azkenik, % 7,1ekoa osatzen dute *Argia* kontsumitzen dutenek. Interneteko prentsaren irakurle diren 14 urtetik gorako gipuzkoarretatik % 8,2k kontsumitzen du *Berria.info* ataria, eta % 0,6k, aldiz, *Hitza.info* ataria. Kontuan hartzekoa da irakurleek hedabide bat baino gehiago irakur dezaketela, eta badirela euskaraz irakurtzeko aukera ematen duten beste hedabide batzuk.

11. taula: **Euskal prentsaren (egunkariak eta aldizkariak) irakurleak. Gipuzkoa, 2013**

	Kop. (milakotan)	**%**
Argia	23	7,1
Berria	29	8,9
Hitza	54	16,6
Paperezko prentsaren irakurleak (Guztira)	944	
Berria.info	14	8,2
Hitza.info	1	0,6
Interneteko prentsaren irakurleak (Guztira)	513	

Iturria: CIES.

14. grafikoa: **Euskarazko irrati eta telebisten ikusleak. Gipuzkoa, 2013 (%)**



Iturria: CIES.

14. grafikoari erreparatuz, euskal irratien entzule diren 14 urtetik gorako gipuzkoarretatik % 17k kontsumitzen du Euskadi Irratia; eta Gaztea kontsumitzen dutenak % 16,8 dira. Euskarazko telebisten ikusleak diren 14 urtetik gorako gipuzkoarretatik % 13,1 da, aldiz, ETB1en kontsumitzailea, eta % 3,3k HamaikaTB kontsumitzen du. Kontuan hartzekoa da hemen ere entzule edo ikusle batek hedabide bat baino gehiago entzun edo ikus dezakeela.

12. taula: **Euskarazko irrati eta telebisten ikusleak. Gipuzkoa, 2013**

	Kop. (milakotan)	**%**
Euskadi Irratia	63	17,0
Gaztea (EiTB Formula)	62	16,8
Euskal irratien entzuleak (Guztira)	370	
ETB1	67	13,1
HamaikaTB	17	3,3
Euskarazko telebisten ikusleak (Guztira)	510	

Iturria: CIES.

Multzo honetako informazioa osatze aldera, EUSTATek egiten duen Informazio Gizarteari buruzko Inkestak barnebiltzen duen nabigazio hizkuntzaren araberako biztanleen banaketaren datuak[15] aurkeztuko ditugu ondoren.

15. grafikoa: **Azken hiru hilabeteetan internet erabili duten 6 urtetik gorako herritarrak nabigazio hizkuntzaren arabera. Gipuzkoa, 2014 (%)**



Iturria: EUSTAT, Informazio Gizarteari buruzko Inkesta, 2014.

Hamabosgarren grafikoan ikus daitekeenez, 6 urtetik gorako gipuzkoarrek Interneten nabigatzeko erabiltzen duten hizkuntza nagusia gaztelania da. Nabarmena da gaztelaniaren erabilerak beste hizkuntzen erabilerekiko ateratzen duen aldea. Hala, 6 urtetik gorako ia gipuzkoar guztiek erabiltzen dute gaztelania Interneten dabiltzanean.

Hala eta guztiz ere, ondorengo hizkuntza erabilienak euskara eta ingelesa direla azpimarratu behar da: euskaraz nabigatzen dutenak 6 urtetik gorako gipuzkoarren % 18,7 dira, eta jarraian ingelesez nabigatzen duten 6 urtetik gorako gipuzkoarren multzoa daukagu (% 18,3k erabiltzen dute hizkuntza hau).

Azkenik, 6 urtetik gorako gipuzkoarren % 1,8k frantsesez nabigatzen dute, eta % 1,9 dira beste hizkuntza batzuetan nabigatzen dutenak.

[15] Bi galderen bidez lortzen da datua: "Internet erabili duzu azken hiru hilabeteetan?". Baiezkoa bada, "Zein hizkuntza erabiltzen duzu edo dituzu, Interneten nabigatzeko? Euskara/Gaztelania/Ingelesa/Frantsesa/ beste bat" Erantzun bat baino gehiago eman daiteke.

13. taula: **Azken hiru hilabeteetan internet erabili duten 6 urtetik gorako herritarrak nabigazio hizkuntzaren arabera. Gipuzkoa, 2014.**

	Kop. (milakotan)	%
Euskaraz	137,7	18,7
Gaztelaniaz	724,5	98,2
Frantsesez	13,4	1,8
Ingelesez	134,9	18,3
Beste hizkuntzetan	13,7	1,9
Nabigatzaileak guztira	738,1	100,0

Iturria: EUSTAT, Informazio Gizarteari buruzko Inkesta, 2014.

6.3.5. Hezkuntza

Hezkuntzari dagokionez, ARRUE ikerketak haur eta nerabeen eskolako hizkuntza-erabileraz eskainitako datuak landu ditugu dimentsio honetan, eta, horrez gain, matrikulazio datuak ere aztertu ditugu: batetik, Donostiako ikastetxeetan matrikulatuak dauden ikasleak, hezkuntza ereduen arabera; eta bestetik, Donostiako campusetako unibertsitate ikasleen matrikulazio kopuruak, hizkuntzaren arabera. Hala, matrikulazioei buruzko informazio hau aurkeztuko dugu lehendabizi.

16. grafikoa: **Donostiako hezkuntza ereduak. Donostia, 2011 (%)**



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Irakaskuntza Estatistikak,2011.

Hamaseigarren grafikoari begiratuz, Donostiako ikastetxeetan eskaintzen diren hezkuntza ereduak kontuan hartuta, D ereduan daude matrikulatuak ikasle gehien (% 52,1), Donostiako ikastetxeetan matrikulatutako ikasleen erdia baino gehiago, hain zuzen ere. Beraz, ikasle gehienek euskaraz burutzen dituzte derrigorrezko ikasketak. Ondoren, pareko pisua dute B ereduan eta A ereduan matrikulatutako ikasleek, % 24,5 eta % 23,4, hurrenez hurren.

14. taula: **Donostiako hezkuntza ereduak. Donostia, 2011**

	Kop.	**%**
A eredua	8.296	23,4
B eredua	8.688	24,5
D eredua	18.454	52,1
X eredua	0	0,0
GUZTIRA	35.438	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Irakaskuntza Estatistikak, 2011.

Derrigorrezko hezkuntzaz haratago, ondorengo grafikoan unibertsitateko ikasleen matrikulazio datuak bildu ditugu. Bertan Donostiako unibertsitate campusetan euskaraz matrikulatu diren ikasleen datua ikus daiteke[16]. EHUren kasuan, Donostiako fakultateetan euskaraz matrikulatutako ikasleek % 55,5 osatzen dute; eta Deustuko Unibertsitateko Donostiako fakultateetan euskaraz matrikulatutakoek, aldiz, % 50,3. Mondragon Unibertsitatea ere txertatu dugu grafiko honetan, Gastronomia gradua eskaintzen baitu Donostian, baina kontuan hartzekoa da gradu hau euskaraz egiteko aukerarik ez dela eskaintzen. Hau guztia kontuan hartuz, Donostiako unibertsitate eta fakultateetan euskaraz ikasteko aukera eskaintzen den heinean, ikasleen erdiak, behintzat, hautu hori egiten du.

[16] Jatorrizko datuak ehunekotan ditugunez, ez dugu taularik osatu.

17. grafikoa: **Donostiako unibertsitate campusetan euskaraz matrikulatu diren ikasleak. Donostia, 2013/2014 eta 2014/2015 ikasturteak (%)**



Iturria: EHU zenbakitan txostena, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea.

Datozen 18. grafikoari eta 15. tauletan, ikasleen eskolako hizkuntza-erabilera jasotzen da ARRUEk eskaintzen dituen datuen bitartez. Donostiako LMH4ko eta DBH2ko ikasleen artean hizkuntza-erabileraren joera bera gertatzen da eremu bakoitzean, hau da: Donostiako ikasleek euskara gehien irakasleekin gelan erabiltzen dute; ondoren, irakasleekin gelatik kanpo daudenean; jarraian, ikaskideekin, baina gela barruan daudenean; eta azkenik, ikaskideekin jolaslekuan daudenean erabiltzen dute euskara gutxien. Gainera, bi ikasmailak konparatuz gero, ikasle gazteenek (LMH4) gehiago erabiltzen dute euskara aipaturiko lau eremuetan, DBH2ko ikasleek baino.

18. grafikoa: **LMH4 eta DBH2ko ikasleen eskolako hizkuntza-erabilera. Donostia, 2015 (%)**



Iturria: ISEI-IVEI, ARRUE proiektua.

15. taula: **LMH4 eta DBH2ko ikasleen eskolako hizkuntza-erabilera. Donostia, 2015**

	LMH4							
	Ikaskideekin gelan		Irakasleei gelan		Irakasleei gelatik kanpo		Ikaskideekin jolaslekuan	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Beti euskaraz	625	36,9	921	54,4	800	47,2	222	13,1
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	313	18,5	296	17,5	243	14,3	215	12,7
Bietan berdin	185	10,9	209	12,3	183	10,8	178	10,5
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	222	13,1	132	7,8	174	10,3	362	21,4
Beti gaztelaniaz	333	19,6	84	5,0	256	15,1	712	42,0
Beste hizkuntza batean	17	1,0	52	3,1	38	2,2	6	0,4
GUZTIRA	1.695	100,0	1.694	100,0	1.694	100,0	1.695	100,0
	DBH2							
	Ikaskideekin gelan		Irakasleei gelan		Irakasleei gelatik kanpo		Ikaskideekin jolaslekuan	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Beti euskaraz	127	7,6	633	37,7	559	33,3	38	2,3
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	246	14,6	433	25,8	354	21,1	133	7,9
Bietan berdin	196	11,7	221	13,1	205	12,2	116	6,9
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	432	25,7	233	13,9	238	14,2	372	22,1
Beti gaztelaniaz	677	40,3	135	8	306	18,2	1.020	60,7
Beste hizkuntza batean	3	0,2	26	1,5	19	1,1	2	0,1
GUZTIRA	1.681	100	1.681	100	1.681	100	1.681	100

Iturria: ISEI-IVEI, ARRUE proiektua.

6.3.6. Lana

Lan arloari dagokionez, lankideen erabilerari buruz Inkesta Soziolinguistikoak eskaintzen dizkigun datuak ditugu[17]. 19. grafikoaren arabera, donostiarren gehiengoak lankideekin erdara erabiltzen du (% 67,5ek lankideekin beti erdaraz egiten du eta % 10,3ek erdaraz euskaraz baino gehiago). Hala, donostiarren % 16,1 da lankideekin beti euskaraz edota euskaraz erdaraz baino gehiago aritzen dena.

19. grafikoa: **Erabilera lankideekin. Donostia, 2011 (%)**



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

6.3.7. Salerosketa

Siadecok 2012. urtean Donostiako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetan egindako hizkuntza-komunikazioaren inguruko azterketak idatzizko eta ahozko komunikazioan hizkuntzen erabilera-mailari dagozkion datuak eskaintzen ditu[18].

[17] Jatorrizko datuak ehunekotan ditugunez, ez dugu taularik osatu.

[18] Jatorrizko datuak ehunekotan ditugunez, ez dugu taularik osatu.

20. grafikoa: **Hizkuntzen erabilera maila establezimenduetako idatzizko komunikazio euskarrietan. Donostia, 2012 (batez beste, %)**



Iturria: Siadeco, Hizkuntza komunikazioaren inguruko azterketa Donostiako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetan, 2012.

20. grafikoan ikus daitekeen moduan, idatzizko komunikazioan hizkuntza erabiliena gaztelania da bai establezimenduaren errotulazio eta idazkietan, bai bezeroarekiko harremanetan, bai publizitate euskarrietan eta baita establezimenduaren gestioetan ere. Euskararen kasuan, komunikazio, publizitate eta marketin elementuetan erabiltzen da gehien, establezimenduaren kanpo eta barneko errotulazio eta idazkien pare.

21. grafikoa: **Hizkuntzen erabilera-maila establezimenduetako ahozko harreman eta komunikazioetan. Donostia, 2012**



Iturria: Siadeco, Hizkuntza komunikazioaren inguruko azterketa Donostiako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetan, 2012.

Ahozko harremanei begiratzen badiegu (21. grafikoa), kasu hauetan ere gaztelania da gehien erabilia bai bezeroekin, bai telefono harreretan, bai langileen artean eta baita beste enpresa eta erakundeekiko harremanetan ere. Euskara gehien, berriz, bezeroekin erabiltzen dute Donostiako establezimenduek.

6.4. HIZKUNTZA-GAITASUNA

Hizkuntza-gaitasunari ekinez, hiru datu orokor aurkeztu nahi izan ditugu lehendabizi: alde batetik, Donostiako, Astigarragako eta Pasai San Pedroko ezagutza datu orokorrak adin-talde eta sexu aldagaiak kontuan hartuz; bestetik, donostiarren hizkuntza-erraztasunari buruzko datuak bildu dira; eta azkenik, dimentsioaren datu orokor gisa, donostiarren hizkuntza-bilakaeraren tipologiaren datuak adierazten dira.

22. grafikoa: **Hiztunen euskara-gaitasuna. Donostia (2011), Astigarraga (2011), Pasai San Pedro (2006) (%)**



Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak (2006, 2011).

Donostian eta Pasai San Pedron antzeko datuak ageri zaizkigu euskara-gaitasunari dagokionez: euskaldunak % 40 inguru, ia-euskaldunak % 27 inguru eta erdaldunak, berriz, % 33 inguru. Hala eta guztiz ere, aipatzekoa da Pasai San Pedron erdaldun gehiagoren presentzia dagoela. Bestelako egoera baten aurrean aurkitzen gara Astigarragan, ordea: euskaldunak nabarmen gehiago dira (% 59,8) Donostia eta Pasai San Pedrorekin konparatuta.

16. taula: **Hiztunen euskara-gaitasuna. Donostia (2011), Astigarraga (2011), Pasai San Pedro (2006)**

	DONOSTIA (2011)		ASTIGARRAGA (2011)		PASAI SAN PEDRO (2006)		HIRU EREMUAK BATERA	
	Kop.	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**
Euskaldunak	72.071	40,6	2.830	59,8	1.051	38	75.952	41,0
Ia-euskaldunak	50.793	28,6	1.090	23,0	722	26,1	52.605	28,4
Erdaldunak	54.701	30,8	813	17,2	997	36,0	56.511	30,5
GUZTIRA	177.565	100,0	4.733	2,6	2.770	1,5	185.068	100,0

Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak (2006, 2011).

Donostiako kasuan, hiztunen euskara-gaitasun xehatuagoaren datuak ere baditugu. Hala, 23. grafikoan ikus daitekeenez, hiru multzotan biltzen da hiztunen gehiengoa: multzo nagusiena euskaldun alfabetatuena da (% 33,2), ondoren erdaldunena (% 30,8) eta jarraian ia-euskaldun alfabetatuak daude (% 15,0).

23. grafikoa: **Donostiako hiztunen euskara-gaitasun xehatua. Donostia, 2011 (%)**



Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak, 2011.

Ondorengo grafiko eta taulek hiztunen euskara-gaitasuna adin taldeen arabera aztertzeko aukera ematen digute:

24. grafikoa: **Hiztunen euskara-gaitasuna, adin taldeka. Donostia (2011), Astigarraga (2011), Pasai San Pedro (2006) (%)**



Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak (2006, 2011).

Adin taldeen araberako euskara-gaitasuna kontuan hartuz, Donostian eta Pasai San Pedron hurrenkera bera daukagu: euskaldun gehien haurren artean aurkitzen da, ondoren gazteen artean, jarrian helduen artean eta, azkenik, adinekoen artean. Astigarragan, ordea, bestelako hurrenkera hau jarraitzen da: haurrak, gazteak, adinekoak eta helduak.

17. taula: **Hiztunen euskara-gaitasuna, adin taldeka. Donostia (2011), Astigarraga (2011), Pasai San Pedro (2006)**

	DONOSTIA (2011)							
	Haurrak		**Gazteak**		**Helduak**		**Adinekoak**	
	Kop.	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**
Euskaldunak	16.444	81,2	22.992	58,0	23.567	29,2	9.068	24,6
Ia-euskaldunak	2.940	14,5	9.223	23,3	30.115	37,3	8.515	23,1
Erdaldunak	873	4,3	7.406	18,7	27.093	33,5	19.329	52,4
GUZTIRA	20.257	100,0	39.621	100,0	80.775	100,0	36.912	100,0
	ASTIGARRAGA (2011)							
	Haurrak		**Gazteak**		**Helduak**		**Adinekoak**	
	Kop.	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**
Euskaldunak	648	85,6	828	70,8	1055	46,8	299	54,1
Ia-euskaldunak	76	10,0	220	18,8	742	32,9	52	9,4
Erdaldunak	33	4,4	122	10,4	456	20,2	202	36,5
GUZTIRA	757	100,0	1170	100,0	2253	100,0	553	100,0
	PASAI SAN PEDRO (2006)							
	Haurrak		**Gazteak**		**Helduak**		**Adinekoak**	
	Kop.	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**
Euskaldunak	196	70,5	143	64,4	538	32,8	174	27,7
Ia-euskaldunak	65	23,4	55	24,8	514	31,3	88	14,0
Erdaldunak	17	6,1	24	10,8	590	35,9	366	58,3
GUZTIRA	278	100,0	222	100,0	1.642	100,0	628	100,0

Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak (2006, 2011).

Sexuen araberako aldeei erreparatuz gero, eremu geografiko bakoitzean euskaldunen datua pareko ageri zaigula ikus daiteke. Astigarragako eta Pasai San Pedroko emakume euskaldunen datua gizonezkoenaren zertxobait gainetik kokatzen da, baina ez dirudi alde adierazgarririk dagoenik.

25. grafikoa: **Hiztunen euskara-gaitasuna, sexuaren arabera. Donostia (2011), Astigarraga (2011), Pasai San Pedro (2006) (%)**



Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak (2006, 2011).

18. taula: **Hiztunen euskara-gaitasuna, sexuaren arabera. Donostia (2011), Astigarraga (2011), Pasai San Pedro (2006)**

Kop.	**Donostia (2011)**		**Astigarraga (2011)**		**Pasai San Pedro (2006)**	
	Emakumezkoak	**Gizonezkoak**	**Emakumezkoak**	**Gizonezkoak**	**Emakumezkoak**	**Gizonezkoak**
Euskaldunak	38.318	33.753	1.407	1.423	567	484
Ia-euskaldunak	26.257	24.536	527	563	392	330
Erdaldunak	30.060	24.641	393	420	528	469
GUZTIRA	94.635	82.930	2.327	2.406	1.487	1.283

%	Donostia (2011)		Astigarraga (2011)		Pasai San Pedro (2006)	
	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Euskaldunak	40,5	40,7	60,5	59,1	38,1	37,7
Ia-euskaldunak	27,7	29,6	22,6	23,4	26,4	25,7
Erdaldunak	31,8	29,7	16,9	17,5	35,5	36,6
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak (2006, 2011).

Donostiako hiztunen kasuan, hizkuntza-erraztasunari buruzko datuak ere baditugu Inkesta Soziolinguistikoari esker. Hala, gehiengoak erdararekin du erraztasun handiagoa (% 51,5); % 33,3k euskara eta erdara erabiltzeko erraztasuna aitortzen du; eta euskara erraz erabiltzen dutenak % 15,2 dira.

26. grafikoa: **Donostiako hiztunen hizkuntza-erraztasuna. Donostia, 2011 (%)**



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

19. taula: **Donostiako hiztunen hizkuntza-erraztasuna. Donostia, 2011**

	Kop.	%
Euskara	8.104	15,2
Euskara eta erdara	17.765	33,3
Erdara	27.469	51,5
GUZTIRA	53.339	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Donostiako hiztunen hizkuntza-bilakaeraren tipologia-datuei erreparatzen badiegu (27. grafikoa eta 20. taula), multzorik potoloena erdaldun zaharrek osatzen dute (% 48,8). Jarraian, antzeko pisua duten bestelako hiru multzo aurkitzen dira: euskaldun zaharrena batetik (% 14,8), euskaldun berriena ondoren (% 13,5) eta partzialki euskaldun berriak direnena bestalde (% 12,6).

27. grafikoa: **Donostiako hiztunen hizkuntza-bilakaeraren tipologia. Donostia, 2011 (%)**



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

20. taula: **Donostiako hiztunen hizkuntza-bilakaeraren tipologia. Donostia, 2011**

	Kop.	%
Euskaldun zaharrak	23.618	14,8
Jatorrizko elebidunak	8.279	5,2
Euskaldun berriak	21.442	13,5
Partzialki euskaldun berriak	20.113	12,6
Partzialki erdaldunduak	2.834	1,8
Guztiz erdaldunduak	5.277	3,3
Erdaldun zaharrak	77.746	48,8
GUZTIRA	159.309	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

6.4.1. Etxea eta familia

Datu orokor horiez gain, donostiarren lehen hizkuntzaren inguruko datuak "Etxea eta familia" jardunbidearen baitan kokatu ditugu. Hala, 28. grafikoari begira, gaztelania da nabarmenki donostiarren lehen hizkuntza nagusia (% 68,5). Euskarari dagokionez, % 19,8k du lehen hizkuntzatzat.

28. grafikoa: **Donostiako hiztunen lehen hizkuntza. Donostia, 2011 (%)**



Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak, 2011.

21. taula: **Donostiako hiztunen lehen hizkuntza. Donostia, 2011**

	Kop.	%
Euskara	35.176	19,8%
Gaztelania	121.695	68,5%
Biak	13.932	7,8%
Beste bat	6.762	3,8%
Hiztunak	177.565	100,0%

Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak, 2011.

6.4.2. Salerosketa

Salerosketen jardunbidean, Donostiako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetan Siadecok hizkuntza-komunikazioaren inguruan 2012an eginiko azterketak eskaintzen dizkigun datuak bildu ditugu.

29. grafikoa: **Establezimenduetako arduradun eta langileen hizkuntzen ezagutza maila. Donostia, 2012 (%)**



Iturria: Siadeco, Hizkuntza komunikazioaren inguruko azterketa Donostiako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetan, 2012.

29. grafikoa eta 22. taula ditugu aztergai oraingoan. Bertan ikus daitekeenez, gaztelania da establezimenduetako arduradun eta langile gehienek ongi ulertzen, hitz egiten, irakurtzen eta idazten duten hizkuntza. Era berean, frantsesaren eta ingelesaren ezagutza duenik ere badago. Euskarari dagokionez, berriz, % 35,5 dira ongi ulertu, hitz egin, irakurri eta idazten dutenak. Baina euskaraz ulertzeko gaitasunari begiratuz gero, adibidez, % 65 ingurura igotzen da kopurua (ongi ulertzen dutenak eta nahikoa ongi ulertzen dutenak batu ostean).

22. taula: **Establezimendutako arduradun eta langileen hizkuntzen ezagutza maila. Donostia, 2012**

	Euskara		Frantsesa		Ingelesa		Gaztelania	
	Kop.	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**
Ongi ulertu, hitz egin, irakurri eta idatzi	630	35,5	153	8,6	224	12,6	1.683	94,9
Ongi ulertu eta hitz egin, ez ongi irakurri eta idatzi	137	7,7	96	5,4	155	8,7	9	0,5
GUZTIRA (gaitasuna dutenak)	*767*	*43,3*	*249*	*14,0*	*379*	*21,4*	*1.692*	*95,4*
Nahikoa ongi ulertu, zailtasunez hitz egin	419	23,6	281	15,8	307	17,3	12	0,7
Ez dakite (ez ulertu, ez hitz egin)	558	31,5	1.130	63,7	954	53,8	32	1,8
Ed/Ee	29	1,6	113	6,4	133	7,5	37	2,1

Iturria: Siadeco, Hizkuntza komunikazioaren inguruko azterketa Donostiako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetan, 2012.

Arduradunengan zentratuz, 30. grafikoari eta 23. taulari begiratzen badiegu, euskaldunen, ia-euskaldunen eta erdaldunen multzoak antzeko pisua dutela ikus daiteke, guztiak ere % 32ren inguruko datua adierazten baitute.

30. grafikoa: **Establezimenduetako arduradunen euskara-gaitasuna. Donostia, 2012 (%)**



Iturria: Siadeco, Hizkuntza komunikazioaren inguruko azterketa Donostiako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetan, 2012.

23. taula: **Establezimenduetako arduradunen euskara-gaitasuna. Donostia, 2012**

	Kop.	**%**
Alfabetatua	129	23,7
Alfabetatu gabea	44	8,1
GUZTIRA (euskaldunak)	173	31,8
Ia-euskaldunak	186	34,2
Erdaldunak	174	32,0
Ed/Ee	11	2,0

Iturria: Siadeco, Hizkuntza komunikazioaren inguruko azterketa Donostiako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetan, 2012.

6.5. HIZKUNTZ(AR)EN BARNE OSAERA

Dimentsio hau jantzi nahian, datu kuantitatibo batzuez gain, informazio kualitatiboa ere jaso dugu; izan ere, gazteen hizkuntza-praktiken inguruko ikerketen ondorioak eta merkataritza establezimenduetako hizkuntza-paisaian erabiltzen den hizkuntza-zuzentasuna izan ditugu hizpide.

6.5.1. Gertuko jendea eta ohiko lagunartea

Jardungune honetan, "Gu gazteok" ikerketa parte-hartzailearen[19] ondorioetako bat jaso nahi izan dugu. Hain zuzen ere, gaur egungo gazteen hizkuntza-praktiken ezaugarri nagusietako bat nahasketa dela azpimarratzen da, hizkuntza-alternantzia alegia: hiztun talde batek bi hizkuntza ezagutzen edo erabiltzen dituenean bi hizkuntzak batera erabiltzeko joera.

Kasu honetan, aztertutako gazte horien elkarrizketetan euskararen eta gaztelaniaren arteko nahasketa edo alternantziarako joera nabarmena ikusi da. "Gazteek ohiko praktika gisa dute barneratua modu elebidunean aritze hori, beraientzat "normal" hitz egitea euskara eta gaztelania nahasten hitz egitea baita. Gainera, interferentziak gehienetan gaztelaniatik euskarara gertatzen dira, hau da, gaztelaniazko esamoldeek euskarazko hizketaldian interferentzia eragiten dute"[20].

Salerosketa

Hizkuntzaren barne osaeratzat jaso dugu salerosketa eremuan kokatzen diren establezimenduetako idazkunetan erabiltzen den hizkuntza-zuzentasunari buruzko datua. Kasu honetan, DREAM ikerketa taldeak 2007., 2008. eta 2009. urteetan eginiko hizkuntza-paisaiari buruzko azterketak izan ditugu kontuan.

31. grafikoan ikus daitekeen moduan, nagusiki zuzen erabiltzen dira hizkuntzak establezimenduetako idazkunetan. Hala eta guztiz ere, aipagarria da oker adierazita dauden hizkuntzetan euskarak pisu gehiago hartzen duela gaztelaniarekin edo atzerriko hizkuntzarekin alderatuz.

---

[19] Ikerketa hau Kuadrillategi egitasmoa martxan duten herri batzuetako gazteekin egin da, Pasaian, Lasarte-Orian eta Lezon, alegia. Dena den, txostenean adierazten den moduan, azterketa mikroa izan bada ere, emaitzak eta ondorioak nahiko orokortuak egon daitezke.

[20] J. M. Hernandez (2016): "Gu gazteok. 12-14 urteko gazteen hizkuntza egunerokotasunera hurbiltzeko ikerketa partehartzailea".

31. grafikoa: **Establezimenduetako idazkunetan erabiltzen diren hizkuntzen zuzentasuna. Donostia, 2007-2008-2009 (%)**



Iturria: DREAM Taldea, Donostiako hizkuntza paisaiaren azterketa, 2007, 2008, 2009.

24. taula: **Establezimenduetako idazkunetan erabiltzen diren hizkuntzen zuzentasuna. Donostia, 2007-2008-2009**

	Erdialdea 2007 (8 kale)	**Gros 2008 (4 kale)**	**Parte Zaharra 2008 (4 kale)**	**Amara 2009 (5 kale)**	**Antigua 2009 (5 kale)**
Guztiak ongi	97,5	97,5	95,2	98,6	97,1
Euskara gaizki	2,2	2,2	4,4	1,2	2,9
Gaztelania gaizki	0,3	0,3	0,4	0,2	0,0
Atzerrikoa gaizki	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Behatutako idazkun kopurua	789	402	248	410	239

Iturria: DREAM Taldea, Donostiako hizkuntza paisaiaren azterketa, 2007, 2008, 2009.

6.6. GIZARTE-GIROA

"Gizarte-giroa" atal honetan, deskribapen lanetarako osaera soziokulturalari dagozkion adierazleak erabili ditugu gehienbat, hizkuntza ardatz hartuz. Era berean, dimentsio honetan bertan txertatu ditugu hizkuntza-paisaiari dagozkion datuak ere.

6.6.1. Aisia eta kirola

Aisialdian euskararen erabilera zertan den aztertzeko BAGERA elkarteak Donostiako hainbat ekitaldi kulturaletan egindako neurketen emaitzak ekarri ditugu. Hona hemen neurketa gaurkotuenak dituzten ekitaldien ondorio nagusiak:

Aste Nagusia

Donostiako Aste Nagusian ekitaldien antolatzaileei begira bi multzo egin dira: Donostia Kulturak antolatutakoak eta bestelako elkarteen eskutik datozenak. Donostia Kulturak ekitaldi elebakarrak hobesten ditu; euskara hutsezko eta gaztelania hutsezko ekitaldiak gehiago dira beste elkarteek antolatutakoetan baino. Izan ere, beste elkarteek antolatutako bi ekitalditatik bat bi hizkuntzetan izan da. Beheko grafikoan ikus daitezke datuak.

32. grafikoa: **Hizkuntzen ahozko erabilera, aste nagusiko ekitaldietan, 2015 (%)**



Iturria: BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkartea.

dFERIA[21]: arte eszenikoetan antzerkiaren eta dantzaren sustapena helburu duen azoka.

dFERIA, arte eszenikoetan antzerkiaren eta dantzaren sustapena helburu duen azoka da. Bertan, 2015eko edizioan, ahozkoan eta ikuskizunetan erabilitako hizkuntzari dagokionez, euskararen eta gaztelaniaren presentzia eta erabilera ez ziren parekoak izan. Are gehiago, euskarazko ikuskizunetan euskararen presentziak behera egin zuen, ehunekotan (% 58,3 gaztelaniaz, % 13,8 euskaraz, % 22,2 hizkuntzarik gabe eta % 5,5 beste hizkuntza batean). Ikuskizunen kopuruari dagokionez, 29 ikuskizunen 34 emanaldi programatu ziren (21 emankizun gaztelaniaz, 4 euskaraz eta beste bat euskaraz azpidatzita, 8 testurik gabe eta 2 beste hizkuntza batean izan ziren). Aurreko edizioko datuekin alderatuta, euskarazko ikuskizunek beherakada handia izan zuten, % 28,1etik % 13,8rakoa hain zuzen. Gaztelaniaz antzeztutako ikuskizunek, berriz, gora egin zuten, % 50etik % 58,3ra. Beste hizkuntzaren batean eta hizkuntzarik gabeko obretan, aldiz, zertxobait gora egin zen, baina portzentajetan antzera mantendu ziren, % 22,9tik % 22,2ra hizkuntza gabekoen kasuan eta beste hizkuntza batekoenean % 5,7tik % 5,5era.

Ikuskizunen jatorriari erreparatuz gero, % 45 (iaz % 53) euskal ekoizpenak izan ziren, % 27 (iaz % 30) Estatuko gainontzeko autonomia erkidegoetakoak eta % 25 (iaz % 20), atzerrikoak. Ikuskizunen aurretik egin ziren aurkezpenak, gutxi izan baziren ere, elebitasuna mantendu da.

Giza Eskubideen Zinemaldia[22]

Ahozkoan eta filmetan erabilitako hizkuntzari dagokionez, 2015eko edizioan 18 film luzek parte hartu zuten Sail Ofizialean eta bost izan ziren euskaraz edo euskarara azpidatziak. Horietako bat amaierako galan proiektatu zen. Bigarren aldia da Giza Eskubideen Zinemaldiaren amaierarako filma jatorrizko hizkuntzan (kasu honetan, frantsesez) proiektatzen dela euskarazko azpidatziekin soilik. Film laburren kasuan, beste 16 film labur proiektatu ziren, horietatik lau euskaraz azpidatziak.

Heineken Jazzaldia

2015eko edizioan aurkezpen grabatuak egon zirenean elebitasuna mantendu zen, lehenengo hizkuntza euskara izanik eta ondorengoa gaztelania. Megafoniarik egon ez zen kasuetan, aldiz, aurkezpena musikariek berek egin zutenean, gaztelania gailendu zen. 2015eko edizioan, euskal taldeen presentzia ere aipatzekoa

---

[21] http://www.dferia.com

[22] http://www.cineyderechoshumanos.com

da, baina aurkezpena euskaraz hiru taldek bakarrik egin zuten, eta kasu honetan euskara erabili bazen ere, gehiagotan egin zuten gaztelaniaz.

Bertso saioak

Hizkuntzari dagokion gizarte-giroaren beste adierazleetako bat bertsolaritza mundua da, euskarazko saioak izan ohi baitira horiek. Ondorioz, 2015. urtean Donostian, Astigarragan eta Pasai San Pedron programatutako bertso saio kopurua ikus daiteke 25. taulan. 139 saio egin ziren Donostian, 11 Astigarragan eta 3 izan ziren Pasai San Pedron eginikoak.

25. taula: **Programatutako bertso saio kopurua. Donostia (2015), Astigarraga (2015), Pasai San Pedro (2015)**

	Kop.
Donostia	139
Astigarraga	11
Pasai San Pedro	3
GUZTIRA	153

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa.

Zinema

Bestelako adierazle bat zinema aretoetan eskaintzen den euskarazko filmak neurtzea litzateke. Datu hori ematen digu hain zuzen ere 2010eko Zinema aretoei buruzko inkestak. Lurraldeko datua bada ere, Gipuzkoa osoan zinema areto gehien Donostian kokaturik daudela kontuan izanik, azterketa honetarako interesgarria dela deritzogu. Hala, 30. grafikoan eta 23. taulan ikus daitekeen moduan, 2010ean Gipuzkoan eskainitako filmetatik % 4,1 izan ziren euskarazkoak.

33. grafikoa: **Zinema aretoetan filmen eskaintza. Gipuzkoa, 2010**



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Kulturaren Euskal Behatokia, Zinema aretoei buruzko inkesta, 2010.

26. taula: **Zinema aretoetan filmen eskaintza. Gipuzkoa, 2010**

	Kop.	%
Euskaraz	2.771	4,1
Besteak	65.172	95,9
GUZTIRA	67.943	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Kulturaren Euskal Behatokia, Zinema aretoei buruzko inkesta, 2010.

Arte eta Kultura Industrien Estatistikak

Jarraian datozen datuak Kulturaren Euskal Behatokiak 2013. urtean jaso zituen "Arte eta Kultura Industrien Estatistika"koak dira. Lehenik eta behin, arte eszenikoetako ekoizleen euskarazko ikuskizun kopurua dugu; jarraian, arte eszenikoetako programatzaileek antolatzen dituzten euskarazko ikuskizunen kopurua; segitzeko, argitaletxeek euskaraz argitaratzen duten liburu kopurua; eta azkenik, ikus-entzunezko euskarazko produkzio kopurua. Donostiako, Astigarragako eta Pasai San Pedroko datuak, guztiak ere, Gipuzkoakoekin alderatuta adierazten dira.

34. grafikoa: **Arte eszenikoetako ekoizleek euskaraz ekoiztutako ikuskizun kopurua. Donostia, Astigarraga, Pasai San Pedro eta Gipuzkoa, 2013 (%)**



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Kulturaren Euskal Behatokia, Arte eta Kultura Industrien Estatistikak, 2013.

34. grafikoan ikus daitekeen moduan, Donostian, Astigarragan eta Pasai San Pedron arte eszenikoetako ekoizleek euskaraz ikuskizunen % 21,4 soilik ekoizten dituzte; euskaraz eta gaztelaniaz diren ikuskizunak dira, berriz, gehiengoak (% 57,1). Gipuzkoarekin alderatuz gero, lurraldean euskaraz soilik ekoizten diren ikuskizun gehiago topa daitezke (% 40,6) eta nabarmen gutxiago dira euskaraz eta gaztelaniaz ekoizten diren ikuskizunak (% 28,1), ia 30 puntuko aldea baitago.

27. taula: **Arte eszenikoetako ekoizleek euskaraz ekoiztutako ikuskizun kopurua. Donostia, Astigarraga, Pasai San Pedro eta Gipuzkoa, 2013**

	Donostia, Astigarraga eta Pasai San Pedro		**Gipuzkoa**	
	Kop.	**%**	**Kop.**	**%**
Euskaraz	3	21,4	13	40,6
Euskaraz eta gaztelaniaz	8	57,1	9	28,1
Besteak	3	21,4	10	31,3
GUZTIRA	14	100,0	32	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Kulturaren Euskal Behatokia, Arte eta Kultura Industrien Estatistikak, 2013.

35. grafikoa: **Arte eszenikoetako programatzaileek euskaraz programatutako ikuskizun kopurua. Donostia, Astigarraga, Pasai San Pedro eta Gipuzkoa, 2013 (%)**



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Kulturaren Euskal Behatokia, Arte eta Kultura Industrien Estatistikak, 2013.

Arte eszenikoetako programatzaileei begira, Donostian, Astigarragan eta Pasai San Pedron ikuskizunen % 37,1 programatzen dituzte euskaraz, eta ikuskizun horiek jaialdi direnean euskarak presentzia gehiago du aretoetan antolatzen diren ikuskizunetan baino. Gipuzkoa kontuan hartuz, % 62,3 da euskaraz programatzen den ikuskizun kopurua, eta aretoetan du euskarak presentzia handiagoa; izan ere, jaialdietako ikuskizunen % 37,7 egiten da euskaraz.

28. taula: **Arte eszenikoetako programatzaileek euskaraz programatutako ikuskizun kopurua. Donostia, Astigarraga, Pasai San Pedro eta Gipuzkoa, 2013**

	Donostia, Astigarraga eta Pasai San Pedro						Gipuzkoa					
	Jaialdiak		Aretoak		GUZTIRA		Jaialdiak		Aretoak		GUZTIRA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskaraz	19	41,3	63	36,0	82	37,1	58	37,7	488	67,6	546	62,3
Besteak	27	58,7	112	64,0	139	62,9	96	62,3	234	32,4	330	37,7
GUZTIRA	46	100,0	175	100,0	221	100,0	154	100,0	722	100,0	876	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Kulturaren Euskal Behatokia, Arte eta Kultura Industrien Estatistikak, 2013.

36. grafikoa: **Argitaletxeek euskaraz argitaratutako liburu kopurua. Donostia, Astigarraga eta Pasai San Pedro, 2013 (%)**



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Kulturaren Euskal Behatokia, Arte eta Kultura Industrien Estatistikak, 2013.

Donostian, Astigarragan eta Pasai San Pedron egoitzen bat duten argitaletxeek liburuen % 79,6 euskaraz argitaratzen dituzte. Kopuru hau EAEn euskaraz argitaratzen den liburu kopuruaren bikoitza da. Alde nabarmena dago, beraz.

29. taula: **Argitaletxeek euskaraz argitaratutako liburu kopurua. Donostia, Astigarraga, Pasai San Pedro eta EAE, 2013**

	Donostia, Astigarraga eta Pasai San Pedro		**EAE**	
	Kop.	**%**	**Kop.**	**%**
Euskaraz	727.298	79,6	1.671.691	35,5
Besteak	186.547	20,4	3.039.415	64,5
GUZTIRA	913.845	100,0	4.711.106	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Kulturaren Euskal Behatokia, Arte eta Kultura Industrien Estatistikak, 2013.

Ikus-entzunezko produkzioari begiratuz (ikus 37. grafikoa), Gipuzkoan (% 22,8) baino zertxobait gehiago ekoizten da euskaraz Donostian, Astigarragan eta Pasai San Pedron (% 27,3). Euskaraz eta gaztelaniaz ekoizten diren ikus-entzunezko produktuak, berriz, % 25,9 dira Donostian, Astigarragan eta Pasai San Pedron eta % 18,2 Gipuzkoan.

37. grafikoa: **Ikus-entzunezko ekoizleek euskaraz ekoiztutako produkzioak. Donostia, Astigarraga eta Pasai San Pedro, 2013 (%)**



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Kulturaren Euskal Behatokia, Arte eta Kultura Industrien Estatistikak, 2013.

30. taula: **Ikus-entzunezko ekoizleek euskaraz ekoiztutako produkzioak. Donostia, Astigarraga, Pasai San Pedro eta Gipuzkoa, 2013**

	Donostia, Astigarraga eta Pasai San Pedro		**Gipuzkoa**	
	Kop.	**%**	**Kop.**	**%**
Euskaraz	39	27,3	238	22,8
Euskaraz eta gaztelaniaz	37	25,9	190	18,2
Besteak	67	46,9	615	59,0
GUZTIRA	143	100,0	1.043	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Kulturaren Euskal Behatokia, Arte eta Kultura Industrien Estatistikak, 2013.

6.6.2. Salerosketa

Atal honetan Donostiako merkataritza establezimenduen errotuluetan (edo idazkunetan) hizkuntzen presentzia zenbatekoa den eta nolakoa den aurkeztuko da. Horretarako DREAM taldearen ikerketa baliatuko dugu[23]. Bi datu emango dira: errotuluetan zenbat hizkuntza agertzen diren, eta zein hizkuntza erabiltzen diren.

Donostiako kaleetako errotuluak nagusiki elebakarrak eta elebidunak dira, eta bi motetako idazkunen kopurua antzekoa da (ikus 38. grafikoa). Auzo guztietan gertatzen da hori, Intxaurrondon ezik, non idazkun elebidunen kopurua elebakarren bikoitza baino gehiago den. Idazkun eleaniztunak (hiru hizkuntza edo gehiagokoak) gutxiengoak dira.

38. grafikoa: **Donostiako establezimenduetako errotuluetan erabiltzen den hizkuntza kopurua. Donostia, 2007-2010 (%)**



Iturria: DREAM Taldea, Donostiako hizkuntza paisaiaren azterketa, 2007, 2008, 2009 eta 2010.

[23] DREAM taldeak Donostiako bederatzi auzoetako kalerik jendetsuenak behatzen ditu.

31. taula: **Donostiako establezimenduetako errotuluetan erabiltzen den hizkuntza kopurua. Donostia, 2007-2010**

	Erdialdea (2007)	Parte Zaharra (2008)	Gros (2008)	Amara (2009)	Antigua (2009)	Egia (2010)	Altza (2010)	Loiola (2010)	Intxaurrondo (2010)
Hizkuntza bat	55,0	43,7	47,3	61,2	41	48,1	46,7	49,2	28,9
Bi hizkuntza	36,2	43,1	40	35,1	56,1	47,1	48,6	49,2	63,9
Hiru hizkuntza edo gehiago	8,7	13,2	12,7	3,7	2,9	4,8	4,7	1,6	7,2
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Behatutako idazkun kopurua	789	248	402	410	239	189	107	59	83

Iturria: DREAM Taldea, Donostiako hizkuntza paisaiaren azterketa, 2007, 2008, 2009 eta 2010.

Aurreikusi daitekeen bezala, auzo guztietan bi hizkuntza ofizialak dira idazkunetan gehien ageri direnak, baina gaztelaniaren presentzia euskararena baino nabarmen handiagoa da. Euskarazko errotuluei erreparatuta, ohartzekoa da idazkun elebakarretan apenas ageri dela euskara hutsezko idazkunik. Horrelakoen kopururik handiena Egian dugu, % 4,8 baino ez.

Euskara duten idazkun gehien-gehienak gaztelaniarekin batera doaz: % 61 Intxaurrondon, % 49 Loiolan, % 47 Altzan eta Antiguan, % 42 Egian, % 41 Parte Zaharrean, % 33 Grosen, % 32 Amaran eta % 26 Erdialdean.

Gaztelaniaren presentzia ia erabatekoa da establezimenduen errotuluetan: ia auzo guztietan errotuluen % 95etan gaztelania agertzen zaigu. Salbuespena dira Egia (% 92) eta Parte Zaharra (% 88).

Ofizialak ez diren hizkuntzek leku txikia dute Donostiako hizkuntza-paisaian. Nabarmentzekoa da hizkuntza ofizialen ondotik idazkunetan gehien erabiltzen den hizkuntza ingelesa dela.

39. grafikoa: **Donostiako establezimenduetako errotuluetako hizkuntza. Donostia, 2007-2010 (%)**



Iturria: DREAM Taldea, Donostiako hizkuntza paisaiaren azterketa, 2007, 2008, 2009 eta 2010.

32. taula: **Donostiako establezimenduetako errotuluetako hizkuntza. Donostia, 2007-2010.**

	Erdialdea (2007)	Parte Zaharra (2008)	Gros (2008)	Amara (2009)	Antigua (2009)	Egia (2010)	Altza (2010)	Loiola (2010)	Intxaurrondo (2010)
Gaztelania	52,2	30,2	44,8	58,8	38,1	42,8	43,1	44,1	27,7
Euskara eta gaztelania	26,1	41,1	33,1	31,7	47,3	42,3	46,7	49,1	61,4
Euskara	1,1	4,8	2,2	2,2	2,5	4,8	2,8	3,4	1,2
Gaztelania eta beste	9,9	5,2	6,7	2	7,1	3,7			2,4
Euskara eta beste	0,3	0,8						1,7	
Euskara, gaztelania eta beste	5,8	10	9,6	3,1	2,5	3,2	3,7	1,7	2,4
Beste batzuk	4,6	6,9	3,6	2,2	2,5	3,2	3,7		4,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Behatutako idazkun kopurua	789	248	402	410	239	189	107	59	83

Iturria: DREAM Taldea, Donostiako hizkuntza paisaiaren azterketa, 2007, 2008, 2009 eta 2010.

6.7. IRITZI, JARRERA ETA JOKAERAK

Donostiarren iritzi, jarrera eta jokaerei buruzko datuak izateko Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak egiten duen Inkesta Soziolinguistikora jo dugu. Donostiarrek euskararen aurrean duten jarrera ezagutzeko, tipologia bat sortu da. Horretarako, aldeko edo kontrako jarrera jasotzen duten baieztapenen erantzunak bildu dira. Hona hemen aztertu diren baieztapenak: "hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino", "Administrazio publikoan sartzeko beharrezkoa izan beharko litzateke euskara jakitea", "ezinbestekoa da haur guztiek euskara ikastea" eta "Euskal Herrian ikusi eta entzuten diren telebista eta irratiek askoz programa gehiago izan beharko lituzkete euskaraz". Beraz, euskararen aldeko hiru iritzi eta kontrako iritzi bakarra konbinatuz eratu da euskara sustatzeari buruzko tipologia.

Beheko diagraman ikus daitekeen bezala, gailentzen den jarrera aldekoa da (% 43,2 aldekoak eta % 18,3 oso aldekoak). Beste muturrean, aurkakoak % 7,9 dira eta oso aurkakoak % 0,2 besterik ez. Gainontzeko % 30,3 ez alde eta ez aurka agertzen dira.

40. grafikoa: **Donostiarren jarreraren araberako tipologia. Donostia, 2011 (%)**



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

33. taula: **Donostiarren jarreraren araberako tipologia. Donostia, 2011**

	Kop.	*%*
Oso aldekoa	29.164	% 18,3
Aldekoa	68.884	% 43,2
Ez alde ez aurka	48.349	% 30,3
Aurkakoa	12.550	% 7,9
Oso aurkakoa	362	% 0,2
Guztira	159.309	% 100

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Euskara sustatzeari buruzko jarrera adinaren arabera aztertuz gero (16-24 urte, 25-34 urte, 35-49 urte, 50-64 urte, eta 65 urtetik gora) talde guztietan hurrenkera bera dugu, alegia, gehiengoa da alde dagoena, ondoren ditugu ez alde eta ez kontrakoak, jarraian oso aldekoak, eta azkenik, kontrako jarrera dutenak. Azpimarratzekoa da % 10 baino gutxiago direla aurkakoak adin-talde guztietan. Oso aurkakoak (% 1 besterik ez) 50-64 urte bitarteko taldean bakarrik topatu ditugu.

41. grafikoa: **Donostiarren jarreraren araberako tipologia adin-taldeka. Donostia, 2011 (%)**



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

34. taula: **Donostiarren jarreraren araberako tipologia adin-taldeka. Donostia, 2011**

	16-24 urte		25-34 urte		35-49 urte		50-64 urte		> 65 urte	
	Kop.	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	%
Oso aldekoa	3.004	21,1	4.214	17,5	8.801	20,1	8.500	21,9	4.646	12,1
Aldekoa	5.427	38,2	9.224	38,3	20.407	46,6	15.498	39,9	18.327	47,8
Ez alde ez aurka	4.274	30,1	8.488	35,2	10.412	23,8	11.464	29,5	13.710	35,7
Aurkakoa	1.513	10,6	2.177	9,0	4.136	9,5	3.053	7,9	1.671	4,4
Oso aurkakoa	0	0,0	0	0,0	0	0,0	362	0,9	0	0,0
GUZTIRA	14.218	100,0	24.103	100,0	43.757	100,0	38.877	100,1	38.353	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

6.7.1. Agintaritza eta Administrazioa

Donostiarren hamarretik sei guztiz konforme dago Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa dela adierazterakoan (% 61,9); nahiko konforme dago % 13,4, guztiz kontra % 9,9, ez alde ez kontra % 7,7 eta % 6,3 nahiko kontra dago.

42. grafikoa: **Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa litzateke. Donostia, 2011 (%)**[24]



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

6.7.2. Etxea eta familia

Donostiarren gehiengo nabarmena % 77,6 guztiz kontra dago adierazterakoan euskara etxekoekin eta lagunekin bakarrik erabiltzeko dela, eta % 8,9 ere nahiko kontra dago. Beste hainbeste (% 8,9) guztiz edo nahiko konforme dago euskararen erabilera soilik bi eremu horietara mugatzeko, alegia, etxeko eremura eta lagunartera.

[24] Jatorrizko datuak ehunekotan ditugunez, ez dugu taularik osatu.

43. grafikoa: **Euskara bakarrik etxekoekin eta lagunekin erabiltzeko da. Donostia, 2011 (%)**[25]



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

6.7.3. Gertuko jendea eta ohiko lagunartea

Gertuko lagunartearekin komunikatzeko euskara beharrezkoa dela esaterakoan, donostiarren % 53,4 guztiz edo nahiko konforme dago. Aitzitik, % 32,7 guztiz edo nahiko kontra dago baieztapen horrekin.

44. grafikoa: **Euskara sustatzeari buruzko jarrera: gertuko jendearen eta ohiko lagunartearen jardunbidea. Donostia, 2011 (%)**[26]



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

[25] Jatorrizko datuak ehunekotan ditugunez, ez dugu taularik osatu.

[26] Jatorrizko datuak ehunekotan ditugunez, ez dugu taularik osatu.

6.7.4. Informazio-hedapena eta kontsumoa

Donostiarren %51,3 guztiz edo nahiko konforme dago baieztatzerakoan irratiek eta telebistek programa gehiago behar dituztela euskaraz. Aldiz, % 19,6k ez du halakorik pentsatzen (guztiz edo nahiko kontra daude iritzi horrekin). Nabarmentzekoa da lautik batek (% 25,3) ez duela iritzi garbirik (ez alde ez kontra daude).

45. grafikoa: **Irrati/telebistek programa gehiago behar lituzkete euskaraz. Donostia, 2011 (%)**[27]



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

6.7.5. Hezkuntza

Hezkuntza arloan euskarari donostiarrek ematen dioten garrantzia aztertzeko, 46. grafikoan hiru datu baliatuko ditugu, beste hainbeste baieztapenetan oinarrituta: "ezinbestekoa da haur guztiek euskara ikastea", "umeak murgiltze programetan sartzea ez da ona" eta "hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino".

[27] Jatorrizko datuak ehunekotan ditugunez, ez dugu taularik osatu.

46. grafikoa: **Euskara sustatzeari buruzko jarrera: hezkuntza jardunbidea. Donostia, 2011 (%)**[28]



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Goiko diagraman jaso bezala, gehiengoak uste du ezinbestekoa dela haur guztiek euskara ikastea; % 76k dio guztiz edo nahiko konforme dagoela. Murgiltze programak ez direla onak esaterakoan, % 78,9 guztiz edo nahiko kontra agertu da.

Jarrera erregularragoak ditugu hirugarren datuan. % 45,2k dio guztiz edo nahiko kontra dagoela esaterakoan hobe dela jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino. % 30,6k ez du jarrera garbirik, eta % 23,2, aldiz, guztiz edo nahiko konforme dago baieztapenarekin.

47. grafikoa: **Zein hizkuntzatan nahi dute ikas dezaten seme-alabek. Donostia, 2011 (%)**[29]



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

28 Jatorrizko datuak ehunekotan ditugunez, ez dugu taularik osatu.

29 Jatorrizko datuak ehunekotan ditugunez, ez dugu taularik osatu.

Donostiako biztanleei zehatzago galdetuta zein hizkuntzatan eskolatu nahi dituzten seme-alabak, % 61k dio euskaraz ikastea nahi dutela, gaztelania ikasgai dutela. % 26,3k euskaraz eta gaztelaniaz ikastea hobesten dute. % 8,6k ikasketak gaztelaniaz nahi dituzte, eta euskara ikasgai gisa. Azkenik, % 2,4 besterik ez da seme-alabek gaztelania hutsean ikas dezaten nahi dutenak.

6.7.6. Salerosketa

2012an, Siadecoren eskutik, Donostiako merkatariei galdetu zitzaien ea beraien establezimenduetan bezeroekin komunikatzeko zenbateraino ziren garrantzitsuak euskara, frantsesa, ingelesa eta gaztelania. Beheko grafikoan jaso ditugu erantzunak. Gaztelania oso garrantzitsua dela diote % 94,3k, eta euskara % 38,1k. Euskara nahiko garrantzitsua dela diote % 35,7k. Frantsesa oso edo nahiko garrantzitsua dela diote % 30,2k, eta ingelesa % 27,6k.

48. grafikoa: **Hizkuntzen garrantzia bezeroekin komunikatzerakoan. Donostia, 2012 (%)**



Iturria: Hizkuntza komunikazioaren inguruko azterketa Donostiako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetan, 2012.

35. taula: **Hizkuntzen garrantzia bezeroekin komunikatzerakoan. Donostia, 2012 (%)**

	Oso garrantzitsua		Nahiko Garrantzitsua		Garrantzi txikikoa		Garrantzirik gabea	
	Kop.	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**
Euskara	207	38,1	194	35,7	113	20,8	30	5,5
Frantsesa	57	10,5	107	19,7	199	26,6	181	33,3
Ingelesa	50	9,2	100	18,4	204	37,5	19	34,9
Gaztelania	513	94,3	25	4,6	2	0,4	4	0,7

Iturria: Hizkuntza komunikazioaren inguruko azterketa Donostiako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetan, 2012.

6.7.7. Besteak

Atal honetan donostiarren jarrera eta interesei buruzko datu gehiago bildu ditugu. Datu orokorrak dira, ez dute orain arte aztertu ditugun arloekin lotura espezifikorik. Esaterako, euskarari buruz zenbateko interesa duten galdetu zaie donostiarrei. Hamarretik seik erantzun dute interes oso handia edo nahiko handia dutela, bik erantzun dute zertxobait interesatzen zaiela, batek interes txikia agertu du eta beste batek erantzun du ez duela inongo interesik.

49. grafikoa: **Euskarari buruzko interesa. Donostia, 2011 (%)**[30]



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

[30] Jatorrizko datuak ehunekotan ditugunez, ez dugu taularik osatu.

Hurrengo grafikoan lau baieztapeni buruzko iritzia bildu dugu: "guztiz bertakoa izateko euskaraz jakin behar da", "euskarak ez du sekula izango gaztelaniak duen indarra", "euskara gaztelania bezain aberatsa da" eta "euskara galtzeko arriskuan dago". Hona hemen ondorio nagusi batzuk: 1) donostiarren erdiak ez du uste guztiz bertakoa izateko euskara jakin behar denik, 2) euskarak gaztelaniak duen indarra noizbait izango duela pentsatzen dutenak gehiago dira (% 46) kontrakoa pentsatzen dutenak baino (% 28,5), 3) hamar donostiarretik seik (% 56,9) uste du euskara gaztelania bezain aberatsa dela, eta 4) hamarretik zazpik (% 72,9) ez du uste euskara galtzeko arriskuan dagoenik.

50. grafikoa: **Euskara sustatzeari buruzko jarrera: jardunguneetan sartzen ez diren iritzi batzuk. Donostia, 2011 (%)**[31]



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Bestalde, donostiarren % 70,7k guztiz euskalduntzat dauka bere burua, % 13,4 nahiko euskalduntzat, % 9 zertxobait edo gutxi, eta % 5,5 ez du deus ere euskalduntzat bere burua.

[31] Jatorrizko datuak ehunekotan ditugunez, ez dugu taularik osatu.

51. grafikoa: **Euskalduntzat dauka bere burua. Donostia, 2011 (%)**[32]



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Euskara erabiltzeko aukera ez izateagatik edota euskara ez jakiteagatik diskriminatuak sentitu ote diren galdetu zaie donostiarrei. Deigarria da bi galderetan erantzunen proportzioa antzekoa izatea. Hala, % 65 inguruk dio inoiz ez dela diskriminatua sentitu euskara erabiltzeko aukera ez izateagatik, eta beste hainbestek dio inoiz ez dela diskriminatua sentitu euskara ez jakiteagatik. Aitzitik, % 11 inguru askotan diskriminatua sentitua da euskara erabiltzeko aukera ez izateagatik, eta beste hainbestek dio askotan diskriminatua sentitu dela euskara ez jakiteagatik.

52. grafikoa: **Euskara sustatzeari buruzko jarrera: jardunguneetan sartzen ez diren beste iritzi batzuk. Donostia, 2011 (%)**[33]



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

[32] Jatorrizko datuak ehunekotan ditugunez, ez dugu taularik osatu.

[33] Jatorrizko datuak ehunekotan ditugunez, ez dugu taularik osatu.

Amaitzeko, donostiarren ustez etorkizunean nola hitz egin beharko litzatekeen aztertu da. Gehiengoak dio (% 86,1) euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin beharko litzatekeela, % 9,7k uste du euskaraz bakarrik, eta % 2,9 gaztelaniaz bakarrik.

53. grafikoa: **Nola hitz egin beharko litzateke etorkizunean. Donostia, 2011 (%)**[34]



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

6.8. ONDORIOAK

Donostiako egungo egoera soziolinguistikoaren argazki nahiko aberatsa jasotzen da txosten honetan. Hasierako atal metodologikoan aipatu dugunez, badira oraindik ere dimentsio eta jardunguneren batzuk informazio gehixeago mereziko luketenak egoeraren deskribapen zorrotzagoa egiteko. Halere, azterketa deskriptibo osatu samarra eskaintzen digu bilduma honek.

Ondorio moduan, landu ditugun dimentsioen datu orokorrak azpimarratu nahi ditugu. Hizkuntza-erabilerari dagokionez, Inkesta Soziolinguistikoak eskaintzen digun erabileraren tipologiaren datuak dauzkagu. Hauek ikusirik, etxean, lagunartean eta eremu formalean beti erdara erabiltzen duten donostiarrak dira gehiengoa, % 63,6k aitortzen baitu hala egiten duela. Beste muturrean, berriz, euskaraz gaztelaniaz baino gehiago aritzen diren donostiarren % 7,6 hori daukagu.

Hizkuntza-gaitasunean, donostiarren % 40,6, astigartarren % 59,8 eta pasai san pedrotarren % 37,9 dira euskaldunak. Gainera, adin taldekako banaketari erreparatuz gero, haur eta gazteen eta heldu eta adinekoen artean alde handia dagoela ikusi dugu. Hau da, belaunaldi gazteetan euskaldunen kopurua belaunaldi zaharragoetan baino nabarmen altuagoa da (salbuespen lirateke Astigarragako

[34] Jatorrizko datuak ehunekotan ditugunez, ez dugu taularik osatu.

adinekoak, helduak baino euskaldun gehiago baitaude bertan eta gazteengandik gertuago kokatzen baitira gaitasunean).

Bigarren eta hirugarren dimentsioei begira, hizkuntzaren barne osaera eta gizarte-giroa deiturikoei begira, alegia, datu orokorrik ez dugunez, zaila da ideia orokorren bat azpimarratzea. Hala eta guztiz ere, euskararen aurrean batez ere gaztelania gailentzen dela esan daiteke. Hori izan da ikusitakoa, hain zuzen ere, gazteek hizkuntza erabiltzen duten moduan, hizkuntza-paisaian erabiltzen diren idazkunetako euskararen presentzian eta haien zuzentasun mailan, edota aurkeztu ditugun kultura adierazleetan (jaialdietako ekintzetan euskararen presentzia, eskaintzen den euskarazko ikuskizun edo film kopurua, euskarazko argitalpen kopurua…).

Azkenik, iritzi, jarrera eta jokaeren multzoan, Inkesta Soziolinguistikoaren jarreren araberako tipologiak eskaintzen digu dimentsio honen deskribapen orokorra. Bertan, donostiarren gehiengoak euskararen aldeko edo oso aldeko jarrera adierazten du (% 61,5), eta beste muturrean kokatzen diren donostiarrak (aurkako edo oso aurkako jarrera dutenak, alegia) oso gutxi dira alderaketan, % 8,1, hain zuzen ere.

Jardunguneen nahasketa bat eginez gero, datu gehienetan gaztelania nagusitzen dela esan badugu ere, euskararen erabilerari erreparatu eta eremu formala eta informalaren arteko alderaketa egingo bagenu, gaur egun, orokorrean, eremu formaletan euskararen presentzia eta erabilera altuagoa dela esan daiteke. Adibide gisa jar daitezke ikasleen eskolako hizkuntza-erabilera (jolaslekuan gela barruan baino gutxiago erabiltzen da euskara), merkataritza establezimenduetako harremanetan erabiltzen den hizkuntza (ahozko harremanetan, bezeroekin gehiago erabiltzen da euskara langileen artean baino), edota jaialdietan antolatzen diren ekintzetan erabiltzen den hizkuntza (Aste Nagusian Donostia Kulturak antolatzen dituen ekintzetan euskararen presentzia altuagoa da beste elkarteek antolatutako ekintzetan baino).

Bestalde, gaur egungo egoera soziolinguistikoan hizkuntza-alternantziarako dagoen joera azpimarratzekoa dela esan daiteke, berriagoa den fenomeno gisa edo, behintzat, lehen baino hedadura handiagoko fenomeno gisa.

Azkenik, ildo honetatik jarraituz, hipotesi gisa planteatu daiteke gaur egun arautua den eremuetan euskararen erabilera handiagoa dela edo presentzia gehiago sumatzen dela.

7. DONOSTIAKO BILAKAERA SOZIOLINGUISTIKOA AZKEN 250 URTEAN: 1761-1766 ETA 2011-2016 URTE-TARTEAK, KONPARAZIO-LANAREN AINGURAGUNE

Lionel Joly Charrasse – Mikel Zalbide Elustondo
Euskaltzaindia, Euskararen Historia Soziala egitasmoa

7.1. SARRERA

Liburu honetan hainbat lan irakur daiteke. Hizkuntzen (eta, bereziki, euskararen) historia soziala lantzeko eredu metodologikoa aurkeztu du, hasteko, Lionel Joly-k. Eredu hori da, hain zuzen ere, atalburu hau osatzeko erabili dugun metodologia. Donostiako hizkuntza nagusiak, oraingoz dakigunaren argitan, historian zehar zeintzuk izan diren laburbildu du Mikel Zalbidek, bigarren atalburuan. Hirugarrenean, gaiari buruz berariaz burutu zuen ikerketa sakonean oinarrituz, Donostiako XVIII. mendeko egoera deskribatu digu Juan Madariagak. Koldo Larrañagak, bere aldetik, ikerketa exhaustiboa egin ondoren RSBAPeko kideen (eta, oro har, Gipuzkoako eliteen) euskararekiko jarrera eta praxia aurkeztu dizkigu. Horren ondoren, bosgarren atalburuan, Donostiako egoera soziolinguistikoaren XXI. mendearen hasierako egoera azaltzen saiatu dira, hainbat lan-tresna baliatuz, Olatz Altuna eta Maialen Iñarra. Atal honetan, azkenik, Euskararen historia sozialak (EHSk) sortutako metodologia erabiliz, Donostiak azken 250 urtean izandako bilakaera soziolinguistikoa landuko da.

Nolabait zehaztu behar-eta 1761-1766 eta 2011-2016 urteak hartu dira, beren ingurumari zabalaz, konparazio-lan horretarako ainguragune nagusi. Badago motiborik aski, unealdi bi horiek (batetik 1761-1766, bestetik 2011-2016) aukeratzeko. Gero ikusiko denez, Donostiako hizkuntza-egoerari buruzko azalpen-urte garrantzitsua da 1761a, eta euskarazko argitalpen (konparatiboki) ugarien garaia ere bai, Hegoaldean, 1766 artekoa: tartean, Beterriko edo Donostialde zabaleko idazle jakinen (bereziki Kardaberazen, baina baita gehiagoren) eskutik. Beranduago argitara emana izanik ere, Doctor Caminoren azalpen-saioa ere erraz lotu liteke bost urte horietako ainguragunearekin.

Atal honetan, hainbat ohar teoriko-metodologiko jaso ondoren, XVIII. mendearen erdialde beranteko (berariaz 1761-1766 epeko) eta XXI. mendearen hasiera aldeko (berariaz 2011-2016 epeko) ingurumen-baldintza historiko-sozialak alderatuko ditugu. Horretarako, batez ere EHSren metodologiako D dimentsioaz baliatuko gara. Anakronismoetan jausteko arriskua saihesten saiatuko gara lan hori esker. Artikuluaren laugarren ataletik aurrera, azkenik, Donostiako bilakaera soziolinguistikoaren azalpena egingo da, EHSren tresna teoriko-metodologikoa erabiliz. Garaian garaiko egoera soziolinguistikoari buruzko ikuspegi kontrastatuena eskaintzen saiatuko gara, berariaz sortutako nagusitasun-moldaerazko taulen bitartez. Taula horiek osatzeko, esan bezala, garai eta jardungune bakoitzeko lekukotasun eta iturri esanguratsuenak erabiliko ditugu.

Atalburu honetan zehar, diogun azkenik sarrera moduko honetan, hizkuntza-soziologian landu ohi diren dimentsioak aipatuko dira behin eta berriro: hizkuntza baten zein beste(ar)en ahozko eta irakur-idatzizko erabilera (A dimentsioa, EHS-ren metodologian), donostiarren (edota aldi baterako bertan dauden) hiztunen hitzez edo irakur-idatziz hizkuntza batean edo bestean jarduteko gaitasuna (B dimentsioa), honi lotuta hizkuntzaren beraren barne-osaera (C dimentsioa) eta, azkenik, donostiarrek bertako (edo kanpoko) hizkuntza bati edo besteri buruzko iritziak, jarrerak eta jokaerak (E dimentsioa).

7.2. DONOSTIAKO BILAKAERA SOZIOLINGUISTIKOA: HAINBAT OHAR

Liburu honetan, esan berri dugunez, azterketa soziolinguistiko-historikoa egiten saiatu gara: ainguragune moduan erabil ditzakegun bi aldi diferente konparatzea erabaki dugu horretarako. Batetik, 1761-1766 urte-tartea, bere XVIII. mendeko ingurumari mehar-zabalaz; bestetik, 2011-2016a, batetik demolinguistikazko datuak eskueran genituelako eta bestetik, lan honen abiaburuko giltzarri, Donostia Europako kultura-hiriburu izan berri delako. Guztira 250 urteko tartea dago, beraz, ainguragune bien artean. Tarte-bitarte horretan Donostiak (hots, donostiar batzuek eta besteek) ahozko eta irakur-idatzizko jardueraz, hizkuntza-gaitasunaz eta euskara-erdarekiko (orobat euskaldun-erdaldunekiko) jarreraz izandako bilakaera soziolinguistikoa zehazten eta argitzen saiatu gara. Lan hori burutzeak, bistan da, zailtasun handiak ditu. Horien berri ematen saiatuko gara ondoko lerrootan, batetik, eta zailtasun horiei ahalik eta egokien erantzuteko aurkitu uste ditugun irtenbideak argitzen ahaleginduko gara, bestetik. Horrezaz gainera, ikerketa egiteko eta emaitzak inferitu ahal izateko zer erabaki hartu diren azalduko dugu ondoko lerrootan. Hasikin-kutsu nabarmeneko lana da hau, oraindaino esandakoaren argitan. Bihar edo etzi bestek osatu, zuzendu eta aberastu ahal izango duen bilaketa-lanaren abiagune eta pizgarri.

7.2.1. Lehengo eta oraingo iturrien desoreka

Donostiarren gaur egungo (demagun, labur beharrez, 2011-2016 aldiko) egoera soziolinguistikoa deskribatzeko, informazio-iturri andana ohargarria dugu eskueran[1]. Ez da gauza bera gertatzen lehenagoko egoera soziolinguistikoa aztertzerakoan. Atzera joan ahala, informazio-iturri baliagarriak ondotxoz urriago (zenbat eta denboran atzerago joan, oro har urriago) eta balio-indarrez ahulago, izaten dira maiz. Urritasun eta ahuldade horiek direla medio, eratorpen- eta inferentzia-lan askotxo egin behar izaten da ezinbestean: datu horietatik abiatuz, hizkuntza-soziologiaren teoriaz "ondorio interbenituak" prestatu behar izaten dira nahi baino sarriago, garai "ilun(ago)" horiei buruzko ikuspuntu soziolinguistiko orokorra (ez kasu puntualen deskribapen isolatu hutsa) osatzen saiatzeko. Gaur egun eskueran ditugun datu askoren pareko analisietan ez dago askotan sartzerik, garai joan horiez ari garelarik. Askotan ezin da balio-indar eta zehaztasun-maila bertsuko materialekin lan egin, leku bateko (kasu honetan Donostiako) mintzajardunaren eta irakur-idatzizko jardunaren giza arteko moldaerak 250 urtean izandako bilakaera historikoa argitzeko orduan: oraingo hainbat xehetasunen parez pareko informaziorik ez dugu, aldi zahar(rago) horretaz dihardugularik, hainbat kasutan eskuratu ahal izan. Horrela, eta esate baterako, adin-taldeen edo generoaren araberako hainbat datu-emaitza eskuragarri dago XXI. mendearen hasierari (demagun 2011. urteari) dagokionean; aitzitik, XVIII. mendeaz eskueran eta analizagarri izan ditugun informazioei dagokienetan ez da halakorik gertatzen: ez kopuru-neurri, ez zehaztasun-maila eta ez kontrastagarritasun-maila berean behintzat. Orduko hainbat iturriren urritasun eta ahuldade horregatik, xehetasun batzuk ezin izan ditugu hainbat kasutan aurkeztu edo argitu. Horregatik, datu orokorrak baino ezin izan ditugu maiz aurkeztu. Ahal izan denean, halaz guztiz ere, aldagai "bakan eta ahul" horiei buruzko informazioa eskaintzen saiatu gara lekuan-lekuan.

Ez gaitu horrek, ezinbestean, izutu behar. Urritasun- eta ahuldade-arazo horiek ohikoak dira soziolinguistika historikoan eta hizkuntzen historia sozialean, Martinez-ek (2010: 19) argi aipatzen duenez, soziolinguistika historikoa "is unfortunately circumscribed to the analysis of written texts and that the texts the researcher has access to are accidentally preserved. Consequently, historical sociolinguists are unable to elaborate a comprehensively formulated research design. The data available severely constrain the number and type of variables that the researcher is able to investigate. Because of these limitations, the social factors explored in historical sociolinguistics often differ greatly from those studied in classic variationist analyses. Romaine (1982) uses textual differences as a social

[1] Ikus liburu honetan Olatz Altunak eta Maialen Iñarrak Donostiako XXI. mendeko azterketa soziolinguistikoa egiteko zerrendatu dituzten iturriak (Ikus hemen 339-341 orr.).

variable roughly equivalent to Labov's stylistic variables. Raumolin Brunberg (1996) uses author differences in order to establish variation along social class and gender lines. Other variables that are accessible to the historical sociolinguist are levels of literacy and education, demographic variables, and degree of language standardization. The bulk of this information comes to the historical sociolinguist by way of social history. In areas such as England, where the literature on social history is plentiful, it becomes possible for the historical sociolinguist to identify periods of greater or lesser degrees of literacy, immigration, and the like. These periods may then be used as social variables themselves. Although social variables are extremely reduced within the framework of historical sociolinguistics, recent studies have demonstrated that even such limited social variables reveal meaningful and compelling patterns of variation and change". Besteren urritasun-arazoak eta ahuldade-trabak ez dira gurean, zoritxarrez, haietan baino murritzago edo bigunago. Behin-behineko ondorio-ustezkoez horniturik dago, horregatik, gure lan hau. Ahuldadeak ahuldade eta murriztasunak murriztasun, ez genuke, halere, beste punta-muturrera lerratu behar: beren neke-ezintasun eta behaztopa-traba guztiekin ere, aurrera egin liteke esparru honetan. Zilegi da, horregatik, behinolako mintzajardunak eta idazjardunak ingurumen honetan aldi jakinetan izandako giza arteko moldaera zientzia-arauz aztertzen eta ondorio baliagarriak ateratzen saiatzea. Hortik aurrera, datu-metatze osagarriak eta interpretazio-paradigma berrituek hobetzen, osatzen eta zehazten lagunduko dute gure "oraingo eta hemengo" ezagutza-maila. Horretan saiatuko gara, beraz, hurrengo ataletan.

7.2.2. Azterketaren oinarriak

Liburu honen bigarren atalburuan aurkeztu den eredu teoriko-metodologikoan, soziolinguistika historikoa ganoraz bideratzeko, bost dimentsio eta sei azterbide zehaztu ditugu. Hots, 30 aztergai ganoraz arakatzeko, beste hainbat gelaxka hartu ditugu kontuan. Liburu honen asmo-izaera, egin dugun azterketaren hainbat muga eta, bereziki, eskuragarri dauden iturrien kopuru-murriztasuna eta haietako askoren izaera ahul-ilaun-iheskorra kontuan harturik, batez ere lau gelaxka landuko ditugu azken atalburu honetan:

a. 1A gelaxka: hizkuntzen ahozko eta irakur-idatzizko erabilera, garai jakinetan. Batez ere XVIII. mendearen erdialdean (1761-1766a izanik konparazio-tarte nagusi) alde batetik, eta XXI. mendearen hasieran (2011-2016ren bueltan batez ere) bestetik;

b. 1B gelaxka: garai jakin horietako donostiar (eta, une batez edo luzaroago, honetan edo hartan Donostian diharduten hiztun) zahar eta gazteen, kaletar zein baserritarren hizkuntza-gaitasuna;

c. 2A gelaxka: hizkuntza-erabileraren bilakaera bi garai horietan barrena (konkrezio grafikoz, 1761-1766 eta 2011-2016 artean), eta

d. 2B gelaxka: donostiar (eta, une batez edo luzaroago, honetan edo hartan Donostian diharduten hiztun) zahar eta gazteen, kaletar zein baserritarren hizkuntza-gaitasuna hitzez, irakurriz eta idatziz.

Beste gelaxka batzuk ere agertuko dira gure azalpenean, aldian behin, lan-hipotesien argitasunak eta datuen lotura-bideak hala eskaturik. Ez guztiak, ordea, inondik inora. Gure eredu teorikoak kontuan hartzen dituen 30 azterketa-ardatz horiek guztiak ezin izango ditugu arakatu: ez zientzia-legeak eskatzen duen zehaztasunarekin eta kontrastagarritasun-mailarekin, behintzat. Beraz, beste zenbait kontzeptu-elementu eta metodologia-tresna ere han-hemen aipagai izango dugun arren, goiko lau gelaxka horietan zentratuko gara.

Benetan egingo dugun azterketa-saioa hori baino mugatuagoa izango bada ere, EHSren eredu metodologikoa erabiliz toki jakin baten bilakaera soziolinguistikoa aztertzeko interesgarriak diren ikerketa-parametroak zehaztuko ditugu ondoko lerrootan, datu gehiago eta datu hobeak eskuratu ahala begiak norantz jaso eta zabal ditzakegun jakiteko. Hasteko, lau ikerketa-parametro nagusi zehaztu daitezke:

1. mintzajardunaren[2] bilakaera (2A gelaxka, gure ereduan),

2. gaitasunaren[3] bilakaera (2B gelaxka, gure ereduan),

3. hizkuntzaren beraren bilakaerak egoera soziolinguistikoari buruz ematen digun informazioa (2C gelaxka), eta

4. bertako edo kanpoko hizkuntzei, hiztunei, eta beraien jarduera-moldeei buruz batzuek eta besteek ageri dituzten uste-iritzien eta jokaera nagusien bilakaera (2E gelaxka).

Bilakaera modu horren zergatiak (3. azterbidea) arakatu nahi izanez gero, gizarte-giroaren bilakaera ere aztertu beharko litzateke (2D xeheki). Horrezaz gain, mintzajardunari, hizkuntza-gaitasunari eta hizkuntzen barne-osaerari buruzko prognosiak (4. azterbidea), begiz jotako desio-nahiak (5. azterbidea) eta hizkuntzen estatusa eta plangintza (6. azterbidea) ere zuhurki azter litezke, norberaren

[2] Lehendik azaldua dugunez, zentzu zabalean hartu behar da *mintzajardun* kontzeptua: hitzezko, irakurrizko eta idatzizko jarduerak bere baitan dituelarik, alegia.

[3] Gauza bera esan behar da hemen ere: ahozkoaren entzumena eta mintzamena batetik, irakurmena eta idazmena bestetik, lau trebetasun horiek hartu nahi izan dira errotulu zabal horren baitan.

eta kasuan kasuko ikerketen interesen arabera. Ez gara, ordea, hainbatera iritsi. Lan zabalagoa eta iturri-arakatze sakonagoa eskatuko luke horrek.

7.2.2.1. Aldagai soziolinguistikoak

Gaingiroki zehaztu ditugun 30 interesgune edo gelaxka horietariko bakoitzean, hainbat parametro edo aldagai har liteke kontuan. Horietariko gehienak EHSren eredu metodologikoan (Zalbide, Joly, Gardner 2015) aski den adina zehazturik ageri dira eta, beraz, han esandakoak ez ditugu hemen puntuz puntu errepikatuko. Ondoko lerrootan, horregatik, garrantzitsuen diruditenak bakarrik zerrendatuko ditugu.

Hasteko, daturik izanez gero, jardueraren zer-nolakoa ondo zehaztea interesgarria izan daiteke egoera soziolinguistikoaren balorazio egokia egin ahal izateko. Horretarako, berriz, ondoko aldagaiok zehaztu behar dira:

1. **Adierazpidea**: Hiztuna nola ari da? Barne-gogoetan edo besterekin (kasu honetan solaskide bakar batekin, batzuekin edo askorekin) ahoz, idatziz ala irakurriz?

2. **Zabaleroa**: Norentzat da komunikazioa? Norbere buruarentzat, ezagun batentzat, ezezagun (multzo) batentzat…?

3. **Estiloa** zein da? Euskaraz nahiz erdaraz ari delarik (edo biak nahas-mahas darabiltzala), zein hizkera-moldez baliatzen da aldian aldiko hiztuna[4]? Hizkera landu-jaso-formala, eguneroko mintzamolde informal-arruntaz, mintzabide edo idazpide intimoaz?

Jardunguneen eta rol-harremanen araberako banaketa soziofuntzionalak bereiztea funtsezkoa izan liteke, horrezaz gainera eta, are, horren aurretik, aldian aldiko egoera soziolinguistikoa diglosikoa den ala ez argitzeko, edota gatazkatsua den ala ez zehazteko[5]. Jardunguneen eta rol-harremanen araberako banaketa soziofuntzionala bereizteko, berriz, bederatzi jardungune nagusi zehaztu dira EHSren ereduan[6]:

---

[4] Hemen ere, era zabalean uler bedi "hiztun" hitza: hitzezko, irakurrizko edota idatzizko jarduerak biltzen ditu, gure artean aski ohiko denez, "hiztun" hitzak.

[5] Hots, bertako euskara-erdaren aldian aldiko nagusitasun-moldaera horrek arazorik sortzen edo azalarazten duen azter liteke, besteak beste. Ez da hori, aurrerago ikusiko denez, gaurko gure aztergai nagusia. Une jakinetan, halere, kontu horri ere berariaz (nahiz iragaitzaz izan) helduko diogu.

[6] Horren zergatiak eta xehetasunak izateko, ikus Zalbide, Joly, Gardner 2015: 211-221.

1. Agintaritza eta administrazioa
2. Aisia eta kirola
3. Eliza
4. Etxea eta familia
5. Gertuko solaskide-taldea eta ohiko lagunartea
6. Informazio-hedapena eta -kontsumoa (bereziki XX. mendetik aurrera)
7. Hezkuntza, lehen mailatik goren graduraino
8. Lan-esparrua, bere sektore guztiak barne dituela
9. Salerosketa mundua, portu-hirietan oro har eta Donostian bereziki, luzaro izan duen eragin (tartean soziolinguistiko) handiagatik.

Jardungune bakoitzari lotutako rol-harremanak ere ugariak izan ohi dira. Ugariak eta, hainbat kasutan, aski ezagunak. Familiaren esparruan, esate baterako, hor daude senar-emazteen arteko mintza-harremana, gurasoen eta seme-alaben artean (banaka zein osorik) bideratzen dena, anai-arreben artekoa, etab. Lan-esparruan ere hainbat rol-harreman prototipiko bereiz liteke: langileen beraien arteko mintzajarduna, langileen eta nagusi(ar)en artekoa, bezeroen eta zerbitzari-langileen artekoa, etab.

Donostiak azken 250 urtean izandako bilakaera soziolinguistikoa aztertzerakoan, argi ikusten da jardungune askotxoren garrantzia aldatuz joan dela garapen teknologikoa, eta bere euskarri zein bidelagun izen den donostiar jendearen osaera demografikoa, soziokulturala, etab. aldatuz joan diren heinean: Elizaren esparruak ez du gaur egun, gure gizarte sekularizatu honetan, garai bateko pisua; aldi berean, goi-mailako ikasketek, informazio-hedapenaren alorrak eta donostiarren zein bisitarien harat-honatak lehen baino askozaz pisu handiagoa dute orain.

7.2.2.2. Aldagai sozialak eta norbanako aldagaiak

Aldagai soziolinguistikoak zerrendatu ditugu orain arte, nagusiki. Horiezaz gainera, ikerketa soziologikoei lotu ohi zaizkien norbanako- eta gizarte-mailako aldagaiak ere kontuan hartzea komeniko litzateke, betiere eskuragarri dauden iturriek hartarako aukera eskaintzen duten heinean. Hona, besterik gabe, aldagai horien zerrenda:

1. Aldian aldiko eta lekuan lekuko donostiarren ama-hizkuntza edota aurreneko hizkuntza[7].

2. Donostiar horien lanbidearen araberako banaketa.

3. Gizarte-geruzen (hots, estratifikazio sozialaren) araberako banaketa. Orobat (eta aurreko aldagaiarekin hein ohargarrian loturik) ikasketen araberako mailaketa.

4. Generoaren araberako banaketa.

5. Adin-taldearen araberako banaketa.

6. Jatorriaren araberako banaketa.

7. Talde berezien azterketa ere egin liteke: ijitoak, erlijioak markaturiko gizataldeak...

8. Tokian tokiko berezitasunak. Gure kasuan, esate baterako, 1761-1766ko donostiarrek beren bizigunea harresitik kanpora edota harresi barruan zuten. Garai bateko gizartearen eta hizkuntzaren konfigurazioei dagokienez, berariaz aztertu behar da hori Donostian. Aski hurbileko baina esangura biziz hornituriko aldagai geoterritorrial hori oso kontuan hartzekoa da XVIII. mendea aztertzerakoan[8]; aldiz, orain (batez ere XX. mendearen azken herenean eta XXI. mendearen lehen laurdenean) aldagai hori ez da urrundik ere orduan bezain eragingarri. Harresiak 1863an eraitsi zirenetik, nabarmen ahuldu (maiz ezeztatu) dira hiriko barru-kanpoen arteko bereizbide zorrotz haiek. Galerak galera, halere, aurrerago ikusiko dugunez badago oraindik ere erdigune zabalaren eta bere periferiako auzoen artean mintzajardunezko alderik.

9. Aipatu ditugun lau interesgune edo gelaxka kontuan hartuz (2A, 2B, 2C eta 2E), alde batetik, eta aldagai soziolinguistikoak eta gizarte-aldagaiak balioetsiz, bestetik, egindako azterketak badu gure ustez hein bateko indarrik, ainguragune bakoitzeko egoera soziolinguistikoa sintesi moduan argitzeko eta donostiarren azken 250 urteko bilakaera soziolinguistiko nagusia zehazteko. Leku jakinean (kasu honetan Donostian, harresi barruan edota kanpoan) hizkuntza bakoitzaren (hiztun jakinen mintzajardunaren eta idazjardunaren, hizkuntza-gaitasunen eta jarreren) bilakaera zein izan den jakin genezake horrela: hizkuntza ho-

[7] Aldagai honek maila soziolinguistikoarekin harreman zuzena du, baina datuak aztertzeko garaian gizartearen aldagaitzat jo daiteke.

[8] Ikus liburu honetan Juan Madariaga Orbearen atalburua.

rien artean luze-zabaleko konpartimentazio soziofuntzional egonkorrik (diglosiarik) izan den, noiz arte indarrean egon den[9], etab. Hori eta gehiago zehazteko balio du, gure ustez, azterketa-saio honek. Hizkuntza batez edo bestez baliatu izan diren donostiarren artean (hizkuntza edo hiztun horiek zirela medio) *language conflict* edo hizkuntza-gatazkarik (izan) den edo ez, orobat hizkuntzen inguruan (ezagutza, erabilera edota jarrera aldetik) arazorik izan den, etab. Atalburu honetan egingo dugun aurkezpenak, zoritxarrez, mugatuagoa izan behar du: azterketaren mugek ez dute gaurkoz xehetasun horietan guztietan buru-belarri sartzeko aukera zabalik eskaintzen; iturriek ez digute galdera horiei guztiei aurrez aurre eta behar bezalako fidagarritasunez erantzuteko behar adinako eta behar bezain fidagarrizko informaziorik ematen. Gauza gehiago jakin nahi izango bagenitu ere, XXI. mende hasierako informazioa aski oparoa da, O. Altunak eta M. Iñarrak liburu honen bosgarren atalburuan aurkeztu dutenez. Gorago esan denez, ez da, ordea, gauza bera gertatzen XVIII. mendeari dagokionean: orduko informazioa nabarmenki mugatuagoa da, Donostiako artxibategia 1813ko sutean desagertu zelako, besteak beste, eta, harekin batera, guretzat funtsezkoa litzatekeen beste hainbat informazio ere ez dagoelako gaurkoz (askotan betiko) eskueran.

7.3. GIZARTE-GIROAREN BILAKAERA, XVIII. ETA XXI. MENDEAK KONPARATUZ: 1761-1766 ETA 2011-2016 URTEALDIAK AINGURAGUNE

Egoera soziolinguistikoaren bilakaera aztertzen hasi baino lehen, Donostiako gizarte-giroaren bilakaera deskribatu beharra dago, gaingiroki bada ere. XVIII. mendearen erdialde berantiarra eta XXI. mendearen hasiera konparatu behar dira horretarako, 1761-1766 eta 2011-2016 urtealdiak ainguragune hartu ditugularik. Orduko eta oraingo gizarte-giroaren analisi konparatibo hori ezinbesteko eginbeharra da, bai anakronismoetan ez jausteko, eta bai bilakaera soziolinguistikoaren neurriak egoki antzemateko. EHSren eredu teoriko-metodologikoan bost azpiatal atxiki zaizkio gizarte-giroaren esparruari (Zalbide, Joly, Gardner 2015: 233-238): osaera demografikoa, ekonoteknikoa, politiko-operatiboa, psikosoziala eta soziokulturala. Bost azpiatal horiek alderatuko ditugu ondoren, labur-labur bada ere, kasu bakoitzean analisi bikoitza eginez: batetik, orduko egoera (1761-1766 ingurukoa), eta bestetik, oraingoa (2011-2016 aldekoa).

[9] Edota, are, halako ezerk oraindik zerbaitetan eta nonbait hil hurren baina bizirik irauten ote duen.

Gauza bat aipatu behar da hemen, gerora baino lehen: lurralde-esparruz gaur baino zabalagoa zen 1761-1766ko Donostia. Astigarraga eta Pasai San Pedro bere baitan zituen, eta Urumeako zilegi mendiak ere partez Donostiakoak ziren (Hernanirekin eta Urnietarekin partekatuz). Pasaia eta Altza Donostiako zati direla aipatzen du, esparru-zabaltasun horren ildotik, Ordoñez-ek: "(...) Pasajes, ó en Alza, porque estos dos lugares son como arrabales de la ciudad." (Ordoñez 1761: 14). Lehendik zetorren kontua; honako parrokia hauek Donostiari lotuta zeuden XVI. mendean: "San Sebastián el Antiguo, las parroquias de Igeldo, del canónigo arcediano de la Tabla de Pamplona, San Pedro del Pasaje de San Sebastián, y San Marcial de Alza, cuya condición de parroquia estuvo muy condicionada, más la capilla de Santa Catalina, propiedad de la Orden de San Juan de Jerusalén, llamada también de Malta y de Rodas" (Jimeno Jurío 1998: 223, gaiari buruz ikus orobat 225. or.). Halatsu ziren kontuak geroxeago ere[10]. Hedadura-murrizte horrek ere, jakina, erraztu ordez zaildu egiten du orduko eta oraingo egoeren (tartean orduko eta oraingo egoera soziolinguistikoen) alderaketa. Esana bego hori, dena den, eta gatozen gizarte-giroaren bilakaera globala bere osaera demografiko, ekonotekniko, soziokultural eta politiko-administratiboen arabera argitzen saiatzera.

7.3.1. Osaera demografikoa

Donostiako osaera demografikoari dagokionez, orduko eta oraingo osaera demografikoak alde handiak ditu. Has gaitezen lehengoarekin.

7.3.1.1. XVIII. mendearen erdialde beranteko osaera demografikoa (1761-1766 urtealdia, ainguragune)

XVIII. mendearen erdialde berantean, eta bertako hiztunen mintzajardunari zein idazjardunari dagokionez, bi gune geoterritorial bereizi behar dira argi Donostian: a) harresi barruko hiribildu itxia, alde batetik, orduko eta geroko hainbaten ezpain-lumetan "kalea" edo "Donostiako kalea"; b) harresiz kanpoko landagune zabala, auzo xumez eta baserri ugariz hornitua, Donostiako baserritarren bizigune zabala.

J. Madariagak liburu honetan aipatu duenez, XVIII. mendeko iturrien arabera, Donostiako biztanleen erdia inguru hiribilduan bizi zen, eta beste erdia-edo

[10] Madoz-ek deskribapen hau utzi zigun XIX. mendearen erdialdean: "La pob. rural está dividida en seis valles y 4 pueblos anejos: valle de Ulia, valle de Eguia, pobl. de Alza á la derecha del Urumea: valle de Loyola, de Amara, de Lugariz, de Ibaeta, pobl. de Igueldo á la izquierda del Urumea: comunidad de Zubieta a la izquierda del Oria, a legua y media de distancia de la ciudad: lugar de Aduna a la izquierda del Oria, a 3 leguas de distancia de la misma. En esta población rural se encuentran 765 casas de labor, la mayor parte muy espaciosas, de fábrica antigua de sillería y cantería con lagares para deshacer la manzana" (Madoz 1849: 32).

harresitik kanpora. Zehazki 1794ko datuen arabera, 5.488 biztanle (% 51,1) bizi ziren hiribilduan eta 5.257 biztanle (% 48,9) harresitik kanpora. Eskuragarri dauden beste iturriek ere antzeko datuak ematen dituzte, oro har. Floridablanca-ren 1787ko erroldaren arabera, 11.494 biztanle zeuden Donostian; Vargas Ponce-ren 1799ko datuen arabera, 10.478. 1813ko zenbaketaren arabera, hiribilduak 5.000 biztanle zituen eta harresiz kanpoko landaguneak 4.000; guztira 9.000 biztanle, beraz (ikus liburu honetan Juan Madariaga Orbearen atalburua, bereziki 174-177. orr.; Artola 2000: 210).

Hiribilduko biztanleria 625 eraikinetan biltzen zen, estu-estu. Honela deskribatzen du Ordoñezek (1761eko bere lanean) harresi barruan nabarmentzen zen toki falta: "En cuanto a vecindario bastará con decir, que siendo tan corta la ciudad y sin número la gente que en sí encierra, aún las casas de cinco ó seis altos están llenas de vecindades, y es muy raro el vecino aunque sea de mucho copete, que no tenga otros vecinos y para hallar un cuarto en que vivir, ni con un catalejo se adivina quien se quiere mudar ocupándose la habitación en cuanto sale el anterior vecino" (Ordoñez 1761: 54). Egoera ekonomikoaren arabera, harresi barruko biztanle-kopurua aldatu egin ohi zen: merkatalgo-komertzioa indartsu zebilenean, harresiz kanpoko hainbat baserritar hiribildura joaten ziren ("kalera jaisten" ziren) bizitzera. Baserri asko zituen Donostiako landaguneak: Bigarren Karlistada arte, Probintzia osoan baserri gehien zuen herria genuen, antza denez, Donostia.

Harresi barruko eta harresiz kanpoko moldaera soziolinguistikoa ez zen uniformea. Erabilitako datuen arabera, alde nabarmena zegoen batetik bestera: harresiz kanpoko (baserrietako) biztanleak neurri handi batean euskaraz bizi ziren erabat edo ia erabat; mintza-gaitasunez ere euskaldun garbiak ziren gehien-gehienak[11], euskal elebidun nabarmen edota, ez gutxitan, hertsiki elebakar. Donostiar horietariko gehienak baserritarrak ziren; etxean eta auzoan, lanean eta lagunarte hurbilean euskaraz egiten zuten maizenik, eta eskola bidezko erdal ikasbide laburrak eta kaleko erdaldunekiko edo erdal elebidunekiko tratu-harreman mugatuak nekez eragiten zuen, beren elebiko nagusitasun moldaeran[12], euskararen kaltean. Harresi barruko biztanleria, aldiz, heterogeneoagoa zen aspaldidanik, eta erdal solaskide-sareekin ohituago zegoen merkataritzaz, administrazio-egiturez, etab. Euskaraz (euskaraz ere) jakitea arras gertakari hedatua zen, halere, harresi barruko biztanle askoren, itxuraz gehienen, artean. Hizkuntza-trebetasu-

[11] Kardaberazek zera aipatzen zuen 1761ean: "gure Pobrecho on ascoren animac salvatceco, Euscarac burua jasotcea, Jaincoac naidu: gure Baserrietan gende prestuac dirauten artean, Euscarac iraungodu. Esan oidana: oiei lepoa ebaqui, edo bicia quendu gabe, Euscara ecin utci, edo quenduditeque." (Kardaberaz 1761: 9-10). Ordoñezek ere antzeko deskribapena egin zuen, aurrerago ikusiko dugun moduan.

[12] Uriel Weinreich-en (ez Fishman-en geroko) *dominance configuration* delakoaz ari gara hemen.

nen espektroari dagokionez, halere, bazen alderik harresiz kanpoko eta harresi barruko biztanle horien artean: harresitik kanpora bizi zirenak baino nabarmen gutxiago ziren portzentajez, antza denez, harresi barruko euskaldun elebakarrak. Udalerriko landagunean (Gipuzkoa gehienean bezala, Larramendik hain aspaldi ez zela esanik zuenez) elebidun ziren donostiar kaletar asko, itxuraz gehienak. Donostiar kaletarren "elebitasun" hori era zabal-konplexuan ulertu behar da, halere: euskaraz eta gaztelaniaz gainera, beste zenbait hizkuntzak ere, frantsesak esate baterako, "bere tokia" zuen garai hartako hiribilduan, eta jardunguneen, harreman-sareen eta adierazpideen araberako nagusitasun-moldaerak sortzen eta belaunez belaun transmititzen ziren hainbatean.

Ordoñezek zera aipatzen du, harresi barruko eta kanpoko gizarte egitura soziolinguistikoen arteko aldeak nabarmenduz: "(...) hay muchos sermones en la cuaresma domingos en las tardes hay tres, los jueves y viernes misereres, y para la gente de los caseríos hay sermones en bascuence" (Ordoñez 1761: 22). Ikuspuntu hori aurrerago berresten du: "(...) aunque hay muchos hombres y mujeres que en los pueblos grandes hablan en castellano con perfección como llegan los de caseríos á comerciar no saben ellos más que el vascongado (...)" eta aurrerago: "(...) por eso hay escuela y sermones en vascuence para la gente rústica que son los más." (Ordoñez 1761: 55). Gehienak "gente rústica" ziren, hortaz, euskaraz baizik ez zekiten hiztun elebakarrak. Ordoñez ez da bakarra, aldez edo moldez hori dioena edo hori uste izatera makurrarazten gaituena. Besterik agertzen ez den artean, hortik abiatu behar dugu, beraz.

1761-1766ko nagusitasun-moldaera soziolinguistikoa goiko hori izanik ere, bazen, halere, bereizbiderako motibo eta oinarririk. Bazen, alegia, eguneroko mintzamolde arruntari dagokion nagusitasun-eredu horretan (partez edo osoz) sartzen ez zen hiztun-talderik Donostian. Hor zegoen, hasteko, militar-jendea. Guda-garaiko defentsarako prestatutako hiribildua izanik, berariazko kuartela eta garnizioa zituen Donostiak. Donostiarren osaera demografikoan eragin ohargarria zuen faktore horrek. Bake-garaian 500 bat soldadu izaten zituen hiribilduak, eta gerra-garaian lau aldiz handiagoa izan zitekeen soldaduen kopurua: 2.000 izatera heltzen zen inoiz[13]. 1706 arte, gutxienez, ez zegoen kuartel nahikorik soldadu guztiak ostatatzeko eta, horren ondorioz, kaletar arrunten etxeetan lo egiten zuen soldadu askotxok, ohea alokatuz (Artola 2004: 44 eta 67; Artola 2000: 185). Soldadu horien presentzia dela-eta, zera aipatzen du Caminok: 1706 arte "solían [...]

[13] Gehiago ere bai, inoiz: 1813an, adibidez, frantsesek 3.100 soldatu zituzten Donostiako defentsarako: "(...) para defender la plaza los 3.100 hombres del general Rey. 'Guarnición insuficiente' dirá en un comunicado al duque Feltre (...)" (Muñoz 2013: 199). Rey jeneralaren aburuz, garnizioa ahulegia zen, antza; zenbait momentutan soldadu gehiago ere izango zela suposa liteke, beraz. Horrela, ingelesak 1813an Donostian sartu eta hiri gehiena birrindu baino lehen, badirudi 4.000 soldadu frantses inguru zeudela bertan (Muñoz 2013: 200).

alojarse en casas particulares pagando la ciudad voluntariamente el alquiler y camas a quinientos soldados que era su ordinaria dotación" (Artola 2000: 185-186). Gero ere, soldaduen ostatatze kontuak aparteko arazoak sortu ohi zituen (Artola 2000: 184). Horrela, 1732an izan zen gai horren inguruko epaiketarik (Artola 2000: 186)[14]. Erdaldun izanik soldadu asko, horien eragina Donostiako osaera demografikoan eta soziolinguistikoan nabarmena izan behar zuen[15], bake-garaian zein gerraldian. Gerra-garaian, soldadu-jende hori biztanleriaren % 20 (hiribilduan % 40) izatera iristen zen, antza.

Horrezaz gainera, zenbait unetan okupatuta egon zen Donostia. XVIII. mendearen hasieran, esate baterako, 2.000 soldadu inguru izan ziren Donostian, 1719tik 1721era bitartean (Artola 2000: 185). Mendearen bukaeran ere (1794an), Konbentzioko gerraren ondorioz okupatu egin zuten tropa frantsesek Donostia. Hiribildua abandonatu zuten herritarren etxeetan ostatatu ziren soldadu frantses haiek, etxeak nazionalizatu ondoren[16], Donostiako biztanle arrunten ondo-ondoan, beraz. Horrezaz gainera, bizilekuez harantzago zihoazen harremanak eratu ohi ziren garai horietan militarren eta bertako herritarren artean: Donostia okupatuta egon zen bitartean, esate baterako, arrantzara ateratzen ziren itsasontziek berekin eraman behar zituzten bina soldadu eta zenbait unetan agintariak frantsesak ziren (Artola 2000). Neska-laguntzen ere ibili ohi ziren, antza, eta, inoiz esan izan denez, "Maritxu nora zoaz" kantua baliteke bertako ur bila harresitik kanpora joan ohi ziren Donostiako hainbat neskame euskaldunetariko baten eta soldadu (erdi)euskaldundu baten arteko elkarrizketan oinarriturik izatea.

Militar-jendearen presentzia ez zen, Donostian, une jakin bateko edo bestekoa izan. XIX. mendearen hasieran ere luzaro okupatu zuten frantsesek Donostia (1807tik 1813ra). Kuartelak Aieten izanik ere, neurri bateko edo besteko eragina izan ohi zuten soldadu haiek donostiarren gizarte-bizitzan. Kuartelak txikiak izaki, lo baino ez zuten egiten bertan: prestakuntza eta maniobra militarrak Donostiako Plaza Zaharrean egiten ziren (Artola 2000: 186). Plaza Zahar hark hainbat gauzatarako balio izan ohi zuen eta, hori zela medio, jende asko (donostiar edo gipuzkoar) biltzen zen bertan. Soldaduen eta ohiko herritar haien artean harrema-

---

[14] Badirudi ofizialek jarraitu egin zutela bertokoen etxeetan ostatatzen: "[Donostia] era plaza de guerra, así señalada por el Rey de España, lo que suponía una guarnición constante en la Plaza, con los múltiples sacrificios que esto imponía para sus habitantes, pues estaban obligados a mantener en sus casas a los oficiales de las tropas de guarnición y de los visitantes, mientras la tropa ocupaba el cuartel de San Telmo o el de la fortaleza del Castillo en Urgull" (Muñoz 2013: 199).

[15] Ez bakarrik soldaduena. Militar batzuk emazte eta guzti bertaratzen zirela aipatzen du Ordoñezek: "Las militaras que en sus tierras usan mantillas blancas suelen hacerse aquí á las negras, sólo las mujeres de soldados se conservan con las blancas (...)" (Ordoñez 1761: 39).

[16] "más de la mitad de las casas eran bienes nacionales por abandono de sus propietarios" (Artola 2000: 232-233).

nak, hori zela eta, ez ziren kopuruz urri eta harreman-sarez, solasgaiz eta adierazmoldez hain mugatuak. Modu horretan laburbiltzen du Artolak plaza eraiki aurretik Donostian zegoen giroa: "La más importante realización urbanística del siglo XVIII fue la apertura de la plaza Nueva. Hasta entonces, el único espacio abierto dentro de las murallas era la explanada que quedaba entre la muralla de tierra y la primera fila de casas (...). Era el lugar donde se establecían las mujeres (recatonas) que vendían al pormenor; el punto de encuentro de los residentes, que acudían a la llegada del correo para recoger sus cartas, oír las noticias que contaban los que las habían recibido y en él se celebraban las corridas de toros. Todas estas funciones entraban en competencia con su empleo militar, la instrucción de los soldados." (Artola 2000: 206).

Bestalde, Donostiaren izaera komertziala zela medio, kanpotar askotxo bertaratzen zen: marinel batzuk egun edo aste batzuetarako, merkatari batzuk zenbait hilabetetarako eta (faktore-moduko) salerosle batzuk zenbait urtetarako, beren familia eta guzti[17]. Azken horietariko hainbat, frantsesak bereziki, bertan bizi ziren (ikus liburu honetan Juan Madariaga Orbea: 211-219; Artola 2004: 60). Ordoñezen 1761eko deskribapenean ere frantsesen presentzia nabarmen ageri da, eta, ez, gainera, goi-mailako merkatarien eta haien emazteen presentzia bakarrik, baita neskame-jendearena ere: "las sirvientes francesasa [sic] (que son infinitas) todas van á comprar y á la fuente con sus baticas cortas (...); hay muchas madamas francesas de gran porte y de mucha conveniencia, porque sus maridos están establecidos en la ciudad y son comerciantes de cosas gruesas y cada día vienen más, porque como en esta provincia están libres que nada se paga á el Rey (como ya se ha dicho) y en Francia tienen que pagar, cada día se ven gentes nuevas (...)" (Ordoñez 1761: 39). Merkataritzaren presentzia ugari hori ere kontuan hartu behar da, orduko donostiar (handi zein xume) askoren aldaera-sortaz edo errepertorio linguistikoaz egoki jabetzeko.

Laburbilduz: euskaldun elebakarrak asko izan arren (baserri-giroan, antza denez, gehienak), hori baino panorama nabar-bereziagoa eskaintzen zuen 1761-1766ko Donostiak, gero zehaztuko dugunez.

7.3.1.2. XXI. mendearen hasiera aldeko osaera demografikoa (2011-2016 ainguragune)

Aldakuntza demografiko nabarmenak gertatu dira Donostian, azken 250 urtean. Besteak ezertan gutxietsi gabe, kopuruz eta abiaduraz XIX. mendearen

[17] Portu-hiri askoren izaera plurala(goa) ulertzeko, deskribapen on baterako, ikus Iago Irixoaren eta David Zapirainen irlandar koloniari buruzko artikulua (2016).

bigarren erdialdetik honakoak izan dira, itxura osoz, bizienak. Aldakuntza horien barnean, era askotako osagaiak daude: batetik, Gipuzkoa barrutik etorritako euskaldunak (sarri hasieran elebakarrak, gero kalean elebidun bihurtuak); bestetik, erdal mintza-esparruetatik etorritakoak, euskararen berri ez zutenak, eta, denborak aurrera egin ahala, lehen ez bezala bertan bizitzeko haren behar larririk izan ohi ez zutenak. Bilakaera demografiko horren neurria, hasteko, oso da nabarmena: Donostiako biztanleria 180.000 ingurukoa genuen 2016an, eta Donostialde osokoa 436.000 pasakoa 2010ean. Donostiak XVIII. mendean biltzen zuen esparru geografikoa kontuan hartzen badugu[18], 200.000 biztanle pasatxo bizi zen bertan 2016an (Eustat 2016). Beraz, XVIII. mendean baino hogei bat aldiz handiagoa da, kopuruz, Donostiako udalerri osoaren oraingo biztanleria. Bilakaera horren benetako neurriaz hobeto jabetzeko, aipa dezagun gaur egun Donostian erroldatutako (azken orduko) kanpotarrek XVIII. mendeko donostiar guztien ia doblea osatzen dutela: 19.649 biztanle[19].

Hirigintzaz edo urbanismoaz, jakina, asko handitu da horregatik Donostiako hiria. 1863an harresiak eraisteko baimena eman zenetik[20] kale-auzo berri anitz sortu da, eta ordura arte (ia erabat) harresi barrura mugaturik zegoen hiri-eremua nabarmen handitu da (Artola 2000: 291).

Kanpoko hizkuntzen presentziari dagokionez, Donostian erroldatutako kanpotar horien kopurua presentzia kontuan hartu behar da, alde batetik, eta, bestetik, Donostiako oraingo izaera ekonomikoa eta kulturala azpimarratu behar dira, izaera horiek ere aldi (labur) bateko kanpotarren etorreran eragin nabarmena dutelako. Donostian antolatutako kongresuetan, horrela, 43.000 atzerritarrek parte hartu zuen 2016an (*Diario Vasco* 2016-11-28). Bertan antolatzen diren festibal-jaialdietara ere (musika, zinema, etab.) kanpotar askotxo etortzen da. Donostiako aspaldi honetako (eta orain nabarmen indarberritutako) izaera turistikoagatik, azkenik, kanpotar anitz etortzen da bertara opor egitera. Horrek ere eragin ohargarria du Donostiako kalean egungo egunean entzuten (eta, partez, irakurtzen) den hizkuntza-aniztasunarekin.

Laburbilduz: XVIII. mendearen erdialde berantean (berariaz 1761-1766an eta, praktikan, 1813 ingurura arte) nabarmena baldin bazen kanpotarren eta atze-

---

[18] Donostia, Astigarraga eta Pasaia batera bildu ditugu hemen. Hiru horiena ez da esparru bat eta berbera, bistan denez. Orain esku artean dugun konturako, gertuko hurbilketa izan litekeelakoan gaude, halere.

[19] Erroldatutako kanpotarrak % 9,8 dira Donostian, % 7,9 Astigarragan eta % 10,4 Pasaian (Eustat 2016).

[20] Europako hainbat hiritan bezala, harresiek babesa eman (eta, are, ematen) zioten herriari, baina haren garapena nabarmen mugatzen zuten. Horrezaz gainera, harresietatik kanpoko lur-eremu zehatz batean, Donostiako kasuan bederen, debekatua zegoen harrizko etxeak eraikitzea (gerra-garaian eraikin horiek, erasotzaileen esku utzi ordez, bertakoek erraz hondatu eta baliogabetu ahal izateko: Artola 2000: 206).

rriko hizkuntzen presentzia, gaur egun are nabarmenagoa da atzerritarren eta hizkuntza ugari horien "lekua". Atzerriko hizkuntza horiek lehen baino ugariagoak dira orain, eta aski maiz entzun litezke kalean. Frantsesak nagusitasun nabarmena zuen lehen atzerriko hizkuntzen artean, XVIII. mendeko LWC[21] prototipikoa zelako, besteak beste. Gaur egun ingelesa bihurtu da LWC nagusi, eta bere ondoan (ez LWC maila berean) beste hizkuntza asko ageri dira hirian: bereziki etorkinen eta kasuan kasuko turisten hizkuntzak[22]. Galerak galera, orain ere presentzia nabarmena du frantsesak: Behobiako muga autoz 20 minutura egonik, frantseshiztun asko etortzen da hirira turista edo produktu jakinen kontsumitzaile-erosle moduan.

7.3.2. Osaera ekonoteknikoa

7.3.2.1. XVIII. mendearen erdialde beranteko osaera ekonoteknikoa (1761 ainguragune)

XVIII. mendea, orokorrean, ekonomiaz garai oparoa izan zen donostiarrentzat. Batez ere merkataritzatik bizi zen Donostia, itsasoz zetorkion komertziotik bereziki. Aldiz, garai horretan, trenbidea hirira iritsi arte, lehorretik egiten zen garraioa ez zen itsasokoa bezain indartsu eta lehiakor. Artolak dioenez, "(...) el transporte terrestre no podrá competir con el marítimo hasta la aparición del ferrocarril. El comercio pasó (une batez) a depender de los puertos, y San Sebastián tenía uno de los únicos capaces de garantizar la seguridad de los buques y, con ello, el monopolio del comercio exterior." (Artola 2000: 191).

XVIII. mendearen bukaera aldea eta hurrengoaren hasiera, ordea, gogorra eta kaltegarria izan zen ekonomia aldetik. 1793tik aurrerako gerra-kontuekin hasi eta 1813ko hondamendiraino (Artola 2004: 65 eta Artola 2000: 183), ogibideari dagokionez, urte latzak izan ziren haiek donostiar askorentzat. XVIII. mendean zehar Donostiak eskuratutako oinarri ekonomikoa eta azpiegitura nabarmen ahuldu ziren mendearen bukaeran. Hainbat faktore politiko-ekonomiko batera bildu ziren atzerabide horretan: Ingalaterraren kontrako gerra, Espainiako monarkiaren politika kolonial berria, frantsesen Gipuzkoako okupazioa eta, horrezaz gainera, Donostiak 1805ean Pasaia galdu izana (Artola 2000: 230 eta 236-237)[23].

XVIII. mendearen erdialde beranteko osaera ekonoteknikoari dagokionez ere, demografikoaren alorrean bezala, harresi barruko bizitza eta kanpokoa be-

---

[21] LWC: *Language of Wider Communication*.

[22] Litekeena da, Fishman-ek inoiz azaldu bezala, oraingo anglo-nagusitasun horrek aldakuntza ohargarririk izatea etorkizun ez hain urrunean, LWC eremuan.

[23] "El modelo económico que había sustentado la prosperidad de San Sebastián en el siglo XVIII se hundió en sus últimas décadas. Varios factores se combinaron para arruinar el comercio y las infraestruc-

reizi behar dira hainbatean. Donostiako kalea merkataritzatik bizi zen lehenik eta behin. Harresiz kanpoko landa-eremuan, aldiz, baserri-giroko nekazaritza zen nagusi. Badirudi, Iztuetak dioena gezurra ez bada, Donostiako kaleak urte latz haietan izandako atzerabidea ez zela udalerriko landa-eremuan hain erabatekoa izan. Baserri-lana indartu egin zen, antza, urte latz haietan. Neurri batean, ordea. Biztanleen erdia inguru hiribildutik kanpora eta nekazaritzatik bizi bazen ere, baserritar horiek sortzen zuten janaria ez zen aski: kanpoko elikagai askotxoren behar gorria zuen hiriak, bertako nekazariek ekoitzitako uztaz gainera. Lurraren izaerak eta euri ugariak mugatu egiten zuten, gainera, antza, nekazaritza horren emankortasuna. Horregatik elikagai asko kanpotik, itsasoz edo lehorrez, garraiatu behar izaten zen Donostiara. Garraio horrek (lehorrekoak bereziki) gogor garestitzen zuen salgaiaren prezioa[24].

Harresitik kanpora bizi ziren baserritarrei dagokienez, azkenik, beste hau ere kontuan izan behar da: gehienak ez ziren (maiz belaunez belaun) lantzen zituzten lursailen eta baserri-etxearen jabe, maizter baizik. Ehuneko lau eta ehuneko hogeita bat artean baino ez zen bere baserri-lurren jabe. Nekazari horiek Gipuzkoako gehienak bezain pobre (edota pobreago) ziren oro har, eta kaletarrek baino eskola gutxiago izan ohi zuten maiz[25]. Donostiako altxor ekonomikoa beste nonbait zegoen gero ere: kaletarren merkatari-jardunean. Honela azaltzen du Artolak orduko donostiarren egoera ekonomikoa: "Si exceptuamos la actividad agrícola, el mayor número de habitantes de San Sebastián se dedicaba a los negocios, un excelente indicio de la importancia del comercio exterior en la economía urbana" (Artola 2000: 213).

Harresi barruko donostiar guztiak ez ziren, halere, jakina, merkatari-lan horretan ari. Zer lanbide modu zuten kaletarrek XVIII. mendearen bukaera aldean? Zer gizarte-maila ageri ziren horri guztiari lotuak? Bertako biztanleria aktiboari dagokionez, J. Madariagak hiru talde nagusi zehaztu ditu[26]. 1799ko inkestaren arabera, Donostiako 672 pertsonek goi-mailako klasea osatzen zuten. Eskolatutako biztanleek, hurrena, tarteko taldea osatzen zuten: 1.022 biztanle sartzen ziren talde honetan. Behe-mailako taldea 1.852 pertsonaz osatua zegoen.

Madariagak deskribatutako inkestaren arabera, hona hemen Donostiako taldeen estatus-osaera, jarduera eta lanbidea: "*nobleza y mayorazgos* 56 perso-

turas: la guerra contra Inglaterra, la nueva política colonial, la ocupación de Guipúzcoa por los franceses y la pérdida del Pasaje, entre otras." (Artola 2004: 81). Ikus, orobat, Artola 2000: 183. orrialdea eta 230etik aurrerakoa.

[24] Artolak dioenez: "La fragosidad de la tierra y las muchas lluvias eran factores que limitaban los cultivos, lo que hacía que su población dependiera de la importación de granos y, en general, de alimentos, en tanto que la dificultad de los caminos encarecía los precios, hasta el punto de hacerlos prohibitivos." (Artola 2000: 191).

[25] Ikus hemen Juan Madariaga Orbea: 177-178.

[26] Ikus hemen Juan Madariaga Orbea: 179-180.

nas; clero, 176; profesiones liberales, 102; maestros y maestras, 15; militares, 18; comerciantes, 240; además estarían los "marinos" en donde seguramente se engloban tanto humildes pescadores como "maestres de naos", serían 65 y no todos deberían incluirse en este grupo. En total, considerando que todos los "marinos" perteneciesen a grupos dirigentes, estos harían un total de 672 personas. También podemos considerar que los 1.022 incluidos en el grupo de "población escolarizada" en donde se integrarían estudiantes de diversos niveles, estaría dentro del conjunto de los dominantes, aunque solo fuese por su nivel de instrucción, con lo que en total este ascendería a 1.694 personas. Por lo que hace a lo que calificaríamos de "clases populares" habría 648 labradores, 290 criadas asalariadas, 636 artesanos (entre los que reinaría una cierta diversidad social) y 165 personas acogidas al Hospital y las 113 de la Casa de Misericordia, casi siempre componentes de grupos populares y marginales". 1799ko kontaketa horretan, ohart gaitezen emakumezkoen lana ez zela kontuan hartu; egon hor zeuden, ordea. Etxeko lanetan aritzen ziren emakume ugariez gain, hor zeuden jostunak eta dendariak, okinak eta arrain-saltzaileak, etab.[27] Multzo ohargarria zen hori ere.

Osaera demografikoa aurkeztean ikusi dugunez, merkataritzari lotutako hiria zen XVIII. mendeko Donostia. Kanpoko merkatariak ugaritxo izateaz gainera, salerosketa osoa errazteko interprete-itzultzailerik ere ez zen bertan falta: "(...) tiene este Consulado intérpretes con sueldos con lo que corre el comercio sin demora, asimismo luego que llega algún navío extranjero pasa luego la justicia con médico y cirujano y algún intérprete á la vista de Sanidad y hasta que se haga esta diligencia, nadie echa pie á tierra." (Ordoñez 1761: 55).

7.3.2.2. Gaur egungo osaera ekonoteknikoa (2011-2016 ainguragune)

Osaera ekonoteknikoari dagokionez, demografia esparruan bezala, 250 urteko bilakaerak alde handia ekarri du. Lehorreko lotura-bideak ugaritu eta zabaldu, erraztu eta arindu egin dira nabarmen, hasteko. Salto batean iristen zara orain (lehengo aldean, jakina) Donostiara, eta hurbil samar dituzu kanpora irteteko bideak (eta aireportuak). Abiaburua XVIII. mendearen erdialdean ezarri ohi bada ere, Probintziako (eta bereziki, Donostialdeko) komunikazio-ibilbideen esparrua gogor hobetu da XIX. mendeaz geroztik: eguneroko bizi-oinarri dira orain, lehen ez bezala, errepide ugariak, autobide-autopistak, orobat tren- eta hegazkin-zerbitzuak. Jendearen (euskaldunen eta erdaldunen) arteko harreman-aukerak eta beharrak gogor areagotu ditu osaera ekonotekniko berriak. Hazkunde-eztanda horren haritik, Espainiako eta Europako turismoa bete-betean sartu da Donostian XIX. mendearen erdialdetik hona. Aurrerapen teknologikoei esker (harresiak

[27] Ikus hemen Juan Madariaga Orbea: 179-180, 1799ko inkestari buruz ikus orobat Artola 2000: 212-213 or.

eraistearekin batera 1863an iritsitako trenbidea lagun, besteak beste), Penintsulako eta are Europako hiri turistiko bihurtu zen Donostia une batetik aurrera. Bertako euskara-gaztelanien ondoan hizkuntza "(ez hain) "arrotz"en presentzia (berr)indartuz joan zen bide horretatik. Turismo "berri" horren deskribapen argia egiten du Adrien Planté-k 1886an eta, besteak beste, bertako hainbat kultura-emanaldi une horretan frantsesez burutzen dela dio (ikus orobat Artola 2000: 284-386). Gurean 1920 ingurura arte iraun zuen *Belle Epoque* delakoak aparteko eragina izan zuen Donostiako osaera demolinguistikoan, L hizkuntz(ar)en birbanaketan eta *additional language* moduko frantsesaren (azken mende erdian, ingelesaren) buru-jasotzean. Nolanahi ere, eta euskara-gaztelaniei dagokienez, hurbiltasun komunikatiboan oinarriturik XIX. mende erdira arte-edo L-esparruan hain berea izandako nagusitasuna galduz joan da euskara, geroztik, Donostiako kalean: aurrerago zertxobait zehazten saiatuko garen une batetik aurrera, demagun 1870etik aurrera-edo, gertatu da hori nagusiki. Kale nagusia galdu ahala, bere indargunea Parte Zaharrera eta zenbait albo-auzotara (Egia, Antigua, Altza, Aiete, Benta Berri) bildu du euskarak: behar bezala ikertu gabe dago Bulebarretik Mendeurrenaren plazarainoko zabalkunde-esparruan (Kortazar-en araberakoan) erdara, 1870 ingurutik hona, L-esparruan nola nagusitu den.

Faktore batzuk lagungarri izan litezke euskararen L-esparruaren atzerabide hori azaltzeko. Zerbitzuen alor ekonomikoari garrantzi handia eman dio hiriak. Biztanleria aktiboaren sektore garrantzitsuenak aldatu egin dira, horrela. Hori dela medio, Donostiako biztanle gehien-gehienak zerbitzu-sektorean ari dira gaur egun lanean: hala dira donostiar aktiboen % 89,4, oker ez bagaude, 2017ko datuen arabera (Eustat 2020). Beste sektoreak nabarmen apaldu dira: industriako sektorean biztanleria aktiboaren % 4,8k egiten du lan, eraikuntzaren alorrean % 5,7k eta lehen sektorean, nekazaritzari lotutako sektorean, apenas inor lanean ari den.

1863an harresiak eraitsi zirenetik, harresi barruan eta handik kanpora lansektoreei dagokienez, lehen hain nabarmena zen banaketa gogor murriztu da. Halaz eta guztiz, XXI. mende hasierako azterketarako kontuan hartu ditugun hiru albo-herrien artean alderik badago egon, aldea gero eta txikiagoa izan arren. Donostian pisu handiagoa du zerbitzu-sektoreak Pasaian eta Astigarragan baino[28].

[28] Bi herri horietan Donostian baino presentzia handiagoa dute beste sektoreek. EUSTATeko datuen arabera, Pasaiako biztanleen % 85,8k egiten du lan zerbitzuen sektorean, % 4,9k industrian, % 7,2k eraikuntzaren alorrean eta % 2,1ek nekazaritzan. Astigarragan % 57,4k egiten du lan zerbitzuen alorrean, % 17,3k industrian, % 25,2k eraikuntzaren alorrean eta % 0,2k lehen sektorean (EUSTAT 2016).

Gorago esan denez, Donostia turismoari loturik egon da XIX. mendearen bigarren erditik, bereziki euskal mintza-esparruaz kanpoko turismoari atxikirik. Kanpora begira duen izaera hori indartzen joan da, gainera, azken hamarkadotan: hiriburuan egiten diren kongresu ugariez gainera, ikergune eta garapengune garrantzitsuak ari dira udalerrian eratzen eta zabaltzen. Unibertsitate-esparru gero eta indartsuagoaz gainera, hor daude, esate baterako, *Donostia International Physics Center, Nanogune*, etab. Kirolaren alorrean ere nazioarteko harreman-esparru zabaleko hainbat ekintza antolatzen dira: futbola, errugbi partidak, txirrindularitzan hor dago Donostiako Klasikoa, gero eta jendez (asko eta asko erdaldunez) hornituagoko Behobia-Donostia maratoi-erdia, etab. Erdal jarduna areagotzen du horrek, oro har, ezinbestean. Bada bestelakorik ere, ordea. Euskal Herrian "betiko" sona eta jatortasun-marka duten kirol-saio garrantzitsuak ere sarri antolatzen dira: pilota-partidak ez ezik, hor daude Kontxako estropadak ere. Kulturari lotutako eskaintza ere oparoa da. Oparoa eta, maiz, nazioartekoagoa: euskararen bermagarri edo pizgarri diren bertso-saioen, euskarazko kantaldien eta euskal antzerkiaren ondoan, erdara nagusi den mundu mailako zinemaldia antolatzen da urtero, jazzaldia eta beste zenbait musika-festibal lagun dituela. Horrezaz guztiaz gain, kontuan hartzekoa da 2016an Europako Kultur Hiriburu izateak bertara erakarritako mugimendua. Ekintza horiek guztiek, bistan denez, zerbitzuen sektorea eta bereziki nazioarte zabalari lotutako turismoa indartu dute. Aparteko aipamena behar du, azkenik, 2016tik hona, covid-aldia salbu, turismo-ostalaritza alorrean gertaturiko leher-eztandak. Munduko bost zokotako erdarak, ez gaztelania soilik, nabarmen entzuten dira orain Donostiako kaleetan. Aniztasunezko erdal itsaso horretan igeri egiten ikasi beharra daukagu orain, lehendik aski trebaturik ez bageunden, ahal den heinean euskaraz bizi nahi dugun eta gure hizkuntza hurrengo belaunaldiei bizirik eskuratu nahi diegun donostiarrok.

7.3.3. Osaera politiko-operatiboa

7.3.3.1. XVIII. mendearen erdialde beranteko osaera politiko-operatiboa (1761-1766 urte-tartea ainguragune)

Mendeetako Gipuzkoa foral tradiziozkoaren garaiak ziren, hein ohargarrian, 1761ekoak (eta, oro har, 1766 artekoak). Monarkia hispanikoaren parte zen Gipuzkoa, eta horren baitan Donostia, baina ez "nolanahiko parte". XVIII. mendearen erdialde beranteko Gipuzkoa hark bere esku zuen artean hainbat erabakimen: ezin ukatuzko autonomia, gero eta bateratze-neurri zorrotzagoak hartzen (eta, bereziki, bihar-etzi hartzeko asmoz diseinatzen) ari zen monarkia hispanikoaren baitan. Bere foruak zituen Probintziak, Diputazio eta Batzar Nagusiak barne. Aduana-ahalmena eta aduana-lekua ere bere mende izanik zuen baina, mo-

tibo bat edo beste zela medio, maiz aldatu zen mende horretan tokiz: normalean Ebro ibaian ezarrita bazegoen ere, hainbat unetan (adibidez 1718an, kontrabandoari aurre egiteko edo urrunagoko asmoz) itsasoraino ekarri zen (kontrabando-azalpenaz ikus Artola 2000: 193-195). Foru-marko horrek hainbat erabakimen eta beregaintasun-maila ohargarria eskaintzen zion Probintziari, esparru batean baino gehiagotan. Egia da, gutxi, oso gutxi, falta zela (1767 ingurutik aurrera, tartean Arandako kondearen eraginez) bertako hainbat erabakimen murrizturik gertatzeko[29]. Baina "lehengo egoera" zen artean, formalki bederen, Donostian indarrean. Bertako protoelite euskaltzaleek bazuten, halaz guztiz ere, kezkatzeko motiborik: noiz arte iraungo zuen beregaintasun-marko hark, Gortean esaten eta idazten ziren planteamenduen ildotik? Begi luzez jardun zuen Larramendik, dakigunez, kezka horiek zirela medio: gauzak aldatzen ari zirela eta ezer egin ezean foruak murrizteko edo galtzeko arrisku bizia zegoela esanik zuen dagoeneko. *XVIII. mendearen erdialde beranteko* donostiar elite komertzial indartsuaren *osaera politiko-operatiboari buruzko* kezka-giro nagusia ez zen, ordea, antza denez, hori. Beste hainbat elementuren pare, azterkizun dago orduko elite eta protoelite gipuzkoarren (tartean donostiarren) gai horri buruzko adostasun-aurkaritzen kontua. Horrek guztiak euskara-erdaren bilakaeran ondorio nabarmena izan zezakeenik ez zen, hasieran, hain argi ikusten. Kardaberaz batentzat seguru zegoen 1761ean euskararen jarraipen betierekoa, baserri-giroan bederen: ikus urte horretako *Eusqueraren berri onac*. Oso bestela ikusi zituen kontuok, handik 70 urtera, Kardaberazen herrikide (eta Donostiako berriez ongi informaturiko) Paskual Iturriagak. "Zerbait" (edo "zerbait baino gehiago") aldatzen hasia zen, antza, euskara-erdaren posizio erlatiboan (demagun) Beterriko euskaldunen nagusitasun-moldaerari dagokionean.

Donostiako 1761-1766 urte-tarteko osaera politiko-operatiboa dela-eta besterik ere gogorarazi behar da hemen: Donostia ez zen oraindik "Gipuzkoako hiriburu". 1854an bihurtu zen Donostia, osaera politikoari dagokionez, Gipuzkoako hiriburu bakar eta iraunkor. Horren aurretik Tolosa, Azpeitia eta Azkoitiarekin txandakatzen zuen Donostiak Probintziako hiriburutza (Artola 2004: 95 eta Artola 2000: 276). Hiriburu izateak ondorio ekonomikoak eta linguistikoak zituen berekin: "la capitalidad es un factor diferencial en el desarrollo de las poblaciones por la localización en ella de oficinas y servicios, que contribuyen al crecimiento económico" (Artola 2000: 276). Irakur-idatzizko jarduna, erdarak ia erabat bere

[29] 1778an Koroak koloniekiko komertzioa liberalizatu zuenean, Donostiak eta Bilbok kalte nabarmena izan zuten, antza (Artola 2000: 205 eta 229).

zuena, indartzera zetorren hiriburutza hori. Hasieran, gutxi edo oso gutxi; gero eta gehiago, ordea, une batetik aurrera.

Nolanahi ere, osaera politiko-administratibo edo politiko-operatibo horrek ez zuen, maiz, korolario soziolinguistiko argirik. Herri-aginteen orbitako lanpostu askotan euskaldunekin (maiz euskaldun elebakarrekin jardun behar izan arren), lanpostu horiek eskuratu ahal izateko, ez zen normalean hizkuntza-eskakizunik ezartzen. Ez era espresuan eta, are gutxiago, era proaktiboan ("euskararen bizi-indarrari bere hartan eusteko" edota "galduz zihoakion bizi-indarra" gorabidean jartzeko, demagun). Hala ere, udal-agintearen ustez hizkuntza-edukirik gabeko hainbat erabakik ezinbesteko ondorio soziolinguistiko zituen: erabaki horietariko zenbaitek, lanpostuaz jabetu ahal izateko, euskaraz (hitz egiten, ez idazten) jakin beharra zekarren berekin. Udal-esparruko hainbat lanpostu eskuratzeko bertakoa izan behar zenez, eta bertako biztanle gehienak euskaldun (batzuek elebakar, besteak euskal elebidun, hainbat erdal elebidun) zirenez, ezer ezarri gabe ere hein bateko hizkuntza-eskakizuna ziurtaturik zegoen *de facto*. Honelako hainbat kasu jasota dago Donostian, bere osaera politiko-operatiboari loturik. 1752ko Errege Zedula baten lau artikuluok adierazgarriak dira, esate baterako, bere xumean eta, antza, hizkuntza-eskakizun espresurik gabeko idazkeran: "El primero, para reservar los oficios a los vecinos matriculados; el segundo, para establecer la preferencia a los hijos de los vecinos para las capellanías; el tercero, para que los extranjeros no puedan vender al por menor; y el cuarto, para reconocer el derecho de los hijos legítimos o naturales de vecinos habidos en el extranjero." (Artola 2000: 217)[30].

Erabaki horiek, bistan denez, ez zuten zer ikusi zuzenik euskararen lege-babesarekin; are gutxiago bere bizi-indarra areagotu eta (Larramendik eta bere segidako hainbatek nahi zutenez) H mailara garatzeko hizkuntza-plangintzarekin. Halaz guztiz ere, hizkuntzari (bere bizi-indarrari) lotutako ondorioak izaten zituzten sarri[31]. Ondorio praktiko horiek handiak ziren hainbat kasutan; donostiarren eguneroko jarduera arrunta euskaraz burutu ahal izateko aukera praktikoa ziurtatzen edota zurkaizten zuten, hein ohargarrian: 1) ofizioetan eta kapilau-lanean arituko ziren gehienek euskaraz jakitea ziurtatzen zuten arau horiek, 2) eguneroko komertzioa, "al por menor" egiten dena, bertakoen monopolioa izanik komertzio hori euskaraz egin zitekeela ziurtatzen zuten. Gertakari horren lekukota-

[30] Ikus orobat Jimeno Jurio 1998: 221-222. Ordoñezek frantsesak "comerciantes de cosas gruesas" direla azpimarratzen du bere 1761eko deskribapenean (Ordoñez 1761: 39).

[31] Ordoñezek neurri horietako batzuk aipatzen ditu: "es preciso para ser beneficiados que sean bautizados en la ciudad, en Pasajes, ó en Altza" (Ordoñez 1761: 14). Jimeno Juríok, bere aldetik, pribilegio batzuen jatorriaren berri ematen du: "Las ordenanzas y privilegios concedidos por Périz de Legaria en 1292 y 1302, exigiendo ser natural u oriundo de Donostia para ser beneficiado de las parroquias, se mantenían plenamente vigentes en 1575." (Jimeno Jurío 1998: 222).

sun argia utzia digu Ordoñezek: "(...) aunque hay muchos hombres y mujeres que en los pueblos grandes hablan en castellano con perfección como llegan los de los caseríos á comerciar no saben ellos más que el vascongado, y si se ha de mantener el comercio, preciso es que se les responda en su lengua nativa, y así todos los que venden responden al que habla en la lengua que él se explica y por conveniencia de todos es preciso conservar el vascongado (...)" (Ordoñez 1761: 55).

Gauza bat esan beharra dago hemen, panorama itxuratxarki ez murriztu, okertu edo desitxuratzeko. Diglosiaren ildotik belaunez belaun irauten zuen aginte-esparruko moldaera glotopolitikoa ez da uste izan behar zori itsuaren, halabeharraren fruitu zenik. Donostiako (eta, oro har, Hego euskal herrietako) mintzajardun eta idazjardunaren XVIII. mendeko moldaera nagusi hura ez zen "berez sortua", "historiak hala ekarria". Aginte-esparruaren eragina ukaezina zen alor horretan, aspalditxodanik: urrunagoko iturrietara jo gabe, demagun Erdi Aroaren amaiera-aldetik: erdararen nagusitasuna *top-down language status planning* famatuaren adibide paradigmatikoa izanik da gure artean. Nagusitasun erabatekoa aitortua zion plangintza hark hizkuntzen administrazio-esparruko erabileran eta, oso bereziki, irakur-idatzizko praktikan. Hizkuntzarekin zuzenean lotutako arauen artean zegoen, ezaguna denez, honako hau (eta ez da bakarra): udal-ordezkariek gaztelaniaz irakurtzen eta idazten jakin behar zutela. Artolaren hitzetan, "(...) los vecinos elegibles (...) debían saber leer y escribir en castellano desde 1573 (...)" (Artola 2000: 219).

7.3.3.2. Gaur egungo Donostiako gizarte-osaera politiko-operatiboa (2011-2016 urte-tartea ainguragune)

XXI. mende honen hasiera ongizatearen gizarteari lotuta dago, erabat, Europa gehienean: horrela gertatu da Donostian ere. Adin handikoek baino ez dute bertan gerrarik ezagutu: belaunaldi berrienek ez dute, hainbatean, berritasun horren kontzientziarik ere. Azken ia 80 urtean ez dugu gerrarik izan, gosete handirik ere ez, ez eta (covid-19a iritsi arte) izurriterik, are gutxiago hiria kiskaltzeko moduko suterik. Gizarte-azpiegitura osatu eta sendotu egin da, horrezaz gainera: gizarte-segurtasuna, osasungintza, ikasketak burutzeko aukera zabala, segurtasun-neurriak, etab. nabarmen hedatu dira.

Mintzajardunaren eta idazjardunaren giza arteko moldaeran ere aldaketa handiak gertatu dira osaera politiko-operatiboan. Gaitzespen eta debeku-neurri latzen ondoren, diktaduraldi luzea amaitzeaz bat ofizial(kide)tasun-estatus legala aitortu zaio euskarari, 1980 ingurutik aurrera, Donostian ez ezik ondotxoz esparru zabalagoan ere: EAEn, Nafarroako mintza-esparru euskaldun(en)ean partez, murritzago baina hein batez Iparraldean. Horrekin batera, euskara indarberritze-

ko hizkuntza-plangintzak abiatu dira XX. mendeko 80ko hamarkada horretatik aurrera. Leku handia eskuratu du euskarak, hori guztia dela medio (baina ez horregatik bakarrik) eskola-munduan: D ereduan, euskara nagusi den ereduan, ikasten dute orain Donostiako haur, neska-mutil eta gazte gehienek. 2011n, 18.454 ikasle zeuden D ereduan, 8.688 Bn eta 8.296 An (Olatz Altuna eta Maialen Iñarra liburu honetan: 363). Geroztik areagotu egin da, oker ez bagaude, D ereduaren nagusitze-kontu hori. XVIII. mendean, aldiz, behe-mailako eta baserri-giroko euskaldun elebakarrek baino ez zuten, itxuraz, euskal (edo, errazago agian, ele biko) hezkuntzarik jasotzen.

7.3.4. Osaera psikosoziala eta soziokulturala

Gizarte-giroari lotutako osaera psikosoziala eta soziokulturala batera bilduko ditugu lan honetan. Hainbat arrazoi dago horretarako. Hasteko, bi osaera horiek argi eta zorrotz bereizteko, hainbat azalpen eman beharko genuke, eta ikersaio honen mugapean horrelako bereizketa eta xehetasunetan sartzea biziki zaila egiten da. Horrezaz gainera, bi osaera horiek egoki deskribatzeko, azterketa berezi eta sakonak egin behar izaten dira. Hizkuntzen egoeren bilakaera aurkezteko bi osaera horiek batera landu eta hizkuntzei lotutako bereizgarriak aipatzearekin nahikoa izango dugu, beraz.

7.3.4.1. XVIII. mendearen erdialde beranteko donostiarren osaera psikosoziala eta soziokulturala (1761-1766ko urtealdia ainguragune)

XVIII. mendearen erdialdean, Elizaren presentzia eta pisua oso handia zen gizartean. Eguneroko bizimoduaren nondik norakoa, zilegi-debekuen araudi nagusia, noiz-nongoak eta, are, urtaroen erritmoa Elizak egituratzen jarraitzen zuen hein batean. Kofradien zeregina ere handia zen, Elizaren babes-zaintzapean. Denbora librea izateko aukera, berriz, aski mugatua zen donostiar gehienentzat: gaur egun baino betebehar gehiago zituen jendeak. Ingurumen fisikoaren orain baino mendekoago zen jendea, gainera; edango bazen, adibidez, harresitik kanpora joan behar zen hainbat kasutan ur bila (Ordoñez 1761: 53); portuko kaiak zaindu eta egokitu egin behar ziren, etab. (Artola 2000: 187-188). Agian komertzioari lotuta zegoelako, interes ekonomiko bereziak zituelako edota frantsesen presentzia (inoiz okupazioa) zela medio, inguruko gipuzkoarrak baino liberal-kaxkarinagoak ziren donostiarrak (haietariko batzuk, ez guztiak).

XVIII. mendea Ilustrazioaren garaia izan genuen, bestalde. Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País/Euskalerriaren Adiskideen Elkartea[32] 1764an

[32] Elkartearen izaera europarra eta eleaniztuna azpimarratzekoa da, eta modu horretan jasotzen da akta batean: "Respecto de que diversas Gacetas extranjeras y principalmente la de Agricultura y Comercio, suelen traer a veces noticias conducentes al instituto de la Sociedad, tuvo por conveniente la Junta repartir

sortu zen Probintzian (ikus liburu honetan Koldo Larrañagaren ikerlana eta Artola 2000: 214-215), adibidez, eta lehenago sortutako Caracasko Errege Konpainia gipuzkoarraren bitartez sartu ziren Venezuelara Ilustrazioaren ideiak (Basterra 1925). Gizartearen egitura aski piramidala izanik ere, osaera psikosoziala eta soziokulturala gaur egungoa baino homogeneoagoa zen hainbatean: Elizak eragin handia zuen gizartean, populazio (ia) osoa katolikoa zen eta berak bilbatzen zituen nagusiki urteko jai-ospakizunak, norberaren betebeharrak, eskubide-lizentziak eta bizitzako hainbat trantsizio-une; berak definitzen eta indarrean mantentzen zituen orobat, hein ohargarrian, sinetsi beharreko elementu soziokultural gehienak. Kohesioa eta (onaren eta gaizkiaren arteko muga-lerroa argi izateak eraginik, agian) nolabaiteko konformidadea ematen zion horrek guztiak gizartearri (Bohler 2020); tartean, nola ez, garai hartako donostiar askori.

Idatzizko hedabideen presentzia artean aski mugatua bazen ere, prentsaren eragina argi antzematen hasi zen handik gutxira, XIX. mendean. Prentsaren ahoz gorako irakurketa, adibidez, ohikoa zen zenbait tabernatan, garai horretan (Artola 2004: 96). Donostiako taberna batzuk garrantzi handikoak ziren, antza, jendea hor biltzen baitzen (*La casa del Café*, esate baterako. Artola 2000: 277). Tabernen eta prentsaren eragin hori honela jaso izan du Artolak: "Los lugares públicos de reunión -cafés y chocolaterías- fueron además centros de educación política y artística cuando las autoridades lo permitían", eta aurrerago: "La prensa fue el primer medio de comunicación de masas, después del púlpito, al que aventaja en la medida que promueve el debate. El efecto de la prensa es muy superior a lo que sugieren sus tiradas, dado que cada ejemplar tiene más de un lector, e incluso los analfabetos pueden acceder a su contenido en caso de leerlo en voz alta" (Artola 2000: 277-278). Horrezaz gainera, eta informazioaren hedapenari dagokionez, handik gutxira (1830 ingurutik) gero eta dokumentatuago dauden bertsopaperek herritarren eguneroko jarduera arruntean euskarak zuen pisu demolinguistiko handia berresten dute. Artolaren azalpen (gainerakoa argi eta jakingarri) horrek, beste gehienek bezala, gauza bat ahazten du: bertsolaritzak eta bertsopaperek XIX. mendean Gipuzkoan oro har, eta Beterrin bereziki, izandako goraldi-eztanda, erakarmen-lilura, presio-ahalmena eta ideia batzuen edo besteen zabaltzaile-izaera bortitza.

entre algunos de sus constituyentes el cuidado de extractar, o traducir por entero, según les dicte su prudencia, los capítulos que lo merecieren." (Artola 2000: 215-216). Ikus liburu honetan bertan, azterketa sakona eta exhaustiboa egin ondoren, Koldo Larrañagak RSBAP/EAEari buruz idatzitako atalburua.

7.3.4.2. Gaur egungo donostiarren osaera psikosoziala eta soziokulturala (2011-2016 urte-tartea ainguragune)

Alor honetan ere handia, zabala eta sakona izan da 250 urteotako bilakaera. Donostiarren (eta, oro har, Bidasoaz honaindiko[33] euskal mintza-esparru zabaleko euskaldunen) osaera soziokulturala dela-eta, eragin handia izan du, XVIII. eta, bereziki, XIX. mendeko protoelite euskaltzaleen esanean, euskal-debekuzko erdal eskolak. Hein bateko eragina euskaldun xumeen artean eta, unibertsitate-ikasketak zirela medio, nabarmen sakonagoa jabetzaz, diruz edo estatus sozialaz gorago kokaturik zeuden donostiarren (eta haien semeen, ez hainbat alaben) artean. Ikasketak egitera kanpora joan behar izaten zuten Donostiako elite horien seme gehienek[34]: askotan Salamancara, eta bertan, bistan denez, gaztelaniaz baino ez zuten egiten (Artola 2004: 62). Elite horiek, ikasketak zirela eta, euskara aldetik ele-erasanik geratzen ziren maiz. Desoreka nabarmena zuten beren trebetasun-paradigman, bai hitzez eta bai, jakina, idatziz; halaz ere, ez ziren askotan erabat erdalduntzen. Mintzamen-entzumenez euskaldun garbien multzotik gogor aldentzen baziren ere askotan, ikasketak burutu eta Donostiara itzulitakoan etengabeko tratua izan behar izaten zuten euskaldun-jendearekin. Neskame gehienak eta hainbat langile euskaldun huts edo euskal-elebidun nabarmen ziren, eta, haien eraginez besteak beste, Donostiako kale-giroan (eta, zer esanik ez, bertako L-esparru gehienean) ezin ukatuzko lakua zuen haien artean ere euskarak.

Askotan aipaturiko kontuak dira hauek, bai Donostiarako eta bai euskal mintza-esparru gehienerako. Eskola-mundua gaztelaniaren (maila batetik gora eta eliza ikasketen bidean, horrezaz gainera, latinaren) gotorleku zen. Hala zen alde askotatik: tartean mendez mendeko tradizio luzeak zurkaizturik eta, bereziki, azken orduko lege-agindu zorrotzen indarrez. Erdara jaun eta jabe izanik ere, guztia ez zen, ordea, erdal itsaso huts. Kardaberazek 1761eko *Eusqueraren berri onac* liburuan iragarritako bidetik-edo, urte hartan bazen Donostiako udalerrian (harresiaz kanpoko eta Urumearen eskuin ibarreko San Frantziskoko komentuan, Ordoñezek deskribatzen duenez) euskarazko (agian, Kardaberazen ildotik, ele biko?) eskolarik: “A pocos pasos de la mar se halla el convento de San Francisco del que también es patrona la Ciudad, tendrá cuarenta religiosos, es buen convento y capaz, buena iglesia y bien limpia y adornada, buen claustro, aquí se enseñá la escuela Bascongada, y hay sermones en este idioma (...)” (Ordoñez 1761: 28). Antzera dio aurrerago ere, bere deskribapenean: “(...) hay escuela y sermones en

---

[33] Litekeena da Iparraldeko historia siziokulturala eta eskolaren eragin euskal-etsaia, XIX. mendearen erdira arte bederen, nabarmen diferentea izatea.

[34] Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatearen espezialitate-zabalaz eta korporazioaren beraren iraupen-indarraz, besteak beste, badago baikorregi ez izateko motiborik.

vascuence para la gente rústica que son los más" (Ordoñez 1761: 55)[35]. Zabalduriк zegoen eskolaketa hainbatean, ez, ordea, gaur ohiturik gauden eran[36].

XXI. mendearen hasieran oso bestelakoak dira kontuak, hainbat aldetatik. Eliza katolikoak gizarte-bizitzan zuen itzal-eragin zabal eta sakon hura asko mugatua da. Moldaera soziokulturalak hain sakon markatzen duten nolanahiko moda kontuan, janzkeran eta orrazkeran, bikote-bizitzan eta beste hainbat alorretan ere alde nabarmenak ditugu orain, 1761-1766koekin konparatuz. Orduko jatortasun-osagai guztiak galdu ez baditu ere, mendebaleko kontsumo-gizarte supraetniko berriaren adibide arrunta da, alde askotatik, gaurko Donostia. Gizartearen eskala-maila gehienetako pertsonek lehengoek baino denbora libre gehiago dute. Aisialdiak leku handia hartu du gure eguneroko bizitzan: kulturaren kontsumoa, kirola, gizarte-sareak, jolasak, etab. Lehengo aldean, lanari eta oinarri-oinarrizko bizi-beharrei eskaintzen diegun denbora ondotxoz mugatuagoa da. Ohitura diferenteagoak garatzen ari dira, gainera, bestela elkarren aski ondoan bizi garen pertsonen artean. Desberdinaz, gainera, barne-bereizbideez heterogeneoagoa da gaurko donostiarron gizartea: hainbat postura politiko islatzen dira etengabe, interes eta eskaintza desberdinagoak daude eskueran (kirola, artea, hizkuntza, kontsumoa, Internet, telebista, etab.). Hori guztia aski ez balitz bezala, XX. mendeko hedabideek eta azken orduko teknologia berriek etengabeko eragina dute oraingo donostiar ia guztiongan. Munduko leku gehienetan bezala, teknologia berriok erruz kontsumitzen ditugu. Lehen ez bezala[37], bestalde, guztiok partekatutako erritual askorik ez dago orain: agian telebista- eta pantaila-kontsumoa. Hiritar bakoitzak bere aukera egiten du, ordea, hor ere, oro har. Futbolaren erakarmen bizia eta politika-bideen jarraipen-inplikazioa ere hor daude, nork bere talde eta alderdi hobetsiak dituela. Erritual konpartitu handiegirik ez dagoen heinean, gizartearen kohesioa eta, zenbait kasutan, norberaren oreka psikoemozionala ere kolokan jar litezke (Bohler 2020). Bizitzaren zentzua, oinarri pertsonalak eta

[35] Badirudi, horrezaz gainera, Donostialdeko zenbait baserrik bere otoizleku edo oratorioak zituela eta inguruko baserrietatik bertara biltzen zela jendea, otoitz egitera. Ordoñezen pasartearen arabera, badirudi otoiztegien kontu hori batez ere goi-mailako biztanleen gauza zela: "Los sujetos de conveniencias suelen pasar algunos meses en sus caseríos en primavera y otoño, y aunque algunos se reducen sólo a tener oficinas para guardar sus frutos y recoger sus ganados, alguna salita y una cocina, hay otros como palacios, con galerías, balconajes, gabinetes, buenas salas y dormitorios bien alhajados (...) y no pocos tienen oratorio y con este motivo vienen a oir misa de otros caseríos." (Ordoñez 1761: 34). Azken pasarteak interpretazio-aukera zabala uzten du, ordea. Kontrastatu egin beharko, modurik dagoenean.

[36] Neskak eta mutilak zorrotz banaturik egon ohi ziren. Irakasle bakar batek 60-70 ikasle izaten zituen eta, lehen hezkuntza osoa derrigorrezkoa ez bazen ere, 580 mutil eta 410 neska joaten ziren Donostiako zazpi eskoletako batera (Artola 2000: 225-226). Irakurketa ez zen, gainera, letraz letrakoa edo silabaz silabakoa, oso bestelakoa baizik (ikus Zalbide 1990: 219).

[37] Erritual kolektibo asko zeuden lehen: erlijioari lotuta zeudenak, lanari lotutakoak (bereziki kofradietan), aisialdian ere hor zeuden (erromeriak, etab.). Bizitza osoa igarotzen zen antzeko pertsonekin erritual kolektibo berdinak konpartituz, neurri handi batean.

emozionalak beste nonbait bilatzen dira orain, sarri askotan: pantailak eskaintzen dituzten taldeetan, komunitate birtualetan, etab. Gertuko gizartea, familia eta (betiko) lagunarte iraunkorra nabarmen ahuldu dira eta, horien ordainetan, Interneteko sare sozialen komunitateetan bilatzen dira sarri bizitzeko ezinbestekoak ditugun oinarri horiek. Hainbat arrazoirengatik bilatzen dira hor: tartean, biokimikoak diren arrazoiengatik (Joly 2022). Horregatik hartzen dute pantailek horrenbesteko indarra gizabanakoon bizitzan: gizarte-kohesiorik ez dagoen heinean, beste nonbait bilatzen da sostengua. Bestetara jo behar horrek esplikatzen du, Donostian ere, bai pantaila-kontsumo ohargarria eta bai azpikomunitate diferenteek ageri dituzten muturreko ikuspuntuak eta jarrerak.

Aldaketa psikosozial eta soziokultural horiei lotuta, hizkuntzen presentzia lehen baino isurkor-fluidoago bihurtzen ari da donostiar askoren eguneroko bizitzan. Adierazpideari dagokionez ere aldaketa nabarmenak ari dira gertatzen. Lehen, hasteko, ia soil-soilik ahozko hizkuntzaz (euskal mintzamolde jator-arruntaz) baliatzen ziren donostiar gehienak. Gizartea alfabetatuz joan den neurrian, berriz, irakurrizko jarduera areagotu egin da donostiar askoren baitan eta, bereziki, hainbat euskarri diferentetan irakurtzen da gaur: paperean, ordenagailuan, telefonoan. Hizkuntzazko estimuluak ere biderkatu egin dira gogotik: hizkuntza-estimulurik gabeko tarteak handiak ziren XVIII. mendean; gaur, aldiz, mugatuagoak dira. Donostiako autobusetan, esate baterako, hautazko berri jakinak idatziz erakusten dituzten telebistak daude orain. Telefono mugikorrekin eta Internetekin are gehiago mugatu dira hizkuntza-estimulurik gabeko tarteak. Modu horretan, zera azpimarratu behar da: XXI. mendean hizkuntzazko harremanak ugaritu egin dira, gaur egungo egoera askoz konplexuagoa da, hiztun mota gehiago dago, hizkuntza gehiago, harreman gehiago jende gehiagorekin eta, oro har, lehen baino mintzamolde eta idazmolde gehiago erabiltzen dira. LWCren nagusigoa frantsesetik ingelesera eskualdatu da. Donostiarren kopuru esanguratsu batek gero eta maizago kontsumitzen du hizkuntza hori, esate baterako, Interneten (ikus Iñarra eta Altuna liburu honetan). Hitz egiteko gaiak eta solaskideak ere nabarmen ugaritu dira.

Gorago ikusi dugunez, XVIII. mendean, oro har, harresi barrutik ("Donostiako kaletik") harresiz kanpora alde nabarmenak zeuden alor soziokultural eta ekonomikoetan. Hiria komertzioari lotuta bazegoen fermuki, harresiz kanpoko eremuak baserri-mundua zuen ardatz nagusia. Harresiz alde banatako diferentzia hori argi islatzen zen mintzajardunean (eta, hein batean, eremu bateko eta besteko euskal hiztunen hizkuntza-osaeran ere: baserritarrek jatorrago, hiztun garbiago; kaletarrek nahasiago). Joan dira kontu haiek, oro har. Joan dira behinolako hiztun (ia) elebakar gehienen mintzamolde bizi-piperdun trinkoak. Ez erabat, halere; aldeak hain nabarmenak ez badira ere, badirudi bereizbide zahar haren nolabaiteko oihartzun-errainuak bizirik dirauela, era mugatuagoan. Esate baterako,

Donostiako elizbarrutiari buruzko datu soziolinguistikoak jaso zituen 2006an E. Etxezarretak, eta, datu horien arabera, Donostiako elizkizunetan gaztelania nagusi zen; Antiguoko artzapez-barrutian, halere, ele bitan egiten ziren elizkizunak. Gorago ikusi dugunez, lan-sektoreei dagokienez ere aldeak daude Donostiako, Pasaiako eta Astigarragako herrien artean. Azkenik, baina ez azken, O. Altunak eta M. Iñarrak XXI. mendeko egoera soziolinguistikoa aurkeztu dutenean liburu honetan, desberdintasunak agerrarazi dituzte: hizkuntzaren erabilerari buruzko aldeen berri izateko, esate baterako, ikus 357. eta 358. orrialdeak. Ikus orobat Soziolinguistika Klusterra 2017: 19-20. Auzoen arteko aldeak aurrerago aipatuko ditugu, lan honetan bertan.

7.3.5. Gizarte-giroaren bilakaera: zenbait ondorio

Aztertu ditugun bi garaion (1761-1766 eta 2011-2016) arteko aldeak handiak dira, espero zitekeen moduan, gizarte-giroaren atalari dagokionez. Bi hitz nagusik laburbiltzen dute azken 250 urtean suertatu den bilakaera: oparotasuna eta aniztasuna.

Oparotasun hitzarekin zera adierazi nahi dugu: gizarte-giroaren atal guztietan kopuruak handitu egin direla nabarmen. Demografiari dagokionez, 10.000 biztanle bazeuden XVIII. mendearen bukaeran, gaur egun ia 200.000 daude Donostian, eta, geografikoki eremu handiagoa bazuen ere Donostiak, hiriko bizitza bereziki harresi barruan egiten zen; gaur egun, aldiz, harresiak desegin direnetik hirigunea asko zabaldu da. Hizkuntzazko harremanak ere biderkatu egin dira: lehen, harreman gehienak ahoz burutzen ziren (donostiar gehien-gehienentzat ahozkoa zen jardunbide bakarra), eguna joan eta eguna etorri gertuko jendearekin jardun ohi zen hizketan eta, nagusiki, gizarte-maila berean edo bertsuan zeuden pertsonak izan ohi ziren donostiar gehienen solaskide arrunt. Gaur egun, aski bestelakoa da egoera orokorra: irakurrizko eta idatzizko adierazpideek toki handia eskuratu dute, harremanak etengabe eratzen eta elikatzen dira, gizarte-maila diferenteko pertsonekin egiten dugu maiz hitzez edo idatziz, estilo-aldaera, gizalekto, eta laneko edo jakite-esparruko hizkuntza espezializatu gehiago eta bereziagoak erabiltzen ditugu halabeharrez. Darabiltzagun hizkuntzak ere ugarituz doaz, oro har. Donostiar euskaldun gehienok hizkuntza batekin baino gehiagorekin egiten dugu topo eguneroko jardunean: euskararekin, gaztelaniarekin, ingelesarekin, frantsesarekin, etab.

Orduko eta oraingo gizarte-giroari dagokion bigarren desberdintasun nabarmena honako hau da: bai bere osaera demografikoan, ekonoteknikoan, politiko-operatiboan, psikosozialean zein soziokulturalean, aniztasuna nabarmen hedatu da. Nahiz eta XVIII. mendearen garaiko gizartea piramidalagoa izan, homogeneoagoa zen alde askotatik; gaur egungo gizartea, aldiz, heterogeneoagoa

da. Heterogeneotasun honek konplexutasun handiagoa sortzen du, eta harremanak (hizkuntza-harremanak tartean) askotarikoak dira. Adibidez, hizkuntza-gaitasunari dagokionez, XVIII. mendeko Donostia bi talde nagusitan bana zitekeen: euskal elebakarrak batetik, era bateko edo besteko elebidunak bestetik. Erdal elebakarrak gutxi ziren, antza, aurreko bi taldeen ondoan. Erabat aldatu dira gauza horiek, 250 urteotan: donostiar guztiok batera harturik, jaun eta jabe da gaztelania gaur egun, H-esparruan ez ezik erdararen L-esparruan ere. Gaztelaniaren goraldi eta zabalkunde ia erabateko horrezaz gainera, hiztun- edo idatz-talde diferenteak hartu behar dira, dena den, kontuan: euskaldunei dagokienez, hor daude erdaraz baino euskaraz hobeto moldatzen direnak (edadean aurrera doaz horrelako gehienak); ahozko edo idatzizko trebetasunei dagokienez, bietara ondo moldatzen diren donostiarrak (azken hamarkadotako alfabetatze-saioei eta euskal eskolari esker bereziki euskaldun alfabetatu "orekatu"tzat hartu ohi ditugunak); ustez, gero eta multzo zabalagoa osatzen duten erdal-elebidunak eta, nola ez, donostiar guztien artean orain ere multzo ohargarria (baina beheranzkoa) osatzen duten erdaldun elebakarrak. Horiei guztiei, jakina, erdaldun eta euskaldun eleaniztunak erantsi behar zaizkie.

Hizkuntzen barne-osaerazko erabilerarekin ere antzeko fenomenoa gertatzen ari da Donostian, azken urteotan. Erdarazko jarduera arras normalduaren ondoan, kode-nahasteak eta interferentzia-fenomenoak gertatzen dira sarri donostiar askoren ezpain-lumetan: askotan zaila da jendeak nagusiki zein hizkuntza erabiltzen ari den zehaztea. Nahas-giro hori, bakarra izan gabe ere, euskaraz egiten dutenen artean ageri ohi da bereziki. Eta, horrezaz guztiaz gainera, batera zein bestera dakiten donostiarrek (batez ere 50 bat urtetik beherakoek) erabilera diferenteak egiten dituzte: eremu batzuetan eta solaskide batzuekin euskaraz, beste batzuetan edo beste batzuekin gaztelaniaz, bitartekari digitalen kontsumoa nagusiki gaztelaniaz eta ingelesez. Ordoñezi eta hainbat zehar-datu esanguratsuri kasu egin behar badiegu, aldiz, bestela ziren kontuak XVIII. mendeko Donostian: eguneroko mintzajardun arruntean euskaraz egiten zen nagusiki (harresitik kanpora zeuden landaguneetan ia erabat), eta hizkuntzen ezagutzan eta erabileran ez zen hainbesteko mailaketa-aukera diferente antzematen.

7.4. MINTZAJARDUNAREN ETA IDAZJARDUNAREN BILAKAERA, 1761-1766TIK 2011-2016RA. TAULA BIDEZKO SINTESI-LANA

Donostiako biztanleen XVIII. mendearen erdialde beranteko mintzajardunaren zer-nolakoa zehazteko, iturri zuzen gutxi dugu eskueran. Hizkuntzen erabilerari buruzko kale-neurketarik edo antzeko kontraste-lan zuzenik ez zen orduan egiten eta orain ezin egin liteke, jakina. Orduko mintzajardun eta idazjarduna-

ren joera nagusiak baino ezin dira zehaztu, horregatik, kasu askotan. Eguneroko hizkuntza-erabilera nagusiak hiztunen gaitasunetik eratortzea bide egokia izan ohi da, bestelako datu handiegirik ez dagoenean. Eskola askorik ez zenean eta bizialdian zehar esparru formaleko prestakuntza pertsonal handirik garatu behar ez zenean, hizkuntza berriak edo beste gaitasun batzuk ikasiz, hiztunen hizkuntza-gaitasuna beren eguneroko mintzajardunaren ispilu izan ohi zen sarri. Eguneroko edo (mugatuago) aldian behingo erabileraren arabera moldatzen eta garatzen zituen hiztunak bere gaitasun-ahalmen soziolinguistikoak. Inplikazio betea nabarmenagoa da elebakarren kasuan: euskal elebakarrek nekez erabil zezaketen euskaraz besteko hizkuntzarik. Horrek ez du esan nahi, halere, beste hizkuntza horiekin harremanetan ez zeudenik. Elizkizunetan, horrela, gaztelania eta latina sarri entzuten zituzten eta, seguruenik, erdizka-edo ulertzen zituzten edo zer esaten zuten garbi ez zekiten esaldiak errepikatzen zituzten, liturgiak hala eskatzen zuenez. Erlijioaren eremutik kanpora, eskribau-jendearekiko harremanetan adibidez, badirudi gaztelaniaz idatzitakoa hizkuntza horretan irakurri ohi zietela eskribauek eta, ondoren, euskarazko azalpena (osoa edo laburtua) eskaintzen zietela hainbat kasutan (ikus Madariaga liburu honetan eta Madariaga 2014). Hortaz, haien inguruan beste hizkuntza batzuk bazeuden ere, eskueran ditugun argibideen arabera, eguneroko mintzajardun arrunta euskaraz burutzen zuten donostiar elebakarrek, erabat edo ia osorik. Hizkuntzaren eguneroko erabilerari dagokionez, hizkuntza bakarra euskara zen haietariko gehienentzat.

Beste aldetik, etxetik eta haurtzaroko harreman-girotik hiztun elebakarra izandako hainbat donostiar elebidun bihurtzen zen gero. Une batetik aurrera, hainbat kasutan, eskola (zer esanik ez unibertsitate) bidez, lanbidez (itsasoko edo lehorreko harreman-tratuz, lan-zerbitzuz edo administrazio-agintearekiko loturaz...) bigarren hizkuntzarekin (normalean gaztelaniarekin, inoiz frantsesarekin edo Atlantiko aldeko hizkuntza germanikoren batekin) harremanetan sartzen zen: harreman bizian edo axalekoan, esposizio-moduaren eta bere iraupenaren arabera. Hala gertatzen zen, adibidez, Donostiako baserri-giroko neskame euskaldun (bere etxetik eta lagunartetik maiz euskaldun elebakar) bat zerbitzatzera Donostiako kalera etorri, etxean erabat edo nagusiki gaztelaniaz egiten zuen jauntxo-familia baten zerbitzuan sartu eta luzaro han jarduten zuenean, edota mutil gazte euskaldun elebakarra edo euskal elebiduna marinetara joaten zenean, Indietara edo urrutiko lekuetara bidean. Horrelako elebiduntze prozeduren lekukotasun anitz jaso litezke kostaldeko herrietan, tartean Donostian. Interesgarria da, horrelakoetan, zubi-hizkuntza nola hautatzen zen ikustea: zenbait merkatari kanpotarrek, haien seme-alabek bereziki, euskaraz ikasten zuten neskameekin edo haientzat lan egiten zuten langileekin? Seme-alabei dagokienez, kaleko L-eremuan euskara nagusi (edo bizi-indar handikoa) zen kasuetan euskaraz ikasten zuten neska-mutil haiek. Gizarte-eskalaren goiko partean zegoen pertsonak

behe-mailan zegoen hainbat solaskideren hizkuntza (zerbait) ikastea oso adierazgarria da, euskarak kale-giroan ere zuen bizitasun-indarraz jabetzeko. Euskararen L-eremuko nagusitasuna ez da, gehienetan, gure artean behar bezala baloratu. Hori harresi barruan eta erdi-edo goi-mailako gizarte-geruzetan. Behe-mailako (batez ere harresiz kanpoko) donostiar askok, berriz, ez zuen beste hizkuntzarik erabiltzeko beharrik, elizatik eta (jasotzaile gisa sarrien) goi-eremuetatik kanpora. Ez zuen beharrik eta, horrenbestez, ez zuen ikasten.

Mantso-mantso izan arren, nagusitasun-moldaera hori aldatuz joan zen, ordea, jakina denez, L-eremuan. Gaztelaniaren presentzia indartuz joan zen Donostian, kale-giroan lehenik eta kanpoko auzoetan gero, justu datatzen zaila den une batetik aurrera. Indartze eta nagusitze hori areagotu egin zen gero, belaunez belauneko perspektiban. Gaztelaniaren L-eremuko zabalkuntza hori *language spread* moduan abiatu zen, itxura osoz, hasieran. Erdara zabaldu egin zen (kale-giroan eta merkataritzari lotutako hainbat lan-esparrutan eta, seguruenik, esparru horiei lotuenik zeuden herritarren artean). Erdararen zabalkunde-*spread* horrek ez zuen, lehenengo fase hartan, euskarak L-eremuan zuen nagusitasun-moldaera kolokan jarri. Argi zehazturik ez dagoen baina aski antzinakoa izan litekeen une batetik aurrera, dena den, espazio soziofuntzionalaren luze-zabaleko konpartimentazio egonkorra (ohiko diglosia) pitzatzen hasi zen Donostian, jardungune, harreman-sare, rol-harreman eta adierazpide jakinetan euskaratik erdararanzko jauzi mugatua indartuz, baina konpartimentazioari oro har bere hartan eutsiz. Egoera berezi-zehatzetan (nagusi erdaldun elebakarren eta langile euskaldunen arteko elkarrizketa erdaraz burutzen hastean, adibidez), hizkuntza-hautua ezinbesteko eginbeharra bihurtzen hasi zen. Azkenik, zenbait belaunaldiren buruan (itxuraz 1870eko hamarkadatik ez oso urrun), kalera lehenik eta harresiz kanpora nabarmen beranduago, iritsia da Donostiara *language shift* edo luze-zabaleko mintzaldaketa. Erdara (ia beti gaztelania) bertako hizkuntzaren jardungune ohikoenez, eguneroko mintzamoldearen kokagune ohikoenez, nagusitzen hasi zen luze-zabal, euskarak ordura arte bere-bereak izandako mintza-esparruak bereganatuz. *Language shift* prozesua dela medio, azkenik, Donostiako euskaldunen belaunez belauneko jarraipena ziurtatzen zuten jardunguneak, harreman-sareak eta rol-harremanak ahulduz eta galduz joan ziren. Azkenean, XX. mendearen erdialdean edo, euskararen azken gotorlekuak (etxea eta lagunarte hurbila) erdararen mendeko bihurtuz joan dira, ordura arte euskaldun garbienak izandako auzoetan ere.

Donostiarren unean uneko mintzajarduna eta idazjarduna azalpen grafikoz eman nahi izan dira, artikulu honetan. Nagusitasun-moldaera hori grafiko bidez aurkezteko, nagusitasun-moldaerazko taulak[38] eraiki ditugu. Joshua Fishman-ek

[38] Kontuan izan, gorago azaldu dugunez, gauza bi direla Uriel Weinreich-en jatorrizko nagusitasun-moldaera eta Fishman-en gerokoa. Hiztun elebidunaren baitan hizkuntza bik (edo gehiagok) duten indar eta erraztasun erlatiboan, interferentziarik gabeko edo interferentzia eskaseko osotasun linguistikoan eta abarretan oinarritzen da Weinreich-en eredua. Fishman-ena, berriz, hizkuntza bik (edo gehiagok) espazio territorialean edota soziofuntzionalean ageri dituzten erabilera-maila desberdinetan.

Yiddish hizkuntzarako sortuak dira, jatorriz, taula horiek. Euskararen historia soziolinguistikoa argitzeko egokitu eta, hein batez, aberastu egin ditugu guk.

Liburu honen aurreko atalburuetan, Koldo Larrañagak eta Juan Madariagak hainbat datu eman digute XVIII. mendeko egoera soziolinguistikoari buruz. XXI. mendeari dagokionez, bestalde, Maialen Iñarrak eta Olatz Altunak hainbat informazio baliagarri bildu eta ordenatu dute. Autore horiek guztiek azaldu dituzten datuak eta EHSek zehaztutako beste hainbat informazio erabili ditugu, Donostiako garaian garaiko egoera soziolinguistikoa nagusitasun-moldaerazko taulen bidez zehazteko eta garai batetik bestera ageri den bilakaera argiago identifikatzeko. Donostiako aldian aldiko nagusitasun-moldaerazko taulak eskainiko ditugu, beraz, ondoren.

7.4.1. XVIII. mendearen erdialde beranteko mintzajarduna eta idazjarduna (1761-1766 ainguragune). Nagusitasun-moldaerazko taulak prestatzeko erabili dugun zenbait irizpide

Bi esparru geografiko nagusi zehaztu ditugu, XVIII. mendeko egoera soziolinguistikoaren ezaugarri nagusiak kontuan harturik, hizkuntza-erabilera nagusiak zehazteko: 1) harresiz kanpoko landa-eremua; 2) hiribildua: harresi barruko "kalea".

Hizkuntzen erabilerari eta hiztunen hizkuntza-gaitasunari dagokienez, bi gune horien artean banatu izan dira luzaro, XVIII. mendean, Donostiako mintzajardun eta idazjardunaren joera nagusiak. Donostian XVIII. mendean egiten ziren hizkuntza-erabilera bereziak zehatzago ezagutu nahi baditugu, aipatutako dikotomiaz gain gune geografiko bakoitzean zeuden hiztun-mota diferenteak zehaztu eta aztertu beharko dira. Mikel Zalbideren hasierako artikuluan eta Juan Madariagaren lanean argi ageri den moduan, gune bateko edo besteko erabilera orokorrez hitz egitea zaila da. Era horretako galbaherik gabeko deskribapenak ez luke Donostiako lur-esparru bakoitzaren XVIII. mendeko egoera soziolinguistikoa nahi bezain egoki islatuko. Gorago aipatu dugunez, gizarte hierarkizatua zen XVIII. mendeko hura, eta gizatalde batzuek aski harreman mugatuak zituzten besteekin, nahiz eta leku berean edo alboan bizi. Merkatari handiak eta Donostian (luze samar eta etengabe) finkaturiko kanpotarrak, esate baterako, beraien arteko solaskidetza-zirkuluetan mugitzen ziren sarri. Zirkulu horietatik kanpora, harreman mugatuak zituzten bertako hiritar elebidun edo euskal elebakarrekin. Orobat soldadu askok: haiek ere harreman mugatuak zituzten bertako herritarrekin eta,

aldi berean, ohiko beren hizkuntzan hitz egingo zuten beraien artean, gaztelau-hiztunak baziren gaztelaniaz[39], frantsesak baziren frantsesez[40].

Horrezaz gainera, giza arteko harremanak ez ziren maiz gaur egungo moduan bideratzen eta, hori dela medio, elkar-ulertzen ez zuten taldeak harremanetan egon zitezkeen. Horren adibide ederra emanik digu Juan Madariaga Orbeak, 1767 eta 1770 artean burutu zen epaiketa deskribatzean (ikus hemen: 217-219). Bere nagusien hizkuntza apenas ulertzen zuen neskame bat izatea posible zen. Egoera posiblea eta, antza, zenbait ingurunetan aski arrunta. Denboraren poderioz, neskame horiek nagusien hizkuntza ikasten zuten eta, zenbait kasutan, ondoren hizkuntza hori irakasten zieten haien seme-alabei, gizarte-eskalan igotzeko aukera izan zezaten edo bestelako asimilazio-asmoren bat izanik oinarri. Gizarte-geruzen artean alde nabarmenak zeuden hizkuntza-erabilerei dagokienez, baita "bertako eta betiko" donostiar jauntxoen artean ere.

Udal-barrutiaren landaguneko (eta bizitzera edo tratuan egitera Gipuzkoatik Donostiako kalera etorritako) euskaldun elebakarren kopurua proportzioz aski handia izanik, haiekin jardun nahi zutenek euskaraz egin behar izaten zuten maiz: euskaraz egiten zuten beraiek, zuzenean, edota itzulpen-bitartekari batez baliatu ohi ziren. Bitartekariak baliagarri ziren, esate baterako, kanpoko merkatariek bertako euskal elebakarrekin harremanetan jarduteko. Harreman horiek mugatuak izaten ziren oro har, hedaduraz eta iraupenez. Bitartekari-lana egiten zuena gazte bat izan zitekeen, erdara modu batean edo bestean ulertzen zuena eta erdaldun elebakarrak edo kanpotarrak esandakoa euskaldun elebakar (maiz bera baino zaharragoko) bati itzultzen ziona. Badakigu, dena den, euskal mintza-esparru zabalean apaiz edo eskolatu bat izan ohi zela askotan itzultzaile: pentsatzekoa da hemen ere sarri baliatuko zirela horien laguntzaz. Badirudi, azkenik, XVIII. mendearen erdialde beranteko erdaldun huts gehienak kanpotarrak zirela, ez Donostian jaioak edota umetan Donostiara etorritakoak.

Gatozen, horrenbestez, nagusitasun-moldaerazko tauletara. Lehen hurbilpen moduan izango bada ere, Donostiako mintzajarduna eta idazjarduna aztertzean bi gune nagusi zehatz daitezke: harresi barrua ("kalea") eta kanpoaldeko landagunea. Zatibitze nagusia hori izanik ere, atal bakoitzean azpiatalak zehaztu behar dira. Eskuragarri izan ditugun datuak kontuan harturik, ondoko taulan ageri diren multzook zehaztea dirudi oraingoz itxurazkoen:

---

39 Donostian gailegoz edo katalanez mintzo ziren soldaduen berririk ez dugu, oker ez bagaude.

40 Gaskoiaren mintza-esparrukoak baldin baziren, agian gaskoi-hizkuntzaz.

1. Taula: **Hizkuntza-erabilera nagusiak Donostian, XVIII. mendearen erdialde berantean, hainbat aldagai/ezaugarriren arabera**

Hiribildua	Harresiz kanpoko gunea
- Beheko (eta erdiko?) gizarte-mailak: elebakarrak edo, maizenik, euskal elebidunak - Goi-mailako gizarte-mailak: elebidunak eta eleaniztunak, sarri emakumezkoak: euskal elebidunak - Kanpotarrak: 1) urruneko merkatariak, 2) soldaduak, 3) behe-mailakoak – bitartekari-lana egiten dute zenbait kasutan, izan ere gertuko eremukoak izan daitezke kanpotar horiek[41], 4) goi-mailako administraziokoak - Bestelako hiztunak: gaskoi-erdaldunak, erromintxelaz ari zirenak (oso gutxi)...	- Baserritar arruntak: maizenik elebakarrak - Baserritar aberatsak, (euskal) elebidunak

Aurrerago ikusiko dugunez, XXI. mendea aztertzeko garaian, askoz zailagoa da (ia) populazio osoa hartuko duen eskema trinkoa eta sinplea zehaztea. Askoz heterogeneoagoa da oraingo egoera, eta XVIII. menderako zehaztu ditugun talde eta berezitasun argiak ez dira XXI. mendean ia inon ageri.

XVIII. mendearen erdialde hartan itxuraz nahiko definiturik zeuden eremu eta muga geografikoak eta gizatalde hierarkizatu haiek desagertuz joan dira, eta berriak sortzen. Argiago esanik, hiztun-taldeen arteko muga horiek gesalduz joan dira eta gaur egun askoz zailagoa da talde finko, zehatz eta argi bereizirik zehaztea. Aurreko mendeetan hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntza-erabilera, neurri handi batez, gizarte-ezaugarri jakin batzuekin loturik zeuden. Aitzitik, XXI. mendean lotura horiek ahuldu edo, hainbat kasutan, desagertu egin dira. Bi garaiak era kuantitatibo hutsean konparatzea oso zaila da, horregatik. XXI. mendearen hasierako ingurumari honetan, bereizketak hizkuntza-gaitasunaren arabera zehaztea errazagoa da Donostian, aldagai sozialak kontuan hartu gabe edo bigarren maila batean utziz. Joera nagusiei dagokienez, berriz, laster ikusiko dugun moduan,

[41] Garai zaharragoak aztertzean, ondoko oharra egiten du I. Irixoak (2012: 21): "Lehenago atzerritar kontzeptuari buruzko ohar bat egin nahi dugu. Jakina da garai horretan hitz horren azpian hainbat lekutako pertsonei aipamena egiten zitzaiela; zehazki, erreinu edo entitate politiko ezberdinetan bizi zirenei. Gipuzkoa Gaztelako Koroaren zati zen, baina monarkia honetan sartuak zeuden beste erreinuetako herritarrak atzerritarrak ziren, hau da, galiziarrak, asturiarrak, gaztelarrak, besteak beste. Era berean, nafarrek maila hori zuten, eta baita Iparraldekoek ere. Azken bi hauekin mendeetan zehar garatutako harreman sakonek beste ikerketa bat mereziko lukete eta gertuko biztanleak direnez, alde batera utziko ditugu.". Dagoeneko ikusi ahal izan dugun moduan, Iparraldeko eta Nafarroako hainbat "atzerritarrek" euskaraz jakinda erraztasun nabarmenak zituzten integratzeko Donostiako XVIII. mendeko gizartean.

zera esan daiteke: orain ez bezala, eguneroko mintzamolde arruntari dagokionez espazio geoterritorial oso bat bere mende zeukan euskarak XVIII. mendearen erdialde berantean, harresiz kanpoko landa-eremua, baserri-girokoa. Hiribilduan, bestalde, ondotxoz nahasiago zeuden kontuak, baina hor ere nagusitasun nabarmena zeukan euskarak diglosiazko L-eremuko espazio soziofuntzional askotan.

Esan berri dugunez, Donostiako XVIII. mendeko espazio soziofuntzionalen arteko banaketa, hizkuntzen erabilerari dagokionez, diglosia klasikoarena da nagusiki: berdina edo aski antzekoa. Harresi barruan eta harresitik kanpora diglosia diferentea (konpartimentazio zehatzari dagokionez), baina indar bizia zuena batean zein bestean. Eremu gehienetan jaun eta jabe zen euskara, eguneroko mintzamolde arruntarekin lotutako jardunguneetan (etxean eta familiartean, auzoan eta hurbileko lanean). Aldiz, H-esparrutik hurbilago zeuden edo bete-betean H-esparrukoak ziren beste jardungune, harreman-sare eta rol-harreman batzuetan (eta, oso bereziki, irakur-idatzizko adierazpidea eskatzen zutenetan) erdara zen nagusi, hainbat kasutan jaun eta jabe. Presentzia mugatua eta oso mendekoa izanik ere, H-esparruan ere bazuen euskarak, eta gorabidean zihoan, antza, "bere lekua": ohargarria zen hori erlijioaren eremuan eta, antza denez, baserritar neska-mutilentzako eskolatzean (ikus, Ordoñezen ildotik, San Frantzisko komentuko euskal eskolaz gorago esana). Oro har, dena den, emaitza argia zen oso H-esparruko jardunbide gehienetan: espresuki baztertuta edo "antigoaleko ohiturak bermaturik" alde batera utzia zegoen euskara H-esparruko jardungune horietatik (agintaritza eta administrazioaren esparruan, goi-mailako instantzietan, goi-mailako ikasketetan eta ikasketa ertainetan, idatzizko adierazpideetan oro har[42]).

Diglosia-egoera horrek argi-itzal jakinak izan ditu, gure artean ere. Joera handia izan dugu euskaltzaleok, soziolinguistikan aditu gehienek barne, diglosiaren alde ezkorrak bakarrik ikusteko eta azpimarratzeko. Oker jardun dugu horretan. Bere eragozpen-mugak, garapen beterako behaztopa-harri eta muga guztien ondoan, bazuen diglosia hark (beste hainbat hiztun-herri ahulduetan bezala) onura handia: euskararen belaunez belauneko iraupen bizia ziurtatzen zuen. Egungo egunean ez dute euskal eskolak eta euskal komunikabideek, euskal liburugintzak eta euskararen administrazioko sarbideak, hizkuntza-eredu bateratuak eta hainbat dirulaguntzak, halakorik segurtatzen. Oinarri horren funtsezko izaeraz berandu arte jabetu ez izana euskaltzaleon, tartean donostiarron, hutsarte txikiena ez da.

---

[42] Salbuespenak oso interesgarriak izan badaitezke ere: zenbait gutunetan hitz batzuk euskaraz agertzea (ikus hemen Koldo Larrañaga Elorzak aipatzen dituen adibideak 17., 18. eta 19. oin-oharrak, esate baterako-), gutun batzuk euskaraz osorik izatea (ikus Jose Manuel Zalduaren eta Maria Josefa Agirreren arteko gutun-trukea 1761 inguruan, ikus hemen Juan Madariaga Orbearen artikuluaren 156. or. eta hurrengoak), etab. Baina horiek salbuespenak dira. Administrazioaren esparruan euskararen presentzia idatzirik ez dago (hitz solte batzuk baino ez), baina eskribauek elebakarren lekukotasunak, testamentuak, etab. euskaraz jasotzen zituzten, bistan denez, eta erdarara itzultzen zituzten idatzizko adierazpidera pasatzeko.

Orain ari gara konturatzen, ama-hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena (diglosiak Gipuzkoan, adibidez, mende luzez segurtatu izan duena) zein altxor preziatua den hizkuntza bizirik aterako bada egungo kinka larritik. Ama-hizkuntzaren transmisio-iturri eta bizialdi osoko euskaltasun praktikoaren harrobi izan (ohi) diren jardunguneak (etxea eta auzoa, familia eta lagunarte hurbila) euskararekin lotuta zeuden nabarmen, Donostia gehienean, 1761-1766 hartan: hala ziren kontuak kanpotar ez zirenen donostiar gehienentzat eta (aje, herren edo eskasia nabarmenekin ere) hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa zekarren konpartimentazio soziofuntzional hark besapean.

Gatozen, besterik gabe, nagusitasun-moldaerazko tauletara. Ikus ditzagun, era grafikoan emanik, XVIII. mendearen erdialdeko hiztun-mota diferenteen erabilera nagusiak beren jardungune ohikoenen arabera. Donostiako XVIII. mendearen erdialdeko lau hiztun-talde nagusi bereiziz, nagusitasun-moldaerazko lau taula prestatu ditugu:

1. 1761eko A-hiztunak: harresiz kanpoko euskaldun elebakarrak eta euskal elebidun itxiak
2. 1761eko B-hiztunak: harresi barruko euskal elebakarrak eta euskal elebidunak
3. 1761eko C-hiztunak: harresi barruko erdal elebidunak
4. 1761eko D-hiztunak: harresi barruko erdaldun elebakarrak (gaztelau edo alofono)

Lehenengo taldea harresitik kanpora bizi zen, eta, oker ez bagaude, bera zen Donostian, kopuruz, hiztun-talderik handiena. Beste hirurak harresi barruan bizi ziren. Ondoko taulan laburtu dira haien ezaugarri soziolinguistikoak[43].

[43] Taula honetan emango diren demolinguistikazko datuak estimazio hutsak dira ezinbestean. Orduko biztanle- eta, bereziki, hiztun-kopuru zehatzen segurtasunik ez dago. Kopuruak aldatuz joan dira denboraren harian, batetik, eta, bestetik, aldiune jakin-konkretuetarako ere ez dago kopuru-banaketa soziolinguistiko zehatzik. Orduko (eta geroko) autoreek diotena kontuan hartuz, zenbait ikertzailek egindako estimazioak dira datuon iturburu. Hurbilketa-saioz ateratako lehen estimazioak dira, hortaz; ez, inola ere, zenbaki zehatz garbiak. Gutxi gorabeherako estimazioak direla jakinik ere, uste izatekoa da orduko egoera soziolinguistikotik ez direla hain urruti ibiliko.

1.grafikoa: **XVIII. mendearen erdialde beranteko hiztun-taldeak Donostian, era grafikoan:** hiztun-talde bakoitzaren gutxi gorabeherako ehuneko probablea



Iturria: egileek moldatua

Honen arabera,

a. Donostiar gehienak (gutxi gorabehera % 46) A-hiztunak ziren: harresiz kanpoko euskal elebakarrak eta euskal elebidun itxiak ziren horiek.

b. Horien ondoren, kopuru aldetik, B-hiztunak datoz: harresi barruko euskal elebakarrak eta euskal elebidunak (% 28 inguru).

c. C-hiztunak etorriko lirateke gero: harresi barruko erdal elebidunak (gutxi gorabehera % 20).

d. Azkenik, D-hiztunak genituzke: (ia beti) harresi barruko erdaldun elebakarrak (gaztelau edo alofono).

Kopuru-zehaztapen tentatiboa da hau, esan bezala: eskueran ditugun datuak gurutzatuz, ustez egiantz handieneko kopuru-banaketa posiblea. Bere balioa arras mugatua da, hortaz: multzo bakoitzaren kopuru zehatzak ezer gutxirako balio du, bere huts-hotzean. Balorazio erlatiborako, aldiz, lagungarri sendoa izan liteke. Hiztun-kopuruek eta beraien dentsitateak hizkuntza-soziologiaren baitan duten lekua kontuan izanik, lehen hurbilketa moduan aintzakotzat hartzekoak dira. Gainerakoan nekez esplika litezkeen pisu-azalpen erlatiboak argitzeko lagungarri gerta litekeen neurrian, bere eginkizuna beterik luke ehunekoen azalpen grafikoak.

Goazen aurrera. Ikus dezagun banan-banan, hiztun-mota bakoitzaren eguneroko mintzajarduna. Donostiako XVIII. mendearen erdialde beranteko ikuspegi soziolinguistiko zehatz samarra eskura dezakegu horrela, hoberik ezean (eta oraingoz, dakigula, ez dago ez hoberik eta ez parekorik) hizkuntzen erabilerei dagokienez. Deskribapen horiek egiteko, honela erabili ditugu nagusitasun-moldaerazko taulak: alde batetik, adierazpidea ageri da (entzun, hitz egin, irakurri, idatzi) eta, bestetik, jardungune diferenteak (etxea eta familia, lagunartea, hezkuntza, eliza, etab.). Koloreak, bistan da, hizkuntzen jardungune bakoitzeko eta adierazpide bakoitzeko erabilera-maiztasun erlatiboa adierazten du. Ondoko taulan, horrela, berdez datozenetan euskarazko erabilera da nagusi; urdinez datozenetan, aldiz, erdarazkoa. Oraingoz nagusitasun argirik gabeko egoerak, azkenik, horiz eman dira. Berdeetan eta urdinetan ere, intentsitate bereziko gradazioak egin dira: behean datoz gradazio horien esplikazioak. Hona, hori guztia kontuan izanik, Donostiako 1761 inguruko hizkuntzen nagusitasun-moldaerazko taulen egitura:

2. Taula: **Hizkuntzen nagusitasun-moldaerazko taula**

Jarduera		Jardunguneak												
		1	2	3	4	5	6		7		8	9	10	
		Etxea + familia	Lagunartea	Herri - giroa	Aisia + kirola	Lantokia	Salerosketa		Eliza		Adm + agint	Info - hedap	Hezkuntza formala	
							Euskald	Erdald	Liturgia	Konfes Otoitz			Eskola	Ertaina + Uniberts
A	Entzun													
B	Hitz egin													
C	Beretzat irakurri													
D	Boz gora irakurri													
E	Idatzi													

Nagusitasun osoa
Nagusitasun argia baina ez osoa
Nagusitasun apala
Bietara, euskeraz eta erdaraz
Nagusitasun apaala
Nagusitasun argia baina ez osoa

Zenbait laburdura

b: bakan

o b : oso bakan

(itz): zenbait kasutan itzuliz

(berts): zenbaitetan bertso bidez

erd: erdara (gazt + alofono)

alo: gaztelaniaz aparteko erdara

Iturria: egileek moldatua

7.4.1.1. 1761eko A-hiztunak: harresiz kanpoko euskaldun elebakarrak eta euskal elebidun itxiak[44]

Harresiz kanpoko euskaldun elebakarren eta euskal elebidun itxien eguneroko mintzajarduera nagusiak ageri dira beheko taulan. Jasotako datuak oso okerrak ez badira, harresiz kanpoko donostiar gehien-gehienak talde honetakoak ziren eta, beraz, taula honetan ageri den deskribapenaren arabera euskaraz ziharduten beren artean, eta kaleko euskaldunekin, hitzezko jardun arruntean.

[44] Funtsezko oharra egin behar da hemen: Donostiako harresitik kanpora egon arren, Pasaia (Pasai San Pedro) nekez izango zen, orduan ere, landagune. Auzo-herri hori alde batera utzitako azalpena da, beraz, ondokoa.

3. Taula: **Hizkuntzen nagusitasun-moldaerazko taula. 1761eko A-hiztunak**

1761eko A-hiztunak: harresiz kanpoko euskal elebakarrak eta euskal elebidun itxiak

Lehen hurbilketa-saioa: kanpoko 4.700 biztanleen % 90 inguru (4.200 ggb) elebakar dira, eta beste % 10 (500 ggb) euskal-elebin itxi.

Biztanleok Donostiaren gerri-bueltan bizi dira, bertako 900 edo 1.000 baserrietan, Lnabidez nekazari, abeltzain, baso-langile, garraiolari eta era askotako artisau:arotz,

Jarduera		Jardunguneak											
		1	2	3	4	5	6		7		8	9	10	
							Salerosketa		Eliza				Hezkuntza formala	
		Etxea + familia	Lagunartea	Herri-giroa	Lantokia	Aisia + kirola	Euskald	Erdald	Liturgia	Serm konfes otoitz kantu	Adm - agint	Info - hedap	Eskola	Ertaina Uniberts
A	Entzun	eus	eus	eus	eus	eus	eus	eus (itz)	erd + eus?	eus	eus (itz) (erd)	eus (itz)	eus + gazt gazt	o b erd
B	Hitz egin	eus	eus	eus	eus	eus	eus	eus (itz)	erd +eusk?	eus	eus eus (itz) (erd)	eus eus (itz)	eus + gazt gazt	o b erd
C	Beretzat irakurri	gazt, b eus	gazt, b eus									eus (berts)	eus + gazt gazt	o b erd
D	Boz gora irakurri	gazt, b eus										eus (berts)	eus + gazt gazt	o b erd
E	Idatzi	gazt, b eus	gazt, b eus									eus (berts)	eus + gazt gazt	o b erd

Nagusitasun osoa | Nagusitasun argia baina ez osoa | Nagusitasun apala | Bietara, euskeraz eta erdaraz | Nagusitasun apala | Nagusitasun argia baina ez osoa | Nagusitasun osoa

Iturria: egileek moldatua

Donostiar asko bizi zen, XVIII. mendearen garai-inguru hartan, harresitik ("Donostiako kaletik") kanpora. 1.000 baserri inguru zituen landagune zabal horrek. Donostiako biztanle guztien (ia) erdia baserri-gune horretan bizi zen. Lanbidez nekazari, abeltzain, baso-langile, garraiolari (itsasoz edo lehorrez), marinel edota artisau ziren ia gehien-gehienak. Harresiz kanpoko biztanleria zabal hori euskaldun elebakarrez (gutxi gora behera % 90, 4.200 biztanle inguru) edota euskal elebidun itxiez (gutxi gora behera % 10, 500 biztanle inguru) osaturik zegoen.

Aldian-aldian (maiztasuna ez dago kopuru zehatzez zehazterik), hiribilduko (tartean goi-mailako) hainbat donostiar harresiz kanpoko landagunera etorriko zen. Arrazoiak bat baino gehiago ziratekeen seguru asko: esate baterako, uda-parte beroena han (beren jabetzapeko baserri-jauregiren batean) igarotzea. Pertsona horiek harresi barruko biztanle askok baino hobeto zekiketen euskaraz: bai mintzaeraz eta bai, bereziki, bertako euskaldunen (ia) euskara hutsezko jarduna erraz eta argi ulertzeari dagokionez. Era berean, baina alderantziz, harresiz kanpoko hainbat donostiar hiribildura joaten zen: Plaza Berrian tratuan egiten zuten baserri gehienetako etxekoandre edota neskameek, ia egunero. Ordoñezi ulertzen zaionaren argitan, badirudi emakumezko baserritar horien mintzoa, are harresi barruko erosleekin zihardutenean tratuan, euskarazkoa zela nagusiki. Hori bakarrik ez: harresiz kanpoko hainbat donostiarrek harresi barruan egiten zituzten egonaldi luzeagoak ere. Sail horretan ditugu, esate baterako, harresiz kanpoko zenbait lur-jabe aberats edota, hiribilduko merkatalgoa indar betean zelarik, gehigarrizko giza baliabideak behar eta baliabide horiek baserri-girotik eskuratzen zirenean. Nekazari-lana (aldi batez edo luzaro) alde batera utzi, eta portuko edo gordailu-biltegietako karga-deskarga lanetan aritzera baserritar (gazte) askotxo etorriko zen halakoetan, ordainsari (hobe)aren truke.

Laburbilduz: gorabehera eta aldakortasun-iturri horiek guztiak kontuan izanik ere, irudian ageri denez, euskara zatekeen harresiz kanpoko donostiarren hizkuntza nagusia, eguneroko mintzajardun arruntari dagokionez, kopuruz, haurtzaroko eskuratze-bide naturalaz eta gazte- zein heldu-aroko dibertsifikazio estilistikoz hizkuntza nagusia eta, are, hegemonikoa. Zenbait lekukoren argitan (Larramendi oro har, Ordoñez preseski), euskararen nagusitasun hori nabarmena zen, oso, Donostiako kale-girotik kanpora. Halaz guztiz ere, donostiar horien L-esparruko jardun arruntean nagusitasun zabala izan arren euskarak, eta haietariko asko (itxuraz gehienak) elebakar edo euskal elebidun itxi izanik ere, erdara ere "bertan" zuten haietariko hainbatek: "bertan" eta, hein batez, "bere". Galdera zorrotza datorkigu berehala burura: nola liteke donostiar horietariko asko elebakar edo euskal elebidun zorrotz izan, eta, halere, beraien (edo beren aldamen-aldamenekoen) ohiko bizimoduan erdal hizkuntzak (edo hizkuntzek, frantsesa tarteko?) presentzia ukaezina izatea? Oraingoz ez dugu erantzun beterik galdera horrentzat. Hipotesi batzuk beti dira, jakina, tentagarri: goiko banaketa soziofuntzional hori dela me-

dio, bertako pertsona gutxi-asko eskolatuek bazuten erdararen nolabaiteko ezagutza, nahiz sarrien oso gaitasun mugatua izan. Alfabetatze-lana erdaraz eginda ere, hain nabarmena zen euskararen erabilera esklusiboa gizartearen eguneroko jardunean, non erdaraz eskuratutako gaitasun mugatu hori urteen joanean (bestelako esposizio eta interakzio-esparrurik suertatzen ez bazitzaien bizitzan) galduz joaten ziren. Euskal Herri gehienean, erdal mintza-esparruetan bereziki, gauza bera gertatzen da egungo egunean, baina alderantziz: eskolan ikasitako euskara galdu egiten dute gazte askok, eskola-urteak amaitu eta erdal itsasoan murgiltzean. Ez da hori hemen bakarrik gertatzen, Europako hizkuntza txiki-ahuldu askoren kasuan ere horrelatsu dira kontuak.

Hori guztia besterik da, ordea, eta gatozen gurera. Donostiako 1761eko egoera soziolinguistikoari dagokionez, euskara zen nagusi (hainbat kasutan jaun eta jabe) harresiz kanpoko landagune zabalean. Erdararen nolabaiteko ulermena (entzutezko ulermena, agian oinarri-oinarrizko irakurmena) bazitekeen hein batean zabaldu samarrik egotea; ez, ordea, ezagutza aktiboa (erdaraz etorri onez hitz egiten eta zuzen samar idazten jakitea). Trebetasun hori salbuespenezkoa, arras mugatua zen bertan, antza. Egia da landaguneko biztanleek ulertzen ez zituzten hizkuntzekin harremanetan egoten zirela, umetatik hil arte: liturgia, esate baterako, latinez egiten zen hein batean. Hori ez zen arazo, antza: entzuten zuena errepikatu egiten zuen euskaldun-jende horrek, besterik gabe; entzuten eta errepikatzen zuena (ongi) ulertu gabe agian. Zenbait elizgizonen aburuz ona zatekeen, liturgian esaten zena eliztar-jende arruntak ez ulertzea: botere misteriotsua emango zion horrek, antza, Elizaren mezuari.

7.4.1.2. 1761eko B-hiztunak: harresi barruko euskaldun elebakarrak eta (nagusiki) euskal elebidunak

Alderik eta gradaziorik, adierazpidez eta jardungunez, falta ez zen arren, harresiz kanpoko donostiarren egoera soziolinguistikoa homogeneo samarra zen, ikusi berri dugunez. Baserri-giroko donostiar gehienek aski hizkuntza-gaitasun eta mintzajarduera antzekoak zituzten. Besterik ziren kontuak, hein batez, harresi barruan, Donostiako kalean. Bertako biztanleria ez zen, eguneroko mintzajardueraz eta idazjardueraz, hain homogeneoa. Erabilerari eta gaitasunari dagokienez, hiru hiztun mota nagusi bereiz zitezkeen 1761 inguruan, gure ustez, harresi barruko donostiarren artean. Zatiketa hirukoitz horren alde, bi puntuok aski gogoan izan behar ditugu: a) eskolaren eragina (ikasgaiz, ordu-kopuruz eta urte-iraupenez) aski mugatua zenez, kale-giroan aurrez aurre zeuden bi hizkuntzetariko bat eguneroko jardun arruntean behar bezain maiz eta sendo erabiltzen ez bazen, ez zen ikasten, eta, beraz, hiztunek ez zuten hizkuntza horretan etorri onez jarduteko behar adinako gaitasunik garatzen. Hiztunen hizkuntza-gaitasuna

umetatikako hizkuntza-erabilera nagusiaren ondorio zen maizenik. Beraz, hiztun haien hizkuntza-gaitasuna (gaitasun-ezaugarri nagusiak bederen) ezagutuz beraien mintzajarduna nolakoa (izan) zen ere antzeman liteke hein batean[45]. Bigarren puntua ondoko hau da: b) garai horietan harremanak mugatuagoak zirela gogoan izan behar dugu. Gaur egun baino jende gutxiagorekin hitz egiten zen, eta norberaren bizitzan zehar gutxi aldatzen ziren pertsona horiek. Aipatzen ziren gaiak eta estiloak ere gutxi ziren, bereziki gaur egungo egoera zeharo diferenteekin eta dagoen aniztasunarekin konparatuta. Klase sozialak ere finkoagoak ziren, eta ez ziren nahasten[46]. Ez zegoen batetik bestera erraz pasatzerik; hortaz, hiztunaren nagusitasun-moldaera hizkuntzen ezagutzari eta erabilerari dagokienez nahiko finkoak ziren. Donostiari buruzko informazioa kontuan harturik, hiru hiztun mota nagusi bereiz daitezke: euskal elebakarrek eta euskal elebidunek osatzen dute aurreneko multzoa, bigarrena erdal elebidunena da eta hirugarrena erdal elebakarrena da. Alde guztietatik begiratuta, oso desberdinak dira hiru talde horiek: tamaina demografikoz, jatorriz, lanbidez, gizarte-mailaz, etab.

Has gaitezen Donostiako kalean demolinguistika aldetik zabalena zela dirudien taldearekin, harresi barruko euskaldun elebakar eta (nagusiki) euskal elebidunekin, alegia. Harresitik kanpora arras hizkuntza nagusia (ia esklusiboa) bazen euskara, hainbatera inondik inora iritsi gabe ere, nagusitasun argia zeukan euskarak hiribilduan ere, eguneroko mintzamolde arrunt gisa, 1761 inguruan. Bertako biztanle gehienak euskaraz bizi ziren, antza (ikus Camino doktorea), eta baserrian baino nabarmen proportzio ahulagoan izanik ere, erdaraz baino erosoago eta zaluago moldatzen ziren euskaraz. Hori dela eta, edota solaskide elebakar ugari suertatzen zitzaielako eguneroko jardun arruntean, euskaraz zihardute eskuarki: bai baserritar-jendearekin eta bai euren moduko donostiarrekin (edota, hainbatean, erdal elebidunekin). Harresiz kanpoko eta barruko donostiar guztien % 30 inguru bigarren hiztun-talde honetakoa zatekeen, gure aburuz. Bera genukeen, hortaz, XVIII. mendearen erdialde berant hartan, harresi barruko hiztun-talderik handiena: hiribilduko biztanleen % 55 inguru talde honetakoa zela pentsa liteke, lehen hurbilketa gisa (3.000 biztanle inguru).

Ondoko taulan ageri dira B hiztun-talde honen hizkuntza-erabilerak, jardunguneka eta jarduera desberdinez banaturik.

---

[45] Horrek ez du lehen esandakoa indargabetzen: zenbait hiztunek bazekiten (ia) ulertzen ez zuten hizkuntza erabiltzen, papagai baten moduan. Latina da modu horretan erabiltzen zen hizkuntza.

[46] Taldeen arteko harreman batzuk baziren, adibidez, goi-mailako biztanleen eta horiek zituzten morroi-neskameen artean.

4. Taula: **Hizkuntzen nagusitasun-moldaerazko taula. 1761eko B-hiztunak**

1761eko B-hiztunak: harresi barruko euskal elebakarrak eta euskal elebidunak													
Lehen hurbilketa-saioa: 3.000 biztanle inguru, donostiar guztien % 30 inguru, hesi barruko donostiarren % 55 inguru													
Batetik, hainbat hiritar beregain (maiorazko, artisau, dendari, merkatari eta itsasgizon). Bestetik, hiritar beregain horien neskame eta morroi gehienak													
Jarduera		**Jardunguneak**											
		1	**2**	**3**	**4**	**5**	**6**		**7**		**8**	**9**	**10**	
		Etxea + familia	**Lagunartea**	**Herri - giroa**	**Lantokia**	**Aisia + kirola**	**Salerosketa**		**Eliza**		**Adm - agint**	**Info - hedap**	**Hezkuntza formala**	
							Euskald	**Erdald**	**Liturgia**	**Serm konfes otoitz kantu**			**Eskola**	**Ertaina Uniberts**
A	**Entzun**	eus	eus	eus	eus	eus	eus		lat	gazt	eus	eus (berts)		
								erd itz		eus	eus (itz)		eus + gazt	o b erd
				eus	eus		eus				(erd)	eus + gazt		
								eus it	erd + eus?	eus			gazt + eus	
B	**Hitz egin**	eus	eus	eus	eus	eus	eus		lat	eus	eus	eus		
								erd itz			eus (itz)		eus + gazt	
				eus	eus		eus				(gazt)	gazt itz	gazt +eus	o b erd
								eus it	erd +eusk?	(gazt)				
C	**Beretzat irakurri**												eus + gazt	
		gazt, b eus	gazt, b eus								b gazt	eus berts		
												erd	gazt+ eus	o b erd
D	**Boz gora irakurri**													
		gazt, b eus									b gazt	eus berts	eus + gazt	
												erd	gazt+ eus	o b erd
E	**Idatzi**													
		gazt, b eus	gazt, b eus								b gazt	erd	eus	
												berts-itur	gazt	o b erd

Iturria: egileek moldatua

B-hiztunen eguneroko hizkuntza-erabilera euskalduna zen, hortaz, nagusiki. Horrela bakarrik uler liteke Camino doktorearen baieztapena: "el idioma vulgar en San Sebastián es el vascuence" (Camino 1780 [1963]: 247). "Vulgar" hitzak adiera bat baino gehiago duen arren, jaiotzatikako "lengua vernácula"ren antzeko osagaia du nagusi: bertako hiztun gehienen ama-hizkuntza izateaz gainera etxean eta kalean, ohiko mintzajardun arruntean, gehien entzuten dena[47]. Hiztun-talde honi harresiz kanpoko hiztunak, maiz euskaldun elebakarrak, gehitzen badizkiogu Donostia osoaren 1761eko irudi soziolinguistikoa nagusiki euskalduna zela konturatuko gara. Donostiak zituen 10.000 biztanletatik 7.700 inguruk ez zekien euskaraz edota erdaraz baino errazago moldatzen zen euskaraz, eguneroko mintzajardun arruntean. Nolanahi ere, baserritarrek baino harreman eta kontaktu handiagoa zuten B-donostiarrok erda(ra)rekin. Bereziki H-funtzioetarako hain etxekoturik zegoen gaztelaniarekin eta zenbaitek, horrezaz gainera, frantsesarekin. Kaleko B-hiztunen harreman dibertsifikatuago hori hainbat arrazoirengatik gertatzen zen: a) hasteko, B-hiztunak hiribilduan bizi zirenez, eremu geografiko mugatuago batean mugitzen ziren gehienak, batera eta bestera, hots, harresi barruko bizi-eremu kaletar hori hertsikiago konpartitzen zuten beste hiztun-taldeekin; haiekin ere kontaktu hurbilean zeuden. b) Horrezaz gainera, eskolatze-tasa handiagoa izan ohi zen kalean, eta (Kardaberazen modura itxuraz ele bietan irakurtzen eta "fotografikoki" ikasarazten zen dotrinaz aparte) eskola bera erdaldunagoa zen[48] itxura osoz; zer esanik ez bigarren mailako gramatika-ikasbidea.

Atal honekin amaitzeko: a) hainbat autorek (Ordoñez, Camino, Velasco, Iztueta...) dioenaren argitan, Donostian jaiotako neska-mutil gehienek euskaraz zekiten etxeko hizkuntza hori zelako, edota auzoko eta lagunarteko sozializazio-eredu arruntez lehenik eta behin hori eskuratzen zutelako; b) gizarte-eskalaren behe-mailakoak edo erdibidekoak ziren "Donostiako kaleko", euskaldun elebakar eta euskal elebidun horietariko gehienak. Liburu honetan bertan, Koldo Larrañaga Elorzak argi aipatzen duenez, gizarte-eskalan gora egin ahal izateko ezinbesteko baldintza zen erdaraz (hitzez, idatziz edo bietara) ondo jakitea (246. or. eta hurrengoak). Horretarako ezin euskaldun elebakar edo euskal elebidun izan, adin batetik aurrera behintzat; c) generoen artean ere bazen alderik. Gizonezko baino emakume gehiago zegoen erdi-mailako B-hiztunen talde horretan. Gizonezkoen artean itsasgizon, dendari, merkatari, artisau ziren hainbat, eta

---

[47] Interpretatzen zailagoa da guretzat, aldiz, Manterolak handik ia ehun urtera esandakoa: "El vascuence es la lengua más popular" (1871: 23). Zergatik zen Manterolarentzat euskara gaztelania baino "popularrago"? Ez daukagu horrentzat, oraingoz, erantzun beterik.

[48] Kaleko eskola-moldaeran. Dakigularik, ez da Ordoñezek Donostiako baserrietako neska-mutilen euskal eskolaratzeaz dioenaren lekukotasun argirik ageri. Eskola-esparruko desberdintasun ugarien kontu horrek luze iraun zuen, antza: neska baino mutil gehiago joaten zen eskolara, eta urte gehiago egiten zuen bertan. Mutilei eta neskei irakasten zitzaizkien materiak ere ez ziren beti bat. Nesken alfabetatze-maila eta erdaraz jarduteko gaitasuna mutilena baino mugatuagoa izan ohi zen XIX. mendean ere (Ostolaza 2000).

horiek erdararen ezagutza eta trebetasun aktibo landuagoa izan ohi zuten sarri. Donostiako jauntxoen jauregi-etxeetan eta, oro har, zezakeen jendearentzat lan egiten zuten neskameak, aldiz, euskal elebidunen adibide arteza gerta zitezkeen maizago.

Noiz arte iraun zuen egoera horrek? Donostiako euskal elebidunen kontu hori ez zen, antza denez, gauetik goizera aldatu, are gutxiago behingoan errotik itzulipurdikatu. Handik ehun urtera, Gipuzkoa osoa harturik aztergai, honela zioen Ladislao de Velasco-k (1879: 483-484): "en Guipúzcoa la lengua del pueblo es el vascuence, y aun las clases altas del país que viven en las capitales y pueblos más importantes, la hablan también, siquiera no la usen siempre en su habitual comercio". Antzeko lekukotasunik ez da han-hemen falta. Euskaltasun-aitormen horiek sendoago dira, jakina, XIX. mendearen lehen erdian bigarrenean baino. Donostia, horrela, herri euskaldunen artean ageri da Añibarroren zerrendan, ezaguna gertatzen zaigun gradazioaz: 1828ko eta 1829ko misioak euskaraz burutu ziren harresiz kanpoko biztanleentzat, eta euskaraz eta gaztelaniaz harresi barrukoentzat. Euskaraz idatzitako bandoen lekukotasuna ere hor dugu, tartean euskaraz argitaratu zen aurrenekoa (antza denez, 1834an argitaratua: Tellechea 1967, Villasante 1960, Madariaga 2020: 88). Azken adibide bat ematearren, bukatzeko, hor dugu Lancy Evans jeneralaren 1836ko bando elebiduna (Roquero 2001: 251-256).

7.4.1.3. 1761 inguruko C-hiztunak: harresi barruko erdal elebidunak

Erdal elebidunek osatzen zuten, dakigun heinean, Donostiako hiritarren bigarren hiztun-multzo nagusia. Bietara zekiten hiritar horiek, baina aurrekoen alderantziz, (askoz) errazago moldatzen ziren erdaraz; hala egiten zuten hitzez eta hala, arrazoi bikoitzez, idatziz. Gaztelaniak pisu handia zuen harresi barruko kale-bizimodu modernoan, dudarik gabe: bai irakur-idatzizkoan eta bai, are, hitzezko jardunean. Beste maila batean hor zegoen, gainera, frantsesa. Goimailako hiritarrak (eta haien seme, ez ezinbestean alaba, gazteak) erdal elebidunen hiztun-multzo honetan zeudekeen sarri. Erdara oso etxekotua zuketen, baina Velascok handik ehun urtera dioenaren ildotik, badirudi ondotxoz beranduago ere beraien eguneroko mintzajardun arruntaren zati bat euskaraz bideratzen zutela: noiz bata (erdara) eta noiz bestea (euskara)? Aldian aldiko solaskidetza-, jardungune- eta adierazpidearen egokitasun-irizpideek erabakiko zuten hori, seguruenik, hizkuntza-soziologiaren oinarri teoriko ezagunen arabera (ikus horretaz, bereziki, Fishman). Hori guztia hitzezko jarduerari dagokionez. Irakur-idatzizko jardunean, aldiz, euskara indartzeko saio bizirik egin bazen ere aldi hartan, ordura arte bezala erdara zen 1761-1766 inguruan, erabat edo ia erabat, komunikabide nagusi, hegemoniko eta, ia beti, bakar. Erdara (normalean gaztelania) zen, ia beti, alfabetaturik zeuden donostiarren (arrazoi gehiagoz bertako erdal elebidu-

nen) adierazpidea[49]. Zenbait kasutan, erdarazko gutunetan esaldiren bat edo beste euskaraz eransten zuten (ahozko esaldi edo elkarrizketa baten deskribapena egin nahirik, tartean: Camus, Gomez 2019).

Harresi barruko erdal elebidunen (Donostiako 1761 inguruko C-hiztunen) hizkuntza-erabilera nagusiak jaso nahi izan dira, jardungunez eta jarduera-motaz, ondoko taulan.

[49] Ez beti-beti: isil-gutunetan euskaraz egin izan da Donostian, inoiz (zehazki 1761ean). Hala dokumentaturik dago, eta Satrustegi euskaltzainak argitara emana, Donostiako neska-mutil maitaleen artean. Erdaraz gainera euskaraz ongi zekien "familia oneko" mutil gaztea zen bata, harresiz kanpoko (oker ez bagaude Altzako) neska-lagun euskaldun elebakarra bestea. Beraien arteko idatzizko isil-gutunak euskaraz ageri dira behin eta berriro, "Donostiako euskaran" itxura batez. Oraingoz dakigunaren argitan salbuespen bakan da, ordea, ez inolako zati-arau, horrelako jardunbidea. Donostiako kalean, zezakeen jendearen artean ere, euskarak balio-indar bizia zuelako frogagarritzat har liteke, dena den.

5. Taula: **Hizkuntzen nagusitasun-moldaerazko taula. 1761eko C-hiztunak**

1761eko C-hiztunak: harresi barruko erdal elebidunak														
Lehen hurbilketa-saioa: 1.700 biztanle inguru. Donostiar guztien % 17 inguru. Harresi barrukoen % 30 inguru														
Kanpoan estudiatu duen edo luzaro kanpoan ibili den asko: hainbat apaiz, luma-langile, agintari, maiorazko, itsasgizon, merkatari														
Jarduera		**Jardunguneak**												
		1	**2**	**3**	**4**	**5**	**6**		**7**		**8**	**9**	**10**	
		Etxea + familia	**Lagunartea**	**Herri-giroa**	**Lantokia**	**Aisia + kirola**	**Salerosketa**		**Eliza**		**Adm - agint**	**Info - hedap**	**Hezkuntza formala**	
							Euskald	**Erdald**	**Liturgia**	**Serm konfes otoitz kantu**			**Eskola**	**Ertaina Uniberts**
A	**Entzun**	eus	eus	eus	eus	eus	eus	gazt	lat	gazt	gazt	eus berts	gazt	
		bietara	bietara	eus	bieta	eus gazt				bietara		erd		
		erd	erd	erd	erd	erd	eus	alof (itz)	erd+eus?	eus	bietara	alof	gazt + eus	erd
B	**Hitz egin**	eus	eus	eus	gazt	eus	eus	gazt	lat	gazt	gazt	eus berts	gazt	
		bietara	bietara	bietara		bietara				bietara		erd		
		erd	erd	erd	eus	erd	eus	alof (itz)	erd+eus?	eus	gazt itz	alof	gazt + eus	erd
C	**Beretzat irakurri**												gazt	
		gazt, b eus	gazt, b eus		gazt			gazt			gazt	gazt + alof eus berts	gazt + eus	erd
D	**Boz gora irakurri**												gazt	
		gazt, b eus			gazt			gazt			gazt	gazt + alof eus berts	gazt + eus	erd
E	**Idatzi**												gazt	
		gazt, b eus	gazt, b eus		gazt			gazt			erd	gazt berts- itur	gazt + eus	erd

Iturria: egileek moldatua

Esan bezala, harresi barruko erdal elebidunek osatzen dute Donostiako 1761-1766 inguruko hirugarren hiztun-talde hau. Badakigu hiztun-taldeak zenbat eta eleaniztunago izan, hainbat eta heterogeneoago izan ohi direla oro har. Beraien hizkuntza-portaerak ez dira hain trinkoak; aurkezteko hain sinpleak ere ez. Eleaniztasunean ere gradienteak ageri dira, eta ez txikiak: hizkuntza bitan (edota bitan baino gehiagotan) jakin liteke egiten, trebetasun-moldaera desberdinez (entzutez, mintzatuz, irakurriz edo idatziz) eta trebetasun-atal bakoitzean ere maila diferenteak izan ditzake norbanakoak edo taldeak. Bakoitzak ageri duen gaitasun hori zenbait modutara eskuratua izan liteke, gainera. Kontuan izan behar da hori guztia, ondoren azalduko dugun hainbat puntu ongi ulertzeko.

1761 inguruko erdal elebidun horiek zenbat ote ziren? Gure lehen estimazio baten argitan, donostiar guztien % 15 eta % 20 artean izan zitezkeen: harresi barruko biztanleen % 30 inguru. Demagun, beraz, estimazio horren ildotik, 1700 pertsona inguru zeudela talde honetan. Garaian garaiko iturriek argi diotenez, talde nabarmena zen dagoeneko XVIII. mendearen erdialde berantean, euskaraz baino gaztelaniaz errazago eta trebeago egiten zuen donostiar-multzoa. Donostian ez ezik, halatsu ziren kontuak Gipuzkoako hiribildu nagusietan ere. Ordoñezek, esate baterako, hau dio: “hay muchos hombres y mujeres que en los pueblos grandes hablan en castellano” (Ordoñez 1963: 54). Erdaraz egitearen egiteaz, jakina, hobetu egiten zen Donostiako eta Gipuzkoako herri nagusietako kaletar haien erdarazko trebetasuna; aldi berean euskarazkoa, egite urriaren urriaz, makaldu, trakestu, atzendu eta azkenik, zenbaitetan, hutsaldu.

Donostiarren artean erdaraz (hitzez, idatziz) egiten jakitetik eguneroko jardunean ere (erabat edo nagusiki) erdaraz egitera zihoan pausoa ez zen, oraingoz dakigunaren argitan, bat-batekoa izan. Ehun bat urte behar izan zuen, antza, erdarazko mintzajardunak eguneroko bizimolde arruntean donostiarren artean zabaltzeko eta orokortzeko. Handik ehun bat urtera ere bizirik, eta zenbait esparrutan nagusi, ziharduen euskarak Donostian, baina, Manterolaren arabera, gaztelaniaren presentzia gero eta handiagoa zen: “hoy se ha generalizado bastante el castellano, especialmente en San Sebastián” (1871: 23). Ez du esaten, Donostiako kalean euskaraz egiten ez denik. Bai, ordea, gaztelania zabal dabilela *Belle Epoque* hasierako Donostia hartan.

Gatozen gurera, C-hiztunen zehaztapen soziolinguistikora. Donostiako harresi barruko hiztun-talde hori aurrekoak baino heterogenoagoa izanik, zailagoa da bere ezaugarriak arin eta zorrotz deskribatzea. Etxeko hezieraz, eskolako ikasbidez, bizimoduz eta lan-moldez era askotako pertsonek osatzen zuten C-talde hori eta, horren guztiaren ondorioz, beren eguneroko mintzajardunak ere gorabehera handiak ageri zituen. Ikus ditzagun, zehazki, hiztun-talde honetako hiru multzo

adierazgarri (C-hiztun guztiak bildu ez arren, gure ustez aski paradigmatiko izan litezkeenak):

1. ikastera edo lanera kanpora joan diren pertsonak (gehienetan, baina ez beti, mutilak);

2. kanpotik etorritakoak (merkatariak, salmenta-esparruan edo industria-molderen batean ari direlarik bertako edo inguruko euskaldun elebakarrekin dihardutenak gutxi-asko);

3. bertakoak izanik ere "aparteko" hiztun-talderen baten altzoan bizi diren pertsonak (adibidez, ijitoak).

Euskarari dagokionez, aski diferenteak dira taldeok. lehen taldeko C-hiztunek euskaratik erdal itsasoranzko hizkuntza-bidaia egiten dute: euskaraz duten hizkuntza-gaitasunari beste hizkuntza baten ezagutza gehitzen, osatzen eta, irakur-idatzizko planoan, aberasten diote. Bigarren eta hirugarren taldekoek, aldiz, kontrako norabidean egiten dute beren hizkuntza-bidaia: erdal mundutik datozelarik (etxetik eta lagunartetik seguru eta, batzuek, eskola bidezko osakuntzaz), euskaraz egiten ikastera iristen dira hein batez. Batez ere merkatari-laneko solaskideekin, bestelako langileekin eta etxean, inoiz, neskame-morroiekin euskaraz egitea lortzen dute. Batzuk, hortik abiatuz, urrunago iristen dira: eguneroko mintzajarduera arrunta kalean euskara den heinean, osatu eta sendotu egiten dute beren euskal gaitasuna; ez, ordea, erdaraz duten trebetasun-maila parekatuz, are gutxiago irakur-idatzizko trebetasunekin osatuz. Zenbait iturriren arabera, badirudi hirugarren multzoko C-hiztunek kale-giroan eskuratzen zutela (une batez) euskara, eta, zenbait kasutan, aski maila jasora eramaten zutela beren euskal mintzamena. Ikus ditzagun multzook xehekiago.

1. Umetan edo gaztetan, ikastera edo lanera herritik kanpora (erdal herrira, nolanahi ere) joandako donostiarrak (etxetik euskaldunak): Donostian jaiotako hiztun horiek euskara jaso zuten etxetik eta/edo eguneroko jarduera arruntetik. Gizarte-maila gorenekoak izan ohi ziren hainbat (batez ere ikasketak egitera kanpora joan ohi zirenak). Normalean aski gazterik joaten ziren kanpora, eta urte asko igarotzen zituzten bertan, estudio guztiak (latina salbu) gaztelaniaz eginez. Horregatik, euskararen erabilera alde batera utziaren utziaz, nabarmen (askotan ia erabat) galtzen zuten euskaraz jarduteko gaitasuna, zer esanik ez erdaraz ikasitako kontzeptu-mundu tekniko (mediko, juridiko...) edo filosofiko zehatz-aberatsa euskaraz adierazteko ahalmena. Ibilbide hori egindako apaiz gazte askok herrira itzultzean, arazo nabarmena zuten berekin; dena den, arazoa herritar entzule euskaldun garbiei leporatzen zieten sarri: sermoiak euskaraz egiteko ahalmena, edota euskaraz idazteko

gaitasuna, oso zuten haietariko askok biziki erasana. Korapilatsuagoa (askotarikoagoa) izan ohi zen, oro har, lanera gaztetan erdal mintza-esparru(eta)ra joandakoen historia pertsonala. Batzuek zein besteek bazituzten, ordea, antzeko ezaugarriak.

Euskal mintza-eremura itzultzen zirenean, haietariko askoren umetako edo gaztetako euskal mintzagaitasuna gesalduta zegoen nabarmen, eta hitzezko (zer esanik ez irakur-idatzizko) trebetasun garatuenak erdaraz baino ez zekizkiten egiten. Jarrera aldetik, bazuen horrek guztiak ondorio zorrotzik: Iztuetak oso argi azaldu zuenez[50], hiztun horietako hainbatek euskaraz inon-inorekin ez egiteko gogo-nahia barru-barruan iltzaturik zeraman, hainbat motiborengatik. Tartean, erdaraz jakitea eta erdaraz egitea prestigiotsuagoa zelako. Inguruko euskaldun garbien eguneroko mintzajardunean eragin mugatua izango zuen jarrera horrek, halaz guztiz ere, euskaldun elebakarren kopurua hain izanik handia Donostiako esparru askotan eta Gipuzkoa gehienean. Nahiz eta erdaraz egitea prestigiotsuago izan, jarrerei dagokienez ez dirudi gipuzkoar gehienak euskararen kontrako iritzikoak zirenik; ez, behintzat, Frantziako Iraultzaren ideiak han-hemen zabaldu arte. Aski diglosia-egoera argian zeudelarik euskara-erdarak (lehena L eta azkena H), nahiz eta zenbait autorek euskararen barne-osaera, ezagutza eta erabilera biziki kritikatu (ikus K. Larrañagaren artikulua), ez dirudi Donostiako goi-mailako hiztunen artean ere hiztun elebakarrekin edo euskal elebidunekin eguneroko jardunean euskaraz egitea gaitzetsirik zegoenik. Horren lekukotasun zabal, iraunkor eta esanguratsurik ez dugu, behintzat, erraz topatu (ikus hemen: 162-163). Hori bai, autore euskaltzaleek gogor astintzen zuten hainbat euskaldunen jarrera epela. (Ikus Kardaberaz 1761: 9-10 eta hemen: 164-165. or). Orduko autore askotxoren ustez (Ordoñez, Kardaberaz, Camino, esate baterako), euskara ez zegoen Donostian galtzeko arriskuan. Euskara-erdaren konpartimentazio zabalak iraunkor zirudien: baserri-giroan behintzat, gero ere horrela iraungo zuela uste zuen Kardaberazek, Jainkoak berak hala nahi izanik (ikus hemen: 164).

[50] Hementxe Iztuetak idatzitako pasarte bat: "Jakinduriaren bila erbesteetan urteak igarorik, joan ziradenean hainbatekin, edo gutxiagorekin, jaioterrira biribilatu ohi diraden uhanditu hoen galanteorik haundiena da, etxera sartu bezain laister, beren guraso eta senidai esatea ezik,

Eh, callad, no habléis más esa gerigonza propia sola de salvages ó de un rancho de gitanos: vergüenza he que me conozcan por el acento los castellanos, que yo también soi de turriz aburnis.

Eta oraindik are ikusgarriagoak eta adigarriagoak dirade hoen guraso eta senide txoroak, nola egon ohi diraden beren auzoetakoai esanaz,

Gure seme kanpoetan genduena bart etorri zaiku etxera, txit galanturik, osasunarekin eta guztiz jakinduria haundiakikoa. Ahaztu zaio bada euskera guzi guzia: ez du hiztxo bat bakarra ere ez, esaten, eta ez endeglatzen edo konprenditzen hitzkuntza honetan. Eta are gutxiago nahi du bestek hitzegitea ere. Beragatik, baldin harekin nahi badezute hitz egin, erderaz beharko diozkatzute adierazi zuen esakariak, nolabait bederik, bestela haserratuko zaio, portizkiro hala ere" (Iztueta 1990 [1847]: 95-96).

Beranduago, hala ere, gauzak aldatuz joan ziren: XIX. mendearen lehen laurdenerako, hizkuntza desprestigiatzeko kanpainak tartean izan zirelarik, baina ez ezinbestean arrazoi horrengatik, erdararen erabilerak gora egin zuen H-esparrutik kanpora jauzi egin eta kale-giroko L-esparruetan. (ikus hemen 168-169. orr., adibidez Iztueta 1990 [1847]: 95-96).

Euskarari buruzko iritziei dagokienez, eztabaida biziak agertu ziren lehendik ere euskararen inguruan, J. Madariagak bere 2008ko *Apologistas y detractores de la lengua vasca* liburuan argi aurkeztu zuen moduan. K. Larrañagak, bere aldetik, eliteek euskararekiko zuten epeltasuna azpimarratu du liburu honetan bertan.

C-hiztun horien artean hor ditugu zenbait apaiz, sermoiak euskaraz egiteko arazo nabarmenak zituztenak, zenbait eskribau eta luma-gizon, urte asko kanpoan lanean aritutakoak, Donostiako gizartearen goi-mailako zenbait agintari eta merkatari.

2. Kanpoko merkatariak: komertzioari aski lotuta izanik hiribildua, kanpoko merkatariak etortzen ziren Donostiara eta askotan bertan kokatzen zuten haien jarduera ekonomikoa. Merkatari horiek maila handiko merkataritza egiteko aukera zuten bakarrik, merkatu xehea Donostiakoek baino ezin zuten egin. Juan Madariaga Orbeak (211. or. eta hurrengoak) liburu honetan argi adierazi duenez, merkatari horiek neurri handi batean haien artean bizi ziren, bertakoekin harreman gutxi izanez. Bertakoekin harremanetan jartzeko, batzuetan, hitz batzuk ikasten zituzten: hor dugu, esate baterako, Jean Dubagnac-en kasua (217. or. eta hurrengoak.). Zenbaitetan merkatari horien seme-alabek ederki ikasten zuten euskara, Donostiako eguneroko giroa erabat edo, behintzat, nagusiki euskalduna zela argi frogatuz: Patricio Meagher-en kasua dugu, esate baterako, horren adierazgarri (ikus hemen 111-112. orr.).

3. Harresi barruko erdal elebidunen (eta, hainbatetan, elebidun orekatuen) artean hor ditugu, besteak beste, etnotalde jakinak: Donostialdeko ijitoek, horrela, beren hizkuntza propioan egiten zuten, antza, beraien artean eta, gero, kalean euskaraz (ikus Juan Madariaga Orbea hemen: 219-224 or.). Europako etnotalde askorekin gertatzen zen bezala haurren L1 edo etxeko hizkuntza etnotaldearen hizkuntza zen eta gero, kalean, etnotaldekoak ez ziren donostiarrekin, bertako jarduera arruntean nagusi zen hizkuntza erabiltzen zuten. Liburu honen hasieran argi utzi denez, aspaldi batean izan zuen Donostiak etnotalde modukorik: gaskoi-jendea. Gizatalde garrantzitsua izandakoa zen, bai demografia aldetik eta bai, bereziki, gizarte-mailan. Gaskoi-hizkuntzak izan zuen

horregatik, inoiz, H-esparruko erabilerarik[51]. 1761erako oso ahuldurik (itxuraz amaiturik) zegoen behinolako loraldi hura. Oso litekeena da, halere, Pasaian gaskoi-hiztunik izatea.
Garai hartan Donostiako zatia zen Pasaiaren sorreran eta garapenean, gaskoi-jendea bertaratzea garrantzizko gertakaria izan zen ("garrantzi" horren benetako neurria eztabaidagai da, halere, gaur egun: ikus hemen M. Zalbideren atala eta Irixoa, I. 2012). Nolanahi ere, *Diccionario Geográfico-Histórico de España*-n honela dio Joaquín A. Caminok: "la lengua gascona, que fue muy corriente y aun se usó en públicos instrumentos; bien que hoy en día sólo se habla en Pasages" (Camino 1802).

7.4.1.4. Donostiako 1761eko D-hiztunak: harresi barruko erdaldun elebakarrak (gaztelau edo alofono)

Harresi barruko azken talde garrantzitsua erdaldun elebakarrena da. Kanpotik (aldi baterako) etorri den zenbait kargudunek eta erdi-bertakoturik dagoen hainbat etorkinek osatzen du, nagusiki, hiztun-talde hori: militar-jendea, errege-agintariak, zenbait fraide-moja eta, nola ez, merkatari anitz. 800 hiztun inguruk osatzen dute talde hori, gure estimazioen arabera: harresi barruko biztanle guztien % 15 inguruk. Kanpotik etorritako soldaduekin, hori baino handiagoa zatekeen (hainbat alditan, ez beti) kopurua. Soldadu-jende horrek harreman mugatua izaten zuen, halere, antza denez, bertako biztanleekin. Soldadu horiek, aldian aldiko gertakarien arabera, 500 eta 2.000 artean izan ohi ziren (inoiz 3.000 ere bai: ikus atalburu honetan: 418-419 or.). Ez dugu pentsatu behar, bestalde, D-hiztun talde hori homogeneoa zenik. Ez dago egiaztaturik, hasteko, soldadu guztiek hizkuntza bera egiten zutenik. Talde hori askotarikoa zen eta hiztun horiek ez zeuden, maizenik, donostiar gehienen eguneroko bizimodura egokiturik, are gutxiago beren mintzamoldean txertaturik. Endogamikoak ziren talde horiek sarri, eta haien mintzajarduna zein idazjarduna beren artean gelditzen zen maiz, kanpora (ohiko donostiar arrunten multzo nagusira) hedatu gabe. Hots: mintza- eta idatz-harremanak euren artean burutzen zituzten sarri, azpitalde trinkoa baina donostiar gehienen eguneroko bizimodutik aldendua osatuz. Bazituzten, mintzoaz aparte, bereizgarri kultural jakinak: militarren emazteek bestelako buru-estalkia eraman ohi zuten mezatarako, emazteki donostiarren oso bestelakoa kolorez. Aparteko taldea ziren, nolabait, eta apartekotasun hori argi azaltzeko ez zuten inolako erreparorik.

[51] XVII. mendearen hasierako lekukotasun batzuetan, esate baterako, Donostian hiru hizkuntza erabiltzen zirela aipatzen da: "[parrokietan apaizek] Entienden todos vascuence porque de tres lenguages que se habla en la dicha villa comun es el uno [euskara] (…)" zioen Sebastián de Goyaz presbiteroak (ikus hemen: 97-98).

Nolanahi ere, eta Donostiako D-hiztun guztien (ez soil-soilik soldaduen eta beren emazteen) ikuspegi globalera itzuliz, hiru talde erdaldun elebakar nagusi bereiz litezke 1761-1766 inguruan: a) gaztelaniazko elebakarrak (tartean monarkia hispanikoaren edo elizaren goi-erpineko instantzien ordezkariak), b) aldi baterako edo besterako etorritako merkatariak eta bisitariak (gaztelauak edo penintsulakoak batetik, atzerritarrak bestetik), eta c) soldaduak.

a. Gaztelaniazko hiztun elebakar horiek —guztiak ez, baina bai gehienak— gaztelau agintearekin eta gaztelau Elizaren esparruarekin lotu litezke. Zenbait artisau eta langile ere ageri da tartean, halere. Hor daude, esate baterako, Segoviakoak (AGG-GAO COCRI 81,12 ; AGG-GAO CO CRI 81, 10.). Erdaldun elebakar horiek aurreneko belaunaldikoak dira, halere. Eguneroko jarduna Donostian egiteko, jakina, oinarrizko hitz eta esamolde batzuk ezagutuko zituzten euskaraz, behe-mailako donostiarrekin jarduteko batez ere. Erdaldun elebakar ziratekeen, ordea, gainerakoan: tartean etxean eta, seguruenik, kalean eta lanean, berezi-ki haien pareko erdaldun elebakarrekiko solaskide-sareetan. 1625eko kosta-herrietako asimilazio-pauta ezagunak indarrean zirauen artean[52], euskal hiztun-masa zabalak irentsi egiten zituen erdal etorkinen seme-alabak, nolabaiteko elebidun bihurtuz. Hiztun horien seme-alabek, erdaldun elebakarren hurrengo belaunaldiak alegia, euskaraz egiten ikasten zuen gutxi-asko, ezinbestean: erdal elebidun ziratekeen gehienak, seguruenik, etxeko ama-hizkuntza erdaldunak eta gurasoen erdal lagunarte "itxia"k hartaraturik. Ez zen hori, dena den, ondorio-emaitza bakarra izango: gaztetan eta, gero, lanean jasotako euskal esposizioaren neurri-tamainak eta euskaldunekiko interakzio-moldeak (tartean ezkontidearen etorkiak, hizkuntza-gaitasunak eta jarduera-molde linguistikoak) eraginik, are elebidun orekatu bilakatuko ziren horietariko batzuk (Patricio Meagher-en euskaltasuna aipatua dugu dagoeneko, ikus Tellechea 1972); nekez euskal elebidun. Hurrengo belaunaldiak lor zezakeen euskaltasun beteago hori, hartarako ingurumen-baldintzak (azaldu berri ditugunak) egiaztatzen ziren heinean.

b. Kanpotik etorritako merkatari asko bizi zen Donostian, XVIII. mendearen erdialdeberanteaneta,orohar,1813arte.Nagusikifrantsesak,bainaezhaiek bakarrik. 1793an 700 kanpotar inguru bizi ziren Donostian, horietatik % 96,6 frantsesak. Donostiako biztanleriaren % 6 inguru osatzen zuten erdaldun horiek (Juan Madariaga Orbea, liburu honetan: 213). Frantses hutsak

[52] Honela zioen Martinez de Isastik 1625ean "[el euskara] Es fácil de aprender continuándolo, como la experiencia ha mostrado con los castellanos, que se han avecindado en aquella costa de Guipúzcoa, que hablan bascuence razonablemente…" (Martinez de Isasti 1850 [1625]: 164).

baino areago, dena den, kanpotar horietariko hainbat Iparraldekoak ziren, eta euskaraz egiten (edota, gutxien-gutxienez, euskaraz entzundakoa poxi bat ulertzen) jakingo zuten, beraz, hona etorri aurretik ere haietariko zenbaitek; ez, halere, gehienek. Soldaduek bezala, hiztun-talde berezia osatzen zuten kanpotar horiek ere, hein batean: elkarrekin bizi ziren sarri eta, horren ondorioz, euskararik ez zuten gehienetan ganoraz ikasiko; haietako batzuek ez zekiten gaztelaniaz ere (ikus hemen 215. or.). Azken horiek beste kanpotarrekin izango zituzten maizenik beren eguneroko harremanak (ikus hemen 214. or. eta hurrengoak). Kasu honetan ere, dena den, kanpotik etorritako merkatari horien aurreneko belaunaldia izango zen (ia) elebakar huts; bigarren belaunaldiak euskaraz ikasiko zuen gutxi-asko eguneroko kale-giroan, eta erdaraz H-esparruari loturiko zereginetan. Patricio Meagheren (eta bere gisako zenbaiten) euskaltasuna aipatua dugu dagoeneko.

c. Soldadu elebakarrek ere gizatalde garrantzitsua osatzen zuten, esan bezala, Donostian. Gaztelau-hiztunak ziren gehienak, antza, edota bestelako kanpotarrak. Denbora-tarte bat baino ez zuten gehienek Donostian ematen eta, horren ondorioz, bertakoekin zituzten mintza-harreman bizi-orotarikoak aski mugatuak ziratekeen. Bazen, noski, hartarako motiborik. Ez da ahaztu behar soldaduen eta lekuan lekuko hiri-biztanleen arteko harremana gatazkatsua izaten zela sarri, hemendik kanpora ere. Hala izan ohi ziren kontuak, bereziki, aginte-esparru territorialen muga-inguruetako hirietan (Truchuelo 2012: 162). Gaztelau soldadu gehiengoaren ondoan, baziren atzerrikoak ere, antza. Azken horiei dagokienez, baziren soldadu frantsesak, ingelesak edota irlandarrak, unean uneko gorabeheren arabera. Dagoeneko aipatu dugunez, une batzuetan asko ziren halakoak: hala gertatu zen, esate baterako, 1813ko hondamendiaren inguruan.

6. Taula: **Hizkuntzen nagusitasun-moldaerazko taula. 1761eko D-hiztunak**

1761eko D-hiztunak: harresi barruko erdal elebarrak (gaztelau edo alofono)														
Lehen hurbilketa-saioa: 800 biztanle inguru, harresi barruko % 15 inguru														
Kanpoan (aldi baterako) etorri den zenbait kargudun eta erdi-bertakoturik dagoen hainbat etorkin: militar-jendea, errege-agintariak, zenbait fraide-moja eta merkatari anitz.														
Jarduera		**Jardunguneak**												
		1	**2**	**3**	**4**	**5**	**6**		**7**		**8**	**9**	**10**	
							Salerosketa		**Eliza**				**Hezkuntza formala**	
		Etxea + familia	**Lagun-artea**	**Herri - giroa**	**Lantokia**	**Aisia + kirola**	**Euskald**	**Erdald**	**Liturgia**	**Serm konfes otoitz kantu**	**Adm - agint**	**Info - hedap**	**Eskola**	**Ertaina Uniberts**
A	**Entzun**	gazt alof	gazt alof eus	eus eus erd	gazt alof	eus eus erd	eus (itz)	eus (itz)	lat erd + eus?	gazt bietar eus	gazt alof itzul	gazt alof itzul	gazt gazt (alof)	erd
B	**Hitz egin**	gazt alof	gazt alof	eus eus erd	gazt alof	gazt alof itzul	eus (itz)	eus (itz)	lat erd + eus?	gazt bietar eus	gazt alof (itz)	gazt alof itzul	gazt gazt (alof)	erd
C	**Beretzat irakurri**	gazt, b eus	gazt, b eus		gazt alof itzul						gazt	gazt alof itzul	gazt gazt (alof)	erd
D	**Boz gora irakurri**	gazt, b eus			gazt alof itzul							gazt alof itzul	gazt gazt (alof)	erd
E	**Idatzi**	gazt, b eus	gazt, b eus		gazt alof itzul						gazt		gazt gazt (alof)	

Iturria: egileek moldatua

Hiztun mota horien guztien zerrenda egitean, zera ikusten dugu: hasiera batean uste dezakegun baino askotarikoagoa eta heterogeneoagoa zela Donostiako biztanleen hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntza-erabilera. Hori horrela izanik ere, erabilerari dagokionez, kaleko hizkuntza arrunta eta nagusia euskara zela diote iturri espresu gehienek (tartean Ordoñezek eta Caminok). Nagusitasun nabarmena zuen euskarak L-esparruan. Gorago aipatu dugunez, litekeena da ahozko jarduna hamar harremanetatik zortzi (edo gehiago?) euskaraz izatea 1761ean, Donostia osoa kontuan hartzen bada. Aldiz, beste zenbait jardungune, harreman-sare, rol-harreman, irakur-idatzizko adierazpide eta estilotan, batez ere zenbait biztanlek ez zuen gaztelaniaz edo frantsesez baizik egiten. Ahozko jarduera arruntean nagusitasun argia zuen hizkuntzak, baina aldi berean, aski leku meharra (askotan hutsaren hurrengoa) irakur-idatzizko jardunean. Hizkuntza-aniztasun horrek, dena den, zera gogorarazten digu: zenbait donostiar, elebidun baino areago eleaniztun zirela. Donostiako eliteak (parte ohargarrian, ez erabat) euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez zekien, eta hala zirauen kontuak geroago ere: handik ehun bat urtera ere aniztasun horren lekukotasuna eskaintzen digu Planté-k (1886). Horrezaz gainera, jardueraren arabera beste hizkuntza batzuk ere bazekizkiten eta erabiltzen zituzten Donostiako zenbait biztanlek: Elizaren esparruan latina, urrutiko merkataritzan ingelesa, (behe-)alemana, nederlandera eta abar. Tropa ingelesek Donostia erre zutenean, adibidez, bada lekukotasunik zenbait donostiarrek ingelesez bazekiela adierazten duenik (San Sebastián 1895: 297; 304). 1758ko epaiketa batean, era berean, nederlandera eta gaztelania arteko itzultzaile bat ere ageri da Donostian (ikus hemen Juan Madariaga Orbea: 211). Ez dago dudarik, itsas merkataritzak eta itsas garraioak Donostiako hizkuntza-aniztasunean eragiten zuela hein batez.

Laburbilduz, donostiar askotxok (trebetasun hartzaileetan gehiagok, aktibo-ekoizleetan baino) erdaraz jakin arren, XVIII. mendearen erdialde berantean euskaldun sendoak ziren donostiar gehienak eguneroko mintzajardun arruntean. Hala dio garaiko hainbat lekukotasun esanguratsuk. Ordoñezek, esate baterako, honela laburbildu zuen 1761ean Donostiako egoera soziolinguistikoa:

> Razón será decir algo del idioma vascongado (...) es este lenguaje para el forastero impertinente vocablos intrincados y muy disonante á los castellanos, (...) El padre Larramendi de la Compañía de Jesús (...) ha querido poner en solfa y arreglo este idioma y ha escrito ciertos libros para que se puedan aprender y contar según su naturaleza, más esto sólo es bueno para los que vienen pequeños á estos países; (...) es preciso que se conserve este vascongado y durará hasta el día del juicio, pues aunque hay muchos hombres y mujeres que en los pueblos grandes hablan en castellano con perfección como llegan los de los caseríos á comerciar no saben ellos más que el vascongado, y si se ha de mantener el comercio, preciso es que se les responda en su lengua nativa, y así todos los que venden responden al que habla en la lengua que él se explica y por conveniencia de todos es preciso conservar el vascongado (..) por eso hay escuela y sermones en vascuence para la gente rústica

> que son los más. A pocos pasos de la mar se halla el convento de San Francisco (...) aquí se enseña la Escuela Bascongada y hay sermones en este idioma.

Caminok ere antzeko deskribapena egin zuen 1780 inguruan, erdararen lekua eta garrantzia hobeto zehaztuz, halere:

> El idioma vulgar en San Sebastián es el vascuence, el cual se habla con tanta facilidad y gallardía, que hasta el mismo Larramendi (...) llegó a confesar no se podía negar a sus naturales los primores de la elocuencia vascongada, notando el defecto de usar a veces acusativo en lugar de dativo, como cuando dicen: emangonazu, esangonazu, en lugar de emangodidazu, esangodidazu; e igualmente de usar la palabra primerokoa en lugar de lenbizikoa, en lo que castellanizan la lengua nativa. Exceptuando, dice el citado autor, estas dos nulidades, se habla en aquella ciudad con grandísimo aire y distinción y una expresiva que les es particular. (...) Aunque comúnmente se habla vascuence en San Sebastián, no se halla menos corriente el castellano, ya por la frecuencia del comercio, ya por la continua asistencia de la tropa, ya por la educación de la juventud, bien que en los partidos extramurales sólo se usa el idioma vulgar. (...) La pronunciación del castellano se corta con cierta suavidad, que aplauden aun los mismos rigurosos castellanos por no degenerar (en la) tacha que regularmente atribuyen a otros vascongados de tierra dentro, (...) incurren en la misma injusticia los que piensan con error no poder hablar los vascongados con propiedad y gusto la lengua castellana, cuando es notorio lo bien y culto que escriben en el idioma nacional. (...) El francés se ha introducido también bastante en San Sebastián, y más entre gente de comercio; pero es reprensible que algunos, no por ignorancia, sino por gala, afectan afrancesar el español (...).

J. Madariagak liburu honetan egiten duen deskribapenean, antzeko egoera deskribatzen du. Euskaltasun itxia, are euskal elebakartasuna, ez zen inolako salbuespen, udal-barrutiaren landa-eremuan. Beste zenbait autorek ere, gaur egun eskuragarri dauden iturriak eta teknikak baliatuz, antzeko ondorioak ateratzen ditu. Beste adibide bat ematearren, hona L. M. Zalduaren analisia:

> Donostiak eta Hernanik Urumean zeuzkaten saroi eta mintegien zatiketa zela-eta, 1770-1772 aldean (...) lekuko gehienek espainieraz ez zekiten: "... por ser como son bascongados y no entender romanze (…)". (...) lekukotasunetan Donostia (16), Altza (14), Hernani (6), Urnieta (6), Oiartzun (3), Errenteria (3), Pasaia (2), Astigarraga (2), Igeldo (1) eta Arrasateko (1) berrogeita hamalau testiguk parte hartu zuten guztira. Lekukoen % 83k itzultzaileak behar izan zituen eta % 72k gaztelaniaz deus ere ez zuen ulertzen. Ogibideen arabera[53], gaztelaniaz gutxien zekitenak ikazkin, artzain, arotz eta mandazainak ziren (% 100). Nekazari gehienak ere euskaldunak ziren (% 87) eta horietatik, erdaraz zekiten hirurak Donostiakoak edo

[53] Ez da hiru lekukoren ogibidearen berri ematen.

Altzakoak ziren. Gainerakoak kargu publiko, itsasontzigile, nagusi eta eskribauak elebidunak edo erdaldunak ziren (% 17) (Zaldua 2013: 53-54).

7.4.2. XXI. mendeko egoera soziolinguistikoa

XXI. mendearen hasieran, Donostiako hiztunen kopurua handia da eta oso hiztun-talde diferenteak topatzen ditugu, kopuruz zein izaeraz. Hiztun-taldeok ez dira, itxuraz, lehen bezain trinkoak: hiztun jakin bat gizatalde batean baino gehiagotan egon liteke txertaturik, eta hiztun-taldeen arteko mugak ez dira XVIII. mendekoak bezain zorrotzak, aski muga lausoan ageri dira egungo hiztun-taldeen artean. XXI. mendearen hasierako donostiar askoren, batez ere donostiar euskaldunen ezaugarri soziolinguistiko nagusiak aniztasuna, heterogeneotasuna eta, bereziki, mugimendua dira. Hizkuntza-erabileraren eta hizkuntza-gaitasunaren araberako taldeak bereiztea lehen baino nabarmenki zailagoa da orain, egungo hiriburuan jaio, bizi edo salerosketan ari izaten diren hiztunak eta hiztun-taldeak aldatuz joaten baitira aste-egun batetik bestera, inoiz urtaroen arabera eta, nola ez, bertako jai-ospakizun ugarietan. Lehen baino faktore gehiagok eragiten du etengabeko euskal-erdal fluxu horren gorabehera: lana egitera etorritako biztanleak, kontzertuak, zinemaldiak, turistak, kongresuak, era askotariko kirol-jarduerak (futbola, estropadak, erdi maratoia, etab.) hizkuntza baten edo bestearen aldeko goragune izaten dira behin eta berriro: marea gora eta behera aski ezagunak dira, horregatik, donostiarren kale-giro arrunteko mintzajardunean. Bertako hainbat hiztunek, horrezaz gainera, hainbat aldaketa bizi ditu bizitzan zehar, bere hizkuntza-gaitasunei eta hizkuntza-erabilerei dagokienez. Esate baterako, baliteke eskolan edo gaztetan nagusiki hizkuntza bat (euskara) edo beste (gaztelania) ikasi izana, baina gero, eskola utzi ondoren, erraza da kasu batean (umetako euskaltasunarenean) gaitasun hori partez edo (nekezago) osoz galtzea. Badago, baita ere, gaitasun batzuk eskuratzea hizkuntza aktiboki sekula erabili gabe edo jarduera pasiboa baino ez eduki: ikus, esate baterako, ingelesezko eduki digitalen kontsumoa, etab. Gizarte-giroan ere alde askotariko mugimendua da, egungo egunean, nagusi: Donostiara une labur baterako edo luze-asmoz bizitzera datozen kanpotarrak hor daude, hasteko, eta donostiar asko (lehen baino askoz gehiago) kanpora joaten dira (ikastera, lanera, bikote-bizitza hango batekin antolatzera, oporrak egitera...). Donostiara itzultzen dira gero horietariko batzuk; ez, ordea, guztiak.

Aldakortasun, mugimendu eta heterogeneotasun horiek guztiak kontuan izanik, errealitate soziolinguistikoa lehen baino konplexuago bihurtu zaigu, alde batetik. Hori dela eta, Donostiako egoera soziolinguistikoari buruzko ikuspuntu trinko eta bakarra ematea zaila bihurtu da. XVIII. mendeko egoera deskribatzeko lau hiztun-talde nagusi bereizi ditugu, eta talde horiek egonkor samarrak ziren. Hiztun haien (haietariko gehienen) bizitzan aldaketa gutxi gertatzen zen egune-

roko mintzajardunaren moldaera nagusiari zegokionez, eta, aldaketak suertatzen zirenean ere, antzeko aldaketak izaten ziren sarri: hor ditugu, esate baterako, gaztetan apaiz, legelari, mediku... ikastera edo merkatari zein itsas garraiolari joaten ziren semeak. XXI. mendean, ordea, talde finko eta egonkorrik zehaztea askoz zailagoa da. Dena den, zailtasun horiek eta ondotxoz gehiago hor egonik ere, nagusitasun-moldaerazko taulak sor litezke orain ere, lehenengo-lehenengo hurbilbide gisa. Horrela jokatuz, hiru talde nagusi zehaztu ditugu, aurrerago ikusiko denez.

Donostiarren hizkuntza-gaitasunari dagokionez, XXI. mende hasiera honetako egoera XVIII. mendearen erdialde berantean ageri zenaren ifrentzua da alde batetik baino gehiagotatik. Orain dela 250 urte euskaldun elebakarrak eta euskal elebidunak nagusi baziren Donostian, kanpotarrak izanik euskararen inolako ezagutzarik ez zuten ia bakarrak, gaur egun kontrakoa da egoera. Erdara da, askogatik, donostiar gehienen eguneroko mintzaera eta irakur-idatzizko agerbide nagusia. Horietako mordo batek badaki euskaraz, erdaldun orekatuak edo erdal elebidun markatuak dira asko: solas laburra eta hainbat agur-zeinu euskaraz egiteko gai dira (askok hala egiten du, ezagunekin bereziki), baina solas-harremanak luzeago iraun behar duenean (eta, oro har, solasgai luze-zabalago, trinkoago, teknikoago edota kontzeptu-lanketa sakonagoetan murgildu behar denean), erdarara jotzen dute beti edo ia beti. Lauzpabost urtetik aurrera, egungo donostiar euskaldun guztiek erdaraz (normalean gaztelaniaz) ere badakite. Etxeko edo haurtzaindegiko euskaraz aparte beste erdara bat dakite gutxienez, eta nerabezarotik aurrera beste gaztelaniaz hitzez (eta askok, D eredua gorabehera, idatziz) duten gaitasuna euskarazkoa baino jaso-sakon-moldaerrazagoa da. Euskararen eguneroko erabilerari buruzko informazio garrantzitsua ematen digu, oraingoan ere: euskararen alde egiten den hainbat plangintza-saio(txo)ren bitartez Donostiako egoera soziolinguistikoa euskararen aldera iraultzeko zailtasuna zein handia den erakusten du horrek.

XXI. mendearen hasierako datu soziolinguistikoak kontuan harturik (2011), honako ondorio nagusi hauek atera daitezke, donostiar guztiak (nolabait behar-eta) hiru hiztun-taldetan bereiziz:

a. Donostiar gehienek erdaraz egiten dute beti etxean, lagunartean eta eremu formalean (% 63,6).

b. Erdaraz baino maizago euskaraz egiten dute batzuek (% 7,6).

c. Bi multzo horien artean bada continuum bat: erdaraz bezain maiz euskaraz egiten dutenak (% 10), euskaraz baino maizago erdaraz egiten dutenak (% 14) eta ia beti erdaraz egiten dutenak (% 5).

2. grafikoa: **Etxea-laguna-formala eremuen tipologia. Donostia, 2011 (%)**



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

2016. urtean Eusko Jaurlaritzak egindako inkesta soziolinguistikoaren datuak antzekoak dira, baina euskararen erabilera zertxobait altuago ageri da (Eusko Jaurlaritza 2016):

a. Donostiar gehienek erdaraz egiten dute beti etxean, lagunartean eta eremu formalean (% 60,2).

b. Erdaraz baino maizago euskaraz egiten dutenen kopurua zertxobait igo da, % 8,3.

c. Bi multzo horien artean dagoen continuumari dagokionez, azkenik, erdaraz bezain maiz euskaraz egiten dutenak % 11,4 izatera pasatu da, euskaraz baino maizago erdaraz egiten dutenak % 13,3 dira eta ia beti erdaraz egiten dutenak % 6,7.

Donostia bere ingurune geoterritoriala baino nabarmen erdaldunagoa dela azpimarratu behar da. 2016ko inkestaren arabera, horrela, Donostian baino nabarmen gehiago egiten zen Gipuzkoa osoan euskaraz. Hona inkestaren erantzun laburbilduak, erraz beharren grafikora ekarriak:

a. Gipuzkoar gehienek erdaraz egiten dute beti etxean, lagunartean eta eremu formalean (% 45,2).

b. Erdaraz baino maizago euskaraz egiten du kopuru esanguratsu batek (% 28,2).

c. Erdaraz bezain maiz euskaraz egiten dutenak % 11,3 dira, euskaraz baino maizago erdaraz egiten dutenak % 10,9 eta ia beti erdaraz egiten dutenak % 4,4.

3. grafikoa: **Etxea-laguna-formala eremuen tipologia. Gipuzkoa, 2016 (%)**



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Kalean egiten den erabilerari dagokionez, 2016ko kale-neurketaren arabera, harremanen % 80,5 gaztelaniaz egiten dira Donostian, % 15,2 euskaraz, % 0,2 frantsesez eta % 4 beste hizkuntzaren batean (Soziolinguistika Klusterra 2017). Donostiako gerri-bueltako zenbait auzotan, XVIII. mendean baserri-munduan erabat txertatuetan, Donostiako kalean baino euskara nabarmen gehiago entzuten da orain ere. Emaitza hauek jaso berri dira auzo horietariko bitan, kale-neurketak egin direnean: Igeldon, entzundakoen % 75,4k euskaraz egiten du, eta Añorgan % 46,2k. Egunetik egunera indartsuago ageri den turismoaren eta bizigunez berritzearen ondorioz baliteke, halere, Igeldon behintzat, euskaltasun-maila (konparatiboki) altu hori berandu baino lehen zertxobait apaltzea.

Gorago esan berri dugunez, Donostiako XXI. mendearen hasiera honetako egoera soziolinguistikoa deskribatzeko eta XVIII. mendearen erdialde berante-

koarekin egoki konparatu ahal izateko, hiru hiztun-talde zehaztu ditugu[54]. Hasieratik azpimarratzen ari garenez, talde horiek aldakorrak, heterogeneoak eta askotarikoak dira, eta, beraz, emaitza bera fluktuazio-tarte handitara eraman dezakete. Eragozpenak eragozpen, eta ezer ez eskaintzea baino nabarmen hobea delakoan, donostiarron egungo mintzajardunaren eta irakur-idatzizko jardunaren errealitate soziolinguistikora hurbiltzeko, 1761 ingurukoan bezala, nagusitasun-moldaerazko taulak prestatu nahi izan dira. Honako hiru hiztun-taldeok zehaztu ditugu horretarako:

a. hiztunak: euskal hiztun trinkoak,

b. hiztunak: tartekako hiztun elebidunak,

c. hiztunak: erdal hiztun petoak.

Oso zaila da hiru hiztun-multzo horien nagusitasun-moldaerazko taula finkorik egitea, behin eta berriz aipatzen ari garenez barne-moldaeraz askotarikoak eta iraupen-indarrez aski aldakorrak baitira. Horrezaz gainera, gure arteko tradizio demolinguistikoak bestelako perspektiba aukeratu izan du oro har, eta eskueran ditugun datuak[55] zail da eginkizun honetarako zuzen eta doi aplikatzea. Saio bat egingo da, halere, esan bezala. Deskriba ditzagun, beraz, goiko hiru hiztun-talde horiek banan-banan, ondoko lerrootan.

7.4.2.1. Donostiako oraingo A-hiztunak: 2011-2016ko euskal hiztun trinkoak*

Aurreneko taldea A* hiztun-taldea izendatu dugu. Hori da, hain zuzen, XXI. mende hasiera honetan, euskararen erabilerari dagokionez hiztun-talderik trinkoena eta sendoena. Gaur egungo talde trinkoena izanik ere, horrek ez du esan nahi hiztun horiek euskara hutsez egiten dutenik. Are gehiago, parte hartzen duten zenbait jardungune, harreman-sare, rol-harreman eta adierazpidetan euskararen erabilera ez da urrundik ere nagusi eta, horren ondorioz, oso bestelako faktore koiunturalik suertatzen ez bada, erdal jardunera makurtu ohi dira. Zenbait kasutan, kaleko mintzajardun arruntean, esate baterako, XVIII. mendeko erdal elebidunena baino apalagoa da talde "trinko" honen gaurko euskal erabilera.

---

[54] Ez da segmentazio-aukera bakarra. Bai, ordea, gure ustez, operatiboena. Ia beti erdaraz egiten dutenak (euskaraz oso gutxi egiten dutenak, alegia) erdal hiztun beteen parekoago dira, bietara baina erdaraz nagusiago egiten dutenak beste zerbait dira, mintzajardunari dagokionez. Euskaraz oso gutxi egiten duten horiekin aparteko hiztun-multzo bat egitearekin, azkenik, ez genuke argitasunean irabaziko, nabarmen galduko baizik.

[55] Ez dago hor gaitzespen-zantzurik txikiena. Inoiz baino aberatsagoak dira datu-banku horiek eta, itxuraz, inoiz baino fidagarriagoak. Ez daude, ordea, nagusitasun-moldaerari begira prestatuak.

Arrazoia bistan dago: orain dela 250 urte kalean, aski hein zabalean, euskara zen nagusi. Biztanle gehienak euskaldun elebakar edo euskal elebidun zirelarik, eguneroko mintzajardun arruntean euskara nagusitzen zen, ezinbestean. Kontrakoa gertatzen da sarri, gaur egun: biztanle gehienak erdaldun (huts edo peto) dira, edota erdaraz hobeto moldatzen dira euskaraz baino. Honegatik eta hargatik, kale zabaleko hizkuntza nagusia erdara da Donostian, egungo egunean. Kale-neurketen eta inkesten emaitzek argi adierazten dute errealitate hori.

Guztia ez da, ordea, erdal-jendea eta erdarazko jarduna. Euskarak ere badu bere lekua, egungo Donostian. Donostiako biztanleen % 17a A*-hiztun euskaldunek osatzen dute. Erdaraz baino maizago (edo erdaraz bezain maiz) egiten dute hiztun hauek euskaraz etxean, lagunartean eta, gero eta sarriago, antza, zenbait eremu formaletan. Haien hizkuntza-jardueraren proportzio nabarmena izanik ere euskara, toki handia hartzen du erdarak egungo donostiar euskaldunon eguneroko jardueran. Kale-giroan eta hainbat jardungunetan erdal elebakarren mintzamoldera biltzen dira hauek eta, are, zenbaitetan erdaraz egiteko ohitura aski beregana turik daukate. Eskolaren esparru formala, etxea eta lagunarte gertuena (ordena horretan, antza) izaten dira hiztunontzat, maiz aski, gaur egungo eremurik euskaldunenak. Informazio-kontsumoari eta pantailei (telebista, tableta, telefonoa, etab.) lotutako jardungunea gero eta toki handiagoa eskuratzen ari da, bestalde, biztanle horien eguneroko hizkuntza erabileran. Euskarak toki meharra dauka hor eta, maiz aski, gaztelania hutsaren ordez erdal eleaniztasuna ari da nagusitzen. Indar bizia ageri du hor ingelesak. Hizkuntza horrekin lehian jardutea ezinezkoa da sarri, hainbat faktorerengatik: pantailen mundua oso aldakorra da, etengabe berritzen da, oso lehiakorra da, beste hizkuntzak baino baliabide askoz handiagoak ditu ingelesak, hizkuntza-ekonomia erabat ingelesaren alde makurturik dago mundu horretan, ingelesezko produktu askok kalitate-ezaugarriak dituzte berekin eta haiek zehaztutako kalitate-neurriak beste hizkuntza batzuetan prestaturikoak baino hobeto eta errazago betetzen dituzte eta abar.

Ikusten denez, euskaldun talderik trinkoenaren eremu pribatuenetan eta pertsonalenetan ere (etxean, lagunartean) "bere lekua" egiten ari da erdara. A*-euskaldun gehienen kasuan, erreferentzia sozialak osatzeko garaian, gero eta garrantzitsuago bihurtu den eremuan (pantailen eremuan, alegia) arras atzendurik dago euskara. Donostiako beste zenbait eremu formaletan, aldiz, indar handia hartu du euskarak, zenbaitetan nagusitasun-maila lortzeraino. Hor dago, bereziki, D ereduko euskal eskolaren kasua. Hortik kanpora zail da, halere, euskararen ahozko edo irakur-idatzizko nagusitasun esparru zabalik identifikatzea, ez Donostian eta ez hemendik kanpora (arnasgune batzuetan salbu: Azpeitian, Zumaian...). Lan-eremu formala erdarak mendean harturik du, oro har. Baina zenbait lan-sektoretan, bereziki euskalgintzari lotutako liburu- eta diskogintzan, komuni-

kabide-sorgune jakinetan, kultura-esparru jakinetan... ingurune bizi-emankorrak (nahiz eta, oro har, mugatuak) eratu dira azken 30-40 urtean.

XVIII. mendearen erdialde beranteko eta 2011-2016ko hiztun-talde euskaldunen hizkuntza-erabilerak konparatzen baditugu (erkaketa zaila da hori, oso, gorago esan diren arrazoiengatik), bere aje-muga guztiekin ere egiatik hain urrun ez dabilkeen ondorio-sorta atera dezakegu.

XVIII. mendeko hiztun-talde hura euskaldun garbiez osaturik zegoen sarri: euskaraz baino ez zuten halako gehienek beraien artean egiten (batzuek, horrezaz gainera, jakin ere ez zekiten erdaraz). Administrazioaren, merkataritza-tratuaren, eskolaren eta Elizaren esparruetan baino ez zuten beste hizkuntzek, euskaldun garbi haientzat, berariazko jardun-eragina. Dotrina-ikasketan eta antzeko jardunbide markaturen batean (irain- edo irri-bertsogintzan, agian?) izan ezik, apenas euskara idatziak helduleku sendorik zuen. Interakzio jakin horietatik kanpora, irakuridatzizko jardunetik arras baztertuta zegoen euskara. Egia da, kontua osorik azaltzeko, bazterketa hura desegin eta euskaltasun beteagoko proiektuak martxan jarri nahi izan zireneko unea dela hura: Larramendik zabaldutako ildoari eutsiz orduantxe ari zen zenbait euskaltzale (tartean Kardaberaz), Donostialdean eta Beterrin bereziki, etxeko eta auzoko, kaleko eta lagunarteko euskara gailena ahozko jardunetik irakur-idatzizkora zabaltzeko lehen pausoak eman nahian. Hartan gehien lehiatu ziren protoeliteen patuak, nolanahi ere, goranahi haren mugak erakutsiko zituen handik oso gutxira. Monarkia hispanikoaren, eta bere bidelagun zen eliza-hierarkiaren, *top-down* glotopolitikak oso bestelako helburuak finkatu zituen. *Status*, *acquisition* eta corpus alorreko *top-down* plangintza haren eragina nabarmen kaltegarri gertatu zen, hurrengo hamarkadetan, euskararen *full fledged language* molderako garapen-bidea (arte euskal-erdal elebitasunezkoa) osatu ahal izateko. Eragozpenak eragozpen, euskarak jaun eta jabe izaten segitu zuen Donostian zenbait belaunaldiz, bertako herritar gehienen eguneroko mintzajardun arruntean. Erdal eskolak ez zuen indarrik, ohiko mintzajardunaren giza arteko moldaeraren belaunarteko euskarria desegiteko.

Oso bestelakoa da, esan bezala, XXI. mendearen hasiera honetako ikuspegi soziolinguistikoa. Donostiar "euskaldunen"ek ere beste hizkuntza bat edo gehiago ezagutzen (eta, hala dagokionean, erabiltzen) dute. Hori bakarrik ez: jardungune, harreman-sare, rol-harreman eta adierazpidearen arabera, euskaraz baino hobeto moldatzen dira sarri erdaraz. Jarduera etxekoi-intimo-pribatuenetan ere (etxean, lagunartean eta aisialdian) toki nabarmena hartu du gaztelaniak (eta inoiz, hainbat gazteren eguneroko espazio birtualean, ingelesak). Idatzizko adierazpideari dagokionez, euskarak indar handia irabazi du eskolan eta, partez, zenbait esparru formaletan: administrazioan, esate baterako, euskararen erabilera zabaldu egin da dudarik gabe (XVIII. mendean, argi azaldu denez, esparru ho-

rietatik erabat edo ia erabat bazterturik zegoen euskara). Laburbilduz, hizkuntza natural ororen belaunez belauneko jarraipena ziurtatzen duten jardungune nagusietan ahuldu egin da euskararen erabilera, are Donostiako hiztun-talderik euskaldunenean. Aldi berean, H-esparruko harreman-sare batzuetarako aukera zabaldu egin da nabarmen (kutxa-banku batzuetan diru-kontuak euskaraz bidera litezke orain hein ohargarrian, demagun), eta prestigioari lotutako zenbait esparrutan eta jardungunetan ere ohargarrizko aukera edo tokia hartu du; horren bidez, bere jendaurreko agerpena indartu egin da gutxi-asko.

Hurrengo taulak eman nahi du, lehen hurbilketa gisa, Donostiako A*-hiztunen mintzajardunaren eta irakur-idatzizko jardunaren nagusitasun-moldaera:

7. Taula: **Hizkuntzen nagusitasun-moldaerazko taula. 2011ko A*-hiztunak**

<table>
<tr><td colspan="12">2011ko A* - hizkuntzak: euskal hiztun trinkoak</td></tr>
<tr><td colspan="12">Erdaraz baino maizago edo erdaraz bezain maiz egiten dute euskaraz etxean, lagunartean eta zenbait eremu formaletan.</td></tr>
<tr><td colspan="12">Donostiar guztien % 17 dira.</td></tr>
<tr><td colspan="2" rowspan="3">Jarduera</td><td colspan="12">Jardunguneak</td></tr>
<tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td><td colspan="2">6</td><td>8</td><td>9</td><td colspan="2">10</td></tr>
<tr><td>Etxea + familia</td><td>Lagun-artea</td><td>Herri - giroa</td><td>Aisia + kirola</td><td>Lantokia</td><td>Salerosketa
Euskald</td><td>Erdald</td><td>Adm + agint</td><td>Info - hedap</td><td colspan="2">Hezkuntza formala
Eskola | Uniberts</td></tr>
<tr><td rowspan="2">A</td><td rowspan="2">Entzun</td><td>eus</td><td>eus</td><td>erd</td><td>erd</td><td>eus
bietara
erd</td><td rowspan="3">eus</td><td rowspan="2">erd</td><td>eus</td><td>eusk
gazt
ing</td><td>eus</td><td>eus</td></tr>
<tr><td>erd</td><td>erd</td><td>eus</td><td>eus</td><td></td><td>erd</td><td>eus</td><td>erd</td></tr>
<tr><td rowspan="2">B</td><td rowspan="2">Hitz egin</td><td>eus
erd</td><td>eus
erd</td><td rowspan="2">erd</td><td rowspan="2">erd</td><td>eus
bietara
erd</td><td rowspan="2">eus</td><td rowspan="2">erd</td><td rowspan="2">eus</td><td></td><td>eus</td><td>eus</td></tr>
<tr><td>eus</td><td>eus</td><td>erd</td><td>eus</td><td>eus</td></tr>
<tr><td rowspan="2">C</td><td rowspan="2">Irakurri</td><td>eus
erd</td><td>eus
erd</td><td rowspan="2"></td><td rowspan="2"></td><td>erd
eus</td><td rowspan="2"></td><td rowspan="2"></td><td>erd
eus</td><td>erd
eus</td><td>eus
eus</td><td>eus
gazt
ing</td></tr>
<tr><td rowspan="2">E</td><td rowspan="2">Idatzi</td><td>eus
erd</td><td>eus
erd</td><td rowspan="2"></td><td rowspan="2"></td><td>erd
eus</td><td rowspan="2"></td><td rowspan="2"></td><td>
gast
</td><td>erd
eus</td><td>eus
eus</td><td>eus
erd</td></tr>
</table>

Iturria: egileek moldatua

7.4.2.2. B-hiztunak: tarteko hiztun elebidunak*

Bigarren hiztun-talde euskalduna XXI. mendearen hasiera honetan, B*-hiztunena da. Hiztun-talde honetakoa da donostiarren % 14a. Nolabait behar eta, tarteko elebidun hiztunena. Hiztun horiek erdaraz egiten dute euskaraz baino maizago etxean, lagunartean eta zenbait eremu formaletan. Egin ez ezik jakin ere bai, antza: adierazpide eta mintzagai gehienetan errazago moldatzen dira erdaraz. Hiztun-talde honetako gazte gehienentzat euskara da, erdara ordez, eskola-esparru formaleko (ez pausaldiko harreman informaletako) hizkuntza nagusia. Hori da, dudarik gabe, Donostiako B*-hiztunon gaur egungo jardungunerik eta harreman-sarerik euskaldunena. Gainerako jardungune, harreman-sare eta rol-harremanetan erdara dute hizkuntza nagusi. Batezbesteko egoera hori izanik ere, euskarak badu gaur egun ezin ukatuzko presentzia (askotan sinbolikoa, besteetan operatiboa) eskolaz kanpoko hainbat jardueratan: tartean, kirolean eta kultura-emankizunetan. Hona, besterik gabe, hiztun-talde horren ahozko eta irakur-idatzizko jardunaren nagusitasun-moldaera adierazi nahirik lehen hurbilketa gisa (eta hoberik ezean) prestatu dugun taula.

8. Taula: **Hizkuntzen nagusitasun-moldaerazko taula. 2011ko B*-hiztunak**

2011ko B* - hizkuntzak: tarteko hiztunak												
Euskaraz baino maizago egiten dute etxean, lagunartean eta zenbait eremu formaletan.												
Donostiar guztien % 14 dira.												
Jarduera		**Jardunguneak**										
		1	**2**	**3**	**4**	**5**	**6**		**8**	**9**	**10**	
		Etxea + familia	**Lagun-artea**	**Herri - giroa**	**Aisia + kirola**	**Lantokia**	**Salerosketa**		**Adm + agint**	**Info - hedap**	**Hezkuntza formala**	
							Euskald	**Erdald**			**Eskola**	**Uniberts**
A	**Entzun**	erd	erd	erd	erd	erd	eus	erd	erd	erd	eus	erd
		eus	eus	bietara	bietara	bietara	bietara		bietara	bietara	bietara	eus
							erd					
B	**Hitz egin**	erd	erd	erd	erd	erd	eus	erd	erd	erd	eus	erd
		eus	eus	bietara	bietara	bietara	bietara		bietara	bietara	bietara	eus
							erd					
C	**Irakurri**	erd	erd			erd			erd	erd	eus	eus
		bietara	eus			eus			bietara	eus	bietara	gazt
												ing
E	**Idatzi**	erd	erd			erd			erd	erd	eus	erd
		bietara	eus			bietara			bietara	bietara	bietara	eus

Iturria: egileek moldatua

7.4.2.3. Donostiako C-hiztunak: 2011-2016ko erdal hiztun petoak*

Esandakoak esan direlarik ere, hizkuntzaren eguneroko erabilera arruntari lotutako hiztun-talderik handiena C*-hiztunena da Donostian, XXI. mende hasiera honetan. Donostiar guztien % 69a talde honetakoa da, 2011-2016ko datuen argitan. Donostiako erdaldun petoen taldea osatzen dute, nolabait esateko, C*-hiztunok. Hiztun horiek ez dute erdaraz baino hitz egiten: normalean gaztelaniaz, baina badira etorkin-multzo alofonoak ere tartean. Erdara (nagusiki gaztelania) dute mintza-, irakur- eta idazpide bakar, jardungune, harreman-sare, rol-harreman eta adierazpide guztietan. Euskara Donostiako bigarren hizkuntza nagusia izanik, eta euskaldun sare trinkorik badelarik bertan, C*-hiztun horiek badute nolabaiteko kontakturik euskarazko jardunarekin, hitzez edo (kale-errotuluetan, denda-izenetan, autobusetako publizitatean...) irakurriz. Euskara entzun egiten dute han-hemen, zenbaitetan ugari, eta azaldu berri ditugun errotulu-iragarkietan ere ikusi egiten dute euskara: ez dira hartaz baliatzen, baina ez zaie erabat arrotz gertatzen (gogoratu, era antimetrikoan, 1761-1766ko donostiar euskaldun elebakarrei erdar(ar)ekin zer gertatzen zitzaien). Hiztun-talde horretako donostiar gazteenen kasuan presentzia handiagoa ere badu euskarak, hezkuntzaren esparru formalean. Hortik kanpora ezin esan liteke, ordea, solaskide jakinak edo ingurumen-testuinguruak beharturiko kasu mugatuetan izan ezik, euskaraz jarduten dutenik era operatiboan. Eskola-urteetan euskara ikasten dute gutxi-asko, baina handik kanpora erabiltzen ez dutenez, ez dute mintzatzeko, irakurtzeko eta idazteko gaitasun sendorik eskuratzen euskaraz. Mintzajardunaren eta idazjardunaren nagusitasun-moldaera bildu nahi izan dugu taula honetan, hurbilketa moduan orain ere, baina agian aurreko zenbait kasutan baino asmatzeko ziurtasun gehiagorekin.

9. Taula: **Hizkuntzen nagusitasun-moldaerazko taula. 2011ko C*-hiztunak**

2011ko C* - hizkuntzak: Erdal hiztun petoak												
Batetik elebarrak (gaztelanaiz bakarrik dakite eta hala ere egiten dute), bestetik hainbat elebidun - eleanitz (tartean alofonoak)												
Donostiar guztien % 69 dira.												
Jarduera		**Jardunguneak**										
		1	**2**	**3**	**4**	**5**	**6**		**8**	**9**	**10**	
		Etxea + familia	**Lagun-artea**	**Herri - giroa**	**Aisia + kirola**	**Lantokia**	**Salerosketa**		**Adm + agint**	**Info - hedap**	**Hezkuntza formala**	
							Euskald	**Erdald**			**Eskola**	**Uniberts**
A	**Entzun**	erd	erd	erd	erd	erd	erd	erd	erd	erd	bietara	erd
			bietara	eus	eus	bietara	bietara		bietara	bietara	eus	bietara
B	**Hitz egin**	erd	erd	erd	erd	erd	erd	erd	erd	erd	bietara eus	erd
C	**Irakurri**	erd	erd			erd		erd	erd	erd	bietara eus	erd
E	**Idatzi**	erd	erd			erd		erd	erd	erd	bietara eus	erd

Iturria: egileek moldatua

7.4.2.4. Donostiako egoera soziolinguistikoa: 2011. urteko datu soziolinguistikoen gaineko gogoeta-saioa.

Orain arte azaldutakoa eta Olatz Altunak eta Maialen Iñarrak aurreko atalburuan aurkeztutako datuak oinarri hartuta, honako ondorio hauek atera daitezke Donostiako 2011-2016ko egoera soziolinguistikoaz:

a) Etxean, lagunartean eta eremu formalean beti erdaraz ari dira 16 urtetik gorako donostiar gehienak: % 63,6. Gaztelaniaz baino gehiago euskaraz egiten duten donostiarrak, aldiz, % 7,6 dira eta % 10 inguruk proportzio bertsuan erabiltzen ditu bi hizkuntzak. Donostiarren % 82,3rentzat erdara da, hortaz, hiru jardungune horietan erabilitako hizkuntza nagusia.

b) Auzo batetik bestera badago, bestetik, alderik: Donostiako udal-barrutiaren garai bateko euskara hutsezko gerri-buelta hura galdu egin da, eta udalerri guztiaren jarduera nagusia bateratuz doa, oro har. Badira, halere, 1761eko konpartimentazio sendo haren oihartzun-arrastoak (Igeldon eta Añorgan, Aieten eta, bereziki, Astigarragan[56]). Auzo horietan nabarmenago da, orain ere, euskal lagunarte-sarea eta, oro har, euskarazko gizarte-giroa.

c) Kalean eta etxean egiten denaren artean ez dago, antza, hain alde handirik. Etxea euskal gotorleku gisa ahulduz joan da, eta gizarte-giro estandarrera hurbildu.

d) Eskolan gora egin du euskarak, nabarmen gora, kopuruz (ikasle guztiak hartuz) eta intentsitatez (D eredua gailenduz): bai etxetik euskaldun edo euskal elebidun diren neska-mutilek, bai erdal elebidunek eta bai, are, erdal elebakar gehienek urteetako kontaktua dute orain euskararekin. Batez ere ikasgelan gertatu da kontaktu-igoera nabarmen hori: jolaslekuan ez hainbat, eta adin batetik gora askoz ere gutxiago. Unibertsitatean ere nabarmen egin du euskarazko jardunak gora.

e) Beste zenbait eremu formal-araututan ere, euskararen presentzia eta erabilera ohargarria da. Adibidez, dendetan (bezeroekin gehiago, halere, langileen artean baino), edota kultura-alorreko jaialdi-ekimenetan. Agian objektiboki aztertu beharko litzateke ea gaur egun eremu

[56] Auzoen arteko aldea argi ageri da errolden azterketa eginez. 1986ko erroldako hiru belaunaldi zaharrenen hizkuntza-gaitasuna konparatzen baditugu, Igeldo nabarmen euskaldunagoa ageri da Parte Zaharra, Zabalgune eta Gros baino. Hiru auzo horiek hurrenkera honetan ageri dira: Parte Zaharra, Zabalgune eta Gros (Camus & Gomez 2010: 231). Datu horien arabera, euskararen nagusitasunaren gainbehera XX. mendearen hasieran kokatzen da, dikataduraren bitartean bizkortu egin zelarik.

formal-arautuetan handiagoa den euskararen erabilera edo presentzia, informal-espontaneoetan baino.

f) Lan-munduan "euskal oasitxo" gisakoak sortu dira Donostian eta bere inguruan: ehunka euskal irakasle, hainbat argitaletxe eta telebista-estudio, zenbait irrati-igorle eta diskoetxe, euskaltegiak eta euskal museok, liburu- eta disko-argitaldariak, kirol- eta astialdiko euskal monitoreak, euskarazko ikerketa-etxeak (tartean hizkuntza-soziologia teorikoan eta aplikatuan ari direnak).

g) Irakurri eta idatzi lehen baino gehiago egiten da orain euskaraz: bai etxean, bai kalean, bai eskolan, bai administrazioan eta bai lanean. Eskolan izan ezik erdaraz irakurtzen eta idazten da, ordea, maizenik, askogatik.

h) Hizkuntza-alternantziarako joera nabarmena: lehen baino hedadura handiagoa du hizkuntza alternantziak. Gazteek darabilten euskararen barne-osaeran gaztelaniaren inpaktua gora doa.

i) Hizkuntza-gaitasunean, donostiarren % 40,6, astigartarren % 59,8 eta pasaisanpedrotarren % 37 ,9 euskaldunak dira. Haur eta gazteen, eta heldu eta adinekoen artean alde handia dago. Belaunaldi gazteetan euskaldun-proportzioa handiagoa da (alde horretatik Astigarraga salbuespen dugu, geroxeago ikusiko dugu zergatik).

j) Iritziz, jarreraz eta jokaeraz, donostiar gehienak euskararen alde edo oso alde dira: (% 61,5); nabarmen gutxiago daude aurka edo oso aurka (% 8,1).

7.4.2.5. XVIII. mendearen erdialde beranteko Donostia "nagusiki euskaldun"etik XXI. mende hasiera honetako Donostia "nagusiki erdaldun"era: bestelakotze-prozedura (tartean mintzaldaketa) nola joan da?

XVIII. mendearen erdialde beranteko eta XXI. mendearen hasierako Donostiak, goian ikusi dugunez, aski diferenteak dira hizkuntzen erabilerari eta giro soziolinguistikoari dagokienez. Eguneroko mintzajardun arruntari dagokionez oso nagusiki euskaldun zen egoera batetik, oso nagusiki erdaldun den beste batera pasatu da. Balantzea ezin da, L-esparru horretan, ezkutatu: atzerakada bizia izan du euskarak Donostian, azken 250 urteotan, eguneroko mintzamolde arrunt gisa. Hori horrela izanik ere, atzerakadaren neurria perspektiba zabalagoan azter liteke. Esate baterako, Mendebalde aurreratuko hiztun-herri txiki-ahulduen bilakaera orobat (oro har, ia beti) negatiboaren argitan. Ahuldutako hizkuntza

horiekin (ez, halere, katalanarekin) konparaturik, osasun-eskala graduatu horretan nahiko (hots, erlatiboki, ez absolutuki) osasuntsu dago euskara, gaur egun, Donostian. Hala dira gauzak, konparatiboki. Joeraren balantze globala, absolutua, ez du eskala horrek indargabetzen, baina kontuok xeheago arakatzeko lagungarri gerta liteke. Balantze globalera itzuliz, gatozen harira: beheranzko bilakaera soziolinguistiko honek hainbat galdera azaleratzen digu: nola pasatu gara 1761eko egoera hartatik 2016ko honetara? Zer aldaketa gertatu dira, oro har? Noiz hasi ziren aldaketa horiek? Zein erritmotan egin dute aurrera, eta nola dihardute egungo egunean?

Historikoki euskalduna izandakoa da Donostia, beste hizkuntza batzuk presente izan direlarik ere bere sorreran bertan (ezagun ditugunetan gaskoia eta gaztelania: hori baino nabarmen lehenago, agian latina). Gaur egun gaskoia desagerturik dago Donostiako mintza-esparrutik eta gaztelaniak nagusitasuna hartu dio euskarari. Ikusi dugun moduan, XVIII. mendean euskara jaun eta jabe zen Donostiako esparru geoterritorrialean, oraindik. Badirudi Donostiako bilakaera soziolinguistikoaren prozesua luzea izan dela, ia bi mende behar izan dira Donostiako giro soziolinguistikoa eraldatzeko. Soziolinguistikaren ohiko kontzeptuak eta banaketa teoriko-praktikoak kontuan harturik, prozesu hori bost fase nagusitan bana daiteke. Ikus ditzagun banan-banan:

1. 1761-1813. Denbora tarte hori gure azterlanaren hasieran hasten da eta Donostiako sutearekin bukatzen da. Donostiako hizkuntza nagusia euskara da garai horretan, eta egitura eta ohitura zaharrei jarraituz segitzen du hiriak. Hiribilduan gaztelaniak nolabaiteko presentzia dauka, baina mugatua da, eta euskararen nagusitasuna ez da zalantzan jartzen: biztanle gehien-gehienek euskaraz baino ez dakite, biztanle batzuek zerbait dakite erdaraz, eta gutxi batzuek erdara bat baino ez dakite edota beste hizkuntza horretan hobeto moldatzen dira euskaraz baino.

2. 1813-1876. Donostia erre ondoren foruak galdu bitartean, bigarren epe bat irekitzen da. Epe honetan aldaketa "sozio"agoa da "linguistikoa" baino. Bitarte horretan hiria handitzen da demografikoki eta hiribildua ere handitzen da, harresia 1863an desegin ondoren. 10.000 biztanle izatetik 20.000 biztanle izatera pasatzen da Donostia. Defentsa militarrerako pentsatutako hiria izatetik hiri administratiboa izatera igarotzen da. Gipuzkoako hiriburu bakarra bihurtzen da 1854an, esate baterako, eta komertzioa indartzen joaten da. Euskarak segitzen du Donostiako eta donostiarren hizkuntza nagusia izaten, elebakarrak nagusi direlarik. Hori bai, hiribilduan elebidunen kopurua handituz doa epe horretan. Donostiarren % 40 inguru joaten zen eskolara eta gaztelaniaren maila jakin bat eskuratzen zuen hezkuntzaren bitartez. Horiez gain eskolara

joan gabe erdaldunekin zituzten harremanengatik oinarrizko gaitasun bat gaztelaniaz eskuratzen zituztenak kontuan hartu behar dira. Modu horretan, Donostiako biztanle erdiak gaztelaniaren ezagutza modu bat izango zuen (Camus & Gomez 2010: 230). Batzuek maila jasoa eta are gaztelania euskara baino hobeto jakingo zuten, baina gehienak ahozkoan euskaraz hobeto moldatzen ziren. Horren lekukotza utzi zuen Manterolak, dagoeneko ikusi dugun moduan: "el vascuence es la lengua más popular" baina "hoy se ha generalizado bastante el castellano, especialmente en San Sebastián" (1871). Ikusten dugunez, gaztelaniaren *language spread* hasten da Donostiako historiaren epe honetan.

3. 1876-1936. Garai horretan, Mendebaldeko gune industrial gehienen moduan, eztanda demografikoa gertatzen da. Hiria 100.000 biztanle izatera pasatzen da, baserri munduan euskara eta elebakartasuna nagusi badira oraindik ere, hirigunean gaztelaniaren zabalpen indartsua gertatzen da (*language spread*). Hala eta guztiz ere, euskarak jarraitzen du hiriburuaren hizkuntza nagusia izaten, historikoki propioak dituen eremu soziofuntzionaletan eta jardunguneetan gutxienez.

4. 1936-1979. Garai honetan aldaketa bortitza gertatzen da. Euskararen gainbehera indartsua da hainbat arrazoirengatik: Francoren diktadura, euskararen aurkako eta gaztelaniaren aldeko politikak, EHtik kanpoko immigrazio handia, etab. Aurreko faseetan gaztelaniaren zabalpena gertatu bazen, bereziki hiztunen hizkuntza-gaitasuna aldatuz (*language spread*), garai honetan soziolinguistikaren alorrean *language shift* deitzen den fenomenoa gertatzen da. Hiztunek haien erabilerak aldatzen dituzte: historikoki euskarari lotuta zeuden hainbat esparrutan eta jardungunetan, erdara, gaztelania, erabiltzen hasten da eta erabilera hori zabaldu egiten da. Familiaren jardungunea, lagunarte gertukoa, zenbaitetan auzoko bizitzarena eta eguneroko salerosketa esparruak euskaraz izatetik gero eta gehiago erdaraz burutzen dira. Garai honetan hainbat mendez iraun zuen diglosia gesaltzen joaten da. Euskararen mintza-esparru propio zehatzak eta esklusiboak galtzen hasten dira. Euskarak bere-bereak zituen esparruak gero eta gehiago konpartitu behar ditu erdararekin, eta euskaldunen eremu pribatuko erabileran pixkanaka tokia bereganatzen du erdarak (telebistan, irratian, gaztelaniaz jasotako informazioak gaztelaniaz komentatzen direlako, etab.). Hala eta guztiz ere, epe horretan familia eta gertuko komunitatea jarraitzen dute, oraindik ere, euskararen gotorlekuak izaten. Epe honen bukaeran euskararen aldeko gizarte-mugimenduek indarra hartzen dute, eta euskara demokraziarekin eta askatasunarekin lotzen da (Zalbide 2021).

5. 1979-2016. Garai honetan hainbat indar soziolinguistiko sartzen dira lehian. Alde batetik, aspaldiko bideari eutsiz eta emendatuz, euskararen gainbehera dugu. Mendeetan zehar indarra galtzen joan da euskara, azken fasean biziki indartu delarik hizkuntza horren beherakada. Bestetik, gainbeherako indar horri euskararen aldeko oldarra kontrajartzen hasi zaio: gizarte-mugimenduetan oinarrituta hasiera batean, Euskaltzaindiaren paper aktiboarekin (Zalbide 2021) eta nolabaiteko babes instituzionalarekin ondoren, Gernikako estatutu berriarekin euskararen aldeko politikak eta plangintza abian jarri baitira.

Hizkuntzari zuzenean lotutako bi indar horiei gizarte-giro zabalaren alorreko beste hainbat faktorek ere gero eta eragin handiagoa dute euskarak Donostian ageri duen egoera soziolinguistikoan: egoera konkretuan eta, oro har, bere bilakaeran. Elementu berria erantsi zaio horri, munduko bazter gehienetan bezala, azken garaian: komunikazioaren teknologiak gizartearen egitura eta gizabanakoon mundu-ikuskera osoa birmoldatzen hasi dira. Horren parez pare, berez lehentxeagotik abiatuz, jaiotza-tasaren gainbehera nabarmena gertatu da Euskal Herrian oro har, eta Donostian bereziki. Horrek euskararen etorkizuna, egunerokoaren jardunean erabiltzeko hizkuntza gisa, larriki arriskuan jartzen du. Eta horri guztiari, jakina, migrazio-fluxuen alorreko aldakuntza nabarmenak erantsi behar zaizkio: bertako gazte asko (unibertsitate alorreko ikasketak egin ondoan, edo bestela) Donostiatik eta are Euskal Herritik kanpora ari da (aldi baterako? betiko?) bizi izatera joaten, eta mundu zabaleko etorkinak ugarituz doaz hirian, bere moldaera soziolinguistikoa are nahas-bihurriagoa moldatuz.

Indar horien arteko talkak zaildu egiten du egungo egoera soziolinguistikoaren irakurketa eta balorazioa. Ezinbestean multifaktoriala izan behar du irakurketa horrek, aniztasunaren eta konplexutasunaren parametroak kontuan hartu behar ditu (Morin 2005, Zalbide, Joly, Gardner 2015)[57]. Alde batetik, asko irabazi du euskarak, Donostian bereziki, esparru formaletan eta irakur-idatzizko planoetan: errotulazio publikoa da, seguruenik, horren lekuko argiena. Au-

[57] Indarren lehia begi bistan ageri da Donostiako eremu geoterritorial diferenteak konparatzen baditugu. Gune batzuk, esate baterako, historikoki euskaldunagoak ziren, eta bertan ageri den egoera, hizkuntzaren erabilerari dagokionez, inertzia historikoaren jarraipena da. Astigarraga da egoera horren adibide nabarmena. Belaunaldiz belaunaldi oinordetzan jasotako euskara inertziaz erabiltzen da han. Hizkuntza-gaitasunaren datuak ere inertzia horren lekuko dira Astigarragan. Adin talde zaharrenek euskararen ezagutza handia dute oraindik ere, esate baterako. Lafont-ek okzitanista famatuak euskara *hérité* aipatuko zukeen kasu horretarako (Lafont 1997). Donostiako beste eremu batzuetan euskararen berreskurapenaren indarrak gehiago ageri dira, eta kasu horietarako Lafont-ek euskara *reconstitué*/*retrouvé*/*assumé*/ – berreskuratzen ari dela aipatuko zukeen. Aurreneko kasuan, normalean, gizonezkoek emakumeek baino gehiago erabiltzen dute hizkuntza, zaharrek gehiago dakite, presentzia soziala handiagoa du. Alderantziz, bigarren kasuan emakumeek gizonezkoek baino gehiago erabiltzen dute, adin talde zaharrenetan euskararen hizkuntza-gaitasun maila baxuagoa da eta kalean egiten den erabilera mugatuagoa da. Horiek, noski, ezaugarri nabarmenenak dira eta gaur egun ez dira izaten hain argiak; orain dela 20 urte, aurreneko aldiz bereizi genituenean bi indarrok askoz agerikoagoak ziren eta herrien arteko banaketa soziolinguistikoa bi parametro horien arabera errazago egiten zen, datu makrosoziolinguistikoak erabiliz (Joly 2004).

rreko mendeetan administraziotik eta hezkuntzatik, hedabideetatik eta, oro har, H-esparru gehienetik hain bazterturik egon ondoan, "bere tokia" hartuz doa euskara, hezkuntza-esparruan bereziki. Bestetik, diglosiaren ildotik mendez mende bere-bereak izandako jardunguneetan, ordea, bestela joan dira kontuak. Oro har erdarak hartu ditu eguneroko mintzajardun arruntaren harreman-sare, rol-harreman eta mintzabide gehienak. Erdarak hartu ditu bere mende edota, zehazkiago, hartaz nagusitzen ari da urratsez urrats. XX. mendearen azken herenean, XXI. mendera arte, badirudi indarberrituz zihoala euskara Donostian. XXI. mendearen hasierako datuek, ordea, "berreskurapenean" moteltze modu bat gertatu dela adierazten dute. Euskalgintzaren mugimendua nagusiki borondatezkoa eta aktiboa zen, gizartea aldatu ahala, eta sektore guztiak profesionalizatu ahala, euskalgintza bera ere profesionalizatu egin da.

XXI. mendearen hasierako aldaketa teknologikoak gizarte egituraren esparru guztietan aldaketa bortitzak eragin ditu, bereziki gizartearen osaera psikosozialean eta bere osaera soziokulturalean, baina baita bere osaera ekonoteknikoan, politiko-operatiboan eta demografikoan ere. Norbanakoon kosmobisioaren eraikuntza familiatik eta gertuko testuinguru fisiko-sozialetik osatzetik, urruneko eta birtualak diren esparruetatik eraikitzen hasi da, kanpoko esparru berri horiek nagusiki erdaldunak direlarik. Pantailetan ageri diren baloreek gero eta toki handiagoa hartu dute, familiaren baloreei eta gertuko komunitatearen baloreei gainjarriz. Fenomeno hori familian eta gertuko komunitatean bertan ere gertatu da, balore berriak besarkatu direlako eta denon buruetan inkontzienteki sartu direlarik balore horiek.

Gertuko komunitateari lotutako indar eta balore praktikoak ahuldu egin dira eta euskara beraiekin batera. Pantailek homogeneizazio eta uniformizazio fenomenoak sortu eta indartu dituzten bitartean, hizkuntzari dagokionez erdararen aldeko indar zentripetuak indartu egin dituzte. Hizkuntzen erabileraren ikuspuntutik, pantailen hizkuntzak gaztelania eta ingelesa izanik oso nagusiki, hizkuntza horiek indartuta gelditzen dira, hiztunen gaitasuna hizkuntza horietan jasoagoa delarik. Energia eta baliabide kognitiboak mugatuak daudenez, euskararen hizkuntza-gaitasuna ahuldu egiten da bitartean (Joly 2022). Praktikoago eta errazago izanik erdararen erabilera, hiztunak ez du nahiko indar emozional eta kognitiborik euskararen erabilerak eskatzen duen gainesfortzua egiteko. Hiztunek, gainera, gero eta baliabide kognitibo eta emozional gutxiago dituzte gainesfortzu horiek egiteko edota epe luzeko helburuen plangintza egiteko, pantailetan ageri diren estimuluek burmuinaren ahalmen horiek ahultzea baitakarte (Joly 2022).

Modu horretan euskara indartu egin da zenbait jardungune formaletan, baina hizkuntzen iraupena ziurtatzen duten jardunguneetan (*self-talk*, gertuko komunitatea, familia…) ahuldu egin da, hainbat modutan ahuldu ere: 1) oraintxe ikusi dugun bezala, hiztunak euskara erabiltzeko energia, motibazioa eta gaitasuna (ez hizkuntza-gaitasuna, gaitasun emozional eta kognitiboa baizik) galdu egin ditu partez; 2) gertuko komunitatearen eta familiaren tokia gero eta txikiagoa da norbanakoon bizitzan, hiztuna lehen baino denbora gutxiago dago gertuko komunitate horrekin eta askoz denbora gehiago dago pantaila baten aurrean (batez beste 7-11 ordu egunero -Joly 2022-), pantaila horiek zabaltzen duten kosmobisioa eta erreferentziak inkontzienteki barneratzen dituelarik hiztunak; 3) gertuko komunitatean ere pantailak eta pantailen baloreak sartu egin dira, eta, pantaila horien hizkuntza eta haiei lotutako gizartearen hizkuntza erdara izanik, euskararen eremu pribatuenetan sartu da erdara. Modu horretan, aspalditik deskribatutako *Gemeinschaft* giroko gizarte-moldetik *Gesellschaft* eredukora pasatu gara (Tönnies 1887). Gizarte-molde eta bizi-giro berri horretan, euskararen erabilerak aurrera baino atzera egiteko aukera zabalagoak ditu, besteak beste direla. Oro har, euskaraz egin izan da luzaro gertuko (aurrez aurreko edo hurbileko) bizimodua. Gizarte-molde berrian, aldiz, gero eta toki meharragoa du hiztunak (esna ematen dituen ordu kopuruan) euskarazko solaskide, harreman-sare eta "euskal" jardunguneak aurkitu eta hautatzeko. Erdaraz (-ez) mundu birtualari lotutako espazioarekin, aitzitik, gero eta harreman handiago du eta horrek, lehen ez bezala, ondorio larriak ditu benetako espazio fisikoan: euskararen espazio bizia mehartuz joan da, eta erdarazkoa hedatzen.

7.5. AZKEN HITZAK

Bilakaera soziolinguistiko handia izan du Donostiak (zehazkiago donostiarrek, zahar eta berri) azken 250 urteetan. Eskaini nahi izan dugun bidaian, Gipuzkoako hiriburuak 250 bat urtez izandako aldaketa bortitza zehazten saiatu gara. Donostia handitu egin da, lehen-lehenik, demografikoki bizkor hazi (inoiz lehertu) eta soziologikoki eta kulturalki gogor eraldatu. Hizkuntza-soziologiaren aldetik, mintzajardunaren giza arteko moldaerari dagokionez alegia, hiri (eta, batez ere, hiri-alde) euskalduna zen Donostia eguneroko bizimodu arruntean. Handik abiatuta, eguneroko gizarte-bizitza nagusiki erdalduna den egoera batera pasatu gara bi mende eta erdian. Euskararen erabilera eta Donostiako kaleetan entzun-irakur litekeen hizkuntza-gaitasuna eraldatu egin dira nabarmen. XVIII. mendearen erdialde berantean hiria hizkuntza aldetik egoera egonkor eta argi konpartimentatuan zegoela zirudien. Gaur egungo Donostia, gaztelaniaren erabateko nagusigoaz, eguneroko mintzajardun arruntean (eta, zer esanik ez, H-esparruari dagozkion jardungune, harreman-sare eta adierazpide gehienetan) oso aldakorra bihurtu da eta deskribatzeko askoz konplexuagoa da. Bakarra ez bada ere, eskola-mundua da joera nagusi horren kontra-adibide argiena, gaurkoz.

Hizkuntzen erabilerari dagokionez, euskara entzuten zen 1761ean, nagusiki, Donostiako kalean. Hiriaren harresietatik kanpora, berriz, jaun eta jabe zen euskara. Hiribilduan, harresi barruan, kale-neurketarik egin izan balitz, egun arruntean entzun zitezkeen 100 elkarrizketatik zenbat izango ote ziren euskaraz: % 80 inguru?[58] Gainerako gehienak gaztelaniaz izango ziren, gutxi batzuk frantsesez eta bakan batzuk atzerriko hizkuntzaren batean. Pasaia aldean gaskoi pixka bat ere entzungo zen artean, baina ez zen bertako hizkuntza nagusia. XXI. mendean, aldiz, gaztelania da, askogatik, Donostian gehien entzuten den hizkuntza. Kale-neurketen arabera, 100 elkarrizketatik 80 baino gehiago erdaraz egiten dira, 15 euskaraz eta 3 beste hizkuntzaren batean. Datuak hein bat desberdinak dira, orain ere, Astigarragan: 100 elkarrizketatik 70 gaztelaniaz eta 30 euskaraz; bere mugatuan ere, Donostiako erdialdeko erabileraren doblea, beraz.

Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, XVIII. mendean elebakartasuna aski gauza ezaguna zen Donostian (hiria bere osoan harturik, kale eta baserri): euskaldun elebakarrak ez ziren aparteko bitxitasuna. Horrezaz gainera, hiztun-talde esanguratsu batek bazekien bai euskaraz eta bai gaztelaniaz (kasuz kasu zehazten zaila den nagusitasun-moldaeraz). Batez ere frantsesa eta latina kontuan hartuz, bazen Donostian, azkenik, eleaniztunik ere: irakurmen alorrean izango ziren horiek, seguru asko, ugarien. Gaur egun, berriz, zabal dabil eleaniztasuna. Sei urtetik gorako donostiar euskaldun guztiek badakite gaztelaniaz ere. Hori bakarrik ez: donostiar elebidun horietariko gehienek gaitasun jasoagoa dute gaztelaniaz euskaraz baino. Are gehiago, gero eta Donostiako euskaldun gehiago eleaniztuna da; euskaraz eta gaztelaniaz gainera, beste hizkuntza batean edo gehiagotan badu gutxieneko ezagutza, esate baterako, ingelesez edota frantsesez.

Erabiltzen den euskara motari dagokionez, orobat, aldaketa handiak gertatu dira. XVIII. mendearen erdialde beranteko gizartean hiztun gehienen hizkuntza bakarra edo nagusia izanik euskara, erdararen eragina ez zen gaur bezain sarkorra. Askorentzat hizkuntza esklusiboa edo nagusia izanik ere, gizabanako haien aldaera-sorta mugatuagoa zen: mintzamolde informal-lagunartekoetan, (gertuko, sarri aurrez aurreko) solaskidetzan, jarduten zuten orduko donostiar haiek. Goi-mailako mintza-esparruetan eta idatzizko jardunean erdara baino ez zen ia erabiltzen. Euskarak ez zuen esparru horietan erabilia izateko garapen handirik izan, termino soziologikoetan. Larramendik, Mendiburuk eta Kardaberazek azken urteetan egindako saioa bere uzta sortzen hasia zen protoelite euskaltzale jakinetan; ez, ordea, luze-zabal Donostian barrena. Aitzitik, XXI. mendean, tartean euskara batuari esker, esparru gehiagotan erabil daiteke euskara, eta lehen baino zailduagoko tresna baliagarria bihurtu da. Benetan erabiltzen den hiz-

[58] Gaur egungo kale-neurketen emaitzetatik inferentzia eginez, euskararen erabilera horrelako kopuruetan ibiliko zela, % 80 inguruan (gutxienez), pentsa liteke.

kuntzari begiratzen bazaio, aldiz, erdarakadez jositako aldaerak ez dira inolako salbuespen egungo egunean. Nahas-euskara hori aski ohikoa bihurtzen ari da, donostiar gazteen artean bereziki (liburu honetan: 381-382).

Euskararekiko jarrerei dagokienez, XVIII. mendean euskara ohiko hizkuntza zen eta gaztelania goi-mailakoen hizkuntza. Alde horretatik, aurreiritzi batzuk lotuta egongo ziren hizkuntza bakoitzarekin. Halaz guztiz ere, ez dirudi orduko donostiarren artean euskararen kontrako iritziak oso zabalduak zeudenik[59]. Hizkuntza jasoa (H) gaztelania zen oro har, baina eguneroko jardunerako aparteko baliagarritasuna zuen euskarak: erdarak baino nabarmenki handiagoa espazio soziofuntzionalaren jardungune, harreman-sare eta adierazpide arruntenetan. Ezinbesteko hizkuntza zen euskara Donostiako herri xehearekin eta, batez ere, baserritarrekin hitz egiteko. Neurri ohargarrian, hizkuntzen konpartimentazio hori (luze-zabal hedatua eta aski iraunkor izateaz gainera) gizarte haren egitura sozialaren ispilu zen. XXI. mendean, egiten diren galdeketen argitan, euskararen alde daude donostiar gehienak: euskara erabiltzearen eta sustatzearen alde ageri dira, nahiz eta benetako jokabide praktikoa maiz asko bestelakoa den.

Hizkuntza-soziologiaren ikuspuntutik, XVIII. mendearen erdialde beranteko Donostia hartan egoera diglosikoan zegoen, alde askotatik begiraturik. Euskara zen Donostiako hizkuntza nagusia, eguneroko mintzajardun arruntean ia erabatekoa, eta donostiar gehienen ama-hizkuntza, itxura osoz. L hizkuntza gisa nagusitasun argia zeukan hizkuntza, konpartimentazio klasiko horren arabera, aginte-esparrutik, maila idatzitik eta aginteari lotutako esparruetatik kanpora gelditzen zen normalean. Egoera horrek belaunez belaun irauten zuen, eguneroko jarduera arruntean, familian eta gertuko komunitatean transmititzen zelarik euskara.

Luze-zabaleko konpartimentazio-molde egonkor hura apurtuz joan zen Donostian, batez ere XIX. mendean eta XX.ean. XXI. mendearen hasieran, diglosia-egoera amaitu egin da gure artean, erabat ez bada, ia erabat. Gaur egun ez dago Donostian luze-zabaleko banaketa soziofuntzional zorrotzik euskararen eta erda(ra)ren artean. Donostiako jardungune askotara (gehienetara) iritsi da euskara, alde batetik, idatziz ere hainbatean erabiltzen da (hezkuntza munduan bereziki), eta zabal onartutako eta (ez hain zabal, baina hein ohargarrian) zabaldutako eredua (euskara batua) indarrean dauka. Bere-bereak izandako jardungune gehienak ahuldu egin zaizkio, belaunez belauneko galbidean, eta gehienak erdarak bereganatu ditu. Oraingo egoera berri hau orekatuagoa da, bestalde, bi hizkuntzen arteko mailakatze formala hain handia ez delako. Orain ez dago (ez

[59] Donostian bizi ziren kanpotarren artean, ordea, baliteke aurreiritziak zabalduagoak izatea, horren lekukotasunak dokumentatuta daude behintzat (AGG-GAO COCRI 81,12 eta AGG-GAO CO CRI 81, 10).

lehengo neurrian, eta ez lehengo banaketa-irizpide trinkoz) H hizkuntza batetik eta L bestetik. Orduko hura baino ilaun-nahasiagoa da, izatekotan, oraingo nagusitasun-moldaera.

Motibo horiek eta demografiazko joerak direla medio, hizkuntzaren etorkizuna eta egoera ez da XVIII. mendekoa bezain segurua hizkuntzaren belaunez belauneko iraupen-ahalmenari dagokionez. Alde batetik, euskal hiztunen ehunekoa lehen baino nabarmen urriagoa da, nahiz eta zenbaki absolutuetan XVIII. mendean baino euskaldun gehiago bizi den Donostian. Hirian euskaraz hitz egiteko aukera, XVIII. mendekoa baino txikiagoa da. Diglosia galdu izanarekin batera, Donostiako euskaldun jendeak lehian ditu bi hizkuntzak (erdara eta euskara) jardungune gehien-gehienetan. Horrek zaildu egiten du euskararen erabilera hainbat arrazoirengatik: gaitasuna ez da hizkuntza bietan maila berean garatzen, etab. Horrezaz gainera, gizabanakoon baliabideak mugatuak direnez, euskaraz egiteak gainesfortzua baldin badakar, motibazio bereziak izan beharko ditu egungo euskaldunak bere hizkuntza erabiltzeko. Muga-oztopo horiek guztiak, eta beste hainbat gehiago, hor daude: arazo latz horri ez da iskintxo egitea komeni. Kontuak horrela izanik ere, badago basoa erdi betea ikusteko modurik: Europako eta munduko hizkuntza ahulduen artean, konparazioz alegia, aurre samarrean dago euskara. Bestek baino osasun hobea izateak poztu egin behar gaitu, jakina. Bere neurrian hartu behar da, ordea, pozbide hori: gaixo larriak ez du hori jakitearekin aski; osasuna (osasun betea ez bada ere, bizirik irauteko adinakoa) berreskuratu artean ez dago lasaitasun-oinarri sendorik euskaltzaleontzat. Osasuna berreskuratzeak, jakina, badakigu gutxienez zer eskatzen duen: donostiarron (donostiar guztion multzo esanguratsu eta iraunkor baten) artean euskara ama-hizkuntza gisa belaunez belaun transmititzera itzultzea, *revernacularization* prozesua (Israelen bezala, demagun) eskuratzea, segurtatu eta, kale-giroko euskaldun jendearen mintzabide (konpartitu: baina nola?) bilakatu arte. Prozesu hori nekez, oso nekez, eskura liteke ahaleginak Donostian bakarrik zentratuz. Are gehiago, halako prozesu batek arnasguneak izan beharko lituzke, lehenik eta behin, bidaide eta, zenbaitetan, bide-erakusle.

1761etik 2016ra arteko bilakaera soziolinguistiko hori motela izan da oro har, abiadura-aldi bizirik ezagutu badu ere tartean. Badakigu, hizkuntza-soziologiaren aldetik, zergatik: hizkuntza bizi ororen belaunez belauneko jarraipenean hain funtsezkoa den L-eremua bere esku izan du euskarak luzaro, eta ama-hizkuntza gisa transmititzeko kaudimen-garantiak eskaini izan dizkio horrek, 1960 ingurura arte ama-hizkuntza eta lagunarteko mintzabide arrunt gisa bizirik egon den esparru fisikoetan. Baserri-giroko edo barne-moldaera industrialeko auzoetan gertatu izan da hori, bereziki Altzan, Aieten, Añorgan, Igeldon... Erdara gero eta presenteago izan arren auzo horietan ere, bizilagun gehienen artean jardungune eta harreman-sare propioak (sarri esklusiboak) izan ditu euskarak 1960 ingurura arte.

Ez nolanahiko jardungune eta harreman-sareak, gainera, gizakiok egunean-egunean esna ematen ditugun ordu gehienetan aktibo daudenak baizik. Gaur egun, aldiz, erdara indar betean sartu da jardungune horietan eta, horren ondorioz, kasurik "hoberenean" euskara erdararekin lehian sartu da bertako harreman-sareetan, edota "okerrenean" erabateko mintzaldaketa gertatu da, luze-zabal, erdara jaun eta jabe bihurtu delarik L-esparruko jardungune eta harreman-sare horietan ere, lehen (aspaldi batean) H-n bezala.

250 urte horietan gertatu den aldaketa hori bost fase nagusitan banatu dugu, kontua zertxobait argitu nahirik. Diglosia tradizionalaren irtenbide teoriko nagusiez diharduelarik, hizkuntza-soziologiak aipatzen dituen kontzeptuak eta lekuan lekuko ikersaio aplikatu askotan agertu ohi diren elementu oinarrizkoak aukeratu nahi izan ditugu atalkatze-lan horretarako.

1. Aurreneko fasean, tokiko hizkuntzak (euskarak) erabateko nagusitasuna du gizartean, L-esparruko hizkuntza gisa. Aldiz, H-esparruko hizkuntza (erdara(k)) jaun eta jabe da irakur-idatzizko zereginetan, batez ere erlijio-munduaren bibliografian eta hainbat azalpenetan, administrazioan eta, oro har, aginte-esparruko goi-mailetan. Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, biztanle gehienak euskaldun elebakar dira eta euskaraz bizi dira jaio eta hil arteko bizialdi gehienean (latinezko otoitz-errezoek eta abarrek ez dute urrezko arau hori nabarmen bestelakotzen). Aldiz, goi-mailako instantzietan diharduten edota (formazioz zein jarduera profesionalez) erdal munduarekiko kontaktu bizian dauden herritarrak nolabaiteko elebidun (edo eleaniztun) dira: euskal elebidun batzuk, erdal elebidun besteak. Joera, oro har, euskal elebitasunetik erdal elebitasunerakoa izan da gurean, Donostian alegia.

2. Bigarren fase batean, H-eremuko hizkuntza (gurean, 1761etik hona ia beti gaztelania) zabalduz joan izan da: gero eta donostiar gehiagok ikasi izan du gaztelania, *additional language* moduan hasieran, eta gainerako donostiarrekin gero eta jardungune eta harreman-sare gehiagotan aplikatu izan dute. Erdararen *language spread* luze-zabal hedatu izan da horrelakoetan, gero eta euskaldun elebakar gutxiago gelditzen zelarik Donostian, are (azkenik) baserri-giroan. Gaztelaniaren *language spread* horrek ez du, hasiera hartan eta luzaro, euskararen galgarrizko *languge shift*-ik ekarri izan. Jende gehienak euskaraz egiten jarraitzen du etxean eta familian, auzoan eta lagunarte gehienean.

3. Hirugarren fasean H-eremuko hizkuntzaren (gaztelaniaren) hizkuntza-gaitasuna (erdaraz egiten jakitea, hitzez eta, gero eta maizago, irakurriz edo idatziz) erabat zabaltzen da gizartean (*language spread* nagusitu egiten da, egungo egunean Herbehereetan, Danimarkan edo

Norvegian gertatzen denaren antzera, demagun), eta bi hizkuntzen arteko banaketa soziofuntzionala zartatzen hasten da. Ordura arte euskarari fermuki atxikitako jardungune eta harreman-sare batzuetan (lan-esparru berrituak hala indartu eta, zenbaitetan, ezinbesteko bihurturik) erdara luze-zabal gailentzen da donostiarren eguneroko jardun arruntean, *language shift* edo luze-zabaleko mintzaldaketa, zenbait kasutan euskara bere ordura arteko L-esparruko presentzia erabat baztertzera iritsi gabe.

4. Laugarren fasean osatu eta burutu egin izan da luze-zabaleko mintzaldaketa. Donostiar gehienen eguneroko mintza-harreman gehienetan (L-esparruan eta hortik gora?). Horren aitzindari eta osagarri, erdarak jaun eta jabe izaten segitzen du H-esparruko jardungune eta harreman-sare gehienetan. Egia da, ordea, zabalkunde partziala eskuratu duela euskarak irakur-idatzizko mailan. Hezkuntzak ernaldutako euskarako argitaletxe mordoxka, irrati-telebisten alorreko komunikazio-enpresa publiko eta pribatu eta ikergune soziolinguistiko hainbat, seguruenik gehienak, Donostian edo hogei bat kilometroko bere gerri-bueltan daude. Kontrako norabidean euskararen aldeko *language shift* partziala ere gertatzen ari da, hortaz, hein batean, Donostialdean. Nolanahi ere, berritasun hori arras kontuan izatekoa bada ere, oinarrizko joera ez da begien bistatik galdu behar: L-esparruko jardungune, harreman-sare, rol-harreman eta adierazpide gehienetan *euskaratik erdararanzko language shift* edo mintzaldaketa oso aurreraturik (hainbat kasutan buruturik) ageri da donostiarren artean. L-esparruan (etxean eta kalean, lanean eta jolasean, lagunartean eta gizarte-bizitzaren oinarrizko hainbat zertzeladatan) mende luzez nagusi izandako euskara eskolara oldartsu (eta Administraziora zein komunikabideetara hainbatean) eraman izanak ez du oinarrizko joera hori alderantzikatu: D eredu hutsean ikasitako donostiar gazte (eta, dagoeneko, heldu) askok erdaraz egiten du sarri, lanean eta lagunarte zabalean, baita administrazioarekiko idatzizko jarduera askotan ere. Indartsuen euskaltzale askotxoren etxean eta lagunarte hurbilenetan bizi da euskara, maizenik, Donostian. Amets izandako "normaltasun bete"ko egoera txuri-gorrietatik urruti. Beren aje guztiekin ere, dena den, hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioari bizirik eusten zaio ingurumen horietan. Maiz hala egin badugu ere gure belaunaldiak, ez da gutxiesteko helduleku, oinarri eta harrobia.

5. Bosgarren fasean, L-esparruko euskarak bere-bereak zituen jardunguneetan gaztelania hain jaun eta jabe dabilelarik, L eta H hizkuntzaz hitz egitea bera alferrikako bihurtzen ari da. Ez dago euskara-erdaren konpartimentazio soziofuntzionalik, eta, beraz, alferrikakoak dira H eta L kontzeptuak, non eta ez dugun Donostian egungo egunean ageri diren euskal alderen barne-osaerazko azterketa bariazionistarik egiten.

Egoera soziolinguistiko berria, behin eta berriz aipatu dugunez, hainbat aldetatik baikorra bada ere, XXI. mendean ikusi beharko da L-esparruko norgehiagokak zer bide hartzen duen. Euskarak azken jardungune eta mintza-esparru propioak galtzen dituen heinean, eta kale-giroko familia euskaldunenetan ere belaunez belauneko transmisioari dagozkion oinarriak aski ahulduak daudenez gizartea berrian, arrisku bizian dagoela esan liteke. Hizkuntza-plangintzaren egokitasunak, hiztunen gogoak eta gizartearen bilakaera demografikoak, ekonoteknikoak, politiko-operatiboak, psikosozialak eta soziokulturalak berekin dakartzaten ondorioak baldintzatuko dute euskararen etorkizuna, bai Donostian eta bai oro har.

Liburu honetan deskribatu dugun Donostiako bilakaera soziolinguistikoa garrantzitsua da euskararen historian. Izan ere, Erdi Arotik XIX. mendera arte euskararen galbide geoterritoriala (abiadura batez edo bestez) euskal eta erdal mintza-esparruen muga inguruetan gertatu bazen ere nagusiki, XIX. eta berezi-ki XX. mendearen hasieran (Gipuzkoari zegokionez) gertakari berri bat agertu zen: euskal mintza-esparru trinkoaren barnean erdara zabalduz joatea (Htik Lra), eta Donostia eta antzeko hirigune horiek itsaso euskalduneko erdal irla bihurtu ziren (Camus Bergareche & Gomez Seibane 2012: 2638). Gipuzkoa oso nagusiki euskalduna izanik ere, hiriburua gehienbat elebidun bihurtzen hasi zen garai horietan. Gaur egun bilakaera historiko horren isla da oraindik ere Gipuzkoan dugun egoera soziolinguistikoa. Neurriak diferenteak dira, noski, baina oraindik ere Donostia inguru geolinguistiko euskaldunagoan kokaturiko gotorleku erdaldun(ago)a da.

BIBLIOGRAFIA

Álvarez, D., Garrido, I., 2014, "Los Benesa de Fuenterrabía: un linaje de mercaderes gascones (Siglos XIII-XVII), *Hidalguía*, 363, 187-219.

Artola, M., (ed.), 2000, *Historia de Donostia-San Sebastián*. Editorial Nerea.

Artola, M ., (ed.), 2004, *Historia de Donostia-San Sebastián*. Editorial Nerea.

Askoren artean, 1960, *Geografía histórica de la lengua vasca (siglos XVI al XIX)*. Donostia: Auñamendi.

Bagüés, J., 1979, *Catálogo del antiguo archivo musical del Santuario de Aránzazu*. Donostia: Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa.

Banús Y Aguirre, J. L., 1991, "Gascones en el costalde de Guipuzcoa", *Boletín de estudios históricos sobre San Sebastián*, 25, 561-584.

Basterra, R. de, 1925, *Los Navíos de la Ilustración. Una empresa del siglo XVI-II*. Caracas: Imp. Bolívar.

Benito, J., 1994, *La enseñanza de primeras letras en Gipuzkoa (1800– 1825)*. Donostia - San Sebastián: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Bohler, S., 2020, *Où est le sens ?* Paris : Robert Laffont.

Calei-Cale [Gabilondo, E.], 1896, *A través de Iruchulo*. Donostia – San Sebastián: Jornet.

Camino, I., 2010, *Los estudios de segunda enseñanza en Guipúzcoa. El instituto provincial (1845-1901)*. Doktore tesia. https://addi.ehu.es/handle/10810/12186

Camino, J. A., 1963 [1780], *Historia civil-diplomático-eclesiástica, anciana y moderna de San Sebastián*. Donostia: Donostiako udaletxea https://www.donostia.eus/DonostiaKultura/donostiateka/handle/123456789/202

Camino J. A., 1802, "San Sebastián" in Real Academia de la Historia, *Diccionario Geográfico-Histórico de España. Sección 1: El Reyno de Navarra, Señorío de Vizcaya y provincias de Álava y Guipúzcoa*. Madrid: Vda. De Joaquín Ibarra.

Camus, B., Gómez, S., 2010, "Basque and Spanish in 19th century San Sebastián" in *Ianua. Revista Philologica Romanica*, 10, 223-239.

Camus, B., Gómez, S., 2012, "Preríodos en el proceso de castellanización de San Sebastián" in Montero, E., Manzano, C., (ed.) *Actas del VIII Congreso Internacional de Historia de la Lengua Española. Santiago de Compostela, 14-18 de septiembre 2009*. Meubook, 2637-2650.

Camus, B., Gómez, S., 2019, "Lenguas y sociolingüístics en el interior del País Vasco en el siglo XIX: testimonios del archivo Zabala" in *Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari*, 163-175.

Dávila, P., 1995, *Lengua, escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX.* Bilbo: EHU.

Dávila, P., Eizagirre, A., 1996, "Las fiestas populares y un nuevo contexto de alfabetización en euskara. El caso de Guipúzcoa (1879-1918)" in *RIEV*, 41-1, 125-140.

Dávila, P., Eizagirre, A., Fernandez, I., 1994, "Los procesos de alfabetización y escolarización en Euskal Herria, 1860-1990" in *Cuadernos de sección. Educación*, 7, 63-99. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Diario vasco, 2016-11-28, "El turismo de congresos también se dispara en Gipuzkoa".

Donostiako aldizkarien zerrenda historikoa eta hemeroteka: https://www.donostia.eus/DonostiaKultura/donostiateka/handle/123456789/36

Eguren, J. M., 1867, *Método práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas*. Gasteiz: El Semanario Católico Vasco-Navarro.

Eguren, J. M. de, 1868, *Guía-manual del lenguaje para uso de viajeros en el País Vasco*. Gasteiz: Imprenta del Seminario Católico Vasco-Navarro.

Eizagirre, J. M., 1967, "Las ordenanzas de comercio de San Sébastián en 1766" in *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 1, 79-103.

Etxezarreta, E., 2006, "Euskararen erabilera Donostiako elizbarrutian gaur egun. Euskara idatzia eta ahozko euskara". Sarean: http://www.euskonews.com/0343zbk/gaia34301eu.html#nota1

Eusko Jaurlaritza, 2011, *V. Inkesta Soziolinguistikoa*. Ondoko estekan eskuragarria: https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/V.%20Inkesta.pdf

Eusko Jaurlaritza, 2016, *Gipuzkoa. VI. Inkesta Soziolinguistikoa*. Ondoko estekan eskuragarria: https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/2016%20VI%20INK%20SOZLG%20-%20GIPUZKOA%20eus.pdf

Eusko Jaurlaritza, 2016, *VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Euskararen eremu osoa*. Ondoko estekan eskuragarria: https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/2016%20VI%20INK%20SOZLG%20-%20Euskal%20Herria%20eus.pdf

Eustat, 2011, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistika.

Eustat, 2016, http://www.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos

Eustat, 2020, http://www.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos

Eys, M. van, 1927, "Souvenirs d'un voyage dans le Pays Basque en 1866" in *RIEV*, 18-1, 111-121. http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/18/18111121.pdf

Fernández de Gobeo Díaz de Durana, N.; Quijada Van den Berghe, N., 2020, "Instrumentación ideológica en obras lingüísticas contrastivas castellano-euskera del siglo XIX y principios del XX", in B. Alonso Pascua, F. Escudero Paniagua et.al., *Lazos entre lingüística e ideología desde un enfoque historiográfico (ss. XVI-XX),* Ediciones universidad de Salamanca, 215-233. https://doi.org/10.14201/0AQ0297

Gárate Ojanguren, M. M., 1990, *La Real Compañía Guipuzcoana de Caracas*. Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.

Irixoa Cortés, I., 2012, "Atzerritarrak erdi aro amaieran. Pasaiako badiako populazioen adibidea (XIV. mende amaiera – XVI. mende hasiera)" in *BEHSS*, 45, 15-125.

Irixoa Cortés, I.; Zapirain Karrika, D., 2016, "¿Una inmigración católica a mediados del XVII? El caso de los irlandeses en la bahía de Pasaia (Gipuzkoa)". In: García Hurtado, M-R.; eta Rey Castelao, O. (arg.): *Fronteras de agua. Las ciudades portuarias y su universo cultural*. Santiago de Compostela: Universidade de Santiago de Compostela, 2016, 249-263.

Izagirre, K., 1998, *Euskararen historia txikia Donostian: 1800 / 1998*. Zarautz: Susa.

Iztueta, J. I., 1990 [1847], *Gipuzkoako probintziaren kondaira edo historia*. Donostia: Ignacio Ramon Baroja.

Jimeno Jurío, J. M., 1998, "Iglesia y euskera en Donostia (siglo XVI)" in *Vasconia*, 25, 217-242.

Jimeno Jurío, J. M., 1999, *Navarra, Gipuzkoa y el Euskera. Siglo XVIII*. Iruña: Pamiela.

Joly Charrasse, L., 2004, *Etude sociolinguistique du Pays Basque*. Thèse de doctorat, Université Paris IV-Sorbonne.

Joly Charrasse, L., 2022, C*onscient et libre dans le monde digital*. Gap: Yves Robert.

Kardaberaz, A., 1761, *Eusqueraren berri onac*. Iruña: Antonio Castilla.

Kardaberaz, A., 1971 [1723], "Relaciones del P. Cardaveraz sobre los años de su adolescencia" in *BEHSS*, 5, 290-295.

Lafont, R., 1997, *Quarante ans de sociolinguistique à la périphérie*. Paris: l'Harmattan.

Lariz, F. X. de, 1773, *Cristau dotrinaren esplicacioa*. Madril: Antonio Sancha.

Madariaga, J., 2008, *Apologistas y detractores de la lengua vasca*. Donostia: FEDHAV. [Jat. ed., 2006, Anthology of apologists and detractors of the Basque language. Reno: Center for Basque Studies, University of Nevada], Serie Humboldt 3.

Madariaga, J., 2014, *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Madariaga, J., 2020, "Euskararen egoera Tomas Zumalakarregiren garaian" in Hainbat artean, *Tomas Zumalakarregi eta bere garaia*. Iruñea: Nabarralde.

Madoz, P., 1849, *Diccionario Geográfico-estadístico-Histórico de España y sus posesiones de Ultramar*, Madrid: Imprenta del Diccionario Geográfico-estadístico-Histórico de D. Pascual Madoz, XIV alea.

Manterola, J., 1871, *Guía-manual geográfico-descriptivo de la provincia de Guipúzcoa*. Donostia-San Sebastián: José M. Arzanegui.

Mañé y Flaquer, J., 1879, *El oasis. Viaje al país de los fueros.* 2. liburukia. Bartzelona: Jaime J. Roviralta.

Martínez, G., 2010, "Documenting the past, envisioning the future: The historical sociolinguistics of Spanish in the U.S. Southwest" in Rivera-Mills & Villa 2010: 17-23.

Martinez de Isasti, L., 1850 [1625], *Compendio historial de Guipúzcoa*. Donostia-San Sebastián: I. Ramon Baroja.

Morin, E., 2005 [1990], *Introduction à la pensée complexe*. Paris: Points Seuil.

Muñoz Echabeguren, F., 2013, "San Sebastián. Bicentenario, 1813-2013" in Larrinaga, C (ed.), 2013, Donostia-San Sebastián, *1813. Historia y memoria*, 197-235.

Murugarren, L., 1987, "El uso del euskera en San Sebastián durante el siglo XIX" in *BRSBAP*, 43, 1-4, 299-312.

Ordoñez, J. de, 1963 [1761], *San Sebastián en 1761. Descripción de la Ciudad, sus monumentos, usos y costumbres, por el presbítero D. Joaquín de Ordóñez*. Donostia-San Sebastián: Gráficas Lizarra.

Ostolasa, M., 2000, *Entre religión y modernidad. Los colegios de las Congregaciones Religiosas en la construcción de la sociedad guipuzcoana contemporánea (1876-1931)*. Bilbo: EHU.

Planté, A., 1886, *San Sebastian. Notes de voyage*. Paue: Léon Ribaut.

Rilova, C., 2006, "Las palabras olvidadas. Una aproximación a nuevas fuentes para el estudio del euskera. Los archivos criminales del País Vasco (siglos XVI-XIX) in *Oihenart*, 21, 409-423.

Rilova, C., 2008, "Nuevas notas sobre el euskera olvidado" in *Oihenart*, 23, 455-466.

Roquero, M. R., 2001, "La primera guerra carlista a través de sus protagonistas. La línea de San Sebastián" in *BEHSS*, 35, 153-253.

Roquero, M. R., 2012, "La inmunidad eclesiástica en San Sebastián conflictos que suscitó en la vida de la ciudad (siglo XVIII)" in *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián,* 45, 553-584.

Sada, J., Sada, A., 1997, *San Sebastián, la historia de la ciudad a través de sus calles, plazas, montes y barrios*. Donostia: Txertoa.

Sagarna, A., 1984, "Euskara XVIII. mendean" in *Cuadernos de sección, Hizkuntza eta literatura* 3, 17-114.

San Sebastián (Ayuntamiento de la M.N. y M.L. Ciudad de San Sebastián), 1895, *Colección de documentos históricos del archivo municipal de la M.N. y M.L. Ciudad de San Sebastián*. https://patrimoniodigital.ucm.es/s/patrimonio/item/558490

Satrústegui, J M., 1983, "Epistolario vasco del siglo XVIII", *A. Seminario Julio Urquijo*, XVII, 5-24.

Satrústegui, J M., 1995, "Texto bilingüe de una canción amorosa guipuzcoana del siglo XVIII" in *FLV*, 27. urtea, 68, 37-50.

SIADECO, 2012, *Hizkuntza komunikazioaren inguruko azterketa Donostiako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimendutan*.

Soria Sese, M.L., 1992, "La función pública en el consejo de San Sebastián" in *BEHSS*, 26, 11-126.

Soziolinguistika Klusterra, 2016, http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016-_eu_1.pdf.

Soziolinguistika Klusterra, 2017, *Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa, Donostia 2016*. http://www.donostiaeuskaraz.eus/adjuntos_archivo/20182286991201772127 91Kale-neurketa2016-DonostiaTXOSTENA(1).pdf

Tellechea, J.I., 1967, "Efemerides Donostiarras" in *Boletín de estudios históricos sobre San Sebastián*, 1, 139-168.

Tellechea, J. I., 1972, "El jesuita Donostiarra Domingo Patricio Meagher" in *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 6, 227-238.

Tena, M. S., 1993, "Los Mans-Engómez el linaje dirigente de la villa de San Sebastián durante la Edad Media" in *Hispania. Revista española de historia*, 53, 185, 987-1008.

Tönnies, F., 1887 [2001], *Community and Civil Society [*Gemeinschaft und Gesellschaft]. Cambridge University Press (ed. Jose Harris).

Truchuelo, S., 2012, "Militares en el Mundo Urbano Fronterizo castellano (siglos XVI-XVII) in *Studia histórica. Historia moderna*, 34, 145-180.

Ugaldebere, T., Madina, M., Argitaratu gabe, *Donostiarrak eta Euskara. XVI–XVIII. mendeak*. Donostia: Donostiako Udala. http://www.donostiaeuskaraz.eus/adjuntos_archivo/20144299403Donostiarrak_eta_euskara,_XVI-XVIII_mendeak.pdf

Urkizu, P., 1981, "Eguerritaco cantac 1789. Urtean ezan ziranac donostiyaco erriyan" in *Oh! Euzkadi*. https://andima.armiarma.eus/euzk/euzk1411.htm

Velasco, L. de, 1879, *Los euskaros en Álava, Guipuzcoa y Vizcaya*. Bartzelona: Oliveres.

Villasante, L., 1960, "Una lista de pueblos vascongados de Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra de principios del siglo XIX" in Hainbat artean, *Geografía histórica de la lengua vasca*. Zarautz Itxaropena. http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/villasante/dokumentuak/75.pdf

Zalbide, M., 1990, "Euskal eskola, asmo zahar bide berri" in *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua (1989, Bilbo)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, I, 211-271.

Zalbide, M., 2021, "Euskaltzaindiaren ehun urteko jagon-lana: zenbait mugarri" in Euskaltzaindia, *Hizkuntza gutxiagotuak jagon, euskaraz bizi*. Bilbo: Euskaltzaindia, 25-90.

Zalbide, M., Joly, L., Gardner, N., 2015, *Euskararen Historia Soziala lantzeko eredu metodologikoa.* Bilbo: Euskaltzaindia.

Zaldua, L. M., 2011, *Urumeako zilegimendietako toponimia*. Doktore-tesia. http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Luis_Mari_Zaldua_TESIA.pdf

Zapirain, D., Mora, J. C., 2001, "Gipuzkoako espetxeak XVIII. eta XIX. mendeetan" in *Boletín de Estudios Históricos de San Sebastián*, 35, 351-363.